Marcel PROUST

(II)

GUERMANTES-KO ALDEA

Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik

I

*(Guermantes-ko dukesa)**

Xorien tiuta goiztiarra geza zizakon Françoise-ri. "Neskatoen" elhe bakoitzak jauzi egin-arazten zaukon; haien urrats guziez jenatua, hetaz galdez zagon bere baitan; alda egina baiginuen. Eiki, sehiak etziren gutiago higitzen gure lehengo egoitzako "seigarrenean"; baina ezagutzen zituen; haien harat-hunaratez adixkidetasunezko gauza batzu eginak. Ixilari ere bazemakon orai oharpen mingarri bat. Eta gure auzoalde berriak ordurano hara emana ginuen karrika handia harrabostuna zen bezain ixila iduri baitzuen, baziragan gizon baten kantuak (urrundik ere ezagutzen da, ahul denean, orkeztrako aire-zati bat bezala) nigarrak ekharr-arazten zituen herritik bahitua zagon Françoise-ren begietara. Horra zergatik, hartaz trufatua baldin banintzan, "guziez hain ontsa estimatuak ginen" etxe bat utzi behar ukanaz bihotz-erdiratua, malak nigarretan eginak baitzituen, Combray-n ohi zen bezala, gurea izana zen etxea izan zaitezkeen guziak baino hobea zela erranez, aldiz, ni gauza zaharrak errex uzten nituen bezain nekez nintzana berrier jartzen, gure sehi zaharrari hurbildu nindakon, ikusi nuenean, ezagutzen ezkinituen etxezainaren ganik haren gogoaren hazkurri oneko behar ziren ikustatezko seinaleak oraino ukanak etzituen etxe batean jartzeak, ahultzera zeraman izanara batean murgildua zuela. Hark bakarrik nindezakeen entzun; eninduen segurki mutil jantzidunak eginen; harendako, ahal den bezain guti baitzen Combray-tarra, leku berrian jartzea, bertze auzoalde batean bizitzea, bidaiatu izan baliz bezalako atseden berdina emaiten duten lanarte batzuen hartzearen idurikoak ziren; baserrian zela uste zuen; eta mafrunditze batek ekharri zaukon, berina gaizki hesten den bagon batean hartu "aire kolpe" batek bezala, herri ikusten ibilia zelako iduripen goxoa; urtzintz egiten zuen aldi oroz, loriatzen zen leku hoin "xika" hatzemanik, ainitz bidaiatzen ziren nagusi batzu nahi ukanak baitzituen betidanik. Hortako, hura gogoan ukan gabe, Françoise-ren gana joan nintzan zuzen; haren nigarrez irri egina bainuen axolagabean uzten ninduen abiatze batean, ene bihotzminaren aldera hotz-hotza agertu zen, berak ere sendi zuelakotz. Zaintsuen "sendikortasun" delakoak duten norberekoitasuna handitzen dauete; ezin dezakete bertzen aldetik jasan bere baitan gero eta gehiago oharpen emaiten daueten aldi txarren erakustea. Françoise-ek etzuelarik den arinena iragaitera uzten berak sendi zituenetan, bihotzminean baldin banintzan burua itzultzen zuen ene oinazea deitorarua zela, ez eta ohartua ere, ikusteko atsegina ukan enezan. Berdin egin zuen gure egoitza berriaz mintzatu nahi ukan nindakon orduko. Bertzela ere, bi egunen buruan utzi berria ginuen egoitzara joan behar ukanik han ahatziak ginituen jantzi batzuen bila, aldaren ondorioz "temperatura" banuelarik oraino eta, idi bat iretsi berria duen boa bat iduri, mingarriki konkortua sendi nintzalarik ene begiek lixeri etzazeketen khutxa luze batez, Françoise, emaztekien aldakortasunarekin, itzuli zen erranez gure lehengo karrika handian itho uste ukana zuela, hara heltzeko osoki "galdua" gertatua zela, nehoiz etzuela mailalde hain guti errexik ikusia, "imperio batendako" etzela han bizitzera itzuliko "miliunak" emaiten balizazko ere -

baldintza huts-hutsak - *dena* (erran nahi da sukaldea eta barne-bideak) biziki hobeki "akomeatua" zela gure etxe berrian. Bada, ordu da erraiteko han bizitzera ethorriak ginen egoitza, amatxi ez hain ontsa izanez, aire garbiago baten beharretan zelakotz - hari erraitetik ontsa begiratuak ginen arrazoina - , Guermantes-ko hotelari zagokola.

Hetara ixuria dugun ezin ezaguna guri eskainiz, Izenek egiazko leku bat erraiten daukuten aldi berean, hortarik beretik batean bertzearen ezagutzera bortxatzen gituzten adinean, hainbertzetarano nun hiri batera baigoaz eduk eztezakeen baina hetan izenetik baztertzeko ahalik eztugun arima baten bila, eztauete bakarrik hiri eta ibaier nortasun bat emaiten, alegoriazko margazkiek badagiten bezala, eztute bakarrik gauzen eremua ezperdintasunez nabartzen, miraz jendeztatzen, gizarteko eremua dute ere egiten: orduan jauregi bakoitzak, hotel ala palazio aiphatu bakoitzak badu bere anderea edo andere-aztia, oihanek bere jeinuak badituzten bezala eta urek bere jainkoak. Batzuetan, izenaren zola-zolan gordea, andere-aztia itxuraldatzen da hazten duen gure idurimeneko biziaren araura; horrela zen nitan bizi Guermantes-ko Anderearen giroa, urtez eta urtez ez izanik mirazko lanterna edo elizako berinalde baten leinurua baizik, bere margoen iraungitzen hasia, osoki bertzelako amets batzuek uhaitzen heze hauntsuaz hartu zutenean.

Andere-aztia ahultzen da bizkitartean haren izena duen egiazko jendera hurbiltzen bagira, ezen, jende hura, orduan, izenak itxuratzen hasten du eta eztaduka andere-aztiaz bertzerik jeus; hau berriz jaio daiteke jendetik urruntzen bagira; baina haren ondoan baldin bagaude, andere-aztia behin betikotz hiltzen da eta hunekin izena, hala nola Lusignan familia hark hil behar baitzuen Mélusine andere-aztia itzaliko zen egunean. Orduan Izena, haren margotaldi jarraiki guzien azpian nehoiz ezaguna ukanen eztugun andere arrotz baten iduri ederraren hastapena berraurki ahal baiginezake azkenean, ezta gehiago ezagutzazko argazki karta xoila baizik, hartara baigoaz elgar ezagutzen dugunez, diragan norbait agurtu behar dugunez ala ez jakiteko. Baina lehenagoko urte bateko sendipenak - jo zuten musikari guzien joara eta soinua badatxikaten musikako tresna grabatzale hek bezala - utz dezala gure idurimena izen horren entzuten orduan gure beharriarendako zuen doinu bereziarekin, eta iduriz aldatua ezten izen hori ere, senditzen dugu silaba berdinek bat bertzearen ondotik guretako erran nahi zituzten ametsak bata bertzetik berexten dituen urruntasuna. Ephe batez, lehengo aroberri berezi batez zuen kantu berrentzunetik, athera dezakegu, margoztatzeko baliatzen diren hodi ttipietarik bezala, ustez orhoitzen ginen egunetako doinu berexkuntza zuzena, ahatzia, mixteriozko eta frexkoa, ari ginelarik, margolari gaixtoak bezala, oihal berdin batean hedatu gure iragan guziari orhoitze nahizkoaren margo ohitu eta oro berdinen emaiten. Bada, aldiz, osatu zuten ordu bakoitzak bazerabiltzan, egite berezi bateko, harmonia bakar batean, gehiago ezagutzen eztitugun ordu hartako margoak, eta, behazunez, oraino bapatean xoratzen nautenak, baldinez, halabehar bati esker - Guermantes izenak berriz harturik ephe batendako hoinbertze urteren ondotik Percepied Andereñoaren ezkontza egunean enetako zuen doinua, egungotik hain ezperdina -, itzultzen badauta malba-kolore hain ezti hura, dirdiratuegia, berriegia, hartaz dukesa gaztearen papoko harroa, eta, berloratu berenga ezin bildu bat bezala, haren begi iguzkituak irriño urdin batean balusatzen

baitziren. Eta orduko Guermantes izena ere otzigena edo bertze gaz zenbait hartan hetsia duten balon ttipi hetarik bat bezala da: hertzera heltzen nizanean, badadukanaren jalgi-araztera, hatsa Combray-k urte hartan zuen aireaz hartzen dut, egun hartakoaz, plaza izkinako haizeak inharrosten duen elhorrixuri usain batez nahasia, euriaren aitzin-mezua, aldizka iguzkia aira-arazten zuena, sankristiko tapiza ile gorrizkoan hedatzera uzten eta moko-belar larruantze dirdiratu, abantzu gorraxta batez janztera, eta bozkarioan eztitasun hala erraiteko "wagneriar" batez, bestari hainbertze nobletasun emaiten baitauko. Baina horiek bezalako minuta bekanetarik kampo ere, hetan bapatez senditzen baitugu lehenbiziko izatasuna daldaratzen eta orai hilak diren silabetan berriz bere molde 'ta zizelduraren hartzen, izenek, hartan erabilera osoki baliagarri bat baizik eztuten biziko zirimola burzoragarrian, margo guzia galdua baldian badute ziba izkinadun lasterregi izulikatzen den eta hauts-kolorekoa badidurien batek bezala, aldiz, ametserian, gogoetan gaudelarik, nahi dugularik, iraganera itzultzeko, eremanak giren betiereko higidura ezti-arazi, geldi-arazi, ikusten ditugu berriz emeki agertzen, metan baina batzu bertzetarik osoki berex, gure bizian zehar izen ber batek eskaini zauzkun margoak.

Guermantes izen hortan zein itxura zen ene begietan moldatzen, amañoak leriatzen ninduenean *Guermantes-ko Andere Markesari loria* kantu zaharrarekin - ezpaitzakikeen, nihaurek gaurregun baino gehiago, noren ohoretan eginik izana zen - , edo, zenbait urte berantago, Guermantes-ko marexal zaharrak, ene haurzaina urguluz betetzen zuela, Champs-Elysées-etan gelditzen zenean erranez: "Zer haur ederra!" eta sakelako onondegi batetik xokoletezko pastilla bat atheratzen, hori bada eztakit. Ene haurzaro leheneko urte horiek eztira gehiago ene baitan, kampokoak zaizkit, jeus eztezaket hetaz ikas, gure sortzea baino lehenago izana denaz bezala, bertzeren erranetik baizik. Baina berantago aurkitzen ditut jarraikian, izen ber horrek nitan duen iraupenean, zazpi-zortzi itxura berezi; ederrenak hastapenekoak ziren: emeki emeki ene ametsa, leku ezin atxiki baten uztera egiak bortxaturik, apur bat hunaratago gerizatzen zen berriz, oraino gibelatzera bortxatua izan behar zuen arteo; eta, Guermantes-ko Anderearekin batean, bere egoitza aldatzen zuen, hau ere urtetik urtera ene ametseriak aldatzen zituen holako edo halako hitz entzunak ernaltzen zuen izen hortarik sortua: egoitza horrek itxuratzen zituen bere harrietan hauk hedoi edo aintzira baten gaina bezain dirdiran bilakaturik ere. Argi marra iranja kolore bat baizik etzen jaudorre loditasun gabeko batek, haren gainetik jaunak bere anderearekin menekoen biziaz ala herioaz erabakitzen baitzuen, lekua utzia zaukon - hainbertze arratsalde ederretan, aitamekin Vivonne-aren ur lasterrari jarraikitzen nindakon "Guermantes-ko aldearen" buru-buruan - lur uhaiztun horri, dukesak hor ikasten baitzautan amarrain arraintzan eta inguruneko herskunetako harresi aphalak aphaintzen zituzten lore mulko ubel eta gorraildunen izenen ezagutzen. Gero lurralde ondorezkoa izana zen, han Guermantes-tarren arraza burgoia, adinak iragaiten dituen dorre horitzera eman eta liliz aphaindu bat iduri, jadanik Frantziaren gainean goititzen ari zen eremu poetikoa, zerua hutsa zelarik oraino Paris-ko Andredona-Mariak eta Chartres-koak berantago jalgi behar zuten lekuan; Laon-go munhoaren gainean, Euriteko Arka Ararat mendiko hegian bezala, kathedraleko elizuntzia etzelarik oraino jarria, Patriarkez eta Zuzenez betea

leihoetan antsiarekin gurtuak Jainkoaren ira eztitua denez ikusteko, berekin eremanez lurrean ainiztuko diren landare motak, dorretarano badoazen aberez gainditua, handik idi batzu, hegaztegian bakean ibilki, goratik beha baitaude Xampañako ibarretara; egunaren buruan Beauvais uzten zuen bidariak etzituelarik oraino ikusten itzulikatuz hari jarraikitzen, sartaldeko oihal urrean hedaturik, kathedraleko hegal beltz adarkatuak. Guermantes hori, elhaberri bateko eremua bezala, idurimenezko eskualde bat zen nekerekin itxuratzen nuena eta haren itxuratzea are gehiago gutiziatzen, bapatez heraldikazko berezitasunez betetzen ziren egiazko lur eta bide batzuen artean, garatik bi lekoatan; auzoko herrixken izenez orhoitzen nintzan Parnasoko edo Helikongo oinean jarriak izan balire bezala, eta - leku egiturako jakintzan - mixteriozko gertakari baten sortzeko baldintza gauzazkoak bezala. Berrikusten nituen Combray-ko eliza-berinen oinharrietan margoztatuak diren harmeriak, haien laurdenkiak beteak izan baitziren, mendez mende, ala ezkontzaz ala jabetzez, etxe omendun horrek Alemaniako, Italiako eta Frantziako zoko guzietarik bere gana hegalda-araziak zituen jaurherri guziez: Ipharreko lur neurrigabeak, Hegoaldeko hiri boteredunak, Guermantes-en batzera eta moldatzera jinak eta, bere izaite egiazkoa galduz, bere jaudorre musker edo gaztelu zilharraren marrazkitzera haren zeruzko zolan. Guermantes-ko tapizeria aiphatuez mintzatzen entzuna nuen eta ikusten nituen, ertarotar eta urdin, apur bat lodi, hedoi bat bezala izen sabi-kolore 'ta leiendetakoan agertzen, Childebert ihizin hain usu ibilia zen oihan zaharraren oinean; eta lurretako azken zola mixteriozko hortan, mendetako urrun horren segeretuetan, iduri zizatan, bidaia batez bezain ongi, sartzen ahalko nintzala, Parisen ephe batez bakarrik Guermantes-ko Andereari hurbilduz, hango jabe gorena, aintzirako anderea, haren aurpegiak eta elhek ukana behar balituzte bezala zuhaztien eta ur-hegien xoragarritasun lekukoa eta haren artxiboetako ohidura bildumako berezitasun mendetako berak. Baina orduan Saint-Loup-ren ezagutza egina nuen; ikasia zautan jauregiak etzuela Guermantes izena XVII-garren mendean haren familiak erosia zuenaz geroztik baizik. Ordu arteo auzoan bizi izana zen, eta zuen "markes" lerroa etzen herrialde hortarik heldu. Guermantes-ko herrixkak izena jauregitik ukana zuen haren ondotik eraikia izanik, eta haren ikuspegien ez hausteko, gelditua zen ohizko eginbide batek manatzen zuen karriken marra eta etxen goratasuna mugatzen. Tapizeriez zen bezainbatean, Boucher-en lanak ziren, Guermantes ezagule batek XIX-garren mendean erosiak, eta berak margotuak zituen ihizi-taula bierarteko batzuen ondoan, andrinoplaz eta ilainkiz oihaleztatu saloin biziki itsusi batean ezarriak. Agerpen horien bidez, Saint-Loup-ek sartuak zituen jauregian Guermantes-ko izenari arrotzak zizazkon gauzak, eraikuntzetako hargintzaren egitura etzela silaben soinutik baizik ondorioztatzen uste ukaitera jarraikitzen ezpaininduten utzi. Orduan izen horren zolan, jauregia, bere aintziran itxuratua, ezabatua izan zen; eta Guermantes-ko Anderearen inguruan haren egoitza bezala agertua zizatana, haren Parisko hotela izan zen, Guermantes-ko hotela, bere izena bezain garbirik, gauzazko gai ilunik batere ezpaitzizakon argiaren haustera ez itzaltzera jiten. Elizak bakarrik temploa erran nahi eztuen bezala, baina fededunen bilzarrea, Guermantes-ko hotel horrek bazaduzkan dukesaren bizian barne zirenak oro, baina nehoiz

ikusiak enituen etxeko horiek etziren enetako izen aiphatu poetiko batzu baizik, eta, hek ere izen batzu baizik etziren jendeak bainituen bakarrik ezagutzen, etzuten dukesaren mixterioaren handitzea eta gerizatzea baizik egiten haren inguruan hedatuz gehien-gehienik ahulduz zoan lanho arin bat.

Emaiten zituen bestetan, gomitatuer ezpainauen gorputzik batere asmatzen, muxtatxik batere, botinarik batere, arrunta zen erranaldirik batere, edo ere ohi ez bezalakoa zenik ara gizatar arrazoinezko batean, izen zirimola horrek mamu aphairu batek edo izexa bilkura batek eginen zuen baino gauza gutiago ezarriz Saxe-ko porzelanazko gizaiduri ttipi bat zen Guermantes-ko Anderearen inguruan, bazemakon haren hotel berinazkoari aitzindegi baten argaltasuna. Gero Saint-Loup-ek erranak ukan zauztanean kaperaria, andere gusiaren baratzezainak hunkitzen zituzten ixtorio batzu, Guermantes-ko hotela - lehenago Louvre-a izana zatekeen bezala - halako jauregi bat bilakatua zen, Pariseren barnean berean, ondoretasunezko bere lurrez inguratua, zuzenbide zahar bitxiki irauna zuen baten indarrez, lege berezi feodal batzuen menpeko baitzaduzkan oraino. Baina azken egoitza hori ere ezabatua zen Villeparisis-ko Andereari hurbil-hurbila bizitzera ethorriak izan ginenean, Guermantes-ko Anderearenarekin auzo zen bizitegietarik batera, haren hotelaren hegal batean. Behar bada oraino ere badiren bezalako egoitza zaharretarik bat zen, hetan ohorezko korroilak - ala demokraziaren uhainak igaitean ekharri ongailu, ala ofizio guziak jaunaren inguruan bildurik zauden aitzinagoko aroen ondore - ainitzetan baitzituen bazterretan gibel-saldegi, landegi, berdin ere oinetako antolatzaletegi edo jostundegi zenbait, injinadoren ezthetikak garbitu eztituen kathedraletara sahetsez emanak ikusten direnak bezalakoa, etxezain zapatagin bat oilo hazten eta lili landatzen; eta barrenean, "hotel" egiten zuen egoitzan, "kondesa" batek, bi zaldietako bere kalexa zaharrean atheratzen zenean, xapelelan erakutsiz etxezainaren baratze ttipitik ihes eginak iduri zuten bi amatxi-lore - ondoan zuela mutil jantzi bat, auzoko hotel arixtokrata bakoitzean ikustaldizko karta baten plegatzera jausten zena - , berexkuntzarik egin gabe igortzen zituen inguruan irriño batzu eta eskuaz agur batzu athezainaren haurrer eta ordu hartan iragaiten ziren etxeko alokari burjeser, nahasten zituela bere gixakotasun erdainarian eta urgulu berdintzalean.

Bizitzera ethorriak ginen etxean, korroila barreneko anderea dukesa bat zen, aphaina eta oraino gaztea, Guermantes-ko Anderea; eta Françoise-ri esker, hotelaz xehetasun batzu ukan nituen aski laster. Ezen Guermantes-tarrak (Françoise-ek usu *azpikoak, beherekoak* hitzetarik izendatzen zituenak) haren betiko axola ziren amaren orraztatzen ari zen batean goizetik - begi ukhaldi debekatu, ezin atxiki eta gordekako bat emanez korroilara, baziolarik: "Oizu, bi serora; *azpira* doaz segurki" edo "Oi! zer faizant ederrak sukaldeko leihoan, nundik heldu diren ezta galdegin behar, dukea ihizin izana date" -, arratserano, orduan, eni gauazko gauzen emaiten ari zen batean, piano harrabots bat entzuten bazuen, kantu baten oiharzuna, baitzion hortarik: "Jendea badute *beherean*, airosera da"; haren aurpegi berdinean, ile orai zurien azpian, gaztaroko irriño bizi onest batek ezartzen zaukon orduan begitarteko marra bakoitza bere lekuan, guziak elgarrekin ordenu adelatu xorrotx batean akomeatzen, kontra-jantza baten hasteko bezala.

Baina Françoise-ren axola bizienean sustatzen zuen Guermantes-tarren biziko unea, gehienik askiesten zuena eta ere gehienik min egiten zaukona, zen bereziki, athe handia bi aldetara idekirik, dukesa bere kalexara igaiten zen hura. Nehork hautsi behar eztuen halako bazko-bestaburu haren, barazkaria diotenaren ospatzea gure sehiek bururatu eta ephe guti barne gertatzen zen ohiki, orduan hain baitziren "tabu" nun aitak berak ezpaitzuen xilintxaz haien deitzeko dretxoa hartuko, jakinez bat etzela lehen ukaldian baino gehiago borzkarrenean higituko, eta horrela behargabe hori osoki auherretan eginen zuela, baina ez berarendako damurik gabe. Ezen Françoise-ek (emazte xahartua zenetik, edozein estakuruko, dioten bezala "mutur" egiten baitzuen) huts egin gabe eskainiko zaukon egun guzian begitarte bat izkinarako marka ttipi gorri batzuez estalia, kampora hedatzen zitutela, baina molde guti argigarri batean, bere arranguren zerrenda luzea eta samurgoaren arrazoin barnatuak. Agertzen zituen ere, baina bazterka, guk hitzak ontsa berexi ahal gabe. Hori deitzen zuen - guretako etsigarri, gaitzigarri, laidagarri uste zuena - egun "saindu" guzian guri "meza ixil" erraitea.

Azken urratsak bururaturik, Françoise-ek, aldi berean meza kantaria eta fededunetarik bat baitzen, hastapeneko elizan bezala, azken baso-arno bat hartzen zuen, oihala lephotik ekhentzen, plegatzen ezpainetan ur gorritu eta kafe ondar bat garbituz, biribil batean sartzen, begi mindun batez "bere" mutil jantzi gaztea eskertzen, hunek baziola gartsutasunaren erakusteko: "Hea, anderea, harrazu oraino mahats apur bat; hauta da", eta bazoan berehala leihoaren idekitzera "sukalde miseraule" hartan beroegi zelako estakuru. Leiho hestekoa itzultzen zuen batean eta hatsa hartzen, trebeki begi ukaldi axolagabe bat igorriz korroilaren zolara, handik ebaska hartzen zuen dukesa oraino atheraia etzelako segurtasuna, bere so erdainari eta suharraz karrosa atelatuari ephe batez beha egoiten zen, eta, lurreko gauzer oharraldi emanik begiak zerura goititzen zituen aitzinetik haren garbia asmaturik airearen eztian eta iguzkiaren beroan; hegaztegi izkinara behatzen zuen, han, aroberri guziez, haren gambarako khebidearen gainean zuzen, jiten baitziren ohantze egitera Combray-ko sukaldean urrungan artzen zirenak bezalako urzoak.

- Ha! Combray, Combray, zion. (Eta dei horren goratik edasteko zuen doinu abantzu kantatuak aieru eman zezakeen, haren begitartearen garbi arlesiarrak bezainbat, ethorkia eguerdialdean zuela, eta hartaz urriki zuen aberria etzela hartzezko aberri bat baizik. Baina hortan behar bada huts eginen zen, ezpaita iduri badela bere "eguerdialdea" eztuen herrialderik, eta zenbat Saboiar eta Bretoin ezta aurkitzen iguzkialdetarrak ezagun-arazten dituzten hizki labur eta luzen aldakuntzak hetan edireiten denik!) Ha! Combray, noiz ikusiren haut, lur maitea. Noiz dut egun saindu guzia iragan ahalko hire elhorrixurien eta lila gaixoen azpian negu-xorien entzuten eta ahapetik mintza lizatekeen norbaitek bezala murmurikan ari den Vivonne-aren, gure nagusi gaztearen xilintxa miseraule horren entzuteko orde, oren-erdi bat ezpaitagoke artebide debruzko horren luzean eni laster egin-arazi gabe. Eta oraino etzako aski zalu noala iduritzen, hark jo baino lehen entzuna behar lizateke, eta minuta batez berantzen baduzu, kolera izigarri batzuetan "sartzen" da. Ondikotz! Combray gaixoa! ehaut behar bada hil eta baizik ikusiko, harri bat bezala hobi zilora botako nautenean. Orduan, eztitiat gehiago sendituko, hire elhorri xuri-

xuri ederrak. Baina herioko loan, uste diat oraino entzun behar ditiatala bizian jadanik danatua nauten hirur xilintxa ukaldi horiek.

Baina korroilako barneko-motx egilearen deiez moztua zen, lehenago ene amatxiri hainbat gustatua zizakon harenek Villeparisis-ko Anderearen ikustera joana zen egunean, eta Françoise-ren atxikimenduan lerro gutiago gora etzadukanarenek. Gure leihoaren idekitzen entzutean burua goititurik, bazen jadanik ephe bat auzoaren oharpena bildu nahitan zela hari egun onaren erraiteko. Françoise izana zen nexkato gaztearen aphaintasunak xorroxten zuen orduan Jupien Jaunarendako gure kozinersa zaharraren begitarte marmarari adinak, omore gaixtoak eta furnegoaren beroak phizutua, eta begirune, etxekotasun eta herabe nahaste gozagarri batekin zaukon barnekomotx egileari agur garaziadun bat igortzen, baina mintzoaz ihardetsi gabe, ezen amaren gomendioak hausten bazituen korroilara behatuz, etzen leihotik mintzatzerano haien kontra joaitera ausartuko, horrek baitzuen, Françoise-ek zionaz, etxekanderearen ganik "kapitulu oso" baten ukaiteko dohaina. Kalexa atelatua erakusten zaukon iduri erraiten zuela: "Zaldi ederrak, he!", "ze zaldi estali tzarra" murmurikatzen zuen batean, baitzakien ere ihardetsiko zaukola, eskua aho aitzinean ezarriz entzuna ez izaiteko: "*Zuek* ere ukan zinezazkete nahi bazinute, eta horiek baino gehiago behar bada, baina hori guzia eztuzue maite."

Eta Françoise-ek, jestu xume, iheskor eta loriatu bat eginik, erran nahi baitzuen nunbait han: "Bakotxak bere modu; hemen lañotasuna da", leihoa berriz hesten zuen ama ethor beldurrez. Guermantes-tarrek baino zaldi gehiago ukan zezaketen *zuek* horiek, gu ginen, baina Jupien-ek arrazoin zuen "zuek" erranez, ezen, nork bere amodio hutsezko ezpazen (hala nola, ethengabe eztulka ari zenean eta etxe guzia haren marranta har beldurrean, baziolarik irri-karkara khexagarri batekin etzela marranta), osoki harekin bat egiten duten landareak hazten dituen ihizi hek iduri, berak haiendako hatzemaiten, jaten, lijeritzen dituen janariez hazten baititu eta gero bere azken ondarkin osoki baliagarrian eskaintzen baiteztaue, Françoise gurekilako elgartasunean bizi zen; guk ginuen, gure bertutekin, fortunarekin, bizimolde 'ta gizarteko lerroarekin, gure gain hartu behar haren biziko atsegin baitezpadakoa hetaz egina zen bere alderako amodiozko satifamendu ttipien moldatzea - gaineratuz ohidura zaharraren araura barazkariko ofizioaren libroki egiteko zuzenbide aithortua, eta bururatua zenean leihotik aire hurrupañoaren hartzea, karrikan ibilaldi auher zenbait erosketen egiterakoan, eta atheraldi bat igandetan bere ilobaren ikustera joaiteko.

Gogoan hartzen da horrela Françoise ahuldu ahal izana zela lehenbiziko egunetan, - aitaren ohorezko aiphamenak oraino ezagunak etziren etxe batean - berak "enhegua" zeritzon gaitz batek harturik: enhegua Corneille-ren baitan duen erran-nahi azkarrean, edo bere ezkongaiaz, sort-herriaz "enhegua" dutelakotz azkenean bere buruaz egiten duten soldado batzuen lumapean. Françoise-ren enhegua laster sendaturik izana zen hain zuzen Jupien-i esker, eman baitzaukon berehala karrosa baten ukaitera deliberatuak izan bagine ukanen zuen bezain atsegin bizi eta xorrotxa. "Ontsa jende onak, Julien horiek (Françoise-ek hitz berriak jadanik ezagutzen zituenetara gogotik biltzen zituelakotz), ontsa jende gozoak, eta

badakarte begitartean." Jupien-ek alabaina jakin zuen guzier harr-arazten eta ikasten zaldi-karrosarik ezpaginuen, nahi ezkituelakotz zela.

Françoise-ren adixkide hori etxean guti bizi zen, minixterio batean langile kargu bat ukanik. Lehenik barneko-motx egile izana amatxik haren alabatzat hartua zuen "nexka"-rekin, ofizio hortako abantail guzia galdua zuen, nexkatoa, oraino abantzu haurra, zaia baten biziki ontsa josten baitzakien jadanik amatxi izan zenean Villeparisis-ko Anderearen etxean ikustaldi baten egiten, emaztendako josturara emana izan zenean eta zaia egilea bilakatua. Lehenik "esku ttipi" dendari baten etxean, pundu zenbaiten egiten erabilia, botoin baten edo "prezione" baten josten, gerri inguru baten zuzentzen kortxet batzuez, laster bigarren josle bilakatua zen, gero lehen, eta mundu hobereneko andere erosleria bat egina zuen. Lanean etxean ari zen, erran nahi da gure korroilan, gehienetan aprendiz bezala zerabiltzan landegiko bere lagun ttipietarik bat edo biekin. Ordutik Jupien-en han izaitea gutiago baliagarri izana zen. Segurki nexkatoak behar zituen oraino ainitzetan barneko motxak egin. Baina bere lagunekin nehoren beharrik etzuen. Beraz Jupien-ek, haren osabak, kargu bat eskatua zuen. Lehenik eguerdiko sartzera libro izana zen, gero, laguntzen baizik etzuenaren lekua ukanik, ez auhal-ordua baino lehen. "Titularizatzea" etzizakon beharrik egin zenbait aste gure etxesartzearen ondoan baizik, hala nola nun Jupien-en gixakotasuna aski luzaz baliatu ahal baitzen Françoise-ek lehenbiziko demborak oinaze sobera gabe iragan ahal zitzan. Bertzela ere, "arte sendagailu" bezala Françoise-rendako ukan zuen gaitasuna onhartuz, Jupien etzizatala lehenbizian gustatu aithortu behar dut. Zenbait urratsetan ikusiz, haren matela lodiek eta larruantze gorri-lilituak, so urrikari, lastimatu eta amesle batek gainditzen zituen begiek, biziki eri zela sinestera emaiten zuten edo dolu handi batez joa. Horrelakorik jeus ez izaitearen gainera, mintzo zen orduko, bertzela ere biziki ontsa, hotz eta arrallari zen izaitekotz. Iduri zuen jende guzia jantzi handitan den arratsaldi batean maripulisarekilako gomit bat bezain jenatua sendi zela, edo Goientasun bati nola mintzatu behar den zuzen eztakien bat eta erranaldiak abantzu jeusetara moztuz nekea baztertzen duen bat. Jupien-enak - erkidatze huts hori utzirik - xoratzekoak ziren aldiz. Begiez begitartearen gainditze horri emanak behar bada (ezagutuzen zenean hortaz ezpaitzen axolatzen), laster ohartu nintzan, alabaina, haren baitan zen adimendu arraroari eta ezagutzea gertatu zatan jitez literaturakoenari, erran nahi da, arauez kulturarik gabe, bazituela edo bilduak zituela, lasterrez ikuskatu liburu zenbaiten laguntzarekin, hizkuntzako erranara antzetsuenak. Ezagunak nituen jende dohatuenak gazte-gazterik hilak ziren. Uste nuen beraz Jupien-en bizia laster bururatuko zela. Bazituen onezia, urrikalmendua, sendimendu xorrotxenak eta emankorrenak.

Jupien-ek Françoise-ren bizian ukana zuen egitekoa laster baitezpadakoa izaitetik gelditua zen. Hark bezala egiten ikasia zuen. Hornitzale bat edo mutil bat paketa zenbaiten ekhartzera jiten zenean ere, hura gogoan zagola batere iduri etzuen batean eta itxura axolagabean hari kadera bat erakutsiz bera lanean jarraikitzen zen bitartean, Françoise hain trebeki zen hark amaren ihardespena igurikatuz sukaldean zeramatzan artez baliatzen, nun biziki bekan baitzen hura abia zadin bere baitan ezin ezabatuki hartua ukan gabe "gauza hartarik ezpaginuen, nahi

ezkinuelakotz zela"-ko segurtamena. Hainbat nahi baldin bazuen jendeak jakin zezan "diruz" baginuela (ezpaitzakien "partitiboa" dioten atzizkien erabiltzen eta erraiten baitzuen "diruz ukaitea", "urez ekhartzea"), aberats ginela, etzen aberastasun hutsa, bertute gabeko aberastasuna ontasun goiena zelakotz Françoise-ren begietan, baina bertutea aberastasunik gabe etzizakon ere orotako hoberena. Aberastasuna harendako baitezpada beharrezkoa zen, hura gabe bertutea mereximendurik eta lilluratzekorik gabea izane zen. Hain guti zituen berexten nun jina baitzen azkenean bakoitzari bertzeak zituen gaitasunen emaitera, bertutean gozagarri zerbaiten nahi ukaitera, aberastasunean zerbait oneragarrien ezagutzera.

Leihoa behin hetsi eta, aski lehian (bertzela amak "asma daitezkeen laido guziak erranen zauzkon" omen) Françoise hasten zen hasperenka sukaldeko mahiaren garbiki ezartzen.

- Badira Guermantes-tar batzu "de la Chaise" karrikan bizi direnak, zion gambarako mutilak, han lan egina zuen adixkide bat banuen; haien etxean bigarren karrosazain zen. Eta norbait ezagutzen dut, ez ene laguna hura, baina suhia, erreximendua Guermantes-ko baroinaren zakurzainarekin egina zuena. "Eta guziaren ondotik, zoazte bada, ezta ene aita!" gaineratzen zuen gambarako mutilak ohidura baitzuen, urteko leloak ahapeka kantatzen zituen batean, bere solasen artetik elhe jostakin batzuen sartzeko.

Françoise, emazte jadanik adineratu baten begietako akhidurarekin eta hala ere Combray-ko guzia ikusten zutenarekin, ohartu zen ez hitz horietan zen irri solasari, baina bat bazuketela, ezpaitziren ondoko solasari arautuak, eta indarrekin eman izanak baitziren trufaria zela bazakien batez. Horra zergatik irriño bat egin zuen itxura ongi-nahi eta lilluratu batean erran ukan balu bezala: "Bitor hori, beti bera!" Zorionean zen bertzela ere, baitzakien molde hortako atheraldien entzutea urrundik mundu guzietan lotzen dela gizarteko atsegin onestekin, hauendako aphaintzera lehiatzen baita, hoztua izaiteko irriskua hartuz. Azkenik uste zuen gambarako mutila adixkide zuela, Errepublikak aphezeriaren kontra eginen zituen lege izigarrien suminki salatzetik ezpaitzen gelditzen. Françoise-ek etzuen oraino hartua gure etsai bortitzenak eztirela guri kontra-erraiten ari direnak eta zerbait sinets-arazi nahi daukutenak, baina lastimatzen ahal gituzten berriak hantzen edo asmatzen dituztenak, gure atsekabea ttipi lezakeen arrazoin onezko itxura duen zerbait, eta, gure oinaze osoko, aldi berean beldurgarria eta irabazlea erakutsi nahi daukuten alderdi batendako behar bada estimu arin bat eman lezagukeen zerbait horier emaitetik ontsa begiratuz.

- Dukesa ahaidegoan dateke horrekin guziarekin, erran zuen Françoise-ek solasaldia "de la Chaise" karrikako Guermantes-etan berriz hartuz, musika bat "andante"-an berriz hasten den bezala. Eztakit gehiago nork erran dautan horietarik batek gusi bat dukearekin ezkondua zuela. Hasteko jendakia beretik dira. Familia handia dira Guermantes-tarrak! gaineratzen zuen errespeturekin, familia horren handitasuna jartzen zuela aldi berean egiten zutenen ainitzean eta zuen aiphamenaren ospean, Pascal-ek Erlisionearen egia Arrazoinean eta Izkirio sainduen nagusigoan egiten zuen bezala. Ezen, "handi" hitz bakar hori baizik

ezpaitzuen bi gauzendako, biek bat egiten zutela iduri zizakon, haren hiztegiak, harri batzuek bezala, baitzuen guneka gogorano itzal bat igortzen zaukon akatsa.

- Banago hea eztirenez "hek berak" jauregia Guermantes-en dutenak, Combray-tik hamar lekoatan, beraz jendakian datezke ere Aljerko gusiarekin. (Ama eta biak luzaz egon ginen Aljerko gusi hori nor izan zaitekeen galdeka, baina hartu ginuen azkenean Françoise-ek Aljer izenetik "Angers" hiria erran nahi zuela. Urrun dena hurbila baino ezagunago izaiten ahal zaiku. Françoise Aljeren izena baitzakien urthatsez ukaiten ginituen data itsusi txar batzuen gatik, Angers-ena etzakien. Haren hizkuntza, frantzesa bera bezala, eta bereziki leku-izenak, hutsez betea zen.) Nahi nuen hortaz haren mahi-nagusiarekin mintzatu… Nola erraiten zako ere? egin zuen geldituz, eta berak ihardetsi zuen: "Ha ba! Antoine zako erraiten", Antoine lerro-izen bat izana baliz bezala. "Hark zautan erraiten ahalko, baina egiazko jaun bat da, phutz-untzi handi bat, iduri du mihia moztua daukotela edo mintzatzen ikastea ahatzia duela. Mintzatzen zakonean eztautzu ihardespenik egiten", gaineratzen zuen Françoise-ek, "ihardespen egitea" erraiten baitzuen Sévigné-ko Andereak bezala. "Baina, egin zuen gainera zintzotasunik gabe, ene dupinan egosten zer ari den badakitanaz geroz, bertzerenaz eniz axolatzen. Zer nahi den, hori guzia ezta katholikoa. Eta gero ezta gizon kuriaduna (estimu gabe horrek sinets-arazten ahalko zuen Françoise kuraiari doakonean aburuz aldatua zela, ezen kuraiak Combray-n, haren ustez, gizonak abren heinera jausten zituen, baina etzen holakorik. "Kuraidunak" erran nahi zuen bakarrik "langilea"). Badiote ere pika bezain ohoina dela, baina eztira beti erran-merranak sinetsi behar. Hemen lana duten guziak joaiten dira, athezaindegia dela kausa, athezainak jelos baitira eta Dukesari burua muntatzen. Baina erran daiteke zinezko auher bat dela Antoine hori, eta haren "Antoinetsa"-k eztu gehiago balio", gaineratzen zuen Françoise-ek, mahi-nagusiaren emaztea izenda zezan hitz eme baten hatzemaiteko Antoine izenari, baitzukeen bere gramatikazko asmakuntzan "kalonja" eta "kalonjesa" hitzen ohartugabeko orhoitzapen zenbait. Hortan etzen gaizki mintzo. Oraino bada Andredona-Maria-ko ondoan "karrika Kalonjesa" deritzoten karrika bat, izena emana ukan baitzaukoten, kalonjesa batzu han bizi zirelakotz, Françoise, zinez, haien arokidea zen lehenagoko Frantzesek. Bazen ere, berehala gero, hitz emen moldatzeko ara horren behazun berri bat, Françoise-ek gaineratzen baitzuen: "Baina segur baino segurrago Guermantes-ko jauregia Dukesarena dela. Hura baita herrian andere alkatesa. Zerbait da hori.

- Zerbait dela hartzen dut, zion mahi-nagusiak sinespenik gabe, erkaitza ez senditurik.

- Uste duka, mutikoa, zerbait dela? baina hek bezalako jendendako, alkate eta alkatesa izaitea jeus eta jeus duk. Ha! enea baliz Guermantes-ko jauregia, enindezaketek usu ikus Parisen. Behar dea hala ere nagusi batzuek, Jaun-Andereak bezala dirudunak diren jende batzuek, gogoan ideiak ukan ditzaten hiri miseraule huntan egoiteko Combray-ra joan orde, nahi dutenaren egiteko libro diren orduko eta nehork ez atxikitzen. Erretretaren hartzeko zer igurikatzen dute jeusen faltarik eztutenaz geroz; hilak izaitea? Ha! banu bederen jateko ogi idorretik eta neguan berotzeko egurra, badu aspaldi anaiaren etxe gaixoan ninzatekeela Combray-n. Han

bizi dela sendi da bederen, begien aitzinean eztira etxe horiek guziak; hain harrabots guti da nun igelak entzuten baitira kantatzen bi lekoa urrunagotik.

- Zinez ederra izan behar da, anderea, egiten zuen mutil gazteak suhartasunekin, azken gauza hori Venezian gondoletan ibiltzea bezain berezia izan baliz bezala.

Bertzela ere, etxean gambarako mutila baino berrikiago sartua, Françoise-ri mintzatzen zizakon ez berari, baina hari gusta zakizkioketen gauzez. Eta Françoise-ek, sino egiten zuena kozinersa erraiten zizakon aldi oroz, bazuen hartaz mintzo zenean "gobernanta" erraiten zuen mutil jantziarendako ongi-nahi bat, bigarren lerroko printze batzuek sendi duten hura bera Goientasun-tik emaiten daueten gizon gazte xede oneko batzuen aldera.

- Han bederen batek badaki zer ari den eta zein sasoinetan bizi. Ezta hemen bezala urre-lore txar bat ezpaita izanen Bazko sainduan Eguberrin baino gehiago, eta ezpaitut ene hezurreria zaharra goititzen dutanean anjelus ttipi bat ere hautemaiten. Han oren bakoitza etzuten da, ezkila txar bat baizik ezta, baina badiok heure baitan: "Horra anaia alhorretarik sartzen", badakusak eguna beheiti ari, lurreko ontasunendako joiten die, argia phiztu baino lehen baduk itzultzeko astia. Hemen izan dadin eguna izan dadin gaua, etzatera joaiten duk zer egin den aberek baino gehiago jakin gabe.

- Méséglise ere ontsa pollita omen da, anderea, hausten zuen mutil jantzi gazteak, haren gostuko solasak itzuli apur bat bereziegia hartzen ari baitzuen eta ustegabean orhoit baitzen mahian Méséglise-ez mintzatzen entzunak ginituela.

- Oi! Méséglise, zion Françoise-ek Méséglise, Combray, Tansonville izen horien erraiteak haren ezpainetara beti ekhartzen zuen irriño zabal batekin. Hainbat ziren haren bizian berean sartuak nun kampoan aurkitzen zituenean, solasaldi batean entzuten, alaitasun bat sendi baitzuen erakasle batek bere ikasletan phizten duenari aski hurbila, haren izena ehoiz ere kathedra gainetik eror zaitekeela uste ukanen etzuten aro hartako norbait aipatzen duenean. Haren atsegina heldu zen ere herri horiek harendako bertzerendako etziren zerbait izaitetik, haiekin jokaldi batzu egin daitezkeen lagun zahar batzu; eta haier irriñotan zagon izpiritua aurkitzen balaue bezala, hetan beretik ainitz aurkitzen zuelakotz.

- Bai, hori erran dezakek, haurra, Méséglise aski pollita duk, egiten zuen berriz irriño xorrotx batean; baina nolaz duk aiphatzen entzun, hik, Méséglise?

- Nola dutan Méséglise aiphatzen entzun? baina ontsa ezaguna da; aiphaturik izana zata eta ere ainitz aldiz, ihardesten zuen berri emailen zuzengabetasun gaixto harekin, hunkitzen gituen gauza batek bertzendako ukan dezakeen balioaz zuzenki ohartzea bilatzen dugun aldi oroz, hortara heltzeko ezinean ezartzen baigituzte.

- Ha! erraiten dautzut han gerezipean egoitea furneuaren ondoan baino hobe dela.

Eulaliaz ere mintzo zizaien jende on batez bezala. Ezen Eulalia hila zenaz geroztik, Françoise-ek osoki ahatzia zuen bizian guti maitatua zuela, etxean jatekorik jeus etzuen jende oro guti maite zuen bezala, "gosez hila" zagonean eta gero jiten, jeusetako on ezten bat bezala, aberatsen oneziari esker, "fazoin egitera". Etzen gehiago oinazkatua Eulaliak hain ontsa jakina ukan zezan aste oroz ene

izabaren ganik "sos baten eman-arazten". Françoise etzen hunen laudorioen egitetik gelditzen.

- Baina Combray-n berean zinezten orduan, Anderearen gusi baten etxean? geldegiten zuen mutil gazteak.

- Ba, Andere Octave-ren etxean, han beti baitzen behar denetik, eta ederretik eta onetik, emazte on bat, erran daiteke, urrikirik etzuena ez epherrez, ez faizantez, ez eta jeusez, auhaltzera ethor baitzinidaizkieten bortz, ala sei, ezpaitzen haragia eskasten, eta hautukoenetik, eta arno zuria, eta arno gorria, behar zen guzia. a(Françoise-ek "urriki ukaitea" bazerabilan La Bruyère-ren erran-nahi berean.) Gastu guzia beti haren gain zen, familia egonik ere ilabeteak eta urteak. ("Gastu" hitzak damugarririk jeus etzuen, Françoise-ren erran-molde hori justiziako estiloko berezia etzen adin batekoa baitzen). Ha! hitzemaiten dautzuet, etzela handik gosearekin abiatzen. Jaun erretorak hainbat aldiz oharrarazirik ukana daukun bezala, emazte bat baldin bada Jainko onaren ondora joaiteari egon daitekeena, segur baino segurrago hura dela. Gaixo Etxekanderea, oraino entzuten dut bere mintzo ttipiarekin eni erraiten: "Françoise, badakizu, nik eztut jaten, baina nahi dut jaten banu bezain ona izan dadin denendako." Segurki etzela harendako. Ikusiko zinuten, etzuen gerezi mulko batek baino gehiago phizu; jeus etzen. Eninduen sinetsi nahi, nehoiz etzuen medikuaren ikustera joan nahi. Ha! Etzen hura zerbait tarrapatan janen zen lekua. Nahi zuen sehiak ontsa haziak izan zaiten. Hemen oraino goiz huntan eztugu ahamen baten ere hartzeko astia ukan. Dena ebaska egiten da.

Oroz gainetik khexu-khexu zen aitak jaten zituen ogi bizkotez. Zinez uste zuen fazoin egiteko ari zela eta hari laster egin-arazteko. "Erran dezaket, baiesten zuen mutil gazteak, holakorik sekulan ere eztutala ikusi!" Hori erraiten zuen oro ikusia balu bezala eta haren baitan mila urtetako jakintza baten erakaspenak herri guzietara eta haien ohiduretara hedatzen balire bezala, hautan ehon ezpaitzen agertzen ogi xigortuaren erabiltzekoa. "Bai, bai, zion marmarikan mahi-nagusiak, baina hori guzia alda laiteke, langilek Kanadan lan gelditze bat egin behar dute eta minixtroak errana dauko joan den arratsean Jaunari berrehun mila libera ukanak dituela hortako." Horren gatik mahi-nagusia hartaz gaitzerraitetik urrun zen, ez bera etzelakotz osoki zuzena, baina politikako gizon guziak ustelak zaduzkalakotz, ohoinkeriazko gaizkia ebasterik ttipiena baino gutiago larria baitzizakon. Etzuen bere baitan galdegiten ere ixtorioko hitz hori ontsa entzuna zuenez, eta ogendunak berak aitari, hunek kampora haizatua ukan gabe, errana zaukolako itxuragabea etzuen senditzen. Baina Combray-ko filosofiak etzuen Françoise uzten Kanadako lan gelditzek bizkoten erabiltzean eraginik ukan zezaketela sinestera. "Mundua mundu izanen deno, badakusazue, zion, nagusiak izanen dira mutil-nekatoer trosta egin-arazteko eta mutil-neskatoak hek burutaldiz nahi dutenen egiteko." Betiereko trosta horren theoria izana gatik, oren laurdun bat bazen amak, ezpaitzatekeen Françoise-ek zerabiltzan neurri berez baliatzen barazkariko luzetasunaren estimatzeko, baziola: "Baina zer ari ahal dira bada, horra bi oren iraganik mahian direla." Eta herabeki joiten zuen hirurzpalaur aldiz. Françoise-ek, haren mutil jantziak, mahi-nagusiak xilintxa ukaldiak entzuten zituzten, ez dei bat bezala, ez jin behar zutela gogoan hartuz, baina elgar zuzentzen ari diren musikarien lehenbiziko

soinuak bezala musikaldi bat hastera doanean eta egintzarteko minuta zenbait baizik eztela geldituko sendi denean. Hortakotz, ukaldiak errepikatzen hasten zirenean eta hisiagotzen, gure sehiak guardi emaiten hasten ziren eta, aitzinean astirik ainitz etzutela gogoari emanez eta berriz lanera joaitea hurbil, hasperen bat egiten zuten eta, deliberoa hartuz, mutil jantzia jausten zen zigarreta baten erretzera athe aitzinean, Françoise, gutaz ohar batzu egin ondoan, hala nola "nihun ezin egona dukete", bazoan seigarrenera bere gauzen altxatzera, eta mahi-nagusiak eskutitz paper bila izanik ene gambaran, egiten zuen lasterrez bere kurrier berezia.

Haien mahi-nagusiaren itxura burgoitasunezkoa izana gatik, Françoise-ek ikasi ahal ukan zautan, lehenbiziko egunetan beretan, Guermantes-tarrak etzirela bere hotelean bizi orhoitzerik etzen eskubide zenbaiten indarraz, baina alokatze aski berri batenaz, ezagutzen enuen aldera bazeman baratzea aski ttipi zela eta etxeari lotu baratze guzien idurikoa; jakin nuen azkenik etzela han ikusten ez jaur-urkhaberik, ez eihera azkarturik, ez arraindegirik, ez urzotegi habedunik, ez jaur-laberik, ez bihitegi untzidunik, ez gazteluttorik, ez zubi lotu ala goitigarririk, ez eta higigarririk zaindurik baino gehiago, dorre-punttarik, harresietako idazkirik edo orhoit-harririk. Baina, Balbec-eko itsas-adarra, bere mixterioa galdurik, lurrean diren ur gazi guzien arteko edozein leku, bertze ororekin aldizkagarria bilakatua izan zizatanean, Elstir-ek bapatez Whistler-en itsas-adar opala kolorekoa zela eni erriatean bere urdin-zilhar harmonietan nortasun berezi bat itzulia ukan zaukonean bezala, berdin ere Guermantes izenak ikusia zuen hartarik sortua zen azken egoitza Françoise-ren ukaldien azpian hiltzen, egun batez aitaren adixkide zahar batek erran zaukunean dukesaz mintzatuz: "Saint-Germain bazter-hirian lerro gorena du, hango etxe handiena da." Dudarik gabe, Saint-Germain bazter-hiriko lehen saloina, lehen etxea, ontsa gauza guti zen bat bertzearen ondotik amestuak nituen bertze egoitza guzien ondoan. Baina ororen buruan hunek oraino, eta azkena izanen zen, zerbait bazuen, den xumea izanik ere, bere izaite egiazkotik haratago, segeretuzko berexkuntza bat zena.

Eta hainbat gehiago beharrezkoa zizatan Guermantes-ko Anderearen saloinean, adixkidetan, haren izenaren mixterioa bilatu ahal ukaite hori, nun ezpainuen haren baitan aurkitzen, goizean oinez atheratzen banakusanean edo arratsaldean karrosan. Segurki jadanik, Combray-ko elizan, aldakuntza bateko ximixtan agertua zizatan, Guermantes izenaren eta Vivonne-aren bazterreko arratsaldetako margora ezin bildu eta hartaz ezin argitu matela batzuekin, ene amets aurdikiaren lekuan, hala nola jainko edo oihanetako jainkosa bat hartara aldaturik izana den beltxarga edo sarats bat, handik goiti, naturako legen meneratua, urean lerratuko baita edo haizez inharrosia izanen. Alta leinuru ezeztatu horiek, hartarik doi-doia urrundua nintzaneko, berriz moldatuak ziren hala nola iguzki etzanaren leinuru gorraxta eta muskerrak, hautsi dituen aldaxkaren gibelean, eta ene gogoko bakartasunean izenak laster egina zuen begitarteko orhoitzapenaren beretzea. Baina orai usu ikusten nuen leihoan, korroilan, karrikan; eta ni hasteko ezpanintzan hartan Guermantes izenaren sartzera heltzen, Guermantes-ko Anderea zela gogoan hartzera, eskatzen naukon egintzaren bururano joaiteko neure izpirituaren ahal-gabea salatzen nuen; baina hark, gure auzoak, huts bera egiten zuela iduri zuen;

gehiago oraino, nahasmendurik gabe egiten, ene arranguretarik batere gabe, huts bat zelako aierurik batere gabe. Horrela Guermantes-ko Andereak erakusten zuen bere zaietan modari jarraikitzeko, bertzen iduriko emazte bat bilakatua zela uste ukanez, bertze edozein emaztek berdintzen ahal zuen, behar bada gaindi zezakeen jantzietako aphaintasunera heldu nahi ukan balu bezalako axola bat. Ikusia nuen karrikan antzokiko jokarisa ontsa jantzi bati miresmenekin so egiten; eta goizean, oinez atheratzera zoan orduan, bere bizi ezin hurrandua haien arruntasuna agerr-arazten zuen iragailen erdian ibiliz, haien aburua harendako auzitegi bat izan ahal baliz bezala, ohar nindakiokeen mirailaren aitzinean, bikuntzerik eta irkaitzik gabeko segurtamen batean, suhartasunean, omore gaixtoan, bere alderako amodioan, gorteko komedia batean sehi baten itxuratzea onhartua duen erregina bat bezala, emazte aphain baten, hura baino hainbat beheragokoa zenaren jokaldian ari. Eta sortzez zuen handitasunaren ahazte mithologiazkoan, so egiten zuen hea boaleta ontsa thiran zuenez, mahungak leuntzen zituen, soingainekoa zuzentzen, zisne jainkotarrak bere ihizi motako mugimendu guziak egiten dituen bezala, bi begi thindatuak mokoaren bi aldetan atxikitzen hetara so egin gabe eta bapatez botoin edo euritako batera jauzi egiten, zisne gisa, jainko dela orhoitu gabe. Baina bidaiari batek, hiri bateko lehen itxurak atsegabeturik, bere baitan dion bezala haren gozagarria zilatu duela erakustokiak ikusiz, jendearekin ezagutza eginez, liburutegietan lan eginez, banion Guermantes-ko Anderearen etxean onharturik izana banintz, haren adixkidetarik bat, haren bizian sartzen, jakinen nuela haren izenak bere estalgi iranja-kolore dirditatu-pean zer zadukan egiazki, zen bezala, bertzerendako, aitaren adixkideak errana zuenaz geroz bada Guermantes-tarren mundua zerbait berex zela Saint-Germain-go bazter-hirian.

Han bazeramatela uste nuen biziak gauzen ezagutzatik hain bertzelako ithurburua zuen eta hain berezia izan behar zuela iduri zizatan, nun ezpainuen asmatu ahal ukanen dukesaren arratsaldietan izan zaitezkeela lehenago haiekin ibilia nintzan jendeak, egiazko jendeak. Ezen egiazki zirenetik bapatean ezin aldatuz, han erranen zituzten nik ezagutzen nituen solasen idurikoak; haien solaskideak mintzara gizatar berarekin ihardestera aphalduko ziren behar bada; eta Saint-Germain bazter-hiriko saloin leheneko arratsaldi batean, ephe batzu izanen ziren nik bizi ukanak nituen ephe batzuen berdinak: ezina zen gauza. Egia da gogoa neke batzuez trabatua nuela, eta Jesus-Kristoren gorputza ostian zelako mixterioa etzizatan ur-hegi eskunean jarria zen eta mubleak goizean joiten entzun nezazkeen saloin lehen horrena baino ilunagoa. Baina Saint-Germain-go bazter-hiritik berexten ninduen mugako marra, ene gogoan baizik ez izanik ere, etzizatan egizkoagoa baizik iduritzen; ontsa sendi nuen Bazter-hiria zela jadanik Guermantes-tarren lastaia, Lurgerri horren bertzaldean, hari ni bezala oharturik, athea idekirik utzia zuten egun batez, ama ausartu baitzen ontsa andeatua zela erraitera. Bertzela ere, nolaz etzizatan idurituko haien jateko salak, galeria ilunak, bere muble ilainki gorriz estaliekin, gure sukaldeko leihotik ikus bainitzazkeen batzuetan, bazutela Saint-Germain bazter-hiriaren lillura mixteriozkoa, hartakoak zirela barnetik, eta eremuz hartan jarriak, jateko sala hortan onhartua izaitea Saint-Germain bazter-hirira joana izaitea zenaz geroz, hango aireaz hats-hartua ukaitea zenaz geroz? mahira joan

baino lehen, Guermantes-ko Anderearen ondoan galeriako kanape larruzkoan jartzen zirenak, oro Saint-Germain bazter-hirikoak zirenaz geroz? Dudarik gabe, Bazter-hiritik hara, arratsaldi batzuetan, ikus zaitekeen zenbait aldiz, aphainduen jende arruntaren erdian maiestaterekin egonki, izen batzu baizik eztiren gizonetarik bat, haien itxuratzera entseatzen denean hartzen baitute aldizka gudu-besta baten edo jaur-oihan baten itxura. Baina hemen, Saint-Germain-go saloin lehenean, galeria ilunean, hek ziren bakarrik; hek, gai balios batez eginak, temploa bazatxikaten zutabeak. Etxekoz etxeko bilkuretako ere, haien artean zezazkeen bakarrik Guermantes-ko Andereak hauta gomitak, eta hamabi jendetako auharietan, mahiko oihal zerbitzatuaren inguruan bilduak, Kapera-Sainduko apostoluen gizaiduri urrezkoak bezala ziren, zutabe itxurapenezko eta konsekratzale, Mahi-Sainduaren aitzinean. Harresi gora batzuen artean zen baratze xoko ttipia aldiz, hotelaren gibelean, han udan Guermantes-ko Andereak auhal-ondoan zerbitza-arazten baitzituen edariak eta iranjada, nolaz enuen uste ukanen han jartzea, arratseko bederatzi eta hameka oren artean, burdinazko kadera batzuetan - larruzko kanapeak bezain indar handiaz dohatuak - , horrengatik Saint-Germain bazter-hiriko aire bereziez aldi berean hats-hartuko gabe, Figuig-eko oasisean etzanaldiaren egitea bezain ezina zela, hortarik beretik Afrikan izan gabe? Eztira idurimena eta sinesmena baizik gauza batzu, izaite batzu bertzetarik berex ditzazketenak, eta giro berri bat egin. Ondikotz! leku margoztagarri horietan, naturazko makurgune horietan, lekuko arrarotasun horietan, Saint-Germain bazter-herriko ederlan horietan, badateke urratsak ehoiz enituela ezarri ahalko. Eta ikharatzea aski zizatan itsas-goran ikusiz (han behin ere leihorreratzeko itxaropenik gabe), itsas-argi aitzinatu bat bezala, lehenbiziko palma-ondo bat bezala, herri urrunetako industriaren edo landaretzearen hastapena bezala, ur-hegiko lastai higatua.

Baina Guermantes-ko hotela bere atharian hasten baldin bazen enetako, menpeko zituenak biziki urrunago hedatzen zatezkeen dukeak uste zuenaz: hunek, alokari guziak etxetiar, petxero, ontasun nazionalen erosletzat baitzaduzkan eta haien aburuak baliorik ezpaitu, goizetan bizarra leihoan gau-athorra soinean egiten zuen, korroilara jausten zen, guti edo gehiago bero zen arau, athorra-has, ohe-galtzetan, maripulis ezkoziar margoz arraro eta ile luzearekilakoan, soineko labur argi maripulisa baino motzagoan, eta bere aitzinean zaltegi-mutiletarik batez trostan ibil-arazten erosia zuen zaldi berri zenbait. Aldi bat baino gehiagotan zaldiak Jupien-en aitzindegia andeatu zuen, hunek dukea sumintzen zuela ordaintza bat galdatuz. "Dukesa Andereak etxean eta parropian egiten duen ongi guziari behatuz baizik ezpaliz ere, zion Guermantes-ko Jaunak, zerbaiten eskatzea desohore bat da gizon horren ganik." Baina Jupien-ek berea atxikia zuen, dukesak behin ere zein "ongi" egina zuen iduriz batere jakin gabe. Egiten zuen alta, baina, jende guzira heda ezpaitaiteke, bati nahi bezainbat egina zaukolako orhoitzapena arrazoin ona da bertze bati egin gabe egoiteko hunen baitan samurgoa phiztuz. Ongi egiteaz bertze alde batzuetarik ere, auzoaldea etzizakon dukeari - eta hori bide handitan - bere korroilaren hedamen bat baizik iduritzen, bere zaldiendako lasterbide luzeago bat. Ikusirik zaldi berri bat bakarrik nola trostatzen zen, atela-arazten zuen, auzoko karrika guziak iragan-arazten zauzkon, zaltegizainak, karrosaren luzara lasterka

heden atxikitzen, iragan eta berriragan-arazten zuen dukearen aitzinetik, hau oinbidean geldirik, zutik, zigante, gaitzekoa, jantzi argitan, zigarroa ahoan, burua goiti, begitako bakuna ikus-nahian, alkiaren gainera jauzi egiten zuen arteo, entseatzeko zaldia berak ibil-arazten, eta ateladura berriarekin bere ohaidearen gana Champs-Elysées-etara abiatzen. Guermantes-ko Jaunak korroilan guti edo aski haren munduari zatxikazkon bi jaun-andere agurtzen zituen: haren gusi senarr-emazte batzu, langile batzu bezala, nehoiz ere etxean etzirenak haurren arthatzen, emaztea goizetik "Schola"-ra joaiten baitzen kontrapundu eta fuga ikastera, eta senarra bere landegira zur zizelkatzera edo larru moldekatzera; gero Norpois-ko baroina eta baroinesa, beti beltzez jantziak, emazteak kadera alokaria iduri eta senarrak hilketaria, egunean aldi bat baino gehiagotan jalgitzen baitziren elizara joaiteko. Ezagutzen ginuen embaxadore ohiaren ilobak ziren eta hain zuzen aitak mailaldeko uztaidura-pean batua zuenarenak baina nundik heldu zen hartu gabe; ezen aitak uste zuen hoin jende gotorra, Europako gizon gorenekin harremanetan gertatua zena eta arixtokraziazko berexkuntza hutsal batzuez biziki axolagabean zatekeena, noble guti ezagun, apheztiar eta gogo-hetsi horiekin etzaikekeela biziki gurutzatzen. Berrikitarik ziren etxe hortan bizi; Jupien ethorria baitzen Guermantes-ko Jaunaren agurtzen ari zen senarrari korroilan hitz baten erraitera, "Norpois Jauna" deitu zuen, haren izena zuzen ez jakinean.

- Ha! Norpois jauna, ha! ezta gaizki hatzemana zinez! Gauden! gizon horrek laster "herritar Norpois" erranen dautzu! egin zuen, baroinaren aldera itzuliz Guermantes-ko Jaunak jalgitzera utz zezakeen Jupien-en kontra zuen omore gaixtoa, hunek erraiten baitzaukon "Jauna" eta ez "Jaun Dukea".

Aitaren ofizioari lotzen zen xehetasun baten beharra zuen egun batez, Guermantes-ko Jauna bera agertua zen jendetasun ainitzekin. Geroztik auzo zerbitzu zenbait bazuen usu galdatzeko; aita lan zenbait gogoan nehoren aurkitzeko gutiziarik gabe mailaldean jausten ikusten zueneko, dukeak uzten zituen bere zaltegizainak, korroilan haren gana jiten zen, soinganekoaren lephokoa zuzentzen zaukon, lehenagoko Erregeren gambarako mutilen ganik ukan zerbitzu egiteko ohidurarekin, eskua hartzen, pherekatzen ere emagaldu baten ozarkeriarekin, etzaukola bere haragi baliosaren hunkitzea merkatatzen phorogatzeko, bazeraman sokatik, hura azkarki aspertua eta ihes egitea baizik ez gogoan, athe handitik haratago. Agur handi batzu eginak zauzkun emaztearekin bere karrosatik jalgitzeko orduan gurutzatuak ginituen egun batez; ene izena errana zaukokeen, baina hortaz orhoitua zela bazatekeena ere, eta ene begitarteaz? Eta gero zer gomendio txarra haren alokarietarik bat bezala baizik ez erakutsia izaitea! Handiago bat izanen zen dukesaren aurkitzea Villeparisis-ko Anderearen etxean, hunek hain zuzen amatxiren bitartez galdegin-arazia baitzautan ikustera joan nindakion, eta, literaturan lan egiteko xedea ukana nuela jakinez, gaineratua baitzuen haren etxean idazle batzu aurkituko nituela. Baina aitak oraino ontsa gazte nintzala aurkitzen zuen mundu hortan sartzeko eta, ene osagarriak ezpaitzuen griñatu gabe uzten, etzauztan atheratze berri batzuen gertaldi behargabeko batzu eman nahi.

Guermantes-ko Anderearen mutil jantzietarik bat ainitz solastatzen baitzen Françoise-rekin, aiphatzen entzun nituen hara joaiten zen saloinetarik zenbait, baina

enituen itxuratzen: haren biziko zati batzu zirenaz geroz, haren izenetik baizik ikusten enuen biziko batzu, etzirena ezin asmatuak?

- Gaur bada itzal-itxurekilako arratsaldi handi bat Parme-ko prinzesaren etxean, zion mutil jantziak, baina ezkira joanen, zeren eta, bortz orenetan, Andereak Chantilly-ko treina hartzen baitu bi egunen iragaitera joaiteko Aumale-ko dukearen etxean, baina gambarako neskatoa eta mutila dira joaiten. Ni hemen nago. Ezta kontent izanen, Parme-ko prinzesa, laur aldiz baino gehiago izkiriatua dauko Andere Dukesari.

- Etzirezte beraz Combray-ko jauregira joaitekotan, aurten?

- Lehen aldia da ezkirela han izanen: jaunaren errumatisimen gatik, medikuak berogailurik gabe hara itzultzea debekatua du, baina aitzinean, urte oroz, urtarrilerano han ginen. Berogailua ezpada prest, Anderea joanen da behar bada zenbait egunendako Cannes-era Guise-ko dukesaren etxera, baina ezta oraino segur.

- Eta antzokira, joaiten zireztea?

- Bagoaz batzuetan Opera-ra, batzuetan Parme-ko prinzesaren arratsaldi abonamenduzkoetara, zortzi egun guziez; ikusten dena biziki aphain omen da: antzerti, opera eta guzia. Andere Dukesak eztu abonamendurik hartu nahi ukan, baina joaiten gira hala ere noiz Anderearen adixkide baten egondegian, noiz bertze batean, usu Guermantes-ko prinzesarenean, Duke Jaunaren gusi baten emaztea baita. Bavière-ko dukearen arreba… Beraz horrela goiti etxera zoaz, zion mutil jantziak, baitzuen, nahiz Guermantes-tar bezala ezaguna, orotara *nagusiez* gogamen politikazko bat, Françoise-ri dukesa baten etxean sehi izana baliz bezainbat errespetu emaitera ekhartzen baitzuen. Osagarri onekoa zira, anderea.

- Ha! zango madarikatu hauk ezpanitu! Zelhaian oraino badoa ("zelhaian"-ek erran nahi zuen korroilan, Françoise-ek hetan ibiltzea hastio etzuen karriketan, hitz batez ordokian), baina mailalde debruzko horiek dira. Ikus arteo, jauna, arratsaldean oraino ikusiko zitugu behar bada.

Are gehiago zuen mutil jantziarekin oraino solastatzeko gutizia nun ikasia baitzaukon duken semek badakartela hil arteo badatxikaten printze izena. Badateke nobleziarendako errespetua, haren kontra jazartzeko gogo zerbaiti akomeaturik eta hortaz nahasirik, Frantziako alhorretan odolez bildua, azkar dela jendearen baitan. Ezen Françoise-ek, mintza zizakokeelarik Napoleonen jeinuaz eta harigabeko telegrafiaz haren oharpenaren erakhartzera heldu gabe eta khebideko errautsen ekhentzeko edo mahikoen ezartzeko egiten zituen jestuak ephe batez ere emekitu gabe, horrelako berezitasunak ikasten baldin bazituen bakarrik eta Guermantes-ko dukearen semeari ohiki Oléron-go printzea zeritzotela, egiten zuen "Eder da hori!" eta bazagon eliza-berina baten aitzinean bezala lilluratua.

Françoise-ek ikasi zuen ere Agrigente-ko printzearen gambara-mutilaren ganik, harekin ezagutza egina baitzuen dukesaren etxera eskutitz ekhartzera usu ethorriz, munduan ainitz aldiz aiphatzen entzuna zuela Saint-Loup-eko markesaren ezkontza Ambresac-eko Anderaurenarekin eta deliberoa abantzu hartua zela.

"Villa" hura, antzokiko mainu-egongia hura, Guermantes-ko Andereak bere bizia hetara ixurtzen zuenak, etzizaztan haren bizitegiak baino leku gutiago

mixteriozkoak iduritzen. Parme, Guermantes-Bavière, Guise izenek, bertze orotarik berexten zituzten dukesa hara zoan bertze udalekuak, haren karrosaren hatzak hotelari lotzen zituen egun orotako bestak. Erraiten baldin bazautaten udaleku horietaz, besta horiez egina zela Guermantes-ko Anderearen bizia, haren biziaz beraz argitasunik batere etzautaten ekhartzen. Bakoitzak bazemon dukesaren biziari mugimendu berezi bat, baina hura etzuten mixterioz alda-arazten baizik jeus beretik agertzera utzi gabe, lekuz aldatzen baitzen bakarrik, artesiaz gerizatua, untzi batean hetsia, guzien biziko uhainen erdian. Dukesa Mediterranea aitzinean barazkal zaitekeen Ihauterietan, baina Guise-ko Anderearen "villa"-n, gizarte paristarreko erregina ezpaitzen gehiago han, bere zaia xuri titakatuan, prinzesa andana baten erdian, bertzeak bezalako gomit bat baizik, eta hortakotz enetako oraino hunkigarriagoa, berriturik izanaz ber-beragoa, hala nola jantzari izar bat, urrats baten oldean, bat bertzearen ondotik bere ahizpa jantzari bakoitzaren lekua hartzen duena; itzal-itxura batzuer beha egon zaitekeen, baina Parme-ko prinzesaren arratsaldi batean; opera edo tragedia entzun zezakeen, baina Guermantes-ko prinzesaren egongian.

Jende baten bizian gerta ahal guziak, ezagutzen dituen eta utzi berriak dituen, edo haien batzera doan izaiten orhoitzapena haren soinean ezartzen baititugu, baldinez, Françoise-ren ganik jakin ondoan Guermantes-ko Anderea oinez joanen zela Parme-ko prinzesaren etxean barazkaltzera, ikusten banuen eguerdi hirian etxetik jausten satin argizko zaian, haren begitartea gainaldean leinuru berdinekoa baitzen, hedoi batek iguzkia etzan ondoan bezala, Saint-Germain bazter-hiriko atsegin guziak nituen ene aitzinean edukiak ikusten, izari ttipi hortan, kuxku batean bezala, nakara gorraxtazko maskor hormatuen artean.

Aitak bazuen minixterioan adixkide bat, delako A. J. Moreau bat, hunek, bertze Moreau-etarik berexteko, hartzen baitzuen beti izenaren aitzinean bi hizki horien ezartzeko artha, hala nola nun, laburtzeko, "A.J." erraiten baitzizakon. Bada, nik dakita nola, A. J. hori Operako besta handi bateko jargia baten jabe gertatu zen; aitari igorri zaukon eta, ene atsegabetzeaz geroztik jokatzen ikusia enuen Berma-k *Phèdre*-ko egitaldi bat eman behar baitzuen, amatxik ukan zuen aitak leku hori eman zezatan.

Egia erran urte zenbait aitzinean hainbat nahasmendu emana zautan Berma-ren entzute horrek eninduen batere axolatzen. Eta enuen gogo-ilundurarik gabe senditu lehenago osagarriari, atsedenari hautetsia nauen hortaz nuen axolagabea. Etzen hori ene idurimenak arteka ikusten zituen gauzen zati balioser hurbildik beha egon ahal ukaiteko nuen gutizia lehen baino gutiago suhar zelakotz. Baina etzituen orai antzoki-jokari handi baten erran-moldean ezartzen; Elstir-i ikustaldiak eginez geroztik, tapizeria batzuetara, oraiko margazki berri batzuetara nuen eremana lehenago Berma-ren jokoan, tragediako antzean ukana nuen barneko sinesmena; hau eta ene gutizia ezpaitziren gehiago Berma-ren erran-moldeari eta egon-moldeari ethengabeko errespetuaren emaitera ekharriak, hautaz nuen itxura, neure bihotzean, apurka ahuldua zen Aegiptoko hilen bertze "itxura" hek bezala, bizirik atxikitzeko ethengabe jatera eman behar baitzizeen. Antze hura mehe 'ta ttipi bilakatua zen. Arimarik batere etzadukan gehiago.

Aitak ukan billetaz baliatuz, Opera-ko mailalde handiaren igaiten ari nintzalarik, gizon bat ikusi nuen lehenbizian Charlus-ko Jaunarendako hartu nuena haren egonara baitzuen: burua itzuli zuenean langile bati xehetasun baten galdegiteko, huts egina nuela ikusi nuen; enintzan bizkitartean dudan egon ezezagun horren ezartzeko gizarte lerro berean, ez bakarrik jantzia zen moldetik, baina ere igurika-arazten zuten begiztatzaleari eta alkizainer mintzatzean zuenetik. Ezen, bakoitzari doazkon berezitasunak izanik ere, aro hartan bazen oraino, arixtokrata mail hortako edozein gora-nahi aberatsen eta dirutze edo industria handiko gora-nahi aberatsen artean, ezperdintasun azkar bat. Azken hauetarik batek bere aphaintasuna azpiko bati doinu motz, handikor batekin baieztatzen zuela uste ukanen zuenean, jaun handiak, eztiki, irriño batekin, iduri zuen xumetasunaren eta pairamenaren erakustea zuela gogoan eta agerian ezarri nahi, alegia ikusletarik edonor, ontsa ikasia izaitearen eskubide bezala. Badateke horrela ikustean, irriño gozotasunez bete baten gibelean gordetzen zuela bere baitan zeraman mundu ttipi bereziko muga ezin iragana, diruzain seme batzuek, ordu hartan antzokira sartzean, jaun handi hori gutiko gizon batendako hartuko zutela, ezpalaukote egite ustegabegarri bat aurkitua ukan Austriako emperadorearen iloba baten potretarekin, Saxe-ko printzea, egunkarietan berriki itxuratua, ordu hartan hain zuzen Parisen baitzen. Guermantes-tarren adixkide handi zela banakien. Nihaur begiztatzalearen ondora heltzen ari, Saxe-ko printzea, edo hala uste zena, entzun nuen irriño batekin erraiten: "Egongiako zenbakia eztakit, ene andere gusiak dauta erran haren egongiaren galdatzea aski nuela."

Saxe-ko printzea zen behar bada; Guermantes-ko dukesa zuten behar bada haren begiek ikusten (hala izanez dukesaren bizi ezin asmatuzko orduetarik bat ikus nezakeen bizitzen, gusiaren egongian) baziolarik: "ene gusiak dauta erran haren egongiaren galdatzea aski nuela", hala nola nun behako irriñodun berezi horrek eta hitz hoin xume horiek (ametseria huts batek baino ontsa gehiago) bihotza pherekatzen baitzautaten gerta zaitekeen zorion baten eta segurtasun gabeko lilluramendu baten addarrekin. Bederen, begiztatzaleari hitz horren erraitean, ene bizi egunorotakoaren arratsaldi arrunt bati lotzen zuen mundu berri baterako iraganbide balinezkoa; egongia hitza erran ondoan erakutsi zizakon barnebidea, eta hartan abiatu zena, hezea zen, arraildua eta iduri zuen bazeramala itsas-harpe batzuetara, uretako jainkosen erresuma mithologiazkora. Enuen aitzinean urruntzen ari zen gizon jantzi handidun batez bertzerik; baina banerabiltzan haren inguruan, argi-igortzeko moldegaitz batek bezala, eta haren gainean zuzen ezartzera heldu ahal gabe, Saxe-ko printzea zelako ideia eta Guermantes-ko dukesaren ikustera zoala. Eta, nahiz bakarrik zen, hartarik kampoko ideia hori, iduri-argi bat bezain ezin hunkia, neurrigabe 'ta daldararia, aitzinean bezala zoakon eta bidatzen balu bezala, hala nola gerlari greziarraren ondoan, gainerateko gizonez ezin ikusia, dagon Jainko hura.

Ene lekura heldu nintzan, zuzen orhoitzen enintzan *Phèdre*-ko neurtitz baten edireitea bilatzen nuen batean. Erraiten nuen moldean, etzituen behar zirten silabak oro, baina zenbatzera ezpainintzan entseatzen, baziduritan haren arau eskasaren eta neurtitz klasiko baten artean etzela berdintasunik batere. Enintzan ustegabetua

izanen erranaldi izigarri hari sei silaba baino gehiago moztu behar izan balizazko hamabi silabako baten egiteko. Baina bapatez gogoratu zizatan, mundu abre bateko laztasun ezin heziak miragarriki ezeztatu ziren; neurthitzeko silabek berehala bete zuten hamabiko baten neurria, soberakina joan zizakon ur gainean lehertzera daugien aire pumpula bat bezain errex eta arinki. Alabaina harekin gudukatua nintzan izigarrikeria etzen silaba bakar bat baizik.

Behereko jargia andana bat bulegoan salgai ezarririk izana zen eta hurbildik ehoiz bertze aldi batez ikusiko etzituzten jende batzuer behatu nahi zuten handiuste edo ikusi-nahi batzuek erosia. Bai eta, alabaina, haien bizi ohiki gordetik apur bati zen agerian behatzen ahalko, ezen Parme-ko prinzesak berak adixkideak ezarririk egongia eta galerietan, salak iduri zuen han bakoitza lekuz aldatzen, hor edo hemen andere adixkide baten ondoan jartzera joaiten zen saloina.

Ene ondoan baziren jende arrunt batzu, abonatuak ez ezagunez, erakutsi nahi baitzuten ezagun zitzazketela eta gora-gora izendatzen zituzten. Bazioten gainera abonatu horiek hunara bere saloinera bezala ethortzen zirela, hortik erran nahiz erakusten ziren antzertiez axolarik etzutela. Baina kontrakoa zen gertatzen. Berma-ren entzuteko jargia bat hartua duen ikasle jeinudun batek, eztitu gogoan bere eskularruen ez zinkintzea baizik, nehoren ez jenatzea, halabeharrak emana daukon auzoari ontsa egitea salan aurkitua duen ezagutza baten behako iheskorrari artekazko irriño batez jarraikitzea, haren so batuari ikustaterik gabe ihes egitea, eta mila dudaren ondotik haren agurtzera joaitera deliberatzen baita, haren gana heldua izan gabe hirur ukaldiek joiten duten orduan, ihes egitera bortxatzen dutela, hala nola Hebrearrak Itsaso Gorrian, zuti-araziak dituen eta haien zaiak urratzen eta botinak lehertzen dituen ikusle gizon eta emazten uhain sagailoen erdian. Aldiz, munduko jendek, bere egongietan (zabaltza egiten zuen galeriaren gibelean) zirelakotz artesi bat ekhendurik izana zizeen saloin ttipi batzuetan bezala, edo bixkotxa baten jatera joaiten den kafe batean bezala (etxe ara neapolitarko miraila urrez inguratuez eta jargia gorriez herabetua izan gabe), esku axolagabeko bat ezartzen zutelakotz kantuaren temploa bazatxikaten zutabe urreztatuetan, egongietara palma eta erramuak eskainiz bi gizaiduri zizelkatuek emaiten zezteela iduri zuten ohore handiegiez etzirelakotz hunkiak, munduko jendek, diot, zuten bakarrik izpiritua libro ukanen antzertiaren entzuteko, izpiriturik ukan balute bederen.

Lehenik etzen ilunbe nahasi bat baizik izan hartan bapatez edireiten baitzen, ikusten ezten harri balios baten arraia bezala, bi begi aiphatuen fosforazko argia, edo, Henri IV-garrenaren medailun bat bezala zola beltzetik agerian emana, Aumale-ko dukearen orraze gurtua andere ezin ikusi batek oihu egiten baitzaukon: "Enejaunak onhar dezala bizkarrekoa ekhen dezotan", printzeak ihardesten zuen batean: "Baina bada, zergatik bada, Ambresac-eko Anderea." Debekatze ahul hori izanik ere, egiten zuen, eta hein hortako ohoreaz guziak jelos ziren.

Baina bertze egongietan, abantzu orotan, egoitza beltz hetan bizi ziren jainkosa xuriak artesien kontra gerizatuak zauden eta ezin ikusiak. Bizkitartean, ikuskarria aitzinera zoan arau, haien jende-itxura nahasiak guriki berexten ziren bat bertzeran ondotik tapizatzen zuten gauaren barnatasunetarik eta, argira goititzean,

bere soin erdi buluziak agertzera uzten zituzten eta jiten ziren muga zuterano eta eremu argi-ilunerano, han haien aurpegi diridiratuak ageri baitziren lumazko aireztagailuen uhain irrikor, haguntsu, arinaren gibelean, itsas-gorapenaren izurdurak makurtuak zituela iduri zuten ile-adats gorrindol perlaz nahastekatuen azpian. Gero hasten ziren orkeztrako jargiak, hilkorren egoitza, haren muga baitzegiten han hemenka, ixurtzera emanak eta zabal, ureko jainkosen begi argi miraila iduriek. Ezen ur bazterreko arte-alkiak, orkeztrako mustroen moldeak, begi horietan itxuratzen dira argi-lege hutsen eta erakusten duten izkinaren araura, hala nola gutarik kampo diren munduko gauzetako bi zatiez gertatzen dena, dakigularik eztutela, den xoilena izanik ere, gurearen iduriko arimarik, haier hitz edo so baten igortzea erokeria bailizakegu: lurkiez, eta haiekin adixkidantzarik eztugun jendez. Aldiz, haien erresumako mugatik hunaindira, itsasoko andere dirdirantak noiz nahi irriñotan itzultzen ziren lezeko zilogunetan dilindan zauden itsas-jainko bizardun batzuetara, edo, burhezur orde hartara uhainak orbel lisatu bat ekharria zuen ur-harri leun bat, eta so orde harri-krixtailezko dizka bat zuen jaino-erdi zenbaitetara. Hauen gana gurtzen ziren, ononak eskaintzen; noizten uhaina "nereida" berri baten aitzinean idekitzen zen hau, berankor, irriñotan, ahalgetua, itzalaren zolatik zabaltzera heldu baitzen; gero, egitaldia bururatu eta, azalera erakharriak zituzten lurreko zurrumurru gozagarrien entzuteko esperanza galdurik, oro batean murgilduz, ahizpa guziak gauan itzaltzen ziren. Baina gizonen lanen ikusteko axola arinak haien alhazera jainkosa ikusi-nahiak - hurbiltzera ezpaitute nehor uzten - ekhartzen zituzten geriza-leku horietan guzietan, omen handikoena "Guermantes-ko prinzesaren egongia" izenpean ezaguna zen erdi-ilunbeko gune hura zen.

Azpiko jainkoen jostetan urrundik buruzagi den jainkosa handi bat bezala, prinzesa bere nahitara apur bat gibelera egona zen, bazterreko kanape batean, korailezko harroka bat bezain gorrian, miraila bat zatekeen berina leinuru zabal baten ondoan, gogoratzen baitzuen argi-arrai batek egina ukanen zuen haustura zuzen, ilun eta ixurkor bat, uren krixtail lilluratuan. Aldi berean luma eta korona, hala nola itsas-lore batzu, lili xuri handi bat, hegal bat bezala lumatxatua, jausten zen prinzesaren bekokitik haren mateletarik baten luzara inguruan jarraikiz malgutasun aphain, amultsu eta bizidun batean, eta erdi hesten zuela iduri zuen arraultze gorraxta bat itsas-xori baten ohantzeko goxatasunean bezala. Prinzesaren iletan, bekainetarano jausten, beherago lepho heinean berriz hartua, sare bat bazen hegoko itsaso batzuetan biltzen diren maxkur xuriez egina perlez nahastekaturik, uhainetarik doi-doia jalgi itsas-mozaika, noiztenka ilunbean murgildurik gertatzen zena, haren zolan, orduan ere, norbait bazela ageri baitzen prinzesaren begien higikortasunetik. Hau erdi-ilunbeko bertze neska ametsetakoetarik ontsa gorago ezarten zuen edertasuna, etzizakon oso-osoan egiazki eta bakarrik garondoan, soingainetan, besoetan, kaizuan emana. Baina hunen marra goxagarri eta ez bururatua marra ezin ikusi batzuen abiagune zuzena zen, hastapena, hetan begia ezpaitzagokeen hek luzatu gabe, miragarriak, emaztearen inguruan sortuak, ilunbetara igorri begitarte betegin baten itxura bezala.

- Guermantes-ko prinzesa da, erran zaukon ene auzoko emazteak berekin zuen jaun bati, "prinzesa" hitzaren aitzinean *pr-* andana bat ezarriz izen hori

irriegingarri zela erakusteko. Ezta perlez xuhur izana. Iduritzen zata hoinbertze baldin banu, enezazkeela zabalean horrela ezar; behar bezala egitea dela eztut uste.

Bizkitartean, prinzesaren ezagutzean, salan nor zen jakitea bilatzen zuten guziek sendi zuten bihotzean edertasunaren tronu legezkoa zutitzen. Alabaina, Luxembourg-eko dukesari zoakonaz, Morienval-go Andereari, Saint-Euverte-ko Andereari, hainbertze bertzeri, haien begitartearen ezagutzera uzten zuena, sudur lodi gorri baten erbi-ezpain batekilako lotura zen, edo bi matela zimur muxtatx arin batekin. Gauza horiek xoratzeko aski ziren bertzela ere, izkiribu baten balio orotakoa ez ukanez, izen aiphatu eta larderiadun bat irakurtzera emaiten baitzuten; baina ere, azkenean gogora emaiten itsustasunak arixtokrata den zerbait baduela, eta andere handi baten begitartea ederra izan dadin balio gabekoa dela, aphaina den ber. Baina ederlan egile batzuek ezartzen duten bezala bere margazkiaren azpian, bere izeneko hizkien orde, berez ederra den itxura bat, pinpirin, sugandil, lore, berdin ere soin eta begitarte ezin goxagarriago batzuen itxura zuen ezartzen bere egongiako izkinan, erakusten zuela hortik edertasuna izan daitekeela sinaduretan noblerena. Ezen Guermantes-ko prinzesaren hor izaitea, ezpaitzituen antzokira eremaiten gaineratekoan adixkide minak zizazkon jendeak baizik, arixtokraziaren maitalen begietan, egongiak eskaintzen zuen margazkiaren egiazkotasunezko berme hoberena zen, prinzesak Munich-eko eta Parisko bere palazioetan zuen bizi etxeko eta bereziaren agerraldi baten halako itxuratze bat.

Gure idurimena beti erran den aireaz bertze bat joiten duen Barbariako organo makurtu bat izanez, Guermantes-Bavière-ko prinzesaz mintzatzen entzuna nuen aldi oroz, XVI-garren mendeko lan batzuen orhoitzapena ene baitan joiten hasia zen. Hetaz buluzi behar zen orai ikusten nuenean onon hormatu emaiten jantzi hegaldunarekilako jaun lodi bati. Ontsa urrun nintzan segurki hortarik hura eta haren heinekoek bertzeak bezalako izaite batzu zirela ondorioztatzetik. Ontsa hartzen nuen hor bazegitena etzela joko bat baizik, eta haien egiazko biziaren aitzin egintzetako (zati handiena ezpaitzuketen hemen iragaiten) nik enazkien ohidura batzuen gatik zirela hitzartzen eta zituztela alegiaz ononak eskaintzen ala ez onhartzen, erran-nahiz gabetua zen jestua eta aitzinetik arautua, hala nola jantzarisa baten urratsa aldizka oin-puntta batean goititzen denean eta xarpa baten inguruan itzulikatzen. Nork daki? behar bada bere ononen eskaintzen ari zen orduan, Jainkosak erraiten zuen irkaitz doinu batekin (irriñotan ikusten nuen): "Ononak nahi dituzua?" Hitz horien idor nahizkoa, Mérimée-rena edo Meilhac-enaren idurikoa, xorroxtasunez goxagarri aurkituko nuen, jainkosa batek erdi-jainko bati erranik, hunek bazakielarik zein ziren bi-biek laburtuz emaiten zituzten gogamen ezin goragoak, berriz bere egiazko biziaren bizitzen hasiko zireneko agian, eta, jokoa onhartuz, ihardesten baitzuen mixteriozko maltzurtasun berarekin: "Bai, gerezi bat nahi dut bada." Eta elgarrizketa hori entzunen nuen *Emazte hasi-berriaren senarra* komediako agerraldi bat eginen nuen gose berarekin, hor poesia, gogoeta handi gabea (enetako gauza hain ohikoak, ene ustez Meilhac haien emaiteko mila aldiz gai izanen baitzen) ber-bera aphaintasun bat iduri zizatana, aphaintasun ohiko bat, eta hortik enetako are gehiago mixteriozkoa eta erakaskarria.

- Lodi hori, Ganançay-ko markesa da, egin zuen itxura jakin batekin ene auzoak, gibelean ahapetik erran zen izena gaizki entzuna baitzuen.

Palancy-ko markesa, lephoa goititurik, aurpegia zeharka, begi biribil handia begitako bakunaren kontra tinkan, bazoan emeki itzal argalean, baitzidurien orkeztrako jendeaz etzela diragan arrain bat baino gehiago axolatzen, ikusle gutiziatuez ez jakinean, bere urtegiko berinaren gibelean… Noiztenka gelditzen zen, ohoragarri, goroldio-pean ufaka, eta ikuslek etzuten erran ahalko oinazetan zenez, ala lo, ala igerikan, erruten ari ala bakarrik hats-hartzen. Nehork etzuen ene baitan hark baino gutizia gehiago sustatzen, egongia hortan bazuela iduri zuen ohiduraren gatik eta prinzesa onon eskaintzera uzten zuen axolagabearen gatik; prinzesak orduan behako bat emaiten zaukon bere begi urdin ederrekin, iduri baitzuten diamant batean hartuak, adixkidantzarekin batean adimendua urtzera zeramatela, baina, geldirik zaudenean, egiazko bere eder laburrera ekharriak, mineralaren dirdira hutsera, den gutieneko ihardukitzeak arinki baztertzen zituenean, bere phindar miragarri gizatasun gabeko eta aitzinera hedatuez antzoki beherea sutzen baitzuten. Anartean, Berma-k emaiten zuen *Phèdre*-ko egitaldia hastera baitzoan, prinzesa egongiaren aitzinaldera ethorri zen; orduan, bera ere antzokiko agerpen bat baliz bezala, iragan zuen argi gune ezperdinean, aldatzen ikusi nituen haren aphainduren ez bakarrik margoa baina gaia. Eta mainu-egongia idortuan, uretik jalgian, nereida izaitetik gelditzen zela, prinzesa agertu zen burua oihal xuri eta urdinez inguratua, mirazko tragedialari bat bezla Zaire-tan edo behar bada Orosmane-tan jantzirik; gero lehen lerroan jarria izan zenean, ikusi nuen haren matelen nakara gorraxta xamurki gerizatzen zuen itsas-xori ohantzea, parabisu-xori handi-handi bat zela, marddoa, dirdiran, balusatua.

Artetik ene soak Guermantes-ko prinzesaren egongiatik baztertu zituen emazte ttipi, gaizki jantzi batek, begiak sutan, jin baitzen, bi mutiko gazte gibeletik, nitarik ez urrun jartzera. Gero erridaua goititu zen. Enuen goibeldurarik gabe senditu ahal ukan antzertiko ederlanaren eta Berma-ren aldera lehenago nuen gogotik jeus etzizatala gelditzen, munduko azken bururano behatzera joanen nindakon gertakaritik ez jeusen galtzeko izpiritua prestatua nadukalarik, izarr-ikerleak Afrikan, Antilletan ezartzera doazen plaka sendikor hek bezala, izar adardun bati edo itzalaldi bati arthoski behatzeko; ikharan nindagolarik hedoi zenbaitek (jokariaren ez ontsa, publikoan gertakari) ikuskarria bere indar osoenean ager zadin debeka beldurrez; enuela behar den moldean ikusi ahalko uste ukanen nuelarik, aldare bat bezala hari konsekratua zen antzoki ber hartara joana izana ezpaninz, han erridau gorri ttipiaren azpian haren agerpenari zatxikazkola oraino, nahiz bazterretik, hautatuak zituen begiztatzale julufre xuridunak, jende gaizki jantzi batzuez betea zen behere-alde azpiko antzokiaren zimenduak, haren argazkiarekilako egitaraua saltzen zuten alkizainak, plaza ttipiko itsas-gaztainak, orduan nituen sendipenen segeretu ukaileak, lagunak eta haren ganik ezin berexkarriak iduri zizaztanak. *Phèdre*, "Aithormeneko agerraldia", Berma, izaite oso batzu ziren orduan enetako. Ohiko bizitik bazterrean jarriak, baziren bere baitarik, haien gana joan behar nuen, hetarik ahal nuena hartuko, eta begiak eta gogoa zabal-zabala idekiz oraino ontsa guti iretsiko.

Baina bizia zein goxagarri iduritzen zizatan! Baneramanak baliorik batere etzuen, janzten, atheratzeko prestatzen emaiten diren orduek baino gehiago, haratago bazirenaz geroz, molde betean, hurbiltzeko zailak, oso-osoan ukan ezinak, gauza azkarrago hauk: *Phèdre*, Berma-k *Phèdre*-ren erraiteko zuen ara. Antzerti jokoaren betegintasunezko ametseria horietaz gainditua, zati handi bat athera ahalko baitzizeen, aro hartan eguneko, eta behar bada gauko minuta edozeinez gogoa ikhertu balizata, bere eletrika berak egiten duen pila bat bezala nintzan. Eta ordu bat gertatu zen nun, eri, hilen nintzala uste ukanik ere, Berma-ren entzutera joan behar ukanen bainuen. Baina orai, urrunean urdinez egina iduri duen eta hurbildik gauzez dugun ikuspen arruntean sartzen den mendixka bat bezala, horrek guziak utzia zuen baitezpadakotasunaren mundua, gehiago etzen bertze guziak bezalako gauza bat baizik, haren ezagutzea egiten bainuen hor gertatzen nintzalakotz; jokariak ezagutzen nituen jenden mota berekoak ziren, *Phèdre*-ko neurtitzen erraitera ahal bezain ontsa entseatzen, neurtitzek berek ezpaitzuten ere izaite ezin ederrago, berebaitako, orotarik berexi bat egiten, baina guti edo aski betegin neurtitz batzuena, hetan nahasirik zauden neurtitz frantzesetako gai neurrigabean sartzera emanak. Hortaz etsipen bat sendi nuen are barnatuagoa nun hisiturik ari zen ene gutiziak izaiterik ezpazuen gehiago, aldiz ametseria geldi, urtetik urtera aldatzen zen, baina bapateko olde, lanjerraz axolagabe batera ninderaman gogo berak irauten baitzuen. Eri, jauregi batean Elstir-en margazki baten, tapizeria gothiko baten ikustera nindoan arrats batek, hainbertze egite zuen Veneziara abiatu behar ukana nuen, Berma-ren entzutera joana edo Balbec-era abiatua nintzan egunarekin, nun aitzinetik sendi bainuen orai banegien sakrifizioaren arrazoinak dembora guti barne axolagabean utziko ninduela, orduan hurbil-hurbildik iragan nindakiokeela margazki haren, tapizaria haien ikustera joan gabe, lehenago hainbertze logabeko gau, hainbertze aldi mingarri irriskatuko nituenean. Zuen gaiaren aldakortasunetik sendi nuen ene indarraren ezteusa, eta aldi berean behin ere uste ukana enuen haren handitasuna, akhituak direla oharr-arazten zauenean akhidura bikuntzen zaien zainetarik ahul diren hek bezala. Anartean, ene ametseriak hura hunki zezakeen guzia ospez aphaintzen zuen. Eta ene gutizia haragikoenetan ere, beti alde berezi batera itzulietan, amets ber baten inguruan bilduetan, abiadura emailetzat ezagutzen ahalko nuen ideia bat, bizia harendako sakrifikatuko nuen ideia bat, haren gune erdikoenean baitzagon, Combray-ko baratzean irakurtzetako arratsaldetan ene ametserietan bezala, beteginzarrearen ideia.

Enuen lehenagoko barkakortasun bera ukan Aricie-ren, Ismène-ren eta Hippolyte-ren mintza-molde 'ta jokoan orduan ohartua nindeen xamurtasun edo haserrezko xede zuzenen aldera. Etzen jokari horiek - berak baitziren - etzutelakotz beti adimendu berarekin bilatzen bere mintzoari hemen malgudura pherekatzale baten edo ezpai gogatu baten emaitea, hor bere jestuer tragediako handitasun baten edo eztitasun othoizle baten. Mintzo horri doinuek manatzen zaukoten: "Ezti izan hadi, kanta ezak errexiñol batek bezala, phereka"; edo aldiz: "Haserrean jar hadi", eta orduan oldarrez gainera erortzen zizazkon bere haserre eroaz irabazi ahal ukaiteko. Baina mintzoa, bihurri, haien erran-moldetik berex, ezin bilduki haien mintzo jitezkoa gelditzen zen, bere eskasarekin edo egiazko goxoarekin,

arruntasunarekin edo egunorotako fazoinarekin, eta zabaltzen zuen horrela neurtitz erranen sendimenduak bertzelakatua etzuen soinuzko edo gizarteko gauza andana bat.

Berdin ere jokari haien jestuak besoer, zaia luzeari erraiten zauen: "Zirezten maiestatedun." Baina soinadar hezkaitzek soingainaren eta ukondoaren artean ibiltzera uzten zuten besogain bikoitz bat jokalditik ezer etzakiena; hauek jarraikitzen zuten egunorotako bizian den ezteusaren erraiten eta, Racine-ren doinu berezituen orde, argira ginarri lotura batzuen emaiten; eta goititzen zuten oihaleria berriz beheiti jausten zen, gauzen erorpeneko leger oihalen malgutasun gezak baizik kontra-egiten etzaukon zuzentasunean. Ordu hortan ene ondoko andere ttipiak egin zuen:

- Eskuzarta bat ere ez! Eta zer phildan emana den! Baina zaharregia da, gehiago eztezake, utzi behar da orduan.

Auzoen "ixo"-etan, harekin ziren bi mutiko gazteak geldi-araztera entseatu ziren, eta zuen haserre eroa etzizakon gehiago begietan baizik bortizten. Haserre hori etzaitekeen bertzela ere arrakastari, omenari baizik igorria izan, hainbertze diru irabazirik Berma-k ezpaitzuen zorrik baizik. Beti egitekoen gatik ala adixkidantzaz hetara joan etzaitekeen hitzartzetan, bazituen karrika guzietan lasterrez desmezutzera zaozen mutil-jantziak, hoteletan aitzinetik atxikiak zituen bizitegiak eta nehoiz hartzen etzituenak, bere zakurr-emen ikuzteko usainon itsasoak, hitzeman utzien ordaintzeko zorrak. Gastu gotorragoen gabean, eta Kleopatra baino gutiago atseginkoi, posta-mezuetan eta Hiriko karrosetan hatzemanen zuen herrialde 'ta erresumen jateko bidea. Baina andere ttipi hura zoririk ukana etzuen antzokiko jokari bat zen eta Berma-rendako hiltzeko herra bazadukana. Hau tauletara sartua baizik etzen. Eta orduan, oi mirakulua!, arratsetan ikastera debaldetan ezinduak giren erakastaldi hetan bezala, lo egin eta, gutan gogoz ikasiak aurkitzen baititugu, eta ere gure orhoitaren indar suharrak berraurkitu ahal gabe jarraikitzen zezteen hilen aurpegiak bezala, gehiago gogoan eztitugularik hor baitira gure aitzinean, biziaren itxurarekin, haren izaite hutsaren bila hain amikatuki nindabilanean ihes egina zautan Berma-ren antzea, orai, ahaztezko urte horien ondotik, ezpaiko ordu hortan, ene miresmenaz jabetzen zen agerian denaren indarrarekin.

Lehenago, antze horren berextera entseatzeko, entzuten nuenetik zerbait moldez baztertzen nuen jokaldia bera zena, jokaldia, *Phèdre* badematen jokari guziena den zatia, aitzinetik ikasia nuena baztertu ahal ukaiteko, ondarkin bezala Berma-ren antzeaz bertzerik ez biltzeko. Baina jokalditik berexirik ikustera entseatzen nintzan antze hori, harekin bat zen. Hala nola musikari handi baten jokoa (Vinteuil horrelakoa omen zen piano joiten ari zenean), hain duenean pianolari handi batena nun joilea pianolaria denez ere ezpaita batere ohartzen (artean ezartzen ezpadu bere erhi indarreria guzia, han hemenka eragin distiratu batzuez koronatua, nota erauntsi hori guzia, zeri lot eztakien entzuleak uste baitu bederen horietan antzea bere egia hutsean, ezin aldatuan aurkitzen duela), hain arina bilakatua baita, emaiten duenaz hain betea nun bera ezpaita ikusten ere, ezpaita leiho bat baizik nagusi-lan batera idekia. Aricie, Ismène, Hippolyte-ren mintzoa eta

jestu-jokoa bazterdura bat bezala inguratzen zituzten xedeak, berexi ukan ahalak nituen; baina Berma-k bere barneratuak zituen, eta ene gogoa etzen heldua izana, erran-molde 'ta egonaratik, gainditzen etzituzten (hain ziren hartan barna sartuak) aurkintza horien, eragin horien ekhentzera, eta bere azal leunen xoiltasun zuhurrean hartzera.

Berma-ren mintzoak, ezpaitzen gehiago hartan gauza geldi eta gogotik baztertu ondarkin bakar bat ere, etzuen bere inguruan ohartzera uzten, Aricie edo Ismène-ren harbizizko mintzoan (iretsi ahal ukanak etzituelakotz) jariotzen ikusten ziren nigar soberakiner; aldiz berazki malguturik izana zen bere zelula den ttipienetan, arrabitalari handi baten tresna bezala haren baitan nahi denean laudatu, soinu ederra duela erraiten delarik, ez gauzetako berezitasun bat baina arimako goientasun bat; eta aro zaharreko eskualde batean, ur-jainkosa itzali baten lekuan, bizirik gabeko ithurri bat aurkitzen den bezala, hartan xede berezi eta egiazko bat soinu mota batera aldatua zen, argitasun bitxi, egoki eta hotz batekilakora. Berma-ren besoak, neurtitzek berek mintzoa ezpainetarik jalgi-arazten zaukoten olde berean bulharretik goiti-arazten zituztela iduri baitzuten, hala nola jalgitzean urak lekuz aldatzen dituen orstoak; tauladan zuen egonara, emeki moldatua, oraino aldatuko zuena, haren lagunen jestuetan hatza ikusten zizeenetik bertze barnatasun bat zuten arrazoinamenduez egina, baina bere nahizko ithurburua galdua zuten arrazoinamenduez, halako arraitasun batean urtuez, hartan pilpira-arazten baitzituzten, Phèdre-ren inguruan, gauza batzun aberats batzu - baina ikusleak, lilluran, ez jokariaren ongi heltze bat baina biziko gauzak zirela uste baitzuen -; oihal xuri hek berak, ezinduak eta leial, gai bizi beretik eginak iduri baitzuten eta oinaze erdi-pagano erdi-jansenixtak irunak, kuxku beratz hozpera bat bezala haren inguruan tinkan: horiek guziak, mintzoa, egonarak, jestuak, oihalak, ideia baten gorputza den neurtitz baten inguruan (gorputz hori ezpaita, giza-gorputzak direnen kontra, traba ilun bat, baina jantzi garbitu, izpiritu bilakatu bat), etziren gainerateko estalgi batzu baizik, beretuak zituen arima eta hetan hedatua zena, gordetzeko orde, edertasun handiagoan emaiten baitzuten; etziren gai ezperdin batzuen ixurkiak baizik, argal bilakatuak, bata bertzearen gainean emanik ezpaitute aberaskiago baizik agerr-arazten zeharkatzen dituen erdiko arrai hetsia, eta hedatuago, baliosago, ederragotzen baizik hartan sarturik dagon gai suaz hartua. Bermaren adiarazpena horrela, tragediaren inguruan, bigarren lan bat zen jeinuaz bizi-berritua.

Ene sendimendua, egia erran, lehengoa baino gozagarriago, etzen bertzelakoa. Baina enuen antzertiko jeinuaren aitzin-gogo arrazoin hutsezko eta falsu batera erkidatzen, hartzen nuen antzertiko jeinua, hain zuzen, hori zela. Uste nuen arestian, Berma entzuna nuen lehen aldian atseginik ukana ezpanuen, hori zela, lehenago Champs-Elysées-etan Gilberte aurkitzen nuenean bezala, gutizia handiegiarekin jiten nintzalakotz. Nahigabe bien artean etzen bakarrik behar bada iduripen hori, baina bertze bat ere, barnagoa. Berezitasun azkarra duen norbaitek, lan batek (edo adiarazpen batek) emaiten daukun bihotz hunkidura, ezta bertzeak bezalakoa. Guhaurekin ekharri ditugu "eder", "estilo zabal", "hunkigarri" ideiak, azken-azkenean ukan baiginezake antze, aurpegi onhargarri baten arruntasunean ezagutzen ditugulako iduripena; baina gure izpiritu ohartiak aitzinean du gogoan

berdinik eztuen molde baten hisipena, hortarik ezagutzen eztena athera behar duena. Soinu mehe bat badantzu, doinu bitxiki galdekari bat. Galdez dago bere baitan: "Ederra dea? sendi dutana, miresmena dea? hori dea margoetako aberastasuna, nobletasuna, indarra?" Eta berriz ere ihardesten daukona, mintzo mehe bat da, doinu bitxiki galdekari bat, ezagutzen ezten izaite batek bademan iduripen bortxatzalea, osoki gauzazkoa, eta hartan gune hutsik batere eztena "adiarazpenaren zabaltasunarendako". Eta hortakotz lan zinez ederrek gituzte, zintzoki entzunak baldin badira, gehienik nahigabetu behar, bat ezpaita, gure ideien bilduman, norbaiten iduripen bereziari ihardets dezonik.

Hori zautan hain zuzen erakusten Berma-ren jokoak. Hori zen bada errammoldeko nobletasuna, adimena. Banakusan orai adiarazpen zabal, poesiazko, indardun bat zer den; edo izaitekotz horri zizazkon hitz horiek eman nahi izanak, baina mythologiatik ezer eztuten izar batzuer Mars, Venus, Saturne-ren izena emaiten zauen bezala. Mundu batean senditzen dugu, bertze batean gogatzen, izendatzen, bien artean berdintasun bat jar dezakegu, baina arteka ezin bete. Arteka hori zen bada, zilo hori, apur bat iragan behar ukana nuena, Bermaren jokoaren ikustera joana nintzan lehenbiziko egunean, hura ene beharri guziez entzunik, apur bat neke izana zizatanean "adiarazpeneko nobletasuna", "berezitasuna" izeneko ene ideietara joaitea, eta hutsune baten ondotik baizik enintzanean eskuzarta egitera eman, hauk ezpalire bezala ene iduripenetik beretik sortzen, baina nituen aitzingogoeter lotzen baneztee bezala eta "Berma entzuten dut azkenean" neure baitan erraitean nuen atseginari. Jende baten, lan azkarki berezi baten eta edertasunaren ideiaren arteko erperdintasuna berdin handia da ere sendi-arazten daukutenaren eta maitasunezko, miresmeneko ideien artean. Hortako dira ez ezagutzen. Berma-ren entzuten atseginik enuen ukana, maite nuenean Gilberte-ren ikusten ukana nuen baino gehiago. Neure baitan errana nuen: "Eztut beraz miresten." Baina orduan enuen jokariaren jokoaren barnatzea baizik gogoan, enintzan hortaz baizik axolatua, indar banagien ene gogoaren idekitzeko ahal bezain zabal hark zadukan guziaren ukaitera: orai hartzen nuen hain zuzen hori zela, mirestea.

Berma-ren adiarazpena horren agerr-araztea baizik etzen jeinu hori Racineren jeinua zena bada bakarrik?

Hori uste ukan nuen lehenbizian. Hutsetik atheratua izan behar nuen, *Phèdre*-ko egitaldia bururatua izan zenean, ikuslek Bermari egin dei berritzen ondotik, hetan ene auzo zahar errabiatuak, bere soin ttipi-ttipia zuzenduz, zeharka ezarriz, begitarte guzia geldirik atxiki zuelarik eta besoak papoan gurutzatu bertzen eskuzartekin etzela nahasten erakusteko eta izigarrikoa uste zuen baina nehor ohartu etzizakon ihardokitze baten hobeki agerian ezartzeko. Ondoko zatia, lehenago, zuten aiphamen eskasaren gatik, arin, bitxi iduritzen zizaztan berrikerietarik bat zen, izaiterik ezpaitzuten hetaz emaiten zen agerralditik hara. Baina nagusi-lan baten betierekotasunak etzadukala tauladaren barandako luzetasuna baino gehiago, eta gertaldizko antzerti batek hain ontsa betetzen zuen erakustaldiaren iraupena baizik etzuela ikusteko atsekabe hartarik enuen ere. Gero ikuslek maite zutela sendi nuen zati bakoitzari eta egun batez aiphatua izanen zenari, iraganean ukana ahal etzuen omenaren eskasean, gaineratzen naukon

ethorkizunean ukanen zuena, bere agertze meheko aroan nork bere baitan nagusilanen itxuratzeko behar duen gogo indarraren kontrako batez, haien izenburu oraino nehoiz ez entzunak etzuelarik iduri berantago, argi ber batean nahasirik, egilearen bertze lanen ondoan ezarri beharko zela. Eta jokaldi hori emanak zituen ederrenen lerroan agertuko zen egun batez, Phèdre-ez emana zuenaren ondoan. Etzen bereaz osoki baliorik gabea; baina Berma hartan *Phèdre*-etan bezain gaingainekoa izana zen. Orduan hartu nuen idazlearen lana etzela tragedialariarendako gai bat baizik, bereaz nunbait han ezpaikoa, adiarazpenean egiten zuen nagusilaneko, Balbec-en ezagutua nuen margolari handiak, Elstir-ek, balio bera duten bi margazkien gaia aurkitua zuen bezala, berezitasunik gabeko ikast-eraikuntza batean eta bera nagusi-lan bat den kathedrale batean. Eta margolariak etxe, orga, jende elgarrekin urtzen dituen bezala gai batera ekhartzen dituen argiztatze handi batean, Berma-k izialdurazko, maitasunezko eremu zabal batzu hedatzen zituen, hitz hein berean bateratuetan, guziak aphaldu edo goitituetan, edergile bienarteko batek bata bertzetik berexiko zituenean. Bakoitzak bazuen segurki bere doinua, eta Berma-ren erran-moldeak etzuen neurtitzak entzunak izan zaiten debekatzen. Eztea jadanik batzuntasun arautuzko, edertasunezko gai lehen bat, errima bat entzuten denean, erran nahi da aitzineko errimarekin berdina eta ezperdina den zerbait, hark ekharria dena, baina gogamen berri baten aldapena hartan sartzen duena, bi arauketa sendi direnean, bata gogozkoa, bertzea neurtitzarakoa? Baina Bermak bizkitartean hitzak sarr-arazten zituen, neurtitzak ere, neurtitzaldeak ere, berek bazegiten baino bilduma handiago batzuetan, haien mugan gelditzera bortxatuak zirela ikustea xoragarri baitzen; horrela olerkari batek atsegin hartzen du ephe batez, erriman, abiatzera doan hitza zalantzan egon-arazten duenean, eta musikari batek operako idazki bateko hitzen nehastean kontra egiten dauen eta aitzina deramatzan neurkada ber batean. Antzerlari berriaren erranaldietan Racine-ren neurtitzetan bezala, Berma-k bazakien bere nagusi-lanak zituen oinazezko, nobletasunezko, maitasunezko iduri zabalen sartzen, hetan ezagutzen baitzen, modela ezperdin batzuetarik eginak dituen potretetan margolari bat ezagutzen den bezala.

Enituen gehiago lehen bezala geldi-arazi nahiko ez Berma-ren egon-moldeak, ez argi berehala ezeztatu eta berritzen etzen batean ephe bakar batez emaiten zuen kolorezko ikuskarri ederra, enaukon ere ehun aldiz neurtitz bera errepika-arazi nahiko. Hartzen nuen ene lehengo gutizia, poetaren, tragedialarisaren, hunen taulada-moldatzalea zen ederlangile handiaren borondatea baino zorrotzagoa zela, eta airera neurtitz batean hedatua zen goxagarritasun hura, jestu aldakor beti bertzelakatu hek, ikuskai jarraiki hek, antzokiko ederlanak nahi zuen ondorio iheskorra zirela, ephe bateko helburua, nagusi-lan higikorra, entzule gehiegi hartu baten oharpenak geldi-arazi nahiz barreatuko zuena. Ukan berria nuen eta behar bada baligarrikiago erabili ahalko nuen bozkarioaren barnatzea bilatu gabe, banion neure baitan lehenago ikastetxeko lagun batek zion bezala: "Berma dut zinez lehenbiziko lerroan ezartzen", nahasiki sendi nuen batean Berma-ren jeinua etzela behar bada ene hautuko baiespen hortaz zuzen zuzena emana eta "lehenbiziko" leku hortaz, zein ere jabaldura ekhartzen baitzautaten.

Bigarren antzerti hori hasi zenean, Guermantes-ko Anderearen aldera behatu nuen. Prinzesak, ene gogoa hutsean jarraikitzen zizakon marradura atsegingarri bat sortzen zuen mogimendu zabal batean, burua bere egongiaren zokora itzuli berria zuen; gomitak zutik zauden, hek ere athera itzulirik, eta bazegiten lerro bikunaren artean, bere segurtasun irabazlean eta jainkosa baten handitasunean, baina hoin berant jiteaz eta ikustaldiaren erdian jende guziaren zuti-arazteaz zuen alegiazko ahalge irriñodun batek emaiten zuen eztitasun ez ezagun batekin, sartu zen, musulina xuriz osoki inguratua, Guermantes-ko Dukesa. Bere gusiaren gana zuzen joan zen, gur handi bat egin zuen lehen lerroan jarria zen mutiko gazte ile hori bati, eta, harpearen zolan igerikan zauden itsas-mustro sakratuen gana itzuliz, Jockey-Glub-eko erdi-jainko horier - ordu hartan izan baitziren, bereziki Palancy-ko Jauna, izaitea gehienik gutiziatuko nauen gizonak - egin zauen adixkide zahar baten agur etxekotua, hamabortz urtez geroz haiekilakoa egunetik egunera edukia zuelako aierua. Adixkider igortzen zauen behako irriñodun hori senditzen nuen, baina enezakeen argi, zuen dirdira urdineztatuan, eskua batzuer eta bertzer uzten zauelarik, eta, haren prisma zatikatu ahal ukan banu, krixtaildurak ikhertu, erakutsiko baitzautan behar bada ordu hartan agertzen zizakon bizi ezezagunaren izaite hutsa. Guermantes-ko dukea heldu zen emaztearen ondotik, begitako bakunaren leinuru airosak, hortzetako irriak, julufrearen xuriak edo papoko ixurtuarenak, baztertzen zituztela, bere argiari lekuaren uzteko, bekainak, ezpainak, jantzi handia. Haien soingainera beheititu zuen eskuko jestu batez, zut-zuta, burua higitu gabe, jar zaitezen manatu zauen lekua egiten zaukoten itsas-jainko aphalagoer, eta barnatuki gurtu zen mutiko gazte ile horiaren aitzinean. Erranen zen dukesak asmatua zuela gusiak - trufatzen omen baitzen haren "gehiegi egiteak" zeritzeenez (eta dukesaren ikuspegi izipirituki frantzes eta osoki neurtuan poesia eta gartsutasun germaniarrek izen hori berehala hartzen zuten) - arrats hartan ukanen zuela dukesak hetan "beztitua" aurkitzen zuen jantzi hetarik bat, eta nahi ukanen zaukola gostuzko ikaspen bat eman. Prinzesaren burutik lephorano jausten ziren luma miragarri goxoen orde, maxkur eta perlazko ile-sarearen orde, dukesak etzuen iletan luma-kukuruxta bakar bat baizik, haren sudur mako eta begi aitzinatuen gainetik, xori baten kukuruxta baitzidurien. Lephoa eta soingainak musulinazko uhain elhurtsu batetik jalgitzen zizazkon, zisne lumazko aireztagailu batek hartara joiten zuela; baina gero zaiak, haren gorpotxak aphaingailu bakarretako baitzituen ala metalkiz, xirika eta bihika, ala diamankiz, ezin zenbatuzko lastakak, soina moldekatzen zaukon xorroxtasun osoki britaniar batean. Baina bi aphaindurak bata bertzetik hain ezperdinak izanik ere, prinzesak gusiari ordurano jarria zen kadera emana ukan zaukonean, ikusi ziren, bat bertzearen gana itzuliz, elgar miresten.

Biharamunean Guermantes-ko Andereak irriño bat eginen zukeen prinzesaren ile-antze soberaxko nahastekatuaz mintzatuko zenean, baina erranen zuen segurki etzela gutiago xoragarria eta miragarriki aphaindua; eta prinzesak, gostuz, apur bat hotz, apur bat idor, apur bat jostun egiten zuen zerbait aurkitzen baitzuen gusia janzten zen aran, garraztasun oso hortan edirenen zuen xorroxtasun bat ezin hobea. Bertzela ere haien artean harmoniak, erakaskuntzaz aitzinetik jarri ohiduren indar orotakoak, ezeztatzen zituzten ez bakarrik elgar-arautzeko

kontramoldeak baina egonarakoak. Egin-moldetan zuten jendetasunak elgarren artean thiran emaiten zituzten hari ezin ikusi eta bata bertzera erakharri horietan, prinzesaren jite elhakina agortzen zen, dukesaren garraztasuna hetara erakhartzera, gurtzera, eztitasun eta xoragarritasun bilakatzera uzten zen batean. Emaiten ari zen antzertian, Berma-k poesiatik agerr-arazten zuenaren hartzeko, egiten zuen eta bakarrik hark egin zezakeen jokaldiaren emaitea bertze jokari edozeini aski zen bezala, berdin ere begiak galeriara goitituko zituenak, ikusiko zuen, bi egongietan, haren ustez Guermantes-ko prinzesarenaz orhoit-arazten zuen "antolamendu" bat, Morienval-go baroinesari emaiten baitzaukon itxura ezin bitziagoa, handi-nahi eta gaizki ikasia, eta jantzietako aphainean Guermantes-ko dukesak bezala egiteko indar bat aldi berean pairakor eta gastuzkoa, Cambremer-ko Anderea probinziako ikasle zenbaiti iduri-arazten zuena, burdin-hari batean bezala zut, idor, zorrotz, iletan goiti zuzen hilorga bateko gandorrarekin. Badateke azken hunen lekua etzela horrelako sala batean izanen, han urteko emazte distiratuenekin baitzuten bakarrik egongiek (eta estaia gorenetakoek ere, beheretik zare gotor jende lorez bete batzu iduri zutelarik, bere balusazko berextekoen uhal gorriez sala-gaineko uztaiari estekan) ikuspegi bat moldatzen, heriotzek, eskandalek, eritasunek, samurgoek sarri aldatuko zutena; baina ordu hartan oharpenak, beroak, burxoroak, erhautsak, aphaindurak eta aspertzeak geldirik zadukatena, ohartu gabeko igurikatzez eta kukuldura eztiz egina zen ephe betiereko eta tragediako berezi hartan, iduri baitu, gibeletik ikusirik, bomba zenbaiten lehertzea edo sute baten lehen garra aitzindua duela.

Cambremer-ko Anderea horrara ekharria zuen arrazoina hau zen: Parme-ko prinzesak, egiazko goientasunak bezala handi-ustekeria gabea, eta, aldiz urguluaz, Ederlanak zirela uste zituenen gostua haren baitan berdintzen zuen garitate egiteko gutiziaz jana, egongia zenbait emana zuen han edo hemen arixtokraten jendalde handian barne etziren Cambremer-ko Anderea bezalako emazte batzuer, baina haiekin ezagutzetan baitzen ongi-egitezko lan batzuetako. Cambremer-ko Andereak begiak etzituen Guermantes-ko prinzesatik eta dukesatik aldaratzen, are gehiago errex zizakona nun, haiekin egiazko ezagutzarik ez ukanez, ezpaitzuen agur baten eske zagola iduri ukaiten ahal. Bi andere handi horien etxean onhartua izaitea zen alta hamar urte hartan pairamen akit-ezin batekin jarraikitzen zizakon helburua. Bortz urteren buruko han izanen zatekeela karkulatua zuen. Baina barkatzen eztuen eritasun batez hartua eta, medikuntzako jakitatean ezaguna izan nahiz, urrikalmendu gabekoa zela uste baitzuen, hortarano ez heldu ahal ukaiteko beldurrean zen. Zorion zuen bederen arrats hartan gogoan baitzuen guti ezagutzen zituen emazte horiek guziek ikusiko zutela haren ondoan adixkidetan zuten gizon bat, Beausergent-eko markes gaztea, Argencourt-eko Anderearen anaia, berdinki bi jende lerroetan zabilana, bigarreneko emaztek lehenbizikoen begietan biziki maite baitzuten haren han izateaz baliatzea. Cambremer-ko Anderearen ondoan jarria zen zeharka eman kadera batean bertze egongietara bazterrez behatu ahal ukaiteko. Han jende guzia ezagutzen zuen eta, agurtzeko, bere egon-molde arkutu pollitarekin, ile horiekilako buruantze xorrotxaren aphaintasun xoragarriarekin, bere soin zuzendua erdi goititzen zuen, irriño bat begi urdinetan, errespetua arinkeriarekin nahasiz, iduri marrazkitzen zuela horrela, xorroxki jarria zen laurki luze zeharkatuan, jaun handi

burgoi gortelari bat itxuratzen duten grabadura zahar hetarik bat. Ainitzetan onhartzen zuen antzokira Cambremer-ko Anderearekin joaitea; salan eta atheratzean, atharian, bazagon kuraiarekin haren ondoan hor zituen andere adixkide aiphatuago guzien ondoan baina haier mintzatu gabe, hek ez jenatu nahiz, lagungo gaitz batean baliz bezala. Orduan iragaiten baldin bazen Guermantes-ko prinzesa, Diana bezain arin eta eder, paregabeko soineko luze bat gibeletik herrestan, buruak oro itzul-araziz eta begi oroz jarraikia (Cambremer-ko Anderearenez bertze guzienez baino gehiago), Beausergent-eko Jauna auzoko anderearekin solasean sartzen zen, prinzesaren adixkidantzazko irriño lilluragarriari etzuen bortxaz baizik ihardesten, ordu hartan behar bada haren maitagarritasuna jenagarri bilakatu den norbaiten herabe ontsa ikasiarekin eta garitatezko hoztasunarekin.

Cambremer-ko Andereak ezpalu ere jakin egongia prinzesarena zela, ezagutuko zuen Guermantes-ko Anderea zela gomitatua, tauladako eta salako ikuskarriari emaiten zuen ohartze iduriz handiagotik gomitatzalearen aldera amultsu izaiteko. Baina bazterrerako indar horrekin batean, amultsu izan nahizko gutizia horrek berak egiten zuen indar kontrako batek dukesaren oharra berriz ekhartzen zuela haren jantzira, luma-kukuruxtara, lepho-ingurukora, gorpotxera eta ere prinzesarenera, gusiak iduri baitzuen hunen menpeko, esklabo aithortzen zela, hunara bakarrik haren ikusteko ethorria, egongiaren jabeari burutik iragan balizako bertze norapait hari jarraikitzera prest, sala gaineratekoari arrotz ikusteko bitxi batzuez egina bezala baizik ez behatuz, han bazuelarik alta adixkide andana bat, bertze aste batzuetan hauen egongietan baitzen eta ezpaitzuen orduan hauen aldera leialtasun oso, noiz nola arautu eta aste orotakoaren erakustea huts egiten. Cambremer-ko Anderea ustegabetua zen arrats hartan Guermantes-ko Anderearen ikusteaz. Bazakien biziki berant Guermantes-en zagola eta oraino han zela uste. Baina errana zaukoten batzuetan, ohargarri zadukan ikuskarri bat bazelarik Parisen, ihiztarien thea hartua zueneko, Guermantes-ko Andereak bere karrosetarik bat atela-arazten zuela eta, iguzki sartzean, trosta handian abiatzen zela, oihan ilunabartuan zehar, gero bidez, Combray-n treinaren hartzera arratsean Parisen izaiteko. "Behar bada Guermantes-tik espes heldu da", zuen gogoan miresmenekin Cambremer-ko Andereak. Eta orhoit zen Zuani erraiten entzunik, Charlus-ko Jaunarekin batean zuen erdara bitxian: "Dukesa Paris-ko jende noblenetarik bat da, goreneko xorrotxenetarik, hautatuenetarik." Nik aldiz, bi gusiez nuen ideia (haien begitarteaz enezakeen ukan, ikusiak nituenaz geroz) Guermantes izenetik, Bavière izenetik eta Condé izenetik moldatzen nuenak, nahiagoko nuen *Phèdre*-z zuten aburua jakin munduko kritikalari handienarena baino. Ezen enuen harenean aurkituko adimendurik baizik, enea baino goragoko adimendutik, baina mota berekotik. Baina Guermantes-ko prinzesak eta dukesak gogoan zutena, eta bi izaite poesiadun horien jiteaz lekukotasun ezin estimagarri bat emanen zautana, haien izenen laguntzarekin asmatzen nuen, uste nuen bazela hetan arrazoingabeko xoramen bat eta, sukardun baten egarri eta bihotz-minarekin, *Phèdre*-z zuten aburuari eskatzen naukona, Guermantes-ko aldean ibilia nintzan arratsaldetako xoramena zen.

Cambremer-ko Anderea bi gusiek zein aphainketa mota zuten berextera entseatzen zen. Nik aldiz, enuen aphainketa horiek bereziak zizezteela dudan emaiten, ez bakarrik lepho gorriarekilako edo ginper urdinarekilako sehi-jantzia bereziki Guermantes-tarren eta Condé-tarrena lehenago egiazki zen erran-nahian, baina izaitekotz lumantzea xori batendako den bezala ez bakarrik aphaindura bat, baina gorputzaren hedatze bat. Bi emazte horien jantzia barneko biziaren gauzatze elhurtsu eta nabar bat bezala zizatan, eta, Guermantes-ko printzesari egiten ikusiak nituen jestuak eta gogamen gorde bati arautuak zirela dudan emaiten enituenak bezala, prinzesaren bekokitik jausten ziren lumek eta haren gusiaren gorpotx lilluragarri lastakatuak iduri zuten erran-nahi bat bazutela, emazte bakoitzarendako bakarrik berea zuen ezagugarri bat zela eta zer erran nahi zuen jakin nahi nuena: parabisuko xori baten ganik ezin berexia iduri zizatan, Junon-en hegazterrena bezala; enuen uste emazte bat ere bortxaz jabe zaitekeela bertzearen gorpotx lastaskatuaz Minerva-ren erredola dirdiratu listunaz baino gehiago. Eta begiak egongia hortara nematzanean, alegoria hotz batzu margoztatuak ziren antzoki gainean baino ontsa gehiago, Jainkoen bilzarrea ikusten banu bezala zen, ohiko hedoien urratze mirakuluzkoari esker, gizonek bazegiten ikuskarriari beha egonki, oihal itzalkari gorri baten azpian, arteko argitaldi batean, Zeruko bi zutaben artean. Goientze iragankor horri beha nindagon Hil-ezinez ezaguna ez izanaren sendimenduak uhertzen zuen nahasmen batean; dukesak bere senarrarekin aldi batez ikusia ninduen bada, baina segur da etzaitekeela orhoit; egongian zuen lekuaz, orkeztrako jendek bazegiten itsas-mamutxa multzo izengabeari beha zagolakotz enuen sofritzen, sendi bainuen zorionez ene izaitea haien erdian urtua, argi-zehardurako legen indarraz jin baitzaitekeen bi begi urdinen ur geldian marrazkitzera nintzan mamutxa bere baitarik bizigabekoaren itxura nahasia, ikusi nuenean argi batek dirdiratzen zituela: dukesak, jainkosatik emazte bilakatua eta bapatez mila aldiz ederragoa iduri zizatana, ene aldera goititu baitzuen egongia bazterrean ezarria zadukan esku xuriz larruztatua, inharrosi adixkidantzako seinalez, ene soak senditu ziren prinzesaren begietako garrez eta su nahigabekoaz gurutzatuak, phindarretan ezarriak zituela jakin gabean higituz bakarrik gusiak agurra nori errana zaukon ikusteko, eta hunek, ezagutua baininduen, ene gainera eror-arazten zuela bere irriño zerutar dirdiratuaren erauntsia.

Orai goiz guziez, atheratzen zen baino ontsa lehenago, itzuli handi bat eginik banindoan ohiki handik jausten zen karrikaren izkinan goaitan jartzera, eta, haren iragaitea hurbil iduritzen zizatanean, karrikan berriz igaiten nintzan alegia gogoa bertze nunbait, behakoa bertze aldera itzulirik, eta haren heinera heldu orduko begiak haren gana goititzen nituen, baina ikusiko nuela batere uste ukana ezpanu bezala. Lehenbiziko egunetan, ez huts egiteaz segur izaiteko, etxearen aitzinean nindagon ere. Eta athe handia idekitzen zen aldi oroz (iragaiten uzten zituela bat bertzearen ondotik igurikatzen nuena etziren hainbertze jende), haren inharrosaldiak ene bihotzean irauten zuen eztitzen ainitz dembora emaiten zuten zalantzetan. Ezen ezagutzen eztuen komedialarisa handi batez itsutua den bat, jokarien athe aitzinean zutik egoitera joana, jendalde sumindu ala adoratzale bat,

kondenatuaren ala gizon handiaren (presondegi ala palazio barnetik entzuten den harrabots ttipienean iragaitera doala uste baita) laidoztatzeko edo ospetan eremaiteko bildua, nehoiz ere etzen ni nintzan bezain hunkia izan, andere handi hura abia zadin igurikan, hark, bere jantzi xoilean, urratsaren garaziaz (saloin batean edo egongia batean sartzen zenean zuenetik osoki bertzelakoaz), bere goizeko ibilalditik (ibiltzen zenik etzen munduan enetako hura baizik), baitzakien aphaintasunezko poema baten eta eguraldiko edergailu xorrotxenaren, lore berezienaren egiten. Baina hirur egunen buruan, athezaina ene itzul-inguruari ohar etzakidion, banindoan biziki urrunago, dukesaren ohiko bidearen edozein gunetara. Ainitz aldiz antzokiko arratsaldi hori baino lehen, itzuli batzu egiten nituen horrela barazkal-aitzin aroa eder zenean; euritua bazuen, lehenbiziko aterian urrats zenbaiten egitera jausten nintzan, eta bapatez, oinbide oraino bustian heldu, argiak urrez dirdiratuan, iguzkiak zurratzen eta horitzen duen lambro batean erhausten den bidekurutze bateko goientzean, nexkato ikasle bati ohartzen nindakon bere errientsa gibeletik eta esne saltzale bati mahunga xuriak goiti itzulirik, gelditzen nintzan mugimendurik gabe, eskua jadanik oldez bizi arrotz batera zoan bihotzari kontra; karrikaz orhoitzera entseatzen nintzan, orenaz, berriz jalgi gabe batzuetan jarraikitzen nindakon nexka haren gibelean berriz jalgi gabe itzalia zen atheaz. Neure baitan berraurkitzea hitzemaiten nuen iduri pherekatu horien iheskortasunak, zorionez, ene orhoitzapenean azkarki gelditzea debekatzen zauen. Hala ere, gutiago trixte nintzan eri izaiteaz, ehoiz oraino lanari emaiteko, liburu baten hasteko kuraiarik ez ukanaz; lurra egoiteko goxagarriago zizatan, bizia eremaiteko baliagarriago, ikusten nuenaz geroztik Parisko karrikak, Balbec-eko bideak bezala, loreztatuak zirela hain usu Méséglise-ko oihanetarik haien jalgi-araztea bilatua nuen eder ezezagunez, bakoitzak phizten zuela berak baizik ase etzezakeen atseginezko gutizia bat .

Operatik sartzean, zenbait egunez geroz berraurkitu nahi nituen idurier gaineratua nauen Guermantes-ko Anderearena, handia, bere ile hori arin goitituekin, bere gusiaren egongian igorria zautan irriñoan hitzemana zen amultsutasunarekin. Dukesak hartzen zuela Françoise-ek errana zautan bideari jarraikiko nindakon, entseatuko nintzan alta, bezperagoan ikusiak nituen bi nexkato gazten berraurkitzeko, ikastordu eta gatixima batetik atheratzearen ez huts egitera. Baina, anartean, noiztenka, Guermantes-ko Anderearen irriño dirdiratua, emana zautan eztitasunaren sendipena, berriz heldu zizaztan. Eta zer ari nintzan sobera jakin gabe, ezarri nahi nituen (emazte batek eman berria zaukon harrieriazko botoin mota batzuek zaia batean egin lezaketenari behatzen duen bezala) aspaldi danik nituen elhaberrizko ideien ondoan, Albertine-ren hoztasunak, Gisèle-ren joaite goiztierregiak eta, hori baino lehen, Gilberte-ren ganik berexte nahitu eta luzatuegiak liberatuak zituenen ondoan (behazunez emazte batek maitatua izaitearen, harekin bizitzearen). Gero bi nexkato gaztetarik bat edo bertzearen iduria nuen gogoeta horietara hurbiltzen, berehala ondotik dukesaren orhoitzapenaren eratxikitzera entseatzen nintzalarik. Gogoeta horien ondoan, Guermantes-ko dukesaz Operan nuen orhoitzapena ontsa gauza guti zen, izar ttipi bat bere adar luze garreztatuaren ondoan; gainera gogoeta horiek Guermantes-ko

Anderea ezagutu baino lehenagotik biziki ontsa ezagutzen nituen; orhoitzapena, aldiz, enuen osoan; artetan ihes egiten zautan. Bertze emazte pollit batzuen iduria bezala nitan airean zabilan orduetan zen, apurka, hainbat aitzinagokoak ziren ene elhaberrietako ideiekin batasun bakar eta behin betiko batera iragan behar ukanen, hobekienik gogoan nuen oren horietan zuzen nor zen jakiteaz axolatua behar izanen; baina enetako hartuko zuen balioa orduan enakien; goxagarria zen bakarrik Guermantes-ko Andereak nihaurekin zuen lehenbiziko aurkitaldi bat bezala; bizitik egina zen lehenbiziko marrazkia zen, egiazko bakarra, zinez Guermantes-ko Anderea zen bakarra; hari oharpen emaiten jakin gabe nitan edukitzeko zoriona ukan nuen oren gutietan, ontsa xoragarria izan behar zukeen alta, orhoitzapen horrek, ene maitasunezko gogoetak beti haren gana berritzultzen zirenaz geroz, orduan oraino libroki, lehiarik gabe, akhidurarik gabe, baitezpadakorik ez antsiadunik jeus gabe. Gero, gogoeta horiek alde bat jarriago arau, hetarik indar handiago bat hartu zuen, baina bera nahasiago bilakatu zen; laster enuen berraurkitu ahal ukan; eta ene ametserietan, moldez osoki aldatzen nukeen, ezen, Guermantes-ko Anderea ikusten nuen aldi oroz, urruntze bati ohartzen nindakon, beti ezperdinari, asmatua nuenaren eta ikusten nuenaren artean. Orai egun oroz, bada, Guermantes-ko Anderea karrika buruan agertzen zenean, banakusan oraino haren soin gora, ileantze arinaren azpian so argiarekilako aurpegi hura, horien gatik hor nintzan gauzak oro. Baina aldiz, zekunda zenbait berantago, noiz ere, bila heldu nintzan aurkintza horren aiduru nindagola ez iduri ukaiteko begiak bertze alde batera itzuli eta, dukesaren gana goititzen bainituen karrikan haren hein berera banathorrenean, orduan ikusten nituenak, marra gorri batzu ziren, enakielarik aire beteak emaiten zituenez ala largorridurak, begitarte mutiri batean, kheinu ontsa idor eta *Phèdre*-ko arratsean zuen amultsutasunezkotik ontsa urrunduan, egun oroz alegia ustegabeturik emaiten naukon eta iduriz gustatzen etzizakon agurrari, ihardesten zuelarik. Alta, egun zenbaiten buruan, hetan ene maitasunezko gogoeten nagusigoko bi nexkato gazten orhoitzapena zori ezpedinetan gudukatu baitzen Germantes-ko Anderearenarekin, hau zen, bere baitarik bezala, usuenik azkenean berphiztu, burkideak ezeztatzen ari ziren batean; huntara nituen eremanak ukan, azkenean, oro har nahitara ere, hautuz eta atseginez bezala, ene maitasunezko gogoetak. Enituen gehiago buruan ukan gatiximako nexkak, ez eta delako esnekari bat; eta bizkitartean karrika izkinan bila jina nindagonaren aurkitzeko itxaropenik enuen gehiago, ez antzokian irriño batean hitzeman amultsutasunaren, ez eta urrundik baizik horrelakoak etziren itxura eta ileantze horiaren azpian begitarte argiaren aurkitzekorik. Enuen orai erranen ahal Guermantes-ko Anderea nolakoa zen ere, zertarik ezagutzen nuen, egun oroz, hura zen guzian, begitartea bertzelakoa baitzuen, zaia eta xapela bezala.

Zergatik egun batez, malba-koloreko kapusail baten azpian aitzinatzen ikusiz begitarte ezti leun bat, goxagarritasuna bi begi urdinen inguruan arau berdinean banakaturik eta sudurraren marrak hartan iretsia iduri, ikasten nuen, inharrosaldi alai batetik, enintzala Guermantes-ko Anderea ikusi gabe sartuko? zergatik nuen nahasmen bera senditzen, alegiazko axolagabe berdina egiten, begiak bezperako molde ohargabetu berean itzultzen orrazez agertzen zenean, zeharkako karrika

batean eta xano ttipi itsas-urdin baten azpian, xori mokoaren arako sudur bat, matela gorri baten luzean, begi zorrotz batez marratua, jainkoaizun egiptiar zenbait bezala? Aldi batez ikusi nuena etzen bakarrik xori mokoarekilako emazte bat izan, baina xoria bera bezalakoa: Guermantes-ko Anderearen zaia eta xanoa ere larru iledunez ziren, eta, oihalik batere ez ikustera utziz, naturalki horratua zela iduri zuen, arrano batzu diren bezala haien lumatze lodi, leun, hori-gorri, eztiak ileantze bat iduri baitu. Jitezko lumatze horren erdian, buru ttipiak bere xori mokoa makurtzen zuen eta begiak buru gainaldera zorrotz ziren eta urdin.

Egun batez, karrika handian orenak eta orenak ibilia nintzan Guermantes-ko Andereari ohartu gabe, bapatez, arixtokraziaz eta jende xoilez egina zen auzoalde hartako bi hotelen artean gordea zen esneki saldegi baten zolan, agertzen zenean emazte aphain baten aurpegi nahasi eta berria, "suiza ttipi" batzuen erakuts-arazten ari, eta nik ontsa ikusteko astirik ere ukan gabe, joitera heldu baitzizatan, nitarano jiteko iduriaren gaineratekoak baino dembora gutiago eman ukanen zuen ximixta bat bezala, dukesaren soa; bertze aldi batez, hura ez aurkitua ukanik eta eguerdi joiten entzutean, gogoan hartzen nuen igurikatzen egoitea debaldetan zela, berriz hartzen nuen trixteki etxeko bidea; eta ene nahigabean murgildua, urruntzen ari zen karrosa batean ikustean hari ohartu ere gabe, bapatez hartzen nuen athexkatik emazte batek egina zuen buru kheinua enetako zela, eta andere hura, haren aurpegi erori hitsak ala aldiz thiran eta biziak, moldatzen baitzuen, xapel biribil edo kukuruxta gora baten azpian, ezaguna uste enuen arrotz baten begitartea, Guermantes-ko Anderea zela, neure burua haren ganik agurtzera utzia nuela ihardetsi ere gabe. Eta zenbait aldiz sartzean berraurkitzen nuen, etxezaindegi izkinan, haren behako ikertzaleak hastio nituen etxezain higungarriak han agur handi batzu egiten zauzkola eta dudarik gabe "salakeria" batzu ere. Ezen Guermantes-tarren sehieria guzia, leihoetako erridauen gibelean gorderik, entzuten etzituen elgarrizketaren zelatan zagon ikharan, haren ondotik dukesak ezpaitzuen huts egiten "etxezain mihi luzeak" saldua zuen holako edo halako sehiaren uztea atheratzeko aldiez gabeturik.

Guermantes-ko Andereak erakusten zituen aurpegi ezperdin guzien agertze jarrikien ondorioz, eremu bat hartzen baitzuten, haren aphainduran, noiz nolakoa eta bertzelakoa, noiz hertsia, noiz zabala, ene maitasuna etzen haragi edo oihal zati aldakor horietarik bati edo bertzeari lotua, hartzen zutenean, egunen arabara, batzuek bertzen lekua, berri edo alda baitzezazkeen abantzu osoki ene nahasmena hunki gabe, hetarik, lephoko berritik, matela ezezagunetik hara, beti Guermantes-ko Anderea zela sendi nuelakotz. Maite nuena, hori guzia ibil-arazten zuen jende ezin ikusia zen, hura zen, haren etsaigoak griñatzen baininduen, hurbiltzeak zentzordatzen, haren bizia bildu nahiko bainuen eta haren adixkideak haizatu. Luma urdin bat gora erakuts zezakeen edo larru sutsu bat, haren egintzek enetako bere baliotik galdu gabe.

Egun oroz ene aurkitzeaz Guermantes-ko Anderea aspertua zela ezpanu nihaurek senditu ere, zeharka ikasiko nuen Françoise-ren begitartea betetzen zuten hotzetik, gaitzestetik eta urrikitik goizeko atheratze horiendako prestatzen laguntzen ninduelarik. Ene jantziak galdegiten nauzkon orduko, sendi nuen haize

etsai bat jeikitzen haren begitarteko marra bildu joetan. Françoise-ren konfienxiaren ukaitera enintzan entseatzen ere, helduko enintzala sendi nuen. Bazuen, aitamer eta eni gertatzen ahal zizaikun gozagaitz guziaren berehala jakiteko, bereaz zer zen beti ilun gelditua zatan indar bat. Etzen behar bada naturaz goragokoa eta berri ukaiteko zituen bide batzuetarik argitu ahal zatekeen; horrela dituzte jendalde salbai batzuek berri batzu jakiten postak kolonia europatarrari ekharriak ukan dezezteen baino zenbait egun aitzinetik, eta emanak izan zezteenak, egiazki, ez telephatiaz, baina mendixkaz mendixka phiztu su batzuen bidez. Horrela ene ibilaldien gertakari berezian, badateke Guermantes-ko Anderearen sehiek entzuna zutela etxekanderea bere bidean huts egin gabe ene aurkitzeaz zuen akhiduraren erraiten, eta elhe horiek Françoise-ri errepikatuak zauzkoketen. Aitamek, egia da, Françoise-ez bertze norbait ezarri ahalko zuten ene zerbitzuko, enuen hortan irabaziko. Senditzeko zuen moldean, ona eta urrikaltsua izaitekoan, idor eta goratia, xorrotx eta hetsia, larrua xuri eta eskuak gorri, herri ttipiko andereñoa zen, haren gurasoak "ontsa bere etxekoak" zirenak, baina, hondaturik, sehigoan ezarri behar ukana zutenak. Haren izaitea gure etxean, baserriko airea zen eta laboretxe bateko jenden bizia, duela berrogei-ta hamar urte, hunara ekharriak, hartan udalekua bidariaren gana badatorren bidaia aldez itzuli bati esker. Herrialde batzuetako erakustoki batean aitzindegia emazte baserritarrek josten dituzten oihal lan bereziez egina den bezala, Parisko gure bizitegia Françoise-ren elhek aphaintzen zuten, ohizko eta lekuko sendimendu batzuek emanek eta erregela biziki zahar batzuer obeditzen zutenek. Bazakien hetan, kolorezko hari batzuekin bezala, bere haurzaroko gerezi-ondoen eta xorien, ama hila zizakon ohearen, eta oraino ikusten zuenaren erraiten. Baina hori guzia izanik ere, Parisen gure zerbitzura sartua izan zeneko, beretuak zituen - eta bertze batek are gehiago zituen haren lekuan eginen - bertze estaietako sehien ideiak, gauzen argitzeko legeak, erakutsi behar zaukun errespetua ordainduz laugarreneko kozinersak bere etxekandereari erraiten zauzkon arrunkeriak guri errepikatuz, eta sehi baten halako gozaldiarekin nun, gure biziko lehen aldian, laugarreneko alokari hastiagarriarekin elgartasun bat sendituz gure baitan, baiginion guhauri, alabaina, nagusiak izan behar ginuela. Françoise-ren jitearen gaizte hori ezin hutsegina zatekeen. Bizi batzu hain dira ohi ez bezalakoak nun behar baitituzte hala beharrez narrio batzu eman, hala nola Erregek Versailles-en zeramanak, gortelarien erdian, faraon edo doga batena bezain bitxia, eta, Erregerenak baino biziki gehiago, gortelarienak. Sehiena bitxitasun gotorragokoa dateke oraino eta ohidurak bakarrik gordetzen daukunekoa. Baina, Françoise gibelera igorri banu ere, xehetasun oraino bereziagoetarano nintzan sehi beraren atxikitzera kondenatua izanen. Ezen bertze batzu sartu ahal izan ziren berantago ene zerbitzuan; jadanik sehien akats orotakoez hornituak, behar zuten hala ere enekin lasterrez bertzelakatu. Jaukitzeko legek ihardokitzekoak manatzen dituzten bezala, ene jitezko laztasunez hunkiak ez izaiteko, guziek bazematen bereari leku berean barneratze berdin bat; eta, aldiz, ene eskasez baliatzen ziren hetan aitzineratze batzuen egiteko. Eskas horiek, enituen ezagutzen, horien artekak jartzera uzten zituen adarrak baino gehiago, eskas batzu zirelakotz hain zuzen. Baina sehiek, apurka apurka gaiztuz, ikasi zauztaten. Hek ezin aldatuki hartzen zituzten hutsen

bidez nituen nihauren jitezko huts ezin aldatuak ikasi, haien jiteak eman zautan aitzinera neurearen halako kontra-itxura bat. Ainitz trufatuak ginen lehenago, ama eta ni, Sazerat Andereaz, bere sehiez mintzatzean baitzion: "Arraza hori, mota hori." Baina erran behar dut bertze batez Françoise-ren ordaintzea agiantzatu behar enuelako arrazoina hau zela: bertze hori ere hura bezainbat sehien arraza orotakotik izanen zela huts egin gabe 'ta enen mota berezitik.

Françoise-etara berriz itzultzeko, bizian eztut aphaltze bakar bat senditu aitzinetik Françoise-ren aurpegian doluminak prest-presta aurkitu gabe; eta hartaz urrikitua izanaz haserrean, aldiz ondorio ona ukana nuela erraitera entseatzen nintzanean, ene gezur debaldekoak bazoazen haren sineskabe errespetuzko baina agerian eta hutsik egiten etzuela zuen konzienzian phorroskatzera. Egia baitzakien; ixiltzen zuen eta bakarrik ezpainetako mugimendu ttipi bat egiten oraino ahoa betea balu bezala eta phoxi on bat jaten ari. Ixiltzen zuela? hori sinetsi nuen bederen luzaz, ordu hartan uste bainuen oraino elhetarik dela bertzeren egia ikasten. Erraiten zizaztan elhek ere bere erran-nahi aldagaitza hain ontsa zuten ene gogo sendikorrean uzten, nun maite ninduela errana zautan norbaitek eninduela maite izan zaitekeela ezpainuen sinesten, Françoise-ek berak, egunkari batean "irakurria" zuenean, dudan eman zezakeen baino gehiago aphez batek edo nahi den jaunak igortzean ahal zaukula, postatik bidali galde batean, eritasun guziendako erremedio segur bat edo gure irabazien ehun aldiz handitzeko bide bat. (Aldiz, gure medikuak emaiten baldin bazaukon mafrundiarendako den pomada xoilena, hark, oinaze garratzenetan hain gogorra, zurrupatu behar ukana zuenaz intziraka hasten zen, "sudurra bipiltzen zaukola" erranez, eta jendeak etzakiela gehiago nun bizi). Baina Françoise lehenbizikoa izan zen behazunaz erakutsi zautana (ezpainuen berantago baizik gogoan hartuko, maiteago nuen norbaitek berriz eta mingarrikiago emana ukan zautalarik, ene liburuaren azken zatietan ikusiko den bezala) egiak eztuela errana izaite beharrik agertua izaiteko, eta behar bada segurkiago bil daitekeela, elheak igurikatu gabe eta hetaz batere axolatu ere gabe, kampoko mila seinaletan, ezin ikusiak diren gauza batzuetan ere, naturan aro aldatzeak direnen idurikoak baitira jenden nortasunean. Hori gogoan ukaiten ahalko nuen behar bada, nihauri usu gertatzen zizatanaz geroz, orduan, hetan egiarik batere etzen gauza batzuen erraitean, agerian emaiten nuelarik ene soinaren eta egintzen hainbertze nahigabeko salatzetarik (Françoise-ek biziki ontsa argituak zituenetarik); hortaz jelos nindaitekeen behar bada, baina hortako jakin behar ukanen zen gezurtia nintzala batzuetan eta zimarkuna. Gezurra eta zimarkua nitan ziren bada, jende guzietan bezala, abantail-nahiak hain molde ararte-gabekoan eta gertakizunezkoan manatuak, bere gerizapeneko, nun ene gogoak, amets eder batean geldirik, uzten baitzuen ene nortasuna itzalean lan ahul eta beharrezko horien egitera eta ezpaitzuen horier ohartzeko itzuri egiten.

Françoise, arratsean, enekin gixakoa zenean, ene gambaran jartzeko baimena galdegiten zautanean, iduri zizatan haren begitartea argaltzen zela eta haren baitan ikusten nituela onezia eta zintzotasuna. Baina Jupien-ek, berantago baizik ezagutu enituen mihiluzekeria batzu baitzituen, agertu zuen berantago urkatzeko soka enuela balio erraiten zuela eta hari ahal zen gaiztakeria guziaren egitera entseatua

nintzala. Jupien-en elhe horiek zabaldu zuten berehala ene aitzinean, itxura ez ezagun batean, Françoise-rekin nituen harremanetako marrazki bat hartan ene behakoen jartzea usu laket zizatanenetik hain ezperdina - hartan, zalantza den arinenik gabe, Françoise-ek biziki maite baininduen eta ezpaitzuen ene goraiphatzeko aldi bat galtzen -, nun gogoan hartu bainuen eztela bakarrik gauzetako mundua ikusten daukogun itxuratik bertzelakoa; gauza oro ere zuzen ikusten dugula uste dugunetik eta ageri eztiren baina ari diren gogoeten bidez moldatzen dugunetik berdin hala dela; zuhatzak, iguzkia eta zerua elizatezkeela ikusten ditugun bezalakoak, gurez bertzela eginak diren begiak dituzten izaite batzuez ezagunak balire, edo lan hortako begiak ez bezalako tresna batzuez, eta zuhatzez, zeruaz, iguzkiaz itxura berdinak baina ez soaz eginak eman lezazketeenez. Izan zen bezala, egiazko munduaz Jupien-ek aldi batez ideki zautan bapateko arte horrek laztatu ninduen. Hori etzen oraino guti axolatzen ninduen Françoise-ez baizik. Berdin zena gizarteko elgargo guzietan? Eta nolako etsipenerano ereman nindezakeen horrek egun batez, maitasunean berdin baldin bazen? Geroaren segeretua zen hori. Orduan, enintzan Françoise-ez baizik axolatzen. Jupien-i errana zuena gogoan zuena zinez? Enekin Jupien-en samurr-arazteko errana zuena bakarrik, behar bada haren orde Jupien-en alaba sehi har ezkinezan? Dena den hartu nuen Françoise-ek maite ninduenez ala hastiatzen ezin zela zuzenki eta segurki jakin. Horrela lehenbizikoa hura izan zen gogora eman zautana jende bat eztela, uste ukana nuen bezala, argi eta geldi gure aitzinean zutik bere gaitasunekin, hutsekin, egin-nahiekin, gure alderako xedekin (hala nola burdin-saretik behatzen zakon baratze bat, bere tauloin guziekin), baina hartan ehoiz ezin sar gaiten itzal bat dela, harekilako ezagutze zuzenik ezten bat, hartaz ustekeria ainitz egiten duguna elhetarik eta egintzetarik ere, batzuek eta bertzek ezpaitaukute xehetasun eskasik eta bertzela ere elgarren kontrakorik baizik emaiten, hartan aldizka, egiaren itxura berdinarekin, herra eta maitasuna asma dezazkegun itzal bat.

Zinez maite nuen Guermantes-ko Anderea. Jainkoari eska nezokeen garazia handiena haren gainera helgaitz guzien eror-araztea zen, eta hura, hondatua, estimuz galdua, haren ganik berexten ninduten eskubide guziez biphildua, bizitzeko etxerik gabe ez eta haren agurtzea onhartuko zuten sehirik, ihes-leku eskatzera jin zakiditan. Horren egiten asmatzen nuen. Eta ere aroko edo nihauren osagarriko aldatze zenbaitek hartan lehenago senditu gauza batzu markatuak zituen bildegi zenbait gogo argira ekhartzen zautanean, nitan sortuak ziren indar berritzalez baliatzeko orde, ohiki ihes egiten zautaten gogoeta batzuen nitan argitzeko erabili orde, lanean hasteko orde, nahiago nuen gora-gora mintzatu, gogoan ukan, hitzaldi eta jestukeria debaldeko bat baizik etzen mugimenduzko eta kampora eman molde batean, elhaberri bat osoa huts-hutsa gertaldiz egina, agorra eta egia gabea, hartan dukesa, beharrera eroria, othoi-othoiztera heldu baitzizatan, eni, gertaldi kontrako batzuen bidez aberats eta boteredun bilakatua nintzanari. Eta orenak horrela iraganak nituenean gertaldi batzuen asmatzen, etxean dukesari ongi-ethorri egitean erranen nauzkon hitzen, izanara berdina gelditzen zen; bizian, ondikotz, maitatzeko hain zuzen hautatua nuena behar bada abantail ezperdin gehienak biltzen zituen emaztea zen, eta haren begietan, hortakotz, lilluratzekorik jeus itxaro enezakeena;

aberatsa baitzen eta noblea izanen etzen aberatsa bezain aberatsa; gaineratu gabe modan ezartzen zuen bere baitako goxagarritasun hura, ororen artean erregina egiten zuela.

Goiz oroz haren aitzinera joanez gustatzen enindakola sendi nuen; baina bizpahirur egunez hori egin gabe egoiteko kuraia ukan banu ere, enetako halako sakrifizioa izanen zen elikatze horri Guermantes-ko Anderea etzizakon behar bada ohartuko ere, edo ene borondatetik berex zen traba zenbaiten gain emanen zuen. Enintzan alabaina haren bidera joaitetik gelditzera heldu ahalko ezin eginean izaiteko nihaurekin akomeatuz baizik, haren berraurkitzeko, ezen ephe batez haren oharpenean zen eta agurra emaiten zaukon jendearen izaiteko behar ethengabe berriz sortua, hari ez gustatzeko nahigabea baino behar azkarragoa zen. Arte batez urrundu beharko nuen; enuen hortako kuraiarik. Zenbait aldiz gogoratzen zizatan. Ene malak egin zitzan galdatzen naukon orduan Françoise-ri, eta berahala gero desegin zitzan (eta sino egiteko debruak eta zahar jokokoa ez iduritzekoak norberaren molde jitezkoena eta naturalena gaitzera aldatzen baitu, Françoise-ek zion, hitz hori alabaren hiztegian hartuz, "eroxka" nintzala). Hori etzuen maite, beti "zalantzan" nindagola zion, baitzerabilan, aroberrikoen kontra joan nahi etzuenean, San-Simungo dukearen beraren hiztegia. Egia da oraino gutiago zuela maite nagusi moldean mintza nindakidion. Etzizatala hori ez jitezkoa ez egoki bazakien, "nahizkoa etzoatala ontsa" erranez emaiten zuena. Kuraiarik enuen ehoiz ukanen Guermantes-ko Andereari hurbil nindezakeen alde batera joaiteko baizik. Etzen hori gauza ezina. Goizean karrikan, bakarrik, aphaldua, igorri nahi nauzkon gogoetetarik bat etzela hartara helduko senditzean, ene ibilaldietako oinkatze geldian baino (beti iraun ahalko baitzuten ni jeusetan aitzinatu gabe), etzena bada alabaina hartarik hurbilago izaitea Guermantes-ko Anderetik ainitz lekoatara joaiten baldin banintz, baina ezagutzen zuen norbaiten etxera, bere ezagutzen hautuan garratza zela bazakienaren eta estimatzen ninduenaren, hari nitaz mintza zakidiokeenaren, eta haren ganik nahi nuena ezin ukan banezakeen, bederen jakin-araz zezokeenarenera, norbaitek hari esker, bederen, Guermantes-ko Andereari mezu baten emaitea bere gain har zezakeela edo ez harekin ikusiko nuelakotz baizik izan ezpaliz ere, ene ametseria bakartu mutuer molde berri, elhezko, egintzazko bat emanen bainauen, aitzinatze bat, abantzu egite bat idurituko zizatana? "Guermantes" bat zenaren bizi mixteriozkoan dukesak egiten zuena, hura baitzen ene betiereko ametsaren gaia, hartan sartzea zeharka baizik ezpaliz ere, goitigailu batekin bezala, dukesaren hotela, arratsaldiak, harekin solastatze luzea debekatuak elizazkon norbait erabiliz, etzena ni goiz guziez karrikan hari beha egoitea baino hunkitze urrunago baina egiazkoago bat izanen?

*(Saint-loup)**

Saint-Loup-ek enetako zituen adixkidantza, miresmena, etzizaztan merezituak iduritzen eta hetaz axolagabean gelditua nintzan. Balioa eman nauen bapatez, nahiko nuen Guermantes-ko Andereari ager zakizkidion, hori egin zezan eskatzeko gai izanen nintzan. Ezen amoratua den orduko, norberak dituen abantail ttipi ezezagun guziak nahi lituzke maite den emazteari agertu, bizian ondorez gabetuek eta nardagarriek badagiten bezala. Ezagutzen eztituelakotz oinazetan zira,

konsolatu nahi duzu zure buruari erranez, ezin ikusiak direlakotz hain zuzen, zutaz duen ideiari gaineratzen dauzkola behar bada jakinak eztiren eta izan ditezkeen abantail horiek.

Aspaldidanik Saint-Loup etzaitekeen ethor Parisera, ala, zion bezala, bere ofizioko behar-beharren gatik, ala izaitekotz bietan harekin haustekotan izana zen bere maitearen gatik. Ainitzetan errana zautan nolako ongia eginen naukon haren ikustera joanez han zen armada-hirira, hunen izenak hainbat bozkario eman baitzautan Balbec utzia zuen eguneko biharamunagoan, ene adixkidearen ganik ukana nuen lehenbiziko ezkutitzaren estalian ikusia nuelarik. Hiria, eskualde osoki baserritarrak sinets-araziko zuen baino Balbec-etik biziki gutiago urrun, arixtokrazia eta soldadoeriako hiri ttipi hetarik bat zen, baserri zabal batez inguratua, han, egun ederretan, usu baitabila urrunean halako soinuzko lanho artekatu bat, agertzen dituela - zuhar lerro batek bere itzul-inguruez ikusten ezten ibai baten bidea marrazkitzen duen bezala - manobran ari den erreximendu baten lekuz aldatzeak, karriketako, ethorbidetako eta plazetako giroak berak hartua baitu azkenean musikazko eta gerlazko dardarikatze mota betiereko bat, ea han karro edo tramu harrabots ezin arruntagoa, kleronen dei nahasi ethengabe errepikatu batzuetan luzatzen baita ixilaz lilluratu beharrietara. Ezpaitzen Paristik hain urrun jarria, trein lasterretik jaustean, sar nindaitekeen eta, ama-amatxiak berraurkiturik, neure ohean etzan. Hori gogoan hartua ukan nuen orduko, gutizia mingarri batez nahasia, Parisera ez itzultzera eta hirian egoitera deliberatzeko borondate gutiegi ukan nuen; baina gutiegi ere mutil bati ene bidaiakoa aloka-karrosara ereman zezan debekatzeko eta, haren gibeletik joaitean, bere gauzak zaintzen dituen eta edozein amatxik igurikatzen eztuen bidaiari baten arima hutsaren ez hartzeko, karrosara ez igaiteko, zer nahi duen gogoan ukaitetik gelditurik, zer nahi duen badakiela iduri duen, eta zaldieriako kasernako helbidea karrosazainari emaiten eztaukon norbaiten axolagabearekin. Gogoan nuen Saint-Loup gau hartan jautsiko nintzan hotelean etzatera jinen zela hiri ezezagun hortako lehen aldia gutiago antsiagarri izan zakiditan. Zaintzale bat bila joan zizakon, eta igurikatu nuen kasernako athean, hazaroko haizeak guzia ozentzen zuen untzi handi haren aitzinean, han, ezen arratsaldeko seiak ziren, gizon batzu noiz nahi birazka karrikara jalgitzen baitziren, dembora batez han egonik urrungo portu batean lurrera jausten balire bezala halda-maldaka.

Saint-Loup ethorri zen, alde orotara inharroska, begitako bakuna aitzinean jauz-araziz, haren izena enuen erran-arazia, ukanen zuen ustegabetzeaz eta bozkarioaz ezin egonean nintzan.

- Ha zer aspertzea, egin zuen bapatez ene ikustean eta beharrietarano gorrituz, astekoa hartua baizik eztut eta zortzi egunez ezin athera ahalko!

Eta lehen gau hura bakarrik iraganen nuela ikusteaz arranguratua, nehork baino hobeki baitzazkien Balbac-en ainitzetan hautemanak eta eztituak zituen ene gauazko antsiak, zinkurinatzetik gelditzen zen ene aldera itzultzeko, irriño batzuen igortzeko, behako xamur ezperdin batzuen, batzu begitik zuzen heldu, bertzeak begitakoan zehar, oro berriz ene ikusteaz hunkia izaitearen aieru bat baitziren, eta

ere beti hartzen enuen baina orai gauza handi bat zizatanaren aierua, gure adixkidetasunarena.

- Jainkoa! nun etzanen zira? Eiki, hartan egoiten ginen hotela eztautzut konseilatzen, besta batzu hasiko diren Esposisionearen ondoan da, gaitzeko jendea ukanen duzu. Ez, Flandre-ko hotela hobe lizateke, XVIII-garren mendeko palazio ttipi zahar bat da tapizeria zahar batzuekin. "Ixtorioko egoitza zahar" aski ontsa "emaiten" du.

Saint-Loup-ek bazerabilan noiz nahi "emaiten" hitz hori, hizkuntza mintzatua, idatzia bezala, erran-nahiz hitzen aldatze horien beharretan baita noiztenka, erran-moldeko xorroxtasun horien. Eta gazetariek derabiltzaten "aphainkeriak" literaturako zein eskoletarik heldu diren ainitzetan eztakiten bezala, berdin ere Saint-Loup-en hiztegia, errantza, hetarik bat ezagutzen etzuen hirur ederkoi ezperdinek bezala egitetik zetorren, baina erran-molde horiek zeharka harr-araziak zizazkon. "Bertzela ere, bururatu zuen, hotel hori zure beharriko sendikortasun handiegiarendako aski egoki da. Eztuzu auzorik ukanen. Aithor dut hori abantail txarra dela, eta oro har bertze bidaiari bat ethor baitaiteke bihar berean, hotel horren hautatzeak eluke baliorik ondorio hoin iraupen gutiko. Ez, duen itxurarendako gomendatzen dautzut. Gambarak aski begikoak dira, muble guziak zaharrak eta gozoak, zerbait segurtagarri bada." Baina enetako, Saint-Loup baino gutiago artixta, etxe pollit batek eman dezakeen atsegina axalekoa zen, abantzu ezteusa, hastera zoan ene antsia ezin zezakeen jabal, lehenago Combray-n nuena bezain mingarria ama gauon erraitera jiten etzizatanean edo Balbec-era heltzeko egunean senditua nuena "vetiver" usaina zuen gambara goregian. Saint-Loup-ek hori hartu zuen ene soaren gelditik.

- Baina ontsa axolatzen zira, gaixo-gaixoa, palazio pollit hortaz, hits-hitsa zira; ni, abre handi bat bezala, haier so egiteko bihotzik ere eztuzun tapizeriez mintzo nitzaizu. Ezarriko zituzketen gambara ezagutzen dut, nihauri biziki alaia zata, baina ontsa ohartzen niz zure sendikortasunaren gatik eztela berdin. Etzitutala komprenitzen ez uste ukan, nik eztut gauza bera senditzen, baina zure lekuan jartzen niz bada.

Korroilan zaldi baten entseatzen ari zen aitzindari-orde batek, hari jauzi egin-arazten ontsa hartua, soldadoen agurrari ezpaitzuen ihardesten, baina laido lerro batzu igortzen baitzezteen bidean jartzen zizazkoner, irriño bat igorri zaukon ordu hartan Saint-Loup-i eta, hau adixkide batekin zela ohartuz, agurtu zuen. Baina zaldia zut-zutik eman zizakon, haunetan, Saint-Loup-ek burura jauzi egin zaukon, uhaletik hartu zuen, ezti-arazi, eta ene gana itzuli zen.

- Bai, erran zautan, ohartzen nizala segurtatzen zitut, senditzen duzunaz oinaze dutala; zorigaitzean niz, gaineratu zuen, eskua amultsuki ene soingainean ezarriz, zure ondoan egon izan ahal baninz, zurekin goizerano solasean egonez, zure trixte izaitetik apur bat ekhendu ahalko nautzula gogoratzean. Liburu batzu presta nezazkezun, baina horrela bazira eztituzu irakurri ahalko. Eta nehoiz eztut ordaindua izaitea ardietsiko; horra bi aldiz jarraikian egina dutala ene nexka jina zizatalakotz.

Eta bekaina zimurtzen zuen bere nahigabearen gatik eta ere, mediku batek bezala, ene gaitzari zer erremedio ekharr ahal zezokeen bilatzeko gogo-indarraren gatik.

- Laster egik bada ene gambaran suaren phiztera joaiteko, erran zaukon baziragan soldado bati. Hea, lasterrago, higi hadi.

Gero, berriz, ene aldera itzultzen zen, begitako bakunak eta so laburrak gure adixkidantza handiari aieru egiten zuten:

- Ez! zu hemen, gogoan hain usu ukana zitutan kaserna huntan, neure begiak eztezazket sinets, amets egiten dutala uste dut. Ororen buruan, osagarria, hobeki duzua? Hori guzia sarri erranen dautazu. Ene egoitzara iganen gira, ezkaiten korroilan sobera egon, bada haize debruzko bat, nik eztut gehiago sendi ere, baina zu ohitua ezpaitzira, hotza bil dezazun beldur niz. Eta lanean, hasia zirea? Ez? zein bitxia ziren! zure dohainak baldin banitu, goizetik arrats izkiria nezake. Ezer egin gabe egoiteak jostatzenago zitu. Zer zorigaitza ni bezalako bierartekoak izan daiten beti lanera prest eta ahala baluketenek ez nahi! Eta zure Andere amatxiren berriak eztaukitzut galdegin ere. Haren Proudhon-ek enau uzten.

Aitzindari bat, handi, eder, maiestatean, urrats ezti eta ospedunetan mailalde batetik agertu zen. Saint-Loup-ek agurtu zuen eta bere soineko higikortasun betierekoa gelditu kepiko goratasunean ephe batez eskuaren atxikitzeko. Baina hara igorria zuen halako indarrarekin, mogimendu hain idorrean zutituz, eta jauts-arazi hain bapateko abiatzean, soingainaren, zangoaren eta begitako bakunaren egonara guziak aldatuz, nun aldi hori gutiago izan baitzen gelditzezkoa gogor egoite daldaratu batekoa baino, huntan egin berriak zituen eta hastera zoazen mugimendu soberatuzk elgar ezeztatzen baitzuten. Anartean aitzindariak, hurbildu gabe, eztiki, ongi-nahitan, errespetagarri, imperialki, oro har Saint-Loup-en kontrakoenean, goititu zuen hark ere, baina lehiatu gabe, eskua kepirano.

- Kapitainari hitz bat erran behar daukot, egin zautan ahapetik Saint-Loup-ek; aski gixakoa izan zaite gambaran ene igurikatzeko, bigarrena da eskun, heren estaian, berehala heldu nizaizu.

Eta, guduko urrats zaluan abiatuz, begitako bakuna aitzinean alde orotara airean, joan zen zuzen kapitain errespetagarri eztiaren gana zaldia ekhartzen baitzizakon eta, igaitera prestatu baino lehen, manu batzuen emaiten ari baitzen jestuetako nobletasun arautu batean, ixtorioko margazki zenbaitetan bezala eta Lehen Imperioko gudu batera abian iduri, xoilki etxera zoalarik, Doncières-en egonen zen demborako alokatua zuena eta plaza batean jarria, hau, napoleondar horren alderako irkaitz aitzinatu batean, Errepublikako Plaza izendatua! Mailaldean abiatu nintzan, mail itzeztatu hetan abantzu urrats bakoitzean lerratzea huts eginez, gambara harresi murritz batzuer ohartuz, ohe 'ta paketatzen lerro bikunarekin. Saint-Loup-en gambara erakutsi zautaten. Athe hetsiaren aitzinean egon nintzan ephe batez, higitzen entzuten bainuen; zerbait bazerabilaten, bertze zerbait erortzera uzten; sendi nuen gambara etzela hutsa, bazela norbait. Baina etzen su phiztua baizik alhan ari. Etzaitekeen geldirik egon; egurrak lekuz aldatzen zituen eta biziki moldegaizki. Sartu nintzan; egur bat pirripitatzera utzi zuen. Higitzen etzenean ere, jende arruntek bezala beti harrahots batzu entzun-arazten zituen,

garra igaiten ikusten nuenaz geroz, suaren harrabots bezala agertzen baitzizaztan, baina, harresiaren bertze aldean izan baninz, zintzatzen ari zen eta bazabilan norbaiten ganik heldu zirela uste ukanen bainuen. Azkenean, gambaran jarri nintzan. "Liberty" tapizeria eta XVIII-garren mendeko oihaleria aleman zahar batzuek gerizatzen zuten gainerateko eraikuntzak bazeman usain arrunt, geza eta ogi beltzak duen ustelgaitik. Hor nuen, gambara goxagarri hortan, zorionean eta gostuan auhari eta lo eginen. Saint-Loup abantzu han zela iduri zen mahiaren gainean zituen laneko liburuetarik, argazkien ondoan, hautan ezagutu bainituen neurea eta Guermantes-ko Anderearena, khebideari azkenean jarria zizakon suari esker eta, aiduru suhar, ixil eta leial batean etzana den ihiztor batek bezala, erortzera uzten zuen bakarrik artetan phorroskatzen zen sutil bat, edo gar batez khebidearen harresia milikatzen. Entzuten nuen Saint-Loup-en ukharai-orenaren tiki-taka, ezpaitzatekeen nitarik biziki urrun. Tiki-taka hori noiz nahi lekuz aldatzen zen, ezpainuen orena ikusten; gibeletik heldu zela iduri zizatan, aitzinetik, eskunetik, ezkerretik, batzuetan gelditzen zela biziki urrun izan baliz bezala. Bapatez orena ikusi nuen mahiaren gainean. Orduan tiki-taka leku geldi batean entzun nuen eta etzen handik higitu. Leku hartan entzuten nuela uste nuen; enuen han entzuten, ikusten nuen, soinuek lekurik eztute. Mugimendu batzuer lotzen ditugu bederen eta hortakotz badute horietaz gure gaztiatzeko balioa, beharrezkoak eta naturalak bilakatzen dituztela. Gertatzen da eiki batzuetan beharriak osoki tapatuak dauzkoten eri batek eztuela entzuten ordu hartan Saint-Loup-en khebidean errepikan ari zen bezalako su baten harrabotsa, itxindi egiten ari zen batean eta gero bere zarean erortzera uzten zituen hautsen; eztituela ere entzuten tramuak iragaiten, haien musika airatzen baitzen, arte berdinetan, Doncières-ko plaza nagusian. Orduan, eriak irakur dezala, eta orriak ixilki itzuliko dira jainko batek orstokutak balire bezala. Prestatzen ari den mainu baten zurrumurru dorpea ttipitzen da, arintzen eta gurguria zerutar bat bezala urruntzen. Harrabotsaren gibelatzeak, mehatzeak, gure alderako indar jaukikor oro ekhentzen daukote; arestian gure buru gaina inharrosten zaukutela iduri zuten mailu ukhaldiez erotuak, orai goxo zaiku heien hartzea, arinduak, pherekari, bidean aire arin batekin jostatzen den orstailaren murmurika bat bezain urrun. Entzuten eztiren karta batzuekin "ongi heltzeak" egiten dira, hala nola nun uste baita eztirela nahasi, bere baitarik higitzen direla eta, haiekin jostatzeko dugun gutiziaren aitzinera jinez, berak direla gurekin jokoan hasi. Eta hortarik galda daiteke Maitasunarendako (gainera dezogun ere Maitasunari biziaren amodioa, ospearena, badirenaz geroz, omen, azken bi sendimendu horiek ezagutzen dituzten jendeak) ez ote lizatekeenez egin behar, harrabotsaren kontra, geldi dadin othoizteko orde, beharriak tapatzen dituztenek bezala; eta, haier jarraikiz, gure oharra, gure zaingoa gure baitara erakharri, haier eman, mendu behar duten gaitako, ez gutarik kampo den izaitea, baina haren gatik oinazkatua izaiteko dugun ahala.

Soinura itzultzeko, lodi daitela oraino beharri xiloa hesten daukuten ttapoinak, "pianissimo"-ra bortxatzen dute gure buruaren gainean aire harrabostun baten joiten ari zen nexkato gaztea; ttappoin horietarik bat gantzuzta dadila, berehala etxe guzia menperatzen du, bere legeak kampora ere hedatzen ditu.

"Pianissimo" delakoa ezta orai aski, ttapoinak ordu berean jogunea hets-arazten du eta musikako ikastaldia bapatez bururatua da; gure buru gainean zabilan jaunak bere itzulia bapatean uzten du; karrosen eta tramuen ibiltzea moztua da Estatu Buruzagi baten igurikan balire bezala. Eta soinuen eztitze horrek loa bera nahasten du ere batzuetan gerizatzeko orde. Atzo oraino ethengabeko hotsek, karrika eta etxeko harat-hunatak jarraikian guri erakutsiz, lokharr-arazten gininuzten azkenean liburu aspergarri batek bezala; egun, gure loaren gainean hedatu ixilezko eremuan, bertzeak baino ukhaldi azkarrago bat entzuna izaitera heltzen da, hasperen bat bezain arin, bertze soinu batekin loturarik gabe, mixteriozko; eta argitua izaiteko badagien galdea aski da gure iratzartzeko. Ephe batez eriari ekhen dakidiola, aldiz, beharri-phintzean metatuak zazkon gotoinak, eta bapatez soinuaren argia, iguzki betea berriz agertzen zako, itsugarri, berriz mundura sortzen da; ihes joanak ziren harrabotsen multzoa sartzen da lehian; entzuten dira, aingeru musikari batzuek kantatuak balire bezala, mintzoak berphizten. Karrika hutsak beteak dira ephe batendako tramu kantarien hegal lehiatu jarraikiez. Gambaran berean, eriak egina du, ez Prometheok bezala sua, baina suaren hotsa. Eta uatazko tapoinak metatuz, ala laxatuz, kampoko munduko soinuari emanak zauzkon bi orpekoetarik bata edo bertzea aldizkatuz jo-arazten baliz bezala da.

Baina badira ere harrabotsaren gelditze batzu irauten dutenak. Osoki elkor bilakatua denak eztezake bere ondoan esne untzia bero-araz ere begiez goaitatu behar ukan gabe, estali idekiaren gainean, iphar-herrietako elhurraren iduriko dirdira xuria, hari obeditzea zuhur den aitzin seinalea baita, Jainkoak uhainen gelditzean bezala, eletrika hartzekoen ekhentzeko; ezen jadanik irekitzen ari den esnearen arraultze jauzikatuz goiti doana, bazterka goititze batzuetan gorenera heldua da, hantzen da, esne-gainak izurtuak zituen bela erdi aurdiki batzu biribiltzen ditu, bat nakarazkoa ekaitzera botatzen duela, eta uhainen gelditzeak, eletrikazko galerna ordu deno baztertua baldin bada, guziak bere gainean itzulika-araziko ditu eta bazterretara utziko, mañolia orsto-lore batzuetara aldaturik. Eriak ezpalu behar den zuhurtzia aski laster ukana, bere liburu eta oren urperatuak berehala esnezko uhainen azpian doi-doia ageri, laguntzera sehi zaharraren deitzeko beharretan izanen zen, politikako gizon aiphatu bat izanik ere edo idazle handi bat, hark erranen baitzaukon etzuela bortz urteko haur batek baino gehiagoko arrazoinik. Bertze ordu batzuez, gambara lillurazkoan, athe hetsiaren aitzinean, arestian hor etzen norbait agertua da, sartzen entzuna ezten ikuslari bat da, jestu batzu egiten dituela bakarrik pampina antzoki ttipi hetarik batean bezala, hain edengarri elhekatzeak nardatzen dituenendako. Eta elkor oso horrendako, sentsu baten galtzeak munduan ekhartzen baitu hartaz jabetzeak bezainbat edertasun, badabil atseginekin soinua oraino kreatua ezten Lur abantzu parabisuar batean. Ur-turrusta gorenek hedatzen dituzte haren begi bakarren aitzinean bere krixtailezko eremuak, itsaso geldia baino geldiago, Parabisuko turrusta handiak bezain garbi. Harrabotsa harendako, elkor bilakatu aitzinean, mugimendu bat egiten duenaren itxura hauteman zezakeena baitzen, hotsik gabe higitu gauzek egilerik gabeak iduri dute; soinuzkoa den gauza orotarik murriztuak, bere baitarik ari dira, badidurite bizi direla; higitzen dira, gelditzen, bere baitarik su hartzen dute. Berenaz airatzen dira

aitzin-ixtorioko mustro hegaldun batzu bezala. Elkorraren etxe bakartu auzo gabean, zerbitzua, eritegia osatua izan baino lehen jadanik begiratukiago egiten zena, ixilekoa zena, orai, gordekako zerbaitekin, mutu batzuek egiten dute, leiendetako errege batendako bezala. Antzokiko tauladan bezala ere, leihotik elkorrak badakusan eraikuntza, kaserna, eliza, herriko-etxe, ezta aphaindura bat baizik. Egun batez eror badadi, erhauts lanho eta herexa ageriak utziko ditu; baina, antzokiko palazio baten mehetasunik gabe alta hura baino gutiago gauzazkoa, lillurazko mundura eroriko da, harri pikatu phizuen erorteak ixilaren garbitasuna edozein hotsen arruntasunaz histu gabe.

Hartan nindagon soldado gambara ttipiko ixila, biziki gutiago osoa, hautsia izan zen. Athea ideki eta Saint-Loup, bere begitakoa erortzera utziz, sartu zen bizi-bizia.

- Ha! Robert, zure etxean zein ontsa den, erran naukon; zein on lizatekeen hemen auhaltzea haizu baliz eta etzatea!

Alabaina, debekatua izan ezpaliz, zer atseden trixtezia gabekoa ukanen nuen han, mila borondate arautu eta goganbehar gabekoek, mila izpiritu axolagabekoek bazegiten ingurumen bakezko, begirantzazko eta alaitasunezko hartaz gerizatua nintzalarik, batasun handi bat den kaserna batean, han, aroak egintzaren itxura harturik, orenen ezkila trixtea ordaintzen baitzuen deien bozkariozko fanfarrak, hiriko lauzadetan betiereko dilindan atxikia zagolarik, phorroskatua eta erhautsetan, haren soinuzko orhoitzapena, - entzuna izaiteaz segur zen mintzoa, musikaz egina, etzelakotz bakarrik obeditzera larderiazko manamendua baina ere zorionera zuhurtziazkoa!

- Ha! nahiago zinuke hemen ene ondoan etzan hotelera bakarrik joan baino, erran zautan Saint-Loup-ek irriz.

- Oi! Robert, hori irkaitzez hartzen duzularik gaixto zira, erran naukon, ezin datekeela badakizunaz geroz eta hainbertze oinazkatua izanen nizala han.

- He bada! atsegin egiten dautazu, erran zautan, nihaurek ukana baitut hain zuzen gaur hemen egon nahiko zinuelako ideia hori. Eta preseski horren galdegitera nintzan kapitainaren gana joana.

- Eta onhartu du?

- Nekerik batere gabe.

- Oi! zein maite dutan!

- Sobera da! Utz nezazu orai ene soldado-mutilari hel egitera zure auhariaz axola dadin, gaineratu zuen, ene nigarren gordetzeko itzultzen nintzan bitartean.

Saint-Loup-en lagunetarik bat edo bertze sartu zen aldi bat baino gehiagotan. Haizatzen zituen:

- Hoa bada!

Sartzera utz zitzan galdegiten naukon.

- Baina ez, narda ginezazkete: osoki jakitate gabeko jende batzu dira, zaldi-lasterrez baizik mintza eztaitezkeenak, karatoxatzeaz ezpada. Eta gero, nihauri ere, hainbat gutiziatu ditutan ordu hain balios hauk andea lezatazkete. Ohar zaite ene lagunen bierartekotasunaz mintzo banizaizu, eztela hori armadakoa den guzia adimenduz eskasean delakotz. Ez eta urrundik ere. Buruzagi bat badugu gizon

miragarria dena. Ikastordu bat egina du hartan armadako ixtorioa erakustaldi bat bezala emana baita, halako aljebra bat bezala. Ezthetikaren aldetik ere, hunki zinindezakeen eder aldizka ondoriotaratzezko eta hastapenetaratzezkoa da.

- Hemen egon nadin onhartu duena ezta kapitaina?

- Ez, Jainkoari esker, ezen gauza gutirendako hain "maite" duzun gizon hori, lurrak ehoiz ere ekharri duen zozo handiena da. Ezin hobea da bere gizonen janariaz eta jantziaz axolatzeko; orenak emaiten ditu bizitegietako azpi-aitzindariarekin eta jostun nagusiarekin. Horra zer gogo mota duen. Ainitz gaitzesten du bertzela ere, guziek bezala, aiphatzen dautzutan buruzagi miragarria. Nehor eztabila hunekin, framazona delakotz eta kofesiora ez joaiten. Borodino-ko Printzeak ehoiz elezake burjes xipi hori etxean har. Hala ere kopeta gaitza behar da arbasoa laborarixka bat zuenarendako eta bera ere, Napoleonen gerlak izan ezpalire, laborari izanen zatekeenarendako. Munduan duen izanara hala-hulakoari apur bat ohartzen da bertzela ere. "Jockey"-ra doi-doia doa, hain da jenatua, printze delako hori, gaineratu zuen Robert-ek, bertzek bezala egiteko gogo berdin batez ekharria izanez bere nagusien gizarte-theorien eta bere lerroko ustekerien hartzera, demokraziaren maitatzeari batzen baitzaukon, bera ohartu gabe, Imperioko nobleziaren alderako erdainua.

Saint-Loup-en izabaren margazkiari beha nindagon, eta, argazki horren jabe zenaz geroz, behar bada emaiten ahal zautalako gogoak oraino gehiago maita-arazi zautan eta argazkian truk ontsa gauza guti iduritzen zizaztan mila zerbitzuen hari emaitea agiantza-arazi. Ezen argazki hori Guermantes-ko Anderearekin jadanik ukanak nituen aurkitzer gaineratu bat gehiago zen; hobeki ere, aurkitze luzatu bat, gure adixkidantzetako aitzinatze bapateko batez, ene ondoan gelditua izana baliz bezala, baratzeko xapeletan, eta lehen aldikotz utzia baldin banindu bezala matelako gizen horri gostura so egitera, garondoaren itzultzeari, bekainen ixkinari (iragaiten zen leihak, ene iduripenetako burxoroak, orhoitzapenaren uxterrak itzaltzen zutenari); eta haier beha egoitea, nehoiz ere zaia goran baizik ikusia enuen emazte baten lephaitzinari eta besoer bezala, aurkintza atsegingarri bat zizatan, eta fagore bat. So egitea abantzu debekatua iduri zizatan aurpegi hori, hor ikher nezakeen enetako balioa ukaiten aal zuen geometria bakarreko liburu batean bezala. Berantago, Robert-i so egitean, ohartu nintzan hura ere apur bat bere izabaren argazki bat bezalakoa zela, eta enetako abantzu berdin hunkigarri zen mixterio bati esker, haren begitartea ezpazen izabarenaz zuzen moldaturik izana, bazuten bizkitartean bi-biek ethorki ber bat. Guermantes-ko Anderearen aurpegiak, nitan Combray-ko ikuspenean itzatua baitzen, sudurra mirotz mokoantzean, begiak zorrotz, iduri zuen erabilirik izana zela ere - larru mehe-mehearekilako bertze itxura arin eta berdin batean - izabaren gainean abantzu zuzen ezar zaitekeen Robert-en begitartearen moldatzeko. Jelosiarekin so nindagon hunen baitan hainbertzetarano bakarrik Guermantes-tarrena zen aurpegiari, munduaren erdian arraza hoin bereziarenari, ezpaita hor galtzen eta bakarturik baitago bere ospe hegaztinarakoan, iduri duelarik, mithologiazko aroetan, jainkosa eta xori baten juntatzetik sortua.

Robert, arrazoina zer zen jakin gabe, ene bihotz-berazte hortaz hunkia zen. Suaren beroak bertzela ere hainditzen zautan eta Xampañako arnoak bekokian

izerdi xorten perlak eta begietan nigarrenak jauz-arazten; epherrak urineztatzen zituen, eta nik, nahi den motakoa izan dadin, jakitategabea den baten miresmenarekin (ezagutzen eztuen bizi berezi batean baztertzen zela uste ukan zuena aurkitzen duenean: hala nola aphezetxe batean hauteko auhari bat egiten duen gogo-libro bat behazunez), jaten. Biharamun goizean, atzartzean, Saint-Loup-en leihora joan nintzan, biziki gora jarria, eskualde guzira idekia, ene auzoari, baserriari, begi ukhaldi baten emaiteko, bezperan ezpainuen ikusi ahala, berantegi ethorririk, gauan jadanik lokartua zen orduan. Baina hura egina zen bezain goizik atzarria izanik ere, enuen alta ikusi berinaren idekitzean, jauregi baten leihotik ikusten den bezala, urmaelaren aldetik, abantzu jeusen ikustera uzten eninduen bere lanhozko jantzi goiztiar xuriaz oraino estalia baizik. Banakien alta soinetik utzia ukanen zuela korroilan zaldi arthatzen ari ziren soldadoek bere itzulia bururatua ukanen zuten baino lehen. Anartean enezakeen ikus mendixka mehar bat baizik, kasernaren ondo-ondoan eraikitzen zuela bere bizkar jadanik orstoez murriztua, garhi eta latz. Izotzak argaldu erridauen gibeletik, lehen aldikotz so egiten zautan arrotz hortarik enituen begiak baztertzen. Baina kasernara jiteko ohidura hartua ukan nuenean, mendixka hor zela jakiteak, Balbec-eko hotela baino egiazkoagoa beraz, ikusten enuenean ere, eta Parisko gure etxea baino, hauk ezpaitzizaztan hor etziren batzu bezala baizik iduritzen, hil batzu bezala baizik, erran nahi da bizi zirela sobera sinetsi gabe, jakite horrek egin zuen, diot, nihaur ohartu ere gabe, haren molde leinuruzkoaren orrazea agertu zizatala Doncières-en ukan nituen sendipen ttipienetan, eta, goiz hartarik hasteko, Saint-Loup-en soldado-mutilak prestatu xokoletak sendi-arazi zautan bero onean, mendixkari so egoiteko erdigunea iduri zuen gambara gozo hartan: so egiteaz bertzerik egiteko gogoa eta han ibiltzekoa lanho hark berak ezina bilakatzen zuen. Mendixkaren itxura betetzen zuela, xokoletaren gostuari eta orduan nituen gogamenen sareari loturik, lanho hura, nik den gutienik gogoan ukan gabe, jin zizatan ordu hartako gogoeta guzien bustitzera, delako urre aldagaitz phizua Balbec-ez nituen sendipenekin loturik egona zen bezala, edo auzoan harri pikorkatu beltzaranezko mailalde kampokoen izaiteak sendipen horier hauts kolore bat emaiten zauen bezala. Etzuen alta goizean berant iraun, iguzkia hastapenean diamant ttipi batzuez josi zuten gezi zenbaitez baliatu zen, gero garhaitu zuen. Mendixkak bere bizkar hauts-kolorekoa eskaini ahal zuen iguzkiaren arraier, hauek, berantago, hirira jautsi nintzanean, emaiten baitzuten zuhatz orstoen gorrietara, harresietan ezarriak ziren bozkatzetako iragarki gorri eta urdinetara, nihaur ere erauzten ninduen gogo-berotze bat eta, bozkarioz jauzika ez hasteko, haier nindagon lauzadak kantuz jo-arazten zauztan bat.

Baina, bigarren eguneko, etzateko hotelera joan behar ukan nuen. Banakien aitzinetik halabeharrez han trixtezia nuela aurkituko. Sortzeaz geroztik gambara berri batek, erran nahi da gambara orok, bazuen enetako ezin jasana zizatan gostu bat: ohiki hartan bizi nintzanean, enintzan han, ene gogoa bertze nunbait zagon eta bere orde bakarrik ohidura zuen igortzen. Baina zerbitzari gutiago sendikor huni enezokeen mana herri berri batean ene gauzez axola zadin, hara aitzindua bainuen, bakarrik heldu bainintzan, behar bainuen harremanetan sartu urtez eta urtez artekaturik baizik berraurkitzen enuen "Ni" haren gauzekin, baina beti berdina

zenarenekin, Combray-z geroztik ezpaitzen handitua, lehen aldikotz Balbec-era heldu nintzanaz geroztik, mala ideki baten izkinan nigarretan, ezin konsolatua.

Huts egina nuen bada. Trixte izaiteko astirik enuen ukan, ezpainintzan ephe batez bakarrik izan. Lehenagoko palaziotik aberatseriazko ondarkin bat gelditzen zen, aroberriko hotel batean ezin baliatua, eta baliagarriki erabiltze orotarik bazterturik, bere auhertasunean halako bizi bat hartua zuena: artebide berriz gibelera itzultzen zirenak, noiz nahi gurutzatzen ziren haien harat-hunarat helburu gabeak, barnebide batzu bezain luzeko ezkaratzak eta saloinak bezain aphainduak, egoitzan barne zirela baino gehiago hor bizi zirela iduri baitzuten, edozein bizitegitan sartu ahal etzirenak, baina enearen inguruan zabiltzanak eta berehala bere lagungoaren eskaintzera jin zizaztanak - auzo auher batzu iduri, baina harrabotsik gabe, iraganeko itxura azpiko batzu, alokatzen ziren gambaren athean harrabotsik gabe egoitea onhartua baitzizaien, eta bidean edireiten nituen aldi oroz ikustate ixil bat erakusten baitzautaten. Oro har, egoitza bateko ideia, ezpaita gure oraiko bizia edukitzen duena eta hotzetik, bertzen ikustetik gerizatzen gituena baizik, bizitegi horri ezin eratxikia zen, jende lerro bat bezain egiazko barne batzuez egina, bizi egia erran ixil batez, baina sartzen zenean aurkitu behar zena, edo baztertu, edo onhartu. Ez jenatzera entseatzen zen eta saloin handiari ezin beha zizakokeen errespeturik gabe, hartua baitzuen, XVIII-garren mendeaz geroztik, bere urre zaharrez estali besoen artean hedatzeko ohidura, bere gainalde margoztatuarekilako hedoien azpian. Eta barne ttipiendako ikus-nahi etxekotarrago batez hartua zen, araukidetasun axolarik batere gabe, inguruan baitzabiltzazkon, ezin zenbatuak, ustegabetuak, nahas-mahas baratzerano ihes zoazila eta hain errexki hirur mail markestuetan han jausten.

Athera nahi baldin banuen edo igaitekoa hartu gabe 'ta mailalde handian ikusia izan gabe sartu, ttipiago batek, pribatua, baliatzen etzena, eskaintzen zauztan bere mail hain trebeki jarriak, bata bertzearen ondo-ondoan, nun iduri baitzen arau betegin bat bazutela elgarrekin, margoetan, usainonetan, zaporetan usu gure baitan atsegin-nahi berezi baten phiztera heldu zauzkutenen motakoa. Baina igaiteak eta jausteak bademateneren ezagutzeko, hunarano jin behar ukana nuen, lehenago bortuetako sendaleku batean, hats-hartzeko egintza, ohiki sendi eztena, atsegin ethengabeko bat izan daitekeela ikasia nuen bezala. Luzaz erabiliak ditugun gauzek bakarrik demaguten indar egitetik libro uzte hori ukan nuen oinak lehen aldikotz mail horietan ezarri nituenean, ezagutu ere gabe etxekotuak, ukana balute bezala, behar bada lehenago egun oroz hartzen zituzten jabek hetan utzia, barneratua, oraino bilduak enituen eta neureak bilakatuko zirenean ahuldu ahalko baizik etziren ohiduren eztitasun aitzindua. Gambara bat ideki nuen, athe bikuna ene gibelean hetsi zen, athe-oihalak ixil bat sarr-arazi zuen, haren gainean senditu bainuen neure baitan halako erretate burxoragarri bat. Harbizizko khebide burdin-horiz zizelkatu batek, Directoire-ko edergintzaren erakusten baizik etzakiela uste ukaitean huts eginen baitzen, sua bazematan, eta oinekilako jargia ttipi batek berotzen lagundu ninduan tapizan jarria izana baninz bezain gozoki. Harresiek gambara tinkan zadukaten, gainerateko mundutik berexiz eta, osorik egiten zuenaren hara sartzera uzteko, han hesteko, liburutegiaren aitzinean bazterrera egiten zuten, ohearen leku

barneratua begiratzen, bi aldetarik zuthabe batzuek bazatxikatelarik arinki tronadura goititua. Eta gambara bi gabinet hura bezain zabalekoez barne aldera luzatua zen, azkenak murruan dilindan zadukalarik, hartara bila joaiten den bildutasunaren usainontzeko, liriozko arrosario atseginkor bihi lodiekilako bat. Atheak, azken xoko hortara baztertzen nintzan batean idekirik uzten baldin banituen, etziren bakarrik horren hiruretan handitzean - begikoa izaitetik gelditu gabe - egoiten, etzautaten ere bakarrik behakora, tinkiaren ondotik, hedapeneko atsegina emaiten, baina bakartasuneko gozoaren gainera, ezin bortxatua baitzen eta hetsia izaitetik gelditzen, libertateko sendimendua. Xoko horrek bazeman korroila batera, biharamun goizean ohartu nindakolarik auzo ukaiteaz zorionean izan nintzan leku bakarti ederra, leiho batek ere argia hartzen etzauen harresi goren artean gatibu, zeru garbiari malba-kolore ezti baten emaiteko aski ziren bi zuhatz horitu baizik etzituena.

Etzan baino lehen, gambaratik jalgi nahi ukan nuen ene lurralde loriazkoaren ikhertzeko. Galeria luze batean abiatu nintzan, logale ezpanintzan eskain zezaketan guziaz lerroan gizamen egin baitzautan, jargia bat xoko batean ezarria, epineta bat, faianza urdinezko untzi bat isensu-belarrez betea bazter-mahi baten gainean, eta kadre zahar batean noizpaiteko andere baten itxura, ile erhaustuak lore urdinez nahasirik eta julufre floka bat eskuan. Burura heldu eta, atherik batere idekitzen etzen haren harresi beteak erran zautan: "Orai behar duk itzuli, baina ikusten duk, etxean hiz", tapiza guriak, gibelera ez egoiteko, gaineratzen zuen batean, gau hartan ezpanintzan lo, ontutsik jiten ahalko nintzala bada; eta baserrira so zauden berina kampoko leihorik gabekoek segurtatzen zautaten batean etzirela lokhartuko eta nahi nuen orenean jinez nehoren iratzartzeko beldurrik enuela. Oihaleria baten gibelean hatzeman nuen bakarrik gabinet ttipi bat, harresiak gelditua eta ezin ihes eginez, hor gordea zena, ahalgetua, ilargiak urdineztatua zuen bere zirrito biribilaz izialduran eni so. Oheratu nintzan, baina golxoinaren, zuthabeñoen, khebide ttipiaren hor izaiteak, ene oharra Parisen etzen ozka batean ezarriz, debekatu zautan ene ametserietako terrenta ohituetara emaitea. Eta oharpenaren izanara berezi horrek baitu loa inguratzen eta eragiten, moldez aldatzen, gure orhoitzapenetako zerrenda halako edo holakoaren heinean ezartzen, ene ametsak bete zituzten iduriak, lehen gau hortan, ohian ene loak zerabilan orhoitetik osoki berex bati hartuak izan ziren. Lotarik neure burua utzi banu ohiko orhoitera eremaitera, etxekotua enintzan ohea, itzultzen nintzanean ene egon-molder emaitera bortxatua nintzan oharpen eztia, aski ziren ene ametsetako hari berriaren zuzentzeko edo atxikitzeko. Lotarik kampoko munduaren hautemaitean bezala da. Poesiara eremana izaiteko, gure ohiduretako aldatze bat aski du; aski du buluztean nahigabetarik ohe gainean lokhartuak izan gaiten, loaren neurria aldatua delakotz eta haren ederra senditua. Atzartzen da, orenean laurak direla ikusten, goizeko laurak baizik ez, baina egun osoa iragana dela uste dugu, bilatua ezkinuen zenbait minutetako lo hori hain zaiku zerutik jautsia zela iduritu, eskubide jainkotar zenbaiten indarraz, gaitzekoa eta emperadore baten borobil urrezkoa bezain betea. Goizean, aitatxi prestatua zela eta Méséglise-ko aldera joaiteko ene igurikan zaudela nahigabetua, ene leiho azpitik egun oroz iragan zen erreximendu baten fanfarrak atzartua izan nintzan. Baina

bizpahirur aldiz - eta badiot hori, gizonaren bizia ezin baita ontsa erakuts hartan murgiltzen den loan, eta, gauez gau, itsasoak lurburu baten itzulia badagien bezala inguratzen duenean ezpada maina-arazten - , ararteko loak nitan aski iharduki zuen musikaren ukaldiaren jasaiteko, eta jeus enuen entzun. Bertze egunetan ephe batez amor eman zuen; baina ene konzienzia, lo egina ukanik oraino gozatua, hala nola aitzinetik lokhartu diren alderdi batzu, lehenik senditu ezten xiratze bat ezpaita azkenean erredura arin bat bezala baizik osoki hautemaiten, etzen arinki baizik hunkia izaiten gurguria goiztiarr ezti eta uher batez pherekatzen zuten xirurien piko xorrotxez; eta ixila musika bilakatua zen hauste hertsi horren ondotik, ene loarekin berriz hasten zen dragonek iragaitea bururatu ere baino lehen, ebasten zauztala soinuzko ithurriaren azken floka zabalduak. Eta ene konzienzian zuzkur horiek jalgitzean doi-doia hunkia zuten gunea hain zen hertsia, loaz hain hartua, nun berantago, Saint-Loup-ek galdegiten zautanean musika entzuna nuenez, ezpainintzen segur fanfarraren soinua ez ote zen egunaz hiriko lauzadatik den gutieneko harrabotsean jeikitzen entzuten nuena bezain idurimenezkoa. Enuen behar bada ametsetarik baizik entzuna, iratzartua izaiteko beldurraz, edo aldiz ez izaitekoaz eta soldado lerroaren ez ikustekoaz. Ezen ainitzetan lo gelditzen nintzalarik harrabotsak aldiz atzartuko ninduela uste ukana nuenean, uste nuen oren batez oraino atzartua nintzala lo nindagon batean, eta nihauren baitan ene loaren oihalean, itzal mehe batzuetan, emaiten nituen debekatzen zauztan ikuskarri guziak, baina hetan izaiteaz lilluran.

Egun argiz eginen zena, gertatzen da alabaina, artean loa jinez, eztela ametsetan baizik egiten, erran nahi da lokhartzeko malgudurarен ondotik, atzarririk hartuko zenaz bertze bide bati jarraikiz. Ixtorio bera ari da eta bertzelako bururapena du. Halarik ere, lo denean bizi den mundua hain da ezperdina nun nekez lokhartzen direnek gure mundutik jalgitzea baitute oroz gainetik bilatzen. Etsiturik, begiak hetsirik orenetan eta orenetan erabili ondoan egiak idekirik ukanen zituzten bezalako gogamenak, berriz kuraia hartzen dute ohartzen badira aitzineko minuta phizuturik izana dela arrazoinaren eta egiazko biziaren osoki kontrako arrazoinamendu batez, "huts" labur horrek erran nahi duelarik handik behar bada sarri egiazko biziaren senditzetik ihes eginen duten athea idekia dela, bizi hortarik urruntxago gelditaldi baten egitera joaiteko, lo bat guti edo aski "ona" emanen dauela. Baina urrats handi bat egina da jadanik egiazko biziari gibel egiten deneko, nork bere buruaran esondatzezko lehen harpetegietara heldua denean, han esondatze horiek ari baitira sorgin batzu bezala asmamenezko eritasunetako edo eritasunaren handitzeko saltsa ifernutarraren prestatzen, konzienzia gabeko loan goiti jin gaitzaldiak, loaren hausteko aski azkarrak hasiko diren orenaren aiduru.

Ezta hortik urrun, hartan lo hain berezi batzu, landare ezezagun batzu bezala, handitzen ari diren baratze begiratua, asma-belarr loa, kalamu indiarrekoa, etherretik athera gai guzietakoa, belotzar loa, lobelar loa, suhar-belarrekoa, hetsirik dauden loreak hortarako hautetsi norbait haien hunkitzera ethorriko den egunerano, zabaltzera, eta oren luze batzuetako daduzkaten amets berezien usainonaren atzartzera izaite miretsi eta ustegabetu baten baitan. Baratzearen zolan da leiho idekiekilako komentua, han entzuten baitira errepikatzen lokhartu gabe

ikasi diren eta iratzartzean baizik jakinen eztiren ikaspenak; aldi berean, atzartze horren aitzin-mezu, gure goganbeharrak hain zuzen ezarri duen barneko oren horren tiki-taka jo-arazten duelarik, gure gelaria "zazpiak dira" erraitera jinen zaikunean, jadanik prest-presta aurkituko baikitu. Ametsetara idekitzen den gambara hortako harresi ilunetan, eta gelditu gabe maitasunezko bihotzminen ahaztea lanean ari denean, amets gaixto orhoitzapenez bete zenbaitek ephe batez moztu eta barreaturik berriz laster hasia, dilindan daude, atzarria delarik ere, amets gogoratuak, baina hain ilunduak nun ainitzetan ezpaititugu arratsalde betean baizik ezagutzen ideia berdin baten arraia ustegabetarik joitera heldu zaienean; zenbait jadanik, lo ginaudenean argi harmoniadun batekoak, baina hain ezin ezagunak nun, ezagutu ez ahalean, lehiarekin lurrari haien itzultzeaz bertzerik ezpaitezakegu egin, lasterregi usteldu diren hil batzu bezala edo gauza hain barna andeatu eta erhaustera eman batzu nun antolatzale antzedunenak ezpailezazke bermolda eta zerbait hetarik athera.

Burdin-sareari hurbil den harrobira, lokhuma badoa burua estalki gogorrez betetzen duten ekheien bila, hain gogorrez nun, lo denaren atzartzeko, hunen borondateak behar baitu, urrezko goiz batean ere, aizkora ukhaldi handiez jo, Siegfried gazte batek bezala. Oraino haratago daude amets gaitzak medikuek baitiote zozoki logabeak baino gehiago akhitzen dutela, gogatzalea uzten dutelarik aldiz oharpenetik ihes egiten; amets gaitzak bere albun idurimenezkoekin, hetan gure guraso hilek ixtripu larri baina laster sendatzea baztertzen eztuen bat jasan berria baitute. Anartean garratoin kaiola ttipi batean atxikitzen ditugu, han sagu xuri batzu baino ttipiago eta su gorri lodi batzuez estaliak, bakoitzari luma bat sarturik, mintzaldi "kikerotarr" batzuetan ari baitzaizku. Albun horren ondoan da atzartzeko dizka itzulikaria, hari esker jasaiten baitugu ephe batez duela berrogei'ta hamar urte barreatua den gure etxera sarri sartu behar ukaiteko nahigabea, haren iduria bertze batzuek ezabatzen baitute, loa urruntzen ari den arau, dizka behin gelditurik baizik heltzen ezkiren eta begiak idekirik ikusiko dugun etxearekin bat egiten duela.

Batzuetan jeus enuen entzuna, zilo batera bezala erortzen den eta berantxago hartarik atheraia izaiteaz zorion osoan izanen giren lo hetarik batean izanez, dorpean, sobera hazian, ekharria dugun guzia iresten duenean, Herkule hazten zuten uretako jainkosen idurikoan.

Hori berunezko loa deitzen da; badiduri, horrelako loa gelditua denean ere, berunezko gizon xoil bat girela. Nehor ezkira. Nolaz orduan, nork bere gogoa, bere nortasuna bilatuz, galdu den gauza bat bezala, nolaz du berriz bere "nor" berezia aurkitzen? Zergatik, berriz gogatzen hasten denean, ez ote da aitzinekoaz bertze nor bat gure baitan haragitzen? Hautua zerk manatzen duen ezta ikusten, eta zergatik, izaiten ahal ginen gizon miliunen artean, bezperan ginen hartara zuzen den eskua emaiten. Zerk gitu gidatzen, loa (ala osoa izanik, ala ametsak gutarik osoki berexkoak) zinez hautsia izan denean? Hiltze bat izana da zinez, hala nola bihotza joitetik gelditu delarik mihiari thirakatze neurtu batzu emanez berphizten girenean. Izan daiteke gambarak, behin baizik ikusia ezpaginu ere, gutan atzartzen dituela zaharrago batzu haier lotuak diren orhoitzapenak; edo batzu gure baitan lo zauden, orai gogo argira badathorrenak. Atzartzeko berphiztea - erotaldi ongiegingarri bat

den loaren ondotik - izen bat, neurtitz bat, lelo ahatzi bat berraurkitzen denean bezala da oro har. Eta behar bada arimaren berphiztea herioaren ondotik asmagarri da orhoitzapeneko gertakari bat bezala.

Loa bururatua nuenean, zeru iguzkituak erakharria, baina negu hasteko azken goiz hain argi eta hotzen frexkurak gibelera atxikia, burua goititzen nuen zuhatzer so egiteko, hetan orstoak ezpaitziren gehiago airean ageri sare ezin ikusi batean geldituak iduri zuen ttitta urre edo gorraxta zenbaitez baizik, eta lephoa luzatzen gorputza estalgien azpian erdi gordea atxikiz; moldez aldatzera doan mamutxa bat bezala, haren zati orori ingurumen berdina etzoakon izaite bikun bat nintzan; ene soari aski zizakon margoa, berorik gabe; bulharra aldiz beroaz axolatzen zen eta ez margoaz. Enintzan sua phiztua zenean baizik jeikitzen eta banindagon goiz malba-kolore urreztatuari beha, eskas zuen berotik alegiaz emana bainaukon, pipa on bat bezala alhan eta khetan zen ene sua akulatuz, emaiten zautala, pipak bezala, atsegin bat aldi berean arrunta gauzazko gozo batean zatzalakotz eta hautukoa haren gibelean ikuspen huts bat gordetzen zelakotz. Ene ikuztegia lili beltz eta xuriez banakatu paper gorri gordin batez estalia zen, eta iduri zen haier jartzea neke izanen zizatala. Baina berriak baizik etzizaztan iduritu, eninduten haiekin etsaigoan sartzera bortxatu baina bakarrik harremanetan, ene jeikitzeko alaitasuna eta kantuak etzituzten bermoldatu baizik, etzautaten bihotzean halako loregorri bat baizik ezarri munduari behatzeko, Paristik osoki bertzela ikusten bainuen, etxe berri hori zen haizolbe alaitik, ene gurasoena zenaz bertze alde batera itzulia eta aire garbi baten ufa heldu zizakona.

Egun batzuez, amatxiren berrikusteko gutiziak khexatzen ninduen edo ez ontsan izan zadin beldurrak; edo Parisen hasirik utzi zerbaitez orhoitzea zen, eta behar bezala etzoanaz; batzuetan, hemen ere, hartara erortzeko bidea hatzemana nuen behargabe zenbaitez. Nahigabe horietarik batek edo bertzeak lokartzea debekatua zautan, eta indarrik gabe nintzan ene trixteziaren kontra, ephe batez enetako izaite osoa betetzen baitzuen. Orduan, hoteletik, norbait kasernara igortzen nuen, Saint-Loup-endako hitz batekin: erraiten naukon izaitez egin bazezakeen - biziki neke zela banakien - ephe batez jiteko aski ona izan zadin. Oren baten buruan bazetorren; eta haren xilintxa ukaldiaren entzutean sendi nintzan ene griñez arindua. Banakien ni baino azkarrago baldin baziren, hura hek baino azkarrago zela, eta oharpena hetarik baztertzen zizatan eta deliberoa hartu behar zuen haren gana itzultzen. Etzen sartua baizik eta ene inguruan ezarria zuen jadanik goizetik haste hainbertze ernetasun emaiten zuen aire betea, mundu bizi ene gambaratik osoki bertzelakoa eta berehala hartara jartzen nintzana behar den bezalako ihardokitze batzuen bidez.

- Agian etzaizkit aiher izanen desarrañaturik; bada oinazkatzen nauen zerbait, asmatua dukezu.

- Baina ez, uste ukan dut bakarrik ene ikusteko gura bazinuela eta hori biziki gustagarri iduritu zata. Galdegin-arazia ninduzulakotz loriatua nintzan. Baina zer? etzira beraz ontsa? zer da bada zure zerbitzuko?

Ene argipenak entzuten zituen, zuzenki ihardesten zautan; baina hura mintzatu ere baino lehen, bere idurikoa egina ninduen: hain lehiatua, hain ernea,

hain askietsia egiten zuten eginbehar larrien ondoan, arestian ephe batez oinazerik gabe egoitea debekatzen zautaten nahigabeak iduritzen zitzaztan, hari bezala, baliorik gabeak; egun andana batez begiak ezin idekiz egona den eta medikua deitzen duen gizon bat bezala nintzan, hark betespala trebeki eta eztiki baztertuz, ekhentzen baitauko ondartz pikor bat eta erakusten: eria sendatua da eta segurtatua. Ene buruhauste guziak joaiten ziren Saint-Loup-ek igorr-araztea bere gain hartzen zuen telegrama batean. Bizia hain zizatan bertzelakoa iduritzen, hain ederra, halako indar gainditu batez hartua nintzan nun zerbait egin nahi bainuen.

- Zer ari zira orai? nion Saint-Loup-i.

- Utziko zitut, hirur laurdenen buruan urratsetara baigoaz eta ene beharretan dira.

- Jiteak ainitz jenatu zitu beraz?

- Ez, enau jenatu, kapitaina biziki gixakoa izan da, erran du zuretako zenaz geroz jin behar nuela, baina eztut sobera badagitala iduritu nahi.

- Baina laster jeikitzen banintz eta zurekin joaiten manobretan ariko zirezten lekura, biziki laket nuke, eta behar bada artetan zurekin mintza ahal nindaike.

- Eztautzut konseilatzen; atzarririk egona zira, ezteusa dela segurtatzen dautzutan zerbaitendako khexatua, baina orai gogoan eztuzunaz geroz, itzul zaite zure buhurdikoan eta lo egin, ezin hobea izanen baitzaizu zainetako zelulen mineral galtzearen kontra; etzaitela lasterregi lokhar gure musika ausarta zure leihoen azpitik iraganen baita; baina gero berehala, bakean izanen zirela uste dut, berriz elgar ikusiko dugu arratsean auhaltzeko.

Baina zenbait egun berantago izan nintzan usu erreximenduaren ikustera baserrian soldadoko zerbitzuan, Saint-Loup-en adixkidek auhaltzean zabaltzen zituzten gerlako theoriez axolatzen hasi nintzanean eta hori, haien buruzagi guzien hurbilagotik ikustea ene egunetako gutizia bilakatu zenean, musikaz bere ikaspen nagusia egiten duen, musikaldietan bizi den eta orkeztrako musikarien biziarekin nahasia izaiten den ostatuetan ibiltzea laket duen norbaitendako bezala. Manobretako lekura heltzeko, bide ainitz egin behar nuen. Arratsean, auhaltzean, lo egiteko gurak burua noiztenka mahira eror-arazten zautan burxoratze batean bezala. Biharamunean, ohartzen nintzan fanfarra enuela Balbec-en, Saint-Loup-ek auhaltzeko Rivebelle-ra eremana ninduenean ondartzako musikaldia baino gehiago entzuna. Eta zutitu nahi nuen orduan, sendi nuen atseginekin ezin nuela; sendi nintzan akhidurak soraiotu junturetarik lur barna ezin ikusi bati, erroka ginarritsu hazle batzuez estekatua. Indarrez betea sendi nintzan, bizia ene aitzinean luzeago hedatzen zen; Combray-n Guermantes-ko aldean ibilia ginen egunetako biharamunean ukana nuen biziko akhidura onetarano gibelera joan bainintzan. Poetek badiote ephe batez berraurkitzen dugula behin gaztean hetan bizi izanak giren holako etxera, holako baratzera sartzean izanak ginen hura. Beila biziki menturazkoak dira horiek, ondotik baitakarte ontsa heltze bezainbat nahigabe. Leku geldiak, urte ezperdinen arokoak, guhauren baitan aurki ditzagun da hoberena. Hortarako zaiku baliagarri, neurri batean, gau on bati jarraikitzen zakon akhidura handi bat. Horiek, gure jauts-arazteko loaren hobi lupekoenetara, han ezpaitute, loak amor emaiten eztauen ber, bezperako leinuru batek ere, orhoitzapeneko arrai

batek ere barneko bakarrizketa gehiago argitzen, hain ontsa dute gure soinaren lurra eta arbela iraultzen nun berraurki-arazten baitaukute, gure ginarriek bere abarkatzeak bihurtzen dituzten eta bizi berria iresten duten gunean, haurzaroan izan ginen baratzea. Horren ikusteko, berraurkitzeko, bidaiatze beharrik ezta, behar da jautsi. Lurra estalia duena ezta haren gainean, baina azpian; hiri hilaren ikusteko itzuli baten egitea ezta aski, ikherketak behar dira. Baina ikusiko da nola iduripen iragankor ustegabeko batzuek hobeki oraino baderamaten iraganera buruz, soinaren haustura horiek baino zuzentasun xorrotxago batekin, airatze arinago, gorputzik gabekoago, burxoragarriago, huts egitera ezin ekharriago, hilgaitzago batekin.

Batzuetan ene akhidura handiagoa zen oraino: egun batzuez egona nintzan, etzatera joan ahal gabe, manobrer jarraikitzen. Hotelera itzultzea zein benedikatua zen orduan! Ohean sartzean, iduri zizatan enkantatzale batzuer, sorgin batzuer ihes egina nauela azkenean, gure XVII-garren mendeko elhaberri maitatuak betetzen dituzten bezalako batzuer. Ene loa eta biharamun goizeko ohean egoitea etziren gero azti-andere ixtorio xoragarri bat baizik. Xoragarria, onegingarria ere behar bada. Banion neure baitan oinaze gaitzenek badutela bere ihes-lekua, beti aurki daitekeela, hobearen eskasean, phausua. Gogoeta horiek biziki urrun baneramaten.

Deskantsuko ziren egunetan eta Saint-Loup bizkitartean jalgi etzaitekeenetan, haren ikusteko banindoan usu kasernara. Urrun zen, hiritik jalgi behar, bidazubia iragan, hunen bi aldetarik ikuspegi zabal-zabal bat bainuen. Haize mehe azkar batek ufatzen zuen abantzu beti gainalde horietan eta korroilako hirur aldetan egin eraikuntzak betetzen zituen, haizen harpe bat bezala burrumban baitzauden ethengabe. Zerbitzu zerbaitetan hartua zen bitartean Saint-Loup-en igurika nindagolarik, haren gambarako athe aitzinean edo jateko lekuan, aitzineratuak zauztan haren adixkide batzuekin elhekan (batzuetan gero ikustera jin bainindaien, hark han izan behar etzuenean ere), leihotik ikusiz, nitarik ehun metretan beherago, baserri murriztua baina hartan han-hemenka ereintza berri batzuek, ainitzetan oraino euriez bustiak eta iguzkiaz argituak, zerrenda musker batzu hetan ezartzen zituztela dirdiran eta esmailezko garbi batez zehargi, hartaz mintzatzen entzutea gertatzen zizatan, laster ohartu bainintzan zenbat zen orotaz maitatua. Bertze zaldunaldetako engaiatu batzuen baitan, arixtokraten gizarte lerro handiena, hartara sartu gabe, kampotik baizik ikusten etzuten burjes gazte aberatsak, Saint-Loup-en jitetik bazakitenak phizten zuen atxikimendua bikuntzen zen mutiko gazteak haien begietan zuen ospeaz, usu ikusia baitzuten Parisera permisionez jiten zirenean, Café de la Paix-an auhaltzen Uzèz-ko dukearekin eta Orléans-ko printzearekin. Eta horren gatik, haren begitarte pollitean, ibiltzeko, agurtzeko ara luzatu malguan, begitako bakunaren igortze betierekoan, kepi goregien "fantasian", oihal mehe gorraxtegizko galtzetan, ezarria zuten "aphaintasun" bateko ideia, baitzioten erreximenduko aitzindari aphainduenek halakorik etzutela, kasernan etzatea haren ganik ukana nuen kapitain maiestate handienekoak ere, iduri baitzuen, erkidatzez, ospetsuegia, abantzu arrunta.

Batek zion kapitainak zaldi berri bat erosia zuela. "Nahi dituen zaldi guziak eros dezazke. Igandean Saint-Loup aurkitu dut Akazietako ibilbidean, igaitean badu bertze aphain bat!" zuen bertzeak ihardesten, eta gauzaren ezagule izanez, ezen

mutiko gazte hek, jenderia mundutar berarekin ibiltzen ezpada ere, bizkitartean, astiari eta diruari esker, arixtokraziatik bertzelakoa ezten lerro batekoak dira, eros daitezkeen aphaintasun guzien ezagutzan. Gorenaz ere haienak zerbait bazuen, jantzier doakonean behazunez, amatxiri Saint-Loup-en baitan hainbat gustatzen zizakon aphaintasun axolagabe 'ta libroa baino arthatuagoa, hutsik gabekoagoa. Diruzain handi eta diru tratulari seme haiendako, antzokitik landa ostre jaten ari, apur bat hunkigarri zen auzoko mahi batean Saint-Loup aitzindari-ordearen ikustea. Gero astelehen goizean kasernan zenbat ixtorio, permisionetik itzultzean, Robert-en zaldunaldekoa zen eta harek egunona "biziki polliki" emana zaukon batek eginik, ala zaldunalde berekoa etzen baina hala ere Saint-Loup-ek ezagutua zuela uste zuen bertze batek, begitako bakuna bizpahirur aldiz haren aldera zuzen itzulia baitzuen!

- Bai, anaiak "la Paix"-an ikusia du, zion eguna bere ohaidearekin eremana zuen bertze batek, jantzi bat omen zuen zabalegia eta ontsa erortzen etzena.

- Nola zuen barneko motxa?

- Etzuen xuria, baina malba-kolore halako palma batzuekin, jostagarria!

Zaharrenendako (Jockey-a ezagutzen etzuten jende xoilak eta Saint-Loup bakarrik aitzindari-orde biziki aberatsen lerroan ezartzen zutenak, hetan sartzen baitzituzten, hondatuak ala ez, hein bateko bizimoldea zeramaten guziak, irabazi edo zor zenbaki aski gora bat zutenak eta soldadoekin eskua zabal), Saint-Loup-en ibilarak, begitako bakunak, galtzek, kepiek, arixtokrata zenik jeus ezpazuten ere hetan ikusten, etzuten ohargarririk eta erran-nahirik gutiago erakusten. Berezitasun horietan ezagutzen zituzten behin betikotz erreximenduko aitzindari estimatuena zen horri emanak zauzkoten jitea, nehorenak bezalakoak etziren arak, buruzagiek goga zezaketenaren erdeinua, soldadoarendako zuen oneziaren ondorio zuzena iduritzen baitzizaien. Gambarakidekilako goizeko kafeak, edo arratsaldetan ohe gaineko atsedenak, hobeak iduri zuten, zaharrenetarik batek ezkuada gormant auherrari xehetasun jostagarri zenbait emaitean zaukonean Saint-Loup-ek zuen kepiaz.

- Ene paketatzea bezain gorakoa.

- Hea, gaizoa, ilharra sartu nahi daukuk, etzian hire paketatzea bezain gora izaiten ahal, hautsi zuen literaturan lizenziatu gazte batek, nahi baitzuen, itzuli hortaz baliatuz, ez "urdin" baten itxura ukan eta, laburpen hortara ausartuz, loriatzen zuen gauza bat baiezta-arazi.

- Ha! eztela ene paketatzea bezain gora? Neurtua duk behar bada. Erraiten deat koronel-ordeak begiez itzatzen ziala "blokera" eman nahi ukan balik bezala. Eta ez uste ukan gure Saint-Loup aiphatua balditzen zela: joaiten zian, jiten, burua beititzen, goititzen, eta beti begitako bakun ukaldi hura. "Kapixtonak" zer erranen dian ikusi behar. Ha! jeus erranen eztikala izan daitekek, baina segur eztikala atsegin ukanen. Baina kepi horrek, balditzekorik jeus eztik. Ba omen ditik etxean, hirian, hogei-ta hamarrez goiti.

- Nola dakik hori, gaizoa, gure "kapot" ospekoaren ganik? galdegiten zuen lizenziadun gazteak jakinarena eginez, berriki baizik ikasiak etzituen hizkuntza itzuliez baliatzen zela eta hetaz bere solasaldiaren aphaintzeaz burgoitzen.

- Nola dakiatan? Haren soldado-mutilaren ganik, ala jipoa!

- To horra zorigaitzekoa izan behar eztikan bat!

- Uste diat bada! Nik baino onon gehiago badik, segurki. Eta gainera bere philda guziak emaiten dazkek, eta zer eta zer. Jandegian etzian aski ukaiten. Horra ene Saint-Loup heldu dela eta kozinariak bereak entzun ditik: "Ontsa jan dezan nahi dut, gostako dena gostako da."

Eta soldado ohiak elhearen ahula ordaintzen zuen doinuaren indarraz, heltze hoberena zuen bierarteko ihakin batean.

Kasernatik jalgitzean itzuli bat banagien, gero, egun oroz hark eta adixkidek pensione hartua zuten hotelean Saint-Loup-ekin auhaltzera nindoan orduaren igurikan, neurera buruz abiatzen nintzan, iguzkia etzan orduko, atseden hartzeko eta irakurtzeko bi orenen ukaitekotan. Plazan, iguzkiak ezartzen zituen gazteluko hegaztegi geriza-dorre ttipiekilakoan hedoiño arrosa-kolore batzu adarailuetako margoen araberakoak eta bien arteko juntura bururatzen hek leinuru batez eztituz. Halako bizi oldea zizatan metan zainetara jiten nun ene mugimenduetarik batek ere ezpaitzezakeen agor; ene urrats bakoitza, plazako lauzaki bat hunki eta, pumpatzen zen, iduri zizatan aztaletan banituela Merkurioren hegalak. Ithurrietarik bat argi gorri batez betea zen, eta bertzean jadanik ilargiak bazeman opala baten margoa. Bien artean haur batzu ari ziren josteta, oihuka, inguruka, orenaren behar zenbaiti jarraikiz, sorbeltz edo gau-inhara batzuen moldean. Hotelaren ondoan, hetan orai Diru-khutxa eta Armadako bulegoeria ziren lehenagoko herri-palazioak eta Luis XVI-garrenaren iranjeria barnetik argituak ziren jadanik phiztua zen gazaren baso hits urreztatuez, egun oraino argian iguzki sartzeko leinurua ezabatua etzen XVIII-garren mendeko leiho gora zabalekin ontsa zoana, gorriz bixitu buru bati ezkata horizko aphaindura batek eginen zaukon bezala, sinetz-aratzen baitzautan behar nuela berriz ene sura eta lampara itzuli, hunek baitzuen bakarrik, bizi nintzan hotelaren aitzinaldean, ilunabarrari gudu egiten eta hunen gatik bainintzan sartzen, gaua osoki eroria izan gabe, atseginez, arratsalde-askariko egiten den bezala. Banatxikan, ene bizitegian, kampoan ukana nuen sendipen betetasun bera. Hain usu zabalak eta hutsak iduritzen zauzkun eremuen itxura halako moldez zuen gupitzen, eta suaren gar horia, zeruaren paper urdin iluna, hartan, eskolako haur batek bezala, arratsak ezarriak baitzituen zirri-marra gorraxta batzu, mahi biribileko tapiza bitxiki marrazkitua, haren gainean eskolako paper meta batek eta ankre-untzi batek igurikatzen nindutela Bergotte-ren elhaberri batekin, nun, gero ere, gauza horiek jarraiki baitzazta bizi berezi mota batez aberats iduritzen; eta uste dut, berriz aurkitu ahal banitu, haren biltzen banakikeela. Zorionez nindagon utzi berria nuen eta haren gaineko oilarra haize orotara itzulikatzen zen kaserna gogoan. Ur-gainerano doan tuta batetik hatsa hartzen duen murgilkari bat iduri, bizi sanora, aire betera lotua izaitea bezala zen enetako esteka-gune bezala kaserna horren senditzea, behaleku gora hori esmail muskerrez marratzen zuten baserriaren gainean, abantail baliodun batentzat bainadukan, iraupenekoa opatzen nuena, horren atherbe 'ta eraikuntzen azpira joan ahal ukaitea, beti ontsa hartua izanen nintzala segur.

Zazpietan janzten nintzan eta berriz jalgitzen Saint-Loup-ekin auhaltzera joaiteko pensionea hartan hartua zuen hotelera. Ilun beltza zen, eta heren eguneko ufan hasi zen, gaua jin orduko, elhurra iragartzen zuela iduri zuen haize hormatu

bat. Banindabilalarik, badiduri enuela ephe batez ere gogoan Guermantes-ko Anderearen ukaitetik gelditu behar; enintzan Robert-en soldadotegira jina hari hurbildua izaitera entseatzeko baizik. Baina orhoitzapen bat, bihotzmin bat higikor da. Egun batzuez hain dira urruntzen nun doidoia baititugu ikusten, joanak direla uste dugu. Orduan bertze gauza batzuetara dugu oharra emaiten. Hiriko karrikak etzizaztan oraino, ohian bizi giren lekuetan bezala, leku batetik bertzera joaiteko bide xoil batzu. Mundu ezezagun hartako jendek zeramaten biziak mirazkoa izan behar zuela uste nuen, eta usu bizitegi zenbaiteko berina argituek banadukaten luzaz gauan geldirik, hetan sartzen enintzan bizietako gertakari mixteriodun egiazkoak ezartzen zauztatela begietan. Hemen suaren jeinuak erakusten zautan argazki gorri-iluneztatu batean gaztena saltzale zenbaiten taberna, han bi azpi-aitzindari, gerriko uhalak kadera batzuetan ezarririk, karta-jokoan ari, miragile batek gautik jalgi-arazten zituela burura eman gabe, antzokiko agerraldi batean bezala, eta ordu hartan ziren bezala agerr-arazten, ezin ikus zezaketen ibiltzale baten begietan. Nahas-mahaskeria saldegi ttipi baten aitzinean, ezkargi erdi-erre batek, bere argi gorria grabadura baten gainera igorriz, odol-margo batera itzultzen zuen, bitartean, itzalari guduka, lampa gotorraren argiak larru zati bat beltzaranatzen zuelarik, nabal bat lastaka dirdiratu batzuez esmailatzen, kopia gaixto batzu baizik etziren margazki batzuetan urredura bat ezartzen iraganaren zahar-zolda edo nagusi baten bernuza bezain baliosa, eta margazki gaixtorik eta ezteuskeriarik baizik etzen barne txar hartaz, Rembrandt bat egiten. Batzuetan begiak goititzen nituen leihoak hetsiak etzituen bizitegi zabal eta zahar zenbaitetarano, han ur-airetako gizon eta emazte batzu, egunaz bizi izanak zirenetik arrats oroz bertze ekhai batera jarriz, emeki igerikan baitzabiltzan lampen argi-untzitik, gauaren erortzean, ethengabe sortzen den ur gizenean gambaren betetzeko bere harri eta berinazko bazterren hegirano, barne hartan egiten baitzituzten, bere soinak higituz, erremola leun urreztatu batzu.

Ene bidea berriz hartzen nuen, eta usu kathedrale aitzinetik doan karrikaxka ilunean, lehenago Méséglise-ko bidean bezala, ene gutiziaren indarrak geldi-arazten ninduen; iduri zizatan haren asetzeko emazte bat jalgiko zela; ilunbean bapatez zaia bat iragaiten senditzen banuen, ene atseginaren bortiztasunak berak debekatzen zautan hunkitzera egite hori ustegabekoa zela sinestea, eta baziragan emazte izitu baten hartzera besoetan entseatzen nintzan. Karrikaxka gothiko horrek zerbait bazuen enetako hain egiazkoa nun, ahal ukan banu hor emazte bat hatzeman eta ukan, aro zaharreko atseginak ginituela batuko ez sinestea ezina izanen baitzizatan, emazte hura izan baliz ere gizon biltzale xoil bat gau oroz hor zagona, baina neguak, leku arrotzak, ilunbeak eta Ertaroak bere mixterioa emana ukanen zaukotena. Geroa gogoan nindagon: Guermantes-ko Anderearen ahaztera entseatzea laztagarri iduritzen zizatan, baina arrazoineko eta, lehen aldikotz, egingarri, errex behar bada. Auzoalde hortako geldi osoan, ene aitzinean elhe 'ta irri batzu entzuten nituen sartzen ari ziren ibilkari erdi-mozkor batzuen ganik heldu zatezkeenak. Haien ikusteko gelditzen nintzan, harrabotsa entzuna nuen aldera itzultzen. Baina luzaz igurikatu behar nuen, ezen inguruko ixila hain zen osoa nun, harrabots oraino urrunak, utziak baitzituen garbitasun eta indar bete-betean iragaitera. Azkenean, ibilkariak bazetortzen, ez, uste ukana nuen bezala, ene

aitzinera, baina ene gibelean biziki urrun. Ala karriken gurutzatzeak, artean ziren eraikuntzek, soinuen zehaka-arazteaz beharria enganaturik, ala lekua ezagutzen eztaukogun soinu baten jartzea neke delakotz, huts egina nuen, urruntasunean bezainbat, aldean.

Haizea azkartzen ari zen. Elhur hurbiltzeak guzia laztua eta pikorkatua zuen; banindoan berriz karrika nagusira eta tramu ttipira jauzi egiten nuen, han galeriatik aitzindari batek ihardesten baitzauen ikusten zituela iduri etzuen eta, aurpegia hotzaz margoztatua, oinbidean zoazen soldado gaizo batzuen agurrer; negu haste hartan larrazkenaren bapateko jauziak ipharraldera gorago eramana zuela iduri zuen hirian, aurpegi hek gogoratzen zuten Breughel-ek bere laborari alai, besta egile 'ta hormatuer emaiten dauen begitarte gorritua.

Eta preseski Saint-Loup eta haren adixkidekin hitzartua nintzan hotelean, hasten ari ziren bestek auzo eta atzerritar ainitz hara erakhartzen baitzuten, gorrailtzen ziren sukalde batzuetara ideki korroila zuzen iragaiten ari nuen bitartean, hetan oilaskoak gerrenetan itzulika, urdeak xiligarratzen, otharrainak oraino bizi ostalerrak "betiereko sua" zeritzonera egotziak, gaitzeko jendea jiten ari zen (Flandres-etako margolari nagusi zaharrek margoztatzen zituzten bezalako "Bethlehem aitzineko jende zenbatze" baten heinekoa), korroilan multzokatzen baitziren, etxeko nagusiari edo haren laguntzaletarik bati zerbitzatuak eta ostatatuak izan zaitezkeenez eskatuz (hirian hautuz bizitegi bat izendatzen baitzaueten aski itxura onekoek iduritzen etzaiezteenean), mutil bat bazoalarik oraino zalapartatzen zen oilanda bat lephotik atxikiz. Lehen egunean iragan nuen jateko sala handian, adixkideak igurikatzen ninduen barne ttipira heldu aitzin, aro zaharreko lañotasunarekin eta Flandres-etako soberakeriarekin itxuratua den Ebanjelioko aphairu bat zuen ere gogoratzen arrainen, oilanden, basoilarren, pekaden, urzoen ainitzak, aitzinetik aphainduak eta mutil hats-hantu batzuek lehiatzeko taula-zolan lerraka khetan ekhartzen, bazter-mahi neurrigabean ezartzen, han berehala zatikatuak baitziren, baina - aphairu ainitz bururatzen ari baitzen hara heldu nintzanean - baliatu gabe metatzen; haien nasaiak eta ekhartzen zituztenen tarrapatak ihardetsi ukan balu bezala, auhaltiarren galdeari baino biziki gehiago, hitzez hitz ximenki jarraikitzen zizakon izkirio sainduaren, baina lañoki lekuko biziari hartu xehetasun egiazkoez marrazkiztatuaren errespetuari, eta, bestak zuen ospearen orori erakusteko xede ezthetikazko eta erlisionezkoari, janarien nasaiaz eta zerbitazarien lehiaz. Hautarik bat ametsetan zagon salaren zolan, alase baten ondoan geldi-geldia; hari galdegiteko, eni ihardesteko aski ezti zen bakarra iduri baitzuen, gure mahia zein salatan ezarria zuten, aitzinatzen nintzala berantiarren jatekoak hotz etzaiten berogailu han hemenka phiztuen artean (hala ere sala erdian desertak atxikiak ziren gaitzeko gizon baten eskuetan, batzuetan iduriz kristailezko, egiazki hormakizko ahate baten hegaletan, egun oroz koziner zizelatzale batek burdin horiaz zizelkatua, molde ontsa flandrestar batean), joan nintzan zuzen, bertzek aurdikia izaiteko irriskutan, zerbitzari horren gana, ustez eta gai sakratu horietan ohikoa den jende bat ezagutzen nuen, ximenki itxuratzen baitzituen haren aurpegi sudur-zabal, laño, gaizki marrazkitua, errankortasun ameslaria, bertzek oraino senditu eztuten hor izaite jainkotar baten mirakuluaz jadanik aitzinetik erdi-

jakile. Aingeru gazte musikari batek, hamalaur urteko begitarte bat ile horiak inguruan, etzuen egia erran soinurik joiten, baina ameskerian zagon dundun baten edo azieta meta baten aitzinean, bitartean aingeru gutiago haur batzu lehiatzen zirela salako eremu neurrigabetan zehar, airea inharrosiz soinaren luzara hastapeneko margolarien hegalen moldean jausten zizezteen oihalen daldaraz. Palmazko erridau batez estali herrialde gaizki mugatu horier ihes banegiela, iduri baitzen, urrundik, zerbitzari zerutarrak hara goiherritik heldu zirela, bide bat hautsi nuen Saint-Loup-en mahia han zen sala ttipirano. Haren adixkidetarik batzu ediren nituen harekin auhaltzen ari, aitoren semeak, bi "bilaun" salbu, hautan ikastetxetik adixkide batzu usnatuak baitzituzten eta nahitara hauekin atxikimendutan jarriak, horrela phorogatuz etzirela, hastetik, burjesen etsaiak, hauk errepublikatiarrak izanik ere, eskuak garbiak zituzten ber eta mezara joaiten. Lehen aldian berean, mahian jarri baino lehen, Saint-Loup jateko sala izkina batera ereman nuen, eta bertze guzien aitzinean, baina ezkinituzten entzuten, erran naukon:

- Robert, ordua eta lekua gaizki hautatuak dira zuri hunen erraiteko, baina eztu zekunda bat baizik iraunen. Kasernan galdatzea ahazten dut beti; mahi gainean duzun argazkia eztea Guermantes-ko Anderearena?

- Baina bai, ene izaba ona da.

- Oizu, egia da, eroa niz, lehenago ikusia nuen, ehoiz enuen gogoari emana; Jainkoa, zure adixkideak khexatzen ari datezke, laster mintza gaiten, guri beha daude, edo berdin, bertze aldi batez, muntarik eztu batere.

- Baina ba, zaoz beti, igurikatzeko dira hor.

- Ez batere, ontsa ikasia izan nahi dut; hain dira gixakoak; bertzela ere, jakizu, etzata baitezpadakoa.

- Ezagutzen duzu, Oriana gaizo hura?

"Oriana gaizo" horrek, "Oriana on hura" erran nahi ukan balu bezala, etzuen erran nahi Saint-Loup-ek Guermantes-ko Anderea bereziki onarentzat zadukala. Aldi hortan, ona, hoberena, gaizoa hitzak, "hura"-ren azkartze xoil batzu dira, ezagutzen den jende batez mintzatzean eta hartaz zuzen zer erran eztakizularik zurekin etxekotasunean ezten norbaitekin. "Ona" aitzin-janaritako baliatzen da eta ephe batez igurikatzeko: "Usu ikusten duzua?" edo "Badira ilabeteak eztutala ikusia", edo "Asteartean ikusten dut" edo "Eztateke orai gazte-gaztea" hatzemana ukan arteo.

- Haren argazkia dela jakiteaz zenbat jostatzen nizan eztezauzuket erran, orai haren etxean bizi baikira eta hartaz gauza ezin sinetsiak ikasi baititut (zein ziren erraiteko ontsa eragozpenean izanen nintzan) hartaz ainitz axolatzen nizala egiten dutenak, literaturako ikuspegi batean, hartzen duzu, nola erran, Balzac-en arako ikuspegi batean: zuk, hainbat adimendukoa, hori hitz-erdika ere hartzen duzu; baina burura dezagun laster, ene ikustateaz zer dukete gogoan zure adixkidek!

- Baina jeus eztute gogoan. Errana dauet goren-gorena zirela eta zu baino biziki herabetuagoak dira.

- Sobera gixakoa zira. Baina, hain zuzen, horra: Guermantes-ko Andereak ezagutzen zitutala eztu uste, ote?

- Batere eztakit; azken udatik hunarat eztut ikusi, sartua denez geroztik ezpainiz permisionez izan.

- Hau erranen dautzut: osoki ergelarentzat nadukala segurtatu nautate.

- Hori, eztut uste: Oriana ezta izpiritu gorenekoa, baina ezta hala ere zozoa.

- Enetako dituzun sendimendu onak jakin-araz ditzazun badakizu orotara enizala batere horri atxikia, nihauren alderako amodiorik ezpaitut. Urriki dut hortakotz zure adixkider - bi zekunden buruko batuko ditugu - nitaz gauza maitagarriak erran ukanak dituzun. Baina Guermantes-ko Andereari doakonaz, jakin-arazten ahal bazinako, apur bat sobera eginez ere, nitaz zer uste duzun, atsegin handia egin zinezatake.

- Baina biziki gogotik, galdatzeko ezpadautazu hori baizik, ezta sobera neke, baina zer balio ukan dezake zuretako, zutaz gogoan zer dukeen? Uste dut etzirela batere hortaz axolatzen: hasteko, hori baizik ezpada, guzien aitzinean aiphatzen ahalko dugu edo bakarrik izanen girenean, zutik elhekatuz eta hoin aragaizki akhi zaiten beldur bainiz, buruz buru izaiteko badugu hainbertze aldi.

Aragaitz horrek zautan hain zuen emana mintzatzeko kuraia; bertzen hor izaitea estakuru bat zizatan ene solasari itzuli labur eta jostura gabeko baten emaitera uzten ninduena, horri esker errexkiago gorde bainezakeen dukesarekin zuen ahaidegoa ahatzia nuela erraitean ene adixkideari egiten nuen gezurra, eta zer gatik nahi nuen harekin harremanetan nintzala, adimendua banuela eta bertze, Guermantes-ko Andereak jakin zitzan galdatzeko astirik ez hari uzteko, are gehiago nahasiko ninduten galdeak nun ezpainauen ihardesten ahalko.

- Robert, zu hainbat adimendukoa, ustegabetzen niz nolaz eztuzun hartzen adixkider atsegin emaiten dauena eztela behar eztabadatu, baina egin. Nik, nahi dena galdegiten baldin bazinauta, eta ere zerbait galdegin zinezatan nahi nuke, argipenik eska enezauzukeela hitzemaiten dautzut. Banoa gutiziatzen dutana baino urrunago; eztut Guermantes-ko Anderea ezagutu nahi; baina behar nautzun, phorogutan zure ezartzeko, Guermantes-ko Anderearekin auhaltzeko gutizia banuela erran, hori eginen etzinuela badakit.

- Ezta bakarrik eginen nuela, baina eginen dut.

- Hori noiz?

- Parisera itzuliko nizan orduko, hirur asteren buruan, ustez.

- Ikusiko dugu, bertzela ere eztu nahiko. Ezin dezauzut erran zenbat zitutan eskertzen.

- Baina ez, jeus ezta.

- Ez, ez erran hori, gaitzekoa da, orai zer adixkidea ziren ikusten baitut. Eskatzen dautzutan gauza handia den ala ez, gozagaitza ala ez, egiazki edo bakarrik zure phoragatzeko nahi dutan ala ez, berdintsu da, eginen duzula diozu, eta hortik zure adimenduaren eta bihotzaren arrarotasuna erakusten duzu. Adixkide zozo batek eztabadatuko zuen.

Hain zuzen hori zuen egina; bere alderako amodiotik hatzeman nahi nuen behar bada; behar bada zintzoa nintzan ere, mereximenduaren haztagailu bakarra iduri baitzizatan enetako balioa zuen gauza bakarreko, ene maitasuneko, on zen zerbait bazuena zela. Gero gaineratu nuen, ala zimarkuz, ala esker onak emaiten

zuen xamurtasunaren handitze egiazko batez, eta Guermantes-ko Anderearen aurpegitik beretik Robert haren ilobaren baitan naturalezak ezarria zuen guziaz:

- Baina horra behar dela bertzeren gana joan eta eztautzut bi gauzetarik bat baizik eskatu, balio gutienekoa, bertzeak gehiago baitu enetako, baina eza emanen dautazula beldur niz; hikatzen bagira nahigabetuko zirea?

- Nola nahigabetuko, hea bada! *bozkario! bozkariozko nigar! zorion ez ezaguna!*

- Zenbat eskertzen zitutan… eskertzen hautan. Zu hasia izan zirenean! Halako atsegina emaiten dauta nun Guermantes-ko Andereari doakonaz, jeus ezpaituzu eginen nahi baduzu, hikatzea aski zata.

- Eginen dira biak.

- Oi! Robert! Entzun ezazu, erran naukon oraino auhaltzean Robert-i, oi! badu irriegingarri bat elhe moztuzko solasaldi horrek eta bertzela eztakit zergatik - badakizu aiphatu berri dautzutan andere hori?

- Ba.

- Badakizu bada nor erran nahi dutan?

- Hea bada, mendi-zokoko lele batentzat nadukazu? zozola batentzat?

- Baina etzinezatake haren argazkia eman?

Presta zezatan nuen bakarrik nahi. Baina mintzatzeko orduan, herabe senditu nintzan, ene galdea ausart aurkitu nuen eta, horri ohartzera ez uzteko, bortizkiago erran nuen eta gotortu oraino, natural-naturala izan baliz bezala.

- Ez, baimena eskatu behar daukot lehenik, zautan ihardetsi.

Berehala gorritu zen. Gibel-gogo bat bazuela hartu nuen, nik banuela ere uste zuela, ene maitasuna etzuela erdikara baizik lagunduko, beharbezalatasunezko arau batzu salbuetsiz, eta hastio ukan nuen.

Hunkia nintzan bizkitartean ikusiz Saint-Loup ene aldera zenbat bertzelakoa agertzen zen harekin bakarrik enintzanaz geroztik eta haren adixkideak arteko. Zuen amultsutasun handiagoak ezpaian utziko ninduen, nahi zuela uste ukan banu; baina nahigabekoa zela sendi nuen eta han enintzanean nitaz erraiten ahal zuen guziaz egina bakarrik eta harekin nintzalarik ixiltzen zuenaz. Buruz-burukoetan, segurki, enekin mintzatzeaz zuen atseginaren aierua banuen, baina atsegin hori abantzu beti ez errana gelditzen zen. Orai ene elhe berek, ohiki erakustera utzi gabe gustatzen zizazkonak, begi izkinatik zaintzen zuen hea haren adixkiden baitan beha zagon eta iragarria zauen ondorioa egina zutenez. Hasi-berri nexka baten amak eztu oharra alabaren ihardespener eta jendearen egonarari gutiago emaiten. Hitz bat errana banu, hartaz ene aitzinean bakarrik irriño bat baizik eginen etzuena, beldur zen ontsa hartua izan etzadin, eta erraiten zautan: "Nola, nola?" errepika-arazteko, oharr-arazteko, eta berehala bertzetara itzuliz, bere buruaz bazegiela, nahi ukan gabean, irriaren sustatzalea, erakusten zautan lehen aldikotz nitaz zuen ideia eta haier ainitzetan errana zukeena. Bapatez neure burua kampotik ikusten nuen, bere izena egunkarian irakurtzen duen norbaitek bezala edo miraila batean ikusten.

Arrats hetarik batez gertatu zizatan Blandais Andereaz ixtorio aski irriegingarri baten erran nahi ukaitea, baina berehala gelditu nintzan, Saint-Loup-ek ezagutzen zuela orhoiturik eta ene ethortzeko biharamunean hari erran nahi ukanik, moztu ninduela erranez: "Balbec-en jadanik errana dautazu." Ustegabetua izan

nintzan beraz ikusiz jarraikitzera sustatzen ninduela, ixtorioa ezagutzen etzuela segurtatuz eta ainitz jostatuko zuela. Erran naukon: "Ahazte aldi bat baduzu, baina berehala berrezagutuko duzu. - Baina ez, huts egiten dukala zin egiten deat. Eztautak ehoiz errana. Hoa aitzina." Eta ixtorio guzian begi loriatuak suharki atxikitzen zituen noiz nitan, noiz bere lagunetan. Ororen irrien erdian bururatua ukan ondoan nuen bakarrik hartu bere laguner ene izpirituaz ideia handi bat emanen zauela uste ukana zuela eta hortako zuela alegia ez ezagunarena egina. Horrelakoa da adixkidantza.

Heren arratsean, lehenbiziko bietan mintzatzeko aldia ukana enauen haren adixkidetarik bat enekin biziki luzaz solastatu zen ; entzuten nuen Saint-Loup-i erdi ahapetik hortan edireiten zuen atseginaren erraiten. Alabaina abantzu arratsaldi osoan solastatu ginen husten ezkinituen gure "sauternes" baso arnoen aitzinean, bertzetarik berexiak, gizonkien arteko adixkidantza baten gordagailu ospagarriez gerizatuak, hek baitira, gorputzeko erakhargarrian jarriak eztirenean, osoki mixteriozkoak diren bakarrak. Horrelakoa, bereaz asmagaitza, zizatan Balbec-en agertu Saint-Loup-ek enetako sendi zuena, gure solasaldiek zuten balioarekin nahasten etzena, gauzazko lokarri orotarik berexa, ikus ezina, hunki ezina eta bizkitartean bere baitan haren izaitea sendi zuena gorputzetako su mota bat bezala, gaz bat bezala, irriñotan hartaz mintzatzeko aski. Bazen ere behar bada oraino ustegabegarriagoko zerbait hemen arratsaldi bakar batez sortu adixkidantza hortan, barne ttipi hortako beroan minuta zenbaitez idekiko zen lore bat bezala. Enintzan egon ahal Robert-i galdegin gabe, Balbec-ez mintzo zizatanean Ambresac-eko Anderearekin ezkontzera zinez deliberatua zenez. Aithortu zautan hori etzela bakarrik ez deliberatua, baina nehoiz etzuela gogoan ukana, etzuela nehoiz ikusia, nor zen ere etzakiela. Ezkontza hori iragarria zuten jendetarik zenbait ikusi baldin banitu ordu hartan, Ambresac-ko Andereñoarena aiphatuko zautaten Saint-Loup etzen norbaitekin, eta Saint-Loup-ena Ambresac-eko Andereñoa etzen batekin. Azkarki ustegabetuko nituen eginak zituzten kontrako iragarmenez orhoit-araziz eta oraino hain berriki. Joko ttipi hori jarraik ahal dadin eta hutsezko berriak gehi ahal diten izen bakoitzean ahal den bezainbat ondotik ondora metatuz, naturalezak eman daue jokolari mota horier sineskeria handia duten bezain orhoitze bat are gehiago laburra.

Saint-Loup mintzatua zizatan hura ere hor zen bere lagunetarik bertze batez, harekin bereziki bat baitzen, mundu hortan Dreyfus-en auziaren berriz ikhertzearen aldeko bakar biak izanez.

- Ho! hura, ezta Saint-Loup bezala, ihizi bitxi bat da, erran zautan adixkide berriak; ezta ere onez onean ari. Hastapenean bazion: "Igurikatzea aski da, bada ontsa ezagutzen dutan gizon bat, xorroxtasunez, oneziaz betea, Boisdeffre-ko jenerala; haren aburua zalantzatu gabe onhartzen ahalko da." Baina Boidesffre-k Dreyfus-en ogenduntasuna aithortzen zuela ikasi duenean, Boisdeffre-ek jeus etzuen gehiago balio; alderdi apheztiarrak, aitzindarien ustekeriek zintzoki gogatzea debekatzen zaukoten, nahiz ehor ezten, edo bederen etzen, bere Dreyfus baino lehen, gure adixkidea bezain apheztiarra. Orduan erran dauku dena den egia jakina izanen zela, auzia Saussier-en eskuetan ezarriko baitzen, eta hori, soldado

errepublikatiarra (gure adixkidea familia monarkixta baino monarkixtago batekoa da), burdin-horizko gizona baitzen, hutsik egin etzezakeen konzienziakoa. Baina Saussier-ek Estherazy-ren ogengabea oihukatu duenean, erabaki hortako argipen berri batzu ediren ditu, ez Dreyfus-en, baina Saussier jeneralaren kontrakoak. Gogo militarixtak zuen Saussier itsutzen (eta ohar zaite hura apheztiarra bezain militarixta dela, edo hala zela bederen, hartaz zer goga ezpaitakit gehiago). Familia lastimatua da ideia horiek dituela ikusiz.

- Ikusten duzu, erran nuen bai Saint-Loup-en aldera erdi itzuliz baztertzen nintzala ez iduri ukaiteko, bai haren lagunaren aldera ere, solasaldian barne izan zadin, ingurumenari emaiten zaukon eragina ingurumen adimendunaz baita oroz gainetik egia. Bakoitza bere gogamenaren gizona da; gizon baino biziki gogoeta gutiago da, horrela gogamen bereko gizonak oro berdinak dira. Ideia batek gauzazkoa denik ezer ezpaitu, ideia bateko gizonaren inguruan materialki baizik eztiren gizonek ideia eztute jeusetan aldatzen.

Ordu hortan Saint-Loup-ek moztu ninduen soldado gazte hetarik batek erakutsia bainindaukon irriño batekin erranez: "Duroc, osoki Duroc." Zer erran nahi zuen enakien, baina haren begitarte herabetuaren itxura onginahia baino gehiagokoa zen.

Saint-Loup-ek etzuen erkidatze hori aski ukan. Bere adixkiden aitzinean ene dirdira-arazteaz zuena bikuntzen zukeen bozkariozko erotaldi batean, elhea ezin gehiago nasai eta zalu, hesolara lehenik heldua den zaldi bat bezala fretatzen ninduela errepikatzen zautan: "Ezagutzen diatan gizon adimendu handienekoa hiz, badakik." Zuzendu zuen erranez: "Elstir-ekin. Ehau horrek gaitzitzen, eztea hala? badakusak, arrangura bat. Gompara dezagun: erraiten deat Balzac-i erranen zizakean bezala, Stendhal-ekin batean: mendeko elhaberrilari handiena zira. Arrangura soberakina, hartzen duk, egiaz miresmen handiena. Ez? ehiz Stendhal-en alde?" gaineratzen zuen ene aburuan konfienxia laño batekin, haren begi muskerren galde irriñodun xoragarri, abantzu haur batenean agertzen baitzen. "Ha! ene aburuko hizala ikusten diat; Bloch-ek Stendhal hastio dik; harenganik hori zozokeria aurkitzen diat. *La Chartreuse* gaitzeko zerbait duk hala ere? Ene aburuko hizala atsegin diat. *La Chartreuse*-tan zer duk gehienik maite? ihardets ezak", zautan manatzen olde gaztetiar batean. Eta haren soinaren indar mehatxatzaleak bazemakon galdeari abantzu izitzeko zen zerbait. "Mosca? Fabrice?" Ihardetsi nuen herabeki Mosca-k zerbait bazuela Norpois-ko Jaunarenetik. Hortan, Siegfried-Saint-Loup gaztea irri karkailaz. "Baina Mosca ontsa adimendukoago da, gutiago jakin-nahi" erraitea enuen oraino gaineratua, entzuten nuenean Saint-Loup "biba!"-ka oihuz esku-zartetan, hats-bahitzerano irriz, eta oihu eginez: "Zein zuzen! Hautekoa! Ezin sinetsi bezalakoa hiz."

Mintzo nintzalarik, bertzen baieztatzea sobera zizakon oraino Saint-Loup-i, ixila behar zuen. Eta orkeztrako buruzagi batek musikariak xiri ukaldi batez mozten zituen bezala batek harrabots egina zuelakotz, nahaslea erasiatu zuen: "Gibergue, erran zuen, norbait mintzo denean ixildu behar duzu. Hori gero erranen duzu. Zoaz, jarraik zaite", erran zautan.

Hats hartu nuen, guzia berriz has-araz zautan beldur izana bainintzan.

- Eta ideia bat, jarraiki nuen, ezpaita gizakien abantail-nahietan barne izan datekeen zerbait eta ezpaitaiteke haien abantailez goza; ideia batekoak diren gizonak eztira abantail-nahiaren eraginen meneko.

- Errazue bada, balditurik uzten zituzte, haurrak, egin zuen goratik Saint-Loup-ek mintzatzea bururatua ukan nuenean, begiez zaindua baininduen soka batean zutik ibilia banintz bezalako artha antsiadunarekin. Zer erran nahi zinuen, Gibergue?

- Banion jaunak Duroc komandanta orhoit-arazten zautala. Banantzuela uste nuen.

Saint-Loup-en adixkide horren anaia batek, Schola Cantorum-en ikaslea, musikako lan berri oroz gogatzen zuen bezala ez batere bere aitak, amak, gusiek, glub-eko adixkidek bazegiten moldean, baina zuzen Schola-ko bertze ikasle guziek bezala, berdin ere azpi-aitzindari aitoren-seme horrek - aiphatu naukonean hortaz Bloch-ek ohigabeko ideia bat hartu baitzuen, haren alderdi berekoa zela ikasirik hunkia, uste zuelarik alta, zituen ethorki arixtokrata eta erlisioneko erakaskuntzaren gatik, ezin gehiago bertzelakoa zela, herri urrun batean jaio baten gozagarritasun beraz aphaindua - bazuen goga-molde bat (hala erraiten hasia zen aro hartan) orotara dreyfus-tiar guzien arakoa, eta hartan familiako ohidurek eta lanbideko abantailek lokiarik batere ukan etzezaketena. Horrela zen Saint-Loup-en gusi bat Orienteko prinzesa batekin ezkondua, Victor Hugo edo Alfred de Vigny-k bezain neurtitz ederrak ontzen zituena eta, hori izanik ere, uste baitzen asma zaitekeenaz bertze izpiritu bat zuela, *Mila eta bat Gauetako* jauregi batean hetsirik zagon Orienteko prinzesa baten izpiritua. Haren gana hurbiltzeko baimena ukan zuten idazlendako ustegabea izan zen, edo izaitekotz bozkarioa, solasaldi bat entzun zutela gogoratzen zuena ez Schéhérazade, baina Alfred de Vigny edo Victor Hugo-ren moldeko izaite jeinudun batena.

Oroz gainetik laket zizatan mutiko gazte horrekin elhekatzea, Robert-en bertze lagunekin bezala ere, eta Robert berarekin, kasernaz, soldadotegiko aitzindariez, orotara armadaz. Gauzen ikusteko, diren ttipiak izanik ere, dugun zurubi neurrigabeki handituari esker, haien erdian baitugu jaten, elhekatzen, gure egiazko bizia eremaiten, jasaiten duten izigarriko handitzeari esker - egiten baitu gaineratekoak, munduan ez izanez, haiekin guduka eztezakeela eta amets baten ezteusa hartzen duela - , hasia nintzan kasernako jende guzier ohar emaiten, Saint-Loup-en ikusterakoan korroilan ikusten nituen aitzindarier edo, atzarria baldin banintzan, erreximendua leiho azpitik iragaiten zenean. Saint-Loup-ek hainbertze miresten zuen komandantaz xehetasun batzu jakin nahiko nituen eta "ezthetikaren aldetik ere" xoratuko ninduen armaden ixtorioko ikastaldiaz. Banakien Robert-en baitan bazela hizketako errextasun bat usuegi apur bat hutsa, baina bertze batzuetan haien hartzeko ontsa gai zen gogamen barnatu batzu beretuak zituela erran nahi zuena. Zorigaitzez, armadari zoakonaz, Robert ordu hartan Dreyfus "aferaz" zen oroz gainetik griñatua. Guti aiphatzen zuen bere mahiko "dreyfustiarr" bakarra izanez; bertzeak auzi berritzearen kontra ziren bortizki, ene mahiko auzoa salbu, ene adixkide berria, aburuak apur bat zalantzan baitzituen. Koronelaren miresle zintzoa, aitzindari ohargarritzat aiphatua, eta dreyfustiar-kontrakotzat harr-arazten

zuten egun-manu batzuetan armadaren kontrako nahasmenduak salatuak zituena, ene auzoak jakina zuen bere buruzagiak hitz batzu erranak zituela Dreyfus-en ogenduntasunaz dudan zela sinestera emanak zutenak eta Picquart-endako zuen estimua atxikia zuela. Azken gauza huntan, bederen, koronelak zuen aiphamen dreyfustiarra gaizki jarria zen, auzi handi horren guziaren inguruan nik dakita nundik sortzen diren erran-merran guziak bezala. Ezen, guti berantago, koronel horrek, "Bureau des renseignements"-eko buruzagiaren galdekatzeaz kargatua izanik, ehoiz oraino hein berean izanak etziren bortiztatsun eta erdainu batekin egin zaukon. Zer izanik ere 'ta ezpazen xehetasun bila koronelaren beraren baitara joaitera ausartua, ene auzoak egina zaukon Saint-Loup-i - haren erretorak Errusian juduen sarraskiak salatzen dituela eta izraeldar batzuen bihotzontasuna miresten duela andere katholiko batek andere judu bati iragartzen daukon doinuan - koronela etzela dreyfustiarrendako (alderdi dreyfustiar berezi batendako bederen) itxuraturik izana zen etsai amorratu hetsia erraiteko jendetasuna.

- Enuk hortaz ustegabetzen, erran zuen Saint-Loup-ek, adimenduko gizona baita. Baina, hala ere, ethorzkizko aitzin-gogoak eta gehienik apheztiartasunak itsutzen die. Ha! erran zautan, Duroc komandanta, aiphatu daukatan ixtorio militarreko erakaslea, horra norbait, omen, osoki gure ideietan doana. Bertzela ere, kontrakoak ustegabetuko nindian, ez bakarrik adimenduz gain-gainekoa delakotz, baina ere radikal-zozialixta eta framazona.

Saint-Loup-en aithormen dreyfustiarrak jasangaitz zizezteelakotz haren adixkiden aldera ikustatez bezainbat gaineratekoak gehiago hunkitzen ninduelakotz, auzoari galdegin naukon egia zenez komandantak bazegiela, ixtorio militarraz, erakuste bat zinez edertasunezkoa.

- Osoki egia da.

- Baina zer duzu hortaz erran nahi?

- He bada! behazunez, ixtoriogile militar baten baitan irakurtzen dukezun guzia, den egintza ttipienak, gertakari ttipienak, eztira agerr-arazi behar den eta ainitzetan bertze bat gordetzen duen ideia baten seinalea baizik, gainetik berriz izkirioz bete den idazki zahar ezabatu batean bezala. Hala nola nun bazituzu lan oso bat zein nahi jakintza edo zein nahi ederlan bezain gogozkoa dena, eta izpirituarendako gozagarria.

- Behazunak, ezpadiat sobera eskatzen?

- Horrela emaitea eztuk errex, moztu zuen Saint-Loup-ek. Irakurtzen duk, to, holako soldado multzo batek nahi ukan duela… Urrunago joan ere gabe, multzo horren izena, nola egina den, eztituk erran-nahi gabeak. Egintza ezpada lehen aldikotz entseatua, eta egintza berarendako bertze multzo bat agertzen ikusten badiaguk, aitzineko entseguak delako horrek ezeztatuak edo azkarki gaizkiturik izanak dituelako seinalea izan daitekek, eta eztitukala gehiago bururano eremaiteko gai. Bada, egun ezeztatua den soldadotalde hori zein zen bilatu behar dik; ukaldiko tropak baldin bazituan, indarreko jaukite batzuetako bazterrera atxikiak, gaitasun gutiagoko multzo batek zori guti dik hek huts egin dien lekuan ongi heltzeko. Gainera, ezpadik gerlaldi hatsarre batean, multzo berri hori bera nundik nahi bezala moldatua izan daitekek, horrek, gerlemaileak oraino eskupean ditien indarrez,

etsaiarenak baino ahulago izanen diren orduaz, erakuspen batzu ekhar dezazkek soldadotaldeak entseatuko dian egintzari bertze erran-nahi bat emanen dikana, zeren eta, bere galtzen ordaintzeko heinean ezpaduk, irabaztek berek eztie, "mathematikoki", azken hondamenera eremaiteaz bertzerik eginen. Eta, kontra dikan soldado multozaren zenbatak berak eztik erran-nahi gutiago. Multzo biziki ahulago bat baldin baduk, behazunez, baina etsaiaren multzo gotor batzu suntsituak ditikanak, egintza bera itxuraz aldatzen duk, ezen, zaintzaleak zian gunearen galtzetik burutatu behar balik ere, ephe batez atxikia ukaitea ondorio on handi bat izan daitekek, indar biziki ttipi batzu aski izanak badituk etsairen baitan biziki handi batzuen aurdikitzeko. Gogoan har dezakek, guduan diren soldadoalden ikhertzean gauza ohargarriak horrela aurkitzen baldin badituk, guneari berari, menean ditikan bide 'ta burdinbider, gerizatzen dikitan hornimenduer behatzea ondorio handiagokoa dela. Lurraldeko ingurumen osoa neritzokeena ikertu behar da, gaineratu zuen irriz. (Eta hitz hortaz, alabaina, hain askietsia izan zen nun, gero ere, erabili zuen aldi oroz, ilabeteak ondotik, irri bera ukan baitzuen beti.) Gudukatzaletarik batek egintza antolatzen dikan bitartean, irakurtzen baduk haren patrulla bat bertzeaz suntsiturik izana dela ingurunetan, jalgi dezakekan ondorioetarik bat hau duk: lehenbizikoak nahi zitikala bigarrenak haren jaukitzeari huts egin-arazteko zainbidezko lanak jakin. Leku bateko egintza bereziki bortitz batek hartaz jabetzeko xedea seinala dezakek, baina ere etsaiaren hor atxikitzekoa, jaukitu den lekuan ez ihardestekoa, edo ere joko bat izan daitekek eta gorde dezakek, bortiztasunaren bikuntze hortarik, hor tropak hartzen ari direla. (Napoleonen gerletako joko ezaguna duk.)

Bertze alde batera, manubra baten erran-nahiaren hartzeko, ukan dezakekan helburuaren eta, ondorioz, bertze nolakoez izanen dukan lagundua edo jarraikia, komandantak iragartzen duenari behatzea, etsaiaren enganatzeko egina izan baitaiteke, gerta daitekeen hutsegin baten gordetzeko, biziki balio gutiagokoa duk herrian herriko gerlako erregelamenduer egitea baino. Gogoan ukan behar duk beti armada batek entseatu nahi ukan dikan manubra, gertaldi berdinetan erregelak manatzen ziana zela. Behazunez, erregelak nahi badik bekoz bekozko jaukitze batek sahetseko batez lagundua izan behar dikala, eta, bigarren jaukitze horrek huts eginik, komandantak erran nahi badik lehenbizikoarekin lotura gabea zela eta etzela gogo bazterr-arazte bat baizik, itxura baduk egiak bilatu behar dikala erregelan eta ez komandantaren erranetan. Eta eztituk bakarrik armada bakoitzeko erregelak, baina ere, azturak, ohidurak, dotrinak. Eztuk ere bazterrera utzi behar diplomaziako egintza, ari baituk beti eta beti egintza militarraren alde edo kontra. Gertakari iduriz baliogabeko batzuek, bere aroan moldegaizki hartu batzuek, erakutsiko deate etsaiak, gertakari horiek ukan eztikala salatzen dien laguntza baten igurikan, eztikala egiazki guduko xedatua zenaren zati bat baizik bururatu. Hala nola nun, ixtorio militarraren irakurtzen baldin badakik, irakurle gehienendako khondaira ilun bat dena hiretako gatina arrazoinezko bat duk, margazki bat bezala han ezarria den jendeak soinean duenaren, eskuetan dadukanaren ikusten badakien maitale batendako, erakustokietako ikusle balditua margo nahasi batzuez burxoratzen eta buruko mintzen ari delarik. Baina, han den jendea kalitza bat eskuan dagola

ohartzea aski ezten margazki batzuetako bezala, jakin behar baitik ere margolariak zergatik daukon eskuan kalitza bat ezarri, zer dian hortaz itxuratzen, gerlako egintza horiek, dien helburu berehalakotik kampo, ohian, gerlaldiaren buru den jeneralaren gogoan, gudutaldi zaharrago batzuetan arautuak dituk, hauk baitira, nahi baduk, gudu berrietako iragana, liburutegia, jakitatea, etimologia, arixtokrazia bezala. Ohar hadi enaukala ordu huntan mintzo guduetako, nola erranen diat, lekuan lekuko berezitasunaz. Hori baduk ere. Gudugune bat eztuk izan eta izanen mendetan zehar gudu bakar bateko lekua baizik. Gudugune izan baldin baduk, hori duk lurraldeko izanara batzu, lur motako batzu, etsaiaren jenatzeko gai ere zitian akats batzu (ibai bat, behazunez, lekua bi zatitan mozten dikana) biltzen zitialakotz, gudugune on bat egina dienak. Hala izana duk, eta izanen. Eztuk margolari landegi bat edozein barnetarik egiten, ez gudugune bat edozein lekutarik. Leku batzu badituk aitzinetik zerbaitetako eginak. Baina berriz erraiteko, enindian hortaz mintzo, baina berdinki egiten den gudu motaz, halako gudu molde kopia batez, gerla egiteko ihakin batez, nahi baduk: Ulm-eko gudua, Lodi-koa, Leipzig-ekoa, Cannas-koa. Gerlarik oraino izanen denez eztakiat ez eta zein erresumen artean; baina baldin baduk, jakik segurki izanen dela (eta buruzagien aldetik jakinean) Cannas bat, Austerlitz bat, Rosbach bat, Waterloo bat, bertzeak aiphatu gabe. Batzu eztituk horren erraiteko jenatzen. Schliefen-go marexalak eta Falkenhaus-ko jeneralak aitzinetik antolatua die Cannas-ko gudu bat, Annibal-en arakoa, gudulekuan geldirik etsaiaren atxikitzearekin eta bi sahetsetarik aitzinera egitea, gehienean eskunetik Belgikan, Bernardik hautesten dikalarik aldiz Federik Handiaren zeharkazko ordenua, Cannas baino gehiago Leuthen. Batzuek bere ikuspegiak gutiago gordinki emaiten ditie, baina hitzemaiten deat, gaizoa, Beauconseil-ek, joan den egunean aitzineratu deatan zaldunalde buruzagi hark eta ethorkizun handikoa aitzindaria denak, bere Pratzen-go jaukiteñoan lan egina dikala eta zoko guzietan ezagutzen, erresalbuan dadukala eta nehoiz egiteko aldia baldin badik, ukaldia eztikala huts eginen eta zabal-zabalean zerbitzatuko dikala. Rivoli-n armada erditaldearen bultzatzea, hoa, gerlarik baldin bada oraino eginen duk. Eztuk hori *Iliada* baino gehiago zahartua. Gaineratzen diat buruz buruzko jaukitzea abantzu beharrezkoa dela eztelakotz 70-eko hutsera berriz erori nahi, baina oldartzea egin behar dela, bakarrik oldartzea. Durduzatzen nikan gauza bakarra hau duk: dotrina miragarri horren kontra joaiten ezpadiat izpiritu gibelaturik baizik ikusten, alta jeinuko gizona den ene nagusi gaztenetarik batek, Mangin-ek, nahi likek lekua utz dakidion, anartean bederen, naturalki, gerizapenari. Hari ihardesteko ontsa jenatua izaiten duk behazunetako Austerlitz emaiten dikalarik, hortan gerizapena ezpaituk jaukitearen eta irabaztearen aitzin-jokoa baizik.

Saint-Loup-en theoria horiek bozkariatzen ninduten. Doncières-ko ene bizian, uste ukan-arazten zautaten, bere leinuru goxagarria gainera emaiten zauen sauternes-tik edatean entzuten nituen aitzindari horien aldera enintzala behar bada enganatua, Balbec-en nintzano, Ozeaniako errege 'ta erregina, laur ahoxurien kompainia ttipia, gizon gazte jokolaria, Legrandin-en koinata (orai ene begietan ontsa ttipituak, ezeztatzerano) gaitzekoak iduri-araziak zauztan loditze hartaz beraz. Gaurregun gustatzen zizatana etzizatan behar bada bihar orobatekoa bilakatuko,

orai arteo beti gertatua zizatan bezala; oraino ordu hartan nintzan izaitea etzen behar bada suntsitze hurran batera joan beharra, soldado bizia hunkitzen zuen guziarendako, arrats bakar horietan, sendi nuen atxikimendu suhar iheskorrari, Saint-Loup-ek gaineratzen zuenaz geroz, gerla egiteari zoakonaz guziaz, adimenduzko oinharri bat, berez iraupenekoa, ene atxik-arazteko aski azkarki gai zena, sinets ahal nezan, nihauren enganatzera entseatu gabe, handik behin joan eta, Doncières-ko ene adixkiden lanaz axolatzen jarraikiko nintzala eta haien artera berriz laster itzuliko. Alta gerlako lan hori zinez ederlan bat zela segurrago izaiteko, hitzaren erran-nahi gogozkoan:

- Diozuna, barkatu, diokana biziki ohargarri zatak, erran naukon Saint-Loup-i, baina, errak, goganbehartzen nikan gauza bat baduk. Gerlagintzarendako suhar nindaitekeela sendi diat, baina behar lizatekek hortako sinets nezakan eztela bertze edergintzetarik hainbertzetarano ezperdina, nun den guzia ikasia den erregela baita. Guduak kopiatzen direla erraiten dautak. Eder iduritzen zatak, alabaina, bahion bezala, oraiko gudu baten azpian zaharrago baten ikustea, ideia hori zenbat gustatzen zaitakan eztezakeat erran. Baina beraz, jeus eztea buruzagiaren jeinua? Erregeler jarraikitzea baizik eztika egiten? Edo, jakitate berdinarekin, jeneral handiak badirea barber handiak badiren bezala, hauek gaiez berdinak diren bi eritaldiren artean, ezteus batetarik sendi baitie bizkitartean, ikasiaren bortxaz behar bada, baina hori zuzen arauturik, horrelako aldi batean hau dela izaitekotz, bertze batean hori, batean behar dutela operatu, bertze batean ez egin?

- Baina uste diat bada! Napoleon ez jaukitzen ikusiko duk erregela guziek egin zezan nahi zutelarik, baina asmu nahasi batek etzakean hori aholkatzen. Behazunez, ikusak Austerlitz edo, 1806-an, Lannes-i manatzen diakana. Ikusiko dituk alta jeneral batzu Napoleonen manubra baten kopiatzen eta zuzen-zuzena kontrako ondoriora heltzen. Baduk hamar holako 1870-ean. Baina etsaiak egin *dezakeenaren* argitzeko ere, egiten dikana gauza ezperdinak erran nahi ukan dezazkeen seinale bat baizik eztuk. Gauza horietako bakoitzak egia izaiteko zori bera badik, arrazoinean eta jakitatean gelditzen bada, hala nola nun, aldi batzun batzuetan, medikuntzan munduko jakitate guzia ezpaituk aski izanen ikusten ezten min bat harikatsua denez ala ez, operatu behar den ala ez deliberatzeko. Usnak dik manatzen, Thèbes-ko Anderearen arako asmuak (hartzen nauk), jeneral handiaren eta mediku handiaren baitan. Erran deat horrela, behazun baten hartzeko, gudu baten hastapenean ezagutza batek zer erran nahi ahal zian. Baina bertze mila gauza erran nahi ukan dezazkek, hala nola jaukitea gune batean eginen dela etsaiari sinets-araztea bertze batean jaukitu nahi delarik, zinezko egintzaren aitzin-urratsen ikustea trabatuko daukon erridau baten hedatzea, tropa ekhartzera bortxatzea, han beharrezkoak direnaz bertze leku batean horien geldi-araztea, han atxikitzea, eskupean ditikan indarrez jakinduru izaitea, haztatzea, bere jokoaren agertzera bortxatzea. Baina batzuetan, egintza batean gaitzeko indarren sartzeak eztik egintza hori egiazkoa dela erran nahi; ezen zinez egin baitaitekek, nahiz eztukan amarru bat baizik, joko horrek enganatzeko zori gehiago ukan dezantzat. Ikuspegi hortarik Napoleonen gerlen hiri khondatzeko astia banu, segurtatzen haut ikhertzen ditiagukan manubra xoil horiek, eta egiten ikusiko gitukanak zerbitzuko

atheraldietan, hire atsegin xoileko ibilaldietan, putil gaztea (ez, eri hizala badakiat, barkatu!), he bada, gerla batean, horien gibelean sendi direlarik gorako manatzalen begirantza, arrazoinamendua eta ikherraldi barnatuak, haien aitzinean hunkia izaiten duk, itsasargi baten gar xoilen aitzinean bezala, gauzazko argia, baina gogotik jalgia eta eremua zilatzen dikana untzier lanjerraren seinalatzeko. Hutsean nuk behar bada ere hiri bakarrik gerlako literaturaz mintzatzean. Egiazki, lurraren izanarak, haizearen eta argiaren aldeak zuhatz bat zein aldetara jinen den seinalatzen dien bezala, gerlaldi baten egiteko kondizonek, manubratzen den herrialdeko berezitasunek, manatzen ditie zerbait moldez eta mugatzen hetan jeneralak hautua egin dezakekan lanxedeak. Hala nola nun mendien luzara, ibar egitura batean, holako edo halako ordokietan, elhurte batzuen halabeharrezko edertasun handi-eginarekin baitezakek abantzu beti armadek hartuko dien bidea aitzinetik erran.

- Ezesten dauztak orai arestian emaiten hautan buruzagiaren libertatea, haren xedetan irakurri nahi dikan etsaiaren asmua.

- Baina ez batere! Balbec-en elgarrekin irakurtzen ginian filosofiako liburu hartaz orhoit hiz, egiazko munduaren ondoan izan daitezkeen munduen aberastasunaz. He bada! berdin duk ere gerla egitean. Izanara berezi batean, laur bide badituk beharrezkoak, hetan jeneralak hautatu ahal ukan baitik, eritasun batek ukan dezazkekan bezala medikuak haien beha egon behar dikan aldakuntza ezperdinak. Eta hor ere gizakiaren ahultasuna eta handitasuna dudatzeko arrazoin berri batzu dituk. Ezen laur bide horien artean, demagun gertakizunezko arrazoin batzuek (hala nola helburu gaineragarri batzu, edo diragan aroa, edo soldado multzoaren eta bizigailuen eskasa) jeneralari hauta-arazten daukotela lehenbiziko saila, lasterragoa, eta armadari jatera emaiteko aberatsagoa den herri batean egiten dena. Etsaiak, lehenik ezpaian, berahala gero zer den ikusiko dikan lehenbiziko sail hortarik hasiz, badatekek jeneral horrek eztikala helburu onik ukanen, trabagailu handiegi batzuen gatik - hori da gizakiaren ahuleziatik sortu den halabeharra deritzotana - , utziko dikala, eta bigarren bat hasiko, edo hirurgarren bat, edo laurgarren bat. Baina izan daitekek ere eztikala lehenbizikoa - eta hau da gizakiaren handitasuna deritzotana - alegiaz baizik entseatua, etsaiaren gelditzeko jaukitua izanen zela uste etzikan lekuan hatzemaiteko moldez. Horrela zian Ulm-en, Mack, etsaiaren beha sartaldean zagolarik, han segur zela uste zian ipharraldetik inguratua izan. Ene behazuna eztuk bertzela ere biziki ona. Eta Ulm inguratuz egiteko gudu mota bat hobea duk, ethorkizunak berriz egiten ikusiko dikana, ez bakarrik jeneralak hartaz baliatuko ditukan molde ohiko bat dukalakotz bakarrik, baina baitezpadako bat (bertze batzuen artean, horrek hautua uzten baitik), krixtailatze molde bat bezala. Baina hori guzia berdin duk, kadre horiek oro har alegiazkoak ditukalakotz. Gure filosofiako liburura itzultzen nuk, arrazoinezko prinzipioetan, edo jakitatezko legetan bezala duk, gauzak hortara arautzen dituk, nunbait han; baina Poincaré mathematikalari handiaz orhoit hadi, mathematikak osoki zuzenak direla eztuk segur. Aiphatu dauzkiatan erregelamenduez berez den bezainbatean, eztituk oro har bigarren lerroko balio batekoak baizik, eta ere noiztenka aldatzen ditie. Horrela gu zaldizkoak, 1895-ko *Service en Campagne* delakoan bizi gituk, balio guzia galdua dikala erran daitekeelarik, zaldizkoeriaren guduak eztikala etsaiaren

baitan jaukitaldiak emaiten dikan ondoriorik moralean baizik uste duen dotrina zahar noizpaitekoan oinarritua denaz geroz. Bada, gure buzuzagietan adimendunek, zaldizkoerian dugun hoberen guzia, eta bereziki aiphatzen hautan komandantak, uste die aldiz irabazira helduko dela gerlari guzien egiazko nahaste baten bidez, han aztaz eta sabreaz gudukatuko baituk, thematuena izanen baituk irabazle ez bakarrik moralean eta beldurraren sartzeaz, baina materialki.

- Saint-Loup-ek arrazoin du eta izanen dateke heldu den *Service en Campagne*-ek ekharriko duela aldakuntza horren hatza, erran zuen ene auzoak.

- Hire baimenak enik gaitzitzen, hire aburuek ene adixkidea nihaurenek baino gehiago hunkitzen diela iduri baita, erran zuen irriz Saint-Loup-ek, ala bere lagunaren eta ene arteko adixkidantza hastapen horrek apur bat nardatzen zuelakotz, ala hoin ageriki gogoan hartuz horren konsekratzea gixako zizakolatz. Eta gero erregelamenduen balioa ttipitu diat behar bada. Aldatzen ditie, hori ba. Baina izanara militarra, gerlaldiko deseinuak eta gerlarien biltzekoak manatzen ditie. Gerla egiteko gogamen bat hutsezkoa agertzera uzten badie, galtze baten hastapena izan daitezkek. Hori guzia, erran zautan, hiretako apur bat "tegnikazkoa" duk. Ororen buruan, jakin behar duk gerla egiteko moldea gehienik aldatzen dikan gauza, gerlak berak direla. Gerlaldi batean, apur bat luzea baldin baduk, gerlarietarik bat ikusten duk etsaiaren irabaziek edo hutsek emaiten dauzkoten erakaspenez baliatzen, hark derabiltzan eginmolden ontzen, eta hura, bere aldian, gehiago egiten. Baina hori iraganekoa duk. Artilleriaren aitzinatze izigarriekin, geroko gerlak, gerlarik baldin bada oraino, hain dituk laburrak izanen nun, erakaspenen ondorioez baliatzea gogoari eman ere gabe, bakea egina izanen baituk.

- Ehadila hoin gatzikor izan, erran naukon Saint-Loup-i, azken hitz horiek baino lehen errana zuenari ihardetsiz. Hainbat amikaturik entzuna haut!

- Nahi baduk bada khexatzera abiatu gabe egon eta eni baimena eman, egin zuen berriz Saint-Loup-en adixkideak, erran berria dukanari hau gaineratuko dakeat: guduak bata bertzeari kopiatzen badituk eta molde berekoak izaiten, eztuk hori bakarrik buruzagiak dikan gogoaren gatik. Gerta daitekek buruzagiaren huts batek (etsaiaren balioa gutietsirik edo) ereman dezakekala bere soldadoer sakrifizio handiegien galdatzera, batasun batzuek eginen ditienak bere buruaz hain handizki axolatu gabean nun haien egintza hortik bertze gudu batean bertze holako batasunaren berdintsua izanen baituk, eta ixtorioan elgarrekin aldizka daitezkeen behazunetako aiphatuko dituk: 1870-ean bakarrik, Saint-Privat-en guardia prusiarra, Frœscheviller-en eta Wissenbourg-en "turko" aljeriarrak.

- Ha! elgar aldizkagarriak, zuzen zuzena duk! ezin hobeki! adimendua baduk, erran zuen Saint-Loup-ek.

Azken behazun horien aldera enintzan axolarik gabe, bereziaren azpian orotakoa erakusten zizatan aldi guziez bezala. Bizkitartean buruzagiaren jeinua, horra zerk ninduen hunkitzen, zertan zatzan jakin nahiko nuen, nola, eman den gertaldi batean, jeinu gabeko buruzagiak etsaiari iharduk elezakeen batean, jeinudunak eginen zuen irriskura eman gudu baten zuzentzeko, hori, Saint-Loup-ek zionaz, osoki egin ahal baitzaitekeen, eta Napoleonek egina baitzuen. Eta balio militarra zer zen gogoan hartzeko, gomparatze batzu galdegin nituen izenak

banazkien jeneral batzuen artean, zeinek zuen gehienik buruzagi baten jitea, zein zen garhaipideko dohatuena, hortaz ene adixkide berrien azpertzekotan ere, nahiz etzuten ikustera uzten eta onezia akhigaitz batekin ihardesten zautaten.

Neure burua baztertua sendi nuen, ez bakarrik urrunera hedatzen zen gau handi hormatutik - noiztenka entzuten ginituelarik hor izaiteko atsegina biziagotzen baizik etzuen treina baten xixtua, eta gizon gazte horiek bere sabreak harturik sartu behar zutenenetik oraino zorionez urrun zen oren baten danga - , baina ere kampoko griña guzietarik, abantzu Guermantes-ko Andereaz orhoitzetik, Saint-Loup-en oneziari esker, gaineratzen zizakon haren adixkidenak handitze bat bezala semaiten zaukonari; eta ere jateko sala ttipi hortako berotasunari, zerbitzatzen zizauzkun janari hautekoen gostu onari esker. Ene asmamenari bazemoten gormandizari bezainbat atsegin; batzuetan hartarik hartuak ziren naturaleza zati ttipiak - ur gazi xorta batzu gelditzen zazkon ostrearen ur benedikatu untzi latz, ala mahats mulko baten aihen korropilatu, aihen horitu - inguratzen zituen oraino, ezin jana, baserri alde bat bezain poesiaduna eta urruna, auhari demboran orhoit-arazten baitzuen aldizka mahasti-peko etzanaldi batez eta itsasoan itzuli batez. Bertze arrats batzuez kozinerraren ganik zen bakarrik janarien berezitasun hori agerian ezarria, ederlan bat bezala bera ingurumen naturalean erakusten baitzituen: laster-saldan egosi arrain bat lurrezko plat luze batean ekharria zen, hartan, belar urdinaran ihaurdura batzuetan agerian baitzagon, osoan baina ur irakitura bizirik egotzia izanik oraino ingurukatua, itzulian maxkur, ur-ihizi ttipi, karamarro, kizkira eta xirlak, Bernard Palissy-ren zeramika batean agertzen zela iduri baitzuen.

- Bekaizti nuk, erotua, erran zautan Saint-Loup-ek erdi irriz, erdi serioski, haren adixkidearekin nituen ethengabeko solasaldier aieru eginez. Ni baino adimendunagoa aurkitzen duka? ni baino maiteago? Beraz, horrela, guzia harendako? (Emazte bat azkarki maite duten gizonak, gizon emakoi batzuen artean bizi direnek, hetan inozenzia gutiago ikusiko zuten bertze batzu ausartuko etziren irri-solas batzuetara menturatzen dira.)

Solasa orotakoa bilakatzen zen orduko, Dreyfus etzen gehiago aiphatzen Saint-Loup gaitzi-araz beldurrez. Bizkitartean, aste bat berantago, haren bi lagunek oharr-arazi zuten zein bitxi zen, ingurumen hoin militarrean bizi izanez, hoin deryfus-tiarra izan zadin, abantzu "anti-militarixta": "Hori da, erran nuen xehetasunetara ez nahiz sartu, ingurumenaren eraginak eztuelakotz uste den bezainbat indar…" Eiki hortan gelditzeko xedea nuen, eta zenbait egun lehenago Saint-Loup-i eginak nauzkon gogoetetan ez berriz hastekoa. Hala ere, hitz horiek abantzu diren bezala erranak bainauzkon, desenkusatzera nindoan hau gaineratuz: "Hori zen hain zuzen joan den egunean…" Baina Robert-ek enetako eta bertze batzuendako zuen miresmen gixakoaren bimperra enuen gogoan hartua. Mireste hori haien ideien hain beteki bertze batez osatua zen nun, bi egunen buruko, ideia horiek etzirela harenak ahatzia baitzuen. Hortakotz ene thesia xumeari zoakonaz, Saint-Loup-ek, betidanik haren buru-munetan egon izana baliz eta haren lurretan ihizin ibiltzea baizik egina ezpanu bezala, uste ukan zuen suharki ongi-ethorria egiten zautala eta baieztatzen ninduela erranez:

- Baina ba, ingurumenak baliorik eztik.

Eta motz nezan edo har enezan beldur izana baliz bezalako indar berarekin:

- Egiazko eragina, adimenduzko ingurumenarena duk! Bakoitza gogoan dikanaren gizona duk!

Ephe batez gelditu zen, ontsa liseritua duen baten irriñoarekin, begitako bakuna erortzera utzi, eta nitan behakoa zirringila bat bezala ezarriz:

- Ideia bereko gizon guziak berdin dituk, erran zautan, desafiozko itxura batean. Aldiz hoin zuzen gogoratua zizakona egun guti lehenago errana naukola etzaitekeen batere orhoitzen.

Saint-Loup-en ostatura enintzan arrats oroz gogo berean ethortzen. Dugun orhoitzapen batek, griña batek uzten ahal bagituzte hor direla gu ez gehiago ohartzerano, itzultzen ahal dira ere eta batzuetan ezkituzte luzaz uzten. Baziren arrats batzu, ostatura joaiteko hiriaren iragaitean, hainbatetarano bainintzan Guermantes-ko Andereaz bihotzmindua, nun hats-hartzea neke baitzizatan: erranen zen ene bulhar zati bat anatomixta trebe batek moztua zuela, ekhendua, eta gorputzekoa etzen oinaze batez, herri-min eta maitasunezko arau berdinaz ordaindua. Josturako ponduak ontsa eginak izaiten hala dira, hala ere aski gaizki bizi izaiten da norbaitez den urrikia haltsarren orde ezarria denean, hauek baino leku gehiago dadukala iduri duenean, betiere sendi denean, eta gero, nor bere soinaren zati batez *gogatzera* bortxatua izaitea, zer bitxikeria! Badiduri bakarrik nork berak balio gehiago baduela. Den gutieneko haizean antsiaz hasperen egiten da, baina ere ahulduraz. Zerura so nindagon. Argi bazen, banion: "Baserrian da behar bada, izar beretara so dago, eta nork daki Robert-ek, ostatura heltzean, erranen eztautanez: "Berri on bat, izabak izkiriatua dautak, ikusi nahi huke, hunara jinen duk." Enuen bakarrik izartegian ezartzen Guermantes-ko Andereaz gogatzea. Baziragan aire ufa eztixka batek, haren mezu bat ekhartzen zautala iduri zuen, lehenago Méséglise-ko garietan Gilberte-ren bat bezala: ezkira aldatzen, jende baten aldera dugun sendimendu batean sarr-arazten dira phizten dituen baina harekin ikustekorik jeus eztuten gauza erdi-lokartu ainitz. Eta gero sendimendu berezi horiek, zerbaitek gutan beti egiatasun gehiagora ekharri nahi ditu, erran nahi da sendimendu orotakoago batekin batzera, gizon ororena den batekin, jendeak eta emaiten dauzkuten bihotzminak ezpaitzaizku haiekin bat izaiteko aldia baizik: ene bihotzminarekin atsegin zerbait nahas-arazten zuena, orotako maitasunaren zatiño bat zela jakitea zen.

Dudarik gabe, sendi nuen eta hari Guermantes-ko Anderea, haren hotza, hor ez izaitea, argiki lotuak etzizazkon oinazean, jakintsun baten gogoan egintza eraginari egiazki lotua den bezala, Gilberte-ren gatik ukanak nituen trixtezietarik zerbait berriz ezagutzen nuelakotz, edo arratsean, Combray-n, ama etzenean ene gambaran egoiten, eta ere Bergotte-ren orrialde batzuez orhoitzean, enuen ondorioztatzen oinaze horren arrazoina etzela Guermantes-ko Anderea. Eztea izaiten soineko oinaze hedatu berezirik, eria den lekutik arraikatuz bertze batzuetara hedatzen denik, baina, sendatzale batek handik heldu den gune zuzena hunkitzen baldin badu, uzten dituena osoki ezeztatzeko? Alta, aitzinean, hedamenak bazemakon gure baitan itxura bat hain nahasia eta halabeharrezkoa nun, argitzeko

ahalik gabe, leku zuzenean ezartzekorik ere, ezin sendatua zela uste baiginuen. Ostatura nindoan batean banion neure baitan: "Bada jadanik hamalaur egun eztutala Guermantes-ko Anderea ikusi" (hamalaur egun, enetako baizik handia iduri etzuen gauza, Guermantes-ko Andereaz ari nintzanean minutaka bainuen zenbatzen). Etzizaztan bakarrik izarrak eta haizea, baina aroaren uzitze mathematikak zerbait poesiazko eta mingarri hartzen zutenak. Egun bakoitza orai mendixka dudazko baten bizkar higikorra bezala zizatan: alde batetik, ahazterano jauts nindaitekeela sendi nuen; bertzetik, berriz dukesaren ikusteko beharraz eremana nintzan. Egun batez egin nuen: "Gaur behar bada eskutitz bat izanen da" eta auhaltzera heltzean kuraia ukan nuen Saint-Loup-i galdatzeko:

- Parisko berririk eztuk halabeharrez ukan?

- Bai, ihardetsi zautan itxura ilunik, txarrak dituk.

Hats hartu nuen gogoari emanez griña zuena hura zela bakarrik eta berriak haren ohaidearenak zirela. Baina berehala ikusi nuen horien ondorioetarik bat Robert-i izabaren etxera ereman nindezan luzaz debekatzea izanen zela.

Haren eta ohaidearen artean liskar bat sortua zela jakin nuen, ala eskutitzez, ala goiz batez bi treinen artean ikustera jina zizakolakotz. Orai arteo ukanak zituzten liskarrek, arinagoek ere, betikotz burutzerik gabeak izan behar zutela iduri zuten. Ezen anderea omore gaixtoan zen, putinka, nigarretan, gabinet ilun batean hesten diren, auhaltzera jiten eztiren haur batzuenak bezain arrazoin ezin zilatu batzuen gatik, argipen emaitea onhartu gabe, ezin bertzean zarta batzu emaiten zezteenean ezpaitira hipetan bikuntzen baizik.

Saint-Loup nahasmendu hortaz izigarri oinazkatua izan zuen, baina erran-moldea arinegia da, eta ondorioz oinaze hortaz gogoan ukan behar dena makurtzen du. Bakarrik gertatu zenean, Saint-Loup-endako hain gementsu ikusiz ukana zuen errespetuarekin joana zen maiteaz gogatzea baizik ezpaitzuen gehiago, lehenbiziko orenetan ukanak zituen antsiak ezin zuzenduaren aitzinean bururatu ziren, eta antsia baten gelditzea gauza hain eztia da nun, liskarrak, segurra zenetik, hartu baitzuen harendako baketze batek ukanen zuen mota bereko xoramenetik zerbait. Berantxago oinazkatzen hasi zutena, bigarren maileko min bat, behargabe bat izan ziren, horien uhainak ethengabe barnetik heldu baitzizazkon, hura behar bada berriz hurbildu nahiko zela gogatzean, hitz baten igurikan zagokeela etzela gauza ezina, artean, mendekatzeko, holako arratsean, holako lekuan, holako zerbait eginen zuela behar bada, eta horren baztertzeko Saint-Loup heldu zela telegrafiatzea aski izanen zatekeela, galtzera uzten zuen demboraz bertze batzu behar bada baliatzen zirela, eta zenbait egun berantago haren berraurkitzeko berantegi izanen zela, hartua izanen baitzen. Gerta zaitezkeen horietarik guzietarik berak ezer etzakien, maiteak bazadukan ixil bat oinazea azkenean ero-arazi zaukona bere baitan galdeka hasterano ez ote zenez Doncières-en gordea edo Indietara abiatua.

Errana izan da ixila indar bat zela; osoki bertze erran-nahi batean, bada bar izigarria maitatuak direnen eskuetan. Igurikan dagonaren antsia handitzen du. Norbaiten gana hurbiltzera jeusek eztu hartarik berexten duenak baino gehiago ekhartzen, eta ixila baino muga ezin iraganagorik badea? Erran da ere ixila toleamendu bat zela, presondegietan hartara bortxatua zenaren ero-arazteko gai.

Baina zer toleamendua - ixilik egoitea baino handiagoa - maite denean hori jasan behar ukaitea! Robert-ek bazion bere baitan: "Horrela ixilik egoiteko zer ari da bada? Bertze batzuekin trompatzen nauke?" Bazion ere: "Zer egin dut bada horrela ixilik egon dadintzat? Hastiatzen nau behar bada, behin betikotz." Eta bere burua salatzen zuen. Ixilak horrela ero-arazten zuen, alabaina, bekaizkeriaz eta urrikiaz. Bertzela ere ixil hori, presondegietakoa baino bortitzagoa, bera presondegi da. Ezta gauzazko harresia dudarik gabe, baina ezin iragana, airerik gabeko arteka bat, utzia izana denaren begietako arraiek zeharka eztezaketena. Ixila baino argitze laztagarriagorik badea, ezpaitauku hor ezten bat erakusten, baina mila, eta bakoitza bertze trahitze zenbaitetan ari? Batzuetan, bapateko laxaldi batean, ixil hori, Robert-ek ordu berean geldituko zela uste zuen, igurikatu eskutitza ethorriko. Ikusten zuen, heldu zen, harrabots bakoitzaren goaitan zagon, egarria jadanik galdua, murmurikan: "Eskutitza! eskutitza!" Horrela maitasunezko oasis asmatu bat artezka ikusi ondoan, bururatzerik gabeko ixil egiazkoaren desertuan ibilki aurkitu zen.

Aitzinetik jasaiten zituen, bat ahatzi gabe, bertze ordu batzuez baztertu ahalko zituela uste zuen hauste bateko minak oro, gertatuko ezten herritik joaite bateko bere egiteko guziak zuzenean ezartzen dituzten jendek bezala, haien gogoa, biharamunean nun jarri beharko duen ez jakinean, hetarik berexirik, ephe batez inharrosten baita, hala nola eri bati hartzen zakon bihotzak, gorputz gaineratekotik berexirik, joiten jarraikitzen baitu. Zer nahi den, ohaidea itzuliko zizakolako uste horrek bazemakon hauste hortan irauteko kuraia, gudutik bizirik itzuliko ahal dela uste ukaiteak herioaren aitzinera joaiteko laguntzen duen bezala. Eta, giza-landare guzien artean, bizitzeko lur hazle gutienik behar duena eta harroka iduriz murritzenean lehenik agertzen dena ohidura baita, badateke alegiazko hauste bat eginez, hortara zintzoki jarriko zela azkenean. Baina ezpaiak bizirik atxikitzen zuen haren baitan izanara bat, emazte haren orhoitzapenari loturik, maitasunaren idurikoa. Bere burua bortxatzen zuen bizkitartean hari izkiriatu gabe egoitera (ustez eta behar bada maitea gabe bizitzea harekin kondizone batzuetan egitea baino gutiago bortitz zela, edo, elgar utzia zuten moldearen arabera, hura desenkusa zadin igurikatzea baitezpadakoa zela, Saint-Loup-endako bazuela uste zuen maitasunekoa ezpada, bederen estimukoa eta errespetukoa atxik zitzan). Telefonara joaitea aski zizakon, Doncières-en ezarri berria baitzuten, eta berri galdegitea, edo manu batzuen emaitea maite zuenaren ondoan ezarria zuen gelari bati. Mezubide horiek etziren bertzela ere errexak eta dembora gehiago hartzen zaukoten zeren eta, Robert-en ohaideak, zituen literaturako adixkiden aburuer jarraikiz hiri-nagusiaren itsustasunari zoakonaz, baina oroz gainetik Parisko jabea haien marrasken onhartzetik gelditua zen bere ihizien gatik, zakurren, ziminoaren, xorien eta perruketaren, etxalde ttipi bat alokatu berria baitzuen Versailles-ko ingurunetan. Bitartean hark, Doncières-en, etzuen gauaz ephe batez lo egiten. Behin, ene bizitegian, akhidurak garhaiturik, loak hartu zuen. Baina bapatez elheka hasi zen, laster egin nahi zuen, zerbait trabatu, bazion: "Entzuten dut, eztuzu… ez…". Atzartu zen. Erran zautan baserrian zela bizitegietako azpi-aitzindari buruaren etxean. Hunek nahi ukana zuen etxeko zati batetik baztertu. Eta bere ametsean bapatez entzunak zituen ageriki ohaideak atsegineko orduetan egin ohi zituen oihu

artekatu erregularrak. Azpi-aitzindaria nahi ukana zuen haren gambarara eremaitera bortxatu. Eta joaitera ez uzteko hunek trabatzen zuen, hoinbertze ausartziaz halako itxura gaitzitu batekin, Robert-ek baitzion sekula etzuela ahazten ahalko.

- Ene ametsa zozoa da, gaineratu zuen oraino hats-hantua.

Baina ontsa ikusi nuen, ondoko orenean, aldi batzuez ohaideari telefonatzekotan izan zela hari baketzearen eskatzeko. Aitak telefona berrikitan ukana zuen, baina hori Saint-Loup-i ainitz baliatu zizakonez eztakit. Bertzela ere etzizatan egoki iduritzen aitamer, haien etxean ezarri mekanika bati ere, ararteko ofizio horren emaitea Saint-Loup eta hunen ohaidearen artean, hau sendimenduz zen bezain ikustatekoa eta noblea izanik ere. Saint-Loup-ek ukana zuen amets gaixtoa emeki emeki ezabatu zen. Soa airean eta geldi, egun izigarri horietan guzietan ikustera jin zizatan, enetako egin baitzuten, bata bertzeari jarraikiz, Robert handik maiteak zer delibero hartuko zuen bere buruari galdeka zagon burdin-galeria miragarri eta gogorki landu zenbaiten uztaidura bezala.

Azkenean, hark galdegin zaukon barkatzea onhartuko zuenez. Haustea baztertua zela hartua ukan zuen bezain laster, elgarretara hurbiltze bateko abantailgabe guziak ikusi zituen. Gutiago oinaze zuen jadanik bertzela ere, bai eta, ilabete zenbaiten buruko behar bada, atxikimendua berriz hasten bazen, haren ausikia berriz ediren beharko zen bihotzmina abantzu onhartua. Dudan etzen luzaz egon; eta etzukeen dudatu ohaidea berriz hartu ahalko zuela segur zelakotz baizik, egin zezakeela, beraz eginen zuela. Hark eskatzen zaukon bakarrik, jabaldurara berriz heldu ahal izaiteko, etzadin Parisera urthatsa baino lehen itzul. Bada, etzuen hura ikusi gabe Parisera itzultzeko kuraiarik. Saint-Loup-ekin bidaiaz joaitea onhartua zuen ere, baina ukan behar zen hortako Borodino-ko kapitainak eman nahi etzaukon egiazko baimen bat.

- Horrek aspertzen nau izabaren etxerako gure ikustaldiaren gatik, gibelatua baita. Parisera Bazkoz itzuliko nizateke.

- Ezkira ordu hartan Guermantes-ko Anderearen etxera joaiten ahalko, Balbec-en izanen bainiz. Baina jeus-jeusik eztu horrek egiten.

- Balbec-en? baina etzira han behin ere agorrilez baizik izan.

- Ba, baina aurten, osagarriaren gatik, goizago igorri behar naute.

Zuen beldur guzia, errana zautanaren ondotik haren maitea gaizki juja nezan zen. "Ezta bortitza zintzoegia delakotz baizik, bere sendimenduetan osoegia. Baina jende ezin hobea da. Haren baitan diren poesiazko xorroxtasunak ezin dezazkek asma. Urte oroz hilen egunaren iragaitera Bruges-era joaiten duk. "Ontsa" da, eza? Ezagutzen baduk egun batez, ikusiko duk, handitasuna badik…" Emazte horren ondoan, literaturako ingurumen batzuetan zerabilaten mintzara bereziaz hartua baitzen: " Zerbait badik izarretakoa, aztien arakoa ere, zer erran nahi diatan hartzen duk, abantzu aphez zian poeta hura."

Auhari guzian, Parisera itzul zadin igurikatu baino lehen, Saint-Loup bere izabari ene ikustearen galdegitera ekharriko zuen estakuru bat bilatu nuen. Estakuru hori, bada, emana ukan zautan Saint-Loup-ek eta nik Balbec-en ezaguna ginuen margolari handiaren, Elstir-en margazki batzuen berrikusteko gutiziak. Egia zerbait bazen bertzela ere estakuru hortan, ezen, Elstir ikusia nuen aldietan, haren

margazkiari galdegin nahi ukana baldin banaukon bera zen baino hobeak ziren gauza batzuen argitzera eta maitatzera ereman nindezan, egiazko gesaltze baten, probinziako plaza egiazko baten, ondartzean bizia bazuten emazte batzuen (gehien gehienik manatuko naukon zilatuak ahal enituen gauza batzuen itxuratzea, hala nola elhorri xuriekilako bide bat, ez haien edertasuna atxik zezatan baina agerr-araz zezatan), orai, aldiz, margazki horien berezitasunak, lilluramenduak zautaten gutizia sustatzen, eta oroz gainetik ikusi nahi nituenak, Elstir-en bertze margazki batzu ziren.

Iduritzen zizatan ere haren margazki den ttipienak, margolari handienen nagusi-lanetarik beretarik bertze zerbait zirela. Haren lana erresuma hetsi bat bezalakoa zen, muga ezin iragan batzuekilakoa, gaian berdinik gabea. Ikher-lan batzu hartaz argiraturik izanak ziren aldizkari bekanak amikatuki bilduz, ikasia nuen etzela berriki baizik hasia eskualde batzuen edo bizigabeko gai batzuen margoztatzen, baina mithologiazko margazki batzuetarik hasia zela (hetarik bien argazkiak ikusiak nituen haren landegian), eta gero ederlan xaponexak harturik izana zela luzaz.

Haren molde ezperdinetako lan berezienetarik batzu probinzian ziren. Egina zuen eskualde ederrenetarik bat hartan zen Andelys-etako etxe bat, eliza-berina lorios bat eztera-harrian artekaturik dagon Chartres aldeko herrixka bat bezain baliosa iduritzen zizatan, bidaiatzeko gutizia berdin bizia emaiten zautan; eta nagusi-lan horren jabearen gana, bere etxe arruntaren zokoan, karrika handian, izar-sinesle bat bezala hetsirik, Elstir-en margazki bati munduko miraila bati bezala galdeka zagonaren eta behar bada mila liberako andana batean erosia zuenaren gana, sendi nintzan bihotzak berak, eta baitezpadako gauza zenbaitez guk bezala gogatzen dutenen nortasunak berak elgarretaratzen dituen sendimendu beraz eremana. Bada, ene margolari hautetsiaren hirur lan handi ekharriak ziren, aldizkari horietarik batean, Guermantes-ko Anderearenak bezala.

Beraz, Saint-Loup-ek bere maitearen bidaia Bruges-era iragarria zautan arratsean, zintzoki naukon oro har, auhal-aitzinean, bere adixkiden aitzinean, ustegabetarik bezala hau igorri ahal ukan:

- Entzun, onhartzen duk? aiphatu diagun andereaz azken solasa. Esltir-ez orhoit hiz, Balbec-en ezagutu diatan margolariaz?

- Baina, ba, nolaz ez.

- Harendako nikan miresmena gogoan duk?

- Biziki ontsa, hel-arazi diakogun eskutitza ere.

- Hea bada, delako anderea - zein den badakik beti? - ezagutu nahi diatan arrazoin ez larrienetarik, gaineragarri bat …

- Baina ba! zenbat itzuli-mitzuli!

- Elstir-en margazki eder-eder bat bederen etxean baitik.

- To, enakian.

- Elstir Bazkoz Balbec-en izanen dateke, badakizu orai abantzu urte osoa itsas-alde hartan iragaiten duela. Biziki nahiko nuen hara abiatu baino lehen margazki hura ikusi. Zure izabarekin aski minki ontsa zirenez eztakit: etzinezakokea

galdegin, eza eman eztezan ni haren begietan aski trebeki goraiphatuz, margazkiaren ikustera joitera utz nezan zu gabe, hor izanen etzirenaz geroz?

- Entzuna, harendako hitzemaiten dut, neure gain hartzen.

- Robert, zenbat maite zitutan!

- Maita nezazun goxagarri da, baina hala zinateke ere hika mintzatuz, hitzemana zinuen bezala eta egiten hasi hintzan bezala.

- Agian etzirezte azpiz zure joaiteaz ari, erran zautan Robert-en adixkidetarik batek. Badakizu, Saint-Loup permizionez joaiten bada, horrek eztu jeus aldatu behar, gu hemen gira. Gutiago jostagarri izanen da zuretako, baina eztela hor zuri ahatz-arazteko hainbat eginen dugu!

Alabaina, Robert-en maitea Bruges-era bakarrik joanen zela uste zen batean, jakina zen Borodino-ko kapitainak, ordu arteo kontra izanik, eman-arazia zaukola Saint-Loup azpi-aitzindariari Bruges-era joaiteko permisione luze bat. Huna zer gertatua zen. Printzea, bere ileantze nasaiaz biziki burgoi, ohitu jarraikia zen hiriko ile-mozle handienaren, lehenago Napoleon III-garrenaren ile-mozlearen mutil izanaren etxean. Borodino-ko kapitaina ile-mozle horrekin ezin hobeki zen, ara maiestatedun hek ukanik ere, jende ttipiekin lañoa baitzen. Baina ile-mozleak, Printzeak baitzuen haren etxean bederen bortz urtetako khondu gibelatua, eta "Portugaleko", "Soberanoen ur" bottoilek, burdinek, bizar-nabalek, larruek hantzen zutena xampuinek, ile-moztek eta bertzek bezainbat bederen, gora zadukan Saint-Loup, beti dirua eskuan zuena, karrosa andana bat eta zelako zaldiak. Bere maitearekin joaiteko Saint-Loup-ek zuen behargabearen berria jakinik, suharki aiphatu zaukon Printzeari, hau elizathorra zuri batean estekatua, bizarkinak burua gibelera atxikiz zintzurra mehaxatzen zaukon orduan. Mutiko gazte baten ixtorio galant horiek ekhendu zaukoten kapitain-printzeari barkakortasun bonapartixta bateko irriñoa. Bere khondu ez ordaindua gogoan ukan zuela itxura gutikoa da, baina ile-mozlearen gomendioak omore onera ekharr-arazten zuen duke bat gaixtora bezainbat. Bidarra sabonaz oraino estalia zuelarik permisionea hitzemana izan zen eta arrats berean izenpetua. Ile-mozleak aldiz, ethengabe espantuka artzen ohitua eta, hortara heldu ahal ukaiteko, bere buruari emaiten baitzauzkon, gezurrera ohigabeko dohain batekin, ospezko egintza batzu oso-osoan asmatuak, Saint-Loup-i egiazko zerbitzu bat egiten zaukon aldi bakar hortan, etzuen bakarrik zuen mereximendua entzun-arazi, baina, espantukeria gezurraren beharretan baliz bezala, eta, egiteko ordu eztenean, lekua lañotasunari uzten balu bezala, behin ere etzen hortaz Saint-Loup-i mintzatu.

Robert-en adixkide guziek erran zautaten Doncières-en egonen nintzano, edo noiz ere hara itzuliko bainintzan, hura hor ezpazen, haien karrosak, zaldiak, etxeak, zituzten libertatezko orduak enetako izanen zirela, eta sendi nuen mutiko gazte horiek bihotz-bihotzetik zituztela bere aberastasuna, gaztetasuna, indarra ene ahultasunaren zerbitzura emaiten.

- Zergatik bertzela ere, egin zuten berriz Saint-Loup-en adixkidek han egon nindadin hisituz, etzira urte oroz itzuliko? biziño hau gustatzen zauzula ikusten duzu! Eta ere erreximenduan gertatzen den guziak zahar bati bezala gogoa eratxikitzen dautzu.

Ezen jarraikitzen nintzan haier amikatuki galdegiten izenez ezagutzen nituen aitzindariak ordena zitzaten merexi zutela uste zuten miresmen guti edo aski handiaren araura, lehenago, ikastetxean, ene lagunekin Théâtre-Français-ko jokariez banegien bezala. Beti bertze guzien gainean aiphatzen entzuten nituen jeneraletarik batez, Gallifet bat edo Négrier bat, Saint-Loup-en adixkide batek baldin bazion: "Baina Négrier aitzindari jeneral artekoenetarik da", eta emaiten bazuen Pau-ren edo Geslin de Bourgogne-ren izen berri, oso, zaporeduna, sendi nuen lehenago Thiron eta Febvre-ren izen ahituak Amaury-ren izen ohigabekoaren bapateko zabaltzeaz gibeleratuak gertatzen zireneko ustegabetze zorionezko bera. "Négrier baino hobea ere? Baina zertan? behazun bat ematazu." Nahi nuen ezperdintasun barnatuak izan zaiten erreximenduko aitzindari azpi-lerrokoen arterano, eta uste, ezperdintasun horren arrazoinean, nagusitasun militarra zenaren izaite hutsa hartuko nuela. Hetaz mintzatzea gehienik laket izanen zizatanetarik bat, Borodino-ko printzea zen. Baina ez Saint-Loup-ek, ez haren adixkidek, aithortzen baldin bazuten bere zaldunaldea berdinik gabeko gobernuan atxikitzen zuela, gizona etzuten maite. Hartaz ez mintzaturik ere alabaina aitzindari lerrotik jalgi edo framazun batzuez eginen ziren doinu berean, hauk ezpaitziren bertzekin ibiltzen eta baitzadukaten ondoan axudant baten itxura oiesa, baziduriten Borodino-ko Jauna etzutela bertze aitzindari nobletan barne sartzen, hautarik egia erran, Saint-Loup-en aldera ere, egonaran biziki bertzelakoa baitzen. Hek, Saint-Loup azpi-aitzindari baizik ez izaiteaz baliatuz, eta horrela haren familia ahaldunak zorion ukan zezakeela hori gabe gutietsiko zituen buruzagi batzuen etxera gomitatua izan zadin, bere mahian haren ukaiteko aldi bat etzuten huts egiten han bazenean bizitegietako azpi-aitzindari gazteari baliagarri izaiteko ahala zuen jaun gotor zenbait. Borodino-ko printzeak, bakarrik, etzuen Robert-ekin zerbitzuko elgargorik baizik, bertzela ere ezin hobeak. Printzeak, haren aitatxi Emperadoreak marexal eta printze-duke egina izanik, ondotik ezkontzaz haren familiarekin ahaidetua baitzen, gero aita Napoleon III-garrenaren gusi batekin ezkondua eta Estatu ukaldiaren ondotik bi aldiz minixtro izana baitzen, sendi zuen horren gatik etzela norbait handi Saint-Loup-en eta Guermantes-tarren jendartean, hauk bere aldetik, ezpaitzen hauen ikuspegi berean jartzen, guti zaudelarik hari beha. Etzen batere jelosten, Saint-Loup-endako, etzela hura, Hohenzollern-darren ahaidea, ez egiazko noble bat, baina laborari baten semabitxia baizik; berak aldiz Saint-Loup bazadukalarik haren kondatea Emperadoreaz baieztaturik izana zen gizon baten semetzat - horier konde berreginak zeritzoten Saint-Germain-go bazter-hirian - eta prefetura bat eskatua zaukona, gero holako bertze kargu bat ontsa aphala Haren Goratasun Borodino-ko printzearen manupean, Estatuko minixtroa, "Ene Jauna" izkiriatzen zizakona eta emperadorearen iloba.

Iloba baino gehiago behar bada. Borodino-ko prinzesa lehenak Elba-ko irlara jarraiki zizakon Napoleon Lehenarendako oneziak ukanak zituela uste zen, eta bigarrenak Napoleon III-garrenarendako. Eta, kapitainaren begitarte baketsuan Napoleon Lehenetik zerbait aurkitzen bazen, aurpegi jitezkoa ezpada, bederen itxuraren maiestate landua, aitzindariak bazuen, behako goibeldu onean, muxtatx erortzera emanean, Napoleon III-garrenaz orhoit-arazten zuen zerbait; eta hori

molde hain ohargarriz nun Sedan-dik landa Emperadorearen ondora joaitea galdeginik, eta haren gana ereman izana zen Bismarck-ek gibelera igorririk, hau, urruntzera abian zen mutiko gaztera begiak halabeharrez goititu eta, eite hortaz bapatez hartua izan baitzen, gogoz aldatuz, berriz deitu zuen eta guzier bezala ezetsi berria zaukon baimena eman.

Borodino-ko printzeak ezpazuen Saint-Loup-en ez eta erreximenduan Saint-Germain bazter-hiriko bertze jendartekiden aitzinera urratsik egin nahi (gizon gozagarriak ziren jende xoileko bi lotenent ainitz gomitatzen zituelarik), hori zen, bere handitasun imperialetik goratik behatzen zauela, azpiko horien artean egiten zuelakotz ezperdintasun hau: batzuek azpikoak zirela bazakitela, hauekin ibiltzea gozagarri baitzizakon, bera izanez, maiestatezko itxura-pean, omore laño arrai batekoa, eta bertzeak azpikoak izanez gorakoak izaitea uste zutela, onhartzen etzuen gauza. Hortako, erreximenduko aitzindari guziek Saint-Loup-i besta egiten zaukotelarik, Borodino-ko printzea, X.ko marexalak gomendaturik izana baitzizakon, harendako zerbitzuan gixako izatean gelditu zen, hortan Saint-Loup hoberena baitzen bertzela ere, etxean etzuen behin ere onhartu, gomitatzera hala erraiteko bortxatua izan zen aldi berezi batez ezpada, eta, ene han izaitean gertatzen baitzen, ereman nindezan galdatu baitzuen. Errexki nintzan ohartu, arrats hartan, Saint-Loup bere kapitainaren mahian ikusiz, hetarik bakoitzaren ara eta aphaintasunerano, bi arixtokrazien artean, zaharraren et Imperiokoarenean, zen ezperdintasunari. Bere bere adimendu guziaz arnegatzen bazituen ere, akatsak odolean sartuak zituen kasta batetik jalgia zen, eta, egiazko burupe ukaitetik mende batez geroztik bederen gelditua izanez, ukaiten duen erakaspenean barne den amultsutasun gerizatzalean, zaldiz ibiltzea edo ezpata-jokoa bezalako egiteko bat baizik ikusten eztuenetik, helburu seriosik gabe, libertimenduz; noblezia horrek bere etxekotasunaz lausengatzen dituela eta lañotasun arrunta ohore lukeela uste ukaiteko aski gutiesten dituen burjesen kontrakoa eginez, Saint-Loup-ek eskaintzen zizakon eta haren izena behar bada entzuna ere etzuen edozein burjesen eskua adixkidantzarekin hartzen zuen, eta, harekin solastatzean (zangoen gurutzatzetik eta deskurutzatzetik gelditu gabe, soina gibelera emanez, egonara zantzail batean, oina eskuan) bazeritzon "adixkide maitea". Aldiz, bere erran-nahia oraino bazatxikaten lerro-izenekilako noblezia batekoa, guziak oraino lerro-ondore aberats batzuen jabe, zerbitzu lorios batzuen saritako ukanen eta hetan ainitz gizoner manatzen den kargu gora batzuen orhoita badadukatenen, Borodino-ko printzeak - zuzenki ezpazen eta bere baitako konzienzia argian, bederen hori egonaretan eta fazoinetan agertzen zuen soinean - bere lerroa egiazko abantaila bezala hartzen zuen; Saint-Loup-ek soingaina hunkiko eta besoa hartuko zauen jende nobleziagabeko haier berer, mintzo zizaien gixakotasun maiestatezko batean, hartan begirantza handitasunez bete batek eztitzen zuela jitezkoa zuen gozotasun erdi-irridun bat, aldi berean ongi-nahi zintzo eta nahizko goratasun bateko doinuarekin. Hori zatekeen embaxada handietarik eta gortetik gutiago urrundua zelakotz, haren aitak hartan kargu handienak ukanak baitzituen, eta han Saint-Loup-en egonarak, ukondoa mahi gainean eta oina eskuan, gaizki hartuak izanen baitziren; baina hori zen oroz gainetik burjeseria hura gutiago gutiesten zuelakotz, hura izana zelakotz

Emperadore lehenak bere marexalak, nobleak hautatuak zituen jendetegi handia, bigarrenak Fould bat, Rouher bat aurkituak.

Dudarik gabe, emperadore seme ala semabitxi, zaldunalde bati manatzea baizik etzuena orai, aitaren eta aitabitxiren arrangurek, hartara emaiteko gairik gabean, etzezaketen egiazki iraupenik ukan Borodinoko Jaunaren gogoan. Baina, edergile baten gogoa hura zendua denetik urteak eta urteak ondoan zizelkatu zuen gizaiduri baten moldatzen jarrikitzen den bezala, haren baitan gorpuztuak ziren, han gauzatuak, haragituak, hek zituen haren begitarteak agerr-arazten. Mintzoan Emperadore lehenaren bizitasunarekin zuen brigadier bat erasiatzen, bigarrenaren gogo-ilundura ameslariarekin zigarreta baten bafada igortzen. Doncières-ko karriketan iragaiten zelarik hiriko jantzietan, begietan halako argi batek, xapel biribiletik jalgitzen, kapitainaren inguruan ezagungabe handitasunez bete bat dirdira-arazten zuen; ikharatzen ziren bizitegietako azpi-aitzindari nagusiaren bulegoan sartzen zenean, axudanta eta hornimenduzaina gibeletik, Berthier eta Masséna bezala. Zaldunaldeko galtza baten oihala hautatzen zuenean, brigadier jostunaren gainean itzatzen zuen so bat Talleyrand zila ahal zezakeena eta Alexandre engana; eta batzuetan, lekuan jartzeko ikherraldi baten egitean, gelditzen zen, begi urdin ederrak amestera uzten zituen, muxtatxa bihurdikatzen, Prusia baten eta Italia berri baten eraikitzen ari zela iduri. Baina berehala, Napoleon III-garrenetik lehenera itzuliz, oharr-arazten zuen paketatzea etzela diridiratua eta nahi zuen gizonen janari ohikoa jastatu. Eta etxeko bizian, aitzindari burjes (framazonak izan etzaiten ber) batzuen emaztendako zuen ezarr-arazten ez bakarrik Sèvres-ko bajera erreturdin, embaxadore batendako gai zena (Napoleon-ek haren aitari emana, eta oraino baliosago iduri zuena han bizi zen Ibilguneko etxe probiziarrean, hala nola laboretxe ontsa hornitu ete jori baten moldean antolatu jauretxe zahar bateko harmairu baserritarrean ibiltzalek miresten dituzten porzelana arraroak), baina ere Emperadorearen bertze emaitza batzu: atzerrian ohorezko kargu zenbaitetan mirazkoak izanen ziren ara noble xoragarri hek, "jaioa" izaitea espaliz batzuen ustez bizi guziko bahimendu zuzenkontrakoenera emana izaitea: jestu laño batzu, onezia, garazia, eta, esmail erreturdin baten azpian loriazko iduri batzu hesten zirela ere, soaren erlika mixteriozkoa, argia, bizirik gelditua.

Eta printzeak Doncières-en zituen ezagutza burjesez hau erran behar da. Lotenant-koronelak pianoa miragarriki joiten zuen, mediku-nagusiaren emazteak Konserbatorioko lehen saria ukana balu bezala kantatzen. Azken hauk, lotenant-koronel senarr-emazteak bezala, aste bakoitz Borodinoko printzearen etxean auhaltzen ziren. Ohore zizeen segurki, jakinez printzea permisionez Parisera zoanean Pourtalès-ko Anderearen, Murat-tarren etxean eta bertze auhaltzen zela. Baina bazioten bere artean: "Kapitain xoil bat da, haren etxera gure jiteaz zorion soberakina badu. Bertzela ere egiazko adixkidea da guretako. " Baina Borodinoko Jauna, Parisera hurbiltzeko urratsetan ari baitzen aspaldidanik, Beauvais-era izendatua izan zenean, egin zuen bere alda, bi senarr-emazte musikariak Doncières-ko antzokia eta handik bere barazkaria usu jin-arazten zuen ostatu ttipia bezain osoki ahatzi zituen, eta, bere sumindura handian, ez lotenant-koronelak, ez eta mediku-nagusiak etzuten, bere bizi guzian, haren berririk ukan.

Goiz batez, Saint-Loup-ek aithortu zautan amatxiri izkiriatua zaukola ene berrien emaiteko eta, telefonazko zerbitzua bazenaz geroz Paris eta Doncières-en artean, enekin solastatzeko ideiaren adi-araztera emaiteko. Hots, egun berean, amatxik telefonara dei-arazi behar ninduen eta Saint-Loup-ek entzun-arazi zautan laurak laurden gutitan postan izan behar nuela. Aro hartan telefona etzen oraino den bezain ohiki erabilia. Ohidurak bizkitartean hain dembora guti emaiten du hunkitzen ditugun indar sakratuen mixterioaren buluzten nun, komunikabidea ez berahala ukanik, gogoratu zizatan gauza bakarra ontsa luze zela izan baitzen, ontsa erabilgaitz, eta abantzu deitaldi baten igortzeko xedea. Orai gu guzienera bezala, etzen ene gostura aski lehiatua, bere bapateko aldatzetan, ephe batzu aski zazkon xoramen miragarria, ondoan agertzen baitzaiku, ezin ikusia baina hor, mintzatu nahi ginuen jendea, hau bere mahian dagolarik, bizi den hirian (amatxi Parisen), guretik bertzelako zeru baten azpian, beharrez berdina ezten aroan, eztazkigun eta erranen dauzkun gertaldi eta estakuruen erdian, gertatzen dela bapatez ehun eta ehun lekoatara eremana (hura eta hartan murgildurik dagon ingurumen guzia), gure beharriaren ondora, gure burutaldiak manatu daukon ordu berean. Ipuineko delako hura bezala gira, andere azti batek, haren agiantzari ihardesteko, agerr-arazten daukonean, naturaz gaineko argi batean, amabitxia edo ezkongaia, liburu baten orstokatzen, nigarrez ari, lore batzuen biltzen, ikuslearen ondo-ondoan baina biziki urrun, egiazki han den leku berean. Aski zaiku, mirakulu hori egin dadintzat, mirazko ttaulara ezpainen hurbiltzea eta egun bakoitz haien begitartea ikusi gabe mintzoa entzuten dauegun Birjina Atzarrier dei egitea - batzuetan soberaxko luzaz, hori aithor dut - , gure Aingeru begiraleak baitira haien atheak bekaizki zaintzen dituzten ilunbe burxoragarrietan; hor eztirenak, ikus ditzagun haizu izan gabe, gure ondoan agerr-arazten dituzten Botere-Osodunak; ezin ikusiaren Danaidak ethengabe soinuen untzi husten, betetzen, elgarri emaiten; adixkide bati segeretu baten murmurikatzen ari ginen orduan, nehork entzuten ezkinituelako ustean, "Badantzut" abreki oihukatzen daukuten Furia irkaiztunak; Mixterioaren zerbitzari beti suminduak, Ezin-ikusiaren beretersa kilikak, telefonako Andereñoak.

Eta gure deiak joa duen orduko, hetara bakarrik gure beharriak idekitzen diren gau agerpenez betean, harrabots arin bat, gauzarik gabeko bat, ekhendu den urrunaren harrabotsa; eta maite denaren mintzoak hel egiten dauku.

Hura da, haren mintzoa guri elheka, hor. Baina zein urrun den! Zenbat aldiz eztut antsiarik gabe entzun ahal ukan, bidaiako oren luze batzu baino lehen, haren mintzoa ene beharriari hain hurbil zenaren ezin ikuste horren aitzinean, hobeki senditu banu bezala zenbat nahigabegarri den hurbiltze eztienaren itxuran, eta maite ditugunetarik zenbat urrun izan gaitezkeen haien atxikitzeko eskuaren luzatzea baizik ezkinuela behar iduri den demboran. Mintzo hoin hurbilaren hor izaite egiazkoa, gauzazko berexkuntzan! Baina ere betiereko berexkuntzaren aitzintzea! Ainitzetan, horrela entzutean, hoin urrundik mintzo zizatana ikusi gabe, iduritu zata handik berriz igaiten ezten lezetarik oihuz ari zela, eta egun batez tinkatuko ninduen antsia senditu dut, mintzo bat horrela berritzuliko zizatanean (bakarrik, eta nehoiz ere berrikusi behar enuen gorputz bati eratxikia izan gabe), beharrira iragaitean

besarkatu nahiko nituen elhe batzuen murmurikatzera ezpain behin betikotz erhaustu batzuetan.

Egun hartan, ondikotz, Doncières-en, etzen mirakulurik izan. Posta bulegora heldu nintzanean, amatxik jadanik hel egina zautan; telefonategian sartu nintzan, komunikabidea moztua zen, norbait mintzo, ezpaitzakikeen ehor etzela hari ihardesteko ezen, entzutekoa hartu nuenean, zur mutur hori elheka hasi baitzen Polixinela iduri; ixil-arazi nuen, giñol bat bezala, berriz bere lekuan ezarriz, baina, Polixinela bezala, berriz hartzen nueneko bere kalaka berriz hasten zuen. Azkenean, etsiturik, entzutekoa alde bat krakoan berriz ezarriz, azken zekundarano kalakatzetik gelditu etzen zur puskaren daldarikaldien ithotzera heldu nintzan, eta telefonixtaren bila joan, erran baitzautan ephe batez igurikatzeko; gero mintzatu nintzan, eta ixil ephe batzuen ondotik, entzun nuen bapatez hain ontsa ezagutzen nuela uste nuen mintzo hura, ezen ordu arteo, amatxi enekin mintzatua zen aldi oroz, erraiten zautana, beti begiek hainbat leku bazadukaten haren begitartean irakurria nuen; baina mintzoa bera, lehen aldikotz egun nuen entzuten. Eta mintzo hori gauza oso bat zen ordutik arauetan aldatua agertzen zizatalakotz, eta horrela aurpegiko itxuraren laguntzarik gabe bakarrik heltzen, aurkitu nuen mintzo hori zenbat eztia zen; behar bada ere nehoiz etzen hein hortarano hala izana, ezen amatxik, urrun eta zorigaitzean sendi baininduen, xamurtasun ixurtze batera joaitera utz zaitekeela uste zuen, ohian, erakasle zenaren "prinzipioez", gorderik atxikitzen zuenera. Eztia zen, baina trixte baitzen ere, lehenik eztitasun horren beraren gatik, giza-mintzo guti izanak ahal diren baino gehiago idortasun orotarik garbitua, bertzer ihardokitzeko gai orotarik, norberekoitasun orotarik! Arintasunaren bortxaz beraztua, noiz nahi haustera zoala iduri zuen, nigar uhain huts batean gelditzera; eta gero, ene ondoan bakarrik bainuen, begitarteko maskarik gabe, senditu nituen, lehen aldikotz, bizian zehar arraildua zuten bihotzminak.

Mintzoa baizik etzena bertzela ere, bakarrik zelakotz, erdiratzen ninduen iduripen berri hori emaiten zautanik? Ez ez; baina mintzoaren berexkuntza hori bertze berexkuntza baten iduri bat bezala zen izaitekotz, haren gogoratze bat, ondorio zuzen bat, amatxirenaren, lehen aldikotz nitarik berexia. Ordu oroz bizi ohikoan emaiten zauztan manuak edo debekuak, harendako nuen xamurtasuna husten zuten obeditzeko asperrak edo jazartzeko sukarrak, ekhenduak ziren orai eta geroko ere ahal izan zaitezkeen (amatxik bere ondoan eta manupean izan nadin hertsiki nahi etzuenaz geroz, alde bat Doncières-en egonen nintzalako esperanzaren erraiten ari baitzizatan, edo zer nahi izanik ere hango egonaldia ahal bezainbat luzatuko nuela, ene osagarriaren eta lanaren abantailetan izan zaitekeelakotz); hortako, beharriaren ondora hurbildu xilintxaño horren azpian nuena, egun oroz kontrako phizu egina zaukoten indar etsaietarik hustua, eta ordutik ezin ihardokia, osoan goititzen ninduela, elgarrekilako gure atxikimendua zen. Amatxik, han geldi nindadin erranez, eman zautan itzultzeko behar antsiadun ero bat. Ordutik hara uzten zautan libertate hura, eta onhar ahal zezakeela behin ere ohartua enindakona, iduritu zizatan bapatez hil ondoko libertatea izan zaitekeen bezain trixtea (nik oraino maitatuko nuenean eta ni behin betikotz utzi nahia ukanen nindueneanean). Oihu egin nuen: "Amatxi, amatxi!" eta besarkatu nahiko nuen; baina ondoan enuen

mintzo hura baizik, amatxi hila izanen zenean ene ikustera behar bada itzuliko zen ametsetako itxura hura bezain ezin hunkia. "Mintza zaizkit"; baina orduan gertatu zen, ni oraino bakartuago utziz, mintzo haren hautemaitea bapatez gelditu zela. Amatxik eninduen gehiago entzuten, enekin etzen gehiago komunikabidean, elgarren aitzinean izaitetik geldituak ginen, elgarrendako entzungarri izaitetik, gauan haztamuka hel egiten jarraikitzen nindakon, haren deiak ere galtzen zaitezkeela sendituz. Iraganean ontsa urrun lehenago senditua nuen herstura beraz pilpiran nindagon, haur ttipia oraino, jenden artean galdua nuen egun batez, ez berriz aurkitzeko baino gehiago bilatzen ninduela senditzeko herstura, bere baitan bilatzen nuela erranez ari zela senditzekoa; bertze herstura baten idurikoa, ihardets eztezaketener mintzatzen den egunean sendituko nuenarena, erran eztauegun guzia hainbat entzun-arazi nahi zauelarik bederen, eta oinazetan ezkirelako segurantza. Iduri zizatan itzal maite bat nuela itzalen erdian galtzera utzi berria, eta tresnaren aitzinean bakarrik, jarraikitzen nuen debaldetan errepikatzen: "Amatxi, amatxi", Orfeok, bakarrik gelditu eta, hilaren izena errepikatzen duen bezala. Postaren uztera deliberatu nintzan, Robert-en gana bere ostatura joaitera hari erraiteko, itzultzera bortxatuko ninduen depexa bat ukan bainezakeen, zer gerta ere treinen orena jakin nahiko nuela. Bizkitartean, hortara deliberatu baino lehen, nahiko nauela oraino azken aldi batez Gauko Neskatoer hel egin, elhearen Mezularier, aurpegirik gabeko jainkoser; baina Begirale aldikorrek etzauztaten mirazko Atheak ideki nahi ukanak, edo etzuketen egin ahal ukan; ethengabe hel egin ukan zaueten, ohi duten bezala, imprimeriaren asmatzale ohoragarriari eta iduripenezko margolanaren maitale 'ta otozain printze gazteari (Borodinoko kapitainaren iloba zen), Gutenberg eta Wagram-ek utzi zituzten haien othoitzak erantzunik gabe, eta joan nintzan hel egina zizakon Ezinikusia sor eta gor geldituko zela sendituz.

Robert-en eta haren adixkiden ondora heltzean, enauen bihotza enuela gehiago haiekin aithortu, ene joaitea jadanik osoki deliberatua zela. Saint-Loup-ek sinesten ninduela iduritu zuen, baina geroztik jakina dut, lehen minutan berean hartua zuela ene ezpaia alegiazkoa zela, eta biharamunean eninduela han aurkituko. Jatekoak hoztera uzten zituzten batean, haren adixkidek xehetasundegian bilatzen zutelarik Parisera sartzeko har nezakeen treina, eta lokomotiben xixtuak gau izardun hotzean entzuten ziren batean, enuen segurki gehiago sendi hemen hainbat arratsez batzuen adixkitesanuak, bertzen iragaite urrunak emana zautaten bake bera. Joaitea arinago izan zizatan gogoan ukaitera bortxatua enintzanean bakarra izan, senditu nuenean bilaketa hortan ene adixkide gementsuen, Robert-en lagunen ernetasun ohikoago eta sanoagoa, eta bertze izaite azkar haiena, treinena, hauen joan-jinak, goiz arrats, Doncières-tik Parisera, gibelera behatuz phorroskatzen baitzuen amatxiren ganik ene berexkuntza luzegiak zuen tinkiegi eta ezin jasanegia, egun oroz berriz itzultzeko nituen ahaletan.

- Eztiat hire elhen egia dudan emaiten eta ehizala oraino abiatzekotan, erran zautan irriz Saint-Loup-ek, baina joaiten bahintz bezala egik eta athor bihar goizean goizik goraintzi erraitera, bertzela hire berriz ez ikusteko irriskutan nuk; hain zuzen hirian balkaltzen diat, kapitainak baimena emanik; bi orenetako kasernara sartua izan behar nuk, egun guziko ibiltzera joan behar baitiaguk. Haren etxean balkaltzen

diatan jaunak, hemendik hirur kilometretan, ordu deno kasernara bi orenetako ekharriko nikek.

Hitz horiek doi-doia zituen erraiten nun hotelera bila jin baitzizaztan; postatik telefonara deitua ninduten. Laster egin nuen, hestera baitzoan. "Interurbain" hitza beti itzultzen zen langilek emaiten zauztaten ihardespenetan. Antsia handienean nintzan, amatxik baininduen galdatzen. Bulegoa hestera zoan. Azkenean komunikabidea ukan nuen. "Zu zira amatxi?" Atzentu azkar batekilako emazte mintzo batek ihardetsi zautan: "Ba, baina zure mintzoa eztut ezagutzen." Mintzo zizatana enuen gehiago ezagutzen, eta amatxik etzautan "zu" erraiten. Guzia azkenean argitu zen. Bere amatxik telefonara galdegin-arazia zuen mutiko gazteak izena abantzu enearen berdina zuen eta hoteleko erantsi batean bizi zen. Amatxiri telefonatua nahi ukana nuen egun berean deitua bainintzan, hark galdegiten ninduela enuen batere dudan emana. Gertaldi xoil batez zuten bada postak eta hotelak bietan huts egina.

Biharamun goizean, beranta bildu nuen, Saint-Loup enuen aurkitu, jadanik barazkaltzera auzoko jauregira joana. Oren bat eta erdi hirian, zer gerta ere kasernara joaitera nindoan hura heldu orduko han izaiteko, noiz ere, hara deraman ethorbide baten iragaitean, ikusi bainuen, nindoan alde berera joanki, "tilburi" bat, ene ondotik iragaitean gelditzera bortxatu baininduen; azpi-aitzindari batek gidatzen zuen, begitako bakuna begian, Saint-Loup zen. Ondoan zuen haren etxean barazkaldua zen adixkidea eta jadanik aldi batez aurkitua nuena Robert-ek han jaten zuen hotelean. Robert-i hel egitera enintzan menturatu ezpaitzen bakarrik, baina berekin ene hartzeko geldi zadin nahiz, oharra erakarr-arazi naukon gur handi bat eginez, ezezagun baten han izaiteak egin-arazia uste izan behar zena. Robert lausoa zela banakien, uste ukanen nuen alta, ikusten banindu bakarrik, huts egin gabe ezagutuko ninduela; ene agurra ikusi zuen bada, baina gelditu gabe; eta lehia handitan urruntzen zela, irriño bat ere gabe, begitartean jeus higitu gabe, aski izan zizakon bi minutaz kepi bazterrean eskuaren atxikitzea, ezagutua etzuen soldado bati eginen zaukon bezala. Laster egin nuen kasernara, baina urrun zen oraino; heldu nintzanean, erreximendua korroilan moldatzen ari zen, eninduten sartzera utzi, eta lastimatua nintzan Saint-Loup-i goraintzi ez erran ahal ukanik; gambarara igan nintzan, etzen han; haren berriak galdegin ahal ukan nituen soldado multzo eri bati, urratsetarik libro utziak ziren heldu berri batzuer, baxodun gazteari, soldado zahar bati, erreximenduaren moldatzeari so baitzauden.

- Saint-Loup bizitegietako azpi-aitzindaria eztuzue ikusi? galdegin nuen.

- Jauna, jautsia da jadanik, erran zuen zaharrak.

- Eztut ikusi, erran zuen baxodunak.

- Eztuk ikusi, erran zuen zaharrak, nitaz gehiago axolatu gabe, eztuk gure Saint-Loup aiphatua ikusi, zer itxura dikan bere galtzekin! Kapixtunak hori ikusiko dikanean, aitzindari oihaletik!

- Ha! ontsa ari haiz, aitzindari oihaletik, erran zuen baxodun gazteak, gambaran eri, urratsetara ezpaitzoan, eta entseatzen baitzen, ez zerbait lotsarik gabe, zaharrekin ausart izaitera. Aitzindari oihal hori, hau bezalakoa duk.

- Zer jauna? galdegin zuen haserreturik galtzaz mintzatua zen "zaharrak".

Sumindua zen baxodun gazteak galtza horiek aitzindari oihalez zirela dudan emaiten zuelakotz, baina, Bretoina, Penguern-Stereden deritzoten herrixka batean sortua, frantzesa Angeles edo Aleman bat izana baliz bezain nekez ikasirik, bihotz-hunkidura batez hartua sendi zenean, bere hitzen bilatzeko astiaren ukaiteko bizpahirur aldiz "jauna" erraiten zuen, gero apailamendu horren ondotik bere elhekatzean hasten zen, bertzeak baino hobeki bazazkien hitz batzuen errepikatzean geldituz, baina lehiarik gabe, ahozkatzeko zuen ohidura eskasaren kontra oharpen emanez.

- Ha! holako oihaletik duk? hasi zen berriz, indarrean eta elhearen urritzean gero eta gehiago handitzen zen haserre batekin. Ha! holako oihaletik duk! aitzindari oihalez dela erraiten badeat, erraiten eta bietan erraiten, badakiatalakotz duk, ustez. Guri etzaikuk hitz-mitzetan ari izan behar.

- Ha! beraz, erran zuen baxodun gazteak arrazoinkatze hortaz garhaitua.

- To, horra zuzen kapixtuna badoala. Baina behazak doi bat Saint-Loup-i; zango igortze hori, ta gero burua. Azpi-aitzindaria iduri dika? Ta begitakoa; alde guzietara badoakok.

Ene hor izaiteak durduzatzen etzituen soldado horier eskatu nauen nik ere leihotik so egitea. Eninduten trabatu, etziren ere aldaratu. Borodino-ko kapitaina ikusi nuen zaldia trosta-araziz maiestaterekin iragaiten, Austerlitz-eko guduan baliz bezalako lillura batean iduri. Iragaile batzu kasernako burdin-sare aitzinean bilduak ziren erreximenduaren ikusteko atheratzen. Zaldian zut, begitartea apur bat gizen, begia argi, Printzea xoradura zenbaitek hartua zatekeen, nihaur nintzan bezala tramua iragan eta haren burrumbari jarraikitzen zizakon harrabotsa musikazko pilpira nahasi batez hartua eta marraztatua iduritzen zizatan aldi oroz. Saint-Loup-i goraintzi ez errana ukanik lastimatua izanik ere, abiatu nintzan, ene arrangura bakarra amatxiren ondora itzultzea baitzen. Egun hartarano, hiri ttipi hartan, amatxi bakarrik zer ari zen gogoan nuenean, enekin zen bezala itxuratzen nuen; baina orai, neure burua baztertuz, baztertze horrek haren baitan ukanen zituen ondorioer behatu gabe, behar nuen, haren besoetan, ordu arteo aierurik ukana enuen eta haren mintzoak bapatean gogoratua zautan iduripenaz lehen bai lehen liberatu, egiazki nitarik berexia zen amatxi batenaz, etsituaz, nehoiz ordurano ezaguna enaukon adina zuenaz, eta ene eskutitz bat ukan berria zuenaz Balbec-era joan nintzanean hartan ama jadanik asmatua nuen bizitegi hutsean.

Ondikotz, iduripen hori zen ikusi nuena, saloinera sartzean amatxi ene itzultzeaz abisatua izan baino lehen, irakurtzen ari aurkitu nuenean. Hor nintzan, izaitekotz enintzan oraino hor jakin gabean zenaz geroz, eta, norbait sartzen bada gordeko duen liburu baten irakurtzen ustegabetarik aurkitzen den emazte bat bezala, behin ere ene aitzinean erakutsiak etzituen gogoeta batzuetan sartua zen. Nitarik - irauten eztuen eta hartan, itzultze ondoko ephe laburrean, guhauren ez hor izaiteaz bapatean ohartzeko ahala badugun dohainaren bidez - etzen hor lekukoa baizik, behatzalea, xapeletan eta bidaiako soinekoan, etxekoa ezten arrotza, berriz ikusiko eztiren lekuen iduri hartzera datorren argazkilaria. Mekanikaz bezala ene begietan egin zena amatxi ikusi nuen ordu hartan, argazki bat izan zen bada. Maite ditugunak ehoiz eztitugu gure maitasun ethengabearen izanara bizian, mugimendu

betierekoan baizik ikusten, horrek, haien aurpegiak eskaintzen dauzkigun iduriak gutarano heltzera utzi baino lehen, hartzen baititu bere zirimolan, beti danik hetaz dugun ideiara egozten, hari eratxikitzen, harekin bat egiten. Nolaz bada, amatxiren bekokiari, mateler gogoan zuen xorrotxena eta iraunkorrena erran-nahi-arazten nauenean, nolaz, ohiko so oro herioko jakitate bat denaz geroz, eta maite den aurpegi oro iraganaren miraila, nolaz enuen erran gabe utziko haren baitan phizutua, aldatua zatekeen guzia, gure begiak, biziko ikuskarri ezpaikoenetan ere, baztertzen dituenean, tragedia klasiko batek balegikeen bezala, egintzara ari eztiren iduri guziak eta duen helburua adigarri egin dezaketenak baizik ez atxikitzen? Baina gure begiaren lekuan, mekania huts batek, argazkietako plaka batek dezala so egina, orduan ikusiko duguna, behazunez Akademiako korroilan, fiakra bati hel egin nahi daukon akademialari baten atheratzearen orde, haren halda-malda izanen da, gibelera ez erortzetik begiratzeko oharra, erorikoaren bidea, mozkorra baliz bezala edo lurra hormaz estalia.

Berdin da halabeharraren amarru abre zenbaitek trabatzen duenean gure maitasun adimendun eta zintzoa ordu deno gure behakoer ehoiz ikusi behar eztutenaren gordetzera lasterrez jitetik, hauek dutenean aitzintzen, lehenbizikorik lekura helduak eta bere gain utziak, mekanika moldean ari baitira pelikulak bezala, erakusten daukutela, aspaldidanik bizirik eztuen baina haren heriotzea agertua izan zakidigun ehoiz nahi ukan etzuten izaite maitea, egun bakoitz ehun aldiz maitasunak itxura maitatu eta gezurrezko batez janzten zuen izaite berria. Eta - hala nola eri batek, bere buruari aspaldidanik ez behaturik, ikusten eztuen begitartea ordu oroz moldatzen duenean gogoan dadukan iduri beteginaren araura, gibelera egiten baitu miraila batean ohartzen denean, aurpegi idor eta hustu baten erdian, Egyptako piramida bat bezain gaitzeko sudurraren goititze zeharkatu gorrastari - nik, amatxi oraino nihaur bera zizatana, neure ariman baizik ehoiz ikusia enuena, beti iraganeko leku berean, orhoitzapen elgarri lotu eta metatuen argaltasunaren artetik, bapatez, mundu berri batekoa, aroarenekoa, hetaz "ongi zahartzen dira" erraiten den arrotzak bizi direnena zen gure saloinean, lehen aldikotz eta ephe batez bakarrik, laster ihes egin baitzuen, ikusi nuen kanapean, argiaren azpian, gorri, arrunt eta phizu, eri, ametserian, liburu baten gainean bazabiltzala begi apur bat ero batzu, ezagutzen enuen emazte zahar akhitu bat.

Guermantes-ko Anderearen Elstir-en ikustera joaiteko egina nuen galdean, Saint-Loup-ek errana zautan: "Harendako hitzemaiten diat". Eta zorigaitzez, alabaina, harek baizik etzuen "harendako" hitzemana. Bertzerendako errex ihardesten dugu noiz ere, hek itxuratzen dituzten iduri ttipiak gure gogoan antolatuz, hauk gure nahitara ibil-arazten baititugu. Ordu hartan ere dudarik gabe gogoan hartzen ditugu bakoitzaren jitetik, gutarik bertzelakotik, heldu diren nekeak, eta haren gainean indar handia duen halako edo holako tresnari, abantail-nahi, sinets-arazte, bihotz-hunkidura, hel egitea eztugu huts egiten; tresna eragingarri horiek, guk ditugu arautzen. Eta gure gogoan jende hari errepika-araziak dauzkogun mugimenduak, gure nahitara erabil-arazten baitute, bizian egin-arazi nahi dauzkogularik, guzia aldatzen da, ezin garhaituak izan daitezkeen ustegabeko

ihardokitze batzuetan joiten dugu. Azkarrenetarik bat da dudarik gabe, emazte baten baitan, hark maite eztuen gizonak eman-arazten duen narda, ezin garhaitua eta usaindua: Saint-Loup oraino Parisen egon zen aste luzetan, haren izabak, ezpaitut dudatzen izkiriatu zaukola egin zezan othoizteko, Elstir-en margazkien ikusteko haren etxera jin nindadin etzautan behin ere erran.

Hozkeriazko seinale batzu ukan nituen etxeko bertze jende baten ganik: Jupien. Hari agur emaitera sartu behar ukanen nuela uste zuena, Doncières-tik itzultzean, etxera igan ere baino lehen? Amak erran zautan ezetz, etzela ustegabetu behar. Françoise-ek horrela zela errana zaukon, bapateko omore gaixtoetara emana, arrazoinik gabe. Hori dembora gutitan ezeztatzen zen beti.

Negua bururatzera zoan. Goiz batez, euri-erauntsi eta ekaitz aste batzuen ondotik, entzun nuen khebidean - itsas-hegira joaiteko gutiziaz inharrosten ninduen haize moldegabe, aldakor, ilunaren orde - ohantzea harresian zuten urzoen urrunga, hortzadar bat bezala, lehen jazinta bat bezain ustegabekoa, bere bihotz hazlearen emeki idekitzen, handik, malba-kolore 'ta leun, jalgi zadin haren lore ozena, ene gambara oraino hetsi ilunean sarr-arazten zituela, leiho ideki batek bezala, lehenbiziko egun eder bateko ephela, lilluramendua, akhidura. Goiz hartan, hatzeman nintzan Firenzen eta Venezian izana nintzatekeen urteaz geroztik ahatzia nuen kafe-konzert aire baten ahapeka kantatzen. Hainbat du ingurumenak, egunetako gertaldien araura, gure baitan barnatuki eragiten, eta, han ahatziak ginituen zoko ilunetarik, gure orhoitak irakurri eztituen aire grabatuak ditu atheratzen. Ameslari ohartuago batek laster lagundu zuen neure baitan entzuten nuen musikaria, joiten zuena berehala ezagutua ukan ere gabe.

Senditzen nuen bada, haien gatik Balbec-eko elizari lehenago enetako zuen xoragarritasuna gehiago aurkitu enaukon arrazoinak etzirela bereziki Balbec-ekoak; Firenzen, Parmen ala Venezian, so egiteko etzuela gehiago ene idurimenak begien lekua hartzen ahalko. Hori sendi nuen; berdin-berdina, urthats arrats batez, ilunxean, iragarki zutabe baten aitzinean, aurkitua nuen zer lilluramena den besta egun batzu izaitez bertzeak ez bezalakoak direla uste ukaitea. Bizkitartean enezakeen egin aste saindua Firenzen iraganen nuela uste ukana nuen demboraz orhoitzeak jarraik etzezan hartaz Loren hiriko aro-airea izan baliz bezala egiten, Bazko egunari zerbait firenzetar emaiten, eta Firenzeri zerbait bazko-aire. Bazko astea urrun zen oraino; baina aitzinean hedatzen zizatan egunen lerroan, egun sainduak arteko egunen buruan argiago agertzen zizaztan. Arrai batek hunkiak, urrunera itzal argiz nahasirik ikusten den herrixka bateko etxe batzu bezala, iguzki guzia berekin zadukaten.

Aroa eztiagotua zen. Aitamek berek, ibil nindadin aholkatuz, bazemataten ene goizeko atheraldietan jarraikitzeko estakurua. Gelditu nahi ukanak nituen, hetan Guermantes-ko Anderea aurkitzen nuelakotz. Baina hortako bereko nuen hain zuzen beti Guermantes-ko Anderea gogoan, horrek aurki-arazten baitzautan ordu oroz ibiltzeko arrazoin berri bat, Guermantes-ko Anderearekin ikustekorik ezer etzuena, eta errex sinets-arazten zautana, hura izan ezpaliz ere, enintzala ordu hartan gutiago ibiliko.

Ondikotz! enetako hartarik edozein bertze jenderen aurkitzea ezpaikoa izanen baldin bazen, sendi nuen, harendako, nitarik bertze edozeinena jasangarri izanen zela. Gertatzen zen, haren goizeko ibilaldietan, agurra zozo andana baten ganik ukaiten zuela, eta horrela jujatzen zituenetarik. Baina haien agertzea, atsegin agiantza bat ezpazen, bederen halabeharraren ondorioa zen. Batzuetan geldi-arazten zituen ere, nor bere baitarik athera behar den orduak izaiten baitira, bertzeren arimaren ostatatzea onhartu behar ukaitekoak, arima hori, den xumea eta itsusia izan dadin, arima arrotza den ber, sumindurarekin sendi zuelarik ene bihotzean aurkituko zuena, ber-bera zela. Hortakotz, bide beraren hartzeko haren ikusteaz bertze arrazoin bat banuenean ere, iragaiten zen orduan ogendun bat bezala ikharan nindagon; eta batzuetan, ene aitzin-urratsek ukan zezaketen soberakinaren ezabatzeko, doi-doia nuen haren agurrer ihardesten, edo soa banemakon agurtu gabe, eta haren gehiago sumintzera baizik heldu gabe, eta gainera ozarra eta gaizki ikasia nintzala aurkitzen has-araztera.

Zaia arinagoak zituen orai, bederen argiagoak, eta bazoan karrikan beheiti, jadanik han, primadera baliz bezala, hotel zahar arixtokratiken aitzindegi zabaletan artekatu saldegi hertsien aitzinean, burra, fruitu, baratzekari saltzale emaztearen hegatz-pean, iguzkiari ihardokitzeko itzalkari batzu hedatuak baitziren. Banion neure baitan ibilki urrundik ikusten nuen emaztea, iguzkitakoaren zabaltzen, karrikaren iragaiten, ezagulek ziotenaz, orduko edergile handiena zela mogimendu horietan eta horietaz ezin goxoagoko zerbaiten egitean. Bitartean aitzinatzen ari zen: aiphamen barreatu hortaz jakingabean, horri gogor eta ezer hartua ukan gabe, haren soin hertsia, zeta gurutzatuzko xarpa ubelaren azpian zeharka arkutua zen; begi mutiri argiak ohargabean aitzinera so zauden eta ikusia ninduketen; ezpain izkina ausikitzen zuen; banakusan mankerdiaren goititzen, behartu bati amoina emaiten, merkatari bati briolet floka baten erosten, margolari handi bat pinzel ukaldi emaiten ikusiko nuen oharpen berarekin. Eta, ene heinera heltzean, agurtzen ninduenean batzuetan irriño mehe batekin, enetako, eskaintza bat gaineratuz, marrazki margotu bat egina ukan balu bezala zen, nagusi-lan bat zena. Haren zaia bakoitza aro-ingurumen natural, beharrezko bat bezala agertzen zizatan, arimako itxura berezi baten igortze bat bezala. Barazkariz hirira zoan garizumako goizetarik batez, aurkitu nuen balusa gorri-argizko zaia batean, lephoan arinki idekian. Guermantes-ko Anderearen begitarteak iduri zuen ile horien azpian ametsetan ari. Ohian baino gutiago trixte nintzan itxuran erakusten zuen gogo-ilundurak, margoaren bortitzak haren eta gainerateko munduaren artean ezartzen zuen halako heste batek emaiten zaukotelakotz segurtatzen ninduen zerbait zorigaitzeko eta bakartu. Zaia hori iduritzen zizatan ezagutzen enuen eta behar bada konsolatu ahalko nuen bihotz baten arrai gorri-bizien gauzatzea haren inguruan; uhain eztituekilako oihalaren argi miztikan gerizatua, lehen aro girixtinoetako emazte saindu zenbait gogoratzen zautan. Ene soaz martira horren lastimatzeak ahalgetzen ninduen. "Baina ororen buruan, karrika guziena da".

"Karrika guziena da" egiten nuen berriz hitz horier bertze erran-nahi bat emanez eta miretsiz, usu euriz bustia zen karrika jendetsuan eta batzuetan Italiako hiri zaharretan den bezala baliosa bilakatzen denean, Guermantes-ko dukesak

horrela bizi publikoarekin nahas zitzan bere bizi segeretuzko ephe batzu, bere burua horrela bakoitzari erakutsiz, mixterioz inguratua, ukondoaz orok hunkia, nagusi-lan handien urritasun miragarrian. Goizean atheratzen bainintzan gau osoa atzarria egonik, aitamek erraiten zautaten apur bat etzan nindadin eta loa bila nezan. Edireiten jakiteko ezta gogoetatze ainitzen beharrik, baina ohidura biziki baliagarri da, eta gogoetatze gabea ere. Bada, oren hetan, biek huts egiten zautaten. Lokhartu aitzinean hain luzaz nuen gogoetatzen nun, lokhartu eta ere, gogoeta apur bat gelditzen baitzizatan. Etzen leinuru bat baizik ilunbe abantzu osoan, baina aski zen ene loan lehenik lokhartzen enintzalako ideiaren leinuru baten itxura-arazteko, eta gero, leinuru horren leinurua, lotarik nuela lo enintzalako ideia ukana, gero, zeharkadura berri baten bidez, atzartzen nintzala … bertze lo batera, hartan nahi bainuen erran ene gambaran sartuak ziren adixkide batzuer, arestian lo egitean, enintzala lo uste nuela. Itzal horiek doi-doia hauteman zaitezkeen; oharmeneko xorroxtasun handi eta ontsa debaldeko bat beharko zen gogoan horien hartzeko. Horrela gero, Venezian, iguzkia etzan eta ontsa berantago, osoki gaua dela iduri denean, ikusi ditut, urbidetan azken argi nota beti eta beti - ikuspeneko pedala zenbaiten ondorioaz bezala - atxiki baten oiharzun alta ezin ikusiari esker, palazioen leinuruak balusa beltzagoan betiereko bezala hedatuak uren ilunabarrezko beltzuriaren gainetik. Ene ametsetarik bat idurimenak, atzarrian, ainitzetan haien itxuratzea bilatua zautanaren, itsas-eskualde berezi baten eta haren iragan ertarotarraren, batera biltzea zen. Lotarik hiri gothiko bat ikusten nuen, eliza-berina batean bezala uhain gelditu batzuekilako itsaso baten erdian. Itsas-adar batek hiria bi zatitan mozten zuen; ur muskerra ene oinetan hedatzen zen; ekhi-aldetako eliza bat bustitzen zuen haraindian, gero XIV-garren mendean oraino han ziren etxe batzu, hala nola nun hetara joaitea, adinetan goiti igaitea izanen baitzen. Naturalezak hartan ederlana ikasia zuen ametsa, itsasoa gothiko bilakatua zena, ezina gutiziatzen nuen, hartara helduko nintzala uste nuen amets hura, ainitzetan egina nuela iduri zizatan. Baina lotarik asmatzen denaren berezitasuna iraganean errepikatzea baita eta, berria izanez ere, ezagutzen dela iduritzea, huts egina nuela uste ukan nuen. Ohartu nintzan aldiz, amets hori, alabaina, usu egiten nuela.

Loaren berezitasunak diren ttipitzeak enean itxuratzen ziren, baina iduripenezko moldean: ilunbean enezakeen hor ziren adixkiden begitartea ikus, begiak hetsirik lo egiten baita; ni ametsetarik elhez neure buruari ethengabe arrazoinamenduz ari nintzana, adixkide horier mintzatu nahi nindeien orduko sendi nuen soinua zintzurrean gelditzen, lotarik ezpaita argiki elhekatzen; hetara joan nahi nuen eta zangoak enezazkeen higi, ezpaita ere lotarik ibiltzen; eta bapatez haien aitzinean agertzeko ahalge nintzan, buluzirik lo egiten baita. Berdin, begiak itsu, ezpainak loturik, zangoak estekan, soina buluzia, ene loak berak igortzen zuen loaren itxurak iduri zuen Giotto-k hetan Gutizia suge bat ahoan margazkitua duen eta Zuanek emanak zauztan alegoriazko itxura handi hetarik bat.

Saint-Loup Parisera ethorri zen zenbait orenendako bakarrik. Bere gusiari nitaz mintzatzeko aldirik etzuela ukana segurtatzen zautan batean: "Eztuk batere gixakoa, Oriana, erran zautan, bere burua lañoki salatuz, aldatu dautaie. Hartaz axola hadin eztikala balio segurtatzen haut. Biziki ohore sobera egiten daukok. Ene

andere gusi Poitiers-i aitzinera hezatan eztuk nahi? horrek atseginik batere eman etzezatakeela buruari eman gabe. Horra andere gazte bat adimenduna eta laket hukeena. Ene gusia ezkondua dik, Poitiers-ko dukea, mutiko on bat, baina harendako doi bat xoila. Hitaz mintzatu nakok. Ereman hezakotan galdegin dautak. Oriane baino ontsa pollitagoa duk eta gazteago, norbait gixako, badakik, beharbezalako norbait." Erran-molde horiek Robert-ek berrikitan - eta are gehiago suharki - hartuak zituenak ziren, anderea jite minbera batekoa zela erran nahi baitzuten. "Dreyfus-tiarra dela ezteat erraiten, haren ingurumena behar duk ere gogoan ukan, baina ororen buruan erraiten dik: "Ogengabe baldin bada, Debruaren irlan izan dadin zer itsuskeria!" Hartzen duk, ez? Eta gero azkenean bere errientsa ohiendako ainitz egiten dikan jendea duk, zerbitzuko mailaldetik igan-araz daiten debekatua dik. Hitz emaiten deat, jende biziki beharbezalakoa duk. Orianek eztik egiazki maite bera baino adimendunagoa dela sendi baitik."

Françoise, Guermantes-tarren mutil batek emaiten zaukon urrikiaz hartua izanik ere - ezpaitzaitekeen bere ezkongaiaren ikustera joan, Dukesa jalgia zenean ere, hori etxezaindegiaz berehala salatua izanen baitzen -, bihotz-erdiratua izan zen Saint-Loup-en ikustaldian ez hor gertaturik, orai hura ere ikustaldi egitera joaiten baitzen. Haren beharretan nintzan egun guziez huts egin gabe jalgitzen zen. Beti anaiaren, ilobaren ikustera joaiteko, eta oroz gainetik zuela guti Parisera ethorria zen bere alabaren. Françoise-ek egiten zituen ikustaldi horiek familiakoak zirela jakiteak handitzen zuen jadanik haren zerbitzuez gabetua izaiteak bazematan nardatzea, aitzinetik ikusten bainuen bakoitzaz mintzatuko zela baitezpada egin behar diren gauza hetarik batez bezala, Saint-André-des-Champs-en erakatsi legen araura. Nehoiz enituen beraz haren desenkusak omore gaixto biziki zuzengabekorik gabe hartzen, mukurrura eremaiten baitzuen Françoise-en erraiteko moldeak, ez: "anaiaren ikusten izan niz, ilobaren ikusten izan niz", baina: "anaia ikusi dut, izan niz "laster batez" ilobari (edo "ene iloba harakinsari") egunonaren emaiten". Alaba aldiz, Françoise-ek nahiko zuen Combray-ra itzultzen ikusi. Baina hark, andere aphain batek bezala, hitz laburtu, baina arrunt batzuez baliatuz, zion Combray-n egoitera joan behar zuen astea ontsa luze idurituko zizakola *Intran*-a ukan ere gabe. Oraino gutiago zuen Françoise-ren ahizparen etxera joan nahi haren herrialdea menditsua baitzen eta "mendiak", zion Françoise-ren alabak *atsegingarri* hitzari erran-nahi itsusi berri bat emanez, "hori ezta atsegingarri". Méséglise-ra itzultzera etzaitekeen delibera han jendea "hain zozoa baita", han, merkatuan "kalakariek, mihiluzek" harekilako ahaidego bat edirenen baitzuten eta elgarri erranen: "No, eztuna bada Bazireau zenaren alaba?" Han jartzera itzuli baino hil nahiagoko zuen, "orai Parisko bizitik jastatu eta"; Françoise, "tradizionalixta", irriñoz ari zen alta lausenguekin "paristarsa" berriak erakusten zuen berrikuntzako gogoaz erraiten zuenean: "He bada, ama, atheratzeko egunik ezpaldin baduzu, posta-mezu baten igortzea aski dautazu."

Aroa berriz hoztua zen. "Athera? zertako? sekulako baten biltzeko", zion Françoise-ek etxean egon nahiago baitzuen alaba, anaia eta harakinsa Combray-n egoitera joanak ziren astean. Bertzela ere, fisikari doakonaz izaba Leonie-k zuen dotrinaren azken alderditiarra, sasoinez kampoko aro horietaz mintzatzean

Françoise-ek gaineratzen zuen: "Jainkoaren hiraren ondarkina!" Baina haren zinkuriner enauen ihardesten irriño ahulduraz bete batekin baizik, iragarmen horiendako are gehiago axolagabea nun, zer nahi izanik ere, eguraldi izanen baitzen enetako; banakusan jadanik Fiesolako munhoan goizeko iguzkia argitan, berotzen nintzan haren arraietan; zuten indarrek bortxatzen ninduten irriñoz betespalen erdihestera eta idekitzera, eta, harbizi-xurailezko beilargi batzu bezala, leinuru gorraxta batez betetzen ziren. Etziren bakarrik ezkilak Erromatik itzultzen, Italia bera zen haiekin ethorria. Etzuten ene esku leialek lore eskasa ukanen lehen egina nukeen bidaiako urteburuaren ohoratzeko, ezen, Parisen aroa berriz hoztua zenetik, bertze urte batez garizuma azkenean abiatzeko antolamenduen orduan, itsasgaztainondoak mainatzen zituen aire busti hormatuan, karrika handietako platanek, etxeko korroilako zuhatzak, orstoak jadanik erdi-zabaltzen zituzten, ur garbi kopa batean Ponte-Vecchio-ko lilipek, jazintek, primadera liliek bezala.

Aitak erran zaukun A. J.-en ganik bazakiela orai Norpois-ko Jauna nora zoan etxean aurkitzen zuenean.

- Villeparisis-ko Anderearen etxera doa, biziki ontsa ezagutzen du, enakien batere. Hauteko jende bat omen da, emazte goren-goren bat. Haren ikustera joan behar huke, erran zautan. Bertzela ere, biziki ustegabetua izan niz. Guermantes- ko Jauna gizon osoki ikustate handikoa bezala aiphatu dauta: beti abre batentzat hartua nuen. Zer nahi ba omen daki, gostua ezin hobea, bakarrik bere izenaz eta ahaidez biziki burgoi. Baina ere, Norpois-ek dionaz, gaitzeko lerroan da, ez bakarrik hemen, baina Europa guzian. Austriako emperadorea, Errusiakoa adixkidantza osoan ari zazko. Norpois zaharrak erran dautak Villeparisis-ko Andereak biziki maite hinduela eta jende ohargarrien ezagutza egin hezakeela haren saloinean. Hitaz laudorio handia egin dautak, haren etxean aurkituko duk eta hiretako aholku onekoa izan laitekek izkiriatzeko gura baldin baduk ere. Ikusten baitiat eztukala bertzerik eginen. Hori bide ederra dela aurki daitekek, hiretako enian nik hori hautetsiko, baina laster gizondua izanen hiz, ezkituk beti hire ondoan izanen, eta eztiaguk hire deia trabatu behar.

Izkiriatzen hasi ahal ukan banu, bederen! Baina, langai horri zein ere kondizonetan lot nakidion (alkoholarik ez edatekoari bezala, ondikotz!, goizik oheratzekoari, lo egitekoari, osagarrian izaitekoari), izan zadila suhartasunekin, behar den moldean, atseginez, ibilaldi bat utziz eta saritako erresalbatuz, osagarri oneko oren batez baliatuz, azkenean ene indarretarik beti jalgitzen zena, orrialde zuri bat zen, idazki oroz garbi, ezinbertzelakoa, jokaldi batzuetan halabeharrez azkenen hartzen den bortxazko karta hura bezala, jokoa aitzinetik zein nahi moldetara nahasia ukanik ere. Zer gosta ere eginak izan behar zuten lanean ez artzeko, ez etzateko, ez lo egiteko ohidura batzuen tresna baizik enintzan; ihardokitzen ezpaldin banauen, egun hark eskaintzen zauen lehenbiziko gertalditik hartzen zuten estakurua aski baldin bazizatan bere nahitara egiten uzteko, damu gehiegirik gabe atheratzen nintzan, gau azkenean oren zenbaitez atseden hartzen nuen hala ere, apur bat irakurtzen, behar baino gehiagokorik ez sobera egiten. Baina nahi banauen kontra egin, ohean goizegi sartzeko gogoa ukan, ez urik baizik edan, lan egin, sumintzen ziren, bide handietara hel egiten zuten, osoki eritzen ninduten,

alkohola izaria behar nuen bikundu, enintzan bi egunez oheratzen, enezakeen irakur ere, eta neure baitan hitzemaiten nuen bertze aldi batez arrazoin gehiagokoa izanen nintzala, erran nahi da gutiago zuhur, ebatsia izaitera uzten den bitima bat bezala, beldurrez eta, ihardokitzen badu, erahila izan.

Anartean aitak Guermantes-ko Jauna aldi bat edo bietan aurkitua zuen, eta orai Norpois-ko Jaunak dukea nor nahi ez bezalako gizon bat zela erranik, haren erraner hobeki behatzen zuen. Hain zuzen, korroilan, Villeparisis-ko Andereaz mintzatu ziren. "Haren izaba zela erran dauta; Villeparisi ahozkatzen du. Adimenduz ohigabekoa dela erran du. Gaineratu du ere *izpirituko bulego* bat bazadukala", egin zuen oraino aitak, orhoitzapen batzuetan bizpahirur aldiz bada irakurria zuen itzuli horren argi eskasaz hunkia, baina erran-nahi berezirik eman gabe. Amak hainbat errespetu zuen harendako nun, Villeparisis-ko Andereak izpirituko bulego bat atxik zezan etzizakola gauza orobatekoa ikusiz, uste ukan baitzuen hori zerbait handi zela. Nahiz bazakien betidanik amatxiren ganik markestsak xuxen-xuxena zer balio zuen, hartaz berehala ideia hobea hartu zuen. Amatxi, apur bat ez ontsan baitzen, etzen hastapenean ikustaldi horren alde izan, eta gero etzen axolatu. Gure bizitegi berrian ginenaz geroztik, Villeparisis-ko Andereak galdegina zaukon aldi bat baino gehiagotan ikustera joan zakidion. Eta beti amatxik ihardetsia zuen ordu hartan etzela atheratzen, ohidura berri eta hartzen ezkinuen batean, berak ehoiz gehiago hesten etzituen eta egitera Françoise-ri uzten zauzkon eskutitz hetarik batean. Neure aldetik, "izpirituko bulego" hori zer zen ontsa gogoan hartu gabe, enintzan biziki ustegabetua izanen Belbec-eko andere xaharra "bulego" baten aitzinean jarririk ikusteaz, hori baitzen, bertzela ere, gertatu.

Aitak nahiko zuen gainera jakin Embaxadorearen laguntzak Institut-ean boz ainitz ekharriko zaukonez hartara idego libroan aitzineratu gogo baitzuen. Egia erran, Norpois-ko Jaunaren laguntzaz dudatzera ausartzen etzen batean, etzuen alta segurtasunik. Mihi gaixto batzuekin solastatzen zela uste ukana zuen minixterioan errana zaukotelarik Norpois-ko Jaunak, han Institut-aren ordari bakarra izaiteko gutizian, ahal zituen traba guziak eginen zituela galdegite bati, bereziki eragozpenean ezarriko baitzuen, ere, bertze baten laguntzen ari zen ordu berean. Bizkitartean, Leroy-Beaulieu Jaunak aholku eman zaukonean aitzinera zadin eta zer zori zukeen karkulatu, ustegabeturik izana zen, aldi hortan bere kargukiden artean alde ukan zezazkeenen artean, ekonomixta gorena zen Norpois-ko Jauna etzela aiphatua ikusiz. Aita etzen embaxadore ohiari zuzen galdearen egitera menturatzen, baina itxarotzen zuen Villeparisis-ko Anderearen etxetik haren hautu eginarekin itzuliko nintzala. Ikustadi hori hurbil-hurbildua zen. Norpois-ko Jaunaren laguntza, aitari Akademiako hirur laurdenen segurtatzeko ahalduna, are gehiago ukan zaitekeena iduritzen zizakon nun Embaxadorearen gogo ona aiphatua baitzen, gutienik maite zuten jendek aithortzen baitzuten nehork etzuela zerbitzu emaitea hark baino gehiago maite. Eta bertzalde, minixterioan haren gerizapena aitarano hedatzen baitzen bertze edozein kargudunera baino ara biziki ageriagoan.

Aitak bertze aurkitze bat egin zuen eman baitzauzkon, horrek, ustegabetze bat, gero sumindura bat ezin handiagoak. Karrikan Sazerat Anderearen ondotik iragan zen, hunen behartasun hein batekoak Parisen bizitzea, andere adixkide baten

etxean egonaldi labur batzuen egitera aphurtzen baitzuen. Nehork etzuen aita Sazerat Andereak bezainbat aspertzen, hainbaterano nun amak behar baitzaukon urtean behin erran mintzo ezti othoizle batekin: "Oizu, behar nuke bada Sazerat Anderea aldi batez gomitatu, ezta berant geldituko" eta ere "Oizu, zakrifizio handi bat eskatuko dautzut, zoaz Sazerat Andereari ikustaldi ttipi baten egitera. Zure aspertzea maite eztutala badakizu, baina hain gixako lizateke zure aldetik." Irri egiten zuen, apur bat samurtzen, eta ikustaldiaren egitera joaiten. Nahiz etzuen beraz Sazerat Andereak jostatzen, aurkitu zuenean, haren gana joan zen buru-hastuz, baina aitaren ustegabetze handitan, Sazerat Andereak agur hormatu bat aski ukan zuen, egintza gaixto batez ogendun edo hemendik goiti bertze lurralde batean bizitzera kondenatua den baten aldera jendetasunak bortxaturik emana. Aita etxera sartua zen gaitzitua, balditua. Biharamunean amak Sazerat Anderea aurkitu zuen saloin batean. Hunek eskua etzaukon eman eta irriño nahasi trixte bat egin haurzaroan harekin jostatu den norbaiti bezala, baina harekin adixkidantza guziak hautsi direnean bizia lizunkerian ereman duelakotz, edo galeriano batekin ezkondu edo, gaizkiago dena, diborzatu batekin. Beti danik bada aitamek estimu barnatuena bazuten Sazerat Anderearendako eta hunek haiendako. Baina, amak etzakien gauza, Sazerat Anderea, hortan bere motan bakarra, dreyfustiarra zen. Aita, Méline Jaunaren adixkidea, Dreyfus-en ogendurutasunaz segur zen. Omore gaixtoan haizatuak zituen auzi berri baten aldeko zerrenda baten izenpetzea galdegina zaukoten lagunkide batzu. Bertze bide bati jarraikia nindakola ikasi zuenean elhea etzautan zortzi egunez eman. Zituen aburuak ezagunak ziren. "Nazionalixta" bezala haren salatzetik etzen jendea urrun. Amatxik aldiz, bihotz onezko duda batek suhartu behar zuela iduri zuen familiako bakarra, Dreyfus ogengabea izan zaitekeela aiphatzen zizakon aldi oroz, erran-nahia orduan hartzen ezkinaukon buru higitze bat egiten zuen, gogoeta seriosago batzuetan nahastera jiten zakon norbaitena bezalakoa. Amak, aitarendako zuen amodioaren eta adimenduna izanen nintzalako esperanzaren artean uzitua, bazagon ixilaz emaiten zuen ezpai batean. Azkenean aitatxik, armada biziki maite baitzuen (nahiz guardia nazionaleko eginbeharrak adin batera heldua izan zeneko gauza gaixtoenak izanak zizazkon), Combray-n etzuen ehoiz erreximendu bat burdin-sare aitzinetik iragaiten ikusten koronelaren eta banderaren aitzinean buru-hastu gabe. Hori guzia aski zen Sazerat Andereak, errotik ezagutzen zuelarik aitaren bai aitatxiren abantail-nahi gabe 'ta ohorezko bizia, Bidegabearen esku-makilatzat har zitzan. Bakoitzaren gaizkiak barkatzen dira, ororenetan barne izaitea ez. Dreyfustiarren kontrakoa zela jakin zueneko, bere 'ta haren artean ezarri zituen munduak eta mendeak. Horrek egin zuen aroan eta eremuan hoinbertzetaranoko urruntasunean, aitari eman zaukon agurra huni ezin hautemana iduritu zizakola, etzituela eskuaren hunkitzea eta elhekatzea gogoan ukan, horiek ezpaitzituzten elgarretarik berexten zituen munduak iraganen ahal.

Saint-Loup-ek, Parisera jin beharrean, hitzemana zautan Villeparisis-ko Anderearen etxera eremanen ninduela, han bainuen, hari erran gabe, Guermantes-ko Anderea aurkituko ginuelako esperanza. Galdegin zautan ostatuan haren

maitearekin barazkal nindadin, gero bere errepikaldira eremanen baiginuen. Goizean haren bila joan behar ginuen, han bizi zen Parisko ingurunera.

Saint-Loup-i galdegina naukon barazkalduko ginen ostatua (ostatuak baitaduka, diru xahutzen ari diren aitorenseme gazten bizian, ipuin arabiarretan oihal khutxek duten bezain leku handia) izan zadin hautuz Aimé-k hara mahi-nagusi bezala sartu behar zuena Balbec-erako sasoina jin artean. Hainbat bidaia amesten eta hain guti egiten nuenarendako handizki xoragarri zen Balbec-ez nituen orhoitzapenetan baino gehiago Balbec-en berean barne zen norbaiten berrikustea, urte oroz hara joaiten zenaren; hark ikusten zuen, akhidurak edo ikastaldiek Parisen egoitera bortxatzen nindutenean, uztaileko arratsalde luzen buruan, jendeak auhaltzera jin artean, iguzkia jausten eta itsasoan etzaten jateko sala handiko berinategietan barna, haien gibelean, iraungitzen zen orduan, untzi urrun urdinen hegal geldiek iduri baitzuten berinape batean nunbaiteko pimpirin gauazkoak. Bera Balbec-eko otan indardunaren hunkitzeak otandua, mahi-nagusi hura bere aldian otan bilakatzen zen enetako. Uste nuen harekin solastatuz Balbec-ekin harremanetan nintzala jadanik, lekuan berean bidaiako xoramenetik zerbait ukana nuela.

Etxetik banindoan goizetik, han Françoise uzten bainuen zinkurinaka, mutil jantzi ezkongaia etzelakotz aldi bat gehiago, bezpera arratsean, bere emaztegaiaren ikustera joan ahal izana; etxezainaren zartatzera joaiter izana zen, baina bere buruaren jabe egona, bere lekuari atxikia baitzen.

Saint-Loup-en etxera heldu baino lehen, athe aitzinean ene beha baitzagokeen, Legrandin aurkitu nuen, Combray-z geroz begietarik galdua ginuena eta, orai dena urdinzuritua, bere itxura gazte xintxoa atxikia zuena. Gelditu zen.

- Ha! horra zu, erran zautan, gizon aphaina, eta ere soineko luzean! Horra ene libertateak onhar elezakeen jantzi bat. Egia da mundutar bat ziratekeela, ikustaldi egilea! Hilobi erdi barreatu baten aitzinean ameste egitera joaiteko, ene "lavallière" eta soinekoa eztira gaizki emanak. Zure arimaren gaitasun pollita estimatzen dutala badakizu; Jentilen artean arnegatzera ereman dezazun zenbat urriki dutan erraitea da. Ephe batez saloinetako aire usaindu, enetako ezin hats-hartuan egon ahal ukanez, zure geroaren kontra bademazu Profetaren kondenamendua, danazionea. Hori hemendik ikusten dut, "bihotz arinekin" zabilza, jauregietako jendekin; oraiko burjesiaren bizioa hori da. Ai! Arixtokratak, guzier burua ez mozturik Terrorea ontsa ogendun izana da. Oro zirtzil gaizkor batzu dira eztirelarik xoilki zozo ilun batzu. Azkenean, haur gaixoa, horrek jostatzen baldin bazitu! Zu *five o'clock* zenbaitetara joanen ziren bitartean, zure adixkide zaharrak zuk baino zorion gehiago ukanen du, ezen bazter-hiri batean bakarrik, zeru ubelean ikusiko baitu ilargi arrosa-kolorea jeikitzen. Hain herritik urrundua sendi nizan lur huntakoa enizala batere da egia; elgarr-ekharpeneko legearen indar guzia behar da hor ene atxikitzeko eta bertze borobil batera ez ihes egiteko. Bertze nunbaitekoa niz. Goraintzi, etzazula gaizki har Vivonne-ako laborari baten eta Danubio-ko laboraria gelditua ere denaren zintzotasun zaharra. Estimutan zadukatala phorogatzeko, igorriko dautzut ene azken elhaberria. Baina etzaizu gustatuko; ezta hondamenara aski emana zuretako, ez aski mende azkenekoa, zintzoegi da,

onestegi; zuk, Bergotte-tik behar duzu, aithortua duzu, atsegale xorrotxen ahosabai soraiotuendako den uztertutik. Zure multxoan soldado zahartu batendako hartzen naukete; izkiriatzen dutanean bihotzekoa denetik emaiteko ogena badut, ezta hori gehiago ezartzen; eta gero, jende xoilaren bizia, ezta aski aphain zure handiustexken hunkitzeko. Goazen, artetan Krixtoren erranaz orhoit zaite: "Hori egizu eta biziko zira." Goraintzi, adixkidea.

Legrandin enuen omore gaixtoegian utzi. Orhoitzapen batzu elgarren adixkide batzu bezala dira, akomeatze batzuen egiten badakite; hondamen feodal batzu metatzen ziren phentze urre-lorez banakatu baten erdira emana, zurezko zubi ttipiak batzen ginituen, Legrandin eta ni, Vivonne-aren bi bazterrak bezala.

Paris utzirik, han, aro lehena hasia izanik ere, karrika handiko zuhatzek doidoia baitzituzten lehenbiziko orstoak, hiri-inguruko treinak gelditu ginituenean, Saint-Loup eta ni, haren maitea bizi zen bazter-hiriko herrixkan, mira bat izan zen baratzeño bakoitzaren ikustea fruitu-ondo lilituen aldare zabalez ikurrineztatuak. Urtean behin biziki urrundik ikustera joaiten den lekuko besta berezi, poesiazko, iraupen gutiko hetarik bat bezala izan zen, baina hau naturalezak emana. Gerezi-ondoen loreak hain dira hertsiki abarrer lotuak, larru xuri bat bezala, urrundik usteko baitzen, abantzu ez loratu ez orstatuak eztiren zuhatzen artean, elhurra zela ikusten, bertzetan urtua, eta hor, zuhamuetan, gelditua oraino. Baina madari-ondo handiek etxe bakoitza, korroila bakoitza inguratzen zuten xuri zabalago, berdinago, argiago batez, herrixkako egoitza guziak, herskune guziak izan balire bezala, egun berean, lehen komunioneko.

Paris inguruetako herrixka horiek badaduzkate oraino bere athe-aitzinetan XVII eta XVIII-garren mendeko parke batzu, intendanten eta fagoratuen "erokeriak" izan zirenak. Baratzegile batek bide beherekaldean ezarria zen horietarik bat baliatua zuen fruitu-ondo batzuen jin-arazteko, edo berdin bakarrik aro hartako sagardoi handi baten itxura beiratua. Bortzanaka jin-araziak, madari-ondo horiek, bekanduago, ikusiak nituenak baino gutiago aitzinatuak, bazegizkiten, harresi zuri batzuez berezirik, lili xurizko laur kantoin handi batzu, haien alde bakoitzean argia ezperdinki margoztatzen baitzen, hala nola nun, aire beteko gambara hegaztegi gabe horiek guziek baitziduriten Ekhiaren Palaziokoak zirela, Kretan aurkituko zatekeen bezalakoarenak; gogoratzen zituzten ere urtegi bateko edo arraindegi edo ostrahazkuntza zenbaitetako zatitzen diren itsasalde batzuetako barneak, ikusten zenean, aldearen araura, argia espaldaderen gainera primaderako uretara bezala jostatzera jiten, han hemenka ixur-araziz, abarren sare argal urdinez bete 'ta dirdiratuan, lore iguzkitu eta haguntsu baten uhain xuritzera emana.

Lehenagoko herrixka bat zen, herriko etxe zahar erre urreztatuarekin, hunen aitzinean, iraulkako masta eta ikurrinetako, hirur madari-ondo handi baitzauden, herriko besta bateko bezala, satin xurizko banderak galanki hedaturik.

Robert ehoiz etzizatan bere maiteaz bidaia hortan bezain amultsuki mintzatu. Sendi nuen hunek zituela, bakarrik, erroak haren bihotzean; armadan zuen ethorkizuna, munduko egonara, familia, hori guzia etzizakon segurki guti, baina baliorik batere etzuen maitea hunkitzen zuten gauza ttipienen ondoan. Horrek bakarrik zuen xoratzekoa harendako, Guermantes-tarrek eta lurreko errege guziek

baino ezin gehiago xoragarria. Hura orotaz goragoko zerbaitez egina zela bere baitan erraiten zuenez eztakit, baina etzuen estimatzerik, axolarik, hura hunkitzen zuenarendako baizik. Haren ganik, oinazkatua izaiteko gai zen, zoriondun izaiteko, hiltzeko behar bada. Etzizakon zinez ohargarririk, ez sukargarririk, bere maiteak nahi zuena baizik, eginen zuena baizik, haren begitarteko hertsian eta bekoki hautatuan gertatzen zena eta gehien-gehienik itxura iheskor batzuetan ikus zaitekeena baizik. Saint-Loup, gainerateko guziko hain minbera, ezkontza handi bati beha zagon, haren arthatzen, atxikitzen jarraiki ahal ukaito bakarrik. Zenbatetarano estimatzen zuen galdez norbait egon baliz, uste dut ehoiz etzuela prezio aski gora bat asmatuko. Harekin ezpazen ezkontzen, hori zen ohiko asmu batek sendi-arazten zaukolakotz, hura Saint-Loup-en ganik jeusen beharretan izanen etzen orduko, utziko zuela edo bederen bere nahitara biziko zela, eta biharamunaren aiduru egoiteaz atxiki behar zela. Gogoan baitzuen hark etzuela behar bada maite. Maitasuna deritzoten orotako eritasunak, dudarik gabe, Saint-Loup bortxatu behar zuen - gizon ororendako badagien bezala - maite zuela artetan sinestera. Baina sendi zuen egiazki amodioak etzaukola hari debekatzen Saint-Loup-ekin diruaren gatik egoitea, eta hunen ganik ezer igurikatuko etzuen egunean (bere adixkide literaturakoen ideier jarraikiz eta Saint-Loup maite zuelarik, uste zuen) hark berehala utziko zuela.

- Egun eginen dakeat, gixakoa baldin baduk, erran zautan, laket ukanen dikan emaitza bat. Hori duk Boucheron baitan ikusi dikan lepho-gatina bat. Ordu huntan kharioxko duk enetako, hogei-ta-hamar libera. Baina gaixo maiteak, bizian eztik hainbertze atsegin. Ontsa loriatua izanen duk. Aiphatua zataian eta ezagutzen zian norbaitek behar bada eskainiko zakokala errana. Egia dela eztiat uste, baina zer gerta ere Boucheron-ekin entzuna nuk, ene familiako hornitzalea baita, beira dezatan. Ikusiko dukala gogoratuz zorion diat; begitartez eztut ohi ez bezalakoa, badakik (osoki kontrakoa zuela gogoan ikusi nuen bada eta etzuela hori erraiten ene miresmena handiagoa izan zadin baizik), badik oroz gainetik zentzu bat xoragarria; hire aitzinean eztuk behar bada ainitz mintzatzera menturatuko, baina gero hitaz erranen dautanaz aitzinetik bozkariatzen nuk; badakik, mugagabean barna daitezkeen gauzak erraiten 'tik, Pythia-renetik den zerbait badik zinez.

Hura bizi zen etxera heltzeko, baginoazen baratze ttipi batzuen ondotik, gelditu gabe enindagokeen, gerezi-ondoen lilitzeaz eta madari ondoen lorez lilluratzen baitzuten iduriz; atzo berean oraino hutsak eta egoilierrik gabe alokatua ezten egoitza bat bezala, bapatez jendeztatuak ziren eta bezperan ethorri berri horiez edertuak, burdin sare artetik zaia xuri ederrak ikusten zizezteela bidexken izkinan.

- Entzuk, horri guziari beha egon nahi dukanaz geroz, poetikoa izan, erran zautan Robert-ek, ez hadila hortik higi, ene maitea ondo-ondoan bizi duk, bila banoakek.

Haren igurikan nindagolarik, urrats zenbait egin nuen, baratze xume batzuen aitzinetik iragan. Buruaren goititzean, nexka gazte batzu ikusten nituen leihoetan; eta ere airera estai ttipi zenbaiten heinean, han ala hemen, arin eta malgu, bere jantzi malba-kolore frexkoan, ostailetan dilindan, lila mulko gazte batzu aireaz higitzera

uzten ziren, begiak haien berdurazko estai-arterano goititzen zituen ibiltzaleaz axolatu gabe. Hetan ezagutzen nituen Zuan Jaunaren parkeko sartzean ezarri harilgo ubelak, aro leheneko arratsalde beroetan, probinziako tapizeria xoragarri. Phentze batera emaiten zuen bidexka bat hartu nuen. Han aire hotz batek ufatzen zuen, Combray-n bezain mehea; baina, Vivonne-aren bazterrean izan ahal zaitekeen lur gizen, heze 'ta baserritarraren erdian, jeikia zen hala ere, bere lagunaldea bezala aurkitaldiko zuzen, madari-ondo xuri handi bat irriñotan inharrosten zituela eta iguzkiaren kontra emaiten, hunki zaitekeen argi gauzatuzko erridau bat iduri, bere lili haize arinaz daldarikatuak, baina arraiek leunduak eta zilharrez azukreztatuak.

Bapatez, Saint-Loup agertu zen bere maitearekin, eta orduan, harendako maitasun guzia, bizian ahal den eztitasun oro zen emazte hartan, haren nortasuna, mixterioz Tabernakle batean hetsia baliz bezala, ethengabe ene adixkidearen idurimenak zerabilan gauza zenean, nehoiz ezagutuko etzuela sendi zuenean, bere baitan nor ote zen bere buruari galdez zagonean, behakoek eta haragiak gordetzen zutenaren gibelean, emazte hartan ezagutu nuen berehala "Rachel quand du Seigneur", zenbait urte lehenago (emazteak mundu berezi hartan izanaraz aldatzen direnean hain laster dira aldatzen), makaelsari hau zion hura: "Beraz bihar arratsean, norbaitendako ene beharretan bazira, bila-araziko nauzu."

Eta "bila" jina zizakonean, alabaina, eta norbait horrekin gambaran bakarrik gertatzen zenean, berak zer nahi zuen hain ontsa bazakien nun, athea gakatu eta, emazte zuhurraren begirantzaz, edo erritoko jestuz, zalurik hasten baitzen soinekoen uzten, ikherr-entzutera heldu zaizun mediku baten aitzinean egiten den bezala, eta etzen artetik gelditzen "norbait" horrek, buluzia izaitea ez maitez, mantarra atxik zezakeela erraiten zaukonean baizik, sendatzale batzuek egiten duten bezala, beharria biziki xorrotxa ukanez eta eria hotz dadineko beldurra, aski baitzaie oihalaren azpitik hats-hartzearen eta bihotz joitearen entzutea. Bizi guzia, gogoetak oro, iragan guzia, beretua ahal zuten gizonak oro, gauza hain ezpaikoa zizatan emazte horri (hainbertzetarano nun, erran ukan balizata, ezpainuen jendetasunez baizik entzunen eta doi-doia hautemana ukanen bainuen), Saint-Loup-en khexua, oinazea, maitasuna emanak izan zizazkon, enetako mekanikazko jostagailu bat baizik etzenetik, mugagabeko oinazen gaiaren egiterano, izaitearen beraren saria. Bi gauza horiek elgarretarik bereziak ikusiz ("Rachel quand du Seigneur" emategi batean ezaguna nuelakotz), gogoan hartzen nuen gizonak haiendako bizi, oinazetan, hiltzen diren emazte ainitz, bere baitarik ala bertze batzuendako izan daitezkeela Rachel enetako zen gauza bera. Haren biziarendako jaikin-nahi mingarri bat sendi zaitekeelako ideiak balditzen ninduen. Haren etzankeria ainitz erran ahal nezazkokeen Robert-i, munduko gauza ezpaikoenak iduritzen zizaztanak. Eta zenbat zuten penatuko! Eta zenbat etzuen emanen haien ezagutzeko, hortara heldu gabe!

Emazte horrena bezalako begitarte zatiño baten gibelean giza-idurimenak - hunek baldin badu hastapenean ezagutu - ezar dezakeen guziari ohartzen nintzan; eta, bertze aldera, zein gauzazko eta balio oroz gabetu ekhai urrikalgarri batzuetan andea zaitekeen hainbat ametserien helburua zena, hori, aldiz, ezagutze arruntenaz hauteman izana baliz. Hogei libera balio etzituela iduritua zizatana han hogei libera

irabazi nahi zituen emaztea baizik etzen emategian hogei liberetan eskainia izana zizatan hark, gogoan hartzen nuen miliun bat baino gehiago balio ukan dezakeela, gutiziatzen diren lerro guziek baino gehiago, familiako maitasunek ere baino, hartan izaite mixteriozko baten asmatzetik hasi baldin bada, hura ezagutu nahi, eta hartzeko, atxikitzeko neke izanki. Aurpegi mehe 'ta hertsi bera ginuen dudarik gabe Robert-ek eta nik ikusten. Baina elgarrekin ehoiz gurutzatuko etziren bi kontrako bidetarik ginen hartara helduak, eta nehoiz ezkinaukon alde bera ikusiko. Aurpegi hura, bere soekin, irriñoekin, ahoaren mugimenduekin, nik kampotik ezagutua nuen hogei liberetan nahiko nuen guzia eginen zuen edozein emaztearena bezala. Hortakotz so, irriño, mugimendu horiek orotako egintza batzuen ikurrak idurituak zizaztan bakarrik, norberarenik zen ezer gabe, enuen ere haien azpian jende berezi baten bila joaiteko nahikariarik ukanen. Baina hastetik zerbait moldez eskainirik izan zizatana, begitarte baikor hura, Robert-endako hari buruz zenbat itxaropen, duda, aieru, ametsetan zehar bide egina zuen helgunea zen! Bai, miliun bat baino gehiago emana zuen, bakoitzari bezala eni hogei liberetan eskainirik izana zizatan hura etzadin bertze batzuena izan. Zer gatik etzuen sari hortan ukana, ephe bateko halabeharrez zela izan daiteke, hartan bere buruaren emaitera prest zela iduri zenak ihes egiten baitu, norbaitekin hitzartua izanez behar bada, edo egun hartan ukaiteko nekeago badagien arrazoin zenbaiten gatik. Sendimendura ekharri norbaitekin egin behar badu, bera ohartu ere gabe, baina oroz gainetik hortaz ohartzen baldin bada, izigarriko joko bat hasten da. Nahigabearen jasaiteko ahalik gabe, emazte hura gabe egoitekorik, berriz galdatzen du, hark ihes egiten, hala nola nun ukanen zuela uste etzuen irriño bat sariztatua izanen baita azken fagorek izan behar ukanen zuten baino mila aldiz gehiago. Orduan gerta daiteke ere, ukan denean, zentzuaren lañokeriazko eta oinazearen aitzinean beldurkeriazko nahaste batez, neska batez jainkosa baten egiteko erotasuna, azken fagore horiek, edo lehenbiziko musua bera, nehoiz eztirela ukanen, eztela ere horien galdegitera menturatzen amodio platoniko bateko segurantzen ez gezurtatzeko. Eta sofrikario handi bat da orduan biziaren uztea gehienik maitatu den emaztearen musua zer izan zaitekeen ehoiz jakin ukan gabe. Rachel-en fagoreak, Roberet-en ukan zuen alta guzien ukaiteko zoria. Eiki, orai jakin ukan balu luis batean orori eskainirik izanak zirela, izigarriki sofrituko zukeen, baina haien atxikitzeko miliun hura emanen zuen hala ere, jakina ukanen zuen guziak ezpaitzuen jalgi-arazten ahalko - gizonaren baitan balioa duena eztaiteke gerta harek nahi gabean baizik, naturako lege handi zenbaiten indarraz - hartan gertatzen zen bidetik, handik begitarte hura ezpaitzizakon agertzen ahal moldatuak zituen ametsetan baizik. Begitarte hertsi haren geldia, bi gaitzeko indarren artean zapatua den paper orsto batena bezala, iduritzen zizatan elgarrekin batu gabe, berezten baitzituen, helburua hartan zuten bi mugagabek heinkatua. Hari so egitean, Robert-ek eta nik, ezkinuen mixterioaren alderdi beretik ikusten.

Etzen "Rachel quand du Seigneur" gauza guti iduritzen zizatana, giza-idurimenaren indarra nuen, maitasuneko oinazeak hartan zatzaten lilluramendua nituen handiak aurkitzen. Robert-ek hunkia iduri nuela ikusi zuen. Begiak baratzeko madari eta gerezi ondoetara itzuli nituen, haien ederrak ninduela hunkitzen uste ukan zezan. Eta molde apur bat berdinean ninduen hunkitzen, ondoan ezartzen

zauztan ere begietarik bakarrik ikusten eztiren gauzak, baina bihotzetik senditzen direnak. Baratzean ikusiak nituen zuhamu horiek, jainko arrotz batzuentzat hartuz, enuena huts egina Madalenak bezala, bertze baratze batean, urtaburua laster jinen zen egun batez, giza-molde bat ikusi zuenean eta "baratzezaina zela uste ukan"? Urrezko adineko orhoitzapenen begirale, egiazkoa eztela uste dena agiantzatzeko berme, poesiaren ederrak, ogengabetasunaren mirazko argiak hartan dirdira dezaketela eta merezitzera indar eginen dugun saria izanen datezkeela, izaite handi xuri miragarriki gurtuak etzanaldiaren, arraintzaren, irakurtzearen alde zen itzalaren gainean, etzirena izaitekotz aingeru batzu? Hitz zenbait erran nituen Saint-Loup-en maitearekin. Bidea herrixkatik moztu ginuen. Etxeak sordesak ziren. Baina miseraulenen, gatzu euri batek erreak iduri zutenen ondoan, mixteriozko bidaiari bat, egun bateko hiri madarikatuan gelditua, aingeru bat distiran zutik zagon, bere hegal garbien gerizapen lilluragarria haren gainera zabalki hedatuz: madari-ondo bat lili flokan. Saint-Loup-ek urrats zenbait egina zuen enekin:

- Maite ukanen nian, hi eta ni, biak igurikan egon ahal gaiten, nahiago ukanen nian ere hirekin bakarrik bazkaltzea, eta bakarrik egoitea ene izabaren etxera joaiteko ordurano. Baina, ene maiteño gaixoari, hainbat atsegin emaiten dakek, eta hain duk enetako gixakoa, badakik, ezin dakeat ez erran ukan. Bertzela ere, gustatuko zaik, literaturakoa duk, hunki-errexa, eta gero hain duk gixako harekin ostatuan bazkaltzea, hain duk goxagarri, hain laño, guziaz beti askietsia.

Uste dut alta, goiz hartan hain zuzen, eta behar bada aldi bakarreko, Robert-ek ephe batez ihes egin zuela, maitatuz eta maitatuz, emeki moldatua zuen emaztetik, eta bapatez ikusi zuela, bere ganik zenbait urratsetan, bertze Rachel bat, haren iduri-idurikoa, baina osoki bertzelakoa, emazte arin bat. Sagardoi ederra utziz, Parisera sartzeko treinaren hartzera ginoazen noiz ere, garan, Rachel zenbait urrats gure aitzinean joanki, ezagutua izan zenean eta helatua bera zen bezalako "oilanda" arrunt batzuez, lehenik, ustez eta bakarrik zen, oihukatu baitzuten: "Rachel, no, gurekin igaiten hiz? Lucienne eta Germaine bagonean ditun eta oraino lekua badun hain zuzen; haugi, "skating"-era joanen gitun elgarrekin." Laguntzen zituzten bi "calicot"-en, bere maitalen aitzineratzera zoazen, noiz ere, Rachel-en itxura apur bat jenatuan, begiak ikusi-nahian urrunxago eman zituztenean, guri ohartu, eta desenkusatuz hari goraintzi erran, harek ihardesten zauela, apur bat eragozpenean baina adixkidetasunekin. Bi oilanda gaixo ziren, lepho inguruan ugadera larru falsu batzuekin, Robert-ek aurkitua zuen lehen aldian Rachel-ek zuen itxurakoak nunbait han. Etzituen ezagutzen, haien izena ere ez, eta maite zuenarekin biziki adixkide zirela ikustean, gogoratu zizakon hunek leku bat ukana ahal zukeeela, oraino bazuela ere behar bada, uste etzen bizi batean, orai harekin zeramanaren osoki ezperdin batean, emazteak luis batetan ukan zaitezkeen bizi batean. Etzuen bizi hori erdi-ikusi baizik, baina ere, horren erdian, ezagutzen zuenaz osoki bertze Rachel bat, bi oilandaxka horiek bezala-bezalako Rachel bat, hogei liberako Rachel bat. Oro har Rachel ephe batez harendako bikundua zen, bere Rachel-dik zenbait urratsetan ikusia zuen Rachel oilandaxka, Rachel egiazkoa, Rachel emazte arina bertzea baino egiazkoagoa zela erran badaiteke hala ere. Robert-ek gogoan ukan zuen behar bada orduan hartan bizi zen ifernutik, aitzinean ezkontza aberats baten

ikuspegi eta beharrarekin, bere izenaren saltzearekin, Rachel-i urtekara ehun mila liberaren emaiten jarraiki ahal ukaiteko, behar bada errex athera ahal izanen zatekeela, eta bere maitearen fagoreak ukanen ahalko, mutikoxka horiek bere neskatilenak bezala, gauza gutitan. Baina nola egin? Jeusetan etzen ogendun izana. Gutiago asebetea, gutiago gixako izanen zen, etzauzkon erranen, ez izkiriatuko hainbertze hunkitzen zuten gauzak eta espantu apur batekin laguner aiphatzen zezteenak, haren ganik zenbat gixako zen oharr-arazteko artha ontsa hartuz, baina ospez ordaintzen zuela erran gabe, ez eta nahi den guzia emaiten ere, argazki bateko eskaintza ala depexa baten bururatzeko hitza, molde labur eta baliosenean urretan aldatua zela. Rachel-en gixakotasun bekan horiek ordainduak zirela erraitetik beiratzen baldin bazen, elizateke zuzen - arrazoingabekeria hori erabilia izanik ere dirua badematen maitale guziendako, hainbertze senarrendako - norberaren aldeko maitasunez, handikeriaz zela erraitea. Saint-Loup aski adimenduna zen handikeriazko atseginak oro, munduan errex eta urrurik edirenen zituela ohartzeko, bere izen handiari esker, begitarte pollitari, eta Rachel-ekilako atxikimendua zela, aldiz, mundutik apur bat baztertua zuena, hartan gutiago arrakastan ezarria. Ez, maite denaren ganik hautetsia delako itxura ageriak kittorik ukaiten direla iduri nahi ukaiteko nor beraren alderako maitasun hori, xoilki amodioaren ondorio bat da, hainbat maite denaz maitatua dela bere buruari eta bertzer itxuratzeko beharra.

Rachel hurbildu zizaikun, bi emazteak utziz bere berexkunera igaiten; baina ez hauen ugadera falsuek eta gizonxken itxura ttinkiek baino gutiago, Lucienne 'ta Germaine-ren izenek zuten arte batez Rachel berri hori hor atxiki. Robert-ek ephe batez Pigalle plazako bizi bat asmatu zuen, adixkide ez ezagun batzuekin, irabaz-aldi zikin batzu, atsegin errexekilako arratsalde batzu, Paris hartan, karriken iguzkitzea Clichy-ko karrika handitik hasiz ezpaitzizakon iduritu bere maitearekin bazabilanean zen argi iguzkidun bera zela, ezen maitasunak, eta harekin bat badagien oinazeak badute, mozkortzeak bezala, gure baitan gauzen bertzelakatzeko indarra. Pariseren erdian, bertze Paris baten aierua bezala zuen ukan; Rachel-ekilako atxikimendua bizi bitxi bateko lehen ikustaldia bezala agertu zizakon, ezen Rachel harekin apur bat haren iduria zuen bezalako norbait baldin bazen, bere egiazko bizitik zati bat zuen bada bizkitartean Rachel-ek harekin eremaiten, eta zati baliosena ere Robert-ek emaiten zauzkon diruketa eroen gatik, bere adixkideak hainbat jelos-arazten zauzkoten gauza eta egun batez baserrira erretiratzera utziko ahalko zutena edo antzoki handietako jokari abiatzera, bere meta bildu eta. Robert-ek nahi zaukon maiteari galdatu Lucienne eta Germaine nor ziren, haiekin berexkunera igan baliz zer erranen zaukoten, nola iraganen zuten elgarrekin, hirurek, behar bada jostagailu goreneko bezala, "skating"-eko atseginen ondotik, Olympia-ko tabernan bururatuko zen eguna, hura, Robert, eta ni, hor izan ezpagine. Ephe batez Olympia-ko ingurunek, ordurano aspergarri iduritu izan zirenak, sustatu zauzkoten jakin-nahia, oinazea; eta Caumartin karrikara bazeman aro leheneko egun hortako iguzkiak, hara, behar bada, Robert ezagutu ezpalu, Rachel sarri joanen baitzen eta han luis bat irabaziko baitzuen, bihotz-ilundura nahasi bat eman zaukon. Baina Rachel-i galde egiteak zer balio zuen, aitzinetik bazakielarik ihardespena ixil bat izanen zela edo gezur bat edo Robert-i biziki mingarri izanen zizakon eta jeus

erakutsiko etzuen zerbait? Rachel-en bikuntze horrek gehiegi irauna zuen. Treinako langilek athexkak hesten ari zituzten, leheneko bagon batera igan ginen lehian, Rachel-en perla miragarriek berrikasi zaukoten Robert-i balio handiko emaztea zela, pherekatu zuen, bere bihotzaren barnera berriz sarr-arazi, eta hari beha egon zen, ordu arteo beti egina zuen bezala - margolari iduripeneko batek egin Pigalle-ko plazan ikusia zuen ephe laburrean salbu - eta treina abiatu zen.

Egia da "literaturakoa" zela. Liburuez mintzatzetik etzizatan gelditu, ederlan berriaz, Toltoi-en ideiez, Saint-Loup-i arno sobera edaten zuelakotz erasia egiteko baizik.

- Ha! urte bat enekin bizitzen ahal bahintz ikusiko zian, ura edan-araziko naukan eta ontsa hobeki hintzateke.

- Entzuna, goazen urrun-urrun.

- Baina ontsa badakik lan ainitz badiatala egiteko (antzertia seriosean hartzen baitzuen). Bertzela ere zer erran lezakek hire familiak?

Eta hasi zizatan Robert-en familiaz biziki zuzen iduritu zizaztan erasietan, haiekin Saint-Loup, xampañari zoakonaz Rachel-i desobeditzen zuen batean, osoki bat izan baitzen. Ni harendako arnoa hainbat beldurgarri zizatana eta ohaideak haren baitan zuen eragin ona sendi nuena, prest-presta nintzan familia utz zezan aholku emaitera. Nigarrak emazte gaztearen begietaratu ziren Dreyfuz-en aiphatzeko zuhurtzia gabea ukan nuenean.

- Gaixo martira, erran zuen hipa bat atxikiz, han hil-araziko dute.

- Gostuan ago, "Zezette", berriz jinen dun, libratua izanen, hutsa aithortua.

- Baina hura lehenago hila izanen! Haren haurrek izen garbia ekharriko die bederen. Baina zenbat sofritzen duen gogoan ukaitea, horrek nau hiltzen! Eta uste duzu Robert-en amak, emazte debot bat, badiola Debruaren irlan egon behar duela, ogengabe bada ere, eztea laztagarri?

- Ba, osoki egia duk, hori erraiten dik. Ama diat, erraitekorik jeus eztiat, baina segur duk eztikala Zezette-ren sendikortasuna.

Egiaz, barazkari horiek, "hain gauza gixakoak", ezin gaizkiago joaiten ziren beti. Ezen Saint-Loup-ek, bere ohaidearekin leku publiko batean gertatzen zeneko, uste zuen hura gizon guzier beha zagola, iluntzen zen, hura omore gaixto horri ohartzen, behar bada horren sustatzez jostatzen baitzen, baina, itxura gehiagorekin, bere alderako amodio zozoz, haren doinuaz gaitzitua, ezpaitzuen arindu nahi zuela iduri ukan nahi; holako ala halako gizona begietarik uzten ezpalu bezala egiten zuen, eta bertzela ere etzen beti joko hutsez. Alabaina, antzokian ala ostatuan haien auzoa zen jaunak, hartua zuten fiakrako karrosazainak bakarrik zerbait goxagarri baldin bazuen, Robert, bekaizkeriak ordu berean abisatua, maitea baino lehen ohartua zizakon; hartan berehala ikusten zuen Balbec-en aiphatuak zizaztan jende okaztagarri hetarik bat, emazteak jostatzeko gaixtatzen eta desohoratzen baitituzte, maitea othoi-othoizten zuen begiak hartarik aldara zitzan eta hortarik beretik hura erakusten. Bada, aurkitzen zuen Robert-ek batzuetan gostua hain ona ukana zuela bere aieruetan, nun haren khitzikatzetik gelditzen baitzen ere azkenean, soseguan izan zadin eta laster baten egitera joaitea onhar zezan ezezagunarekin solasean

sartzeko astiaren ukaiteko, ainitzetan harekin hitzartzeko, batzuetan ere lehiaka jostaldi baten hartzeko.

Ostatuan sartu orduko Robert-ek arranguratua iduri zuela ontsa ikusi nuen. Berehala ikusia baitzuen, Balbec-en ohartua ezkinakon gauza, Aimé-k, bere lagun arrunten erdian, bazemala, aurpegi arrai laño batekin eta ontsa nahi gabetarik, urte zenbaitez ileantze arin eta sudur greka batetik jalgitzen den hunkigarritasuna, hortik baitzen bertze zerbitzarietarik berexten. Hauek, abantzu guziak aski adinekoak, erakusten zituzten aphez gogo-falsu, kofesari elhe-zuri batzuen itxura-molde ohigabeki itsusi batzu, usuago antzokiko jokari zahar batzuenak, ezpaita gehiago haien bekoki azukarr-opil arakorik aurkitzen antzoki ttipi ahatzi batzuen ibildoki xumeki ixtoriokoetan baizik, han erakutsiak direla gelari mutil edo aita-saindu handi batzuen itxuratzen, eta ostatu hark iduri baitzuen, hautuzko biltze 'ta ondorezko izendatze bati esker, itxura-molde ospedun hori begiratzen zuela halako zotal bilzarre batean. Zorigaitzez, Aimé-k ezagutuak ginituen, hura zen gure manuaren hartzera jin, operetetako aphez handien lerroa bertze mahietara zoan batean. Aimé-k jakin nahi ukan zituen amatxiren osagarriaren berriak, bere emaztearen eta haurren berri galdegin naukon. Sutsuki eman zauztan, familiako gizona baitzen. Itxura adimendukoa zuen, gementsu, baina errespeturekin. Robert-en ohaidea so egiten hasi zizakon oharpen bitxi batekin. Baina Aimé-ren begi sartuek, lausotasun arin batek emaiten baitzauen barnatasun gorde bat, etzuten haren begitarte geldian sendimendurik batere agertzera uzten. Balbec-era jin baino lehen urtez eta urtez zerbitzu egina zuen probinziako hotelean, haren begitartearen orraze pollitak, orai apur bat akhitu eta horituak, eta hainbertze urtez leku berean ikusia zenak, hala nola Eugène printzea itxuratzen zuen grabadura bat, jateko sala abantzu beti hutsaren zolan, etzukeen behako ikusi-nahi ainitz bereganatua ukan. Beraz egona zen luzaz, ezagule eskasez agian, bere begitartearen edertasunezko balioaren jakingabean, eta ere horri oharr-araztera guti emana, jite hotzekoa baitzen. Gehien gehienik Paristarsa bidaiari zenbaitek, aldi batez hirian gelditurik, zerbitzu egitera gambarara jin zakidion galdegina zaukon treina berriz hartu baino lehen, eta senar on eta probinziako mutil horren bizi argal, beti berdin eta barnatuan, ezarria zuen gorderik ehoiz ehor agerian emaitera ethorriko etzen burutaldi biharamun gabeko baten segeretua. Bizkitartean Aimé ohartu zizakokeen antzokilari gazteak haren gainean begiak itzaturik zaduzkan hisiari. Hasteko Robert ohartu zizakon ikusten bainuen hunen begitarte azpian gorridura bat biltzen, ez bapateko bihotz-hunkidura batek gorri-belzten zuen bezala bizia, baina ahula, phorroskatua.

- Mahi-mutil hori biziki ohargarria da, Zezette? galdegin zaukon ohaideari Aimé aski idorki gibelera igorri eta. Iduri dun hartaz ikher-lan bat egin nahi dunala.

- Horra nun hasten den, segur nintzan!

- Baina zer hasten, haurra? Ogenean niz, eztut jeus erran, nahi bada. Baina badinat hala ere hire guardian ezartzeko dretxoa Balbec-ez geroztik ezagutzen dinatan mutilxka hortarik (hori ezpaliz ontsa futituko nindunan), lurrean ehoiz izan den gizatzarretan haindiena baita.

Robert-i obeditu nahi zuela iduritu zuen eta hasi zen enekin hura ere barne sartu zen literaturako solasaldi batean. Enintzan harekin mintzatzean aspertzen,

biziki maite baitzituen miresten nituen liburuak eta enekin nunbait han bat baitzen emaiten zituen aburuetan; baina Villeparisis-ko Anderearen ganik entzuna bainuen antzerik etzuela, enaukon haren jakitateari balio handirik eratxikitzen. Mila gauzez xorroxki irri egiten zuen, eta zinez goxagarri izanen zen sobera erakustera eman ezpalu nardatzeko moldez bilgune 'ta landegietako mordoiloa. Orotara hedatzen zuen ere, eta, behazunez, margazki batez, iduripenekoetarik bazen, edo opera batez, Wagner-en arakoetarik bazen: "Ha! *ongi* da" erraiteko ohidura harturik, gizon gazte batek beharrian musu emana zaukon egun batez, eta alegia ukana zuen ikharaño batez hura hunkia, xumearena egiten baitzuen, Rachel-ek erran zuen: "ba, sendipen bezala, *ongi* dela iduritzen zata". Baina oroz gainetik ustegabetzen ninduena hau zen: Robert-enak ziren erran-molde bereziak (eta hunek ere behar bada Rachel-ek maite zituen literaturatzale batzuetarik hartuak), bazerabiltzala haren aitzinean, eta hunek harenean, baitezpadako mintza-molde bat izana baliz bezala, eta guziena den berezitasun baten ezteusari ohartu gabe.

Jatean, eskuez malestruka zen, tauladan komediaren jokatzean ontsa moldegaizki egiten zuela aieru eman-arazteranoko heinean. Trebetasuna etzuen amodioko baizik berraurkitzen, gizona hainbertzetarano maite duten emazten aitzin-jakintza hunkigarriaz, berehala asmatzen baitute zerk daukon atsegin gehiena emanen haienetik alta hain bertzelakoa den soinari.

Solasaldian barne izaitetik gelditu nintzan antzokiaz hasi zirenean, gai hortan Rachel sobera gaizkinahia baitzen. Hartu zuen, egia da, urrikizko doinu batean - Robert-en kontra, hunen aitzinean usu jaukitzen zizakola erakusten baitzuen - Berma-ren alderdia, erranez: "Ho! ez, emazte bat miragarria da. Ageriki, ezkitu egiten duenak gehiago hunkitzen, ezta xuxen bilatzen duguna, baina behar da ethorri den orduan ezarri, ainitz zor daukogu. Ontsa diren gauzak egin ditik, badakik. Eta gero hain emazte gozoa da, hain bihotz handikoa, naturalki eztitu gogoa eratxikitzen dauzkuten gauzak maite, baina ukana du, aurpegi aski hunkigarri batekin, adimenduko gaitasun bat pollita." (Erhiek eztituzte ezthetikazko jujamendu guziak berdin laguntzen. Margolaritzaz ari denean, lan eder bat dela erakusteko, "pasta betean", behatzaren zutitzea aski da. Baina "gogoko gaitasun pollitak" gehiago behar du, bi erhi, edo izaitekotz bi azkazal, errauts bat jauz-arazi behar baliz bezala.) Baina, salbuespen hori eginik, Saint-Loup-en maitea jokari ezagunenez sumintzen ninduen doinu irkaiztun batean mintzo zen, uste nuelakotz - hortan huts eginez - hek baino ttipiagoa hura zela. Biziki ontsa ohartu zen jokari bierarteko batentzat hartzen nuela eta estimu ainitz banuela aldiz gaitzesten zituenendako. Baina etzen hortako gaitzitu, baita oraino ezagutua ezten antze batean, harena zen bezala, bere buruaz den segurra izanik ere, halako xumetasun bat, eta baitezpada nahi ditugun adeiak arautzen ditugulakotz, ez gure dohain gordetara, baina helduak giren heinera. (Antzokian ikusi behar nuen Robert-en ohaidea, oren bat berantago, hain lardeki jujatzen zituen jokari haier berer adei handi baten erakusten.) Hortakotz, ene ixilak hain duda guti utzi ukana gatik, etzen hala ere gutiago hisitu arratsean elgarrekin auhal giniten, nehoren solasa etzizakola enea bezain laket izana erranez. Ezpaginen oraino antzokian, barazkal-ondoan hara joan behar baiginuen, antzokilari zaharren potretek aphaintzen zuten "bildoki" batean ginela iduri ginuen,

hain zituzten mahi-mutilek galduak direla iduri duten lehengo jokari gizaldi batzuen itxurak; akademialari batzuen egitea zuten ere: alhase baten aitzinean gelditua, bat ari zen madari batzuen ikhertzen Jussieu-ko Jaunak ukanen ahal zituen aurpegi eta oharpen abantailnahi gabearekin. Bertze batzuek, haren ondoan, igortzen zituzten salara Institut-eko kargukide jadanik heldu batzuek publikoari egiten dituzten behako jakin-nahiaz eta hotzaz beteak, elgarri erranez entzuten eztiren elhe batzu. Ohituen artean omena bazuten jendeak ziren. Bizkitartean jin-berri bat erakusten zen, sudurra askatua, ezpaina elhezuri, Rachel-ek bere hizkuntzan "sankristia egiten" zuela baitzion, eta bakoitza bazagon hautatu berriari so. Baina laster, behar bada Robert-en joan-arazteko eta Aimé-rekin bakarrik gertatzeko, Rachel kheinuka hasi zen auzoko mahi batean adixkide batekin barazkaltzen ari zen molsalari gazte bati.

- Zezette, othoiztuko haut eztezanan gizon gazte horri horrela so egin, erran zuen Saint-Loup-ek begitartean arestiko gorridura arinak bilduak zizazkola ene adixkidearen aurpegia zabaltzen eta iluntzen zuen odolezko hedoi batera; ikuskarri egin behar baldin bagitun, nahiago dinat bakarrik bazkaldu eta hire igurikatzera antzokira joan.

Ordu berean Aimé-ri erraitera jin zizakon jaun batek othoizten zuela mintzatzera jin zakidion karrosako athexkara. Saint-Loup-ek, beti khexuan eta maitearendako amodiozko mezu zenbait izan zadin beldurrez, berinatik behatu zuen eta ikusi bere karrosa-motzaren zokoan, eskuak beltzaranez marratu eskularru xuri batzuetan tinkan, lore bat botoin-xiloan, Charlus-ko Jauna.

- Badakusak, erran zautan ahapetik, familiak hunarano goaita-arazten nik. Othoi, nik ezin dezakeat, baina mahi-mutila ontsa ezagutzen duk, segurraz salatuko baikitik, errakok eztadin karrosara joan. Bederen ezagutzen enikan mutiko batek egin dezala. Ene osabari erraiten badeie enautela ezagutzen, nolakoa den badakiat, kafean ikustera eztuk jinen, leku horiek hastiatzen ditik. Hala ere okaztagarri duk hura bezalako emaztekoi zahar bat, ez oraino gelditua, beti eta beti eskolatzera jin dakidiatan eta zelatatzera!

Aimé-k, ene manuak ukanik, bere mutiletarik bat igorri zuen ezin desarraña zaitekeela erran behar zuena eta, Saint-Loup-eko markesa galdegiten bazen, etzela ezagutzen. Karroxa berehala berriz abiatu zen. Baina Saint-Loup-en ohaidea, guk ahapetik erran solasak ezpaitzituen entzunak eta uste ukana baitzuen Robert-ek hari kheinu egiteaz erasiatzen zuen gizon gazteaz ari ginela, laidoka oihuz hasi zen.

- Horra bada! gizon gazte hori da orai? Aintzinetik erranez ontsa egiten duk; ontsa goxo da hola bazkaltzea! Etzaiztela erraiten duenaz axola, apur bat gaitzitua da eta gehienik, gaineratu zuen ene aldera itzuliz, hori dio aphain emaiten duela uste duelakotz, bekaizti iduri izaiteak jaun handi egiten.

Eta hasi zen esku-zangoekin zaintsueria seinale emaiten.

- Baina, Zezette, enetako dun gozagaitz. Jaun horren begietan irriegingarri egiten gitun, aitzin-urratsetan ari hizakola sinetsiko baitin, eta eni izan daitekeen esteusena iduritzen.

- Eni aldiz ainitz gustatzen; lehenik baditik begi batzu miragarriak, eta emazter so egiteko molde bat badie, sendi duk maite dituela.

- Ixil hadi, ni joana izan arteo bederen, egin zuen Robert-ek. Mutil, ene phuskak.

Jarraiki behar nindakonez enakien.

- Ez, bakarrik egoiteko beharra diat, erran zautan bere maiteari mintzatua zizakon doinu berean eta enetako berdin gaitzitua izana baliz bezala. Haren haserrea musikako aire ber bat bezala zen, hartan opera bateko ihardespen batzu kantatzen direnean, erran-nahiz eta araz elgarretarik osoki ezperdinak ixtorioan, baina sendimendu ber batean biltzen dituenak. Robert joana izan zenean, haren ohaideak Aimé deitu zuen eta huni xehetasun batzu galdatu. Gero nahi zautan nola aurkitzen nuen galdegin.

- Soa jostagarri du, eztea hala? Hartzen duzu, josta nindezakeena gogoan zer duen jakitea lizateke, ainitzetan hark zerbitzatua izaitea, bidaian eremaitea. Baina ez gehiago. Gustatzen zaizkizun jende guzien maitatzera bortxatua izan behar baliz, aski laztagarri lizateke oro har. Arranguratzez Robert-ek huts egiten du. Hori guzia, ene buruan moldatzen da eta han bururatzen, Robert-ek ontsa gostuan izan behar luke (Beti Aimé-ri so zagon.) Ori, so egizu zer begi beltzak dituen, azpian zer duten jaikin nahi nuke.

Laster jin zizakon Robert-ek gabinet berezi batera galdegiten zuela erraitera, hara joana baitzen, bertze sartze batetik, barazkariaren bururatzera berriz ostatutik iragan gabe. Bakarrik gelditu nintzan. Robert-ek deitarazi ninduen. Haren maitea ikusi nuen zofa batean etzana, emaiten zauzkon musu eta pherekuetan irriz. Xampaña edaten ari ziren; "Agur, zu" zion Rachel-ek artetan, berriki ikasia zuen itzuli hori xamurtasunaren eta izipirituaren azken hitza iduri baitzizakon. Guti barazkaldua nintzan, ez goxoan, eta, Legrandin-en hitzak hortan barne izan gabe, damu zizatan uda leheneko arratsalde hori ostatuko gabinet batean hasten nuela gogoan ukaitea, eta antzoki-gibel batean bururatuko. Orenari behaturik beranta ukanen etzuenez ikusteko, Rachel-ek xampañatik eskaini zautan, bere Orient-eko zigarreta bat eskaini eta enetako papotik arrosa bat hartu. Orduan erran nuen neure baitan: "Ene egunaz eztut urriki sobera ukan behar; emazte gazte hunen ondoan iragan oren horiek eztira galduak, baditutanaz geroz, garaziazko gauza ordaindu eztatekeena, arrosa bat, zigarreta usainondu bat, xampaña kopa bat." Banion hori oren aspergarri horier itxura ezthetikazko baten emaitea zela iduritzen zizatalakotz eta horrela horien zuzentzea, salbatzea. Gogoan ukan beharko nuen behar bada ene aspertzetik konsola nindezan arrazoin baten behar ukaite hori, aski zela ezthetikazko jeus enuela senditzen phorogatzeko. Robert-ek eta haren ohaideak aldiz, iduri zuten aitzinean ukana zuten aharraldiaz etzutela orhoitzapenik batere, ez eta ni lekuko izana nintzala. Batere etzuten aiphatu, hartaz desenkusatzea ez batere bilatu, ez eta arestiko egitatek oraikoekin zuten kontramoldeaz ere. Haiekin xampañatik edatearen bortxaz, Rivebelle-en sendi nuen moxkorreriatik apur baten senditzen hasten ari nintzan, ez osoki iduriz berdin-berdina. Ez bakarrik mozkor mota bakoitzak, iguzkiak edo bidaiatzeak emaiten duenetik akhiduraren eta arnoarenerano, baina mozkor grado bakoitzak, "ozka" berezi bat behar bailuke itsaso zoletako bezala, gutan buluzian ezartzen du, den barnatasun zuzen-zuzenean, gizon berezi bat.

Robert han zagon gabineta ttipia zen, baina aphaintzen zuen mirail bakarra halako moldean zen nun iduri baitzuen bertze hogei-ta hamar itxuratzen zituela, ethengabeko ikuspegi luze batean; arratsean kadre gaineko eletrika baso bera bezalako hogei-ta hamar leinuruen lerroaz jarraikiak, phiztua zenean, emaiten zukeen edaleari, bakarrik ere, inguruan zuen eremua gehitzen zelako ideia mozkorrak sustatu sendipenekin batean eta, barne ttipi hortan bakarrik hetsia izanez, hala ere nagusi zela "Parisko Baratzeko" bidexka bat baino, bere ethengabeko uztai argian, ontsa hedatuagoa zen zerbaitetan. Bada, ordu hartan edale hura izanez, mirailan bilatzen nuelarik, bapatez, ikusi nuen, hastiagarri, ez ezaguna, eni beha zagola. Mozkorraren bozkarioa higuntasuna baino azkarrago zen; alaitasun ala desafio, irriño bat egin naukon eta hark ihardetsi. Hainbaterano sendi nintzan ere sendipenak hain azkar diren minutaren men indardun iragankorrean, nun ezpaitakit ene trixtezia bakarra ez ote zen izan ikusi berria nuen "ni" higungarria behar bada bere azken egunean zela gogatzea eta arrotz hori ene bizi guzian ehoiz enuela gehiago aurkituko.

Robert gaitzitua zen bakarrik enuelakotz haren maitearen begietan gehiago distiratu nahi.

- Hea, goizean aurkitu dukan jaun hura, handi-ustekeria eta izar-jakintza elgarrekin nahasten dituen hura, hori errakok, enuk ontsa orhoitzen - eta hari beha zagon begi izkinatik.

- Baina, gaixoa, errana dukanaz jeus bertzerik erraiteko eztuk.

- Nardagarria hiz. Errazkik beraz Françoise-rekilako gauzak Champs-Elysées-etan, hainbat zakek gustatuko!

- Ho ba! Bobbey hainbat zata Françoise-ez mintzatu; eta Robert bidarretik hartzen zuela, berriz erran zuen, asmatze eskasez, haren bidarra argira ekharriz: "Egunon, zu!"

Antzokiko jokariak etzirenez geroztik enetako bakar-bakarrik, bere erranmolde 'ta jokoan, ederlaneko egia bat ukana zutenak, berez ohargarri zizaztan; jostatzen nintzan, ustez eta irriegiteko elhaberri zahar bateko jender beha nindagon, ikusiz, salan sartua baizik etzen jaun gazte baten aurpegi berrian, lehen jokari gazteak antzertian amodiozko aithorra egiten zaukon nexka gaztea oharrik gabe haren entzuten, hark aldiz, bere maitasunezko mintzaldiaren jarraikian, etzagolarik hala ere begi ukaldi sutsu bat igorri gabe ondoko egongia batean jarria zen andere zahar bati, hunen perla mireskarriek joa baitzuten; eta horrela, gehienik Saint-Loup-ek andere jokarien bizi bereziaz emaiten zauztan xehetasuner esker, banakusan bertze komedia bat, ixil eta errankorra, egiten zenaren azpian jokatzen, nahiz hark, bierarteko izanik ere, gogoa eratxikitzen zautan; sendi bainituen hozitzen eta oren batendako zabaltzen, taulada hegiko argian, jokari baten aurpegiari larru-thinduz eta kartoinezko bertze aurpegi baten lotzeaz, haren arima berezian jokaldi bateko hitzez eginak, atzerti bateko jokariak diren nortasun iragankor biziak, lilluragarriak ere, maite direnak, eta urrikalgarri, berriz ediren nahi lizatezkeenak, antzokia behin utzi eta, baina antzertian zuen izanara gehiago eztuen komedialari batean jadanik barreatu direnak, komedialariaren aurpegia baizik erakusten eztuen idazki batean,

oihalak ezabatzen duen erhauts kolorezkoan, berritzuli direnak, hitz batez, hetarik ezer eztuten gai batzuera, urtu direlakotz, ikuskarria bururatua den orduko, eta horren ondorioz, maite den norbaitez bezala, nor beraren izaiteaz dudan izaiten baita eta herioaz gogoetatzen.

Egingaietako zati bat ezin bihotzmingarriagoa izan zizatan. Rachel-ek biziki hastio zuen emazte gazte batek behar zuen egin hartan bere 'ta etxekoen itxaropen guziak ezarriak zituen hastapena kantu zahar batzuekin. Emazte gazte hark bazuen hankalde bat gotorregia, abantzu irriegingarria, eta mintzo pollit bat ttipiegia, hunkia izaiteaz ahuldua oraino eta ginarri-antze indartsu harekin kontra-emaiten zuena. Rachel-ek ezarriak zuen salan bere adixkide gizon eta emazte andana bat, hasi-berria behar zuten bere trufez khordokatu, herabea zela jakina baitzen, burua hari gal-arazi eta ophor osoa egin-arazi antzoki-buruak ezpaitzuen gero harekin antolamendurik eginen. Dohakabearen lehenbiziko notetako, ikusle batzu, hortako bilduak, hasi ziren irriz haren bizkarraren erakusten, zimarkuan barne ziren emazte batzu gora-goratik irriz, nota xirukatu bakoitzak hantzen zuela eskandalera itzultzen ari zen irritaldia. Dohakabeak, larru-thindu-pean oinazez izerditan, indar egin zuen ephe batez ihardokitzeko, gero han zirener inguruan igorri so lastimatu, sumindu batzu, uhuka ezpaitzuten bikundu baizik. Bertzek bezala egiteko jaidurak, izpiritudun eta beldurgabe agertzeko gutiziak jokoan sarr-arazi zituzten aitzinetik abisatuak etziren andere jokari pollit batzu, hala ere gaizkidetasunezko bekaldi batzuetan ari, irriz urratzen, karkaila bortitzetan, hala nola nun bigarren kantuaren buruko eta nahiz baziren oraino bortz, ikuskarriaren buru zenak erridaua jauts-arazi baitzuen. Indar egin nuen gogotik gertakari horren ezabatzeko, amatxiren oinazea banegien bezala osababitxiak, haren khitzikatzeko, aitatxiri koñakatik harr-arazten zaukonean, gaixtakeriako gogoa enetako mingarriegi baitzen. Alta, zorigaitzaren alderako urrikia behar bada biziki zuzen ezten bezala, idurimenaz berregiten baitugu zorigaiztunak, haren kontra ihardoki beharrez, eztuenean hunkia izaitea gogoan, berdin ere gaixtakeriak eztuke gaixtaginaren gogoan hain nehez asmatzen dugun abretasun huts atsegingarri hura. Herrak sustatzen du, haserreak emaiten alai denik ezer eztuten sumindura bat, ernetasun bat; zadizma behar lizateke hartarik atseginaren hartzeko, gaixtaginak uste du gaixtagin bat duela oinazka-arazten. Rachel-ek uste zuen segurki oinazkatua zuen kantaria ohargarri izaitetik urrun zela, hasteko hura uhuka-araziz, berak gostu ona zuela mendekatzen eta lagun gaixto bati ikastaldi bat emaiten. Hala ere, nahiago ukan nuen gertakari hori ez aiphatu, debekatzeko kuraiarik ez bihotzik ukana enuenaz geroz; bitimaz onean mintzatuz, hasi-berri horren burregoak sustatzen zituen sendimenduen iduri-araztea abretasunezko atseginer, mingarriegi izanen zizatan.

Baina ikuskarri horren hastapenak gogoa bertze molde batez eratxiki zautan. Saint-Loup Rachel-en bitima egiten zuen lilluramendua zer zen gogoan harr-arazi zautan, eta haren ohaideaz, Robert-ek eta nik, ginuen idurien artean leze bat ezarria zuena, goizean berean madari-ondo lilituen azpian ikusten ginuenean. Rachel-ek, antzerti ttipian, abantzu itxura xoileko jokaldi bat egiten zuen. Baina horrela ikusirik, bertze emazte bat zen. Begitarte bat bazuen urrun izaiteak - ez baitezpada antzokian, mundua ezpaita antzoki handi bat baizik - marrazkitzen duena eta, hurbil

ikusia izaiteak, phorroskan eror-arazten. Haren ondoan jarririk, etzen izar-hedoi bat baizik ikusten, zahi-titazko, uder ttipi-ttipizko esne-bide bat, bertzerik jeus ez. Heineko urruntasun batean, hori guzia etzen gehiago ikusten, eta, matela ezabatu, iretsietarik, jeikitzen zen, ilargi-adar bat bezala, sudur bat hain arina, garbia, nahiko baitzen Rachel-en oharra bildu, hura beti ikusi, nork bere ondoan ukan, nehoiz ezpaliz bederen bertzela eta hurbildik ikusi. Enintzan hortan, baina Saint-Loup hortan izana zen lehen aldian jokatzen ikusia zuelarik. Orduan egona zen nola hurbil zaitekeen galdez, nola ezagun, haren baitan jeikia zen mundu mirazko bat - Rachel bizi zen mundua - arrai ezin goxoago batzu emaiten zituena, baina hartan sartu ahalko etzena. Hori gertatua zen probinziako hiritik abiatu zen, zuela zenbait urte, bere buruari erranez hari izkiriatzea ero zatekeela, etzaukola ihardetsiko, bere fortunaren eta izenaren emaitera prest-presta, Robert-en baitan gauza ezagunegi horiek baino hain gorago zen mundu batean bizi zenari, gutiziak eta ametsak edertu batean, noiz ere, jokarien atheratzean, ikusi baitzuen athe ttipitik jalgitzen jokatuak ziren artixten multzo alaia xapelak polliki buruan. Ezagutzen zituzten gazte batzu hor zauden haien igurikan. Gizakien zenbakia molda dezazketen egitura-moldeak baino ttipiagoa izanez, ezagutzen ahal ziren jende guziek huts egiten duten sala batean, bat gertatzen da ehoiz berrikusi ahal ukaiteko aldia ukanen zela uste etzena eta hain ordu zuenean heldu dena nun helabeharrak probidenziakoa dela iduri baitu, bertze halabehar batek alta haren lekua hartuko baitzuen izan bagine, ez leku hortan, baina bertze batean, han bertze gutizia batzu sortuko zirenean eta hauen laguntzeko bertze ezagutza zahar bat gertatuko. Ametsaren urrezko atheak Rachel-en gainera berriz hetsiak ziren Saint-Loup-ek hura antzokitik jalgizen ikusi baino lehen, hala nola nun Rachel-en zahi titek eta uderrek balio gutti ukan baitzuten. Etzizazkon bizkitartean gustatu, are gutiago nun, ez bakarrik izanez, amets egiteko ezpaitzuen antzokiko ahal bera. Baina, nahiz etzezakeen Rachel ikus, hark zuen oraino Robert-en egintzetan manatzen, bere erakhartzeko indarraz gobernatzen gituzten izarrek bezala, gure begiez ezin ikusiak direnean ere. Hortakotz, Robert-en orhoitean gelditua etzen aurpegi xorrotxarekilako antzertilariaren gutiziatzeak ondoriotzat ukan zuen, halabeharrez hor zen lagun bati hel eginez, bere burua aitzinera-arazi zuela aurpegi gabeko eta zahi titekilako andereari, ber-bera zenaz geroz, bere baitan erranez bietarik komedialaria egiazki zein zen jakiteaz berantago axolatuko zela. Hura lehiatua zen, Saint-Loup-i etzizakon, aldi hortan, mintzatu ere, eta etzen egun andana baten buruan baizik, hark bere lagunak utz zitzan ukan eta, berriz harekin itzuli ahal izan. Jadanik maite zuen. Ametsaren beharrak, amets egin denaren bidez zorionean izaiteko gutiziak, egiten dute eztela dembora ainitz behar nork bere zorionerako zorien ezartzeko zenbait egun lehenago, antzoki bateko tauladan agerpen ustegabeko, ez ezagun, orobateko bat baizik etzenaren baitan.

Erridaua erori eta, tauladara iragan ginelarik, han ibiltzeaz herabetua, nahi ukan naukon Saint-Loup-i bizitasunekin mintzatu; horrela ene egonara, zein ukan behar zen ezpainakien leku enetako berri horietan, osoki gure solasaldian hartua izanen zen eta usteko zen hartan hain sartua nintzala, hain airean, nun behar nituen begitarteko itxurak ukan enitzan zuzen idurituko baitzen, guzia neure erranetan,

han nintzala doi-doia nakien leku batean; eta hartzen nuela, lehiatzeko, gertatzen zen lehenbiziko solaskaia:

- Badakik, erran naukon Robert-i, Doncières-tik abiatu hizan egunean hiri goraintzi erraiten izana nizala, horren aiphatzeko aldia behin ere eztiaguk ukan. Karrikan agurtu haut.

- Etzatakala aipha, ihardetsi zautan, lastimatua izana nuk; kasernatik hurbil-hurbila aurkitu gituk, baina enuk gelditu ahal izan bizki beranta bainian jadanik; dolu diatala segurtatzen haut.

Ezagutua ninduen beraz! Berriz ikusten nuen eskua kepira goitituz igorria zautan agur osoki nortasun gabekoa, ezagutzen ninduela salatzen zuen behako bat ere gabe, ezin geldi zaitekeelakotz urriki zuela agertzera eman zezan jestu bat ere gabe. Alabaina ordu hartan ukana zuen alegiazko itxurak, ez ene ezagutzekoak, gauza ainitz errextuak zauzkokeen. Baina hartan gelditzen hain laster jakina zuela eta nahigabeko seinale zenbaitek ukana zuen lehenbiziko iduripena agertu gabe, hortaz balditua nintzan. Ohartua nintzan jadanik Balbec-en, larruak hunkimendu batzuen bapateko jitea ikustera uzten zaukon begitarteko zintzotasun laño horren ondoan, erakaskuntzaz soina miragarriki hezirik izana zizakola beharbezalakotasunezko gordetze batzuetara eta, komedialari betegin batek bezala, erreximenduko bere bizian, bizi mundutarrean, jokaldi ezperdin batzu eman zezazkeela bata bertzearen ondotik. Jokaldi horietarik batean, barnatuki maite ninduen, enekin ari zen abantzu anaia batekin bezala; anaia izana zizatan, berriz hala bilakatua zen, baina ephe batez ezagutzen eninduen bertze norbait izana, eta, uhalak eskuan, begitako bakunarekin, so ez irriño bat gabe, eskua kepira goititua zuena eni behar den bezalako agur armadako baten emaiteko!

Haien artetik nindoan antzoki aphaindura oraino zutituak, horrela hurbildik ikusirik, moldatuak zituen margolari handiak arautuak zituen argiez eta urruntasunaz murriztuak, ezteusak ziren, eta Rachel-ek, hurbildu nindakonean, etzuen hondamenduzko indar gutiagokoa jasan. Sudur goxagarriaren hegalak, han nunbait geldituak ziren, salaren eta tauladaren artean, aphainduren jalguneak bezala. Etzen gehiago hura, enuen ezagutzen haren nortasuna hetara bildua zen begier esker baizik. Arestian hain dirdiran zen izar gaztearen argia itzalia zen. Aldiz, soa ilargira emaiten dugunean bezala eta guri gorraxtaz eta urrez agertzetik gelditzen denean, begitarte arestian hain leun hartan, enuen ikusten handitsu, orbain eta zilogunerik baizik.

Loriatua izan nintzan, hirian bezala agurtzen, solastatzen, pipatzen ari ziren andere jokarien adixkide jende mundutar eta gazetalarien erdian, gizon gazte baten ikustean, balusazko xanoa buruan, hortanzia koloreko zaian, matelak gorriz marratuak Watteau-ren albun orrialde batean bezala, hainbat iduri baitzuen, ahoa irriñotan, begiak zerura, ahurrez jestu garaziadun batzuetan eta arinki jauzika, maripulis eta soineko luzetan ziren jende arrasoinezkoetarik bertze mota batekoa, haien erdian jarraikitzen zela ero bat bezala bere amets gogo-erautzian, haien biziko arrangurer hain arrotza, kulturako ohirurak baino hain lehenagokoa, nun jenden artean galdu pimpirin baten ikustea bezain gauza atsedengarri eta frexkoa baitzen, frisen artean, haren jostaldi hegaldun, burutaldizko eta thinduztatuek marratzen

zituzten sifoaser begiez jarraikitzea. Baina ordu berean Saint-Loup-ek uste ukan zuen haren maitea ohartua zizakola agertu behar zuen libertimenduko jauzi baten errepikatzen ari zen dantzari horri, eta aurpegia ilundu zizakon.

- Bertze alde batera so egiten ahal huke. Badakin jantzari horiek eztinela balio gerruntzen hausteko hartara igaitea ontsa egin lezaketen soka, eta oharpen eman-arazi daunatela gero espantu egitera joaiteko jendeak ditun. Entzuten dun bertzela ere janztera hire egongiara abia hadin erraiten daunatela. Beranta ukanen dun oraino.

Hirur jaun - hirur gazetalari - Saint-Loup-en itxura haserretua ikusiz, hurbildu ziren, jostatuak, zer zioten entzuteko. Eta bertze aldean antzoki aphaindura baten zutitzen ari baitziren, haien kontra tinkatuak izan ginen.

- Oi! baina ezagutzen dut, ene adixkidea da, egin zuen Saint-Loup-en maiteak jantzariari behatuz. Horra ontsa egina dena, so egizue eskuño horier bere gainerateko guzia bezala jantzan ari.

Dantzariak burua itzuli zuen: egiazki nor zen ageri izaitera ari zen basa-jainkoaren azpian, begietako horma zuzen nabarra daldaratu zizakon eta betile thinduz gogortuen azpian dirdiratu, irriño batek ahoa bi aldetara luzatu zaukon aurpegi gorriztatuan; gero, emazte gaztearen libertitzeko, hartan miresten ginuela errana ginaukon aire bat lausenguz kantatzen daukun andere kantari bat bezala, ahurretako mugimenduaren egiten berriz hasi zen, berak bere sinoa eginez ihakin egile baten xorroxtasunarekin eta haur baten omore onean.

- Ho! gixakoegi da, nork bere buruaren imitatze hori, egin zuen Rachel-ek esku zartaka.

- Othoi-othoizten haut, haurra, erran zaukon Saint-Loup-ek doinu lastimatu batekin, heure burua etzanala horrela erakustera eman, hiltzen naun, hitz bat gehiago erraiten badun, hitzemaiten daunat ehautala egongiara laguntzen eta banoala; hea bada, etzanala gaixtoa egin. Ez hadila egon horrela zigarro khearen aitzinean, gaitz emanen dauk, gaineratu zuen ene aldera itzuliz Balbec-ez geroztik erakusten zautan artharekin.

- Oi! joaiten bahiz, zer zoriona!

- Jakin-arazten daunat enizala itzuliko.

- Uste ukaitera enuk menturatzen.

- Entzun, badakin, gixakoa bahintz lephoko gatina hitzemana daunat, baina hola egiten daunatanaz geroz …

- Ha! horra higanik ustegabetzen enian gauza bat. Agiantza bat egina hautan, atxikiko ehuela gogoan ukanez ontsa eginen nian; dirua badukala jo-arazi nahi duk, baina enuk hi bezala abantail-nahia. Hire lephokoaz futitzen nuk. Badiat norbait emanen dautana.

- Bertze nehork eztaun emanen ahal, Boucheron baitan atxikia dinat eta eztinala salduko hitzemana dautan.

- Hori duk bada, kantu egin-arazi nahi ukan dautak, behar diren guziak egin dituk aitzinetik. Hori die bada erraiten: Marsantes, *Mater Semita*, arraza usaintzen dik, ihardetsi zuen Rachel-ek hutsezko-erran nahi arrunt batean oinarritua zen hitz-ethorki bat errepikatuz, ezen *semita*-k "bidexka" erran du eta ez "judua",

nazionalixtek Saint-Loup-endako hori baitzuten erraiten zituen ideia dreyfus-tiarren gatik, andere jokariaren ganik ukanak zituenak alta. (Nor nahiri baino gutiago egoki zizakon Marsantes-ko Anderea judua zela erraitea, jende-jakintzaz ari zirenek etzaukotelarik judurik Lévy-Mirepoix-tarrekin zuen ahaidetasunaz bertzerik aurkitzen.) Baina eztuk dena hortan gelditzen, segur izan hadi. Kondizone horietan eman hitz batek baliorik batere eztik. Tradimenduz ari izana hiz enekin. Boucheron-ek jakinen dik eta hire lephokaren balioa, bietan emanen zakek. Ene berriak laster ukanen dituk, gostuan ago.

Robert-ek ehun aldiz arrazoin zuen. Baina gertaldiak hain dira beti nahasiak nun ehun aldiz arrazoin ukana duena aldi batez ogendun izan baitaiteke. Eta enintzan egon ahal izan Balbec-en ukan zuen hitz gozagaitz eta bizkitartean ontsa ogengabeaz orhoitu gabe: "Horrela badiat haren gainean burupe".

- Lephokoaz erran daunatana gaizki hartua dun. Enaunan garbiki hitzemana. Utz hezatan behar den guzia egiten dunanaz geroz, zuzen dun, bada, eztezanatan eman; hor tradimendua nun ikusten dunan eztinat hartzen, ez eta abantail-nahia. Dirua jo-arazten dinatala eztaiteken erran, beti erraiten denat sos bat ezinan gizagaizo bat nizala. Horrela hartuz huts egiten dun, haurra. Zertan nun abantail-nahia. Badakin ene abantail-nahi guzia, hi hizala.

- Baietz, baietz, jarraik hadi, erran zaukon irkaitzez, bizarra mozten dautzun baten jestua eginez. Eta jantzariaren gana itzuliz:

Ha! zinez, loriagarria da bere eskuekin. Ni emaztea nizanak, hor egiten duena enegike. Eta Robert-en aurpegi nahasia erakusten zaukola: "Behazak, oinazetan duk" erran zaukon ahapetik, bortiztasun zadika baten olde laburrean eta Saint-Loup-endako sendi zuen zinezko atxikimenduarekin batere arautua etzenean.

- Entzun, azken aldiko, ahal dunana egin dezakenala zin egiten daunat, zortzi egunen buruan munduko urriki guziak ukanik ere, enun itzuliko, untzia betea dun, guardi eman, eztun berriz errana izanen, egun batez dolu ukanen dun, berantegi.

Zinez ari zela badateke, eta ohaidearen uzteko oinazea haren ondoan kondizone horietan egoitekoa baino gutiago bortitza zizakola.

- Baina haurra, gaineratu zuen eni mintzatuz, ez hadila hor egon, erraiten deat, eztulka hasiko hiz.

Higitzea debekatzen zautan aphaindura erakutsi naukon. Xapela arinki hunki zuen eta gazetalariari erran:

- Jauna, etzinukea nahi zure zigarroa hil, kheak ene adixkideari gaitz egiten dauko.

Haren ohaidea, ezpaitzuen igurikatzen, bere egongiari buruz zoan, eta itzultzen zela:

- Emaztekin ere horrela egiten dutea, eskuño horiek? igorri zaukon jantzariari antzoki zolan, mintzoan xintxo baten soinu alegiaz goxagarri batekin. Emazte bat iduri duk hihaurekin, uste diat hirekin eta ene andere adixkide batekin ontsa akomea ginitazkekala.

- Pipatzea ezta debekatua, nik dakitanaz; eri denean, etxean egoitea aski da, erran zuen gazetalariak.

- Hasteko, jauna, etzira biziki gixakoa, erran zaukon Saint-Loup-ek gazetalariari, beti ikustatezko doinu ezti batean, bururatu den gertakari bat gibelera behatuz den bezala jujatua duen baten itxurarekin.

Ordu hartan ikusi nuen Saint-Loup buru gainera eskuaren goititzen ikusten enuen norbaiti kheinu egin balu bezala, edo orkeztrako buruzagi batek bezala; eta alabaina - sinfonia edo kantzaldi batean, xirita ukaldi xoil batez, "andante" goxo bati neurkada bortitz batzu jarraikitzen zezteenean baino iragaipen gehiagokorik gabe - erranak zituen elhe gortesen ondotik, eskua aurkidi zuen, zartako ozen batean, gazetalariaren matelara.

Orai diplomaziako solasaldi arautuer, bakeko lan alaier, gerlako olde abrea jarraikia zizaielarik, ukaldiek ukaldier hel egiten baitute, enintzan ustegabetuegia izanen etsaien ikustean odolean igerika. Baina gogoan har enezakeena (hala nola bi erresumen artean gerla bat gerta dadin muga zuzentzea oraino aiphatua ere eztenean, edo eri baten hiltzea etzelarik oraino gibelaren hantze batez baizik mintzo), hau zen: nola Saint-Loup-ek jarraik-arazia ahal zuen gixakotasunezko zerbait bazuten elhe horier, batere hauetarik jalgitzen etzen eta batere iragartzen etzuten jestu bat, beso horren goititzea ez bakarrik jenden zuzenbidea, baina arrazoinezko ondorioa gaitzetsiz, haserrearen sortze bere baitarikako batean, *ex nihilo* egin jestu hori. Zorionez gazetalariak, ukaldiaren bortitzean murtzitzen zela, histua eta ephe batez dudan egona, etzuen ihardetsi. Haren adixkidetan aldiz, batek burua aldaratua zuen antzoki-gibeletara oharpenekin behatuz alabaina han etzen norbaiti; bigarrenak erhauts bat begira sartu balizako bezala egin zuen eta betespalari zimikoka hasi oinazezko ihakin batzu eginez; herena abiatua zen, erranez:

- Jainkoa, erridaua goitituko dela uste dut, gure lekuak eztitugu ukanen.

Saint-Loup-ekin elhekatu nahiko nuen, baina hain zen jantzariaren kontrako suminduraz betea nun heldu baitzizakon zuzen ñiñiken azalean lotzera; barneko harmeria batek bezala, matelak thiran ezartzen zauzkon, hala nola nun barneko nahasmendua agertzera uzten baitzen aurpegiko geldi oso baten bidez, etzuen ene ganik hitz baten hartzeko eta hari ihardesteko ez laxadura, ez behar den "jokoa". Gazetalariaren adixkideak, guzia bururatua zela ikusiz, berriz haren gana hurbildu ziren, oraino ikharan. Baina, hura utzirik ahalgetuak, jeusetaz etzirela ohartuak baitezpada erakutsi nahi zuten. Ari ziren beraz bat bere begiko erhautsaz, bertzea erridaua goititzen ari zela ustez egina zuen hutsezko abisuaz, herena iragana zen norbaitek haren anaiarekin zuen egite ustegabekoaz. Eta omore gaixto apur bat ere erakutsi zaukoten haien sendimenduetan barne izana etzelakotz.

- Nola hortaz ehiz ohartu? Eztuk beraz ontsa ikusten?

- Horrek erran nahi dik guziak gapoin batzu zireztela, egin zuen murmurikatuz gazetalari zartatuak.

Berek hartua zuten alegia gezurtatuz, haren ondorioz beharko baitzuten - baina etzizaien bururatu - zer erraiten zuen hartzen etzutelako itxura ukan, hitz bat erran zuten horrelako gertaldietan ohikoa dena: "Horra nun suhartzen hizan, ehadila khexa, iduri duk lauhazkan abiatzera hoala!"

Gogoan hartua nuen goizean, madari-ondo lilituen aitzinean, Robert-en maitasuna "Rachel quand du Seigneur"-endako hartan jarria zen lilluramendua. Enintzan gutiago ohartzen aldiz maitasun hortarik sortzen ziren oinazer. Oren batez geroztik sendi zuena, alta gelditu gabe, apurka apurka gibelera bildu zen, haren baitan sartu, gune libro malgu bat agertu zizakon begietan. Biek antzokia utzi ginuen, eta lehenik urrats zenbait egin. Ephe batez gibelera gelditua nintzan han lehenago Gilberte jiten usu ikusten nuen Gabriel ethorbideko izkina batean. Zekunda zenbaitez sendimendu urrundu hetaz orhoitzera entseatu nintzan, eta Saint-Loup-en hatzemaitera nindoan lasterretan, ikusi nuenean jaun aski gaizki jantzi bat aski hurbildik hari mintzo iduri zuena. Robert-en adixkide berezi zenbait zatekeela egin nuen; bizkitartean elgarri hurbiltzenago zirela iduri zuten; bapatez, zeruan izar mugimendu bat agertzen den bezala, ikusi nituen arraultzarako borobil batzu zirurikan, Saint-Loup-en aitzinean, izar-multzo higikor baten egon-molde guzien hartzen. Abaila bat bezala botatuak iduritu zizatan bazirela zazpi. Etziren bizkitartean Saint-Loup-en bi ukhabilak baizik, multzo iduriz betegin bezain aphaintzale hortan lekuz aldatzeko zuten lehiak gehituak. Baina joko ikuskarri hori etzen Saint-Loup-ek emaiten zuen zampaldi bat baizik, eta zuen ez ezthetikazko baina oldartzezko moldea agertua izan zizatan berehala jaun aski gaizki jantziaren itxuratik, iduritu baitzuen galtzen zituela aldi berean egonara guzia, matel-hezur bat, eta odol ainitz. Gezurrezko xehetasun batzu eman zezteen galdekatzera hurbiltzen zizazkon jender, burua itzuli zuen, eta Saint-Loup bazoala behin betikotz ene aldera jiteko, hari so egon zen itxura aldi berean gorromioz bete 'ta aurdiki batean, baina ez batere haserretua. Saint-Loup aldiz hala zen, nahiz etzuen ukaldirik batere ukana, eta ene gana jin zenean begiak oraino haserrez dirdiran zituen. Ibilkari amoratu bat zen, Saint-Loup zen soldado ederraren ikustean, eskaintza batzu eginak zauzkona. Adixkidea harritua zen menturatzeko gauazko ilunbeak ere gehiago igurikatzen etzituen "klika" horren ausartziaz, eta eginak zizazkon eskaintzez mintzo zen berrikariek zuten sumindura berean, Pariseren erdian eskuak harmekin egina zen ohointza batez. Alta jaun zampatua desenkusagarri zen, malda batek gutizia aski laster gozatzera hurbiltzen duelakotz edertasuna bera jadanik baimen bat bezala agertzen baita. Bada, Saint-Loup ederra zela ezin ukhatua zen. Emanak zituen bezalako ukhabileko batzuek balio haur badute, arestian ondoratua zizakon mota hortako gizonendako: serioski gogoeta-araztekoa, baina bere burua onera ahal dezaten dembora gutiegikoa, eta horrela justiziako zigorretarik ihes egin. Hortakotz, nahiz Saint-Loup-ek bere zigorraldia biziki gogoetatu gabe emana zuen, mota bereko guziak, legeak laguntzen badituzte ere, eztira bizi-molden berdintzera heltzen.

Gertakari horiek, eta dudarik gabe gehienik gogoan zuenak, eman zaukoketen Robert-i apur bat bakarrik izaiteko gutizia. Ezen ephe baten buruan berex ginadin galdegin zautan eta joan nindadin neure aldetik Villeparisis-ko Anderearen etxera buruz, han batuko ninduen, baina elgarrekin sar ezkinindadin nahiago zuen Parisera jin berria baizik etzela iduri ukaiteko, arratsaldeko zati bat elgarrekin iragana ginuela asmatzera utzi baino.

*(Bloch) **

Balbec-en Villeparisis-ko Anderearen ezagutza egin baino lehen uste ukana nuen bezala, ezperdintasun handi bat bazen hura bizi zen ingurunearen et Guermantes-ko Anderearenaren artean. Villeparisis-ko Anderea etxe lorios batean jaiorik, ezkontzaz gutiago hala etzen bertze batean sarturik, bizkitartean munduan lerro handi batez gozatzen eztiren emaztetarik bat zen, eta, ilobak edo koinatak dituzten dukesa batzuetarik hara, eta ere bat edo bi buru koronatuetarik, familiako ahaide aspaldikoak, bere saloinean hirurgarren maileko jende mota bat baizik eztutenetarik: burjesia, noblezia probinziar edo narriodun, hauen han izaiteak aspaldidanik urrunduak baititu ahaidegoko eginbidez edo etxekotasun zahartuegiaz jitera bortxatuak eztiren jende aphain eta handi-usteak. Eiki ephe zenbaiten buruan enuen nekerik batere ukan gogoan hartzeko Villeparisis-ko Anderea Balbec-en zergatik hain ontsa argitua gertatua zen, eta guhaur ere baino hobeki, orduan aitak Norpois-ko Jaunarekin Espainian egiten zuen bidaiako xehetasun ttipienez. Baina ezin zaitekeen hala ere Villeparisis-ko Andereak Ambaxadorearekin hogei urtez geroz zuen estekamendua izan zaitekeela markestsa lerroz jauts-arazia zuen arrazoina uste ukaitean geldi, emazte distiratuenek hau baino maitale gutiago errespetagarri batzu agerian emaiten zituzten mundu batean, ezpaitzatekeen bertzela ere aspaldi danik markestsarendako adixkide zahar batez bertzerik. Villeparisis-ko Andereak bertze maitaldi batzu ukanak zituena lehenago? Bere koloretik apur bat behar bada urte sutsu eta suntsitu haier zor ukan zezakeen zaharraro jabaldu eta debot batean, orai zen baino jite suharragokoa izanez orduan, etzuena jakina, luzaz bizi izana zen probinzian, eskandala batzuen baztertzen, gizaldi berriek ezagutzen etzituztenen, hauek ondorioa baizik ezpaitzuen ikusten, hori gabe bierarteko nahaste orotarik garbienik izaiteko egina zen saloinaren molde nahasi hala-hulakoan? Ilobaren erranez zuen "mihi gaixto" hark ordu hartan etsai batzu eginak zauzkona? gizonen ondoan ongi heltze batzuez baliatzera eremana zuena emazte batzuen aldera mendekatzeko? Hori guzia izan zaitekeen; eta etzen Villeparisis-ko Andereak onestasunaz, oneziaz mintzatzeko zuen molde hautukoa, sendikorra - hain polliki arautuz eta berexiz ez bakarrik hitzak baina doinuak -, aieru hori ezezta zezakeena. Ezen bertute batzuez ez bakarrik ontsa mintzo direnak baina haien xoragarria senditzen dutenak eta miragarriki hartzen dituztenak (bere Orhoitzapenetan jakinen baitute hetaz iduri zuzen baten emaiten), ainitzetan jalgiak baitira hek erabili zituzten gizaldi ixil, oies, antze gabetik, baina ezpaitira berak hartan barne. Gizaldi hau hetan leinurutzen da, ez alta jarraikitzen. Hark zuen jitearen orde, edireiten dira sendikortasun bat, adimendu bat, egintzako baliorik gabeak. Eta Villeparisis-ko Anderearen bizian haren izenak ezabatuko zituen eskandala horietarik izan ala ez, adimendu hori zen, munduko emazte baten baino gehiago abantzu bigarren maileko idazle baten adimendua, segurki munduan haren jaustea egina zuena.

Dudarik gabe, Villeparisis-ko Andereak goresten zituen gaitasunak, hala nola arau zuzena eta neurria, aski guti gogo-berogarriak ziren; baina neurriaz molde osoki egokian mintzatzeko, ezta neurria aski, idazle baten mereximendu batzu behar dira gogoberotze guti neurtu bat nahi dutenak. Balbec-en ohartua nintzan

edergile handi batzuen jeinua Villeparisis-ko Anderearendako aditu gabea gelditzen zela, eta etzakiela hetaz xorroxki trufatzen baizik, eta bere ezin aditzeari molde izpiritu eta garaziadun baten emaiten. Baina izpiritu eta garazia horiek, haren baitan eremanak ziren heinean, berak bilakatzen ziren - bertze eremu batean, eta lan gorenen ez ezagutzeko erabilirik ere - ederlaneko dohain egiazko batzu. Bada, horrelako dohainek badute egonara mundutar orotan hautatzeko eragin gaizkor bat, medikuek dioten bezala, eta hain barreatzalea nun azkarkienik jarriek zenbait urtez ihardokitzea neke baitute. Ederlangilek adimendua deritzotenak handi-ustekeria hutsaren itxura du gizarte aphainarendako, hunek, haiek oro jujatzen duten ikuspegi bakarrean ezin jarriz, erran-molde baten hautatzean edo erkidatze baten egitean hari amor emaiten duten dei berezia nehoiz ez gogoan hartuz, haien ondoan sendi baitu akhidura bat, hartarik laster aihergo bat sortzen den sumindura bat. Alta solastatzean, eta berdin da geroztik agertu diren haren Orhoitzapenetan, Villeparisis-ko Andereak etzuen halako garazia osoki mundutar bat baizik erakustera emaiten. Gauza handien ondotik hek barnatu gabe iraganik, batzuetan berezi ere gabe, bizi izana zen urtetarik eta bertzela ere ainitz zuzetasun eta gozagarritasunekin erakusten zituenetarik, etzuen abantzu eskainia zuten arinenaz baizik atxikia. Baina idaz-lan bat, adimendukoak eztiren gai batzuetara baizik ez emana izanik ere, adimenduko lan bat da hala ere, eta liburu batean, edo hartarik guti berezten den solasaldi batean arintasunaren itxura beteginaren emaiteko, behar da jende osoki arin batek ezin lukeen seriostasun doi bat. Emazte batzuek idatzi Orhoitzapen zenbaitetan eta nagusi-lan bezala hartuetan, garazia arin baten ereduko emaiten den erranaldi batek beti uste ukan-arazi dauta horrelako arintasun batera heltzeko, egileak lehenago ukanak zituzkeela jakitate aphur bat phizua, kultura bat latza, eta itxuraz, nexkato gaztean, bere adixkider andere jakintsun ezin jasan bat iduritzen zizaiela. Literaturako gaitasun batzuen eta munduan ez ongi heltzearen artean, lotura hain da baitezpadakoa nun, gaurregun Villeparisis-ko Anderearen Orhoitzapenen irakurtzean, horrelako izenlagun zuzena, elgarri darraizkan horrelako hitz-ordainak, irakurleari aski izanen baitzazko, haien laguntzarekin, Leroi Anderea bezalako handi-uste batek markestsa zaharrari embaxada bateko mailaldean emaiten zaukon gur handi baina hormatuaren berrikusteko, karta izkin plegatu bat uzten zaukolarik behar bada Guermantes-tarren etxerakoan, baina nehoiz ez haren saloinean zangorik sartzen beldurrez eta bere lerrotik jauts mediku eta notari emazte horien guzien artean. Andere jakintsun, Villeparisis-ko Anderea hala izana zen behar bada gaztaro lehenean, eta, bere jakitateaz burxoratua, hura baino gutiago adimenduko eta gutiago argitu jende mundutarren kontra etzukeen jakina zaurituak ahazten eztituen ukhaldi zorrotzen atxikitzen.

Eta gero antzea ezta gizartean ongi hel-arazten duten gaitasuner artifizialki emaiten zauen luzadura falsu bat, guziarekin, munduko jendek "emazte oso bat" deritzotenaren egiteko. Hori moraleko jite berezi baten emaitza bizia da: orotara hartan ainitz gaitasunek huts egiten baitute eta sendikortasun bat nagusitzen baita, bizian zehar aski biziki sendi-araz daitezkeen baina liburu batean hautemaiten eztitugun bertze agerpen batzuekilakoa, behazunez jakin-nahi batzu, burukeria batzu, nor bere atseginaren gatik, eta ez ezagutza mundutarren handitzeko,

atxikitzeko, edo xoilki erabiltzeko xedetan. Balbec-en ikusia nuen Villeparisis-ko Anderea bere sehien erdian hetsia eta hoteleko sartzean jarriak ziren jendendako behako bakar bat gabe. Baina aitzinetik sendi nuen elikatze hori etzela ezaxoltasuna, eta ez omen zen beti hortan egona. Haren etxean hartua izaiteko behar zenik batere etzuen holako edo halakoaren ezagutzea buruan hartzen zuen, ederra iduritua zizakolakotz, edo bakarrik jostagarria zela errana zaukotelakotz, edo ezagutzen zituen jendetarik bertzelakoa iduritua, horiek, estimatzen etzituen aro hartan ehoiz utziko etzutela uste zuelakotz, guziak Saint-Germain bazter-hiri hoberenekoak baitziren. Nolanahi bizi zen hari, berezia zuen burjes ttipi hari, gomiten igortzera bortxatua zen, hauen balioa etzezakeelarik estima, apurka apurka gutiets-arazten zuten hisiarekin, etxekandereak baztertzen dituen jendetarik onhartzen dituenetarik baino gehiago saloin baten hautesten ohituak diren handi-uste batzuen begietan. Eiki, gaztaroko ordu batean, Villeparisis-ko Anderea, arixtokraziaren hoberenetik izaiteko gozoaz soraiotua, jostatua baldin bazen zerbait moldez haien erdian bizi zen jenden gaitzitzen, bere izanararen deliberatuki barreatzen, izanara horri balio emaiten hasia zen galdua ukana zuen ondoan. Nahi ukana zauen dukeser haiek baino gehiago zela erakutsi, haiek erraitera, egitera ausartzen etziren guzia erranez, eginez. Baina hauk orai, bere jendakia hurbilekoak ezpada, etxera gehiago ezpaitzizazkon jiten, bere burua ttipitua sendi zuen eta nahi zuen oraino erreinatu, baina izpiritutik bertze molde batez. Hain arthoski baztertuak zituen guziak nahiko zituen bereganatu. Emazten zenbat bizi, bizi bertzela guti ezagunak (ezen bakoitzak, adinaren arau, badu mundu berezi bat bezalakoa, eta zahartuen ixiltasunak eztitu gazteak iraganaren jakitera uzten eta itzuli osoaren ikustera), dira horrela aldi kontramoldeko batzuetan zatituak izan, eta azkena osoan erabilia izan bigarrenean hain alaiki haizera igorri zenaren berrirabazten! Gaztek hori are gutiago dute itxuratzen nun begien azpian baitute Villeparisis-ko markestsa zahar errespetagarri bat, ezpaitute uste oraiko orhoitzapenlari seriosa, perruka xuriaren azpian hain zuzen, behin izana datekeela auhaltiar alai bat, orduan geroztik hobian datzaten gizon batzuen atseginak egin zituena, behar bada haien fortuna jan. Ahal zuena egina ukaiteak ere, antze jarraiki jitezko batekin, bere sortze handitik zadukan izanararen barreatzeko, eztu bertzela batere erran nahi, aro urrundu hartan ere, Villeparisis-ko andereak etzaukola bere izanarari balio handi bat emaiten. Berdin zaineri bat hetan bizi den bakartasuna, egintza gabea, berak irazki dezazke goizetik arrats hortako berari jasangarriak iduritu gabe, eta preso dadukan sareari gartza berri baten emaitera lehitzen delarik, izan daiteke eztuela jantzaldi, ihizi eta bidaiarik baizik amesten. Ordu oroz ari gira gure biziari bere moldearen emaiten, baina guhaur gatik ere marrazki bat bezala giren jendearen itxurak kopiatuz eta ez izaitea gozagarri ukanen ginukeenarenak. Leroi Anderearen agur erdainariek erran zezaketen zerbait moldez Villeparisis-ko Anderearen nortasun egiazkoa, etziren batere haren gutiziaren heinekoak.

Badateke, Zuan Andereak maite zuen erran-moldearen arabera, Leroi Andereak markestsa "mozten" zuen ordu berean, hunek konsolatzea bila zezakeela orhoituz egun batez Marie-Amélie erreginak errana zaukola: "Alaba bat bezala maite zitut". Baina horrelako erret-amultsutasun segeretuzko eta ez ezagunek,

etzuten izaiterik markestsarendako baizik, Konserbatorioan ukan noizpaiteko lehen sari erhaustu batek bezala. Munduko abantail egiazko bakarrak bizia emaiten dutenak dira, ezeztatzen ahal direnak hetaz baliatu denak gorde ala hedatu nahi ukan gabe, egun hartan berean bertze ehun jarraikitzen baitzeztee. Erreginaren elhe horietaz orhoitzean, Villeparisis-ko Andereak gogotik ordainkatuko zituen alta Leroi Andereak gomitatua izaiteko zuen betiko ahalarekin, ostatu batean edergile ez ezagun batek, antzea eztuelarik izkiriatua ez begitarte herabeko itxuran, ez soineko labur higatuaren hauste ohigabetuan, nahi lukeen bezala gizartean azken lerroko diru-balio merkatari gaztea izan, auzoko mahi batean bi andere jokari gaztekin bazkaltzen baita, eta haren gana lehiatzen baitira, laster agurkari ethengabe batean, nagusi, mahi-nagusi, mutil, mutil-jantzi, eta mirazko ikuskarrietan bezala haren agurtzera sukaldetik lerroan atheratzen diren eltzezainetarano, sotozaina aitzinatzen den baten, bere botoilak bezain erhaustua, mainguka eta lilluran, sototik jalgitzean, zangoa bihurtu balu bezala argira igan baino lehen.

Erran behar da bizkitartean, Villeparisis-ko saloinean, han Leroi Anderearen ez izaiteak etxekanderea lastimatzen baldin bazuen, ohartua izan gabe zoala haren gomit andana handi baten begietan. Etzakiten batere Leroi Anderearen izanara berezia, mundu aphainaz bakarrik ezaguna, eta etzuten dudan emaiten Villeparisis-ko Anderearen gomitaldiak, haren Orhoitzapenen irakurlek gaurregun uste duten bezala, Paris-ko distiratuenak zirela.

Saint-Loup utzi-eta Villeparisis-ko Andereari egitera joan nindakon lehenbiziko ikustaldi hortan, Nopois-ko Jaunak aitari emana zaukon aholkuari jarraikiz, aurkitu nuen bere saloin zeta horiz hedatuan, hartan Beauveais-ko oihalez estali kanape 'ta jargia miragarriak ageri baitziren mahaxuxa gorri onduen margo arros-kolore, abantzu ubelean. Guermantes-tarren, Villeparisis-tarren potreten ondoan ikusten ziren - modelen beren eskaintzak - Marie-Amélie erreginarena, Belgiarren erreginarena, Joinville-ko printzearena, Austriako emperadoresarena. Villeparisis-ko Anderea, dentela beltzezko bonet aro zaharreko bat buruan (begiratzen baitzuen ostaler bretoin batek, hainbatetarano paristarra bilakatua izanik ere haren bazkaltierreria, bere sehier burukoaren eta mahunga handien atxik-araztea artetxago dela uste duen lekuko kolore 'ta ixtorioko asmu xorrotx berarekin), bulego ttipi batean jarria zen, han haren aitzinean, bere paletaren, pinzelen eta hasia zen lore ur-margo baten ondoan, baitziren baso, kiker-azpi, arrosa lumatxadun, zinia, garaiska batzu, ordu hartan ikuslierren jendetzearen gatik haien margoztatzetik gelditua baitzen, eta iduri baitzuten hornitzen zutela lore saltzale baten sal-mahia XVIII-garren mendeko grabadura zenbaitetan. Saloin nahitara arinki berotu hortan, jauregitik itzultzean markestsa marrantatua baitzen, ni hara heldu nintzanean han ziren jendetan, baziren artxibolari bat, goizean harekin Villeparisis-ko Andereak ordenatuak baitzituen ixtorioan aiphatu jende batzuek hari igorri egileak sinatu eskutitzak, eta *fac-simile* moldean baieztagarri bezala agertzekoak baitziren izkiriatzen ari zituen Orhoitzapenetan, eta ixtoriolari ospedun herabetu bat, markestsak bazuela ondorez Montmorency-ko dukesaren potret bat ikasirik, ethorria baitzen Fronde-ko jazarraldiaz egina zuen liburuko grabadura batean potret horren berragerrarazteko baimenaren galdatzera, ikuslierr horier batzera jin baitzen

Bloch, orai antzerti egile gazte, Markestsa hari baitzagon bere goizaldi hurranetan ariko ziren jokari batzuen kittorik ukan-arazteko.

Egia da gizarteko margo-aldagailua itzultzen ari zela eta "Dreyfus afera"-k ambilduko zituela juduak gizarteko azken lerrorano. Baina, alde batetik, zirimola dreyfustiarra bortitzenean izan zaitekeen, uhainak eztira haserre handienera galerna baten hatsarrean heltzen. Eta gero Villeparisis-ko Anderea, bere familiako jende andana bat osoa utziz juduen kontra oihukatzen, hunarano Aferatik osoki bazterrean egona zen eta hartaz ez axolatzen. Azkenik Bloch bezalako mutiko gazte bat, ehork ezagutzen etzuena, ohartu gabe iragan zaitekeen, bere alderdia itxuratzen zuten judu handi batzu mehatxatuak zirenean jadanik. Orai bidarra bixar-motx batez titatua zuen, betorde bat ezarria, maripulis luze bat, eskularrua, papiruz bilgo bat bezala, eskuan. Errumaniarrek, Egiptiarrek et Turkoek juduak hastia dezazkete. Baina saloin frantzes batean jendalde horien arteko ezperdintasunak eztira hain ikus errexak, eta Izraeldar bat desertu zola batetik jalgitzen baliz bezala sartzen denean, soina hiena batek bezala ukurturik, garondoa zeharka makurtua eta inguruan "salam" handi batzuetan, orientalixmako gostua beteginki askiesten du. Behar da bakarrik hortako judua "mundukoa" izan eztadin, hori gabe "lord" baten itxura hartzen baitu berehala, eta arak hain frantzestuak ditu nun haren baitan sudur bihurri batek, kapuxina bat bezala ustegabeko alde batzuetara luzatuz, Mascarille-ren sudurraz orhoit-arazten baitu Salomonenaz baino gehiago. Baina Bloch ezpaitzen "Baster-hiriko" gimnaztikaz malgutua ez Angeleterra edo Espaniarekin gurutzatze batez nobletua, gelditzen zen, herri urrunetako gostua duenarendako, bere jantzi europatarrean izanik ere, Decamps-en judu bat bezain arrotz eta gozagarri. Arrazaren indar miragarria, menderen menden zolatik aitzina oraiko Pariserano, antzokietako barne-bidetara, gure bulegoetako gixetetara, ehorzketa batera, karrikara, nahasi ezten multzo bat bultzatzen duena, oraiko ileantzeari molde emanez, maripulisa iretsiz, ahatz-araziz, heziz, oro har Suze-ko eraikuntza bateko frisan, Dariusen palazioko athe aitzinean, zeremoniako jantzitan margotuak diren izkiriatzale asiriarrenaren berdin-berdina. (Oren bat berantago, Bloch-ek uste ukanen zuen juduen alderako gaizki-nahiz zuela Charlus-ko Jaunak galdegiten izen ttipi judua zuenez, ezthetikazko jakin beharrez eta lekuan lekuko araren gostuz zelarik.)

Baina, bertzalde, arrazen iraupenaz mintzatzeak gaizki emaiten du Juduen, Greziarren, Persiarren, bere ezperdintasunean uztea hobe den jendalde horien guzien ganik ukaiten dugun iduripena. Greziar zaharren aurpegia aro zaharreko margoetarik ezagutzen dugu, Asiriarrak ikusiak ditugu Suze-ko palazio bateko harresiburuan. Iduritzen zaiku bada, halako eta holako multzokoak diren Orientar batzu munduan aurkitzen ditugunean, izpiritu-jokoaren indarrak agerr-araziak lituzkeen izaite naturaz goragoko batzuen aitzinean girela. Ezkinuen axaleko iduri bat baizik ezagutzen; huna nun barnatasuna hartua duen, hirur neurrietara hedatzen den, higitzen den. Andere gazte greziarrak, diruzain aberats baten alaba, eta ordu huntan modan dena, iduri du, aldi berean ixtoriozko eta ezthetikazko jantza-ikuskarri batean, haragi-hezurretan ederlan helenika itxuratzen duten andere jantzari hetarik bat; eta oraino, antzokian, ikuskarriratzeak iduri horiek ohikotzen ditu; aldiz,

saloin batean Turkesa baten, Judu baten sartzeak haien aitzinean ezartzen gituen ikuskarriak, idurier bizi emanez, arrotzagotzen ditu, alabaina bitartekotasunezko indar batek deitu izaite batzu balire bezala. Arimak du (edo izaitekotz, gauzatze mota horietan, oraino bederen, arima hartan gelditzen den gauza ttipiak), aitzinean bakarrik erakustokietan erdi ikusia baizik eztugun arimak, Greziar zaharren arimak, Juduen arimak bizi aldi berean zentzugabe 'ta izaitegabe batean, gure aitzinean jestu-joko ustegabegarri hori egiten duela iduri. Gibelera egiten duen andere greziar gaztean, debaldetan iraungi nagi ginukeen iduria, lehenago untzi baten sahetsean miretsi ginuena da. Iduri zizatan Villeparisis-ko Anderearen saloineko argian itxura batzu hartu banitu Bloch-en arabera, Izraelez emana ukanen zutela hilen deitzale batzuen argazkiek erakusten daukuten itxura hura bera, hain gogoetagarri eztuelakotz gizonetarik jalgitzen dela iduri, hain nahigabegarri gizonen egite sobera baduelakotz hala ere. Molde orotakoago batean, ezta haien artean bizi giren jende batzuek erran solasen ezteustasunerano naturaz goragokoaren iduripena emaiten eztaukunik, gure mundu gaizo egun orotakoan gizon jeinudun baten ganik igurikatzen dugularik, mahi itzulikari baten inguruan bezala bilduak, mugagabearen segeretua, xoilki hitz hauk erraiten dituenean - Bloch-en ezpainetarik jalgiak ziren hek berak - : "Ene xapel goraz artha har dadila."

- Jainkoa, minixtroak, jaun maitea, ari zen erraiten Villeparisis-ko Anderea bereziki ene lagun ohiari, ene sartzeak hautsia zuen solasaren hariari berriz lotuz, minixtroak, nehork etzituen ikusi nahi. Nintzan ttipia izanik ere, orhoit niz oraino erregez, aitaxiri ohoitz egiten Decazes Jauna onhar zezan aitak Berry-ko dukesarekin jantzatu behar zuen besta batera. "Atsegin eginen dautazu, Florimond", zion erregek. Aitatxiri, apur bat elkorra baitzen, Castries-ko Jauna entzunik, galde hori osoki naturala zizakon. Decazes Jaunaz zela hartu zuenean, jazartzera egin zuen, baina amor eman eta arratsean berean Decazes Jaunari izkiriatu, ondoko astean egiten zen haren jantzaldian izaiteko garazia eta ohorea eman zitzon othoiztuz. Jendetasunekoak baitziren, badakizu, aro hartan, eta etzizakon etxekandere bati aski izanen bere kartaren igortzea gainetik eskuaz ezarririk: "the kikera bat", edo "the dantzan", edo "the musikan". Baina jendetasuna baldin bazakiten, etziren ozartasuna jakin gabe ere. Decazes Jaunak onhartu zuen, baina jantzaldiaren bezperan jakin zen aitatxik ez-ontsan zela sendituz besta desmezutua zuela. Erregeri obeditua zuen, baina Decazes Jauna etzuen jantzaldian ukana. Ba, Jauna, Molé Jaunaz biziki ontsa orhoit niz, izpirituko gizon bat zen, phoragatu du Vigny-ko Jauna Akademian onhartu duenean, baina biziki ospekoa zen eta badakusat oraino bere etxean auhaltzera jausten xapel gora bat eskuan.

- Ha! aro aski kaltegarriki beoziar batez ontsa gogoragarri da, etxean xapela eskuan izaitea orotako ohidura bat baitzatekeen, erran zuen Bloch-ek, ikasteko ordu hoin arraroaz baliatzeko gutizian, begiez ikusia zuen lekuko baten ondoan, artxibolariak, markestaren halako segeretari artekatu bat, behako mardotu batzu emaiten zauzkon batean, guri erran balauku bezala: "Horra nola den, guzia badaki, mundu guzia ezagutua du, nahi duzuenaz galdeka dezakezue, ohi ez bezalakoa da."

- Baina ez, ihardetsi zuen Villeparisis-ko Andereak, arestian margotzen berriz hasiko zen garaiskak urean zauden basoa bere ondo-ondoan ezartzen zuen batean,

Molé Jaunaren ohidura bat zen, xoil-xoilki. Nehoiz eztut aita etxean xapela eskuan ikusi, salbu, erran gabe doa, errege jiten zenean, orotan errege bere etxean zenaz geroz, etxeko jauna bere saloinean ezta ikuslier bat baizik.

- Ariztotelek erran dauku kapitulu II-an, menturatu zen erraitera Pierre Jauna, "Fronde" jazarraldiko ixtoriolaria, baina hain herabeki nun ehor ezpaitzizakon ohartu. Zenbait astez geroztik sendagailu guzier ihardokitzen zuten zainetako logabe batzuez hartua, etzen gehiago etzaten eta, akhiduraz hautsia, bere lanek ibiltzea baitezpada manatzen zaukotenetan baizik ez atheratzen. Bertze batzuendako hain errexak baina haien egiteko ilargitik jausten baliz bezainbat gostatzen zizazkon atheraldi hoin xoil horien usu egiteko ahalik gabe, ustegabetua zen aurkituz ainitzetan bakoitzaren bizia etzela, harenaren olde bapatekoer bere baliagarritasun handienaren emaiteko, beti molde iraupeneko batean moldatua. Batzuetan hetsia aurkitzen zuen haren ikustera maripulis batean Wells-en gizon bat bezala eta zutik artifizialki emanez baizik joana etzen liburutegi bat. Zorionez Villeparisis-ko Anderea etxean edirena zuen eta potretaren ikustera zoan.

Bloch-ek elhea moztu zaukon.

- Zinez, erran zuen Villeparisis-ko Andereak erret-ikustaldietako urrats-arauez erran berria zuenari ihardetsiz, hori batere enakien (etzezan jakin bitxi baliz bezala).

- Ikustaldi mota hortaz, badakizu atzo ene iloba Basin-ek egina dautan jostakeria zozoa? galdegin zaukon Villeparisis-ko Andereak artxibolariari. Erran-arazi dauta, bera zela erraiteko orde, Zuedako erreginak zuela ene ikustea galdegiten.

- Ha! hori horrela hotz-hotzik erran dautzu! Baditu pollitak! egin zuen Bloch-ek karkailetan, ixtoriolariak irriño bat ospezko herabe batean egiten zuelarik.

- Aski ustegabetua nintzan baserritik ezpainitzan itzulia zenbait egunez geroz baizik; apur bat goxoan izaiteko galdegina nuen Parisen nintzala nehori erran etzezaten, eta banindagon Zuedako erreginak nola zakien jadanik, eta, nola nahiz, hats hartzeko bi egun etzaztan uzten, egin zuen berriz Villeparisis-ko Andereak bere ikuslierrak ustegabetuak utziz Zuedako erreginaren ikustaldi bat bere hartan ohigabekorik jeus etzelakotz heien ostatzalearendako.

Eiki goizean Villeparisis-ko Andereak artxibolariarekin mihatua bazuen bere Orhoitzapenetako dokumentatzea, ordu hartan ari zen bere jakingabean heien mekanikeriaren eta indar gozagarriaren entseatzen entzule bierarteko batzuetan, egun batez irakurtzaleak hartuak izanen zirenen moldekoetan. Villeparisis-ko Anderearen saloina berex zaitekeen saloin egiazki aphain batetik, hartan Leroi Anderea bezalako andre distiratu batzu izanen etzirenetik, baina ezta berexkuntza hori haren Orhoitzapenetan ageri, egileak zituen ezagutza bierarteko batzu hetan ezeztatzen baitira, ezpaitute hetan aiphatuak izaiteko aldirik; eta ukaiten etzituen andere ikuslari batzuek eztute huts egiten, Orhoitzapen horiek eskaintzen duten eremu nahitez hertsian jende guti baitaiteke ager eta, jende horiek printzetarik badira, ixtoriokoetarik, Orhoitzapen batzuek publikoari eskain dezoketen aphaintasun gehien-gehiena gaitz egina gerta daiteke. Leroi Anderearen gogoan, Villeparisis-ko Anderearen saloina hirurgarren lerrokoa zen, eta Villeparisis-ko

Andereak Leroi Anderearen jujamenduaz sofritzen zuen. Baina nehor gutik daki gaurregun Leroi Anderea nor zen, haren aburua ezeztatua da; eta Villeparisis-ko Anderearen saloina, Zuedako erregina han zabilana, Aumale-ko dukea, Broglie-ko dukea, Thiers, Montalembert, Enejaun Dupanloup ibiliak zirena, hura da Homère 'ta Pindare-en arotik aldatu eztiren ondoko horiez XIX-garren mendeko distiratuenetarik bat bezala estimatua izanen, horiendako lerro gutiziagarria jaiotze gora baita, erregetarra edo abantzu, erregen adixkidantza, jendearen buruzagiena, gizon aiphatuena.

Bada, hortarik guzitik apur bat bazuen Villeparisis-ko Andereak oraiko saloinean eta haien laguntzarekin iraganera luzatzen zuen othoitzapen batzuetan arinki zuzenduetan. Eta gero Norpois-ko Jaunak, bere adixkideari egiazko lerro baten berregiteko ahalik ez ukanik ere, ekhartzen zauzkon aldiz haren beharretan ziren Estatuko gizon arrotz ala frantsesak eta hari gorte egiteko molde eragingarri bakarra Villeparisis-ko Anderearen etxean ibiltzea zela bazakitenak. Leroi Andereak ezagutzen zituen ere behar bada Europako jende goren horiek. Baina, emazte gozagarria eta andere jakintsunen doinuari ihes egilea izanez, Orienteko gaiaz lehen minixtroer mintzatzetik begiratzen zen, elhaberrilarier eta filosofoer maitasunaz bezain ontsa. "Maitasuna?" ihardetsia zuen aldi batez "Maitasunaz zer gogatzen duzu?" galdegina zaukon andere handi-uste bati: "Maitasuna? Usu egiten dut baina nehoiz ez aiphatzen." Etxean baizituelarik literaturako eta politikako omendun batzu, aski zizakon, Guermantes-ko Andereari bezala, poker jokoan arr-araztea. Ainitzetan hori nahiago zuten Villeparisis-ko Anderek hetara bortxatzen zituen solasaldi handi orotako ideiekilakoak baino. Baina solasaldi horiek, irrigarriak behar bada munduan, ekharri dezteete Villeparisis-ko Anderearen "Orhoitzapener" idazki mota horietan Corneille-ren arako tragedietan bezala ontsa emaiten duten hitzaldi politikazko hetarik. Bertzela ere Villeparisis-ko Anderea bezalakoen saloinak ondorerano iragan daitezkeen bakarrak dira Leroi Anderea bezalakoek idazten ezpaitakite, eta balakite ere, astirik ezpaitute. Eta Villeparisis-ko Anderek literaturako duten gaitasuna baldin bada Leroi Anderea bezalakoen erdainuaren arrazoina, aldiz Leroi Anderearen erdainuek bereziki zerbitzu emaiten daukote Villeparisis-ko Anderea bezalakoen literaturako gaitasunari, andre jakintsuner emanez leteretako ofizioak behar duen astia. Ontsa idatzi liburu batzu izan daiten nahi duen Jainkoak erdainu horiek ixilka mezutzen ditu Leroi Andere guzien bihotzera, baitaki Villeparisis-ko Andereak auhaltzera gomitatzen balitu, ordu berean bere izkiriatzekoak utz lezazketela eta zaldiak zortzi orenetako atela-araz.

Ephe baten buruan sartu zen urrats ezti ospedun batean andere zahar handi bat, bere lastozko xapel goitituaren azpitik ikustera uzten baitzuen Marie-Antoinette-ren arako ileantze xuri gaitzeko bat. Enakien orduan oraino mundu paristarrean ikus zaitezkeen hirur emaztetarik bat zela, Villeparisis-ko Anderea bezala, sortze handikoak ziren batean, aphaldurik izanak zirenak, aroaren ilunean galtzen ziren eta orduko galant zahar zenbaitek bakarrik erranen ahal zauzkun arrazoin batzuen gatik, etxean bertze nihun nahi etzituzten jende arruntenen onhartzerano. Andere horietarik bakoitzak bazuen bere "Guermantes-ko dukesa", bere eginbiden egitera jiten zizakon iloba distiratua, baina bertze bien

"Guermantes-ko dukesaren" erakhartzera helduko. Villeparisis-ko Anderea biziki lotua zen hirur andere horiekin baina etzituen maite. Badateke haien izanara berarenaren berdintsuak eskaintzen zaukola gozagarria etzizakon itxura bat. Gero, saminduak, andere jakintsun bilakatuak, eman-arazten zituzten komediaxken ainitzaren bidez bere buruari saloin baten lilluraren eman-araztea bilatuz, bazituzten elgarren arteko etsaigo batzu, bizi guti ezti batean zehar fortuna aski andeatu batek, diruaz khondu egitera bortxatuz, edergile baten laguntza urruaz baliatzera, bizitzeko gudu mota batera aldatzen zituenak. Gainera Marie-Antoinette-ren arako ileantzearekilako anderea, Villeparisi-ko Anderea bazakusan aldi oroz, ezin egon zaitekeen Guermantes-ko dukesa haren ortzilaretara etzela joaiten gogoan ukan gabe. Konsolamendua zuen ortzirale horietan beretan etzuela nehoiz huts egiten, ahaide on bezala, Poix-ko prinzesak, hau baitzuen bere Guermantestsa eta Villeparisis-ko Anderearen etxera nehoiz joaiten etzena, nahiz Poix-ko Anderea dukesaren adixkide mina zen.

Hala ere, Malaquais kaitik Tournon-go karrikako saloinetara, La Chaise-ko karrikatik Saint-Honoré baster-hirira, estekagailu azkar bezain hastiatu batek lotzen zituen hirur jainkosak, hetarik ontsa nahiko bainuen jakin, gizarteko hiztegi mithologiko zenbait orstakatuz, zein gertaldi galantek, zein sakrileio ausartek zuten zigorra ekharria. Ethorki distiratu bera, oraiko erorte bera ainitzetako ziren behar bada aldi berean elgar hastiatzera eta elgarrekin ibiltzera zeramatzan halabehar berezian. Gero bakoitzak edireiten zuen bertzetan bere ikuslierrer jendetasunezko jestu batzuen egiteko bidea. Hauek nolaz etzuten uste ukanen bazter-hiri hetsienean sartzen zirela, haren ahizpak Sagan-go duke bat edo Ligne-ko printze bat ezkondua zuen andere biziki titulatu bati aitzineratzen zizazkonean? Are gehiago nun egunkarietan delako saloin horietaz egiazkoez baino biziki gehiago mintzo baitzen. Lagun batek mundura ereman zezaten eskatzen zaueten iloba lerroko batzuek ere (Saint-Loup-ek lehen-lehenik) erraiten zuten: "Ene izaba Villeparisis-en etxera eremanen zitut, edo izaba holakoarenera, saloin lakegarria da." Bazakiten oroz gainetik, horrek neke gutiago emanen zauela andere horien iloba edo koinata aphainen etxera delako lagunen sarr-arazteak baino. Gizon adin handikoek, hori hauen ganik ikasia zuten emazte gaztek, erran zautaten andere zahar horiek ezpaziren onharturik izanak, bere bizimolde ohigabeki makurraren gatik zela, hau, aphaintasuna eztuela debekatzen kontra ihardetsi nuenean, erakutsia izan baitzizatan gaurr-egun ezagutu arau guziak gaindituak zituena bezala. Jarririk zuzen-zuzena zauden andere ospedun horien bizi makurrak hartzen zuen, aiphatzen zutenen ahoan, ezin asma nezakeen zerbaiten iduria, ixtorio aitzineko aroen handitasunera arautua, Mamuthen adinarenera. Hots ile zuri, urdin ala gorraxtekilako hirur Parka horiek, jaun andana ezin karkulatu baten gotoin gaixtoa iruna zuten. Gogatzen nuen oraiko gizon horiek handiegitzen zituztela alegiazko aro hetako bizioak, Icare, Thésée, Herkule egin zituzten bezala horiek jainkotzen zituztenetarik guti ezperdinak ziren gizon batzuez. Baina eztira norbaiten bizio guziak jakiten haien ukaiteko heinean guti delarik baizik, eta jendearen gaztiguaren handitasunetik, egiten hasten delarik eta hura baizik ez ikusten, neurtzen denean, asmatzen, handiegitzen, egina den gaizkiarena. "Mundua" badagiten iduri

itxurapenezkoen lerro hortan, emazte egiazki arinek, Mezalina hutsek, beti eskaintzen dute bederen hiruretan hogei-ta hamar urteko andere baten itxura ospeduna, goratia, etxean ahal bezainbat jende ukaiten duenarena, baina ez nahi duen jendea, bizimoldeak erraiteko guti duen emaztek haren etxera joaitea ezpaitute onhartzen, aita-sainduak hari "urrezko arrosa" emaiten baitauko beti, eta batzuetan idatzia baitu Lamartine-ren gaztaroaz Frantziako Akademiak koronatua duen liburu bat. "Egun on Alix", erran zaukon Villeparisis-ko Andereak Marie-Antoinette-ren arako ileantze zuriarekilako andereari, hunek behako zorrotz bat emaiten zuelarik bilzarrera ikusteko saloin hortan etzenez berearendako baliagarri izan zaitekeen phoxi zenbait eta, aldin hortan, berak hatzeman beharko zuen bat, ezen Villeparisis-ko Anderea, hortaz etzuen dudatzen, gordetzera entseatzeko aski maltzurra baitzen. Horrela zuen Villeparisis-ko Andereak artha handia hartu andere zaharraren aitzinera Bloch-en ez ekhartzeko, beldurrez eta Malaquais kaiko hotelean eman-araz zezan haren etxean egina zuen komediaxka. Etzen bertzela ere ordaintze bat baizik. Ezen andere zaharrak ukana zuen bezperan Risoti Anderea neurtitz erraiten, eta ontsa behatua jokari italiarsa hari ebatsia zuen Villeparisis-ko Andereak gertakaria jakin etzezan egina izan baino lehen. Egunkarietarik etzezan jakin eta gaitzitua gerta etzadintzat, erran berria zaukon, ogendun sendi ezpaliz bezala. Villeparisis-ko Andereak, ustez eta haren aitzinera ene eremaiteak etzuela Bloch-enak bezainbat behargabe, kaiko Marie-Antoinette-ari izendatu ninduen. Hunek nahi baitzuen, ahal bezain mugimendu guti eginez, zaharraroan atxiki, urteak eta urteak lehenago gazteria aphaina xoratua zuen Coysevox-en jainkosen orraze hura eta leteretako gizon alegiazko batzuek orai eman-errimetan ospatzen zutena, harturik bertzela ere gogortasun burgoi ordainkariaren ohidura, moldegaitz berezi batek beti ete beti aitzin-urrats egitera bortxatzen dituen jende guziena, burua doi-doia beheititu zuen maiestate hormatu batean eta bertze aldera itzuliz etzen gehiago izan ezpanintz baino gehiago nitaz axolatu. Haren egonara helburu bikunekoak iduri zuen baziola Villeparisis-ko Andereari: "Ikusten duzu enagola ezagutza baten beharretan eta gazteño horiek enautela - edozein ikuspegitik, mihi txarra - hunkitzen." Baina, oren laurden bat berantago, abiatu zenean, hirrun-harrunaz baliatuz, beharrira erran zautan ondoko ortziralean haren egongiara ethor nindadin, haren izen distiratuak - Choiseul sortua zen bertzela ere - nitan mirazko eragina ukan zuen hirur anderetarik batekin.

- Jauna, uste-ut Montmorency-ko dukesa Andereaz zerbait izkiriatu nahi duzula, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak Fronde-ko ixtoriolariari, bere maitagarritasun handia, jakin gabean, zahartasuneko ttipitze mutturraz, gorputzeko suminduraz, eta ere arixtokrazia zaharraren doinu abantzu baserritarraren alegia-eginaz zimurtua zizakon aire mokorrean. Haren potreta erakutsiko-autzut, Louvre-an den jatorrizkoaren kopia.

Zutitu zen pinzelak lilien ondoan ezarriz, eta orduan gerrian agertu zizakon taulier ttipiak eta bere margoekin ez zikintzeko janzten zuenak handitzen zuen oraino bonetak eta begitako lodiek bazematen iduripen abantzu baserritarra eta kontra egiten sehieriaren aberaskeriarekin, thea bixkotxekin ekharria zuen mahi-nagusiarekin, Montmorency-ko dukesa, Ekhialdeko kapito aiphatuenetarik bateko

abadesaren potretaren argitzeko helatu zuen mutil-jantziarekin. Jende guzia zutitua zen." Aski jostagarri dena, erran zuen, gure amatxiak usu abadesa ziren kapito horietan, Frantziako erregeren alabak onhartuak izanen etzirela da. Biziki kapito hetsiak ziren. - Ez onhartuak, Frantziako erregeren alabak, zergatik hori? galdegin zuen Bloch-ek balditua. - Baina Frantziako Etxeak ezpaitzuen aski kartier gaizki ezkondua zenaz geroztik." Bolch-en ustegabetzea handituz zoan. "Gaizki ezkondua, Frantziako Etxea, nolaz hori? - Baina Meditxitarrekin ahaideturik, ihardetsi zuen Villeparisis-ko Andereak doinu lañoenean. Potreta ederra da, eztea hala? eta begiramendu beteginean" gaineratu zuen.

- Adixkide maitea, erran zuen Marie-Antoinette-ren ileantzeko andereak, orhoitzen zira Liszt ekharri dautzutanean, errana dautzula hori zela kopia.

- Liszt-en aburuaren aitzinean gurtuko niz musikan, baina ez margolaritzan! Bertzela ere, ordukotz haurtua zen eta hori nehoiz erran duela eniz orhoit. Baina eztautazu zuk ekharri. Harekin hogei aldiz auhaldu niz Sayn-Wittgenstein-go prinzesaren etxean.

Alix-en ukaldiak huts egina zuen, ixildu zen, zutik egon eta geldirik. Erhauts xafla batzuek aurpegia igeltsuztatzen baitzauzkoten, harrizko aurpegi bat iduri zuen. Eta orrazez noble baitzen, bazidurien, bixkarrekoak gorde hirur kantoineko oinarri goroldiodun baten gainean, parke bateko jainkosa phorroskatzen hasia.

- Ha! horra oraino bertze potret eder bat, erran zuen ixtoriolariak.

Athea ideki zen eta Guermantes-ko dukesa sartu.

- Ori, egun on, erran zuen begi kheinu bat ere gabe Villeparisis-ko Andereak, taulierreko sakelatik atheraz jile berriari luzatu zuen esku bat: eta berehala hartaz axolatzetik geldituz ixtoriolariaren aldera itzultzeko: La Rochefoucauld-eko dukesaren potreta da.

Mutil gazte bat, itxuraz hardit et begitartea xoragarri (baina betegina gelditzeko hain zuzen muxarratua nun sudurra doi bat gorri baitzen eta larrua arinki suhartua, zizel ebakiduraren hatz zenbait balatxikate bezala), sartu zen karta bat plat batean ekharriz.

- Aldi bat baino gehiagotan jadanik Markestsa Anderearen ikustera jina den jaun hura da.

- Jendearekin nintzala erran daukozua?

- Solastatzen entzuna du.

- He bada! ontsa, sarr-araz ezazu. Aitzineratua izan zatan jaun bat da, erran zuen Villeparisis-ko Andereak. Hemen onhartua izaiteko gutizia handia zuela erran dauta. Baina azkenenan horra bortz aldiz desarrañatzen dela, jendeak eztira gaitzitu behar. Jauna, erran zautan, eta zu jauna, gaineratu zuen Fronde-ko ixtoriolaria erakutsiz, aitzineratzen dautzuet ene iloba, Guermantes-ko dukesa.

Ixtoriolaria barnatuki gurtu zen nihaur bezala eta, agur horri bihotzetikako ohar zenbait jarraiki behar zizakola iduriz, begiak dirdiran jarri zizazkon, ahoaren idekitzera zoan, Guermantes-ko Anderearen itxurak hoztu zuenean, bere soingainaren libroaz baliatua baitzen aitzinera emaiteko jendetasunezko jestu gehiegitu batean eta, hasperen arin bat eman ondoan, zuzen-zuzena berriz gibeleratzeko, aurpegiak eta behakoak aitzinean norbait bazutela ohartuak zirela

iduri ukan gabe aski izan zizakon ixtoriolariaren ikusteak eta eneak egiten zaukoten sendimendua ezteusa zela erakustea, sudur hegalen higitze batzu eginez bere oharpen debaldekoaren gelditasun osoaz lekukotasun emaiten zuen zuzentasun batekin.

Ikuslari nardagarria sartu zen, Villeparisis-ko Anderearen aldera zuzen joanez itxura xintxo suhar batean, Legrandin zen.

- Ene onhartzeaz ainitz eskertzen zitut, anderea, erran zuen "ainitz" hitzari indar emanez: kalitate osoki arraro eta xotilekoa daukozu bakarti zahar bati egiten, seguratzen zitut ondorio …

Ene ikustean bapatez gelditu zen.

- Erakusten naukon jaun huni La Rochefoucauld-eko dukesaren potret ederra, *Errankizun-* en egilearen emaztearena, familiatik heldu zata.

Guermantes-ko dukesak, hark, Alix agurtu zuen, desenkusatuz, aurten bertze urtetan bezala, haren ikustera ez joan ahal izanik. "Zure berriak ukan ditut Madeleine-ren ganik", gaineratu zuen.

- Goizean ene etxean bazkaldu da, erran zuen Malaquais kaiko markestsak, Villeparisis-ko Andereak ehoiz etzuela hoinbertze erranen ahal gogatzeko gozaldiarekin.

Bitartean Bloch-ekin solasean nindagon, eta, haren aldera bere aitaren aldatzeaz errana zizatanaren arabera ene biziaz jelos izan zadin beldurrez, erran naukon zorionean bizi zatekeela. Hitz horiek ene aldetik ikustatearen ondorio xoilak ziren. Baina bere alderako amodio ainitz dutener errexki sinets-arazten da zoria ona dutela, edo bertzer horren sinets-arazteko gutizia emaiten. "Ba, egia, hauteko bizia dut, erran zautan Bloch-ek dohatsutasunezko itxura batean. Hirur adixkide handi baditut, enuke bat gehiago nahi, maitale bat xoragarria, ezin gehiago zoriondun niz; bekan da Zeus Aitak zorion oso gehiago bademakon hilkorra." Uste dut bere buruaren gorestea zuela oroz gainetik bilatzen eta eni gutizia emaitea. Berezitasuneko nahikaria zerbait bazatekeen ere hoberenean sineste hortan. Ageri izan zen etzuela nornahiren hitz ohikoekin ihardetsi nahi: "Ho! jeus ezta, eta b." noiz ere, "Pollita zena?" egin naukon galdeari etxean emana zuen jantza goizaldi batez eta hartara joana ahal enintzanaz, ihardetsi baitzautan itxura berdin, ezpaiko batean, bertze norbaitez ari izan baliz bezala: "Baina ba, biziki pollita, ezin hobeki egina. Loriagarri zen."

- Hor ikasten dautazunak ezin gehiago hunkitzen nau, erran zaukon Legrandin-ek Villeparisis-ko Andereari, bainion hain zuzen joan den egunean harenetik ainitz bazinuela, itzuliaren garbitasun alaian, bi kontrako hitzez izenda nezakeen zerbaitetan, zalutasun motzean eta berehalako hiltzegabean. Gaur nahiko nituen baderrazkizun gauza guziak izkirioz hartu; baina gogoan atxikiko ditut. Ene ustez Joubert-en hitza den batez, orhoitaren adixkide dira. Nehoiz eztuzu Joubert irakurri? Oi! hainbertze zinindakon gustatuko! Gaur berean ausartuko niz zuri haren lanen igortzera, haren izpirituaren zure aitzineratzeaz biziki burgoi. Etzuen zure indarra. Baina garazia ainitz bazuen ere.

Nahi ukanen nuen Legrandin-i egunon erraitera berehala joan, baina bazagon beti nitarik ahal zuen bezain urrun, behar bada erran-molde xorroxtasun handi

batekin, noiz nahi Villeparisis-ko Andereari nasaiki emaitetik gelditzen etzen lausenguak entzunen enituelako esperanzan.

Andereak sorbaldak goititu zituen irriño batekin trufatu nahi ukana balu bezala eta ixtoriolariaren gana itzuli zen.

- Eta hau, Rohan-go Maria aiphatua da, Chevreuse-ko dukesa, lehenbiziko ezkontzaz Luynes-ko Jauna esposatua zuena.

- Maitea, Luynes-ko Andereak Iolanda gogoratzen dauta; atzo ene etxean izana da; zure arratsaldia nehork etzauzula hartua jakin banu, zure bila igorriko nuen; Ristori Andereak, ustegabetarik ethorri baita, Carmen Sylvia erreginaren neurtitzak erran ditu egilearen aitzinean, hain zen eder!

" Zer tradimendua! gogatu zuen Villeparisis-ko Andereak. Seguraz ahapetik hortaz ari zen, joan den egunean, Beaulaincourt-eko Anderearekin eta Chaponay-koarekin." - Libro nintzan, baina enintzan jinen, ihardetsi zuen. Ristori Anderea entzun dut bere adin ederrean, ondar bat baizik ezta. Eta gero Carmen Sylvia-ren neurtitzak hastio ditut. Ristori-sa izan da aldi batez hemen, Aoste-ko dukesak ekharririk, *Ifernu*-aren kantu baten erraiten, Dante-rena. Horra paregabea zertan den.

Alix-ek ukaldia jasan zuen khordokatua izan gabe. Harbizizkoa zagon, soa zorrotz eta hutsa, sudurra nobleki arkutua. Baina matela ezkatatzen ari zen; landaretze arin batzuek, bitxiak, musker eta gorraxtak, bidarra hartzen ari zaukoten. Bertze negu batek aurdikiko zuen behar bada.

- Oizu, jauna, margolaritza maite baduzu, Montmorency-ko Anderearen potretari so egizu, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak Legrandin-i berriz hasten ari ziren komplimenduen mozteko.

Hau urrundua izaiteaz baliatuz, Guermantes-ko Andereak bere izabari erakutsi zaukon behako irkaitzezko eta galdekari batez.

- Legrandin jauna da, erran zuen erdi ahapetik Villeparisis-ko Andereak; badu arreba bat Cambremer-ko Anderea deitzen dena, ezpaitaun horrek, gainera, eni baino gehiago jeus erranen.

- Nola, baina biziki ontsa ezagutzen dut, egin zuen Guermantes-ko Andereak eskua aho aitzinean ezarriz. Edo izaitekotz eztut ezagutzen, baina Basin zerk hartu duen eztakit, haren senarra aurkitzen baitu Jainkoak daki nun, emazte lodi hari ene ikustera jin dadin erraiteko. Haren ikustaldia zer izan den ezatezakezut erran. Londres-en izana dela erran dauta, eta British-ko margazki guziak lerroan. Ikusten nauzun bezala, zure etxetik jalgitzean banoa mustro harenean kartoin baten ezartzera. Eta errexenetarik dela etzazula uste ukan, ezen hil-urranean delako estakuru beti etxean da eta, hara joan dadila arratseko zazpietan ala goizeko bederatzietan, zuri marrubi tarta eskaintzera emana da. Baina baietz, mustro bat da, erran zuen Guermantes-ko Andereak izabaren behako galdekari bati ihardetsiz. Jende bat ezin jasana: "lumakari" eta holakoak erraiten ditu. - Zer erran nahi din "lumakari"-k? galdegin zuen Villeparisis-ko Andereak ilobari. - Baina batere eztakit! egin zuen dukesak alegiazko sumindura batekin. Eztut batere jakin nahi. Eztut erdara hori mintzo." Eta hitzak zer erran nahi zuen izabak zinez etzakiela ikusiz, garbitzale bezain jakintsun zela erakusteko gozaldiaren ukaiteko eta Cambremer-ko

Andereaz eginik bere izabaz trufatzeko: "Baina ba, erran zuen omore gaixtoaren ondarrek hertsatzen zuten irri erdi batean, hori mundu guziak badaki, lumakari bat idazle bat da, luma badatxikan norbait. Baina itsuskeriazko hitza da. Ondar-haginen eror-azteko gai dena. Nehoiz etzata hori erran-araziko… Nola, anaia da! eztut oraino gogoan hartu. Baina ondarrean ezta ezin hartua. Baditu andereak ohe-tapiza baten lañotasun bera eta liburutegi itzulikari baten ahal berak. Hori bezain lausengaria da eta nardagarria. Aski ontsa jartzen ari niz ahaidego horren ideiari.

- Jar hadi, dute presa bat hartuko dinagu, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak Guermantes-ko Andereari, hihaurek har ezan, hire arbasoen potreten ikuste beharrik eztun, ezagutzen ditun nik bezain ontsa.

Villeparisis-ko Anderea laster jartzera itzuli zen eta margolaritzan hasi. Jende guzia hurbildu zen, hortaz baliatu nintzan Legrandin-en aldera joaiteko eta, Villeparisis-ko Anderearen etxean haren izaiteari ogendunik jeus ez aurkituz, erran naukon ohartu gabe zenbat naukon aldi berean laido eginen eta laidatzeko xedea banuela sinets-araziko: "He bada, jauna, saloin batean izaiteaz abantzu desenkusatua niz zu aurkitzen zitutanaz geroz." Hitz horietarik Legrandin Jaunak ondorioztatu zuen (hori izan zen bederen zenbait egun berantago nitaz eman zuen aburua) jende ttipi funtsez gaixto bat nintzala gaitzenean baizik laket etzena.

- Eni egunon erraitetik hasteko ikustatea ukaiten ahal zinuke, ihardetsi zautan eskurik eman gabe 'ta uste enaukon errabiazko mintzo arrunt batean, eta ohiki erraiten zuenarekin arrazoinezko araurik batere gabea, sendi zuen zerbaitekin arau berehalako eta saminagoa bazuenean. Ezen, gogoan sendi duguna, beti gorderik atxikitzera deliberatuak girelakotz, ehoiz eztugu gogoari eman nola erranen dugun. Eta bapatez, ihizi zikin eta ez ezagun bat da entzutera emaiten, eta haren doinua, zure akatsaren edo bizioaren segeretu nahigabeko, azpi-entzunezko eta abantzu ezin ihardoki hori hartzen duenari, joan daiteke batzuetan beldur emaiterano, egiteko gai zela uste etzinuen gaixtagin batek erahiltze bat aithortu gabe ezin egonean badagien bapateko aithor bazterka eta bitxiki goratik erran batek bezainbat. Eiki ontsa banakien idealixmak, nork bere baitakoak ere, eztituela filosofo handi batzu gormantak gelditzetik debekatzen edo Akademian hisituki sartu nahi izaitetik. Baina zinez Legrandin-ek bertze mundu batekoa zela hoin usu orhoit-arazteko beharrik etzuen bere haserrezko eta maitagarritasunezko jestu guziak gobernatuak zituelarik huntan berean lerro on baten ukaiteko gutiziaz.

- Alabaina, norapait jin-arazteko hogei aldiz gelditu gabe bortizki hertsatzen nautelarik, jarraiki zuen ahapetik, nahiz neure libertatearen ukaiteko dretxoan nizan bada, eztezaket alda oiesarena egin.

Guermantes-ko Anderea jarria zen. Izenak, bere tituluaz lagundua baitzen, gorputza emendatzen zaukon inguruan hedatzen zizakon dukateak, bizi-arazten zuela saloinaren erdian, hartan jarria zen alketx biribilaren inguruan, Guermantes-ko oihanen hoxtura itzalsu urreztatua. Ustegabetua sendi nintzan bakarrik haien iduria etzelakotz gehiago ageri dukesaren aurpegian, hunek landare itxuratik jeus ezpaitzuen eta matelen largorridura baitzen - izan behar zutelarik, iduriz, Guermantes izenaz harma-marrazkituak - gehien-gehienik aire betean zaldi-lasterraldien ez iduria, baina ondorioa. Geroago, ezpaikoa bilakatua izan zizatanean,

ezagutu nuen dukesaren berezitasun ainitz, eta bereziki (oraikotz orduan berexten jakin gabe jadanik haren lillura jasaiten nuen gaian egoiteko) begiak, gatibo bazadukatela margazki bat bezala Frantziako arratsalde bateko zeru urdina, zabalki idekia, dirdiratzen etzuenean ere argian igerikan; eta, lehenbiziko hitz erlastuetan abantzu arrunta usteko zen mintzo bat, hartan baitzabilan, Combray-ko elizako mailetan eta plazako patizerian bezala, iguzki probinziar baten urre auher eta gixena. Baina lehenbiziko egun hortan, jeus enuen berexi, ene oharpen suharrak berehala aira-arazten zuen bildu ahal ukanen nuen gutia eta hartan Guermantes-ko izenetik zerbait berraurkituko ahal nuena. Zer nahi den banion neure baitan hura zela bada Guermantes-ko dukesaren izenak erakusten zuena; izen horrek erran nahi zuen bizi ezin asmagarria, soin horrek bazadukan bada; bertzelako izaite batzuen erdira sartu berria zuen, alde orotarik inguratzen zuen saloin hortan eta eragin hain handia zuenean nun uste bainuen ikusten nuela, bizi hori hedatzetik gelditzen zen unean, mugak emaiten zauzkon irakidurazko lits bat: pekin urdinezko zaiaren balonak tapizan hausten zuen inguruan, eta dukesaren ñiñika argietan, hauk betetzen zituzten griñen, orhoitzapenen, gogamen ezin hartu, erdeinari, jostatu eta jakin-nahiaren, eta hetan dirdiratzen zuten iduri arrotzen gurutzagunean.

Apur bat gutiago hunkia izanen ninzatekeen Villeparisis-ko Anderearen etxean arratsaldi batean aurkitua ukan banu, markestsaren "egun" horietarik batean egiteko orde, emaztendako bere atheraldiaren erdian gelditordu labur bat baizik eztiren the horietan, eta, harekin bere erosketak egin berriak dituzten xapela buruan, saloinen lerroan ekhartzen baitute kampoko airearen ona eta arratsalde ondarrean Parisera idekitzen, hetan karrosen urrunga entzuten den leiho ideki gorek badagiten baino gehiago. Guermantes-ko Andereak bazuen buruko xabal urdin-loreztatu bat; eta gogoratzen zauztatenak etziren, urdin-loreak hain usu bilduak nituen Combray-ko ildoetan, Tansonville-ko hesiaren ondoko ezpondetan, urte urrunduen iguzkiak, ilunabarreko usaina eta erhautsa ziren, arestian ziren bezalakoak, Guermantes-ko Andereak iragan berriak zituen orduan, Bakeko karrikan. Itxura irriñodun, erdainari eta urrun batekin, ezpain tinkiez muttur egiten zuen batean, bere mixteriozko biziaren addarraz bezala ekitakoaren punttaz, tapizan inguru marratzen ari zen, gero, ikusten denaren eta nor beraren arteko hunkigune ororen ekhentzetik hasten den oharpen axolagabearekin, haren soa gelditzen zen aldizka gutarik bakoitzean, gero kanape 'ta jargiak ikhertzen zituen baina ezagutzen den gauza batek, abantzu jende bat den gauza batek phizten duen adxikidantza gizatarrean orduan eztituz; muble horiek etziren gu bezalakoak, nahasiki haren mundukoak ziren, haren izabaren biziari lotuak; gero, Beauvais-ko oihaleztatu mubletik, soa ekharria zen han jarria zen jendera eta berriz hartzen zuen orduan zorroztasunezko itxura eta Guermantes-ko Andereak izabarendako zuen errespetuak erakustera utziko etzuen gaitzespenezkoa, baina jargietan, gure orde, urin orbain bat edo erhautsa ikusi ukan balu ukanen zuena.

G. hauteko idazlea sartu zen; heldu zen Villeparisis-ko Andereari bortxu-lan batendako zadukan ikustaldi baten egitera. Dukesak, hura berriz aurkiturik loriatua, etzaukon alta jestu bat egin baina hura naturalki dukesaren ondora ethorri zen, zuen xoratzekoak, arteziak izpirituko emazte bat bezala harr-arazten zaukoten. Bertzela

ere ikustateak haren ondora joaiteaz eginbide bat egiten zaukon, ezen, gozagarria eta omenekoa izanez, Guermantes-ko Andereak barazkaltzera usu gomitatzen zuen berarekin eta senarrarekin buruz-buru ere, edo, larrazkenean, Guermantes-en, etxekotasun hortaz baliatzen zen arrats batzuez auhaltzera gomitatzeko hura aurkitu nahiak ziren goientasun batzuekin. Ezen dukesak maite zuen etxean gizon hoberen batzuen ukaitea, donadoak izaitekotan alta, estatu hori baitzaudukaten beti harendako, ezkonduak izanik ere, ezen, emaztek, guti edo aski arruntak, narrio emanen baitzuten Parisko eder aphainenik baizik etzen saloin batean, hek gabe ziren beti gomitatuak; eta dukeak, aitzinetik minberatasun ororen baztertzeko, erraiten zauen nahigabeko alhargun horier, nola dukesak etzuen emazterik onhartzen, emaztekin izaitea etzezakeen jasan, abantzu medikuaren errekeituz baliz bezala eta usainak baziren gambara batean ezin egon zaitekeela erranen zuen bezala, gazituegia ezin jan, karrosa gibelean ezin bidaiatu edo ttipoia ezin erabil. Egia da gizon handi horiek ikusten zituztela Guermantes-tarren etxean Parme-ko prinzesa, Sagan-ko prinzesa (Françoise-ek, beti hartaz mintzatzen entzunez, deitu baitzuen azkenean, ustez eta gramatikak emetasunezko hori nahi zuen, Sagantasa), eta bertze ainitz, baina horien han izaitea onharr-arazten zen familia zela erranez, edo bazter etzaitezkeen haurzaroko adixkideak. Emaztekin ezin ibiltzeko dukesaren eritasun bitxiaz dukeak emanak zezteen argitasunak sinetsirik ala ez, gizon handiek bere emazter jakin-arazten zezteeten. Batzuek gogatzen zuten eritasuna etzela bekaizkeriaren gordetzeko estakuru bat baizik, dukesak nahi baitzuen bakarra izan bere adoratzalen gortean erregina. Oraino xintxoago batzuek uste zuten dukesa mota berezi batekoa zela behar bada, berdin ere iragan ahalgegarri bat ukana zuela, emaztek etzutela haren etxera joan nahi, eta bere berezitasunaren izena zuela beharrari emaiten. Hoberenek, senarraren entzutean dukesaren ispirituaz mirazkoen erraiten, gogatzen zuten hainbat zela bertze emazteak baino goragokoa nun haien artean aspertzen baitzen, ezerez mintzatzen ezpaitakite. Eta egia da dukesa emazten ondoan aspertzen zela, zuten prinzesa lerroak balio berezi bat emaiten ezpazauen. Baina ezkontide baztertuak hutsean ziren, uste zutenean gizonik etzuela onhartu nahi literaturaz, jakitateaz eta filosofiaz mintzatu ahal ukaiteko baizik. Nehoiz ezpaitzituen horiek aiphatzen, bederen adimendu handikoekin. Armadako gizon handien alabek bere griña hutsalenen erdian armadako gauzen errespetua badatxikaten ohidura familiazko beraren izenean, Thiers, Marimée eta Augier-ekin atxikiak izanak ziren emazte batzuen alaba-bitxia, uste zuen behar dela lehen-lehenik saloinean izpirituko gizonendako leku bat atxiki; baina bertze aldetik, gizon aiphatu hek Guermantes-en onhartuak ziren molde aldi berean goratik egin eta minetik hartua zuen jende antzedunen ikusteko aztura, haien antzeak lilluratzen etzaituen etxeko ezagutza batzu bezala, bere lanez mintzatzen etzaienak, hortaz ezpaitira bertzela ere axolatuak izanen. Eta gero Mérimée-ren eta Meilhac eta Halévy-ren izpiritu motak, harena baitzen, bazeraman, aitzineko aro bateko sendimendukeria hiztunari kontra egitez, erranaldi handietakoa eta sendimendu goratuetakoa den guzia baztertzen duen solastatze mota batera, eta horrek bazegien halako aphaintasun bat ezartzen zuela, poeta batekin edo musikari batekin zenean, jaten ziren gauzez edo eginen zen karta partidaz baizik ez mintzatzean.

Begiratze horrek bazuen, guti jakinean zen heren batendako, mixteriorano zoan zerbait gogoetagarri. Guermantes-ko Andereak galdegiten bazaukon holako poeta aiphatuarekin gomitatua izaiteak atsegin emanen zaukonez, ikusi-nahi gorrian erran oreneko heldu zen. Dukesa poetari mintzatzen zizakon orduko aroaz. Mahira joaiten ziren. "Maite duzua arraultzen prestatzeko molde hau?" eskatzen zaukon poetari. Haren baian, aburu bera baitzuen, etxean zuen guzia hautekoa iduritzen zizakolakotz, Guermantes-tik jin-arazten zuen sagarno ezin gaixtoago batetarano: "Berriz emazkozu jaunari arraultzeak", manatzen zaukon mahi nagusiari, heren gomita, antsian, beti igurikan zagolarik jakiteko hea elgarri zer erran nahi ukana zuketen segurki, poeta joan baino lehen mila eragozpen izanik ere biek elgar ikustea antolatua zutenaz geroz. Baina aphairua aitzina zoan, platak bat betzearen ondotik ekhenduak, ez Guermantes-ko Andereari eman gabe irri-solas izpirituko eta ixtorioño xorrotx batzuen erraiteko aldia. Bitartean poeta beti jaten ari zen dukeak eta dukesak poeta zela orhoitzen zirela iduri ukan gabe. Eta laster barazkaria bururatua zen, elgarri goraintziak erraiten ziren, poesiaz hitz bat errana izan gabe, guziek alta maite zutelarik, baina, Zuanek aitzin-gostua emana zautanaren begirune berdinean, nehork ez aiphatzen. Begirune hori ara onekoa zen bakarrik. Baina heren gomitarendako, apur bat gogoetatzen baldin bazen, bazuen zerbait biziki gogo-ilungarri, eta Guermantes-tarren arteko aphairuek orhoit-arazten zituzten maitale herabe batzuek elgarrekin usu iragaiten dituzten orenak ohiko elhe batzuetan elgar uzteko ordurano, aithortuz zorion gehiago ukanen zuten segeretu handia, ala herabe, ala ahalge, ala trebetasun eskas, behin ere bihotzetik ezpainetara iragan ahal izana gabe. Gaineratu behar da bertzela ere, ixil hori gauza barnatuez eta hunkiko ziren ordua beti debaldetan igurikatzen zenez, dukesaren berezitasun bezala har baldin bazaitekeen, etzela haren baitan osoa. Guermantes-ko Andereak gaztaroa ingurumen apur bat ezperdinean iragana zuen, berdin arixtokraziakoan, baina orai bizi zena baino gutiago distiratuan eta oroz gainetik gutiago ezteuskeriakoan, eta kultura handikoan. Orai zuen ezteuskeriari utzia zaukon halako mami azkarrago bat, ezin ikusian hazlea eta dukesa hartara bazoana ere (biziki bekan, jakintsunkeria hastio baitzuen) Victor Hugo ala Lamartine-ren aiphaldi baten bila, biziki egokia, bere begi ederren behako sendikor batekin errana, ezpaitzuen ustegabetzetik eta xoratzetik huts egiten. Batzuetan ere, handi-ustekeriarik gabe, zuzentasun eta lañotasunekin, antzertilari akademiako bati emaiten zaukon aholku zuhur zenbait, gertaldi bat ezti-arazten edo bururapen bat alda-arazten.

Baldin, Villeparisis-ko Anderearen saloinean Combray-ko elizan bezala Percepied Anderearen ezkontzan, neke bazizatan Guermantes-ko Anderearen aurpegi ederrean, gizatarregian, izenak zuen ez ezagunaren aurkitzea, uste nuen bederen, mintzatuko zenean, haren solasak, barnatuak, mixteriozkoak, ukanen zuela ertaroko tapizeria baten, berinalde gothiko baten arroztasuna. Baina Guermantes-ko Anderea zeritzon norbaiti erraiten entzunen nauzkon elhez nahigabean utzia ez izaiteko, maitatua ezpanu ere, etzen aski izanen elheak xorrotx, eder eta barnatuak izan zaiten, ukan beharko zuten haren izeneko azken silaben sabi-margoa, haren gorputzean ez edireiteaz lehenbiziko egunean ustegabetua izana nintzan margoa eta haren gogora ihes egin-arazia nuena. Jadanik entzunak nituen dudarik gabe

Villeparisis-ko Anderea, Saint-Loup, haien adimenduak ohigabekorik jeus etzuen jende batzu, Guermantes izen horren ahozkatzen oharpenik gabe, ikustaldiz jinen zen edo harekin auhaldu behar zen norbaitena bezala bakarrik, iduri ukan gabe izen hortan senditzen zirela oihan horitzera eman batzuen itxurak eta probinziako xoko mixteriodun bat. Baina hetan alegia-egin bat zatekeen, poeta klasikoek alta ukanak dituzten xede barnatu batzuez abisatzen ezkituzten bezala, ni ere imitatzera indar banegien alegia-egina, doinu naturalenean erraitean: Guermantes-ko dukesa, bertze batzuen iduria lizatekeen izen bat bezala. Jende guziak zion bertzela ere emazte biziki adimendukoa zela, solastatze izpirituduneko a, lagunkideria ttipi ohargarrienetarik batean bizi zena: ene ametsaren gogaide bilakatzen ziren hitzak. Ezen baziotenenan lagunkideria adimendukoa, solasatze izpirituduna, asmatzen nuen adimendua etzen batere ezagutzen nuena bezalakoa, izpiritu handienena izan baliz ere, lagunkideria hori enuen batere Bergotte bezalako jendez moldatzen. Ez, adimendutik, entzuten nuen dohain bat ezin errana, urreztatua, oihan hoxtura batean hartua. Solas adimendukoenak atxikiz ere (filosofo edo kritikalari batez ari zenean "adimendua" hitza hartzen nuen erran-nahian), Guermantes-ko Andereak behar bada oraino gehiago nahigabetuko zuen hoin adimendu berezi baten aiduru ere egoitea, solasaldi baliogabeko batean, haren bizia gogoratuko zautaten kozinako errezeta batzuez edo jauregiko mubleriaz mintzatzea, auzoko andere batzuen edo bere jendakia batzuen aiphatzea aski izan balizako baino gehiago.

- Basin hemen aurkituko nuela uste nuen, zure ikustera jin gogo zuen, erran zaukon Guermantes Andereak izabari.

- Eztinat ikusi, hire senarra, egunak baditin, ihardetsi zuen Villeparisis-ko Andereak doinu minbera gaitzitu batean. Eztinat ikusi, edo behar bada aldi bat, Zuedako erregina bezala bere buruaren iragarr-arazteko jostakeria hartaz geroztik.

Irriño baten egiteko Guermantes-ko Andereak ezpainen xokoa tinkatu zuen bualeta ausiki ukan balu bezala.

- Barda erreginarekin bazkaldu gira Blanche Leroi-ren etxean, etzinezake ezagun, ikharagarria bilakatua da, eri dela segur niz.

- Jaun hauer erraiten nauenan hain zuzen igel baten itxura aurkitzen haukonala.

Guermantes-ko Andereak halako harrabots erlats bat entzuen-arazi zuen, konzienziako salbuespenez murrikan ari zela erran-nahi zuena.

- Erkidatze pollit hori egina nuela enakien, baina, orduan, igela da orai idia bezain lodi heltzera heldu izan dena. Edo izaitekotz ezta arras hori, haren loditasun guzia sabelean metatu baita, igel bat da izaitekotz haur beharretan.

- Ha! hori jostagarri aurkitzen dut, erran zuen Villeparisis-ko Andereak bere ikuslariendako oro har ilobaren izpirituaz aski burgoi.

- Oroz gainetik *nola nahikoa* da, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak hitz hautatu hori irkaitzez agerian emanez, Zuanek eginen zuen bezala, aithortzen baitut ehoiz eztutala ikusi igel bat haur ukaiten. Hasteko igel horrek, erregerik eztuena bertzela ere eskatzen, ehoiz ezpaitut senarraren heriotzeaz geroztik baino arinago ikusi, heldu den asteko egun batez etxera jin beharra da. Zer gerta ere jakin-araziko dautzutala errana dut.

Villeparisis-ko Andereak halako marmarika ez argi ez garbi bat entzun-arazi zuen.

- Badakinat herenegun Mecklembourg-eko Anderearen etxean auhaldua dela, gaineratu zuen. Han zunan Bréauté-ko Hannibal. Horren erraitera jin zatan, erran behar dinat aski jostagarriki.

- Auhari hartan bazen Babal baino ontsa izpiritukoago norbait, erran zuen Guermantes-ko Andereak, hainbat etxekotu mina izanik ere Bréauté-Consalvi-ko Jaunarekin, hori erakutsi nahi baitzuen izen ttipitzale horrekin deituz. Bergotte Jauna zen.

Bergotte izpiritukoa bezala hartua izan zaitekeela enuen gogoari emana; gainera, jende adimendunarekin nahasia bezala iduritzen zizatan, erran nahi da egongia bateko oihal gorrindolen azpian ohartua nindakon erresuma mixteriozkotik ezin gehiago urrun, han Bréauté-ko Jaunak, dukesari irri egin-araziz baitzadukan harekin, Jainkoen hizkuntzan, gauza ezin asmagarri hau: Saint-Germain bazterhiriko jenden arteko solasaldi bat. Arau horren hausteaz lastimatua izan nintzan eta Bergotte-ren ikusteaz Bréauté-ko Jaunaren gainditzen. Baina, gehienik, etsitua izan nintzan Bergotte bazterrera utzia ukanik *Phèdre* eman zen arratsean, haren gana ez joana izanik, Guermantes-ko Anderea-ren entzutean Villeparisis-ko Andereari erraiten:

- Ezagutzeko gura duten jende bakarra da, gaineratu zuen dukesak, ikus baitzaitekeen beti haren baitan, izpirituko itsas-aldi baten orduan bezala, adimendun aiphatuen alderako jakin-nahi baten goraldia, bidean arixtokraziako handi-ustearen beheraldiaren gurutzatzen.

Ene ondoan Bergotte-ren izaiteak, hain errex ukaiten ahalko nuena, baina Guermantes-ko Andereari nitaz ideia gaixto baten emaiteko gai uste ukanen, aldiz, ondoriotzat ukanen zukeen haren egongiara joan nindadin kheinu bat eginen zautala eta egun batez idazle handia barazkaltzera ereman nezan galdeginen.

- Ez omen da biziki maitagarri izana, Cobourg-eko Jaunari aitzineratu zako eta hitz bat eztauko erran, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak, gauza berezi hori seinalatuz Xinako paper batekin zintzatu zela erranen zuen bezala. Aldi batez eztauko erran "Enejauna", egin zuen aitzina, xehetasun hortaz jostatu aire batekin, aitasainduaren entzunaldi batean Haren Saindutasunaren aitzinean balhaurnikatzeko higenaut baten eza bezain larria zenaz harendako.

Bergotte-ren berezitasun horietaz hunkia, etzuen bertzela gaizkigarri zizazkola iduri, baina izaitekotz hetaz mereximendu bat emaiten zaukola berak zein motakoa zen jakin gabe. Bergotte-ren berezitasunaren hartzeko molde bitxi hori izanik ere, gertatu zizatan berantago ez osoki baitezpadakoa aurkitzea Guermantes-ko Andereak, ainitzen ustegabetze handian, Bergotte aurki zezan Bréauté-ko Jauna baino gutiago izpirituduna. Jujamendu hondagarri horiek, bakartuak baina hala ere zuzenak, bertzeak baino goragoko jende bekan batzuek horrela mundura eremanak dira. Eta han marrazkitzen dituzte mereximenduetako hierarkiaren lehenbiziko marradurak, ondoko gizaldiak ezarriko dituen molde berean betikotz aitzinekoan gelditzeko orde.

Argencourt-eko kondea, Belgikako egitekoez kargatua eta ezkontzaz Villeparisis-ko Anderearen gusia, sartu zen mainguka, berehala bi mutiko gazte jarraikitzen zizazkola, Guermantes-ko baroina eta Haren Goientasun Châtellerault-eko dukea, Guermantes-ko Andereak erran baitzaukon: "Egun on Châtellerault ttipia", ohartu gabe bezalako aire batekin eta bere alketx biribiletik higitu gabe, duke gaztearen amaren adixkide handi baitzen, eta dukeak horren gatik eta gazte-gaztetik baitzuen harendako errespetu ezin handiagoa. Handi, mehe, larru-ileak urre-kolore, osoki Guermantes motakoak, bi mutiko gazte horiek bazuten saloin handia hartzen zuen udalehen arratsaldeko argiaren bil-tinkatze baten itxura. Aro hartan modan zen ohidura bati jarraikiz bere xapel-gorak lurrean ezarri zituzten, bere ondoan. Fronde-ko ixtoriolariak uste ukan zuen jenatuak zirela laborari bat herriko etxera sartzen denean bezala eta bere xapelaz zer egin ez jakin. Gogatuz behar zuela garitatez uste zauen moldegaizkeria eta herabearen laguntzera jin:

- Ez, ez, erran zauen, etzazkizuela lurrean ezarr, andeatuko dituzue.

Guermantes-ko baroinaren so batek, bere ñiñiken itxura zeharka emanez, hetan itzulikatu zuen bapatez urdin bat gordin eta zorrotza, ixtoriolari ongi-nahia hormatu zaukana.

- Jaun hori nola deitzen da? galdegin zautan baroinak, Villeparisis-ko Anderealk aitzineratu berria baitzautan.

- Pierre Jauna, ihardetsi nuen erdi ahapetik.

- Pierre zeintakoa?

- Pierre, deitura du, balio handiko ixtoriolaria da.

- Ha!… Hoinbertze erranen dautazu.

- Ez, jaun horien ohidura berri bat da lurrean xapelen ezartzea, argitu zuen Villeparisis-ko Andereak, ni zu bezala niz, eniz hortara jartzen. Baina ene iloba Robert-ena baino nahiago dut hori, berea beti aitzin-gambaran uzten baitu. Erraiten daukot, horrela sartzen ikusten dutanean, erloigilea iduri duela eta erloien muntatzera heldu denez galdegiten.

- Arestian, andere markesa, Molé Jaunaren xapelaz mintzo zinen, laster helduko gira, Ariztotele bezala, xapeletako kapitulu baten egitera, erran zuen Fronde-ko ixtoriolariak, Villeparisis-ko Anderearen arteratze hortaz apur bat segurtatua, baina alta mintzo hain ahularekin nun, nik ezpada, nehork ezpaitzuen entzun.

- Zinez ustegabegarria da, dukesañoa, erran zuen Argencourt-eko Jaunak Guermantes-ko dukesa erakutsiz G…-rekin elheketa. Saloin batean gizon ezagun bat badeneko, beti haren ondoan da. Ageri da eztaitekeela izan hor den handi-mandi hori baizik. Eztaiteke izan egun guziez Borelli-ko Jauna, Schlumberger ala Avenel-goa. Atzo arratsean, Doudeauville-tarren etxean, han, artetik erraiteko, ezin ederrago baitzen bere esmeraldazko diademaren azpian, zaia handi buztandun arrosa-kolore batean, bazituen alde batetik Deschanel Jauna, bertzetik Alemaniako embaxadorea: Xinaz ihardokitzen zauen; jende gehiena, errespetuzko urrun batean, bazagon etzenez gerla izanen. Zinez erregina bat erranen zen gortea inguruan.

Bakoitza Villeparisis-ko Anderearen ondora hurbildua zen margolaritzan ikusteko.

- Lore horiek gorraxta zinez zerutarrekoak dira, erran zuen Legrandin-ek, erran nahi dut zeru gorraxtaren kolore. Zeren bada zeru gorraxta zeru urdina den bezala. Baina, murmurikatu zuen markestsaz baizik ez entzuna izaitera entseatzeko, uste dut oraino zetazkora ekharria nizala, egiten duzun kopiako gorri-argi bizidunera. Ha! zutarik ontsa gibelean uzten dituzu Pisanello eta Van Huysum, haien belartegi ximen baina hila.

Edergile batek, nahi den xumea izanik ere, bere lankider hautetsia izaitea beti onhartzen du eta haier zuzenaren itzultzera indar egiten bakarrik.

- Ondorio hori emaiten dautzuna, guk ezagutzen eztugun aro hartako liliak margotzen dituztela da, baina jakitate ontsa handia zuten.

- Ha! aro hartako liliak, zein antzedun den, egin zuen Legrandin-ek.

- Gerezi lore eder batzu margotzen dituzu alabaina … edo maiatz-arrosak, erran zuen Fronde-ko ixtoriolariak ez liliaz zalantzan egon gabe, baina mintzoan segurtasunekin, xapeletako gertakariaren ahazten hasia baitzen.

- Ez, sagar loreak dira, erran zuen Guermantes-ko dukesak izabari mintzatuz.

- Ha! baserritar on bat hizala ikusten dinat, ni bezala, lilien berexten badakin.

- Ha! ba, egia da! baina sagartzen aroa jadanik joana zela uste nuen, erran zuen menturan Fronde-ko ixtoriolariak desenkusatzeko.

- Baina ez, eztira ere oraino lili, eta ez hamabortz bat egunez hala izanen, hirur astez behar bada, erran zuen artxibolariak, apur bat Villeparisis-ko Anderearen ontasunetan buru izanez, hobeki baitzakien baserriko gauzen berri.

- Ba, eta oraino Parisko inguruetan, hor biziki aitzinean baitira. Normandian behazunez, horren aitaren etxean, erran zuen Châtellerault-eko dukea erakutsiz, sagartze miragarriak baititu itsas-ondoan, haizolbe xapones batean bezala, eztira egiazki gorraxtak lorail hogeiaren ondotik baizik.

- Nehoiz eztitut ikusten, belarren sukarra emaiten baitautate, loriagarri da.

- Belarren marranta, hortaz mintzatzen ehoiz eztut entzun, erran zuen ixtoriolariak.

- Modako eritasuna, erran zuen artxibolariak.

- Noiz nola, jeus etzinezake ukan behar bada sagarrak badiren urtea baldin bada. Normandiarraren hitza badakizu. Sagarrak badiren urte bateko … erran zuen Argencourt-eko Jaunak, es osoki Frantzesa izanez, nahi baitzuen bere buruari itxura paristarra eman.

- Arrazoin dun, ihardetsi zaukon Villeparisis-ko Andereak ilobari, Eguerdialdeko sagarrak ditun. Lore saltzale batek dauztan aldaxka horiek igorri, onhar ditzatan erranez. Ustegabetzen zitu Vallenières jauna, erran zuen artxibolariaren aldera itzuliz, lore saltzalesa batek sagar aldaxkak igor ditzadan? Baina andere zahar izaiten ahal niz, mundua badazagut, baditut adixkide zenbait, gaineratu zuen irriño batekin, lañotasunez, uste izan zen orotara, baina izaitekotz, iduritu zizatan, lore saltzale baten adixkidantzaz hantzean jostakin zerbait aurkitzen baitzuen hoin ezagutza handiak bazirelarik.

Bloch zutitu zen bere aldian Villeparisis-ko Andereak margotzen zituen lilien mirestera jiteko.

- Berdina da, markesa, erran zuen ixtoriolariak bere kaderara itzuliz, berriz jiten baliz ere Frantziako ixtorioa hain usu odoleztatu duten iraultza hetarik bat - eta, Jainkoa, bizi giren aroetan ezin daiteke jakin, gaineratu zuen inguruan so behakin bat emanez ikusteko saloinean etzenez "gogoeta gaixtoko" norbait, nahiz etzuen hortaz dudatzen, - horrelako dohain eta zure bortz hizkuntzekin, beti atheratzeaz segur zinateke.

Fronde-ko ixtoriolaria atseden zenbaitez gozatzen zen, bere logabeak ahatziak baitzituen. Baina orhoitu zen bapatez bazela sei egun etzuela lo egina: orduan akhidura gogor batek, gogoan sortua, hartu zauzkon zangoak, soingainak ukhurr-arazi, eta haren aurpegi lastimatua dilindan zagon, gizon zahar batena iduri.

Bloch-ek jestu bat egin nahi ukan zuen bere miresmenaren erraiteko, baina ukondoaz aldaxka hartan zen untzia aurdiki zuen eta ur guzia tapizara ixuri zen.

- Badituzu zinez andere-azti baten erhiak, erran zaukon makestsari ixtoriolariak, ordu hartan bizkarra eni itzuliz Bloch-en malestrukeriaz ezpaitzen ohartua.

Baina Bloch-ek uste ukan zuen hitz horiek harendako zirela, eta bere moldegaizkeriaren gordetzeko ozarkeria baten azpian:

- Horrek eztu muntarik batere, ezpainiz bustia.

Villeparisis-ko Andereak xilintxa jo zuen eta mutil jantzi bat jin zen tapizaren garbitzera eta berinakien biltzera. Andereak gomitatu zituen bi mutiko gazteak bere goizaldira eta Guermantes-ko dukesa ere, huni gomendatu baitzaukon:

- Orhoit hadi Gisèle 'ta Berthe-ri erraiteaz (Auberjon-go eta Portefin-go dukesak) bi orenak baino doi bat lehenago hemen izan diten ene laguntzeko, kampoko mahi nagusi batzuer erranen zauen bezala aitzinetik ethor ziten kompota-untzien egitera.

Etzuen bere jendakia printzetarrekin, ez Norpois-ko Jaunarekin baino gehiago, ixtoriolariarekin, Cottard-ekin, Bloch-ekin, enekin zituen ikustate hetarik batere, eta iduritu zuten etzutela harendako gure jakin-nahiari ahora haien emaiteko balioaz bertzerik. Ezen bazakien eragozpen ukaiteko beharrik etzuela haiendako emazte guti edo aski dirdiratu bat baizik etzenekin, baina haien aitaren edo osabaren ahizpa minbera, eta gupidetsia. Haiendako distiratzearen bilatzea etzizakon jeusetako baliatuko, ezpaitzezazkeen engana bere izanararen azkarraz edo ahulaz, eta nehork baino hobeki baitzakiten haren ixtorioa eta jalgia zen arraza aiphatua errespetatzen baitzuten. Baina oroz gainetik etziren gehiago harendako berriz fruiturik emanen etzuen ondarkin bat baizik, adixkide berriak etzauzkoten ezagun-araziko, etzuten bere atseginetan barne hartuko. Etzezakeen ukan haien han izaitea baizik edo bere bortz orenetako gomitaldian hetaz mintzatu ahal ukaitea, gero berantago hau errepikaldi bat, jende multzo ttipi baten aitzinean goratik irakurtaldi bat baizik etzen Orhoitzapenetan bezala. Eta ahaide noble horiek guziek haren gogo-eratxikitzeko, lilluratzeko, xoratzeko baliatzen zizakon Cottard bezalakoen, Bloch bezalakoen, atzerlari apihatuenen, Fronde-ko ixtoriolari mota orotakoen kompainia, hortan ziren, Villeparisis-ko Anderearendako - haren etxera etzoan mundu aiphaineko zatiaren eskasez - mugimendua, berritasuna, libertimenduak eta bizia; jende horietarik zezazkeen bil gizarteko abantailak (Guermantes-ko dukesa

batzuetan aurki-araz zezeen ontsa balio baitzuten, ehoiz ezagun ahal zezaten gabe): auhari batzu haien lanek gogoa atxikia zaukoten gizon ohargarri batzuekin, opera-komika bat edo mima-joko aitzinetik moldatu bat egileak haren etxean eman-arazten zuena, ikuskarri berezi batzuetako egongiak.

Bloch zutitu zen abiatzeko. Gora-gora errana zuen lore untzi aurdikiko gertakariak muntarik batere etzuela, baina ahapetik ziona bertzelakoa zen, gogoan zuena baino bertzelakoagoa ere: "Mutilik eztelarik aski ara onekorik untzi baten ezartzen jakiteko ikuslarien trempatzea eta zauritzea ere irriskatu gabe, ezta aberaskeria horietan sartzen" marmarikatu zuen aphal-aphala. Bere baitan alta aithortzen eztuten malestrukeria bat egina ukaitea ezin jasan dezaketen jende minbera eta "zaintsu" hetarik zen. Sumindurik, gogoeta beltzak sendi zituen bere baitan, mundura etzuen gehiago itzuli nahi. Libertimendu apur bat beharra den ordua zen. Zorionez, zekunda baten buruan, Villeparisis-ko Andereak atxikiko zuen. Ala adixkiden aburuak bazazkielakotz eta goititzen ari zen juduen hastioko uhaina, ala ohargabez, etzuen hor ziren jende guzier aitzineratua. Bitartean hark, guti baitzakien munduko aztura, uste ukan zuen joaitean agurtu behar zituela, jendetasunez, baina maitagarritasunik gabe; burua aldi bat baino gehiagotan gurtu zuen, lepoko falsuan bidarra sartu, aldizka bakoitzari so eginez, itxura hotz eta khexu batean. Baina Villeparisis-ko Andereak gelditu zuen, aiphatu behar zaukon oraino etxean eman behar izana zen egitaldi ttipia, eta bertzalde etzuen nahi ukanen Norpois Jaunaren ezagutzeko askiespena ukan gabe joan zadin (sartzen haren ez ikusteaz ustegabean zen), eta nahiz aitzineratze hori behargabekoa zen, ezen Bloch jadanik deliberatua zen aiphatuak zituen bi kantarier markestsaren etxera kantatzera kittoan ethor zaiten sinets-araztera, bere aiphamenaren abantailetan, Europako hoberena han zabilan gomitaldietarik batera. Gainera eskainia zuen andere tragedialari "begi nabarrekilako, Hera bezain eder" bat, hitz laxo lirikoak erranen zituena ederki moldatzeko asmuarekin. Baina izenaren jakitean Villeparisis-ko Andereak eza emana zuen, Saint-Loup-en maitalea baitzen.

- Berri hobeak baditut, erran zautan andereak beharrira, uste dut eztuela gehiago hegal batez baizik joiten eta berexten eztutela luzatuko. Gauza hortan guzian aitzindari batek jokaldi higungarri bat egin badu ere, gaineratu zuen. (Ezen Robert-en familia Borodino-ko Jaunari aiher izaiten hasia zen Bruges-ra joiteko baimena emana baitzuen, ile mozleak othoizturik, eta atxikimendu ahalgegarri horren fagoratzeaz salatzen zuen.) Jende biziki gaixtoa da, erran zautan Villeparisis-ko Andereak Guermantes-tar bizioz galduenek ere zuten doinu bertutezkoarekin. Osoki osoki gaixtoa, egin zuen berriz hitza errepikatuz. Sendi zen etzuela dudan emaiten atsegalekeria guzietan barne zela. Baina maitagarritasuna baitzen ohidura nagusia markestsaren baitan, "Borodino-ko Printzea" izenaren erraitean, hitz-hantura irkaiztun batekin, ukan zuen itxura larde zimurra, Imperioak harendako baliorik eztuen emazte bezala, bururatu zen enetako irriño xamur batean eta enekin gogaidetasun ez argi bateko begi klixkatze ohargabearekin.

- Saint-Loup-en-Bray-koa aski maite nuen, erran zuen Bloch-ek, nahiz zakur bat gaixtoa den, ezin hobeki ikasia baita. Jende ezin hobeki ikasiak biziki maite ditut, hain da bekan, jarraiki zuen ohartu gabe, bera biziki gaizki ikasia baitzen,

zenbat haren elheak gozagaizkarriak ziren. Haren ikustate beteginaz biziki ohargarri iduritzen zatan phorogantza bat emanen dautzut. Aldi batez putiko gazte batekin aurkitu dut, bere karro phaldo ederrekilakora igaitera zoanean, uhal handizki ederrak berak ezarriak zezteen olhoz eta garagarrez hazi bi zaldier eta zaharo dirdiratuaz akulatze beharrik eztutener. Elgarri aitzineratu ginituen, baina gizon gaztearen izena eneun entzun, ezpaita haier aitzineratzen zaizkien jenden izena nehoiz etzuten, gaineratu zuen irriz hori bere aitaren irri-solas bat zelakotz. Saint-Loup-en-Bray-koa laño gelditu zen, mutiko gaztearendako etzuen gastu sobera egin, ez eta edozein moldez jenatua iduritu. Bada, halabeharrez, zenbait egun berantago ikasi dut mutiko gaztea Sir Rufus Israels-en semea zela!

Ixtorio horren bururapena hastapena baino gutiago ofensagarria iduritu zen, ezin gogoan hartua gelditu baitzen han ziren jendendako. Alabaina, Sir Rufus Israels, Bloch-i eta haren aitari norbait abantzu errege lerrokoa eta Saint-Loup haren aitzinean ikharatu behar zuena iduritzen zizaiena, Guermantes-tarren ingurumeneko begietan aldiz atzerritar aberats berri bat zen, munduan doi-doia onhartua, ezpaitzen haren adixkidantzaz urgulu hartzeko ideiarik ukanen, ontsa kontra!

- Sir Rufus Israels-en gizon legez kargatuenaren ganik ikasia dut, erran zuen Bloch-ek, aitaren adixkide bat baita eta gizon osoki ohigabekoa. Ha! norbait ezin ohargarriagoa, gaineratu zuen, nork berak moldatuak eztiren sinespenetan baizik ezartzen eztiren gemen baieztatzale 'ta doinu suharrarekin. Baina erratak, hasi zen berriz Bloch ahapetik mintzatuz, zer fortuna ukan dezakek Saint-Loup-ek? Ontsa hartzen duk, hori galdegiten badeat, enukala hortaz atzoko haizeaz baino gehiago axolatzen, baina Balzac-en arako ikuspegi batetik duk, hartzen? Eta zertan ezarria dikan eztakik ere, diru-balio frantsesak ditikanez, atzerrikoak, lurrak?

Xehetasunik batere enaukon eman ahal ukan. Erdi ahapeka mintzatzetik geldituz, Bloch-ek eskatu zuen gora-gora leihoen idekitzeko baimena eta, erantzuna igurikatu gabe, haien aldera abiatu zen. Villeparisis-ko Andereak erran zuen ezin idek zaitezkeela, marranta zela. "Ha! gaitz eman behar baldin badautzu ihardetsi zuen Bloch-ek, nahigabetua. Baina bero dela erran daiteke!" Eta irriz hasiz, han zirenen inguruan itzulikatu ziren behakoer eske bat egin-arazi zauen, Villeparisis-ko Anderearen kontra laguntza bat galdegiten zuena. Etzuen, jende ontsa ikasi horietan, aurkitu. Haren begi sutsuek, nehor bildu ahal ez ukanik, etsian berriz hartu zuten bere seriostasuna; galpenaz den bezainbatean, erran zuen: "Hogei-ta bi grado badira bederen. Hogei-ta bortz? Enu horrek ustegabetzen. Abanzu igerika niz. Eta eztut, Antenor zuhurrak bezala, Alpheios ibaiaren semea, aitaren urean trempatzeko ahala, izerdiaren geldi-arazteko, mainutegi leun batean sartu baino lehen eta olio usain-onduz gantzutu." Eta guhauren ontsa izaiteko fagoragarri liratezkeen medikuntzako theoria batzuetan hasteko dugun beharrarekin: "Zuendako on dela uste baldin baduzue! Nik osoki kontrakoa uste dut. Hain zuzen horrek zituzte marrantatzen."

Bloch Norpois-ko Jaunaren ezagutzeaz loriatua agertua zen. Maite ukanen zuen, zion, Dreyfus aferaz mintza-araztea.

- Bada hor gaizki badazagutan gogo mota bat, eta aski jostakin lizateke gaitzeko diplomata horri "interbiu" baten hartzea, erran zuen irkaitz bizizko doinu batean, bere burua Embaxadorea baino gutiago zadukala ez iduri ukaiteko.

Villeparisis-ko Andereak urriki ukan zuen hark hori hoin gora erranik, baina etzuen axola handirik ukan ikusi zuenean artxibolaria, haren aburu herrikoiek hala erraiteko gatinaturik baitzadukaten, urrunegi zela entzuna ahal ukaiteko. Gehiago ofensatua izan zen Bloch-en entzutean, aitzinetik itsutua zuen bere ikustate gaitzaren debruak eremana, geldegiten zaukola, aitaren jostakeriaz irriz:

- Eztuta haren lan jakitatezko bat irakurri hartan erakusten baitzuen arrazoin ezin ezetsi batzuetarik gerla errusiar-japoniarrak behar zuela Errusiarren irabaztetik eta Japoniarren galtzetik bururatu? Eta eztea doi bat haurtua? Iduri zata hura dutala ikusi bere alkiaren *begiztatzen*, jartzera joan baino lehen, errotta batzuetan bezala lerratuz.

- Sekulan ez! Ephe bat zaude, gaineratu zuen markestsak, zer ari den eztakit.

Jo zuen eta mutila sartua izan zenean, ezpaitzen batere gordetzera ekharria eta ere maite baitzuen bere adixkide zaharrak dembora gehiena haren etxean iragaiten zuela erakustea:

- Zoaz bada Norpois-ko Jaunari erraitera jin dadin, ene bulegoan da paper batzuen ordenatzen ari, hogei minutaren buruan ethorriko dela errana du eta horra hirur oren laurden igurikatzen dutala. Dreyfus aferaz mintzatuko zaizu, nahi duzun guziaz, erran zaukon doinu muttur batean Bloch-i, gertatzen ari dena eztu biziki onhartzen.

Ezen Norpois-ko Jauna gaizki zen orduko minixterioarekin, eta Villeparisis-ko Anderea, nahiz etzen huni gobernamenduko gizon batzuen ekhartzera ausartuko (arixtokrazia handiko andere baten goratasun guzia bazatxikan hala ere eta embaxadorea ukaitera bortxatua zen ezagutzetarik bazter eta gorago zagon), haren bitartez gertatzen zena bazakien. Berdin ere, Errepublikako gizon politikari horiek etziren menturatuko Villeparisis-ko Andereari aitzinera zitzan Norpois-ko Jaunari galdegitera. Baina batzu haren bila izanak ziren baserrira, gertaldi larri batzuetan haren laguntzaren beharretan izanak zirenean. Helbidea jakina zen. Jauregira joaiten zen. Jauregiko anderea etzen ikusten. Baina auhaltzean erraiten zuen: "Jauna, zure desarrañatzera izan direla badakit. Gauzak hobeki doazea?"

- Etzira presatuegia? galdegin zaukon Villeparisis-ko Andereak Bloch-i.

- Ez, ez, abiatu nahi nuen ezpainiz hain ontsa, behar omen dut ere Vichy-n arthamendu bat egin min-bixikarenda, erran zuen hitz horiek debruzko irkaitz batekin ahozkatuz.

- Ori, hain zuzen ene iloba-bitxi Châtellerault-ek hara joan behar du, hori elgarrekin akomeatu behar zinukete. Hor ote da oraino? Gixakoa da, badakizu, erran zuen Villeparisis-ko Andereak behar bada gogo onez, eta ustez biak ezagutzen zituen jende batzuek elgarrekin ez adixkidetzeko arrazoinik batere etzutela.

- Ho! gusta lakidionez eztakit, eztut ezagutzen … doi-doia baizik, hantxe da urrunago, erran zuen Bloch-ek ahalgetua eta loriatua.

Mahi-nagusiak etzukeen osoki betea Norpois-ko Jaunarendako ukan berria zuen mezua. Ezen hunek, kampotik heldu zela sinets-arazteko eta etxekanderea

etzuela oraino ikusia, hartu zuen aitzin-gambaran nun nahi ezagutu uste ukan nuen xapel bat, eta jin zen zeremoniarekin Villeparisis-ko Anderearen eskuaren aphatzera, hari berriak galdeginez hor ez izaite luze baten ondotik erakusten den oharpen berarekin. Etzakien markestsak aitzinetik egia itxura oro ekhendua zaukola komedia horri, andereak berak laburki moztu zuena bertzela ere Norpois-ko Jauna eta Bloch bertze saloin batera eremanez. Bloch-ek, ikusiak baitzituen Norpois-ko Jauna zela oraino etzakienari egiten ziren ikustate guziak, eta Embaxadoreak hetaz ihardesten zauen agur serios, garaziadun eta barnatuak, Bloch-ek bere burua sendituz zeremonieria hori guzia baino aphalago eta hari nehoiz etzizakola mintzatuko gogatuz gaitzitua, errana zautan gostura zela erakusteko: "Zer da ergel mota hori?" Badateke ere, Norpois-ko Jaunaren agur guziek ofensatzen baitzuten Bloch-en baitan zen hoberena, oraiko jendetan den zintzotasun zuzenagoa, zintzoki zituela zatiz bederen irriegingarriak aurkitzen. Zer nahi den, hala iduritzetik gelditu zizazkon eta loriatu zuten ere hura, Bloch, haien gaia gertatu zen zekundatik.

- Jaun Embaxadorea, erran zuen Villeparisis-ko Andereak, nahi nauzuke Jauna ezagun-arazi. Bloch Jauna, Norpois-ko Jauna. Atxikia zen, Norpois-ko Jaunari bortizki egiteko ara ukanik ere, hari "Embaxadore Jauna"-ren erraiteari, jendetasunez, embaxadore lerroaren alderako ikustate handiegiz - markesak gogoan sarr-arazia zaukon ikustatea - , azkenik ere gizon berezi baten aldera ara gutiago etxekotuen, zeremonia gehiagokoen emaiteko, horiek, hautuko emazte baten saloinean, bertze gomit ohikoekin zuen libertatearekin hautsiz, berehala erakusten baitute haren maitalea.

Norpois-ko Jaunak bere behako urdina bizarrean itho zuen, bere kaizu gora barnatuki beheititu gurtzen balu bezala Bloch-en izenak itxuratzen zuen nabari eta gotorraren aitzinean, murmurikatu "loriatua niz", solaskide gazteak, hunkia baina diplomata aiphatua urrunegi zoala gogoan, lehian zuzentzen zuela eta erraiten: "Baina ez batere, aldiz loriatua ni niz!" Zeremonia hori alta, Norpois-ko Jaunak Villeparisis-ko Anderearendako adixkidantzaz berritzen zuena adixkide zaharrak aitzineratzen zaukon arrotz bakoitzean, etzizakon andereari Bloch-endako ikustate aski izan erran baitzaukon:

- Baina jakin nahi duzun guzia galdegin ezozu, ondoko barnera eremazu hori egokiago baldin bazaizu; zurekin mintzatzeaz loriatua izanen da. Uste dut Dreyfus aferaz mintzatu nahi zinaukola, gaineratu zuen, horrek Norpois-ko Jaunari atsegin egiten zaukonez axolatu gabe, Montmorency-ko dukesaren potretari ixtoriolariendako argitan ezarri baino lehen ala theari kikera bat eskaini baino lehen baimenaren galdegitea gogoan ukanen zuen baino gehiago.

- Azkar mintza ezakozu, erran zuen Bloch-i, apur bat gorra da, baina nahi duzun guzia erranen dautzu, biziki ontsa ezagutu ditu Bismarck, Cavour. Eztea hala, Jauna, erran zuen azkarki, Bismarck ontsa ezagutu duzu?

- Ari zirea zerbaitetan? galdegin zautan Norpois-ko Jaunak elgar entzutezko kheinu batekin eskua bihotzez tinkatuz. Hortaz baliatu nintzan gogo onez zeremoniako seinalez ekharri beharra zuela uste ukana zuen xapelaz libratzeko, ohartu berria bainintzan enea zuela ustegabean hartua. "Lanxka bat erakutsia zinautan apur bat karabilkatua, hartan xehekerian ari baitzinen. Ene aburua zintzoki

emanen dautzut; egina zinuenak etzuen paperrean ezartzea balio. Zerbait moldatzen daukuzua? Begotte-ez biziki hartua zira, ontsa orhoit baniz. - Ha! etzazula Bergotte-ez gazkirik erran, egin zuen dukesak. - Eztut margotzeko duen antzea dudan emaiten, elaiteke nehor mentura, dukesa. Alzeiru-zizelaz grabatzen badaki eta ur-azkarrean, eta, Cherbuliez Jaunak bezala, lan handi baten brozatzen. Baina iduri zata gure demborak badagiela motetako nahaste bat eta elhaberrigilearen egitekoa ixtorio baten moldatzea dela izaitekotz eta bihotzen goititzea, puntta idorrean aitzin-marrazki baten edo argipeko baten kuxkurratzea baino lehen. Zure aita igandean ikusiko dut A.J. gizon gaizo haren etxean, erran zautan.

Ephe batez uste ukan nuen, Guermantes-ko Andereari mintzo zela ikustean, emanen zautala behar bada haren etxera joaiteko Zuan Anderearenera egiteko ezetsia zautan laguntza. "Ene miresmen handietarik bertze bat, erran naukon, Elstir da. Guermantes-ko dukesak ba omen ditu xoragarriak, bereziki Esposizionetan ohartua naukon arbixka haxe miragarri bat eta hainbertze berrikusi nahiko nuena; zer nagusi-lana margazki hori!" Alabaina, gizon ezagun bat izan banintz, eta galdegin balautate hautesten nuen margazki zatia, arbixka-haxe hori nuen aiphatuko.

- Nagusi-lan bat? egin zuen Norpois-ko Jaunak ustegabetze 'ta gaizkitzeko itxura batekin. Eztu margazki izaiteko nahikaria ere, lanekai bat doi-doia (arrazoin zuen). Nagusi-lana baderizozu pinzeladura bixi horri, zer erranen duzu Hebert edo Dagnan-Bouveret-en "Birjina"-z?

- Entzun dut Robert-en maitalea etzinuela onhartzen, erran zaukon Guermantes-ko Andereak izabari Bloch embaxadorearekin mintzatzen hasi zenean, uste dut urrikaltzerik batere eztuzula, badakizu itsuskeria bat dela, antzearen itzalik eztu, eta gainera irriegingarri.

- Baina, dukesa, nolaz ezagutzen duzu? erran zuen Argencourt-eko Jaunak?

- Nolaz, nun nahi baino lehen ene etxean jokatua dela eztakizu? eniz hortakotz burgoiago, erran zuen irriz Guermantes-ko Andereak, zorionean alta, jokari hortaz mintzo zenez geroz, haren irrigarritasunen pikainak ukanak zituela jakin-arazteaz. Goazen, etzata joaitea baizik gelditzen, gaineratu zuen lekutik higitu gabe.

Senarra sartzen ikusia zuen, eta erraiten zituen hitzetarik, aieru bazegion elgarrekin ezteietako ikustaldi baten egiteko iduri ukaitearen irrigarritasunari, ez batere dukesaren eta gaitzeko gizon zahartzera eman, baina beti mutiko gazte baten bizia zeraman haren artean ziren estakuruer. The mahia inguratzen zuten jende ainitzen gainean ibiliz bere ñiñika ttipi biribil eta - tirari ezin hobea zenak hain ontsa begiztatzen eta hunkitzen bazazkien "titak" bezala - begian zuzen jarrien so gozo, maltzur eta etzatera zoan iguzkiaren arraiek apur bat itsutua, dukea heldu zen eztitasun lilluratu eta zuhur batean, hoin bilzarre distiratuak herabeturik, zaien lehertzeko eta solasaldien nahasteko beldur izan baliz bezala. Yvetot-eko errege on eta doi bat moxkor baten betiereko irriñoak, esku erdi zabalduak airean, marrazo baten hegatxa bezala, bulharraren ondoan, eta bere adixkide zaharrer ala aitzineratzen zizazkon ezezaguner berdin tinkatzera uzten zuenak, haizu uzten zuten, jestu bakar bat egin behar ukan gabe ez eta bere itzuli gogo oneko, auher eta

errege arakoa gelditu, ororen lehiaren askiestera, murmurikatuz bakarrik: "Gauon gaizoa, gauon adixkidea, loriatua, Bloch Jauna, gauon Argencourt", eta ene ondoan, fagoratuena izan nintzana, ene izena entzuna ukan zuenean: "Gauon, ene auzoñoa, nola da zure aita? Zer gizon ona! Badakizu biak biziki lagun girela", gaineratu zuen ene lausengatzeko. Etzuen fazoin handirik egin Villeparisis-ko Anderearendako baizik, hunek egun on egin baitzaukon buru kheinu batez esku bat bere taulier ttipitik atheraz.

Izigarriki aberats gero eta gutiago hala den mundu batean, bere buruari baturik molde betiereko batean gaitzeko fortuna horren ideia, jaun handiaren urgulu hutsala dirudunarenaz bikundua zen haren baitan, lehenbizikoaren ikustate xorrotxa doi-doia heltzen zela bigarrenak zuen handikeriaren hein batean atxikitzera. Hartzen zen bertzela ere emaztekin zituen heltze onak, berearen zorigaitza egiten baitzuten, etzirela bakarrik zor haren izenari eta fortunari, handizki ederra baitzen ere, jainko greziar baten orraze, garbitasun, soin-inguruko bermearekin.

- Zinez, zure etxean jokatua du? galdegin zaukon Argencourt-eko Jaunak dukesari.

- Baina bada, errezitatzen izana da, jandonijuane lore buketa eskuan eta bertze batzu "ee" zaian (Guermantes-ko Andereak, Villeparisis-koak bezala hitz batzu alegia molde biziki baserritarrean ahozkatzen zituen, nahiz etzituen *r* guziak mihi punttatik emaiten izabak bazegien bezala.)

Norpois-ko Jaunak, bortxaz eta beharrez, Bloch ereman baino lehen han elgarrekin mintzatzen ahalko ziren leiho ttipira, diplomata zaharraren gana itzuli nintzan ephe batez et hitz bat erran naukon aitarendako akademiako jargiaz. Nahi ukan zuen solasa berantagoko utzi. Baina erran nuen Balbec-era abian nintzala. "Nola! berriz ere Balbec-era zoaz? Baina egiazko *globe-trotter* bat zira!" Gero entzun ninduen. Leroy-Beaulieu izenean, Norpois-ko Jaunak so egin zautan itxura aierutsu batekin. Uste ukan nuen Leroy-Beaulieu Jaunari atxikiak zauzkola behar bada solas batzu aitarendako damugarriak, eta beldur zela ekonomixtak ez ote zauzkon errepikatuak. Berehala aitarendako egiazko atxikimendu batez hartua iduritu zuen. Eta mintza-moldearen emekitze hetarik baten ondotik, hetan hitz batek joiten baitu mintzo denak nahi ukan gabe eta gogo ezin ihardokiak eremaiten baititu ixiltzeko egiten zituen indar motelak: "Ez, ez, zure aitak *eztu behar* galdea egin. Eztu behar bere abantailetan, beretako, handia duen bere balioarendako, horrelako mentura batean irriskutan ezar bailezake. Hori baino gehiago balio du. Izendatua balizateke, oro galtzeko luke 'ta irabazteko deus ez. Jainkoari esker, ezta mintzalea. Eta hori da ene lankide maiten ondoan balioa duen gauza bakarra, erran dena lelokeria baizik ezpaliz ere. Zure aitak badu bizian helburu handi bat; hartara zuzen joan behar du, bere burua sasi joiten baztertzera utzi gabe, Akademiako sasiak balire ere, loretsu baino elhorritsuagoak. Elezake bertzela ere boz bakar batzu baizik bil. Akademiak galdatzaleari egonaldi baten egin-araztea maite du bere altzoan onhartu baino lehen. Oraikoan, jeus eztaiteke egin. Berantago eztut erraiten. Baina behar da Lagundia bera dadin haren bila ethor. Ohitua da, zorion baino sineskeria gehiagorekin, gure auzo Alpetarik haraindikoen "*Farà da se*" hartan. Leroy-Beaulieu-k hori guzia

aiphatua dauta gustatu etzatan moldean. Usnatua dut bertzela ere zure aitarekin aldekoa dela?… Apur bat bizikiegi sendi-arazi daukot behar bada, gotoin eta metalkietan artzen ohitua baita, ezin haztagarrien indarra, Bismarck-en zion bezala, etzuela aski ezagutzen. Oroz gainetik baztertu behar dena, zure aitak galdea egin dezan da: "*Pincipiis obsta*". Haren adixkideak izanara minberan lizatezke, gauza eginaren aitzinean ezartzen balitu. Oizu, erran zuen bapatez aire zintzo batekin, bere begi urdinak nitan itzatuz, gauza bat erranen dautzut ustegabetuko zituena zure aita hainbertze maite dutanaren niganik. He bada, maite dutalakotz hain zuzen (biak ezin berexiak gira, *Arcades ambo*), erresumari egin dezazkeen zerbitzuak badazkitalakotz hain zuzen, leman egoiten bada hutsegin-arazten ahal dauzkon arkaitzak ere, adixkidantzaz, estimu gorenez, herrikoitasunez, enezoke boza eman! Bertzela ere, uste dut hori entzutera utzi dutala. (Eta iduritu zizatan haren begietan ikusten nuela Leroy-Beaulieu-ren aurpegi asiriar et lardea.) Hari bozaren emaitea halako aburuz aldatze bat lizateke beraz ene aldetik." Aldi bat baino gehiagotan Norpois-ko Jaunak bere lagunkideak zaharkinak deitu zituen. Bertze arrazoinak bertze, glub edo Akademia bateko lagun orok maite du bere lankider beretik kontrakoena den nortasun mota baten emaitea, gutiago: "Ha! hori eni baizik ezpalago!" erran nahi ukaiteko, ukana duen lerroa nekeago eta ohoragarriago bezala erakusteko gozaldiaren ukaiteko baino. "Erranen dautzut, bururatu zuen, nahiago dutala, zuen guzien abantailetan, zure aitarendako bozkatze triunfako bat hamar edo hamabortz urteren buruan." Bekaizkeriak ezpada, bederen zerbitzu egiteko eskas osoak emanak zirela estimatu nituen hitzak, eta berantago, gertakaritik beretik, erran-nahi bertzelako bat ukan zutenak.

- Etzinuen Institut-ari Fronde-ko aroan ogiaren balioaz mintzatzeko xedea? galdegin zuen herabeki Fronde-ko ixtoriolariak Norpois-ko Jaunari. Hortan aurki zinezake gaitzeko arrakasta (horrek erran nahi baitzuen "enetako erreklama bat izigarrikoa"), gaineratu zuen Embaxadoreari irriño bat eginez betespalak goiti-arazi eta begiak, zerua bezain zabal, idek-arazi zauzkon uzkurtasun baina ere xamurtasun batekin. So hori ikusia nuela iduri zizatan, ixtoriolaria enuen alta egun hartarik baizik ezagutzen. Bapatez orhoitu nintzan: so hori bera, mediku bresiliar baten begietan ikusia nuen baitzion nituen bezalako hats-behartzeak landare ezanza hats-hartze arrazoingabeko batzuez sendatzen zituela. Errana bainaukon, nitaz artha gehiago ukan zezan, Cottard profezurra ezagutzen nuela, ihardetsia zautan, Cottard-en abantailetan bezala: "Horra tratamendu bat, aiphatzen baldin badaukozu, hitzaldi harrabots handiko baten gaia eman lezokeena medikuntzako Akademian!" Etzen hisitzera menturatua, baina behatua zautan Fronde-ko ixtoriolariaren baitan miretsi berria nuen itxura herabe, abantail-nahi eta othoizle berarekin. Segurki etzuten bi gizon horiek elgar ezagutzen eta elgarren egite guti, baina zikologiako legek badute fisikakoek bezala orotakotasun zerbait. Eta, behar diren kondizoneak berdinak badira, so berdin batek argitzen ditu berdinak eztiren bi giza-ihizi, zeru goiztiar ber batek elgarretarik biziki urrun ehoiz elgar ikusi eztuten lurreko gune batzu bezala. Embaxadorearen ihardestea enuen entzuen, ezen jende guzia, harramantza apur batean, Villeparisis-ko Anderearen gana hurbildua zen margolatzen ikusteko.

- Nortaz mintzo giren badakizu, Basin? erran zaukon dukesak senarrari.

- Baietz, asmatzen dut, erran zuen dukeak. Ha! ezta lerro handikoa diogun komedialari bat.

- Nehoiz eztuzu, egin zuen berriz Guermantes-ko dukesak Argencourt-eko Jaunari mintzatuz, gauza irriegingarriago bat asmatu.

- Zapargarri da ere, hautsi zuen Guermantes-ko Jaunak haren hiztegi bitxiak uzten baitzituen aldi berean munduko jendeak etzela zozo bat erraitera eta leteretako jendeak ergel hutsena zela.

- Gogoan ezin har dezaket, hasi zen berriz dukesa, nola Robert-ek ehoiz maitatu ahal duen. Ho! ontsa badakit eztela gauza horietaz eztabadatu behar, gaineratu zuen filosofo baten eta lilluraz gabetu maitalearen muttur pollitarekin. Nor nahik zer nahi maita dezakeela badakit. Eta, gaineratu zuen - ezen literatura berriaz trufatzen baldin bazen oraino, hau, egunkarien hedatzearekin edo solasaldi batzuen bidez, gutika haren baitan sartua zen - hori da ere maitasunean den ederrena, horrek baitu hain zuzen "mixteriozkoa" egiten.

- Mixteriozkoa! Ha! enetako azkarregi dela aithortzen dut, gusia, erran zuen Argencourt-eko dukeak.

- Baina ba, biziki mixteriozkoa da, maitasuna, egin zuen berriz dukesak munduko emazte maitagarri baten irriño eztiarekin, baina ere "wagneriar" baten sinesmen garratzarekin badionean bilkurako gizon bati *Walkyrie*-an eztela bakarrik harrabotsa. Bertzela ere, ondarrean, jende batek bertze bat zergatik maite duen eztakigu; ezta behar bada batere uste dugunaren gatik, gaineratu zuen irriño batean, horrela bapatez bere argipenaz eman berria zuen ideia baztertuz. Bertzela ere, ondarrean, ehoiz ezer eztakigu, bururatu zuen itxura dudakor akhitu batean. Beraz, badakusazue, "adimendukoago" da; ehoiz ezta bertzeren hautua eztabadatu behar.

Baina prinzipio hori jarria ukanik, berehala ahatzi zuen Saint-Loup-en hautua kritikatuz.

- Badakusazue, hala ere, ustegabegarri iduritzen zata jende irriegingarri bati erakharpenaren aurkitzea.

Bloch, Saint-Loup-ez mintzo ginela entzunez eta Parisen zela hartuz, hain gaizki izigarrietan hasi zen hartaz nun jende guzia sumindua izan baitzen. Herra batzuen ukaiten hasten ari zen, eta sendi zen haien asetzeko etzuela jeusen aitzinean gibelera eginen. Prinzipioz jarririk berak moraleko balio handia zuela eta "la Boulie"-an (indar-jokoetako bilgune bat biziki aphaina uste zuena) zabilan jendeak galerak merezi zituela, emaiten ahal zezteen ukaldi guziak merezimenduzkoak iduritzen zizazkon. Joan zen aldi batez "la Boulie"-ko bere adixkider egin nahi zauen auzi batez mintzatzerano. Auzi hortan, gezurrez zin emaiteko xedea zuen eta ogendun ekharriak bizkitartean etzuen gezurrez ari zela phorogatu ahako. Horrela, Bloch-ek, ezpazuen ere bere xedea egintzara ereman, uste zuen etsipeneratuko zuela eta gehiago ero-araziko. Zer gaitz zatekeen hortan, jo nahi zuena gogoan aphainkeria baizik etzuena zenaz geroz, "la Boulie"-ko gizon bat, eta horrelako jende batzuen kontra harma guziak haizu baitira, oroz gainetik hura, Bloch, bezalako Saindu bati?

- Alta, ikusazu Zuan, kontra-erran zuen Argencourt-eko Jaunak, gusiaren hitzek zer erran nahi zuten azkenean hartua ukanik, haien zuzentasunaz joa baitzen

eta bere orhoitean bilatzen baitzuen berari gustatuko etzizazkon batzu maitatuak zituzten jende batzuen behazuna.

- Hu, hu, marmarikatu zuen Villeparisis-ko Andereak.

- Ha! etzinuen anderea pollita aurkitzen? ba, gauza xoragarriak bazituen, ontsa begi pollitak, ile pollitak, miragarriki janzten zen eta oraino ere. Orai, okaztatzekoa dela aithor dut, baina jende lilluragarri bat izana. Eztut hortako dolu gutiago ukan Charles harekin ezkondurik, hain debalde zelakotz.

Dukesak zerbait ohargarri baziola etzuen uste, baina, Argencourt-eko Jauna irriz hasi zen, hark erranaldia errepikatu zuen, ala irrigarri iduritzen zizakolatz, ala bakarrik irri-egilea gixakoa, huni behatzen hasi baitzen itxura pherekari batean, izpiritukoari eztitasuneko xoramenduaren gehitzeko. Jarraiki zuen:

- Ba, eztea hala, etzuen balio, baina azkenean etzen xoragarritasunik gabe eta maita zaitekeela osoki hartzen dut, Robert-en andereñoa aldiz, segurtatzen zaituztet irriz urratzekoa dela. Badakit bada kontra-erranen zatala Augier-en lelo zaharra: "Untziak zer du balio, mozkortzea baden ber!" He bada, Robert-ek moxkortzea badu behar bada, baina eztu zinez gostu onaren phorogua eman untziaren hautatzean! Lehenik, asma ezazue nahi ukana zuela ene saloinaren erdi-erdian mailalde handi bat ezarr-araz nezan. Jeus ez, eztea hala, eta jakin-arazia zautan mailetan ahuspez etzanik egonen zela. Bertzela ere, erraiten zuena entzun bazinute, eztut agerraldi bat baizik gogoan, baina berdinik asma daitekeela eztut uste: izena *Zazpi Prinzesak* du.

- *Zazpi Prinzesak*, oi! oi! zer handi-ustea! egin zuen Argencourt-eko Jaunak. Ha! Baina zaude, antzerti guzia ezagutzen dut. Egileak igorri dauko Erregeri, hunek ezer ezpaitu hartu eta argi dezatan galdegin baitaut

- Ez othe da Sâr Peladan-etik? galdegin zuen Fronde-ko ixtoriolariak xorroxtasuneko eta eguneko gertakarietan izaiteko xede batekin, baina hain aphal nun haren galdea ohartua izan gabe gelditu baitzen.

- Ha! *Zazpi Prinzesak* ezagutzen dituzu? ihardetsi zaukon dukesak Argencourt-eko Jaunari. Ene komplimendu guziak. Nik eztut bat baizik ezagutzen, baina ekhendu dauta bertze seien ezagutzaren egiteko gutizia. Guziak ikusi dutanaren berdinak baldin badira!

"Zer buzoka!" gogatu nuen, egina zautan ongi-ethorri hormatuaz sumindua. Halako gozaldi latz bat edireiten nuen Maeterlinck-ez zuen ezin-aditze osoan. "Horrelako emazte batendako ditut goiz oroz hainbertze kilometra egiten, onezia badut zinez! Orai nik nuke hartarik ez nahi." Horiek ziren neure baitan erraiten nituen hitzak; ene gogamenaren kontrakoak ziren, solasaldietako hitz huts batzu, guhaurekin bakarrik egoiteko inharrosiegiak izanez, bertze solaskiderik gabean, guhaurekin solastatzeko beharra sendi dugun orduetan, zintzotasunik gabe, arrotz batekin bagine bezala, erraiten ditugun bezalakoak.

- Eztezauzuket ideia bat eman, jarraiki zuen dukesak, irriz urratzekoa zen. Irri egitea eztugu huts egin, sobera ere, ezpaitu jendeñoak hori maite ukan, eta ondarrean Robert hortaz beti aiher izan zata. Urrikirik eztut bertzela, ezen ontsa joan baliz, andereñoa berriz jinen zen eta horrek Marie-Aynard norano xoratuko zuen galdez nago.

Horrela zeritzon familian Robert-en amari, Marsantes-ko Anderea, Aynard Saint-Loup-ekoaren alharguntsari, haren gusi Guermantes-Bavière-ko prinzesatik berexteko, bertze Marie bat, hunen izenari ilobek, gusiek eta koinatek gehitzen baitzaukoten, ala senarraren izen ttipia, ala berak zituen izenetarik bat, horrek egiten baitzuen ala Marie-Gilbert, ala Marie-Hedwige.

- Lehenik bezperan izan zen halako errepikaldi bat, ontsa gauza ederra! jarraiki zuen Guermantes-ko Andereak irkaitzez. Asma ezazue erranaldi bat emaiten zuela, ez ere, erranaldi laurden bat, eta gero gelditzen; etzuen jeus erraiten, eztiot sobera, bortz minutez.

- Oi, oi, oi! egin zuen Argencourt-eko Jaunak.

- Den munduko jendetasun guziarekin ausartu niz horrek behar bada ustegabetuko zuela hitz-erdika erraitera. Hitzez hitz erantzun dauta: "Gauza bat erran behar da beti nork berak egiten balu bezala." Gogoari bademazu izigarri da, ihardespen hori!

- Baina uste nuen etzituela neurthitzak gaizki erraiten, erran zuen mutiko gaztetarik batek.

- Zer diren eztaki, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak. Eztut bertzela entzuteko beharrik ukan. Aski izan zata jondoni-johane lili batzuekin ethortzen ikustea! Dohainik etzuela berehala hartu dut liliak ikusi ditutanean.

Jende guziak irri egin zuen.

- Izaba, eztautazu gaizkirik nahi joan den egunean Zuedako erreginarenaz? Biziaren galdatzera heldu nizaizu.

- Ez, eztaunat gaizkirik nahi; emaiten daunat ere arratsalde askariaren hartzeko eskubidea.

- Hea, Vallenères Jauna, etxeko alaba egizu, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak artxibolariari, ohiko jostakerian.

- Guermantes-ko Jauna han erdi-etzana zagon berte jargian zuzendu zen, xapela lurrean bere ondoan, gozaldizko itxura batekin ikhertu zituen aitzineratuak zizazkon bixkoxañoekilako azietak.

- Baina gogotik, orai bilkura noble hunekin etxekotua nizanaz geroz, "baba" bat onhartuko dut, hautak iduri dute.

- Jaunak miragarriki badatxika bere nexka gazte jokaldia, erran zuen Argencourt-eko Jaunak, imitatzeko gogoz, berriz hartu baitzuen Villeparisis-ko Anderearen jostakeria.

Artxibolariak Fronde-ko ixtoriolariari aitzineratu zaukon bixkotxañoekilako azieta.

- Zure ofizioa miragarriki egiten duzu, erran zuen hunek herabetasunekin eta guzien adixkidantzaren ukaitera entseatzeko.

Eta gogaidetasunezko behako bat igorri zuen ebaska jadanik hark bezala egina zutenetara.

- Erratazu, izaba ona, galdegin zaukon Guermantes-ko dukeak Villeparisis-ko Andereari, ni sartzean atheratzen ari zen eta bereaz aski ontsa emaiten duen jaun hori? Ezagutzen duket, agur handi bat egin baitaut, baina nor zen eniz orhoitu;

badakizu, izenekin samurtua niz, ontsa gozagaitz dena, erran zuen askiespenezko itxura batean.

- Legrandin Jauna.

- Ha! baina Oriane-k gusi bat badu, haren ama, huts ezpadagit, Grandin sortua baita. Biziki ontsa badakit, Grandin de l'Eprevier dira.

- Ez, ihardetsi zuen Villeparisis-ko Andereak, ikustekorik jeus eztute. Hauk Grandin dira xoil-xoilki, jeusetako Grandin. Baina eztie nahi dukan guzikoak izaitea baizik galdatzen. Hunen arrebak deitura Cambremer-ko Anderea dik.

- Baina hea, Basin, ontsa badakizu izabak nortaz nahi duen mintzatu, egin zuen dukesak sumindua, joan den egunean ene ikustera igortzeko ideia bitxia ukan duzun belar-jale izigarri hura da. Oren bat egon da, erotuko nintzala uste ukan dut. Baina eroa hura zela uste ukaitetik hasi niz ezagutzen enuen eta behi bat iduri zuen norbait etxera sartzen ikustean.

- Behazu, Oriane, zure eguna zein zen galdegina zautan; enezakokeen alta arrunkeria bat egin, eta gero, hea, urrunegi zoaz, eztu behi bat iduri, gaineratu zuen doinu deitoratu batean, baina ez ebaska bilkurari behako irriñodun bat eman gabe.

Bazakien bere emaztearen gogo bizia kontra-erraiteaz sustatua zela, zentzuzko kontra-erraiteak goraki baitio, behazunez, emazte bat eztaitekeela har behi batendako (horrela zen Guermantes-ko Anderea, lehenbiziko erran-molde bat urrunago eremanez, ainitzetan bere hitz pollitenen emaitera heldua). Eta dukea han zen lañoki haren laguntzeko, iduri ukan gabe, itzuliaren ontsa egiten, hala nola, bagon batean, karta-itzuliko jokolari baten lagun ixila.

- Aithor dut eztuela behi bat iduri, behi multzo bat iduri baitu, egin zuen Guermantes-ko Andereak. Zin egiten dautzuet ontsa eragozpenean nintzala betalde hura ikusiz ene saloinean xapeletan sartzen eta eni nola nintzan galdegiten. Alde batetik nahi naukon ihardetsi: "Baina, betaldea, ehiz zuzen, ehaiteke enekin ezagutzetan izan betalde bat hizanaz geroz", eta bertzetik, ene orhoitean bilaturik, uste ukan dut azkenean zure Cambremer, Dorothée infanta zela, aldi batez jinen zela errana baitzautan eta aski *behi-iduria* baita, hala nola nun "Zure erret-Goratasuna" erraiter baitut eta betalde bati heren personan mintzatzer bainiz. Badu ere Zuedako erreginaren hera mota. Bertzela ere indar bizizko jaukitze hori aitzinetik adelatua izana zen urrundikako tiro batez, egiteko erregela guzien araura. Nik dakita zenbat demboraz geroztik karta batzuez bombardatua nintzan, nun nahi aurkitzen nituen, muble guzien gainean, erreklama batzu bezala. Erreklama horrek zer erran nahi zuen enakien. Etzizatan etxean ikusten "Cambremerko Markes eta Markesa" baizik gogoan eztutan eta nehoiz baliatuko eztutala deliberatua dutan helbide batekin.

- Baina erregina bat iduri ukaitea biziki abantailgarri da, erran zuen Frondeko ixtoriolariak.

- Oi! gure Jainkoa, jauna, errege 'ta erreginak, gure adinean gauza guti dira! erran zuen Guermantes-ko Jaunak izpiritu libro eta oraikoa izan nahi baitzuen, eta ere haier biziki atxikia zen ezagutza erregetiarrez axolatzen zela ez iduri ukaiteko.

Bloch eta Norpois zutituak ziren eta gure ondoan gertatu.

- Jauna, erran zuen Villeparisis-ko Andereak, Dreyfus afera aiphatu daukozua?

Norpois-ko Jaunak begiak zerura goititu zituen, baina irriño batekin, haier obeditzera bere Dulzineak bortxatzen zuen burukerien izigarrikeriaz lekukotasun emaiteko bezala. Hala ere Bloch-i mintzatu zizakon, gixakotasun ainitzekin, Frantziak iragaiten zituen urte itsusiez, behar bada hilgarriez. Horrek erran nahi baitzukeen Norpois-ko Jauna (Bloch-ek errana zaukon bizkitartean Dreyfus-en ogengabetasunean sinesten zuela) sutsuki Dreyfus-en kontrakoa zela, Embaxadorearen maitagarritasunak, solaskideari arrazoin emaiteko itxurak, aburu bereko zirela ez dudatzekoak, gobernamenduaren lehertzean harekin batera biltzekoak, Bloch-en hantukeria balakatzen zuten eta haren jakin-nahia sustatzen. Norpois-ko Jaunak argiki emaiten etzituen, baina hetaz Bloch eta hura bat zirela errangabean onhartzen zuela iduri zuen gauza beharrezkoak zein ziren? "aferaz" zer zuen bada elgarretara bil zezazkeen aburua? Hainbat gehiago zen Bloch ustegabetua haren eta Norpois-ko Jaunaren artean bazela iduri zuen onharmen mixteriozkoaz nun onharmen horren gaia ezpaitzen politikazkoa, Villeparisis-ko Anderea Norpois-ko Jaunari luzaz mintzatua izanik Bloch-en literaturako lanez.

- Etzira zure arokoa, erran zaukon hunek embaxadore ohiari, eta goresten zitut, etzira ikasketa abantailnahi gabekorik ezten aro huntakoa, eta publikoari lizunkeria ala zozokeriarik baizik saltzen etzaukonekoa. Zureak bezalako indarrek sustatuak izan behar lukete gobernamendu bat baldin baginu.

Bloch lausengatua zen hondamen osoan ur gainean gelditzeaz. Baina hortan ere xehetasunak nahiko zituen, zein zozokeriez nahi zuen Norpois-ko Jaunak mintzatu jakin. Bloch-ek bazuen ainitzen bide berean ari zelako sendimendua, etzuen hain ohi ez bezalakoa zela uste ukana. Dreyfus aferara itzuli zen berriz, baina Norpois-ko Jaunak zuen aburuaren argiratzera etzen heldu. Orduan egunkarietan haien izena usu agertzen zen aitzindariez mintza-araztera entseatu zen; jakin-nahia afera berean nahasiak ziren gizon politikariek baino gehiago sustatzen zuten, etzirelakotz jadanik hauk bezain ezagunak eta, jantzi berezi batean, bizi bertzelako baten eta ixil arthoski atxiki baten zolatik, berriki jalgiak baitziren eta mintzatuak, hala nola Lohengrin zisne batek ereman untzinõ batetik jausten. Bloch, ezagutzen zuen abokat nazionalixta bati esker, Zola-ren auziko entzunaldi batzuetara sartu ahal izana zen. Horrara bazethorren goizean, arratsean baizik ez atheratzeko, zanduitx andana eta botoila bat kaferekin, orotako konkursora edo baxoko idaz-lanetara bezala, eta ohiduraz aldatze horrek phizten baitzuen kafeak eta auziko bihotz-hunkidurek mukurrura bazeramaten zainetako asaldura, hortik jalgitzen zen gertatua zen guziaz hain amoros nun, etxera sarturik, berriz nahi baitzuen amets ederrean murgildu eta baitzoan, bi alderdiak han zabiltzan ostatu batean, lagun batzuen berredireitera, haiekin ethengabe elhekatzen baitzen egunean gertatua zenaz eta, boterearen lillura bazemon doinu gora batean manatu auhari batez ordaintzen zituen hain goizik hasi eta bazkaldu etzen egun bateko barura eta akhidurak. Gizonak, egintzaren eta asmuaren bi eremuetan ethengabe jokatuz, nahi lituzke ezagutzen dituen jenden bizi ideala barnatu eta haien bizia asmatua ukana duen izaiteak ezagutu. Bloch-en galder, Norpois-ko Jaunak etzuen ihardetsi.

- Zertaz elheka daude han xoko hartan? galdegin zaukon Guermantes-ko Jaunak Norpois-ko Jauna eta Bloch erakutsiz.

- Dreyfus aferaz.

- Ha! debrua! Hain zuen, badakizu Dreyfus-en alderdikari errabiatua nor den? Eztuzu sinetsiko. Ene iloba Robert! Erranen dautzut ere Jockey-an, egintza goien horiek jakin direnean, erredola goititze bat izan dela, oihutaldi bat. Zortzian hara aitzineratzen baita …

- Bai, hautsi zuen dukesak, oro Gilbert bezala badira, judu guziak Jerusalemera igorri behar direla erran baitu beti …

- Ha! beraz, Guermantes-ko printzea osoki ene ideietan da, hautsi zuen Argencourt-eko Jaunak.

Dukea bere emazteaz aphaintzen zen baina etzuen maite. Osoki urguluntzia, solasean moztua izaitea hastio zuen, eta gero bere menaian ohitua zen harekin bortitz izaitean. Elhekatzen den senar gaitzaren eta entzuten ezten elhekari ederraren haserre bikunaz daldaran, batean gelditu zen eta dukesari igorri zaukon behako bat jende guzia eragozpenean ezarri zuena.

- Zerk hartzen zitu guri Gilbertez et Jerusalemez mintzatzeko? erran zuen azkenean. Ezkira hortaz ari. Baina, gaineratu zuen doinu eztitu batez, aithortuko dautazu guretarik bat Jockey-an ezetsia balizate, eta oroz gainetik Robert haren aita hamar urtez han buruzagi izana baita, mukurrua lizatekeela. Zer nahi duzu, maitea, kheinu egin-arazten daue, jende horier, begi handi batzu ideki dituzte. Eztauet ogena emaiten ahal; ene aldetik badakizu arrazako aitzin-gogorik eztutala batere, eztela hori gure arokoa aurkitzen dut eta badut ene demborarekin ibiltzeko nahikaria, baina azkenean, zer debru! Saint-Loup-eko markes izendatzen denean, ezta dreyfustiar izaiten, zer nahuzu erran dezatan!

Guermantes-ko Jaunak hitz hauk: "Saint-Loup-eko markes izendatzen denean" doinu hantura batekin erran zituen. Ontsa bazakien alta "Guermantes-ko dukea" izendatzea gauza oraino handiagoa zela. Baina bere alderako amodioak Guermantes-ko duke tituluko nagusitasunaren handiegitzera ekhartzen baldin bazuen, etziren behar bada hainbatean gostu onaren erregelak baina idurimenaren legeak haren ttipitzera zeramatenak. Bakoitzak ederragoan ikusten du urrunean, bertzetan dakusana. Ezen idurimeneko ikusmoldea erregelatzen duten orotako legeak dukendako dira bertze gizonendako bezain ontsa; eta ez bakarrik idurimenekoak, baina hizkuntzakoak. Bada, hizkuntzako lege bata edo bertzea bazoakeen hemen. Batek nahi du bakoitza bere gogo motako jendeak bezala mintzatzen dela eta ez bere ethorkiko lerrokoak bezala. Hortik Guermantes- ko Jauna bere mintza-moldetan izan zaitekeen, nobleziaz ari zenean ere, "Guermantes-ko duke izena denean" erranen zuten burjes ttipi-ttipi batzuen lerrokoa, leteradun gizon batek aldiz, Zuan batek, Legrandin batek hori etzutelarik erranen. Duke batek idatz dezazke epizier baten elhaberriak, jende handien bizi moldeaz ere, paper zaharreria ezpaita hor batere lagungarri eta arixtokratika hitza jende xoileko baten idazkiak merezitua ukan baitezake. Zein zatekeen orduan Guermantes-ko dukeak "holako izena denean" erraiten entzuna zuen burjesa, hortaz ezer etzazikeen. Baina hizkuntzako bertze lege bat da noiztenka, gero hetaz minzatzen entzuten ezten

eritasun batzu agertzen eta urruntzen diren bezala, nehork nola ontsa jakin gabean sortzen direla, ala bere baitarik, ala Amerikako belarr gaitz bat (haren hazia bidaiako ilainki batean hartua izanik burdin-bideko ezponda batera eroria baitzen) Frantzian hozi-arazi zuena bezalako halabehar batez, erran-molde batzu, hamar egun barne hortako elgarrekin deliberatu eztiren jende batzuek erranik entzuten direnak. Bada, urte batez Bloch entzun nuen bezala bere buruaz erraiten: "Jende xoragarrienak, distiratuenak, hobeki jarrienak, behakorrenak ohartu baitira bat baizik etzela adimenduduna, goxagarria, hura gabe etzagozkeena, Bloch zela", eta erranaldi bera hura ezagutzen etzuten ainitz bertze gizon gazte 'ta bakarrik Bloch izena bereaz ordaintzen zutenen ahoan, berdin behar nuen "deitzen denean" hori ainitzetan entzun.

- Zer nahi duzu, jarraiki zuen Dukeak, hor nagusi den izpirituarekin, hori adigarri da.

- Irrigarri da oroz gainetik, ihardetsi zuen dukesak, haren amaren ideien arabera goizetik arrats aspertzen baikaitu *La Petite Française*-rekin.

- Ba, baina ezta bakarrik ama, etzaiku zernahi sakatu behar. Bada neskatila bat, buruzkin egile azken motako bat, eragin gehiago duena haren gainean eta hain zuzen Deyfus jaunaren herritar dena. Bere gogo ara Robert-i emana dauko.

- Etzinakien behar bada, duke jauna, bertze hitz bat badela horrelako gogo mota baten erraiteko, erran zuen artxibolariak Dreyfus-i auzi-berritzearen kontrako bilkuretako segeretaria baitzen. Erraiten da "mentalitate". Gauza ber-bera erran nahi du, baina bederen zer duen erran nahi nehork eztaki. Xorrotzen xorrotxena hori da, azken moda.

Bitartean, Bloch-en izena entzunik, bazakusan Norpois-ko Jaunari galde batzuen egiten khexu batean, markestsaren baitan khexu ezperdin bat baina berdin azkarra sortu zuena. Artxibolariaren aitzinean ikharan eta harekin Dreyfus-en kontrakoa eginez, haren erasien beldur zen ohartzen baliz judu bat "'Sindikatarekin" guti edo aski batasunean zena etxean ukana zuela.

- Ha! *mentalitate*, izkiriatzen dut, berriz erabiliko dut, erran zuen dukeak. (Etzen erran molde bat, dukeak bazuen karnet ttipi bat "aiphamenez" betea, auhari handien aitzinean berrirakurtzen zuena.) *Mentalitate* gustatzen zata. Horrela badira botatzen diren hitz berri batzu, baina eztute irauten. Azkenik, berdin irakurri dut idazle bat *talenduduna* zela. Har dezala ahal duenak. Gero eztut gehiago ikusi.

- Baina *mentalitate* erabilia da *talenduduna* baino gehiago, erran zuen Fronde-ko ixtoriolariak solasera sartzeko. Erakaskuntza publikoan Komisione bateko idea niz han erabiltzen entzun baitut aldi bat baino gehiagotan, eta ere ene bilkuran, Volney bilkura, eta ere auhariz Emile Olivier Jaunaren etxean.

- Nik ezpaitut Erakaskuntza publikokoa izaiteko ohorea, ihardetsi zuen dukeak alegiazko xumetasun batekin, baina hain hantukeria barnatuarekin nun ahoa ezpaitzizakokeen erdi-irri egin gabe egon eta begiak han zirener zorionezko so phindardun batzuen botatzetik, heien irkaiz-pean ixtoriolari gaizoa gorritu baitzen, nik Erakaskuntza publikoko minixteriotik enizana, hasi zen berriz bere buruari mintzatzen behatuz, ez eta Volney bilkuratik (Union eta Jockey-koa baizik eniz…)… etzira Jockey-koa, jauna? galdegin zuen ixtoriolariari, hau, ozarkeria bat

usnanuz eta ez gogoan hartuz, hasi baitzen alderdi orotarik daldaran, nik Emile Olivier Jaunaren etxean ere auhaltzen enizana, aithor dut *mentalitate* enuela ezagutzen. Ni bezala zirela segur niz, Argencourt… Dreyfus-en trahizionearen phoroguak ezin daitezke erakuts. Gerlako minixtroaren emaztearen maitalea omen da.

- Ha! Uste nuen Konseiluko presidentaren emaztearena, erran zuen Argencourt-eko Jaunak..

- Afera horrekin guziak batzu bertzeak bezain nardagarri aurkitzen zituztet, erran zuen Guermantes-ko dukesak erakutsi nahi baitzuen, munduari zoakonaz, nehori etzuela bere burua eremaitera uzten. Enetako ezin dezake ondoriorik ukan Juduer doakonean, ene ezagutzetan eztutalako eta beti jakingabe dohatsu hortan egon gogo dutalako arrazoin onaren gatik. Baina, bertze aldetik, ezin jasana iduri zata, gogamen onekoak direla estakuru, salerosle juduer jeus eztutela erosten edo bere ekhitakoan "Hila Juduer" izkiriatua ekhartzen dutela, Marie-Aynard-ek edo Victurienne-ek ehoiz ezagutu eztitugun Durand edo Dubois andere andana baten onhartzera bortxa gitzan. Herenegun Marie-Aynard-en etxean izan niz. Hara joaitea goxagarri zen lehenago. Orai bizia haier ihes egiten ereman den jende guziak aurkitzen dira, Dreyfus-en kontra direlako estakuru, eta nor diren ere ideiarik ezten bertze batzu.

- Ez, Gerlako minixtroaren emaztea da. Hori da bederen ohe-xoko guzietan dabilan omena. Baina hobe da ez aiphatzea, solasean horrela erabiltzen baitzituen erresuma zaharrekoak uste zituen erran molde batzu. Bederen hasteko, nihaurek, Gilbert ene gusiaren osoki kontrakoa izan uste dutala jakina da. Eniz hura bezalako feodal bat, beltz batekin ibil nindaike ene adixkitarik baliz, eta heren ala laurdenaren aburuaz berrogeigarren urteaz bezainbat axola nindaike; baina hala ere aithortuko dautazue, Saint-Loup izena denean, eztela mundu guziaren ideier kontra jartzean jostatzen, baitu Voltaire-ek baino eta ene ilobak ere baino gehiago izpiritu. Eta oroz gainetik ezta sendikortasuneko zalukeriak erran nezazkeen horietara emaiten, Bilkurara sartzeko zortzi egun aitzinean! Apur bat gogor da! Ez, haren ohaidexkak ukanen daukoke burua berotua, sinets-arazia "adimendukoetan" jarriko zela. Adimendukoak, hori da jauntto horien leloa. Hitz joko bat aski pollita egin-arazi du gainera, baina biziki gaixtoa.

Eta dukeak erran zuen ahapetik dukesaren eta Argencourt-eko Jaunarendako: *Mater Semita* jadanik Jockey-an erraiten zena, ezen hazi ibilkari guzietan, hegal azkarrenak lotuak dituena eta bere sor-lekutik urrunenera barreatua izaitera uzten dutena, irri-solasa da ere.

- Argipenak Jaunari galda ginezazke, jakinduruaren itxura baitu, erran zuen ixtoriolaria erakutsiz. Baina ez mintzatzea hobe da, are gehiago osoki hutsezkoa baita. Eniz ene andere gusi Mirepoix bezain handi-nahia baitio bere etxeko ethorkiari jarraik dakiokeela Jesu-Kristo baino lehen Levi-ren leinurano, eta phoroga dezaket eztela nehoiz odol judu xorta bat izan gure familian. Baina azkenean etzaiku zer nahi erran behar, segur da ene ilobaren aburu pollitek harrabots aski egin dezaketela Landerneau-n. Are gehiago Fezensac eri baita, Duras-ek du guzia eginen, eta badakizue traba egitea eztuela maite, erran zuen

dukeak ehoiz ezpaitzen hitz batzuen erran-nahi zuzenaren jakitera heldua eta uste baitzuen traba egiteak erran nahi zuela, ez nahaskeria egitea, baina neke emaitea.

- Zer nahi den, Dreyfus hori ogengabea baldin bada, hautsi zuen dukesak, guti du erakusten. Zer eskutitz zozoak, hitz-hantuak, izkiriatzen dituen bere irlatik! Estherazy Jaunak hark baino gehiago balio duenez eztakit; baina erranaldien itzultzeko badu bertze aphain bat, bertze kolore bat. Dreyfus Jaunaren aldekoendako eztateke atsegingarri. Haiendako zer zorigaitza ogendun eztenaz alda eztaitezkeen!

Jende guzia irri karkailaz eman zen: "Orianen hitza entzun duzu, galdegin zaukon amikatuki Guermantes-ko dukeak Villeparisis-ko Andereari. - Ba, biziki jostagarri zata." Dukeari etzizakon aski: "He bada, eni, etzata jostagarri; edo izaitekotz jostagarri izan dadin ala ez, berdin zata. Izpirituaz eniz batere axolatzen." Argencourt-eko Jaunak goraki ezesten zuen. "Badionetik eztu hitz bat gogoan", murmurikatu zuen dukesak. "Badateke Gambaretakoa izana nizalakotz dela, han entzun baititut jeus erran nahi etzuten hitzaldi distiratu batzu. Han ikasia dut oroz gainetik arrazoin zuzenaren estimatzen. Horri zor duket ez berriz hautatua izaitea. Gauza jostagarriak orobat zazta. - Bazin gaixoa, eztagizula zure Joseph Prud'homme, ontsa badakizu nehork eztuela izpiritua zuk baino gehiago maite. - Bururatzera utz nezazu. Hain zuzen jostakeria mota batzuetara sorgor nizalakotz dut ainitzetan ene emaztearen izpiritua estimatzen. Ezen gehienetan begiratze zuzen batetik abiatzen da. Gizon batek bezala arrazoinkatzen du, errana idazle batek bezala moldatzen. "

Bloch-ek bilatzen zuen Norpois-ko Jaunaren mintza-araztera Picquart koronelaz.

- Ezta dudan ezarri behar, ihardetsi zuen Norpois-ko Jaunak, koronelaren zin emaitea auzian behar-beharrezkoa heldu zela, hor harri-pean aingira izan zaitekeela gobernamenduak uste zuen ber. Aburu hori berme atxikiz badakit ene lankidetarik bati baino gehiagori garrasiak egin-arazi dauzkotala, baina, ene ustez, gobernamenduak behar zuen koronela mintzatzera utzi. Ezta horrelako athekatik itzulikaldi batez jalgitzen, orduan izitildegira erortzea irriskatzen da. Aitzindariaz beraz denaz, zin emaite horrek lehen entzunaldian ukan zuen harendako ondorio bat ezin hobea. Ikusia denean, ihiztarietako bere soldado-jantzi pollitean ontsa hartua, zer zuen ikusia doinu osoki laño eta zintzo batean erraitera jiten, zer sinetsia, baziola: "Ene soldado-ohorean (eta hemen Norpois-ko Jaunaren mintzoa daldara aberritiarr arin batean ikharatu zen) hori da zinesten dutana", ondorio barnatua izana dela ezta ukatu behar.

"Horra, dreyfustiarra da, ezta dudaren itzalik", gogatu zuen Bloch-ek.

- Baina hastapenean bilduak ahal zituen adixkidantzak osoki baztertu dauzkonak, Gribelin artxibolariarekin eztabadatzea izan da: zerbitzari zahar hura entzun zenean, hitz bat baizik eztuen gizon hura, (eta Norpois-ko Jaunak indartu zituen sinespen zintzoaren gemenarekin jarraiki ziren hitzak) ikusi zenean bere buruzagiari begietara so egiten eta erraiten ihardesterik onhartzen etzuen doinu batean: "Hea, ene koronela, ontsa badakizu eztutala gezurrik erran, ontsa badakizu

orai, beti bezala, egia dutala erraiten", haizea itzuli zen, Picquart Jaunak zeru-lurrak inharrosi ahal zituen ondoko entzunaldietan, ederki purrut egina zuen."

"Ez, Dreyfus-en kontrakoa da seguriki, ageri da, egin zuen Bloch-ek bere baitan. Baina Picquart trahitzale gezurtari bat dela uste badu, nolaz dezake haren agerpener gogo eman eta nolaz hek aipha gozagarri aurkitzen balitu eta zintzoak uste balitu bezala? Eta hartan aldiz baldin badakusa bere konzienzia libratzen duen zuzen bat, nolaz uste ukan dezake Gribelin-en aitzinean gezur erraiten?"

Badateke Norpois-ko Jauna horrela gogoz bat izan balire bezala Bloch-i mintzo zizakon arrazoina, hainbatetarano Dreyfus-en kontrakoa izaitetik heldu zela nun, gobernamendua etzela aski hala aurkituz, Dreyfus-tiarrak ziren bezainbat haren etsai baitzen. Hori da behar bada politikan hari lotzen zizakon gauza zerbait barnagokoa zelakotz, bertze eremu batean jarria, handik dreyfustiartasuna agertzen baitzen munta gabeko berezitasun bat bezala eta atzerriko gai handiez axolatzen den herrikoi baten atxikitzea merezi eztuena. Behar bada ere, izaitekotz, zuhurtzia politikazkoaren legeak moldezko, egin-arako, aldi oneko gai batzuekin baizik ez egoki izanez, funtsezko gaien bururatzeko ahalgabeak baitziren, filosofian izaite hutsekoetan erabakitzeko logika xoila den bezainbat, ala zuhurtzia horrek berak gai horietaz artzea lanjeros aurki-arazten baitzaukon eta, zuhurtasunez, ezpaitzuen bigarren maileko gertaldi batzuez baizik mintzatu nahi. Baina Bloch-ek hartan huts egiten zuena zen uste ukaitean Norpois-ko Jaunak, jitez gutiago zuhurra eta izpirituz gutiago itxura hutsera emana izan baliz ere, ahal ukanen zuela, nahi ukana balu, Henry-ren, Picquart-en, du Paty de Clam-en egitateaz egia erran. Nolaz zuen ez jakina ukanen minixtroak ezagutzen zituenaz geroz? Eiki, Bloch-ek bazakien gogo argienak politikako egiaren nunbait han jakitera hel daitezkeela, baina uste zuen, jendearen gehienak bezala, beti badagola, ezin eztabadagarri eta gauzazkoa, Errepublikako presidentaren eta Konseilukoaren paper segeretuzkoetan, hauek minixtroer ezagun-arazten baiteztee. Bada, politikako egiak paperrak badituenean ere, bekan da hauek badutela hartan jende xoilak eriaren gaitza izkiratua agertzen dela uste duen radiozkopiako argazki batek baino balio gehiago, egiazki aldiz argazki horrek bademalarik estimatzeko gai xoil bat bertze ainitzekin batuko dena, hetan baitu medikuak arrazoinez lan eginen eta hetarik ezagubidea hartuko. Beraz politikako egia, jende jakinduruetara hurbiltzen denean eta hunkiko dela uste, ihesi doa. Berantago ere, eta Dreyfus aferan gelditzeko, Henry-ren aithorra bezain egintza argia gertatu zenean, gero haren bere buruaz egitea, egintza hori berehala kontrako moldetan itzulia izan zen minixtro dreyfustiar batzuez eta falsukeria berek agertua eta galdekatzea berek egina zuten Cavaignac eta Cuignet-ez; gehiago oraino, minixtro dreyfustiarretan beretan, alderdi berekoetan, ez bakarrik paper beretarik baina gogo berdinean jujatuz, Henry-ren egitatea molde osoki kontrakoetan aztertua izan zen, batzuek bazakusatela hartan Esterhazy-ren gaizkide bat, bertzek aldiz bazematela egitate hori du Paty de Clam-i, horrela bere etsai Cuignet-en aburura bilduz eta bere alderdiko Reinach-ekin osoki kontra izanez. Bloch-ek Norpois-ko Jaunaren ganik athera ahal zuena izan zen, armadako lehen buruzagi Boisdeffre-ko Jaunak segeretuzko mezu bat emana baldin bazaukon Rochefort Jaunari, bazela hor ageriki bereziki urrikalgarri den zerbait.

- Segurtzat har ezazu Gerlako minixtroak, bederen *in petto*, buruzagi lehen hori ifernuko jainkoetara igorri dukeela. Gezurtatze ofizial bat etzen ene ustez behargabeko zerbait izanen. Baina Gerlako minixtroa hortaz *inter pocula* biziki gordinki mintzo da. Badira bertzela ere gai batzu hetaz gero nagusi egon eztaitekeen nahasmendu baten egitea biziki zuhurtzia gabekoa baita.

- Baina paper horiek ageriki gezurrezkoak dira.

Norpois-ko Jaunak etzuen ihardetsi, baina erran zuen Orléans-ko Henri printzearen egintza ageriak etzituela onhartzen:

- Bertzela ere eztezakete auzitegian behar den gogo-berdintasuna uher baizik eta alde batetik ala bertzetik deitoratzeko lizatezkeen nahasmenduak susta. Segurki armadaren kontrako zimarkuer geldi! erran behar da, baina eztugu ere zer egin, gogo aberritarraren zerbitzatzeko orde hartaz zerbitzatu nahi duten jende eskundar batzuek sustatzen duten kalapita gorriaz. Frantzia, Jainkoari esker, ezta errepublika hego-amerikar bat eta *pronunciamento* eginen duen jeneral baten beharrik ezta senditzen.

Bloch etzen Dreyfusen ogentasunaz mintza-araztera heldu ez eta orduan ari zen zibileko auzian gertatuko zen erabakiaz aitzin-ustearen emaitera. Ordainez Norpois-ko Jaunak iduri ukan zuen atsegin zuela jujamendu horren ondorioez xehetasun batzuen emaitean.

- Kondenamendu bat baldin bada, erran zuen, itxura guzien arabera hautsia izanen da, bekan baita, hoinbertze lekukoen zin eginez erranetan, eztirela abokatek hel egin eztezakoketen moldeko bizio batzu. Henri Orléans-ko printzearen jaukitaldiarekin bururatzeko, haren aitaren gostuko dela azkarki dudan emaiten dut.

- Chartres Dreyfus-en aldeko dela uste duzu? galdegin zuen dukesak irriño bat eginez, begiak biribil, matelak arrosa-kolore, sudurra bere bixkotxañoen azietan, itxura eskandalatua.

- Batere, erran nahi nuen bakarrik familia guzian badela, alde hortan, politikako zentzu bat, *nec plus ultra* ikusi ahal izan baita Clémentine prinzesa mireskarriaren baitan, eta haren seme Ferdinand printzeak ondore balios bat bezala atxiki duena. Etzuen Bulgariako printzeak Esterhazy komandanta besoetan tinkatuko.

- Soldado xoil bat hautetsiko zuen, murmurikatu zuen Guermantes-ko Andereak, usu Bulgariarrarekin auhaltzen baitzen Joinville-ko printzearen etxean eta ihardetsia baitzaukon aldi batez, bekaizti etzenez galdegiten zaukolarik: "Bai, Enejauna, zure ukharaikoez."

- Etzoaz gaur Sagan-ko Anderearen dantzaldira? Erran zaukon Norpois-ko Jaunak Villeparisis-ko Andereari Bloch-ekilako solasaldiari labur egiteko.

Etzizakon Embaxadoreari atsekabegarri, erran baitzaukun berantago, ez xintxotasunik gabe, eta menturaz Bloch-en mintzaran alta utzia zuen moda neo-homerotarretik gelditzen ziren hatz batzuen gatik: "Aski jostagarria da, bere mintza-molde apur bat joko zaharrekoarekin, apur bat ospetsuarekin. Gutitan erran lezake: "Ahizpa Jakintsunak" Lamartine-k edo Jean-Baptiste Rousseau-k bezala. Aski arraro bilakatu da oraiko gazterian eta hala zen jadanik aitzinekoan. Guhaur ere aski

erromantiko ginen." Baina bere solaskidea hain berezia iduritua bazizakon ere, Norpois-ko Jaunak aurkitzen zuen solasaldiak etzuela sobera baizik irauna.

- Ez, jauna, enoa gehiagoa dantzaldietara, ihardetsi zuen atxo baten irriño pollitarekin. Bazoazte, zuek? Zuen adinekoa da, gaineratu zuen behako ber batean bilduz Châtellerault-eko Jauna, bere adixkidea, eta Bloch. Ni ere gomitatua nintzan, hortarik jostakeriaz alegia urgulu hartuz bezala; izan zata ere gomitatzen (Sagan-go prinzesaz ari zen.)

- Gomiteko kartarik eztut, erran zuen Bloch-ek, ustez eta Villeparisis-ko Andereak bat eskainiko zaukon, eta Sagan-go Andereak zorion ukanen zuen bera gomitatzera jina zizakon emazte baten adixkidearen ukaitez.

Markestsak jeus etzuen ihardetsi, eta Bloch etzen hisitu, gauza seriosago bat baitzuen harekin erabiltzeko eta hartako heldu baitzen biharamunagoko hitzartzera. Bi gizon gazteak erraiten entzunik Royale karrikako bilkura utzia zutela hara eihera batera bezala sartzen zelakotz, nahi zaukon Villeparisis-ko Andereari han sarr-araz zezan galdatu.

- Eztirea aski alegiazko aphain, aski handi-uste, Sagan horiek? erran zuen irkaitz gaixtoko doinu batean.

- Baina ez batere, mota hortan egiten dugun hoberena dira, ihardetsi zuen Argencourt-eko Jaunak jostakeria paristar guziak beretuak baitzituen.

- Beraz, erran zuen Bloch-ek erdi-irkaitzez, *egun ospatuak* deritzotenetarik da, sasoineko *asisa mundutar* handiak!

Villeparisis-ko Andereak erran zaukon alegeraki Guermantes-koari:

- Dakusagun, ospe mundutar handikoa dea, Sagan-go Anderearen jantzaldia?

- Ezta hori eni galdegin bahar, ihardetsi zaukon irkaitzez dukesak, ospe mundutarra zer den jakitera eniz oraino heldua. Gainera, eniz gauza mundutarretan azkar.

- Ha! kontrakoa uste nuen, erran zuen Bloch-ek uste baitzuen Guermantes-ko Anderea zintzoki mintzatua zela.

Norpois-ko Jaunaren etsipen handian, huni Dreyfus aferaz galde egitean jarraiki zuen; hunek erran zuen "asmuz" du Paty de Clam koronelak burumun apur bat nahasiaren iduripena emaiten zaukola eta biziki zorionekin hautatua izana etzenarena, gauza minbera, hainbat odol-hotz eta zuhurtzia galdegiten duen horrendako: auzi antolatze bat.

- Badakit alderdi zozialixtak haren burua oihuz eta soinuz galdegiten duela, eta Debruaren irlako presonerraren liberatzea. Baina uste dut ezkirela oraino Gérault-Richard eta bertzen mehaketarik iragaitera bortxatuak izaitean. Afera hori, orai arteo, ilunbe hutsa da. Eztut erraiten alde batetik ala bertzetik eztela gorde behar den itsuskeriarik; zure gizonaren gerizatzale guti edo aski abantailnahi-gabe zenbaitek xede onak ukan dezazketela ez, eztut kontrakorik erran nahi! Baina badakizu ifernua hetaz lauzatua dela, gaineratu zuen so xorrotx batekin. Baitezpadakoa dena da gobenuak eman dezan ezkerreko alderdi zenbaiten eskuetan gehiago eztelako itxura, eztuela oin-eskuak estekan nik dakita zein gudaritalden manamenduer amor emaite beharrik, armada, sinets nezazu, ezpaita hori. Erran gabe doa, egintza berri zenbait gerta baladi, auzibide berritze bat hasia lizatekeela.

Ondorioa begietara jauzten da. Horren galdatzea, athe ideki baten bortxatzea da. Egun hartan gobernuak jakinen du gora eta argi mintzatzen. Aldeberzkeriak eztira aski izanen. Beharko dira Dreyfus-i jujeak eman. Eta gauza errexa izanen da ezen, nahiz hartu den, nor beraz gaitz erraitea maite den gure Frantzia goxagarrian, egiaz eta zuzenbidezko hitzen entzun-arazteko Itsaso-Hertsiaren iragaitea - hori ezpaita ainitzetan Sprée-rano joaiteko bide bihurri bat baizik - behar-beharrezkoa dela sinesteko edo sinets-arazteko ohidura, jujeak eztira bakarrik Berlinen. Baina gobernamenduaren egintza behin abiatu eta, gobernamendu horren entzuten jakinen duzua? Zure eginbide herritartasunezkoaren betetzera gomitatuko zituenean, haren ondoan jarriko zirea? Haren dei aberritiarrari ez gor egoiten jakinen duzua eta ihardesten: "Hemen niz!"?

Galde horiek Norpois-ko Jaunak egiten zauzkon Bloch-i ene laguna herabetzen zuen batean balakatzen ere zuen halako mutiritasun batekin; Embaxadoreak iduri baitzuen haren baitan politikako alderdi oso bati mintzo zela, Bloch galdekatzen zuela alderdi horren segeretuak ukanak balitu eta hartuko ziren erabakietako gaintasuna berak har bazezakeen bezala. "Harmak uzten ezpazinituzte, jarraiki zuen Norpois-ko Jaunak Bloch-en ihardespen ororen izenekoa igurikatu gabe, auziberritzea delibera lezakeen erabakiaren ankrea idortua izan ere gabe, nik dakita zein manu azpikariari obedituz harmak uzten ezpazinituzte, baina hetsiak egoiten bazinezte batzuendako politikako *ultima ratio* iduritzen den kontra izaite debaldeko batean, zuen etxe-oihalera baztertzen bazinezte eta untziak erretzen bazinituzte, zuen kalte handitan lizateke. Nahasmendu emailen presoner zireztea?" Ihardesteko Bloch eragozpenean zen. Norpois-ko Jaunak astia etzaukon utzi: "Kontrakoa bada egia, sinetsi nahi dutan bezala, eta zuen adixkide 'ta buruzagi zenbaitek zorigaitzez eskas dutela iduri zatan hartarik apur bat, politikako izpiritu zerbait, baldin baduzue, Gambara kriminelari dei eginen den egun berean, ezpazirezte ur uherreko arraintzari batzuer biltzera uzten, irabazia dukezue. Armadako aitzindarieria guziak ixpilinga jokotik athera dezakeela eniz berme jarriko, baina ontsa eder da jadanik zati batek bederen berea salba dezan bolborari su eman gabe. Erran gabe doa bertzela zuzenbidearen erraitea gobernuari doakola eta gaztigugabeak diren gaizkien zerrenda luzegiaren hestea, ez, eiki, zozialixten eta nik dakita zein soldadoeriaren sustatzer obedituz, gaineratu zuen, Bloch-i begietara so eginez eta behar bada kontrako alderdian laguntza zenbaiten antolatzeko konserbadore guziek duten asmuarekin. Gobernamenduko egintzak ari izan behar du eskaintzearen goititzez, nundik badatorren ere, axolatu gabe. Gobernamendua ezta, Jainkoari esker, ez Driant koronelaren manu-pean, ez eta, bertze buruan, Clemenceau Jaunarenean. Ofizioz nahasle direnak hezi behar dira eta berriz buruaren goititzetik debekatu. Frantziak bere gehien-gehienean lana nahi du ordenamenduan! Hortan ene erlisionea egina da. Baina ezta jendearen argitzeaz beldur izan behar; eta abere batzuek, Rabelais-ek hain ontsa ezagutu dituenak, burua aphal urera jauzi egiten balute, ur hori uher dela heier erakustea on lizateke, gure herrikoa ezten mota batek nahitara uhertua duela, zituen azpi lanjerosen gordetzeko. Eta eztu bere gelditasunetik nahigabean atheratzen delako itxura hartu behar baitezpada berea duen dretxoa erabili nahiko duenean, erran nahi dut Andere

Justizia abia-araziko. Gobernamenduak beti onhartuko ditu zure aholkuak. Justiziako hutsa izan dela egiaztatua baldin bada, bidea utziko daukon gaitzeko maioriaz segurtatua izanen da.

- Zu, jauna, erran zuen Bloch-ek, bertze jendekin batean hari izendatua zizakon Argencourt-eko Jaunaren gana itzuliz, segurki dreyfustiarra zira: atzerrian jende guzia hala da.

- Frantsesekin baizik ikustekorik eztuen afera da, ez? ihardetsi zuen Argencourt-eko Jaunak, kontrakoa erran berria duenaz geroz, berea eztuela ageriki jakina den aburu bat solaskideari emaitean den ozarreria berezi harekin.

Bloch gorritu zen; Argencourt-eko Jaunak, inugurura behatuz, irriño bat egin zuen, eta irriño hori bertze ikuslarier igortzen zauen bitartean, Bloch-endako gaizki-nahikoa izan baldin bazen, bihotz-oneziaz eztitu zuen azkenik ene adixkidean geldituz hunen ganik entzun berriak zituen eta hala ere gogorrak ziren hitzez gaitzitzeko estakuruaren baztertzeko. Guermantes-ko Andereak erran zaukon beharrira Argencourt-eko Jaunari entzun enuen zerbait baina Bloch-en erlisioneaz zatekeena, dukesaren begitartean iragan baitzen orduan mintzo zakon jendea ohartua izan dakidion beldurrak zerbait dudazko eta falsu emaiten daukon itxura hura, nahasten baitzako harekin osoki arrotz sendi giren jende multzo batek phizten duen alaitasun ikusi-nahia eta gaizki-nahia. Hutseginaren zuzentzeko Bloch Châtellerault-eko dukearen gana itzuli zen: "Zu jauna, Frantsesa baitzira, badakikezu atzerrian dreyfustiarrak direla, nahiz badioten ehoiz eztela atzerrian gertatzen dena Frantzian jakiten. Bertzela ere badakit zurekin solasta daitekeela, Saint-Loup-ek erran dauta." Baina duke gaztea, jende guzia Bloch-en kontra jartzen ari zela sendi baitzuen eta munduan ainitzetan den bezala beldurtia baitzen, izpiritu prezios eta ausikari bat erabiliz, Charlus-ko Jaunetik, ethorkiz, zadukala iduri zuena: "Desenkusa nezazu, Jauna, baina hori da gauza bat prinzipioz Japhet-tiarren artean baizik aiphatzen eztutana." Jende guziak irriño bat egin zuen, Bloch-ek salbu, ez apur bat Sinai-ari zatxikakon aldeaz edo bere ethorki juduez irkaitzezko erranaldi batzuen erraiteko ohidurarik etzuelakotz. Baina erranaldi horietarik baten orde, ezpaitzatezkeen aitzinetik moldatuak, barneko mekanikaren klixkak bertze bat igan-arazi zuen Bloch-en ahora. Eta etzen hau baizik bildu ahal izan: "Baina nola jakina ahal duzu? nork erran dautzu?" galeriano baten semea izan baliz bezala. Bertze aldetik, zuen izenarekin, ezpaita bereziki girixtinotzat hartzen, eta zuen aurpegiarekin, haren ustegabeak xintxotasun zerbait erakusten zuen.

Norpois-ko Jaunak errana zaukonak ez osoki askietsirik, atxibolariaren gana hurbildu zen eta galdegin etzenez ikusten zenbait aldiz Villeparisis-ko Anderearen etxean du Paty de Clam Jauna edo Joseph Reinach Jauna. Artxibolariak jeus etzuen ihardetsi; nazionalixta zen eta Villeparisis-ko Andereari gerla zozial bat izanen zela erraitetik etzen gelditzen eta bere ezagutzen hautatzean zuhur izan beharko zuela. Egin zuen bere baitan Bloch ez ote zenez Sindikataren mezulari segeretuzko bat eta joan zen berehala Villeparisi-ko Andereari Bloch-ek egina zauzkon galde horien salatzera. Andereak estimatu zuen gaizki ikasia zela bederen, Norpois-ko Jaunaren karguarendako behar bada lanjerosa. Azkenik nahi zuen satifamendu eman artxibolariari, beldur zerbait emaiten zaukon jende bakarra, dotrina emaiten

zaukona, ondorio handirik gabe (goiz oroz *Le Petit Journal*-ean ekhartzen zaukon Judet Jaunaren artikulua). Bloch-i nahi zuen beraz jakin-arazi etzuela berriz hara itzuli behar eta bere bilduma mundutarrean biziki naturalki aurkitu zuen andere handi batek norbait haren bidez etxetik kampo ezartzen duen komedia-jokoa, itxuratzen den erhi goititurik ez begi sutsurik eztuen jokoa. Bloch hurbiltzen ari baitzizakon ikus arteo erraiteko, hark bere jargia hadian sartua, erdi-lo nahasi batetik erdi-jalgia iduritu zuen. Haren so ithoek etzuten ukan perla baten leinuru ahul xoragarria baizik. Bloch-en goraintziek, doi-doia zutela markestsaren aurpegian erdi-irri ahitu bat zabaltzen, hitz bat etzaukoten athera-arazi, eta eskua etzaukon eskaini. Komedia horrek Bloch ezarri zuen ustegabetze gorenean, baina jende multzo bat inguruan lekuko baitzen, etzuen uste ukan beretako behargaberik gabe luza zaitekeela eta markestsaren bortxatzeko, emaitera heldu etzizakon eskua, bere baitarik eskaini zuen. Villeparisis-ko Anderea ofensatua izan zen. Baina behar bada, artxibolariari eta Dreyfus-en kontrako alderdiari berehalako satifamendu baten emaiteari atxikia zen batean, geroa nahi zukeen alta gupidetsi: betespalen beheititzea aski izan zizakon eta begien erdi-hestea.

- Lo dela uste dut, erran zaukon Bloch-ek artxibolariari, hunek, ustez markestsa alde zuen, itxura sumindu bat hartu baitzuen. Goraintzi, markesa, oihukatu zuen.

Markestsak egin zuen hiltzera doan eta ahoa ideki nahi lukeenaren, baina soak jendea ezagutzen eztuenaren ezpainetako mugimendu arina. Gero itzuli zen, berraurkitu bizi batez gainditua, Argencourt-eko markesaren aldera, Bloch urruntzen ari zen batean, haurtua zela segur. Jakin-nahiaz eta hoin gertakari bitxiaren argitzeko xedeaz betea, ikustera itzuli zizakon zenbait egun berantago. Biziki ontsa hartu zuen emazte ona baitzen, atxibolaria ezpaitzen hor, Bloch-ek etxean joka-arazi beher zaukon komediaxkari atxikia baitzen, eta azkenik nahi zuen andere handiaren jokoa egina baitzuen, guziez miretsia izan zena eta arratsean berean saloin batzuetan aiphatua, baina jadanik egiarekin ikustekorik ezer etzuen erran-molde batean.

- *Zazpi prinzes*-ez ari zinen, dukesa, badakizu (eniz hortako burgoiago) nola erran nezake … gaixtakeria horren egilea ene herritarretarik bat dela, erran zuen Argencourt-eko Jaunak irkaitz batekin, aiphatu berria zen lan baten egilearen bertzek baino hobeki ezagutzeko askieste batekin nahasia. Bai, bereaz Belgikakoa da.

- Zinez? Ez, etzitugu *Zazpi Prinzes*-etan deusetako barne izaiteaz salatzen. Zorionez zuretako eta zure herritarrendako, etzira zozokeria horren egilearen idurikoa. Belgiar biziki maitagarriak ezagutzen ditut, zu, zure Errege apur bat herabea baita baina izpirituz betea, Ligne ene gusiak eta bertze ainitz, baina zorionez eztuzu *Zazpi prinzes*-en egilearen hizkuntza mintzo. Bertzela ere, erran dezatan nahi baduzu, aiphatzea ere sobera da jeus eztelakotz oroz gainetik. Ilun iduri ukaitea bilatzen duten jende batzu dira eta beharrez irriegingarri izaitera akomeatzen direnak ideiarik eztutela gordetzeko. Azpian zerbait baliz, ausartzia batzuen beldur enizala erranen dautzut, gaineratu zuen doinu serios batekin gogamenetik bazenaz geroz. Botelli-ren antzertia ikusi duzunez eztakit. Horrek

afruntatu dituen jendeak badira; nik, harrika-arazi behar banu ere neure burua, gaineratu zuen etzela irrisku handitan gogoan hartu gabe, aithor dut ezin gehiago ohargarri iduritu zatala. Baina *Zazpi Prinzesak!* Hetarik batek oneziak ukan dezazke ene iloba batendako, eztezazket familiako sendimenduak ereman…

Dukesa bapatez gelditu zen, ezen andere bat sartzen ari zen, Marsantes-ko bizkondesa, Robert-en ama. Marsantes-ko Anderea Saint-Germain bazter-hirian izaite goren batentzat zadukaten, aingeru baten onezia eta etsi-emaitearekilakoa. Hori errana zautaten eta ustegabetua izaiteko arrazoinik enuen, ordu hartan Guermantes-ko dukearen arreba bera zelako ez jakinean. Berantago beti ustegabetua izana niz ikasi dutan aldi guziez, lagunarte hartan, emazte gogoilun, garbi, sakrifikatu, eliza-berinalde batzuetako saindu batzu bezain ohoratu batzu, loratuak zirela anaia abre, atsegale 'ta gaitzeskarri batzuen ethorki-ondo berean. Anai-arreba batzu, begitartez osoki berdin direnean Guermantes-ko dukea eta Marsantes-ko Anderea ziren bezala, iduri zizatan ukan behar zutela elgarrekin adimendu bakar bat, bihotz bakar bat, ordu on edo gaixto batzu ukan dezazkeen norbaitek bezala, baina izpiritua hertsi badu ikuspen zabalik ezpaitaiteke haren ganik igurika, eta bihotza idor badu goren-goreneko abantailnahi gaberik.

Marsantes-ko Andereak entzuten zituen Brunetière-ren ikastaldiak. Saint-Germain hiri-bazterra buru-berotzen zuen eta, bere saindu biziaz, onera ekhartzen ere. Baina haren sudur pollitaren eta so zorrotzaren elgarrekilako loturak baneramaten alta Marsantes-ko Anderearen lerrokatzera bere anaia dukearen adimeneko eta morelako familia berean. Enezakeen sinets emazte izaiteak bakarrik, eta behar bada zorigaitzekoa guzien estimua bere alde zuelarik, egin zezakeela bertzetarik hain ezperdina izaitea, jestu kantuetan bezala hetan bertute 'ta garazia guziak bilduak baitira anaia batzuen arreban. Baziduritan naturak, poeta zaharrak baino gutiago libro, behar zituela nunbait han bakar-bakarrik erabili familia guziak zituen gaiak, eta enezakokeen eman, zozo bat ala oies bat bazegitenen gai berdintsuekin, zozotasunezko narriorik batere gabeko izpiritu handi baten, abretasuneko zikindurarik batere gabeko emazte saindu baten egiteko ahal berritzalea. Marsantes-ko Andereak bazuen zeta xuri arinezko zaia bat, palma handi batzuekin hetan ageri baitziren oihalezko lili batzu, beltxak. Galdua baitzuen, zuela hirur aste, bere gusi Montmorency-ko Jauna, ikustaldi batzuen egitea debekatzen etzaukon gauza, auhari ttipi batzuetara joaitea, baina doluan. Andere handi zen. Ethorkiz arima gortetako bizien arinkeriez betea zuen, duten ahulkeria eta garraztasun guziarekin. Marsantes-ko Andereak etzuen aitamen doluaren luzaz atxikitzeko indarra ukana, baina munduan jeusetako etzuen margorik ekharriko gusiaren heriotzetik ondoko ilabetean. Enekin maitagarri baino gehiago izan zen Robert-en adixkide nintzalakotz eta ez Robert-en mundu berekoa. Onezia hori alegiazko herabetasun batez lagundua zen, mintzoaren, soaren gibelatze artekatu batez, zaia ausart bat bezala beregana biltzen den gogamenarenaz, sobera leku har eztezan, ontsa zuzen egon dadin, malgutasunean ere, ontsa ikasia izaiteak nahi duen bezala. Hitzez-hitzean sobera hartu behar ezten ontsa ikastea bertzela ere, andere horietan batzu bizimoldeko ahalgegabekeriara biziki laster erortzen baitziren egonarako jendetasun abantzu haurrarakoa behin ere galdu gabe.

Marsantes-ko Andereak solasean apur bat nardatzen zuen, "bilaun" batez ari zen aldi oroz, behazunez Bergotte-ez, Elstir-ez, erraiten zuelakotz hitza agerian ezarriz eta balia-araziz, bi doinu ezperdinetan emanez Guermantes-tarren berezitasuna zen aldamen batean: "Bergotte Jaunarekin gertatzeko *ohorea* ukan dut, *oho*re handia, Elstir Jaunaren ezagutzekoa", ala bere lañotasunaren mirets-arazteko, ala, Guermantes-ko Jaunak zuen gostu berean, moda zaharreko erran-moldetara itzultzeko oraiko ikaste gaitzaren kontra ihardukitzekotan, ezpaita "ohoratua" aski erraiten. Bi arrazoin horietarik zein ere izan zadin egiazkoa, molde oroz sendi zen Marsantes-ko Andereak bazionean: "Ukan dut *ohorea*, *oho*re handia", egitate handi baten egitea uste zuela, eta balioko gizonen hartzen bazakiela bere jauregian hartuak ukanen zituen bezala, auzoan gertatu balire. Bertzalde, familia ainitz baitzuen, biziki maite zuena, mintzatzen eztia eta argitasunen adixkidea, nahi baitzituen jendakiak ezagun-arazi, noiz nahi gertatzen zen (ustegabetzeko gutiziarik batere gabe 'ta laborari hunkigarri batzuez eta ihizi-zain ezin hobe batzuez baizik ez mintzatzea zintzoki maite zuen batean) Europako familia ezagunenen aiphatzen, jende gutiago distiratuek barkatzen etzaukoten gauza, eta, apur bat adimendukoak baldin baziren, zozokeria bat bezala trufatzen.

Baserrian, Marsantes-ko Anderea biziki maitatua zen bazegien onaren gatik, baina oroz gainetik gizaldi andanan Frantziako ixtorioak zuen handienik baizik aurkitzen etzen odolaren garbiak haren izan-arari ekhenduak baitzaukon jende xoilak "fazoinak" deritzon guzia eta lañotasun betea emana. Zorigaitzean zen emazte gaixo baten besarkatzeko etzen beldur, eta erraiten zaukon jauregira joan zadin orgatara egur baten bila. Bazioten girixtino betegina zela. Robert-i gaitzeko ezkontza aberats baten egin-araztera atxikia zen. Andere handi izaitea, andere handiaren joko egitea da, erran nahi da, alde batetik, lañotasun jokoaren egitea. Ezin gehiago kario balio duen jokoa da, are gehiago nun lañotasuna ezpaita gozagarri laño izaiten ahal etzinela bertzek baldin badakite baizik, erran nahi da biziki aberatsa zirela. Berantago erran zautaten, ikusia nuela erran nuenean: "Ohartua zaiteke xoragarria izana dela." Baina egiazko edertasuna hain da berezia, hain berria, nun ezpaita edertasun bezala ezagutzen. Neure baitan egin nuen bakarrik egun hartan bazuela sudur bat ttipi-ttipia, begi urdin-urdinak, lephoa luxe 'ta itxura trixte.

- Entzun, erran zaukon Villeparisiko Andereak Guermantes-ko dukesari, uste dinat arestian ukanen dinatala ezagutu nahi eztunan emazte baten ikustaldia, nahiago daunat jakin-arazi horrek narda ehezan. Bertzela ere, bahagoke gostuan, eztinat gero etxean ehoiz ukanen, baina aldi bakar batendako egun jin behar din. Zuanen emaztea dun.

Zuan Andereak, Dreyfuz aferak hartzen ari zituen neurriak ikusiz eta senarraren ethorkiak etzaiten haren kontra itzul beldurrez, kondenatuaren ogengabetasunez nehoiz gehiago etzadin mintza othoi-othoiztua zuen. Hura hor etzelarik bazoan urrunago eta nazionalixma sutsuena erakusten zuen; bertzela ere hortan etzuen Verdurin Andereari jarraikitzea baizik egiten, hunen baitan juduen hastio burjes gorde bat iratzarria baitzen eta egiazko sumindura batera heldua. Izanara hortarik Zuan Andereak irabazia zuen moldatzen ari ziren munduko emazte juduen hastialen batasun batzuetara sartzea eta ezagutzak eginak zituen

arixtokraziako jende batzuekin. Bitxi iduritzen ahal da, haien imitatzetik urrun, Guermantes-ko dukesak, hain Zuanen adixkidea, aldiz, beti gogor egina ukaitea bere emaztearen aitzineratzeko gordea etzaukon gutiziari. Baina ikusiko da berantago holako edo halako gauzaren egiterik "etzuela" estimatzen zuen dukesaren jite bereziaren ondorio bat zela hori, eta haren "hautu libre" mundutarrak - biziki berak nahi bezalakoak - erabakia zuenaren onhartzera larderiarekin bortxatzen zuenarena.

- Abisatzeaz eskertzen zitut, ihardetsi zuen dukesak. Biziki gozagaitz izanen zizatan alabaina. Baina ikustez ezagutzen baitut, ordu deno xutituko niz.

- Hitzemaiten daunat, Oriane, biziki goxagarria dun, emazte bat ezin hobea, erran zuen Marsantes-ko Andereak.

- Eztut dudatzen, baina nihaurek segurtatzeko beharrik ez batere senditzen.

- Ehiza Lady Israels-en etxera gomitatua? geldagin zaukon Villeparisis-ko Andereak dukesari, solasaren itzultzeko.

- Baina, Jainkoari esker, eztut ezagutzen, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak. Marie-Aynard-i da hori galdatu behar. Ezagutzen du eta zergatik galdez egona niz beti.

- Ezagutua dut alabaina, ihardetsi zuen Marsantes-ko Andereak, ene hutsak aithortzen ditut. Baina ez gehiago ezagutzea deliberatua dut. Gaitzenetarik bat omen da eta hala izaiteaz ez gordetzen. Gainera, konfientxia sobera erakutsia dugu beti, sobera ostatatzale izanak. Eniz gehiago jende mota hortako nehorekin ibiliko. Odol bereko gusi zahar probinziako batzu baginituelarik, athea hesten ginauenak, Juduer idekitzen ginauen. Orai badakusagu haien eskerra. Ondikotz! jeus eztut erraiteko, badut seme bat ezin maitagarriagoa eta, gazte ero bezala, ahal den zorokeria guziak erasten dituena, gaineratu zuen Argencourt-eko Jaunak Robert aiphatua zuela entzutean. Baina, Robert-ez denaz, eztuzuea ikusi? galdegin zaukon Villeparisis-ko Andereari: ebiakoitza baita, uste nuen hogei-ta laur oren Parisen iragan ahalko zituela, eta orduan zure ikustera jinen zen segurki.

Egiazki Marsantes-ko Andereak uste zuen semeak etzuela permisionerik ukanen; baina baitzakien, ukan balu, zer nahi izanik ere, etzela Villeparisis-ko Anderearen etxera jinen, uste zuen, hemen aurkituko zuela iduri ukanez, haren izaba minberari barka-araziko zauzkola eginak etzauzkon ikustaldi guziak.

- Robert hemen! Baina eztut haren hitz bat ere ukan; Baldec-ez geroz ikusi eztutala uste dut.

- Hain da hartua, hainbat zer egin badu, erran zuen Marsantes-ko Andereak.

Irriño arin-arin batek izurr-arazi zituen Guermantes-ko Anderearen betileak bere ekhitakoarekin tapizan marratzen zuen ingurura so egin baitzuen. Dukeak emaztea sobera agerian utzirik ukana zuen aldi guziez, Marsantes-ko Andereak bere anaiaren kontra argiki hartua zuen koinataren alderdia. Gerizapen hortaz hunek bazatxikan orhoitzapen eskerronezko eta aiherkari bat, eta Robert-en gaztekeriez etzen erdi gaitzitua baizik. Ordu hartan, athea berriz idekia izanik, hau sartu zen.

- Ori, otsoa aiphatzen denean, erran zuen Guermantes-ko Andereak.

Marsantes-ko Andereak, athera bizkarrez baitzen, etzuen semea sartzen ikusia. Ohartu zizakonean, bozkarioak ama haren baitan egiazki hegal ukaldi batek

bezala jo zuen, Marsantes-ko Anderearen soina erdi goititu zen, aurpegia pilpiratu, Robert-etan lotzen zituen begi miretsi batzu:

- Nola, ethorri hiz! zer zoriona! zer ustegabea!

- Ha! *Otsoaz ari denean*, orai hartzen dut, erran zuen diplomata belgiarrak irri karkailetan.

- Ezin goxoago da, egin zuen idorki Guermantes-ko Andereak hitz-jokoak hastio baitzituen eta hori ezpaitzuen menturatua alegia bere buruaz trufatzen ari zela iduriz baizik. Egunon, Robert, erran zuen; he bada! horra nola den izaba ahazten.

Ephe batez elgarrekin mintzatu ziren eta behar bada nitaz, ezen Saint-Loup amaren gana hurbiltzen ari zelarik, Guermanteko Anderea ene gana itzuli zen.

- Egun on, nola zira? erran zuen.

Ene gainera ixurtzera utzi zuen bere so urdinaren argia, ephe batez zalantzan egon, beso adarra hedatu zuen eta luzatu, soina aitzinera ukurtu laster gibelera zuzendu baitzen etzan den zuhaxka eta, libro utzirik, bere egonara naturalera itzultzen dena bezala. Horrela egiten zuen behatzen zaukon eta bere izabaren ganik enetako doi bat gehiago ukaiteko urrundik indar etsituetan ari zen Saint-Loup-en soen suaren azpian. Solasaldia agor zadin beldurrez, haztera jin zen eta enetako ihardetsi zuen:

- Ezta biziki ontsa, apur bat akhitua da; gainera, hobeki joan lizateke behar bada usuago ikusten bazinindu, zure ikustea biziki maite duela ezpaitautzut gordetzen.

- Ha! biziki maitagarri da, erran zuen Guermantes-ko Andereak doinu bere nahitara ohiko batean, bere soingainekoa ekharria banauko bezala. Biziki ohoratua niz.

- Oizu, banoa aphur bat amaren ondora, ene kadera emaiten deat, erran zautan Saint-Loup-ek horrela bere izabaren ondoan jartzera bortxatuz.

Biak ixildu ginen.

- Goizetan ikusi zitut batzuetan, erran zuen ikasia zautan berri bat izan baliz eta nik ere ikusten ezpanu bezala. Osagarriari biziki on egiten du.

- Oriane, erran zuen erdi-ahapetik Marsantes-ko Andereak, Saint-Ferréol-go Anderearen ikustera zinoala erraiten zinuen, aski gixakoa zinatekea auhaltzeko igurika enindezan erraiteko? Robert hemen dutanaz geroz etxean egonen niz. Galdegitera ausartuko banizaizu ere iragaitean erran dezazun Robert-ek maite dituen zigarroak eros ditzaten, izena "Corona" dute, etxean ezta gehiago.

Robert hurbildu zen; Saint-Ferréol-go Anderearen izena entzuna zuen bakarrik.

- Hori zer da oraino, Saint-Ferréol-go Anderea? galdegin zuen doinu ustegabetu eta deliberatu batean, mundua hunkitzen zuen guziaren ez ezagutzea egiten baitzuen alegia?

- Baina, gaixoa, ontsa badakik, erran zuen amak, Vermandois-en arreba: hark zaukan emana hainbertze maite huen billart joko hura.

- Nola, Vermandois-en arraba da, batere enakien. Ha! ene familia loriagarria da, erran zuen ene gana erdi itzuliz eta ohar gabean Bloch-en doinuak hartuz haren

ideiak mailegatzen balitu bezala, ustegabeko jendeak ezagutzen ditu, guti edo aski Saint-Ferréol izendatzen direnak, (eta hitz bakoitzaren azken silaba agerian emanez) badoa dantzaldira, badabila "victorian", bizi bat baderama ametsetakoa. Hori mirazkoa da.

Guermantes-ko Andereak egin zuen zintzurraz, berriz iresten den irriño bortxatu batena bezalako hots arin, motz eta azkarra, jendakiak bortxatzen zuen bezainbatean, bere ilobaren izpirituan barne zela erakusteko egina zena. Jin ziren iragartzera Faffenheim-Munsterburg-Weinigen-go printzeak Norpois-ko Jaunari hor zela jakin-arazten zaukola.

- Zoaz haren bila, jauna, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak embaxadore ohiari hau joan baitzen lehen minixtro alemanaren aitzinera.

Baina markestsak berriz deitu zuen:

- Zaude, jauna; beharko daukota erakutsi Charlotte Emperatrizaren potret ttipia?

- Ha! loriatua izanen dela uste dut, erran zuen Embaxadoreak doinu senditu batekin eta igurikatzen zuen fagoreaz minixtro dohatsua gutiziatzen balu bezala.

- Ha! biziki *gogamen onekoa* dela badakit, erran zuen Marsantes-ko Andereak, eta atzerritarretan hain da bekan. Baina argitua niz. Juduen hastioa bera da.

Printzearen izenak bazatxizkan, lehenbiziko silabak "joak" (musikan erraiten den bezala) zizazkon molde zintzoan, eta neurkatzen zituen errepika motelduan, oldea, xintxotasun fazoinduna, goxotasun aleman dorpeak aldaxka musker batzu bezala botatuak esmail urdin ilunezko "Heim"-era, Rhin aldeko eliza berinalde baten miztikotasuna hedatzen zuela XVIII-garren mendeko urreria hits et xorroxki zizelkatuen gibelean. Izen horrek bazadukan, egina zen izen guzien erdian, han haurrean amatxirekin izana nintzan uretako hiri ttipi aleman batena, Goethe-ren ibilaldiek ohoratua zuten mendi baten oinean, Kurhof-ean edaten baiginituebn hango mahastietako arno aiphatuak, Homero-k bere gizandier emaiten dezteen izenak bezalako bere deitura batzun ozenarekin. Beraz doi-doia entzuna ukan nuenean printzearen izena erraiten, uretako lekuaz orhoitua izan baino lehen, iduritu zizatanean, ttipitzen ari zela, gizatasunez betetzen, ene orhoitean harendako aski handi zen lekuño baten aurkitzen, hartan lotu baitzen, etxekotua, arrunta, margoztagarria, zaporetsua, larderiazko, legezko zerbaitekin. Gehiago oraino, Guermantes-ko Jaunak, printzea nor zen argitzean, haren titulu batzu eman zituen, eta ezagutu nuen ibai batek zeharkatzen zuen herrixka baten izena, arrats oroz, arthak bururaturik, bainindoan untziz, sistulien artetik; eta oihan batena aski urrun hara ibilaldiz joaitea medikuak ez eni haizu utzia ukaiteko. Eta alabaina, entzungarri zen jaunaren nagusigoa ingurunetara heda zadin eta haren tituluen zerrendan berriz elgarretara zitzan karta batean batzu bertzen ondoan irakur zaitezkeen izenak. Horrela, Imperio-Sainduko printzearen eta Frankoniako ezkutariaren begigainekoaren azpian, han sei orenetako iguzkiaren arraiak enetako usu geldituak ziren lur maitatu baten aurpegia nuen ikusi, printzea, "rhingrave" ala elektore palatino, sartu baino lehen. Ezen ephe zenbaitetan ikasi nuen oihan eta ibai laminez eta ur-anderez jendeztatuetarik, Luther eta Luis Germaniarraren orhoitzapena badatxikan Burgu zaharra goiti dagon mendi enkantatutik hartzen zituen mozkinak,

baliatzen zituela bortz Charron beribilen, Parisen hotel baten, astelehenetan Operan egongia baten eta "Frantsesean" asteartetako bertze baten ukaiteko. Etzizatan iduritzen - eta berak ere etzuen hori sinesten zuela iduri - ethorki gutiago poetikoa zuten bertze gizon aberastasun bereko eta adin berekoetarik bertzelakoa zela. Bazituen haien kultura, haien xede gorena, bere lerroaz bozkariatzen zen baina bakarrik emaiten zauzkon abantailen gatik, eta bizian etzuen orai xede bat baizik: Jakintza moral eta politikako Akademiaren atzerriko ordezkari hautatua izaitea, Villeparisis-ko Anderearen etxera jina zen arrazoina.

Hark, emaztea Berlin-go lagunkideria hetsienaren buru baitzuen, galdegina baldin bazuen markestsaren etxean onhartua izaitea, etzen lehenbizian hortako gutizia ukana zuelakotz. Urtez geroztik Institut-ean sartzeko nahikaria hortaz hartua, etzuen zorigaitzez harendako boz emaitera emanak zirenen multzoa bortzetarik gorago igaiten ikusi ahal ukana. Bazakien Norpois-ko Jaunak berak eskupean zuela bederen hamar bat boz gai baitzen, hautsi-mautsi artex batzuen bidez, haien gainera bertze batzuen ekhartzeko. Beraz printzea, Errusian ezaguna baitzuen biak han embaxadore zirelarik, haren ikustera joana zen eta ahal guziak eginak zituen bere alde ezartzeko. Baina ikustatezko egintzak gehitu ahal ukanak zituen, markesari Errusiako ohore ageri batzu ukan-araziak, atzerriko politikazko artikulu batzuetan hura aiphatua, aitzinean eskergaitz bat zuen ukana, ikustatezko egintza horiek guziek baliorik etzutela iduri zuten, ezpaitzuen galdegite hori urrats batez aitzin-arazia, ez ere hark bere boza hitzemana! Segurki Norpois-ko Jaunak jendetasun ezin gehiagokoarekin hartzen zuen, baina desarraña zadin etzuen nahi eta "atherano jiteko nekea har zezan", bera zoan printzearan etxera, eta zaldun "teutonikak" egina zuenean: "Ha! ontsa nahi nuke zure lagunkide izan", doinu hunkitu batean ihardesten zuen: "Ha! biziki zorionean ninzate!" Eta xintxo batek, Cottard mediku batek, erranen zukeen bere baitan: "Dakusagun, ene etxean da, bera da jitera atxikia izana hura baino jende gotorrago batendako hartzen bainau, Akademiakoa izan nadin zorion lukeela erraiten daut, hitzek erran-nahi bat badute hala ere, zer debru! enetako boz emaitea ezpadaut eskaintzen, ezpaitzauko gogoratzen dateke. Ene botere handiaz sobera mintzo da, uste duke larre-xoriak errerik heldu zaiztala, nahi dutan bezainbat boz badutala, hartako dauta berea ez eskaintzen, baina aski dut bortxan ezartzea, hor, gu bi-bien artean, eta erraitea: "He bada! enetako bozka ezazu", eta egitera bortxatua izanen da." Baina Faffenheim-go printzea etzen xintxo bat; Cottard medikuak "diplomata xorrotx bat" deituko zuena zen eta Norpois-ko Jauna etzela gutiago xorrotxa bazakien, ez eta bere baitarik ohartuko etzena galdegile batendako gozagarri izan zaitekeela boza harendako emanez. Printzeak, bere embaxadetan eta Atzerriko Egitekoetako minixtro bezala, ukanak zituen, bere erresumarendako orai beretako izaiteko orde, norano joan nahi den eta zer etzaizun erran-araziko aitzinetik jakina den solsaldiak. Etzen jakin gabe diplomaziako mintzaran solastatzeak eskaintzea erran nahi duela. Eta hortako zaukon Norpois-ko Jaunari San-Andresen kordoina ukan-arazia. Baina bere gobernamenduari khondu eman behar ukana balauko hortik landa Norpois-ko Jaunarekin ukana zuen solasaldiaz, bere depexan ezartzen ahalko zuen: "Bide

makhur egina nuela ezagutu dut". Ezen Institut-az mintzatzen berriz hasia zeneko, Norpois-ko Jaunak berriz errana zaukon:

- Hori biziki maite nuke, ene lagunkidendako biziki. Senditu behar dute, ene ustez, zinez ohoratuak zuk hek gogoan ukanik. Galdegite bat osoki balioduna da, gure ohiduretarik apur bat kampoan. Badakizu, Akademia biziki ohikeriakoa da, soinu apur bat berria bademan guziaz izitzen. Ene aldetik, hortaz gaizkitzen dut. Zenbat aldiz gertatu zautan ene lagunkider entzutera uztea! Eztakit ere, Jainkoak barka dezatala, gogortuak hitza eztenez aldi batez ene ezpainetarik jalgi, gaineratua zuen eskandalezko irriño batekin, erdi ahapetik, abantzu *a parte*, antzokiko joka-molde batean bezala eta printzera igorriz bere begi urdinaren behako laster eta zeharkatu bat, bere jokoaren ondorioa estimatu nahi duen jokari zahar batek bezala. Hartzen duzu, printzea, enukeela utzi nahi zu bezalako goren norbait aitzinetik galdua den jokaldi batean abiatzera. Ene lagunkiden ideiak hoin gibelatuak geldituko direno, zuhurtzia elikatzea dela uste dut. Bertzela ere sinetsazu bada izpiritu doi bat berriagoa banakusa noizpait, doi bat biziagoa, hil-herri bilakatzera doan bilzarre hortan, zuri jakin-arazten lehenbizikoa nintzatekeela.

"San-Andresen kordoina huts bat da, gogatu zuen printzeak; antolabidek urrats bat eztute egin; nahi zuena etzen hori. Eskua eztut giltz onean ezarri."

Norpois-ko Jaunak, printzearen ikas-molde berean moldatua, egiteko gai zen arrazoinamendua zen. Norpois-en motako diplomatak elhe ofizial nunbait han ezteusaren aitzinean gogo-erauzten diren lelekeria jakintsun-nahiaz trufatzen ahal da. Baina haien haurkeriak badu bere kontrakoa: diplomatek badakite, bakea deitzen den heinkatze hori, Europako ala bertze, segurtatzen duen neurri arautuan, sendimendu onek, mintzaldi ederrek, othoiztek phizu biziki guti dutela; eta phizu ona, egiazkoa, baitezpadakoa, bertze gauza batean dela, kontrakoak, aski azkar baldin bada, trukadaren bidez, gutizia baten askiesteko duen edo eztuen ahalean. Egia mota horrekin, ene amatxi bezalako jende osoki abantailnahi gabe batek gogoan hartuko etzuena, Norpois-ko Jauna, von *** printzea usu gudukatuak ziren. Gerlatik bi urratsetan izanak ginen erresuma batzuetan egitekoez kargatua egonik, Norpois-ko Jaunak, gertakariek hartuko zuten itzuliaz antsian, bazakien biziki ontsa etzizazkola "Bake" hitzetik, ala "Gerla" hitzetik jakin-araziak izanen, baina bertze batetik, itxuraz arrunta, laztagarria edo benedikatua, diplomatak berehala, bere xifrearen bidez, irakurtzen jakinen zuena, eta, Frantziaren ohorearen salbatzeko, ihardetsiko baitzuen bertze hitz berdin arruntarekin baina haren azpian erresuma etsaiko minixtroak hau irakurriko: Gerla. Eta ere, aztura zahar baten araura, bata bertzeari hitzeman jende bien elgarretara lehenbiziko hurbiltzeari Gymnase antzokiko agerraldi batean ustegabeko ikustaldi bat emaiten zuenaren berdintsua, zoriak "Gerla" hitza edo "Bake" hitza garbiki manatuko zuen elgarrizketa etzen ohian minixtroaren gabinetean izana, baina minixtroa eta Norpois-ko Jauna, osagarriko ur batzuetan, ithurritik, baso ur sendagailu ttipi batzuen edatera hara zoazen "Kurgarten" bateko alkian. Halako hitzarmen ixil baten bidez, arthamendu orenean elgarrekin aurkitzen ziren, lehenik ibilaldi bateko urrats zenbait egiten zuten, bi solaskidek bazakitelarik armadara deitzeko manu bat bezain tragikoa zela. Bada, Institut-era aitzineratze hori bezalako egiteko pribatu batean, Printzea

Embaxadore ofizioan egina zuen molde bereko orotakora igaiteaz baliatua zen, batzu bertzen gainean ezarri itxurapen batzuen irakurtzeko molde berdinaz.

Eta eiki, ezin erran daiteke amatxi eta hura bezalakoak bakarrak izanen zirela mota hortako karkulen ez ezagutzen. Zatiz, gizakien erdiak, aitzinetik markatu ofizio batzuetan ari, bere asmu eskasaz biltzen dira amatxik bere abantail nahi gabeari zor zaukon ez jakinean. Jende ordaindu batzuetarano, gizon ala emazte, behar da ainitzetan jautsi, egintza edo elhe iduriz gutienean ogendunen erroa bilatu behar ukaiteko edo abantail-nahian, edo bizitzeko beharrean. Zein gizonek eztaki, ordaintzera doan emazte batek badionean: "Ezkaiten diruaz mintza", elhe hori hartu behar dela, musikan erraiten den moldean, "neurte huts bat" bezala, eta berantago erraiten baldin badu: "Atsekabe sobera eman dautak, ainitzetan egia gorde, ezindua nuk", entzun behar duela: "Bertze ordaintzale batek gehiago eskaintzen dauko"? Oraino ezta hori munduko emaztetarik aski hurbil den lillito baten mintzara baizik. Hiriko mutiko gaixtoek bademazate behazun ohargarriagoak. Baina Norpois-ko Jauna eta printze alemana, mutiko gaixto horiek ezagutzen ezpazituzten, ohituak ziren erresumetako eremu berean bizitzen, erresumak, duten handitasuna ukanik ere, nor berekoitasunezko eta amarruzko izaite batzu baitira, indarraz baizik hezten eztirenak, haien abantailari gogo emaiteaz, erahiltzerano ereman baitezazke, itxurapenezko erahiltzea ainitzetan hura ere, gudukatzeko zalantzan egoite xoilak edo guduaren ez onhartzeak erresuma batendako erran nahi ukan baitezake: "hondatzea". Baina hori guzia ezpaita delako "Liburu Hori" eta bertzetan errana, jende xehea gogotik baketiarra da; gerlari baldin bada, asmuz da, herraz, gorromioz, ez Estatu buruzagiak Norpois bezalakoek abisaturik deliberatu dituzten arrazoinez.

Ondoko neguan, printzea biziki eri izan zen, sendatu, baina bihotza betikotz hunkia gelditu zizakon. "Debrua! erran zuen bere baitan, elizateke Institut-eko sobera dembora galdu behar; ezen, luzegi baldin baniz, izendatu baino lehen hiltzeko irriskuan niz. Gozagaitz lizateke zinez."

Azken hogei urtetako politikaz lan bat egin zuen *Revue des Deux Mondes*-eko eta hartan aldi bat baino gehiago mintzatu Norpois-ko Jaunarendako hitz lausengarienetan. Hau ikustera joan zizakon eta eskertu zuen, bere esker ona nola erran etzakiela gaineratuz. Printzeak erran zuen bere baitan, zerrapoan bertze gako bat entseatua duen norbaitek bezala: "Ezta oraino hau", eta apur bat hats-bahiatua sendituz athera Norpois-ko Jaunaren laguntzean, egin zuen: "Brientxoa! gizon horiek leher egitera utziko naute sarr-arazi baino lehen. Lehia gaiten."

Norpois-ko Jaunak etzuen printzearen artezia berea baino gutiago estimatzen. Hartu zuen berehala Faffenheim-go printzea egitera zoana etzela galde bat, baina eskaintza bat, eta irriñoarekilako gixakotasun batekin entzuteko beharrean jarri zen.

- Horra, biziki ausarta aurkituko nauzu. Badira haier biziki atxikia nizan bi jende, eta osoki ezperdinki, ohartuko ziren bezala, eta berriki Parisen jarriak direnak hemendik goiti hor bizi gogo baitute: ene emaztea eta Jean dukesa-handia. Auhari batzu emanen dituzte, bereziki Angeleterrako errege 'ta erreginaren ohoretan, eta haien ametsa izanen zen lizateke bere gomiter eskaini ahal ukaitea biek harendako,

ezagutu gabean, miresmen handi bat sendi duten norbait. Aithor dut haien gutiziaren askiesteko enakiela nola egin arestian ikasi dutalarik, halabehar handienaren bidez, jende hori ezagutzen zinuela; biziki baztertua bizi dela badakit, eztuela jende guti baizik ikusi nahi, *happy few*, baina zure laguntza emaiten baldin bazinauta, erakusten dautazun onginahiarekin, segur niz haren etxera ereman nindezazun onhartuko zuela eta dukesa-handiaren eta prinzesaren nahikaria hel-araz nezon. Onhar lezake behar bada Angeleterrako erreginarekin auhaltzera jitea eta, nork daki, sobera aspertzen ezpadugu, Bazkoko lanarten iragaitera gurekin Beaulieu-n Jean dukesa-handiaren etxean. Jende hori Villeparisis-ko markestsa deitzen da. Horrela izpiritu bulego bateko ohituetan bat bilakatzeko itxaropenak konsola nindezakeela aithor dut, eta Institut-aren aitzinera joaitearen uztea griñarik gabe ikus-araz lezatake. Haren etxean ere adimenduz eta solasaldi xorrotxezko harremana atxikitzen da.

Atseginezko sendimendu ezin erran batekin printzeak senditu zuen zerrapoak etzuela ihardokitzen eta gako hori, azkenean, sartzen zela.

- Horrelako aburua ontsa debaldekoa da, ene printze maitea, ihardetsi zuen Norpois-ko Jaunak; jeus eztoa aiphatzen duzun saloina baino hobeki Institut-arekin akademialarietako egiazko mindegi bat baita. Zure galdea hel-araziko daukot Villeparisis-ko markestsari: lausengatua izanen da segurki. Zure etxera auhariz joaitea aldiz, biziki guti atheratzen da eta nekeago izanen da behar bada. Baina haren aitzinera eremanen zitut eta zure auzia zuhaurek eginen duzu. Oroz gainetik Akademiaz ezta etsitu behar; hain zuzen biharretik hamaborzkarrenean Leroy-Beaulieu-ren etxean barazkaltzen niz gero harekin bilkura handi batera joaiteko, hura gabe hautatzea ezpaitaiteke egin; miragarriki, erran gabe doa, ezagutzen duen zure izena artetik errana nuen jadanik haren aitzinean. Kontra-ihardespen batzu emanak zituen. Baina gertatzen da ene multzoaren beharretan dela heldu den hautuko, eta berriz jaukitzera itzultzeko xedea dut. Biziki zintzoki erranen dauzkot elgarri lotzen gituzten adixkidantza bihotz-bihotzezkoak, eta eztaukot gordeko, sartzeko galdea egiten baduzu, ene adixkide guzier galdeginen dauetala zuretako bozka diten (printzeak ukan zuen arintzezko hasperen barnatu bat) eta badaki adixkideak baditutala. Uste dut, haren laguntzaren segurtatzera hel baldin banadi, zure zoriak azkarki serios bilaka laitezkeela. Arrats hartan zaugi zortzi orenetan Villeparisis-ko Anderearen etxera, sarr-araziko zitut eta ene goizeko solasaldiaz khondu eman ahalko dautzut.

Horrela zen Faffenheim-eko printzea Villeparisis-ko Anderearen ikustera jitera ekharria izana. Ene lilluraz gabetze barnatua mintzatu zenean gertatu zen. Enuen gogoari emana, adin batek baldin baditu herritartasun batek baino ezagugarri orotako eta berezi azkarragoak, hala nola nun Minerva-ren potret egiazkorano emaiten den hiztegi marrazkiztatu batean, Leibniz bere perruka eta lephoko ixurtuarekin Marivaux-etik edo Samuel Bernard-etik guti bertzelakoa baita, herritartasun batek ezagugarri berezi batzu badituela kasta batek baino azkarragoak. Ene aitzinean agertzera eman ziren bada, ez Elfe-en doi-doiko hunkitzea eta Kobold-en dantza entzunen nituela aitzinetik uste nuen hitzaldi batez, baina ethorki poesiazko hori gutiago baieztatzen etzuen aldakuntza baten bidez: Villeparisis-ko

Anderearen aitzinean gurtzean, tipi, gorri, zorrodun, Rhingrave-ak hari erran ukaiteaz: "Ekunon, Antere markesa", etxezain alzaziarr baten doinu berarekin.

- Eztuzu nahi the kikera bat eman dezazutan edo tarta phuxka bat, biziki ona da, erran zautan Guermantes-ko Andereak, ahal bezain maitagarri izaiteko gutizian. Etxeko ohoreak egiten ditut enea baliz bezala, gaineratu zuen haren mintzoari apur bat zintzurreko zerbait emaiten zaukon irkaitzezko doinu batekin, irri erlastu bat itho balu bezala.

- Jauna, erran zaukon Villeparisis-ko Andereak Norpois-ko Jaunari, gogoan ukanen duzu baduzula sarri Akademiaz zerbait erraiteko printzeari?

Guermantes-ko Andereak begiak beheititu zituen, bere ukaraiari itzuli laurden bat egin-arazi orenari so egiteko.

- Ho! ene Jainkoa! izabari goraintzi erran dezotan ordu da, Saint-Ferréol-go Anderearen etxetik iragan behar badut oraino, eta Leroi Anderearen etxean auhaltzen niz.

Eta jeiki zen eni goraintzi erran gabe. Zuan Andereari ohartua zen, hunek ene aurkitzeaz aski eragozpenean iduritu baitzuen. Orhoitzen zatekeen nehork baino lehen errana zautala Dreyfusen ogengabetasunaz segur zela.

- Amak Zuan Andereari aitzinera nezatan eztut nahi, erran zautan Saint-Loup-ek. Emagaldu bat izana da. Senarra judua du eta nazionalixman ari zaiku. Ori, horra ene osaba Palamède.

(Charlus)

Zuan Anderearen hor izaiteak bazuen enetako balio berezi bat egun zenbait lehenago gertatua zen gauza baten gatik, erran beharra zena biziki berantago ukan behar zituen ondorioen gatik, xehetasunekin jarraikiko zakona ordu izanen denean. Beraz, ikustaldi hori baino zenbait egun lehenago, bat ukana nuen batere igurikatzen enuena, Charles Morel-ena, ene osababitxiaren gambara-mutil ohiaren seme ezagutzen enuena. Osababitxi hori (andere arrosakolorez jantzia haren etxean ikusia nuen) aitzineko urtean hila zen. Haren gambara-mutilak aldi bat baino gehiagotan erakutsia zuen ene ikustera jiteko nahikaria; zertako zen enakien, baina gogotik ikusiko nuen, Françoise-ren ganik ikasia bainuen osabaren orhoitzapenarendako egiazko errespetu bat atxikia zuela eta egiten, urte oroz, hilerrirako beila. Baina artha hartzera bere herrira joitera bortxatua, eta han luzaz egoiteko xedetan, ordariz semea igortzen zautan. Ustegabetua izan nintzan sartzen ikusiz hemezortzi urteko mutiko eder bat, gostuz baino gehiago aberaski jantzia, baina nahi denaren eitea bazuena mutil-gambara batena salbu. Nahi ukan zuen bertzela ere, sartzetik beretik, atheratzen zen sehieriarekilako esteka moztu. Ikustaldiaren helburua hau zuen: haren aitak, ene osaba Adolphe-ren orhoitzapenen artean, ene aitamer igortzeko ez behar bezalakoak idurituak zizazkon batzu bazterrera emanak zituen, baina, haren ustez, ene adineko mutiko bati gogo eratxikigarri zirenak. Antzokiko andere jokari aiphatu batzuen argazki batzu ziren, osabak ezagunak zituen emazte ordaindu handi batzuenak, bere familiako bizitik artesi ezin-iragan batez berexten zuen atsegale zaharraren bere bizi hartako azken iduriak. Morel gazteak erakusten ari zauztan batean, ohartu nintzan alegia bere

heineko norbaiti bezala mintzatzen zizatala. "Zu" erraitean, eta ahal bezain guti "Jauna", bazuen haren aitak, ene aitamer mintzatzean, ehoiz "heren persona" baizik erabilia etzuen norbaiten atsegina. Abantzu argazki guziek bazadukaten eskaintza bat hala nola: "Ene adixkide hoberenari". Andere jokari eskergaitzago edo zuhurrago batek izkiriatua zuen: "Adixkidetan hoberenari", horrek erraitera uzten baitzuen, segurtatua zautatenaz, ene osaba etzela batere, ez eta urrundik ere, haren adixkide hoberena, baina zerbitzu ttipi gehinik egina zaukon adixkidea, hartaz baliatzen zen adixkidea, gizon bat hauta, abantzu abere zahar bat. Morel gazteak bere ethorkitik ihes egitea bila zezakeen, senditzen zen ene osaba Adolphe-ren itzala, errespetagarri eta neurrigabea gambara-mutil zaharraren begietan, ehoiz etzela, abantzu sakratua, semearen haurzaro eta gaztaroen gainean egoitetik gelditua. Argazkier beha nindagon batean, Charles Morel-ek ikhertzen zuen ene gambara. Eta nun altxatu ahalko nituen bilatzen nuelarik: "Baina, erran zautan (gaizkiak erraite beharrik etzuen doinu batean, hain zen elhetan beretan), zergatik bada eztut zure gambaran osabaren argazki bakar bat ikusten?" Senditu nuen gorridura begitartera igaiten, eta ahopiatu: "Baina uste dut eztutala. - Nola, zure osaba Adolphe hain maite zinituenaren argazki bakar bat eztuzu! Aitak dituen andanatik hartuko dutan bat igorriko dautzut, eta ohorezko lekuan ezarriko duzula esperatzen dut, hain zuzen zure osabaren ganik ukana duzun komoda horren gainean." Egia da, gambaran aitaren edo amaren argazki bat ezpainuen, etzela hain ofensagarririk jeus Adolphe osabarenik ez izaitean. Baina etzen neke asmatzea Morelendako, ikusteko molde hori bere semeari ikasia baitzaukon, familiako jende gotorra ene osaba zela, eta ene gurasoek haren ganik argi ttipitu bat zuten bakarrik hartzen. Ni fagore handiagoan nintzan osabak erraiten zaukolakotz egun guziez bere gambara-mutilari halako Racine bat, Vaulabelle bat izanen nintzala, eta Morel-en semeak nunbait han ene osabaren seme-orde, hautuzko haur bat bezala nindadukan. Laster ohartu nintzan Morel-en semea biziki kargu-gosea zela. Horrela, egun hartan, apur bat musika egile baitzen ere, eta musikan neurthitz zenbaiten ezartzeko gai, galdegin zautan poetarik ezagutzen enuenez mundu "arixto"-an leku handi bat zuenik. Bat izendatu naukon. Etzituen poeta horren lanak ezagutzen eta izena etzuen ehoiz entzuna, izkirioz hartu baitzuen. Jakin nuen bada guti berantago poeta horri izkiriatua zaukola, haren lanen miresle amorratua izanez, haren hamalaurkun bat musikan ezarria zuela erraiteko eta zorion lukeela egileak entzunaldi bat eman zezan X… Kondesaren etxean. Apur bat laster joaitea zen eta bere xedearen agerr-araztea.

Gainera, Charles Morel-ek iduri zuen bazuela, handi-nahiaren ondoan, gauza egiazkoetarako ixuri bizi bat. Korroilan ohartua zizakon Jupien-en ilobari barneko motx baten egiten ari eta, nahiz errana zautan bakarrik barneko motx "fantesiazko" baten beharretan zela, nexka gazteak senditu zuen haren baitan bihotz-hunkitze bizi bat egina zuela. Etzen dudan egon eni jauts nindadin erraiteko eta aitzinera nezon, "baina ez zure familiaz den bezainbatean, entzuten nauzu, baina ene aitari doakonaz begiratua izan zaiten nago, errazu bakarrik zure adixkidetako musikari handi bat, hartzen duzu, sal-eroslerendako itxura on bat ukan behar da." Hitz-erdika entzun-arazia bazautan ere, hari "adixkide maitea" erraiteko - hori hartzen zuen - ezpanuen

aski ezagutzen, nexka gaztearen aitzinean erran nezokeela "ez Nagusi maitea, argi da … nahiz, baina nahi bazinu: musikari maite handia", saldegian "lerro-izen emaitea", San-Simunek erranen zuen bezala, baztertu nuen, eta haren "zu"-er aski izan zizaitan "zu" batzuekin ihardestea. Balusasko oihal batzuen artean, bati ohartu zizakon, gorri bizienekoa eta hain saminekoa nun gero, zuen gostu gaixtoa ukanik ere, nehoiz ezpaitzuen ezarri ahal ukan. Nexka gaztea berriz lanari eman zen bere bi "aprendizekin", baina iduritu zizatan bihotz-hunkitzea elgarrena izana zutela eta Charles Morel, nexkak "ene mundukoa" uste ukan zuena (aphainagoa bakarrik eta aberatsagoa), bereziki gustatua zizakola. Biziki ustegabetua izana bainintzan haren aitak igortzen zauztan argazkien artean "Miss Sacripant"-en (erran nahi da Odetteren) potret Elstir-ek egin baten aurkitzeaz, Charles Morel-i erran naukon athe handirano laguntzean: "Xehetasuna emanen ahal eztautazula beldur niz. Ene osabak andere hori biziki ezagutzen zuena? Osabaren biziko zein gunetan ezar dezaketan eztut ikusten; eta horrek hunkitzen nau Zuan Jaunaren gatik… - Hain zuzen zure osabak gomendatua zautala zure oharpena andere hortara erakharr-araz nezan ahaztera nindoan. Alabaina, andere ordaindu hura zure osabaren etxean bazkariz zen ikusi duzun azken egunean. Aitak etzakien ontsa sarr-arazten ahal zinduenez. Emazte arin hari ainitz gustatu omen zinindakon, eta berriz ikusi nahi zinduen. Baina han zuzen ordu hartan gaitzikeriatik izan da familian, aitak erran dautanaz, eta nehoiz eztuzu osaba berriz ikusi." Orduan irriño bat egin zuen, urrundik Jupien-en ilobari goraintzi erraiteko. Hark so egiten zaukon eta miresten zituzkeen haren begitarte mehea, baina itxura arautukoa, ile arinak, begi alaiak. Nik, hari eskuaren tinkatzean, Zuan Anderea nuen gogoan, eta banion ustegaberekin, hain ziren ene orhoitean bereziak eta ezperdinak, jakinen nuela hemendik goiti "Andere arrosa-kolorekoa" zela ezagutzen.

Charlus-ko Jauna laster Zuan Anderearen ondoan jarria izan zen. Han gertatzen zen bilkura guzietan, gizonekin erdainari, emaztez lausengatua, zalu egina zuen aphainenarekin bat egitera joaitea, haren jantzi aphainaz lumaztatua sendi baitzen. Baroinaren soineko luzeak edo jantzi hegaldunak eite bazemakoten margotzale handi batek egin potret batzuekin, gizon bat beltzez jantzia, baina ondoan zadukana, kadera batean, dantzaldi beztitu zenbaitetako jantziko duen soingaineko dirdiratua. Buruz-buru egoite horrek, gehienetan Goientasun zenbaitekin, emaiten zauzkon Charlus-ko Jaunari maite zituen ohoreak. Ondoriotzat zuen, behazunez, etxekanderek besta batean uzten zutela baroina kadera baten ukaiten aitzinaldean emazte lerro batean bakarrik, bertze gizonak elgar bultzakatzen zaudelarik gibelean. Gainera, azkarki hartua, iduriz, andere xoratuari, gora-goratik, ixtorio jostagarri batzuen erraiten, Charlus-ko Jauna bertzer agur egitera joaitetik libro utzia zen, eta eginbide batzu eman behar ukaitetik. Eder hautatuak egiten zaukon hesi usainonduaren gibelean, saloin baten erdian antzoki baten erdian egongia batean bezain baztertua zen eta, agurtzera jiten zizakonean, hala erraiteko bere lagun ederraren erditik bezala, emazteari mintzatzetik gelditu gabe eta biziki laburzki ihardesteaz desenkusagarri zen. Eiki Zuan Anderea etzen bere burua haiekin erakustea maite zuen jenden lerrokoa. Baina Charlus haren miresle bezala aithortzen zen, Zuanen adixkide bezala, bazakien zuen arthaz

anderea lausengatua izanen zela, eta bera lausengatua zen hor zen jende pollitenarekin harremanetan izaiteaz.

Villeparisis-ko Anderea bertzela ere etzen erdi atseginean baizik Charlus-ko Jaunaren ikustaldiaren ukaiteaz. Hunek, bere izabari akats handi batzu aurkitzen zauzkon batean, biziki maite zuen. Baina, noiztenka, haserreak, ustezko arrangura batzuek harturik, igortzen zauzkon, bere older ihardoki gabe, azken bortiztasunezko eskutitz batzu, hetan aiphatzen zituela ordu arteo ohartua zitzaiela iduri etzuen gauza ttipi batzu. Bertze behazun batzuen artean gertakari hau aipha dezaket, ene Balbec-eko egonaldiak jakin-arazi baitzautan: Villeparisis-ko Andereak, ez aski diru eremana ukan beldurrez Balbec-en bere udaleku aldiaren luzatzeko, eta, zikoitza baitzen, behargabeko gastuen beldur, Paristik diru ekharr-araztea ez maite ukanez, hirur mila libera ukan-araziak zituen maileguz Charlus-ko Jaunaren ganik. Hunek, ilabete bat berantago, arrazoin ezteus baten gatik bere izabaz khexu, mandata telegrafika baten bidez galdegin zauzkon. Bi mila bederatzi ehun lauretan hogei eta zenbait libera ukan zituen. Izaba ikusten zuela zenbait egun berantago Parisen eta harekin adixkideki solasean, oharr-arazi zaukon, eztitasun ainitzekin, igortzeaz kargatua zen bankoak egina zuen hutsa. "Baina hutsik ezta, ihardetsi zuen Villeparisis-ko Andereak, mandata telegrafikak sei libera hiruretan hogei-ta hamabortz balio ditu. - Ha! nahizkoa denaz geroz, ezin hobeki, ihardetsi zuen Charlus-ko Jaunak. Jakina ezpazinu ere errana nautzun bakarrik, zeren eta orduan, bankoak berdin egina ukan balu zurekin ni baino gutiago adixkide diren jende batzuekin, gaitzi-arazi ahalko baitzinituen. - Ez, ez, hutsik ezta. - Funtsean osoki arrazoin ukana duzu", bururatu zuen alaiki Charlus-ko Jaunak izabaren eskuari xamurki musu emanez. Alabaina, etzizakon batere aiher eta ttipikeria horren ondotik irriño egiten zuen bakarrik. Baina dembora zenbait berantago, familiako gauza batean izaba hartaz jostatu nahi izana zela sinetsirik eta haren kontra "zimarku oso bat muntatua zuela", izaba aski xoxoki haiekin haren kontra elgargo egina zuela Charlus-ek hain zuzen aieru ukana zuen diru-gizon batzuen gibelean gerizatzen baitzen, eskutitz bat igorria zaukon haserre gorriz eta ozarreriaz gainditzen zena. "Mendakatzea etzata aski izanen, gaineratzen zuen ondoko hitz bezala. Bihar berean banoa jende guziari mandata telegrafikaz mintzatzera eta mailegatuak nauzkitzun hirur mila liberetan atxikiak zinauztan sei libera hiruretan hogei-ta hamabortzez." Horren orde biharamunean izana zen Villeparisis izabari barkamendu eskatzen, erranaldi zinez itsusiak baziren eskutitz batez urrikitan. Bertzela ere nori zuen telegrafiako mezua ikasi ahalko? Mendekatzerik ez nahiz, baina baketze zintzo bat, mandata ixtorio hori, orai zuen ixilduko. Baina aitzinean denetan errana zuen, izabarekin beti ezin hobeki zen batean, gaixtakeriarik gabe, irri egin-arazteko, mihi-luzekeria bera baitzen. Errana zuen, baina Villeparisis-ko Andereak jakin gabean. Hala nola nun haren eskutitzetik ikasia ukanik desohoratu gogo zuela berari ontsa egina zuela errana zaukon gertakari bat argiratuz, Andereak uste ukana baitzuen orduan bairatua zuela eta maite zuela alegia eginez gezurrez ari zela. Hori guzia jabaldua zen, baina bietarik bakoitzak etzakien zuzen bertzeak hartaz zuen aburua. Segurki ezta hor nahasmendu artekatu doi bat berezi batzuetako gertaldi bat baizik. Bertze mota batekoak oraino ziren Bloch eta haren

adixkiden artekoak. Bertze batekoak oraino, ikusiko den bezala, Charlus-ko Jaunarenak Villeparisis-ko Andereaz osoki bertzelako jende batzuekin. Hori izana gatik orhoitu behar da batzu bertzez dugun aburuak, adixkidantzazko, familiako loturek, geldirik jeus eztutela iduripenez baizik, baina itsasoa bezain betiereko higikor direla. Hortik hoinbertze ezkontza hauste harrabots, hain beteginki batuak iduri zuten senarr-emazte batzuen artean eta gero laster berriz elgarri maiteki mintzo direnen; hainbertze itsuskeria adixkide batek hartarik ezin berexia uste ginuen adixkide bati erranak eta baketuak aurkitzen ditugunak gure ustegabetzetik itzultzeko artea ukana dugun baino lehen; hainbertze batasun aurdikitze, erresumen artean.

- Jainkoa, bero-bero da ene osabaren eta Zuan anderearen artean, erran zautan Saint-Loup-ek. Eta ama, bere lañotasunean, haien desarrañatzera jitean. Garbiendako dena garbi!

Charlus-ko Jaunari so egin naukon. Haren ile beltz-zurietako galbar ttipiak, bekaina begitako bakunak goititua zaukon begiak eta erdi-irriz ari, lili gorriekilako botoin-xiloak, bazegiten hirur-kantoineko daldarikatu eta ohargarri baten hirur punttak bezala. Enindakon agurtzera menturatua, keinurik batere ezpaitzautan egina. Bada, nahiz etzen ene aldera itzulia, segur nintzan ikusia ninduela; ixtorio zenbaiten erraiten ari zizakon batean Zuan Andereari hunen soin-gaineko handizki eder gordetxe-kolorekoa baroinaren belhaun gainerako airean zagolarik, Charlus-ko Jaunaren begi ibilkariek, poliza jin beldur dagon karrikako sal-erosle batenak bezalakoak, segurki ikhertua zuten saloineko zati bakoitza eta han ziren jende guziak ikusiak. Châtellerault-eko Jauna egunon erraitera jin zizakon jeusek agertu gabe Charlus-ko Jaunaren begitartean duke gaztea ikusia zuela hau aitzinean gertatu zizakon ordua baino lehen. Horrela zuen Charlus-ko Jaunak, hau zen bezalako bilkura doi bat jende anitzekilakoetan, atxikitzen molde abantzu jarraiki batean irriño bat alde berezi batera mugatzen etzena eta helgune berzirik gabea, heldu zirenak baino lehen hor izanez, gertatzen baitzen, haren eremuan sartzen zirenean, horiendako edozein maitagarritasun erran-nahi ukaiteaz gabetua. Hala ere Zuan Andereari egunon erraitera joan behar nuen. Baina, Marsantes-ko Anderea eta Charlus-ko Jauna ezagutzen nituenez ezpaitzakien, aski hotz izan zen, nor nintzan erraitea galda nezon beldurrez behar bada. Haren aitzinean gurtu nintzan orduan, aurkitu nuen, beso hedatuaren luzetasun guziaz hurbiltzea debekatzen zautan haren gorputzetik urrun, erhi bat, apezpiku erhaztun batez alhargundua erranen zena, iduri baitzuen eskaintzen zuela, musu emaiteko, haren leku konsakratua, eta iduri ukan nukeen zilatua nuela, baroinaren ez jakinean eta eni ogentasuna uzten zautan hesi-hauste batez, iraupenean, haren irriñoaren barreatze izengabe 'ta hutsa. Hotz horrek etzuen Zuan Anderea berearen uztera biziki sustatu.

- Zer itxura akhitua dukan eta inharrosia, erran zaukon Marsantes-ko Andereak Charlus-ko Jaunari egunon erraitera jina zen semeari.

Alabaina, Robert-en soek iduri zuten artetan barnatasun batera heltzen zirela, berehala uzten baitzuten zola hunkia duen murgilkari batek bezala. Zola hori, hunkitzen zuenean Robert-i hainbertze min egiten zaukona nun berehala uzten

baitzuen ephe bat berantago berriz hara itzultzeko, bere maitearekin hautsia zuela zen.

- Berdin da, gaineratu zuen amak, hari matela pherekatuz, bere muttikoaren ikustea goxo da.

Baina xamurtasun horrek Robert nardatzen zuela iduri baitzuen, Marsantes-ko Andereak semea ereman zuen saloinaren zolara, zeta horiz hedatu leiho-alde batean, Beauvais-ko oihalez estali jargia batzuek metatzen baitzituzten bere tapizeria ubelaranezkoak lirio gorribizi batzu urre-lorezko landa batean bezala. Zuan Anderea bakarrik gertatuz eta Saint-Loup-ekin adixkide nintzala harturik, haren ondora joan nindadin kheinu egin zautan. Ezpainuen aspaldidanik ikusia, enakien zertaz nahi zuen mintzatu. Tapizan ezarriak ziren guzien artean ene xapela enuen begietarik uzten, baina banindagon jakin-nahian norena zatekeen Guermantes-ko dukearena etzen hura eta barnean G bat zuena duke korona batekin gainetik. Ikuslier guziak nor ziren banakien eta xapela harena izan zaitekeen bakar bat enuen edireiten.

- Norpois-ko Jauna zein gustagarria den, erran naukon Zuan Andereari hura erakutsiz. Egia da Robert-ek-hastial bat dela errana dautala.

- Arrazoin du, ihardetsi zautan.

Eta haren soa bazoala gordetzen zuen zerbaitetara ikusiz, galdez hertsatu nuen. Abantzu nehor ezagutzen etzuen saloin hortan norbaitekin biziki hartua zela iduri ukaiteaz behar bada gozatua, xoko batera ereman ninduen.

- Huna seguraz Saint-Loup-eko Jaunak zer erran nahi ukana dautzun, ihardetsi zautan, baina etzaukozula errepika, mihi-luze aurkituko bainuke eta haren estimuari biziki atxikia niz, biziki "gizon zintzo" niz badakizu. Berrikitan Charlus Guermantes-ko prinzesaren etxean auhaldu da; eztakit zutaz nola mintzatu diren. Norpois-ko Jaunak erran omen dee - zozokeria da, etzaitela hortako khexu jar, nehork eztauko baliorik eman, zein ahotik erortzen zen bazakiten - lausengari erdi-izterika bat zinela.

Norpois-ko Jauna zen bezalako aitaren adixkide bat nitaz horrela mintzatu ahal izaiteak egina zautan harridura lehenago errana dut. Handiago bat oraino senditu nuen Zuan Andereaz eta Gilberte-z mintzatu nintzan lehengo egun hartako ene bihotz-hunkidura ezaguna zuela nun nintzan bazakiela uste enuen Guermantes-ko prinzesak. Gure egintza, gure elhe, gure egon-moldetako bakoitza "mundutik" baztertua da, zuzenean hautemana eztuten jendetarik, haren harkortasuna mugagabean aldatzen den eta ez ezaguna gelditzen zaukun eremu batez. Ikasi eta ikusitik jakinik hedatua izan zadin azkarki agiantzatua ginuen holako edo halako solas balioduna (hala nola lehenago Zuan Andereaz guzier noiz nahi erraiten nituen hain solas khartsuak, ustez eta hoinbertze hazi on barreatuetan bat hozituko zen) gertatu dela, ainitzetan gure gutiziaren beraren gatik, berahala gaitzuru-pean ezarria, zenbat arrazoin gehiagorekin sinestetik urrun ginen holako edo halako elhe ezteus bat, guhaurek ahatzia, edo berdin guhaurek nehoiz ez errana eta bidean elhe bertzelako baten zehardura ez beteginak moldatua, garraiatua izanen zela, haren urratsa behin ere geldi zadin gabe, mugagabeko urrutasun batzuetara - aldi hortan Guermantes-ko prinzesaren etxerano - eta gure kaltetan jainkoen aphairuen

libertitzera joan zadin! Egina dugunaz orhoitean duguna gure auzo hurbilenaz ez jakina gelditzen da; erran dugula ahatzi dugunak, edo berdin ehoiz erran eztugunak, irritaldia sortuko du bertze borobil batetarano, eta bertzek gure egintzez duten iduriak eztu guhaurek hetaz dugunarekin kopia hutsegin batek marrazki batekin baino iduri gehiago, hartan noiz marra beltz batendako huskune bat izanen baitzen, noiz zuri batendako inguru ezin argitu bat. Gerta daiteke ere kopiatua izan eztena lausengu nahiz baizik ikusten eztugun egiarik gabeko zerbait dela, eta emendatua iduritzen zaukuna aldiz gurea dela, baina hain izaite hutsez nun ezpaitugu ikusten. Hala nola nun hain guti idurikoa iduritzen zaukun iduri bitxi horrek baitu batzuetan arrai X-ez egin margazki baten egia, guti abantailgarria segurki, baina barnekoa eta baliagarria. Hortan guhauren buruaren ezagutzeko ezta hori arrazoin bat. Mirailan bere aurpegi eta soigain ederrer irriño egiteko ohidura duen batek, haien radiografia erakusten bazako, beraren iduri bat bezala markatua den hezurrezko arrosario horren aitzinean, hutsegin baten aierua ukanen du, erakustaldi batean ikusleak duen bezalakoa, andere gazte baten potretaren aitzinean, katalogan irakurtzen duenean: "kamelu lasterkaria etzanik". Geroago, guhaurek edo bertze norbaitek marrazkitua den arau gure idurian den arteka horri, ohartu behar nindakon nitaz bertze batzuendako, xoxoki bizi berek bere buruaz egin argazki andana baten erdian, inguruan iduri laztagarri batzu ihakinetan zaudelarik, haien berendako ohiki ezin ikusiak, baina baldiduran murgiltzen zituztenak halabehar batek erakusten baldin bazezteen erranez: "Zu zira".

Zenbait urte lehenago ontsa zoriondun izanen nintzan Zuan Andereari erraitean "zein gaiez" nintzan Norpois-ko Jaunarendako hain amultsu izana, "gai" hori haren beraren ezagutzeko gutizia zenaz geroz. Baina enuen hori gehiago senditzen, Gilberte enuen gehiago maite. Bertzalde, ene haurzaroko Andere arrosa-kolorezkoan enintzan Zuan Anderearen ezagutzera heltzen. Beraz mintzatu nindakon ordu hartan gogoan nuen emazteaz.

- Ikusi duzua arestian Guermantes-ko dukesa? galdegin naukon Zuan Andereari.

Baina dukesak ezpaitzuen Zuan Anderea agurtzen, hunek nahi zuen balio gabeko norbait bezala hartzen zuela eta haren han izaiteaz ohartzen ere ezten bat zela iduri ukan.

- Eztakit, eztut *errealizatu*, ihardetsi zautan aire gozagaitz batekin, angelesetik hartu hitz bat erabiliz.

Nahiko nituen alta berri batzu ukan ez bakarrik Guermantes-ko Andereaz baina hurbiltzen zizazkon jende guziez, eta Bloch-ek bezala, bere solasean ez bertzer laket izaitea baina, berekoi bezala, gogoan dituzten gauza batzuen argitzea bilazen duten jenden artezia gabearekin, Guermantes-ko Andereak zuen biziaren zuzenki itxuratzera heltzeko, Villeparisis-ko Anderea galdekatu nuen Leroi Andereaz.

- Ba, badakit, ihardetsi zuen alegiazko erdainu batekin, zur sal-erosle gotor horien alaba. Orai mundua ikusten duela badakit, baina ezagutza berrien egiteko ontsa zahartua nizala erranen dautzut. Jende hain ohargarriak ezagutu ditut, hain

maitagarriak, nun uste baitut zinez Leroi Andereak dutanaren gainera elezakeela deus eman.

Marsantes-ko Andereak, markestsaren ohorezko anderea egiten baitzuen, printzeari aitzineratu ninduen, eta etzuen bururatua Norpois-ko Jaunak ere egiten ninduenean, hitz gozo-beroenetan. Errex zizakon behar bada bere kredita jeusetan ttipitzen etzaukon ikustate baten eni egitea aitzineratu izana nintzanez geroz hain zuzen; uste zuelakotz behar bada atzerritar bat, omenekoa izanik ere, gutiago zela saloin frantsesetan jakina eta mundu handiko mutiko gazte bat aitzineratzen zizakola sinets ahal zezakeela; behar bada bere zuzenbide berezietarik baten erabiltzeko, embaxadore baten gomendioko phizuaren emaitekoa, edo, gauza zaharretako gostuaz printzearen ohoretan berbizi-arazi nahiz, Goientasun horrendako lausengari zena, Institut-era sartu nahi bazen bi aitorde behar zirelako ohidura.

Villeparisis-ko Andereak helatu zuen Norpois-ko Jauna, Leroi Anderearen ez ezagutzeaz urrikitzerik etzuela hari erran-arazteko beharra sendi baitzuen.

- Eztea hala, jaun embaxadorea, Leroi Anderea baliorik gabeko norbait dela, hemen dabiltzan guziak baino biziki beheragokoa, eta ez ekharr-araziz arrazoin ukan dutala?

Ala nor bere gain izan nahiz, ala akhiduraz, Norpois-ko Jaunari aski izan zizakon gur errespetuz bete baina erran-nahi gabeko batez ihardestea.

- Jauna, erran zaukon irriz Villeparisis-ko Andereak, jende ontsa irriegingarriak badira. Uste duzua ene eskua emazte gazte batena baino aphatu nahigo zuela sinets-arazi nahi ukan dautan jaun baten ikustaldia ukan dutala egun?

Berehala hartu nuen Legrandin zela. Norpois-ko Jaunak irriño bat egin zuen begi klixkatze arin batekin, atsegin gose hain natural batez nun sendi zuenaren aldera ezpaitzaitekeen aiher izan, edo berdin sustatzera, abantzu barkatzera prest zagon elhaberri hastapen batez ari baliz bezala, Voisenon edo Crébillon semearen arako barkakortasun gaizkira eman batekin.

- Emazte gazte ainitzen eskuak elizatezke hor ikusi dutanaren egiteko gai, erran zuen printzeak Villeparisis-ko Andereak hasi ur-margazkiak erakutsiz.

Eta galdegin zaukon erakutsi berriak izanak ziren Fantin-Latour-en loreak ikusiak zituenez.

- Lehenbiziko lerrokoak dira eta, orai dioten bezala, margolari eder batenak, paletako nagusietarik batenak, erran zuen Norpois-ko Jaunak; aurkitzen dut alta Villeparisis-ko Anderearenekin erkidatzea eztezaketela jasan, hautan hobeki ezagutzen baitut lorearen margoa.

Uste ukanez ere maitale zaharraren alderdikaritasunak, lausengatzeko ohidurak, lagunkideria batean onhartu aburuek zauzkotela embaxadore ohiari elhe horiek erran-arazten, phorogatzen zuten alta zein gostu egiazkoaren ezteusean jarria den munduko jendetan ederlanetako jujamendua, hain nola nahikoa nun jeus batek arrazoingabekeria gaitzenetara ereman-araz baitezake, hauen bidean eztuelarik geldi-arazteko egiazki hunkitzen duen sendimendurik batere aurkitzen.

- Lilien ezagutzen mereximendurik batere eztut, beti landetan bizi izana niz, ihardetsi zuen xumeki Villeparisis-ko Andereak. Baina, gaineratu zuen garaziarekin

printzeari mintzatuz, baina gazte-gaztetik ukan baldin badut baserriko bertze haurrek baino jakitate gehiago, zure erresumako gizon ontsa ikustate handiko bati zor daukot, Schlegel-go Jaunari. Broglie-en aurkitu dut ene izaba Cordeliak (Castellane-ko marexalsa) hara eremana baininduen. Biziki ontsa orhoit niz Lebrun Jaunak, Salvandy-ko Jaunak, Doudan Jaunak liliez mintza-arazten zutela. Nexka ttipi-ttipi bat nintzan, erraiten zuena enezakeen ontsa har. Baina ene josta-arazten libertitzen zen eta, zure herrira itzuli ondoan, belar-bilduma eder bat igorri zautan, karrosa idekian Val-Richer-era egina ginuen eta han haren belhaunetan lokhartu nintzan ibilaldi baten orhoitzapenez. Belar bilduma hori beti atxiki dut eta lilien berezitasun ainitzi ohartzen ikasi dauta hori gabe ezpainituen ikusiko. Barante-ko Andereak agertu dituelarik Broglie-ko Anderearen eskutitz batzu, ederrak eta dena fazoin bera zen bezala, uste ukana nuen han aurkituko nituela Schlegel-go Jaunarekilako solasaldi horietarik batzu. Baina emazte bat zen naturan erlisionearen aldeko arrazoin batzu baizik bilatzen etzituena.

Robert-ek deitu ninduen saloinaren zokora, amarekin han baitzen.

- Zein gixakoa izan hizan, erran naukon, nola esker hezaket? Bihar auhaltzen ahal gituka elgarrekin?

- Bihar, nahi baduk, bana orduan Bloch-ekin; athe aitzinean aurkitu diat; hotz ephe baten ondotik, ihardesterik gabe utzia bainitian, nahigabez, haren bi eskutitz - horrek ziala gaitzitua eztautak erran, baina hartu diat -, hainbertze amultsutasun erakutsi dik nun ezpainindaikek esker gaitzekoa izan holako adixkide baten aldera. Gu bien artean, haren aldetik bederen, biziko ala hiltzeko dela sendi diat.

Robert-ek osoki huts egiten zuela eztut uste. Gaitzerraite erotua, Bloch-en baitan, emaiten etzizakola uste zuen adixkidantza bizi baten ondorioa zen. Eta bertzen bizia guti baitzuen asmatzen, ezpaitzizakon gogoratzen norbait eri izan zaitekeela, edo bidaian, eta bertze, zortzi egunetako ixil bat iduri zizakon berehala hozkeria deliberatu batetik heldu zela. Eztut beraz nehoiz uste ukan haren bortizkeria gaixtoenak, adixkide bezala, geroago idazle bezala, ontsa barnatuak zirela. Handitasun hormatu batekin ihardesten baldin bazizaien sumintzen ziren, edo bere ukaldien errepikatzera sustatzen zuen arruntasun batekin, baina adixkidantza bero bati ainitzetan amor emaiten zuten. "Gixakoaz aldiz, jarraiki zuen Saint-Loup-ek, hiretako hala izan nizala diok, baina enuk batere gixakoa izana, izabak erran dautak hiz daukokala ihes egiten, hitz bat eztaukokala erraiten. Haren kontra zerbait eztukanez galdez dagok."

Enetako zorionez, hitz horiek bairatua izana banintz, Balbec-era gure abiatzeak, hurbil-hurbila uste nuenak, Guermantes-ko Anderearen berriz ikustera entseatzea debekatua ukanen zautan, haren kontra jeus enuela segurtatzea eta horrela hark zuela ene kontra zerbait phorogatzeko beharrean haren ezartzea. Baina Elstir-en lanen ikustera joaitea etzautala eskainia ere gogoratzea aski izan zizatan. Etzen bertzela ere nahigabe bat; enintzan batere hetaz mintzatuko zizatala beha egona; gustatzen enindakola banakien, haren ganik maitatua izaitearen itxaropenik enuela ukan behar; agiantzatu ahal nuen gehiena hau zen: zuen oneziari esker, hartaz atxik nezan, Paris utzi baino lehen berriz ikusi behar enuenaz geroz,

sendimendu bat osoki eztia, Balbec-era eremanen nuena mugagabeki luzaturik, garbi-garbia, orhoitzapen antsiaz eta trixteziaz nahasi baten orde.

Noiz nahi Marsantes-ko Anderea Robert-ekin mintzatzetik gelditzen zen eni erraiteko zein usu zizakon nitaz mintzatua, zein maite ninduen; bazuen enekin abantzu griñatzen ninduen maitagarritasun bat, egun hartan oraino ikusia etzuen seme harekin nik samur nezan beldurrak egiten zuela senditzen nuelakotz, harekin bakarrik izaiteaz ezin egonean baitzen, eta uste baitzuen beraz haren gainean zuen indarra etzela nik nuenaren heinekoa eta hau gupidetsi behar zuela. Aitzinean ni entzuna ukanik Bloch-i hunen oseba Nissim Bernard Jaunaren berrien galdatzen, Marsantes-ko Andereak jakin nahi ukan zuen Nizan bizi izana zen hura zenez.

- Orduan, Marsantes-ko Jauna han ezagutu du enekin ezkondua izan baino lehen, erran zuen. Senarrak ainitzetan aiphatu dauta gizon ezin hobe bat bezala, bihotz minbera eta onekoa.

Nahiko naukon beti Marsantes-ko Andereari erran Robert-ek bazuela harendako enetako baino ezin gehiago sendimendu, eta etsaigotik erakutsia ukan balauta ere, enintzala jitez haren kontra Robert-en artegatzea, hartarik berextea bilatuko nuen norbait. Baina Guermantes-ko Anderea joana zenaz geroztik, Robert-i beha egoitera libroago nintzan, eta orduan bakarrik nintzan ohartu halako haserre batek iduri zuela haren baitan jeikia, haren aurpegi gogortu eta ilunean doi-doia ageri. Beldur nintzan etzadin, arratsaldean gertatu zenaz orhoitzean, eni buruz aphaldua sendi bere burua maitaleaz hain gogorki tratatzera utzia ukanik, hari ihardetsi gabe.

Bapatez beso bat lepho inguruan ezarria zaukon amaren ganik urrundu zen, eta nitara jinez ereman ninduen Villeparisis-ko Anderea berriz han jarria zen mahi ttipi loreztatuaren gibelera, eta saloin ttipira jarraik nindakion kheinu egin zautan. Banindoan hara aski urrats bizian Charlus-ko Jaunak, etxetik atheratzera nindoala uste ukana baitzukeen, utzi zuelarik bapatez harekin solasean zagon Faffenheim-eko Jauna eta ene aitzinera ekharri zuen itzuli zalu bat egin. Goganbeharrekin ikusi nuen hartua zuela G bat eta duke korona bat barnean bazituen xapela. Saloin ttipiko athe-artean erran zautan eni so egin gabe:

- Mundura bazoazila badakusatanaz geroz, ikustera jiteko atsegina egitazu bada. Baina aski neke da, gaineratu zuen ohargabeko eta karkulazko itxura batekin, enekin haren ukaiteko biden aldia behin ihes egitera utzia ukanik gehiago berredirenen etzuela beldur zen atsegin batez ari izan baliz bezala. Guti niz etxean, izkiriatu behar zinautake. Sarri abiatuko niz. Nahi dituzua enekin bi urrats egin? Etzitut ephe batez baizik atxikiko.

- Behatuz ontsa eginen duzu, jauna, erran naukon. Hutseginez ikuslarietarik baten xapela hartu duzu.

- Nihauren xapelaren hartzea nahi dautazu debekatu?

Uste ukan nuen, nihauri gauza bera gertatua izanik guti lehenago, haren xapela norbaitek hartua ukanik bat hartua zuela heldu zen bezala etxera buru-has ez sartzeko eta egina zuen zimarkua agertuz eragozpenean ezartzen nuela. Enintzan beraz hisitu. Erran naukon behar nuela lehenik hitz bat Saint-Loup-i erran. "Guermantes-ko duke zozo harekin elheka ari da, gaineratu nuen. - Ha! xoragarri da

hor diozuna, anaiari erranen daukot. - Ha! uste duzu horrek Charlus-ko Jauna hunki dezakeela? (Iduri zizatan, anaia bat baldin balu, anaia hori ere Charlus deitzen zatekeela. Saint-Loup-ek emanak zauztan bada hortaz xehetasun batzu Balbec-en, baina ahatziak nituen.) - Charlus-ko Jauna nork aiphatzen dautzu? erran zautan baroinak itxura ozar batekin. Zoaz Robert-en ondora. Badakit goiz huntan barne izana zirela desohoratzen duen emazte batekin dituen atsegalekeriazko barazkarietarik batean. Behar zinuke bada haren gainen duzun eraginaz baliatu ama gaixoari eta gure izena iztilean herrestatuz guri guzier emaiten daukun bihotzminaren hari sinets-arazteko."

Ihardetsi nahiko nuen delako barazkari desohoragarrian etzela mintzatu Emerson-ez, Ibsen-ez, Tolstoï-ez baizik eta emazte gazteak Robert pheredikatua zuela urik baizik etzezan edan. Urgoitasuna zauritua zuela uste ukan nuen Robert-i balsamu baten emaiteko, haren maitalearen desenkusatzea bilatu nuen. Ordu hartan enakien, haren kontrako haserrea ukanik ere, bere buruari zela erasia egiten ari. Gizon on eta emazte gaixto baten arteko aharretan ere eta zuzena oso-osoan alde batean delarik, beti pegeseria bat gertatzen da gauza batean ogendun eztelako iduria gaixtoari eman dezokeena. Eta ezpaita bertze gauza guziez axolatzen, onak haren beharra ukan dezan ber, berexteak kuraiz gabetua ukan dezan ber, haren ahultzeak arranguran ezarriko du, eginak ukan zauzkon arrazoin gabeko erasiez orhoituko da eta arrazoin zerbait eztutenez galdez egonen.

- Lepho-gatinako ixtorio hortan ogendun izana nuk, erran zautan Robert-ek. Segurki enian xede gaixto batean egina, baina ontsa badakiat bertzeak eztirela guhauren ikuspegi berean jartzen. Biziki haurzaro gaixtoa ukan dik. Bere diruaz orotara heltzen dela uste duen aberatsa nuk bada harendako, eta beharduna haren kontra guduka eztaitekeena, Boucheron-en baitan eragin ukaiteko edo auzitegian auzi baten irabazteko. Ontsa bortitz izana duk dudarik gabe, nik haren ongia baizik ehoiz bilatua eztiatalarik. Baina ontsa ohartzen nuk, diruaz atxikitzen ahal zela sendi-arazi nahi ukan daukotala uste dik, eta eztuk egia. Hark hainbertze maite bainik, bere baitan zer erraiten dikek! Gaixo maitea hura, bahaki, halako gixakotasunak baditik, eztezakeat erran, gauza adoragarri batzu egin ditik batzuetan enetako. Nolako zorigaitzean datekeen orai! Zer nahi den, zer gerta dadin ere oies batentzat har nezan eztiat nahi, banoak lasterrez Boucheron baitara lephokoaren bila. Nork daki? hunela ari nukala ikusiz ogenak aithortuko ditik behar bada. Ikusten duk, orai oinazetan delako ideia diat ezin jasana! Guhaurek sofritzen diaguna, jakina, jeus eztuk. Baina hark, sofritzen duela neure baitan erraitea eta horren ezin itxuratzea, erotuko nizala uste diat, nahigo nikek ehoiz ez berriz ikusi oinazetan utzi baino lehen. Ni gabe zorionean izan dadila hala behar bada, galdatzen diatan guzia hori duk. Entzuk, badakik, enetako, hunkitzen dikan guzia gaitzekoa duk, mundu zabalekoa den zerbait hartzen dik; joiagilearen etxera banoak eta gero hari barkamendu eskatzera. Ni han izanen nizan arteo, nitaz zer gogatu ahalko dik? Jinen nizala balakik bederen! Zer gerta ere haren etxera joan hindaike; nok daki, guzia akomeatuko da behar bada. Behar bada, erran zuen irriño batekin, horrelako amets batean sinestera ezin menturatuz bezala, hirurak joanen gituk baserrian auhaltzera. Baina ezin jakin daitekek oraino, hain gaizki dakiat harekin

egiten; gaixo haurra, behar bada laidatuko diat oraino. Eta haren deliberoa ezin hautsia duk behar bada.

Bapatez Robert-ek bere amaren aldera ereman ninduen.

- Goraintzi, erran zaukon; joaitera bortxatua niz. Permisionez noiz itzuliko nizan eztakit, ez iduriz ilabete bat baino lehen. Jakinen dutan orduko izkiriatuko dautzut.

Eiki Robert etzen batere, munduan bere amarekin direlarik, arrotzer igortzen dezteeten irriño eta agurrer haren alderako egonara sumindu batek kontra-phizu egin behar dauela uste duten seme hetarik. Zeremoniako jantzia alabaina osatzen duela iduriz uste dutenen bere familiakoen alderako oieskeria hori baino hedatuagorik ezer ezta. Gaixo amak zer ere erran dezan, semeak, berak nahi ukan gabe eremana izana baliz eta hor izaitea khario ordaindu nahi balu bezala, berehala kontra-egiten dauko, kontra-erran irkaitzezko, zorrotz, abre batez, herabeki menturatua den hitzari; ama berehala emaiten da, hura hortako ezti-arazi gabe, izaite goren eta hor eztenean bakoitzari jite ezin goxoagoko bat bezala goraiphatzen jarraikiko duen, eta bizkitartean bere atheraldi zorrotzenetarik batez gupidesten eztuen horren aburuari. Saint-Loup osoki bertzelakoa zen, baina Rachel-en hor ez izaiteak sortzen zuen antsiak egiten zuen, bertze arrazoin batzuen gatik, etzela bere amarekin horiek berearekin diren baino gutiago gogor. Eta erran zituen hitzetan ikusi nuen, semearen jitean Marsantes-ko Andereak ezin atxikia zuen pilpira berak, hegal batena bezalakoak, oso-osoa hartzen zuela; baina begitarte antsiadun bat, begi lastimatu batzu zituen orai haren gana itzultzen.

- Nola Robert, bahoa? serioski? ene haurñoa, ukaiten ahal hindutan egun bakarrean!

Eta abantzu ahapetik, doinu lañoenean, trixtezia ororen baztertzera indar egiten zuen mintzo batekin semeari ez eman nahiz harendako behar bada bortitz izanen zen, edo debaldekoa edo sumintzera ekharriko zuen urriki bat, zentzu on xoileko arrazoinaldi bezala gaineratu zuen:

- Badakik eztuk hor egiten dukana gixakoa.

Baina lañotasun horri bazemon hainbertze herabe haren libertatea etzuela hausten erakusteko, hainbertze xamurtasuan atseginak trabatzen zauzkola erasia etzezan, nun Saint-Loup ezpaitzen bere baitan guritze bat izan zaitekeela ohartu gabe izan ahal, erran nahi da bere maitearekin arratsaldiaren iragaiteko traba bat. Haserretu zen beraz:

- Urrikalgarri da, baina gixako ala ez, hola da.

Eta egin zauzkon amari berak merexi zituela sendi zukeen erasiak; horrela dute berekoiek azken hitza beti bere; hastetik jarririk bere deliberoa ezin aldatua dutela, gehiago da haien baitan dei egiten zakon sendimendua hunkigarria, are gehiago dituzte kondenagarri aurkitzen, ez horri ihardokitzen dutenak, baina ihardokitzeko beharrean ezartzen dituztenak, hala nola nun berek duten gogortasuna abretasun bortitzenerano joan baitaiteke, horrek haien begietan eztuelarik handitzen baizik sofritzeko, arrazoin ukaiteko, eta haier hoin beldurtuki bere urrikiari kontra egiteko oinazearen emaiteko aski ausarta den jendearen

ogenduntasuna. Bertzela ere hisitzetik Marsantes-ko Anderea berainik gelditu zen, sendi baitzuen etzuela egon-araziko.

- Uzten haut, erran zautan Robert-ek, baina, ama, etzazula luzaz atxik sarri ikustaldi baten egitera joan behar baitu.

Sendi nuen bada ene hor izaiteak etzezakokeela atseginik batere eman Marsantes-ko Andereari, baina nahiago nuen, Robert-ekin ez abiatuz, hartaz gabetzen zuen atseginetan barne nintzala sinets etzezan. Desenkusa zenbait aurkitu nahiko naukon haren semearen eginarari, hunendako atxikimenduz harendako urrikiz baino gutiago. Baina hura zen lehenik mintzatu:

- Gaixo haurra, erran zautan, bihotzmin emaiten daukotala segur niz. Badakusazu, jauna, amak biziki berekoiak dira; eztu hainbertze atsegin alta, Parisera hain guti jiten denaz geroz. Jainkoa, oraino joana ezpaliz, berriz hatzeman nahiko nuen, ez segurki hemen atxikitzeko, baina gaitzitua enizala erraiteko, arrazoin duela. Mailaldera behatzen badut etzira nahigabetzen?

Eta harano joan ginen:

- Robert! Robert! oihu egin zuen. Ez, joana da, berantegi da.

Orai bere maitalearekin Robert-en hauts-arazteko kargua hartuko nuen zuela zenbait oren harekin osoki bizitzera joan-araztekoa bezain gogotik. Aldi batean Saint-Loup-ek adixkide trahitzale jujatuko ninduen, bertzean haren familiak jeinu gaixto deituko. Oren zenbait urrunago gizon bera nintzan alta.

Saloinean sartu ginen. Saint-Loup sartzen ez ikusiz, Villeparisis-ko Andereak eta Norpois-ko Jaunak eman zuten elgarri, bertzer komedia hori emaiten duen ezkontide bekaiztiegi edo ama xamurregi baten erakustean ukaiten den so dudazko, trufari eta urriki handirik gabeko hura, erran nahi baitu: "Ori, ekaitza izana dateke."

Robert bere maitalearen etxera joan zen hari ekharriz, hitzartua zutenaren arabera, eman behar etzaukon joia ezin ederragoa. Baina hala ere berdin izan zen, ezpaitzuen nahi ukan, eta gero ere, nehoiz etzizakon onhar-araztera heldu. Robert-en adixkide batzuek uste zuten andereak emaiten zituen abantail nahigabezko lekukotasun horiek berari haren eratxikitzeko karkula bat zirela. Etzen bizkitartean diruari atxikia, behar bada khondatu gabe xahutzeko ezpada. Ikusi dut, beharrean uste zituen jende batzuer, nolanahika zentzurik gabeko garitate batzuen egiten. "Orai berean, zioten Robert-i bere adixkidek Rachel-en abantail nahigabeko egintza bati kontra-phizu egiteko, Folies-Bergère-etako ibilgunean dateke. Rachel hori, egiazko mixterioa da, ezin zilatua." Bertzela zenbat emazte abantailnahi, ordainduak direnaz geroz, ezta ikusten, bizi horren erdian loratzen den gixakotasun batekin, bere maitalearen eskuzabaltasunari berek mila muga ttipi emaiten!

Robert-ek bere maitalearen trahitze gehienak etzazkien eta izpiritua alha zuen Rachel-en egiazko biziaren ondoan ezteus batzu baizik etziren gauza batzuetan, bizi hori ezpaitzen egun oroz hark utzi berria zuenean baizik hasten. Trahitze horietako abantzu guzia etzuen ezagutzen. Ikasi ahalko zizazkon Rachel-en baitan zuen konfienxia khordokatu gabe; naturalezako lege xoragarri bat baita gizarte batzunenen erdian agertzen, maite denaren alderako jakingabe osoan bizitzen dela. Alde batetik gizon maitaleak dio: "Aingeru bat da, ezta nehoiz eni emanen, hiltzea

baizik etzata gehiago gelditzen, bizkitartean maite nau; hainbertze maite, nun behar bada… baina ez ezin egina izanen da!" Eta bere gutiziaren goititzean, haren igurikatzeko antsian, zenbat joia duen emazte horren oinetan ezartzen, nola doan diru mailegatzera hari arrangura baten baztertzeko! bitartean, ibilkari batzuen arteko solasak urtegi baten aitzinean baino gehiago solas horiek hartan gaindi iraganen eztiren berinazko artesiaren bertze aldean, jendeak dio: "Eztuzu andere bori ezagutzen? komplimendu egiten dautzut, nik dakita zenbat jende ebatsia du, hondatua. Ohoin hutsa da. Eta maltzurra!" Badateke azken hitz hori eztela osoki hutsezkoa, ezen emazte hortaz zinez amoratua ezten eta bakarrik gustatzen zakon gizon dudakorrak ere, bere adixkider erraiten baitaue: "Baina ez, adixkidea, ezta batere emazte arin bat; bizian bizpahirur burutaldi eztituela ukan eztut erraiten, baina ezta ordaintzen den emaztea, edo kharioegi lizateke. Harekin berrogoi-ta hamar mila libera da edo jeus ez." Gizon horrek, bada, berrogei-ta hamar libera xahutu ditu harekin, ukan du aldi batez, baina emazteak, hortako laguntzale bat aurkitzen zuela haren baitan, bere alderako amodioan, jeusendako ukana zutenetarik zela hari sinets-arazten jakin du. Horrela gizartean, argikienik ezaguna den norbait, omen gaixtoenekoa, ezta nehoiz bertze baten ganik jitezko arrarotasun ezti ezin goxoago baten zolan eta gerizan baizik ezaguna izanen. Parisen baziren Saint-Loup-ek agurtzen etzituen bi gizon zuzen eta behin ere aiphatzen etzituenak mintzoa daldaran hasi gabe, emaztez baliatzaleak izendatu gabe: Rachel-ek hondatuak baitzituen.

- Eztut neure burua gauza batez baizik erasiatzen, erran zautan aphal-aphala Marsantes-ko Andereak: gixakoa etzela errana ukanik. Hura seme hain maitagarria, bakarra, bertzerik ezten bezalakoa, ikusten dutan aldi bakarrean, etzela gixakoa errana ukaitea, makil-ukaldi bat hartua nahiago nuke, segur bainiz, gaur zer atsegin ukan dezan ere, ezpaitu hainbertze ukaiten, elhe zuzengabeko horrek andeatua ukanen daukola. Baina, Jauna, etzitut atxikitzen, presatua zirenaz geroz.

Marsantes-ko Andereak errana zautan guzia Robert-ez zen. Zintzotasunezkoa zen. Baina zintzo izaitetik gelditu zen berriz andere handi bilakatzeko:

- Zurekin mintzatzeaz *hunkia* izana niz, *zorionean, lausengatua.* Eskermila! Eskermila!

Eta itxura xume batekin bazatxizkan nitan so eskerroneko, xoratu batzu, enekin solastatzea nehoiz bizian ezagunak zituen atsegin handienetarik bat izana baliz bezala. Behako xoragarri horiek biziki ontsa zoazen haren zaia xuriko aldaxkadura beltxekin; bere ofizioa badakien emazte handi batenak ziren.

- Enindaike berehala abia, Charlus-ko Jauna igurikatu behar dut harekin joan behar baitut.

Villeparisis-ko Andereak azken hitz horiek entzun zituen. Nahigabetua zela iduritu zizatan. Mota hortako sendimendu bat hunki etzezakeen gauza batez izana ezpaliz, idurituko zizatan orduan Villeparisis-ko Anderearen baitan asalduran iduri zuena herabea zela. Baina ideia hori etzizatan gogoratu ere. Askietsia nintzan Guermantes-ko Andereaz, Saint-Loup-ez, Marsantes-ko Andereaz, Charlus-ko Jaunaz, Villeparisis-ko Andereaz, eta nolanahika mintzo nintzan alaiki.

- Ene iloba Palamède-rekin joan behar duzu? erran zautan.

Ustez eta horrek sendimendu biziki abantailgarri bat eman-araz zezakeela Villeparisis-ko Anderearen baitan, hainbat estimatzen zuen ilobarekin adixkidantzan izaiteaz: "Harekin itzul nadin galdegina dauta, ihardetsi naukon bozkariorekin. Loriatua niz. Bertzela ere uste duzun baino gehiago adixkide gira, Anderea, orotan gehiago hala izan gaiten deliberatua niz."

Nahigabetua izaitetik, Villeparisis-ko Andereak arranguratua bilakatua iduritu zuen: "Etzazula igurika, erran zautan itxura griñatu batekin, Faffenheim-eko Jaunarekin solasean da. Erran dautzuna eztu jadanik gehiago gogoan. Oizu, abia zaite, bizkarra itzulia duenaz balia zaite lasterrez."

Neure aldetik, Robert eta haren maitalearen aurkitzera joaiteko enintzan biziki lehiatua. Baina Villeparisis-ko Andereak hain zuela joan nindadin nahi iduri zuen nun, ustez eta egiteko handi batzuez behar zuela bera ilobarekin mintzatu, goraintzi erran bainaukon. Haren ondoan Guermantes-ko Jauna, olimpiar eta handizki eder, phizuki jarria zagon. Erranen zen soinadar guzietan hor zuen bere aberastasun guzien ezagutzak, giza-barra bakar bateko erre-untzian urtuak izan balire bezala, hain khario balio zuen gizon horri emaiten zaukola ohigabeko betetasun bat. Goraintzi erran naukonean bere alkitik jendeki zutitu zen eta senditu nuen hogei-ta hamar miliunen meta geldi tinkia ikustate frantzes zaharrak higi-arazten zuela, alzatzen, eta ene aitzinean zutik zagola. Iduri zizatan banakusala Jupiter Olympiarraren gizaiduri hura Phidias-ek, diote, urre hutsez egin zuena. Halakoa zen Jesuisten erakaskuntzak Guermantes-ko Jaunaren baitan, haren soinean bederen, ukana zuen indarra, ezpaitzen hoin beteki nagusi dukearen gogoan. Guermantes-ko Jaunak bere hitz onez irri egiten zuen, baina bertzerenez ez irriño bat ere.

Mailaldean, mintzo bat entzun nuen gibeletik eni hel egiten:

- Horra nola nauzun igurikatzen, Jauna.

Charlus-ko Jauna zen.

- Oinez urrats batzuen egitea berdin zaizu? erran zautan idorki, korroilan izan ginenean. Egoki izanen zatan aloka-karrosa bat aurkitua ukanen dutan arteo ibiliko gira.

- Mintzatu nahi ninduzun, Jauna?

- Ha! horra, alabaina, gauzu batzu banituen zuri erraiteko, baina eginen dutanez sobera eztakit. Uste dut eiki zuretako abantail ezin estimatu batzuen hastapena izan laitezkeela. Baina ohartzen niz ere ekhar lezaketela ene bizian, soseguan izaiteari atxikia izaiten hasten den adin batean, ainitz dembora galtze, mota orotako desarrañamendu ainitz; galdez nago, bada, buru-hauste hori guzia zuretako ukan dezatan balio duzunez, eta hortaz delibero hartzeko zure ezagutzeko atsegina eztut aski. Ontsa bierartekoa aurkitu zitut Balbec-en, "mainari" izaitetik eta "espartinak" deritzotenen erabiltzetik ezin berexia den zozokeriari doakona gogoan ukanik ere. Bertzela ere zuretako egin nezakeenarendako eztuzu behar bada gutizia aski handia zuretako hoinbertze enhegu ukan dezantzat, zeren zintzoki erraiten dautzut, Jauna, ezin izan daitezke enetako, errepikatu zuen hitzak indarrekin neurkatuz, enheguak baizik.

Goraki erran nuen etzela orduan holakorik asmatu behar. Solasketen hauste hori etzizakon gostukoa iduritu.

- Jendetasun horrek jeus eztu erran nahi, erran zautan doinu idor batean. Balio duen norbaitendako enhegu hartzea baino gozagarriagorik jeus ezta. Gutarik hoberenendako, ederlanen ikastea, zaharkietako gostua, gauza bildumak, baratzeak eztira "Ersatz" batzu baizik, ordezko gauza batzu, estakuru batzu. Gure barrikaren zolan, Diogenek bezala, gizon bat dugu gadegiten. Begoniak jin-arazten ditugu, aginak epaiten, hobeki ezinez, aginek eta begoniek lantzea onhartzen baitute. Baina gure astia nahiago ginuke giza-zuhaxka bati eman, balio duela segur bagine. Guzia hortan da; zure burua doia bat ezagutzen dukezu. Balio duzua ala ez?

- Munduan jeusendako enuke nahi, Jauna, zuri arrangura emaiteko arrazoin bat izan, erran naukon, baina ene atseginari doakonaz, jakizu bada zureganik jinen den guziak biziki handi bat emanen dautala. Barnatuki hunkia niz nitaz axolatua izan zaiten eta enetako baliagarri izaitea bila dezazun.

Ene ustegabetze handian abantzu ixuri batekin ninduen elhe horietaz eskertu. Besoa enearen azpian emanez jadanik Balbec-en ohartua nindakon etxekotasun artekatu harekin eta doinuko idortasunari kontra-egiten zuenarekin:

- Zure adineko buru-arinkeriarekin, erran zautan, batzuetan ukan zinezazke gure artean leze baten zilatzeko gai lizatezkeen elhe batzu. Orai erranak dituzunak aldiz ene hunkitzeko gai den motakoak dira eta zuretako ainitz egitera, gehiegi behar bada, ereman nezaketenekoak.

Enekin besoz-beso zabilan batean eta eni elhe hain amultsu horiek, nahiz erdainuz nahasirik, erraiten zauztan batean, Charlus-ko Jaunak bere soak batzuetan itzatzen zituen ene begitartean Balbec-eko kazino aitzinean ikusia nuen lehenbiziko goizean joa ninduten gelditasun bizi eta gogortasun zorrotzarekin, eta ere urteak eta urteak lehenago, elhorri arrosa-kolorekoaren ondoan, orduan haren ohaide zela uste nuen Zuan Anderearen sahetsean, Tansonville-ko parkean; batzuetan bere inguruan ibil-arazten eta ikhertzen aldizkatzeko ordu hortan aski ainitzak iragaiten ziren aloka-karrosak, hainbat hisirekin nun batzu gelditu baitziren, karrosazainak hartu nahi zela uste ukanik. Baina Charlus-ko Jaunak berehala igortzen zituen.

- Bat ezta ene gostukoa, erran zautan, hori guzia gauargietako, sartzen diren auzoko gauza da. Nahi nuke, Jauna, eginen dautzutan eskaintzaren berezitasun osoki abantailnahi gabe eta garitatezkoan huts egin eztezazun.

Ohartzen nintzan zenbat aldetarik haren erranara, Balbec-en ere baino gehiago, Zuanenaren idurikoa zen.

- Aski adimendu baduzu, uste dut, eztela "ezagutzen eskasak", bakartasunaren eta enheguaren beldurrak eman-arazia sinesteko. Eztautzut ene familiaren aiphatze beharrik, uste baitut zure adinean burjesia ttipikoa (hitz hori sartifemendurekin azkartu zuen) den mutiko batek badakiela Frantziako ixtorioa. Ene munduko jendeak dira jeus irakurtzen eztutenak eta lakaio baten jakingabean daudenak. Behin Erregeren gambarako mutilak jaun handietan hautatuak ziren, orai jaun handiak eztira gambara mutil batzu baino gehiago. Baina zu bezalako burjes gaztek irakurtzen dute, segurki ezagutzen duzu ene familiakoez Michelet-en orrialde ederra: "Ontsa handiak ikusten ditut, Guermantes boteredun hek. Eta haien

ondoan zer da Frantziako errege ttipi gaixoa Parisen bera erretegian hetsia?" Nihaur zer nizan aldiz, mintzatzea maite eztutan gai bat da, baina azkenik, jakin duzu behar bada, *Times*-ko artikulu aski ozen batek aiphatua du: Austriako emperadoreak, beti bere onginahiaz ohoratu bainau eta onhartzen baitu enekin gusigoko atxikimendu batzuen begiratzea, erran du berrikitan agertua den sosalsaldi batean Chambord-eko konde Jaunak ondoan ukan balu politika europatarreko segeretuak nik bezain errotik ezagutzen dituen gizon bat, gaurregun Frantziako errege lizatekeela. Ainitzetan gogoan ukan dut, Jauna, bazela nitan, ez ene dohain ahulen gatik, baina egun batez behar bada jakinen dituzun gertaldi batzuen gatik, ikasi bat balio handikoa, halako bilduma segeretuzko ezin estimatu bat, nihaurendako erabili behar nuela uste ukan eztutana, baina preziorik elukeena biltzen hogei-ta hamar urte baino gehiago eman dutan eta behar bada jabe bakarra nizan hori ilabete zenbaitez emanen naukon gizon gazte batendako. Eniz mintzo Guizot batek gaurregun haien ezagutzeko biziko urteak eman lezazkeen eta haieri esker gertaldi batzuek haren begietan itxura osoki bertzelako bat har lezaketeen segeretu batzuen jakitean ukan zinezazkeen adimeneko gozaldiez. Eta eniz ari bakarrik bururatu diren gertakariez, baina gertaldien gatinaduraz (Charlus-ko Jaunaren itzuli hautatuenetarik bat zen eta ainitzetan, erraiten zuenean, bi eskuak elgarretaratzen zituen othoitzean egiten den bezala, baina erhiak zut, horrela xeheki emaiten etzituen gertaldi eta hauen gatinaduraren gogoan harr-arazteko bezala). Argipen bat emanen dautzut ezaguna eztena ez bakarrik iraganean, baina ethorkizunean ere.

Charlus-ko Jauna gelditu zen Bloch-ez eni galde batzuen egiteko, entzuten zuela iduri ukan gabe Villeparisis-ko Anderearen etxean hartaz mintzatuak baitziren. Eta erraiten zuenetik berexten hain ongi bazakien doinu harekin nun iduri baitzuen osoki bertze zerbait zuela gogoan eta ikustate xoilez ohartu gabean mintzo zela, galdegin zautan ene laguna gaztea zenez, ederra, eta bertze. Bloch-ek, entzuna ukan balu, Norpois Jaunarendako baino ere gehiago neke ukanen zuen, baina arrazoin osoki bertzelako batzuen gatik, Charlus-ko Jauna Dreyfus-en alde ala kontra zen jakiteko. "Eztuzu hutsik egiten, ikasia izan nahi baldin baduzu, erran zautan Charlus-ko Jaunak Bloch-ez galde horiek egin ondoan, zure adixkidetan atzerritar batzuen ukaitean." Ihardetsi nuen Bloch Frantzesa zela. "Ha! erran zuen Charlus-ko Jaunak, uste ukana nuen Judua zela." Judu eta Frantzes izaitea ezin akomeagarri zela erraite horrek sinets-arazi zautan Charlus-ko Jauna aurkituak nituen jendetarik edozein baino Dreyfus-en kontrakoagoa zela. Aldiz Dreyfus-en kontra emana zen tradimenduzko ogenaren kontra iharduki zuen goraki. Baina molde huntan izan zen: "Uste dut egunkariek diotela Dreyfus-ek bere herriaren kontrako gaizki bat egina duela, uste dut hori dela erraiten, eniz egunkariez batere axolatzen; irakurtzen ditut eskuak ikuzten bezala, horrek gogoa har dezatan balio duela aurkitu gabe. Zer nahi den gazkiak izaiterik eztu, zure adixkidearen herritar horrek bere herriaren kontrako gaizki bat egina ukanen zuen Judea traditu balu, baina zer ikusteko du Frantziarekin?" Kontra ihardetsi nuen, sekula gerla bat baliz, Juduak bertzeak bezain ontsa armadara deituak izanen zirela. "Behar bada, eta eztela zuhurtasunik gabean ezta segur. Baina Senegaldarrak edo Malgaxak jin-arazten badira, Frantziaren zaintzen bihotz handirik ukanen dutela estut uste, eta

ontsa natural da. Zure Dreyfus kondenatua izan laiteke izaitekotz ostatu emaiteko legeak hautsiak ukanik. Baina utz dezagun hori. Galdegin zinezoke behar bada zure adixkideari Temploko judu besta eder zenbaitetan izan-araz nindezan, ebakitze batean, judu kantu batzuetan. Sala bat aloka lezake behar bada eta eni libertimendu biblika zenbait eman, Saint-Cyr-ko nexkatoek Racine-ren *Psaumes*-etarik hartu agerraldi batzu jokatu zituzten bezala Luis XIV-garrenaren libertitzeko. Hori antola zinezake behar bada, irri egin-arazteko ikuskarri batzu egin ere; behazunez, zure adixkidearen eta haren aitaren arteko gudu bat hartan zaurituko zuena David-ek Goliath bezala. Horrek trufa-joko aski gozagarri bat balegike. Egitekotz, jo lezake jo ahala bera ama zirtzila, edo ene neskato zaharrak erranen zuen bezala, bere ama *caroña*. Horra biziki ontsa egina lizatekeena eta elguri ez gustatzeko elizatekeena, he! adixkideñoa, leku urrunetako ikuskarriak maite ditugunaz geroz eta Europaz kampoko izaite horren joitea, kamelu zahar bati zurraldi merezitu baten emaitea lizatekeenaz geroz." Hitz laztagarri eta abantzu ero horien erraitean, Charlus-ko Jaunak besoa tinkatzen zautan min egiterano. Charlus-ko Jaunaren familiaz orhoitzen nintzan baroinaren aldetik miragarriko onezia bateko hainbertze egintzen aiphatzen, haren erdara molieretarra orhoit-arazi berria zuen sehi zahar horren aldera, eta banion neure baitan orai arteo, ene ustez, guti ikhertuak ziren oneziaren eta gaixtakeriaren arteko loturak bihotz ber batean, nahi den aldakorrak izanik ere, agerian ezartzeko ohargarri lizatezkeela.

Jakin-arazi naukon hasteko Bloch Anderea etzela bizi, eta Bloch Jaunaz aldiz galdez nindagola zertarano zen gustatuko begiak ireizten ahal zauzkon joko batean. Charlus-ko Jaunak gaitzitua iduritu zuen. "Horra hiltzean ogen handia ukan duen emazte bat. Begi ireiziez aldiz, Zinagoga itsua da hain zuen, eztitu Ebanjelioetako egiak ikusten. Zer nahi den, gogoari emazu, zorigaitzeko judu horiek guziak ikharan daudelarik girixtinoen eroaldi zozoaren aitzinean, zer ohorea haiendako ni bezalako gizon baten ikustean haien jokoetan jostatzera jaustearen onhartzen!" Ordu hartan Bloch-en aita Jaunari ohartu nindakon iragaiten ari, agian semearen aitzinera joanki. Ezkinituen ikusten, baina Charlus-ko Jaunari eskaini naukon hari aitzineratzea. Ene lagunaren baitan jauz-araziko nuen haserrea enuen asmatzen: "Eni aitzineratu! Baina balioa duenaren sendimendua ontsa guti ukan behar duzu! Eniz hoin errexki ezagutzen. Oraiko aldian behargabekeria bikuna lizateke aitzinatzalearen gaztetasunaren gatik eta aitzineratuaren ohore eskasaren gatik. Gehien-gehienik, abiatzen nuen ikuskarri asiarra emaiten bazata egun batez, gizon ezin itsusiago horri erran nezozke gozotasunezko elhe batzu. Baina bere burua semeaz nasaiki zafratzera utzia ukaitekotan. Ene askiespenaren erraiterano banindoake."

Bertzela ere Bloch Jauna etzen batere guri ohartzen.. Ari zen Sazerat Andereari gur handi batzuen igortzen hark biziki ontsa hartzen zituenak. Ustegabetua nintzan, ezen lehenago, Combray-n, sumindurik izana baitzen ene aitamek Bloch onhartua ukanik, hain zen juduen etsaia. Baina Dreyfus-en alderdikaritasunak, haize ufa batek bezala, hartarano helgalda-arazia zuen Bloch Jauna. Ene adixkidearen aitak Sazerat Anderea xoragarria aurkitua zuen eta andere horrek zuen juduen etsaitasunez bereziki lausengatua zen, haren sinestearen zintzotasuneko phorogua baitzizakon eta bere aburu dreyfustiarren egiarena, balio

bat bazemona ere egin zezon onhartua zuen ikustaldiari. Etzen ere gaitziturik izana andereak haren aitzinean xoroki errana ukanik: "Drumont Jaunak badu nahikaria auzi berritzearen aldeko direnenen ezartzeko protestanten eta juduen zaku berean. Nahas-mahas xoragarria hori!" "Bernard, errana zaukon sartzean Nissim Bernard Jaunari urgulurekin, badakik, juduen kontrako aitzin-gogoan duk." Baina Nissim Bernard Jaunak etzuen ihardetsi eta zerura goititu zuen aingeru behako bat. Juduen zorigaitzaz trixtatuz, girixtinoekilako adixkidantzez orhoituz, dena fazoin eta prezios bilakatuz urteak heldu ziren arau, berantago ikusiko diren arrazoin batzuen gatik, bazuen orai hartan ile batzu, opala bateko izpiak bezala, zikinki landatuak ziren arima herratu "prerafaelita" baten itxura.

- Dreyfus afera horrek guziak, egin zuen berriz beti ene besoa bazatxikan baroinak, behargabe bat baizik eztu: gizartea hondatzen duela (eztiot gizarte ona, badu aspaldi gizarteak eztuela izen hori merexi) Kameluko, Kameleriako, Kamelutegiko jaun eta anderen ixurpenaz, azkenik ene andere gusien etxean ere edireiten ditutan jende ez ezagun batzuez Aberri Frantzeseko elgargoan barne direlakotz, juduen kontrako, nik dakita zer, politikako aburu batek gizarteko gaitasun emaiten balu bezala.

Charlus-ko Jaunaren arinkeria horrek Guermantes-ko Anderearen egite gehiago emaiten zaukon. Hurbiltze hori azpimarratu naukon. Dukesa enuela ezagutzen uste zuela iduri baitzuen, ni ganik gorde nahi zuela iduri ukana zuen Operako arratsaldi hartaz orhoit-arazi nuen. Hainbat indarrekin erran zautan eninduela ikusia nun azkenean sinetsiko bainuen, gertakari ttipi batek gogora emana ukan ezpalaut Charlus-ko Jaunak, gehiegi urguluduna behar bada, enekin ikusia izaitea etzuela maite.

- Zutara itzul gaiten, erran zautan, eta zuretzat ditutan xedetera. Badira gizon batzu, Jauna, hartaz mintza enindaikezun framazoneria bat, baina ordu huntan Europako laur errege bere lerroetan barne dituenak. Hetarik baten ingurukoek bada, Alemaniako Emperadorea baita, nahi dute bere ametsetik sendatu. Hori gauza larria da eta gerla ekharr-arazten ahal dauku. Xinako prinzesa botoila batean zadukala uste zuen gizon haren ixtorioa ezagutzen duzu. Erokeria bat zen. Sendatu zuten. Baina eroa izan etzen ordu berean, zozo bilakatu zen. Badira hetarik sendatzea bilatu behar ezten gaitz batzu hek bakarrik baikituzte larriago batzuetarik gerizatzen. Ene gusietaik batek bazuen urdaileko eritasun bat, jeus etzezakeen liseri. Urdaileko jakintsun handienek arthatu zuten ondorio onik gabe. Mediku berezi baten gana ereman nuen (jende bat aski bitxia, artetik erraiteko, eta hartaz erraiteko ainitz balizatekeena). Hunek berehala asmatu zuen eritasuna zainetakoa zela, eriari sinets-arazi zaukon, beldurrik gabe nahi zuena jan zezan manatu, beti ontsa jasana izan zena. Baina ene gusiak bazuen ere giltzurrinetakoa. Urdailak osoki liseritu zuena, giltzurrinak azkenean etzuen hustu ahal ukan, eta ene gusia, zahar bizitzeko orde osabide bati jarraikitzera bortxatzen zuen urdaileko eritasun asmuzko batekin, berrogei urtetan hil zen, urdaila sendaturik baina giltzurrina galdurik. Gaitzeko aitzinamendu bat baituzu zure bizian, nork daki, izanen zira behar bada iraganeko gizon goren bat izan ahalko zen hura, jeinu ongi-egile batek ezagun-arazi baldin balauzko, ezagutzen etzituzten gizon guzien erdian, lanhoaren eta eletrikaren

legeak. Etzaitela hoin zozoa izan, begiratasunez eza etzazula eman. Gogoan harrazu zerbitzu handi bat egiten baldin badautzut, eztutala uste eztautazula zuk gutiago handi bat eginen. Aspaldi du munduko jendeak enetako gogo eratxikitzetik geldituak direla, eztut gehiago gutizia bizi bat baizik, ene biziko hutsen ordaintzearen bilatzea, dakitanaz arima oraino garbi eta bertuteaz suhartua izaiteko gai den bati abantail emaitea. Bihotzmin handiak ukanak ditut, Jauna, eta egun batez erranen dautzut behar bada, emaztea galdua dut jendetan asma daitekeen ederrena, noblena, beteginena baitzen. Ahaide gazte batzu baditut ezpaitira aiphatzen dautzutan ondore moralekoaren ukaiteko, eztut erranen gai, baina heinekoak. Nork daki haren eskuetara joan daitekeena etzirenez zu, bizia gida eta hain gora ereman nezokeen hura? Eneak ere irabaz lezake gainera. Behar bada zuri diplomaziako egiteko handiak ikasiz, hartan berriz neure baitarik gostu har nezake eta has nindaike azkenean zu hetan erdi zinatekeen gauza baliagarri batzuetan. Baina hori jakin baino lehen, ikusi behar zinduket, ainitz-ainitz, egun oroz.

Charlus-ko Jaunak erakusten zituen ustegabeko gogo sutsu horietaz baliatu nahi nuen bere koinata anderea aurki-arazten ahal etzautanez galdegiteko, baina, ordu hartan, besoa bortizki baztertua izan zizatan eletrikakoa bezalako inharroste batez. Charlus-ko Jaunak zuen, zekunda batzu lehenago oraino haien "azti goiargitua" zen "mundu guziko" leger kontra egitera jina zen arrazoin zenbaiten gatik, tarrapatan besoa enearen azpitik ekhendua. Nahiz, mintzo zen batean, soak alde guzietara ibiltzen zituen, orduan zuen bakarrik ikusia Argencourt-eko Jauna bazterreko karrika batetik jalgitzen. Gure ikustean, Belgikako minixtroak nahigabetua iduritu zuen, mesfidanzazko behako bat igorri zautan, abantzu Bloch-endako Guermantes-ko Andereak ukana zuen behako bertze arraza bateko norbaiti desteinatu hura, eta gutarik bazterrera egitera entseatu zen. Baina erranen zen Charlus-ko Jauna atxikia zela harekin ez ikusia izaitea etzuela batere bilatzen erakustera, helatu baitzuen eta gauza biziki baliogabe baten erraiteko. Eta Argencourt-eko Jaunak ezagun enezan beldurrez behar bada, Charlus-ko Jaunak erran zaukon Villeparisis-ko Anderearen, Guermantes-ko dukesaren, Robert Saint-Loup-ekoaren adixkide handi bat nintzala, bera, Charlus, ene amatxiren adixkide zahar bat, harendako zuen adixkidantzatik apur bat semabitxiari emaiteaz zorionean. Ohartu nintzan hala ere Argencourt-eko Jauna, hari doi-doia izendatua izana nintzalarik alta Villeparisis-ko Anderearen etxean eta Charlus-ko Jauna luzaz ene familiaz mintzatu berria zizakolarik, oren bat aitzinean baino hotzagoa izan zela enekin, eta ordutik, biziki luzaz berdin izan zen aurkitzen ninduen aldi oroz. Arrats hartan beha egon zizatan gustagarrik ezer etzuen jakin-nahi batekin eta iduritu zuen ere ihardokimendu bizi bat menperatu behar zuela, elgar uztean, duda-muda baten ondotik, luzatu zautanean berehala gibeleratu zuen esku bat.

- Ordugabe hortaz urriki dut, erran zautan Charlus-ko Jaunak. Argencourt, ontsa jaioa baina gaizki ikasia, diplomata bierartekoaz azpikoa, senar hastiagarria eta andrekaria, komedia batean bezain zimarkuna, gauza zinez handien gogoan hartzeko ahalik gabea baina hondatzeko biziki ahalduna. Gure adixkidantza hala izanen delako itxaropena dut, egun batez jarri behar baldin badu, eta eginen dautazula asto horietarik baten ostikoetarik nik bezainbat atherbean horren

atxikitzeko ohorea, horiek auherkeriaz, errebeskeriaz edo gaixtakeriaz, irauteko egina zela iduri zuen guzia lehertzen baitute. Molde hortan dira zorigaitzez munduko jende gehienak eginak.

- Guermantes-ko dukesak biziki adimenduna iduri du. Izan daitekeen gerla batez mintzo ginen arestian. Hortan argi berezi batzu ba omen ditu.

- Eztu batere, ihardetsi zuen idorki Charlus-ko Jaunak. Emaztek, eta gizon ainitzek ere, jeus eztute mintzatu nahi nuen gauzetan hartzen. Ene koinata anderea jende gozagarri bat da emaztek politikan eragina bazuten Balzac-en elhaberrietako aroan dela oraino uste duena. Harekin ibiltzeak elezake gaurregun zutan eragin dolugarri bat baizik ukan, bertzalde mundukoekin edozein ibiltzek bezala. Eta hori da hain zuzen erraitera nindoazun lehenbiziko gauzetarik bat, zozo horrek moztu gituelarik. Egin behar zatan lehenbiziko sakrifizioa - eginen dauzkitzutan emaitzak bezainbat nahiko dut - mundura ez joaitea da. Zuretzat sofritu dut arestian bilkura irriegingarri hortan ikustean. Ni han nintzala erranen dautazu bada, baina etzen enetako bilkura mundutar bat, familiako ikustaldi bat zen. Berantago, gizon heldu bat izanen zirenean, ephe batez mundura jausteak jostatzen bazitu, behar bada eragozkai denik gabe izanen da. Eztautzut beraz erraite beharrik zuretako zenbat baliagarri izanen ahal nizan. Guermantes-ko hoteleko eta athea zure aitzinean idek dadin balio duten guzietako "Idek hadi", nik dadukat. Ordu onaren juje izanen niz eta nagusi izan nahi dut. Orai erlisionean ikasle bat zira. Gain hortan zure izaiteak bazuen zerbait ahalgegarri. Oro baino lehen behar bezalako ez izaitea baztertu behar da.

Charlus-ko Jauna mintzo zelarik Villeparisis-ko Anderearen etxeko ikustaldi hortaz, galdegin nahi ukan naukon nola zen zuzen makestsarekin ahaide, hunen ethorkia zein zen, baina galdea ezpainetara jin zizatan nahiko nuenaz bertzela eta galdatu nuen zer zen Villeparisis familia.

- Jainkoa, ihardespena ezta biziki errexa, ihardetsi zautan Charlus-ko Jaunak hitzetan lerratzen zela iduri zuen mintzo batekin. Ezteusa zer den galdegiten bazinauta bezala da. Ene izabak, nahi duenaren egiteko gai baita, ukana du, delako Thirion Jaun ttipi batekin berrezkontzean, ezteusean Frantziako izen handienaren murgiltzeko burukeria. Thirion horrek uste ukan du behargaberik gabe har zezakeela, elhaberrietan egiten den bezala, hila den izen arixtokrata bat. Ixtorioak eztu erraiten La Tour d'Auvergne-ez gutiziatua izan zenez, Toulouse eta Montmorency-ren artean dudan egon. Zer nahi den bertze hautu bat egin zuen eta Villeparisis-ko Jaun bilakatu. 1702-az geroztik ezpaita gehiago, uste ukan dut hortik nahi zuela xumeki jakin-arazi Villeparisis, Paris ondoko herrixka bateko jaun bat zela, abokat-orde bulego edo ile-mozletegi bat bazuela Villeparisis-en. Baina ene izabak etzuen hori beharrian - bertzela ere batetik ez bertzetik entzuten ezten adin batera heltzen ari da. Markesate hori bere familiakoa zuela nahi ukan zuen, guzier izkiriatu dauku, gauzak erregularki egin nahi ukan ditu, eztakit zertako. Hartzeko dretxorik ezten izen bat hartzen denetik, ez hoinbertze ixtorio egitea da hoberena, hala nola gure adixkide ezin hobea, M.-ko Kondesa, Alphonse Rothschild Anderearen aholkuak gatik ere, ezpaitzituen elizaren diruak emendatu nahi ukan hortako egiazkoagoa bilakatuko etzen titulu batendako. Irrigarri dena da, ordutik

hara, ene izaba jabetu dela egiazko Villeparisis-tarrer eratxikiak ziren margazki guziez, Thirion zenak haiekin ahaidegorik batere etzuelarik. Izabaren jauregia haien potreten, egiazko ala ez, jabegoko leku bat bilakatu da, horien uhain handitzera emanean Guermantes eta Condé batzuek, eztirelarik alta pegeseria, itzali behar ukan baitute. Margazki saleroslek urte oroz batzu egiten dauzkote. Badu ere baserrian jateko salan San-Simunen potret bat Villeparisis-ko Jaunarekin haren ilobaren ezkontzaren gatik, *Orhoitzapenen* egileak baldin baditu ere, ikuslarien oharpeneko, Thirion Jaunaren aitaso ez izaitetik bertze titulu batzu.

Thirion Anderea baizik etzen Villeparisis-ko Andereak bururatu zuen ene izpirituan hasia zuen erortzea haren saloinaren egitura nahasia ikusia ukan nuenean. Zuzenkontrako iduri zizatan titulua eta izena ere abantzu berri-berriak zituen emazte batek, arokider lilluramendu egin ahal zezeen eta ondokoer ere adixkidantza erregetiar batzueri esker. Berriz haurzaroan iduritua zizatan hura bilakatuz, arixtokraziakorik ezer etzuen norbait, inguratzen zuten ahaidego handi horiek arrotz gelditzen zizazkola aurkitu nuen. Gurekin goxagarri izaitetik gero etzen gelditu. Batzuetan ikustera bainindoakon eta noiztenka orhoitzapen bat igortzen zautan. Baina etzizatan Saint-Germain bazter-hirikoa zela batere iduritzen, eta hortaz xehetasun zenbait galdatzeko ukan banu, hel eginen nauen azken jendetarik bat izanen zen.

"Orai, jarraiki zuen Charlus-ko Jaunak, mundura joanez, etzinezake zure izanarari kalte egin baizik, zure adimendua et jitea moldegaitzera ereman baizik. Behar zinuke ere eta oroz gainetik zure lagungoer behatu. Ukan itzazu ohaideak zure familiak ezpadu hortan eragozkairik ikusten, hori eztago eni eta etzitut hortara sustatzen ahal baizik, frikun gaztea, laster bizar egiteko beharrean izanen ziren frikun gaztea, erran zautan bidarra hunkituz. Baina adixkide gizonen hautatzeak badu bertze munta bat. Hamar mutiko gazten artean, zortzi gizatzar ttipi batzu dira, nehoiz zuzenduko eztuzun kalte baten egiteko gai diren gaixtagin ttipi batzu. Oizu, Saint-Loup ene iloba oro har lagun on bat da zuretako. Zure ethorkizunerako, etzaizu jeusetan baliagarri izaiten ahal; baina hortako, ni azki niz. Hura bederen gizon bat da, ezta gaurregun hainbertze aurkitzen den emakarako ttipi horietarik, trukari ttipi batzuen itxura baitute 'ta behar bada bihar urkabera eremanen baitituzte bere bitima ogengabeak. (Enakien orduan azpi-erdarako "trukari" hitz horren erran-nahia. Ezaguna ukanen zuen edonor ni bezain ustegabetua izanen zen. Munduko jendek gogotik maite dute azpi-erdaran mintzatzea, eta gauza batzuez gaizki daitezkeen jendek, hetaz mintzatzeko eztirela beldur erakustea. Ogengabe izaitearen phorogua haien ustez. Baina neurri-araua galdua dute, hartarik hara irri-solas bat bereziegia, ofensagarriegia bilakatuko den, lañotasunaren baino gehiago gogo usteldurarен lekuko izanen den heinari eztira ohartzen.) Ezta bertzeak bezalakoa, biziki gixakoa da, biziki seriosa.

Enintzan irriño bat egin gabe egon ahal izan, Charlus-ko Jaunak emaiten zaukon doinuak "bertuteduna", "pherestutua" erran nahi zuela iduri zuen "serios" hitz hortan, emazteño langile batez "seriosa" dela erraiten den bezala. Ordu hartan dena trebaska zoan aloka-karrosa bat iragan zen: karrosain gazte batek, bere alkia utzirik, han kuxinen gainean jarria zen karrosaren zolatik gidatzen zuen, itxura erdi

moxkorra. Charlus-ko Jaunak bizi-bizia geldi-arazi zuen. Karrosazaina ephe batez solastatu zen.

- Zein aldetara zoaz?

- Zurera (horrek ustegabetzen ninduen, Charlus-ko Jaunak eza errana baitzauen kolore bereko gauargiak zituzten karrosa batzuer).

- Baina eztut berriz alkira igan nahi. Karrosan egon nadin berdin zaizu?

- Bai, estalgia beheiti ezazu bakarrik. Azkenik ene eskaintza gogoan edukazu, erran zautan Charlus-ko Jaunak ni utzi baino lehen, gogoetatzeko zenbait egun uzten dautzut, izkiria ezatazu. Berriz ere, egun oroz ikusi beharko zitut eta zuganik leialtasunezko, begiratutasunezko berme batzu ukan iduri baitu, bertzela ere, eman dezazkezula. Baina, bizian zehar, hain usu naute itxurek bairatua nun gehiago fida ezpainaiteke. Brientxoa! Azkenik, gogoari ontsa emazu zer dautzutan eskaintzen, Haren ginarrantze azkarra eztuzula, zuretzat zorigaitzez, iduritzen zatan Herkule bezala zira, bi bidetako gurutzatzean. Bertutera zeramana ez hautatu ukaiteaz zure bizi guzian ez dolutzera entsea zaite. Nola, erran zaukon karrosazainari, estalgia eztuzu oraino beheititua? erresortak nihaurek plegatuko ditut. Uste dut ere beharko dutala gidatu, zertan iduri duzun ikusirik.

Eta karrosazainaren ondora jauzi egin zuen, trosta handitan abiatu zen karrosako zokora.

Ene aldetik, etxera sartu orduko, han aurkitu nuen guti lehenago Bloch eta Norpois-ko Jaunak ukana zuten solasaldiaren osagaia, baina laburtua, aldez kontrakatua eta bortitza: gure mahi-nagusiaren, dreyfustiarra zenaren, eta Guermantes-tarrenaren, Dreyfusen kontrakoa zenaren arteko aharra bat zen. Gainean Aberri Frantzeseko Batasunaren eta Gizonaren Dretxoetakoaren baitan kontra egiten zuten egiak eta gezurrak hedatzen ziren alabaina jende xoileko zola barnatuetarano. Reinach Jauna behin ere ikusia etzuten jenden sendimendutik ari zen, Dreyfus afera jartzen zizakolarik bakarrik arrazoinaren aitzinean theorema ezin ezetsi bat bezala eta phorogatzen zuena, alabaina, nehoiz ikusi den arrazoinezko politikaren ondorio on ustegabegarrienaren bidez (Frantziaren kontra zoan ondorio ona, zioten batzuek). Urte biez Billot minixterio bat Clémenceau minixterio batez ordaindu zuen, jenden aburua errotik aldatu, Picquart bere presondegitik athera, eskergabean, Gerlako minixterioan ezartzeko. Jendalden ibil-arazle arrazoinkari hori bere ethorkiak ibil-arazia zuen behar bada. Egia gehienik dadukaten filosofiako sistimak egiten dituztener, ororen buruan, sendimenduko arrazoin batek eman-araziak direnean, nola uste ukan, Dreyfus-ena bezalako afera xoilki politikazko batean, mota hortako arrazoin batzuek eztezaketela, arrazoinkariaren jakin gabean, haren arrazoinari mana? Bloch-ek uste zuen Dreyfusen alderdia arrazoinez hautatua zuela, bazakien alta bere sudurra, larrua, ilen kolorea arrazatik ukanak zituela. Arrazoina libroago dela izan daiteke; berak hautatu eztituen lege batzuer obeditzen du bizkitartean. Guermantes-tarren eta gure mahi-nagusien gertaldia berezia zen. Frantzia gainetik behera mozten zuten Dreyfustiarren eta Dreyfus-en kontrakoen bi uhaitzen uhainak aski ixilak ziren, baina emaiten zituzten oiharzun bekanak zintzoak. Norbaiten entzutean, Aferatik bere nahitara baztertzen zuen solas baten erdian, ebaska politika berri baten iragartzen, gehienetan gezurrezkoa baina beti

agiantzatua, haren aitzin-erranetarik ondoriotzen ahal zen gutiziak zein aldetara zoazkion. Horrela ziren gauza batzuetan elgarri oldartzen, alde batetik sinesmen herabe bat, bertzetik sumindura saindu bat. Sartzean entzun nituen bi mahi-nagusiek erregela horri salbuespen egiten zuten. Gureak entzutera utzi zuen Dreyfus ogendun zela, Guermantes-tarrenak ogengabe zela. Etzen hori sinesten zutenaren gordetzeko, baina gaixtakeriaz eta jokoaren laztasunez. Gure mahi-nagusiak, auzi berritzea eginen zenez dudan, nahi zaukon aitzinetik, gaizki heltze baten aldiko, Guermantes-ko hotelekoari ekhendu auzigai zuzen bat galdua zela uste ukaiteko bozkarioa. Guermantes hotelekoak uste zuen, auziberritzea ezetsia baliz, gurea nahiagetuagoa izanen zela ogengabe bat orai Debruaren Irlan ikusiz. Etxezaina haier so zagon. Iduripena ukan nuen Guermantes-tarren sehierian nahasmena ezartzen zuena etzela hura.

Berriz etxera igan nintzan eta amatxi gaizkiago aurkitu nuen. Zenbait dembora bazen bere osagarriaz deitoratzen zela, zergatik sobera jakin gabe. Eritasunean gira ohartzen ezkirela bakartasunean bizi, baina bertze mota bateko izaite bati estekan, erroitz batek hartarik berexten baigitu, ezagutzen ezkituen eta haren ganik entzunak ezin izan gaitezkeen batek: gure soinak. Zein gaixtagin ere ediren dezagun gure bidean, hari gure zorigaitzaren ezpada bederen bere abantailaren sendi-araztera heltzen ahalko gira behar bada. Baina gure soinari urriki eskatzea, olhagarro baten aitzinean mintzatzea da, harendako gure elhek ezpaitezakete ukan uraren hotsak baino erran-nahi gehiago, eta harekin bizitzera kondenatuak izaiteaz laztatuak baiginizateke. Amatxiren aldixartzeak etziren ainitzetan haren oharpenera heltzen, oharpena beti gutarik baztertua baita. Oinaze sobera zuenean, haien sendatzera heltzeko, gogoan hartzera indar egiten zuen debaldetan. Agerlekua haren soina zuten eritasunezko gertakariak haren gogoari ilun eta ezin argituak gelditzen baldin bazizazkon, argi eta etzungarri ziren haien mota bereko izaite batzuendako, soinak zer dion gogoan hartzeko giza-izpirituak azkenean hel egin dauenendako, atzerritar baten ihardespenen aitzinean itzultzaletzat baliatuko den herri bereko norbaiten bila joaiten den bezala. Horiek mintza daitezke gure soinarekin, erran dezagukete haren haserrea larria denez ala laster ematuko. Cottard-ek, amatxiren ondora deitua baiginuen eta nardatuak baiginituen erdi-irri xorrotx batekin galdeginez, eri zela errana ginion lehenbiziko minutan berean: "Eri? Ezta bederen eritasun diplomatika bat?", Cottard-ek entseatu zuen, eriaren nahasmenaren eztitzeko, esne osabidea. Baina betiereko esne saldek etzuten ondorio onik ukan amatxik ainitz gatz emaiten baitzuen, horren behargabea orduan jakina etzelakotz (Widal-ek etzituen oraino bere aurkintzak eginak). Ezen sendagintza medikuen huts jarraiki eta elgarren kontrako batzuen laburpena izanez, hetan hoberenak nork bere ondora deituz, zenbait urte berantago hutsezkoa aithortua izanen den egia baten eskatzeko zori handia ukaiten da. Hala nola nun sendagintza erokeria handiena bailizateke, hartan ez sinestea oraino handiago bat ezpaliz, hutsen metatze hortarik luzaran egia batzu jalgi baitira. Cottard-ek sukarra har zakidion gomendatua zuen. Termometra baten bila joan zen. Ttutta abantzu goratasun guzian zilhar-biziz hutsa zen. Doi-doia ikusten bazen, bere untxi ttipiaren zolan bildua, zilharrezko arrobioa. Hila iduri zuen. Berinazko xirula amatxiren

ahoan ezarri zen. Ezkinuen luzaz han uztearen beharrik ukan; sorgin ttipia etzen gerorako-ikuspenaren emaiteko luze izan. Ediren ginuen geldi-geldia, berre dorreñoko erditan dilindan handik higitu gabe, zuzen-zuzena erakusten zaukula galdegina ginaukon zenbakia eta amatxiren arimak beraz eginak zituen gogoeta guziek emaiteko ontsa ahalgabeak izanen zirenak: 38°3. Lehen aldikotz goganbehar zenbait senditu ginuen. Termometra azkarki inharrosi ginuen seinale hala-beharrezkoaran ezabatzeko, hortik sukarra beheiti-arazi nahi ukana baginu bezala izkiriatua zen berotasunarekin batean. Ondikotz! argi izan zen arrazoingabeko azti ttipiak etzuela nola nahika ihardetsia, ezen biharamunean, termometra doi-doia izan zeneko amatxiren ezpain artean ezarria, abantzu berehala, jauzi bakar batez bezala, guretako ezin ikusia zen egintza baten segurtasunaz eta asmuaz eder, profetesa ttipia jina zen leku berean jartzera, urrikalmendu gabeko geldi batean, eta 38°3 hori erakusten zaukun oraino, bere xiri dirdiratuaz. Etzion bertzerik jeus, baina gutiziatzea, nahi ukaitea, othoiztea egin ahal ukana ginuen, bazidurien hori zela haren azken hitz gaztiatzale 'ta mehatxatzalea.

Orduan, ihardespenaren aldatzera haren bortzatzera entseatzeko, mota bereko izaite bati hel egin ginaukon, baina azkarragoa bati, ezpaita bakarrik soinari galdez egoiten baina manatzen ahal baitauko, azpirinaren mota bereko sukar-hezkailu bati, orduan oraino erabilia etzena. Termometra ezkinuen 37°5 baino beherago jauts-arazia, horrela berriz goititzeko beharrik ukanen etzuelako esperanzan. Sukar-hezkailu hori harr-arazi ginaukon amatxiri eta termometra berriz ezarri. Haren ondoan gerizapen batez baliatua den goragoko nagusi baten manua erakusten zakon zaintzale urrikalmendu gabe batek, hori erregelakoa aurkituz, ihardesten duen bezala: "Ontsa da, erraitekorik jeus eztut, hola denaz geroz, zoaz", athezain begiralea etzen aldi hortan higitu. Baina, mutiri, iduri zuen baziola: "Zertako baliatuko da hori? Kinina ezagutzen duzuenaz geroz, ez higitzeko manua emana dauta, aldi batez, hamar aldiz, hogei aldiz. Eta gero unhatuko da, ezagutzen dut, zoazte. Eztu horrek beti iraunen. Orduan ontsa aitzinatuak izanen zirezte."

Orduan amatxik senditu zuen han zela, haren baitan, giza-soina berak baino hobeki ezagutzen zuen izaite bat; arraza itzalien aroko norbait han zela, lehenbiziko jabea - gogatzen duen gizona baino ontsa lehenagokoa; mila urtetako ahaide hori senditu zuen ezkuztatzen zuela, apur bat gogorki ere, buruan, bihotzean, ukhondoan; lekuak ezagutzen zituen, guzia antolatzen zuen guti berantago gertatu zen gudu ixtorio-aitzinekorako. Ephe batez, Phyton lehertua, sukarra kimiako ekhai azkarraz garhaitua izan zen, amatxik, ihizi eta landare guzien gainetik iraganez, eskertu nahiko baitzuen. Termometrak bere aldetik, jainko zaharrago batek ephe batendako garhaitu Parka batek bezala, bazadukan geldirik bere zilharrezko ardatza. Ondikotz! bertze izaite azpiko batzuek, gizonak bere baitan ezin lasterka dezazkeen ihizi mixteriozkoen hatzemaiteko hezi dituenak, egun oroz ekhartzen zaukuten albumina ahul baten neurria, baina aski berdina hura ere ikusten ezkinuen izanara iraunkor zenbaitekin arautua iduri izaiteko. Bergotte-ek nitan ofensatua zuen ene adimendua menean atxik-arazten zuen asmu ximena, Du Boulbon medikua aiphatua zautanean aspertuko eninduen mediku bat bezala, sendabide batzu aurkituko zituena, iduriz bitxiak izanik ere, ene adimenduaren berezitasunera

arautuko zirenak. Baina ideiak gutan aldatzen dira, hastapenean kontra emaiten ginezteen ihardukimenduak garhaitzen dituzte eta prest-presta diren erresalbu adimendukoez hazten dira, haiendako zirela uste ezkinuelarik. Orai, ezagutzen eztugun norbaitez entzun solasek gutan antze handi baten, halako jeinu baten atzartzeko indarra ukana duten aldi oroz gertatzen den bezala, ene gogoaren zolan Du Boulbon medikua abantailatzen nuen, bertze batek baino begi barnatuago batez egia badakusanak emaiten daukun konfienxia mugagabeko harekin. Banakien segurki zainetako eritasunen jakilea zela izaitekotz, hil baino lehen Charcot-ek zain-medikuntzan eta gogo-sendagian nagusi izanen zela aitzin-iragarria zaukona. "Ha! eztakit, izan daiteke bada", erran zuen Françoise-ek hor baitzen eta lehen aldikotz entzuten baitzuen Charcot-en izena Du Boulbon-ena bezala. Baina etzaukon horrek batere debekatzen "Izan daiteke" erraitea. Aldi horietan haren "izan daiteke", "behar bada", "eztakit" horiek sumingarri ziren. Gutizia bazen hari ihardesteko: "Segurki etzinakiela aiphu den gauzan jeus ezagutzen eztuzunaz geroz; nola derrakezu ere izan daitekeela ala ez, jeus ezpazinakien? Zer nahi den, orai eztezakezu erran Charcot-ek Du Boulbon-i erran daukonez eztakizula edo bertze, errana dautzugunaz geroz badakizu, eta ezta zure "behar bada", zure "izan daiteke" horien lekua segur denaz geroz".

Burumuneko eta zainetako gaitasun bereziago hori ukanik ere, Du Boulbon mediku handi bat zela bainakien, gizon goren bat, adimendu asmatzale 'ta barnatu batekoa, ama othoi-othoiztu nuen ekharr-araz zezan, eta, gaitzaren ikuste zuzen batez, behar bada sendatuko zuelako itxaropenak garhaitu zuen azkenean, mediku konsultari bat deitzen baginu, amatxiren izitzeko ginuen beldurra. Ama delibera-arazi zuena izan zen amatxi, Cottard-ek sustaturik, etzela gehiago atheratzen, ez gehiago biziki jeikitzen. Ihardets zezagukeen Sévigné-ko Andereak La Fayette-ko Andereaz egina zuen eskutitzaz: "Ez athera nahiz eroa zela zioten. Bere aburuetan hain lehiatu jende horier erraiten nauen: " La Fayette-ko Anderea ezta eroa" eta hortan nindagon. Hila izana behar du ez atheratzean arrazoin zuela ikus-arazteko." Deitua izan zen Du Boulbon-ek hutsean ezarri zuen, ez aiphatua etzizakon Sévigné-ko Anderea, baina bederen amatxi. Ikerr-entzuteko orde, haren gainean emaiten zituen batean eriaren barnatuki mihatzeko lillura hetan behar bada bazen so miragarriak, edo hari lillura horren emaiteko gutizia, berainik sortua iduri zuena baina behar bada mekanikazkoa bilakatua - edo gogoan osoki bertzelako gauza bat zuela hari ikustera ez uztekoa, edo bere menean haren ezartzekoa -, hasi zen Bergotte-ez mintzatzetik.

- Ha! uste dut, Anderea, miragarria da; haren maitatzean zein arrazoin duzun! Baina zein da haren liburuetan hautesten duzuna? Ha! zinez! Jainkoa, alabaina hoberena da behar bada, hasteko haren elhaberri hobekienik moldatua: Klara ontsa loriagarri da; elhaberriko jendetan, zein zaizu gizonetan gustagarriena?

Hastean uste ukan nuen literaturaz horrela mintza-arazten zuela medikuntzak bera aspertzen zuelakotz, bere izpirituko zabaltasunaren erakusteko ere behar bada, eta oraino, helburu sendatzekoago batean, eriari konfienxia emaiteko, bera etzela khexu erakusteko, zuen izanaratik eriaren baztertzeko. Baina, gero, hartu dut, oroz gainetik eroen sendatzale bezala eta burumunetako lanetan nehor ez bezalakoa,

nahi zuela bere galdetarik amatxiren memorioa oso zenez ikusi. Gogo-kontra iduri, bere biziaz galdekatu zuen, begia ilun eta geldi. Gero bapatez, egiaren ikustean bezala eta zer gosta ere hartara heltzera deliberatua, higitzeko nekea zela iduri zuen aitzin jestu batekin, ukan zezazkeen azken dudetako uhainetarik baztertzen balu bezala, eta egiten ahalko ginituen kontra-ihardespen guzietarik, begi argi batez amatxiri behatuz, azkenean leihorreratua bezala eta libreki, aldatze guzietan berexkuntza bazeman adimenduko doinu ezti harkor batekin hitzak markatuz (mintzoa, ikustaldi guzian, gelditu zen ere, jitez hala baitzen, pherekari, eta bekain sasituen azpian, begi irkaiztunak oneziaz beteak ziren):

- Ontsa joanen zira, Anderea, jeus eztuzula gogoan hartuko duzun egun urrun ala hurbilean, eta egun berean izan dadin zuri dago, eta orotako bizia berriz hartuko duzunean. Errana dautazu etzinuela jaten, etzinela atheratzen?

- Baina, Jauna, sukarr apur bat badut.

Eskua hunkitu zaukon.

- Ordu huntan ez hasteko. Eta gero desenkusa ederra! Eztakizua 39°-tarano duten bulharreri batzu aire betera uzten ditugula, jatera azkarki emaiten dauegula?

- Baina badut ere albumina puxka bat.

- Etzinuke jakin behar. "Gogoko albumina" diotana duzu. Guziek ukana dugu, ez ontsa batean, gure albuminako gaitzaldia medikuak guri seinalatuz iraunkor egitera lehiatu dena. Medikuek erremedioekin sendatzen duten eritasun batendako (erraiten da, bederen, hori zenbait aldiz gertatu dela), hamar sortzen dituzte osasun onean diren jende batzuetan, gauza eritzale hori xertatuz, mikroba guziak ere baino mila aldiz khotsagarriagoa, eri delako ideia. Horrelako sineste batek, ororen baitan indarduna, eragintasun berezi bat badu zaintsuetan. Erreezu leiho hetsi bat idekia dutela bizkarrean, urtzintzetan hasten dira; sinets-arazeezu mañeziatik ezarri duzula haien saldan, sabeleko minaz hartuak izanen dira, kafea ohian baino azkarrago zela, eztute gauaz begirik hetsiko. Uste duzua, Anderea, zure begien ikustea etzaitala aski izan, mintzo ziren moldearen entzutea bakarrik, zer diot? hainbat zure egite duten zure alaba Anderearen eta semabitxiaren ikustea, egitekoa norekin nuen ezagutzeko?

- Amatxi jartzera joan laitekek behar bada, medikuak haizu usten badu, Champs-Elysées-etako ibilbide gozo hartan, lehenago haren ondoan jostatzen hintzan erramu multzo haren ondoan, erran zautan amak horrela Du Boulbon zeharka konsultatuz, haren mintzoak hortako hartzen zuela eni bakarrik mintzatu baliz ukanen etzuen herabe 'ta adeiko zerbait. Medikua amatxiren gana itzuli zen eta, ezpaitzen jakintsun baino gutiago leteraduna:

- Champs-Elysées-etara zoaz, Anderea, zure semabitxiak maite duen erramu multzoaren ondora. Erramua osagarriko on izanen zaizu. Garbitzen du. Python sugea delibera-arazi ondoan, erramu aldaxka bat eskuan zuen Apolon-ek Delphes-en sartzea egin. Nahi zuen horrela ihizi phozoinduaren khotsu hiltzaletarik gerizatu. Ikusten duzu erramua dela sendagailuetan zaharrena, errespetagarriena, eta - horrek ere balioa baitu sendagintzako, eritasunetik zaintzeko bezala - ederrena."

Medikuek dakitenaren zati handi bat eriek erakatsia baitaue, errex ekharriak dira erien jakintza hori guzien baitan berdina dela sinestera, eta lausengatzen dira

ondoan direnaren ustegabetzeaz aitzinean arthatu dituztenetarik ikasia duten ohar zenbaitekin. Hortako zaukon Du Boulbon medikuak, laborari batekin solastatzean haren erdara erabiliz ustegabetuko zuela uste lukeen Paristar baten erdi-irri xorrotxarekin, amtaxiri erran: "Itxuraz haizeteak lo egin-araztera heltzen zaizkitzu loizun emaile azkarrenek huts-egiten dutenean. - Ez batere, Jauna, haizeak lo egitea osoki debekatzen dauta." Baina medikuak minbera dira. "Atx!" murmurikatu zuen Du Boulbon-ek bekainak zimurtuz, oina zapatu balizako bezala eta amatxiren logabeak ekaitzezko gauetan harendako laido berezi bat izan balire bezala. Etzuen hala ere bere alderako amodio sobera, eta "izpiritu goien" bezala, uste baitzuen medikuntzan ez sobera sinestea bere egitekoa zuela, berriz laster hartu zuen bere gogo-berdintasun filosofiazkoa.

Amak, Bergotte-ren adixkideaz segurtatua izaiteko gutizia gartsuan, harek erranaren bermagailutako gaineratu zuen, amatxiren lehen gusi bat, zainetako eritasun batez hartua, zazpi urtez egona zela Combray-n bere etzateko gambaran hetsirik, astean aldi bat edo biez baizik ez jeikiz.

- Ikusten duzu, Anderea, hori enakien, eta erranen ahal nautzun.

- Baina, Jauna, eniz batere hura bezala, ez; ene mediakuak enezake atxik-araz etzanik, erran zuen amatxik, ala medikuaren theoriez apur bat nardatua, ala egin zaitezkeen kontra-ihardespenen ekhartzeko gutizian, ezeztatuko zituelako esperanzan, eta, hura joana izanen zenean, bere baitan haren ezagubide zorionezkoaz dudarik batere ez ukaitekoan.

- Baina naturalki, Anderea, eztaitezke, hitza barka ezatazu, erotasun mota guziak ukan, bertze batzu badituzu, horiek ez. Atzo, zaineriendako egin sendaleku bat ikusi dut. Baratzean, gizon bat bazagon xutik, fakir bat bezain geldi, lephoa makurtua ontsa nekagarri zatekeen egon-molde batean. Hor zer ari zen galdegiten bainaukon, ihardetsi zautan mugimendu bat egin gabe 'ta burua itzuli gabe: "Jaun medikua, ezin gehiago errumatisimatua niz eta mafrundi errexa, gorputza sobera ibil-arazi dut, eta horrela zozoki berotzen ari nintzanean, lephoa flanelari kontra emana zen. Orai flanelatik urruntzen banu beroa jaustera utzi baino lehen, lepho-bihurdura pollita bilduko dutala segur niz eta behar bada biri-hodietako bat." Eta alabaina bilduko zuen. "Zainetarik polliki eri zira, horra zer duzun", erran naukon. Badakizu zer arrazoin eman zautan etzela hala phorogatzeko? Sendategiko eri guziek bazutelarik bere phizuaren hartzeko xoxokeria, egun osoa phizatzen iragan etzezaten haztakinari giltzerrapo bat ezarri behar ukaiterano, hura haztakinaren gainera igaitera bortxatu behar zela, hain zuen gutizia guti. Bertzen xoxokeriaren ez ukaiteaz loriatzen zen, berea bazuela ere gogoari eman gabe eta hark zuela bertzerenetik gerizatzen. Etzaitela gomparatzeaz laidatua izan, Anderea, mafrundi beldur lephoaren itzultzera menturatzen etzen hura gure adineko poeta handiena baita. Bitxi gaixo hura ezagutzen dutan adimendu gorenekoa da. Zaintsu zirela erraitea onhar ezazu. Lurreko gatza den familia miragarri eta deitoragarri hartakoa zira. Handi denik ezagutzen dugun guzia zaintsuetarik heldu zaiku. Hek dituzte eta ez bertzek ezarri erlisioneak eta nagusi-lanak egin. Munduak eztu sekula haier zer duen zor jakinen eta oroz gainetik hari horien emaiteko zer duten pairatu. Musika pollitak gustatzen zaizkigu, margazki ederrak, mila goxokeria, baina asmatu

zituztener zer gosta zizaien eztakigu, logabez, nigarrez, hertsaldizko irriez, hatz-minez, hats-beharrez, erorteko minez, hori guzia baino gaitzago den hiltzeko beldurrez, eta behar bada zuk, Anderea, ezagutzen duzunez, gaineratu zuen amatxiri irriño batekin, ezen, aithorrazu, ethorri nintzalarik, etzinen biziki segurrean. Eri zirela uste duzu, lanjeroski eri behar bada. Jainkoak daki zein gaitzen seinaleak aurkitu dituzula uste duzun. Eta eztuzu huts egiten, bazinituen. Zaintsueria iduriko lan egile jeinuduna da. Ezta miragarriki kontra-moldatzen eztuen eritasunik. Huts egin-arazterano imitatzen ditu urdail-mina dutenen hantura, haur-beharreko bihoztarra, bihotzeriaren neurkada haustea, bulharreriaren sukarra. Medikuaren enganatzeko gai, eria nola elezake engana? Ha! zure gaitzez trufatzen nizala ez uste ukan, haien sendatzera enintzateke abia zer diren ezpanaki. Eta, oizu, ezta kofesio onik elgarrenik baizik. Zainetako eritasunik gabe edergile handirik eztela errana dautzut, gehiago dena, gaineratu zuen erhi erakuslea larriki goitituz, ezta jakintsun handirik. Erranen dut gainera, bera zainetako eritasunez hartua izan gabe, eztela etzatazula erran-araz zainetako mediku onik, baina mediku onhargarririk ere. Zainetako eritasun jakintzan, zozokeria sobera erraiten eztuen medikua, erdi sendatu eri bat da, kritikatzale bat neurtitzik gehiago egiten eztuen poeta, polizari bat gehiago ebasten eztuen ohoin bat den bezala. Nik, Anderea, eztut ute zu bezala albuminaduna nizala, eztut hazkurriaren beldur zaintsua, aire handiarena, baina enaiteke etzan berriz hogei aldiz baino gehiago jeiki gabe athea hetsia dutanez ikusteko. Eta atzo lephoa itzul etzezakeen poeta bat ikusia dutan sendategi hartara, gambara baten atxikitzera nindoan, ezen, hau gure artean, lanarteak han iragaiten baititut nihauren arthatzen, gaitzak handiegituak ditutanean bertzerenen sendatzen sobera akhituz.

- Baina, Jauna, arthamendu berdin bat egin beharko duta? erran zuen amatxik izialdurarekin.

- Debalde da, Anderea. Erakustera emaiten dituzun seinale horiek ene elhearen aitzinean amor emanen dute. Eta gero baduzu ondoan indar ainitz duen norbait eta hemendik goiti zure sendatzale egiten dutana. Zure gaitza da, zainetako egintza soberakina. Hartarik nola senda banaki ere, egitetik begiratuko niz. Aski zata hari manatzea. Zure mahi gainean Bergotte-ren liburu bat ikusten dut. Zure zaintsutasunetik sendatu eta, etzinuke gehiago maitatuko. Bada, ukan nezakea emaiten dauzkitzun bozkarioen aldizkatzeko dretxoa, horien emaiteko ontsa ahalik gabea lizatekeen zainetako osasun batekin? Baina bozkario horiek berak erremedio indardun bat dira, guzietako indardunenak behar bada. Ez, eniz zure gemen zaintsuari aiher. Entzun nezan erraiten daukot bakarrik; hari gomendatzen zitut. Gibelera egin beza. Zuri ibiltzearen debekatzeko, aski hazkurri hartzeko bazeman indarra, erabil beza zuri jan-arazteko, irakurr-arazteko, jalgi-arazteko, molde orotan libertitzeko. Etzatazula akhitua zirela erran. Akhidura, aitzinetik moldatu gogamen baten gorputzeko egintza da. Hura gogan ez ukaitetik has zaite. Eta nozpait alditxar ttipi bat baldin baduzu, mundu guziari gerta daitekeena, ukan ezpazinu bezala izanen da, zutaz egina ukanen baitu, Talleyrand-eko Jaunaren hitz barnatu baten araura, ustezko ontsa den bat. Oizu, zure sendatzen hasia da, zuzen-zuzena entzuten nauzu, aldi bakar batez bermatua izan gabe, begia erne, aurpegia on, eta

badu orai horrek oren erdi bat eta etzira ohartua ere. Anderea, badut zure agurtzeko ohorea.

Du Boulbon medikua entzun ondoan, han ama bakarrik zen gambarara sartu nintzanean, zenbait aste hetan hertsatzen ninduen antsia airatu zen, amak bozkarioa jauztera utziko zuela senditu nuen eta enea ikusiko, gure ondoan norbait hunkia izanen den ordu hurbilaren igurikatzeko ezin jasaite hura senditu nuen, hori baita apur bat, bertze mota batean, oraino hetsia den athe batetik norbait zure izitzeko sartuko dela jakina denean sendi den beldurra bezala; amari hitz bat erran nahi ukan naukon, baina mintzoa hautsi zizatan, eta nigarretan urtuz, egon nintzan luzaz, burua haren soingainean, nigarretan, oinazearen jastatzen, onhartzen, maitatzen, orai ene bizitik jalgia zela banakienaz geroz, gertaldiek egintzan ezartzea debekatzen daukuten bertutezko xede batzuetan gogo-berotzea maite dugun bezala.

Françoise-ek sumindu ninduen gure bozkarioan ez barne izanez. Osoki hunkia zen izigarriko aharra bat jauzia zelakotz mutil jantziaren eta etxezain salatariaren artean. Dukesak, bere onezian, arteratu behar ukana zuen, bake itxura bat jarri eta mutil jantziari barkatu. Ona baitzen, eta "erran-merraner" beharria eman ukana ezpalu nahi bezalako lekua izanen zizakon.

Bazen jadanik zenbait egun amatxi ez ontsan zela jendea jakiten hasia zela eta haren berrien hartzen. Saint-Loup-ek izkiriatua zautan: "Hire amatxi maitea ez ontsan den egun hautaz eztiat baliatu nahin hiri erasiak baino gehiago diren eta hura hetan jeusetako ezten gauza batzuen erraiteko. Baina gezurrean nizatekek hiri ez erranez, ixilean baizik ezpaliz ere, ehoiz eztiatala egina dukan trahitzea ahatziko eta nehoiz eztela hire zimarkuaren eta tradimenduarendako barkamendurik izanen." Baina adixkide batzuek, amatxi guti eri zelako ustean edo berdin hala zela ez jakinean, galdegina zautaten biharamunean Champs-Elysées-etan har nitzan handik ikustaldi baten egitera joaiteko eta, baserrian, jostatzen ninduen auhari batean izaitera. Bi atsegin horien baztertzeko arrazoinik batere enuen gehiago. Amatxiri erran izana zizakonean beharko zuela orai, Du Boulbon medikuari obeditzeko, ainitz ibili, ikusia da berehala Champs-Elysées-ak aiphatuak zituela. Hara eremaitea errex izanen zizatan eta jarririk irakurtzen ariko zen batean, ene adixkidekin hitzartzea elgarrekin aurkituko ginen lekuaz, eta ukanen nuen oraino, lehiatuz, haiekin Ville-d'Avray-ko treinaren hartzeko astia. Deliberatua zen orduan, amatxik etzuen athera nahi ukan, akhitua sendituz. Baina amak, Du Boulbon-ek erranik, ukan zuen samurtzeko gemena eta bere buruaren obedi-araztekoa. Abantzu nigarretan zen amatxi bere zainetako ahuldurara berriz eroriko zela gogatzean, eta ez gehiago sendatuko. Aro hoin eder eta berorik etzizakon ehoiz haren atheraldira hoin ontsa eskainiko. Iguzkiak, lekuz aldatzean, artekatzen zituen han hemenka galeria azkarreko hutsunetan bere musulina argalegiak eta harri pikatuari bazemakon axal ephel bat, urrezko inguru nahasi bat. Françoise-ek ezpaitzuen ukana alabari "ttutta" baten igortzeko astia, bazkaldu orduko untzi ginduen. Aski eder izan zen oraino, aitzinean, Jupien-en etxera sartua izan zadin amatxik atheratzeko jantzi behar zuen bizkarreko laburrari phondu baten eman-arazteko. Nihaur orduan goizeko ibilalditik sartzen ari bainintzan, joan nintzan harekin barneko motx egilearen baitara. "Zure nagusi gazteak zitua hunara ekhartzen, erran

zaukon Jupien-ek Françoise-ri, zuk dautazua ekhartzen, ala haize on zenbaitek eta Fortunak zituztea bi-biak ekhartzen?" Nahiz eskolak etzituen eginak, Jupien-ek sintasia errespetatzen zuen Guermantes-ko Jaunak, indar ainitz eginik ere, bortxatzen zuen bezain naturalki. Françoise joan ondoan eta bizkarreko laburra antolatua, amatxik soinekoak jantzi behar ukan zituen. Ama harekin egon zadin hisituki ez onharturik, aphainketan eman zuen, bakar bakarrik, gaitzeko dembora, eta orai ontsa zela bainakien, bizi direno gure gurasoendako dugun axolagabe bitxi harekin, egiten baitu jende guziaren gibelean uzten ditugula, hain luze izaiteaz ontsa berekoia aurkitzen nuen, beranta ukaiteko irriskuan ene ezartzeaz adixkide batzuekin hitzartua nintzala bazakielarik eta Ville d'Avray-n auhaldu behar nuela. Ezin egonez, aitzinetik jautsi nintzan azkenean, prest zela bietan errana ukan zautaten ondoan. Azkenean jin zen, berantaz barkamendu galdegin gabe ohiki aldi horietan egiten zuen bezala, gorri eta ohartu gabean bezala lehiatua den eta gauzen erdia ahatzia duen norbait iduri, athe-berina erdi idekiaren ondora heltzen ari nintzalarik, sartzera uzten zuela hoteleko harresi hormatuen artean, hek den gutienik berotu gabe, untzi bat ideki izan baliz bezala, kampoko aire ubil, guruguriatzale 'ta ephela.

- Jainkoa, adixkide batzuen ikustera hoaz geroz, bertze bizkarreko bat jantzia ukan ahal nezakekan. Hunekin doi bat zorigaitzean iduri diat.

Ohartu nintzan nola odol-gorritua zen eta hartu nuen, berantean jarririk, ainitz lehiatua zatekeela. Aloka-karrosa utzi berria ginuelarik Gabriel ethorbidearen sartzean, Champs-Elysées-etan, amatxi ikusi nuen eni mintzatu gabe itzulia zela eta bazoala etxola xahar burdin-sareztatura buruz, han egun batez Françoise igurikatua bainuen. Orduan han zen oihanzain bera bazagon orai ere "markestsaren" ondoan, amatxiri jarraikiz, eskua ahoaren aitzinean zadukala bihoztar bat bazukeelakotz, igan nituenean baratzen erdian eraiki antzoki baserritar ttipiko mailak. Kontrolan, feria-zirketan zanpantzarrak, tauladan sartzera prest eta dena irineztatua, athean leku-sariak berak hartzen dituen bezala, sartzeak hartzen zituen "markestsa" hor zen beti bere gaitzeko mutur araugabe 'ta igelsu arruntez emokatuarekin, eta lore gorriekilako bere bonet dentelazko ile falsu hori-gorriaren gainetik. Baina ezagutu ninduela eztut uste. Zaintzalea, landaretzen zaintzea utzirik, haien margoari arautua zen jantzi berdinean, solasean zen, haren ondoan jarria.

- Beraz, zion, hor zira beti. Erretiratzea eztuzu gogoan.

- Eta zergatik erretiratuko nintzan, Jauna? Nahi dautazua erran hemen baino hobeki nun nintzatekeen, nun nukeen hemen baino errextasun gehiago eta gozagarri guzia? Eta beti joan-jina, libertitzekoa; ene Paris ttipia diotana da: ene ohituek gertatzen denaz jakinduru nadukate. Oizu, Jauna, bada bat jalgia dena eztu bortz minuta baino gehiago, lege-gizon bat kargu gorenekoa. He bada! Jauna, egin zuen suhartasunekin, erran horren bortizki atxikitzeko hirizainak zuzentasunari kontra-erraiteko itxura hartu balu ere, zortzi urtez geroz, entzuten nauzu bada, Jainkoak egin dituen egun oroz, hirur orenak hirian, hemen da, beti ikustatedun, nehoiz hitz bat bertzea baino gorago, ezer zikindu gabe, oren-erdi bat baino gehiago egoiten da egunkarien irakurtzen bere behar ttipien egitean. Egun bakar batez ezta ethorri. Orduan berean eniz ohartu, baina arratsean bapatez egin dut:

"Ori, baina jaun hura ezta jin, hil da behar bada." Halako zerbait egin dauta, jendea ontsa denean atxikimendua hartzen baitut. Ontsa zorionean izan niz beraz biharamunean berriz ikusi dutanean, erran duakot: "Jauna, jeuz etzaizu atzo gertatu?" Hola erran dauta orduan berari etzizakola jeus gertatu, emaztea zizakola hil, eta hain inharrosia izana zela nun ezpaitzen jin ahal izana. Itxura trixte zuen segurki, hartzen duzu, hogei-ta bortz urtez geroz ezkonduak ziren jendeak, baina kontent hala ere berriz hunara itzultzeaz. Sendi zen bere ohidura ttipietan dena desarrañaturik izana zela. Berriz azkarr-araztera entseatu niz, erran daukot: "Ezta gibelera egin behar. Lehen bezala zaugi, zure griñan libertimendu ttipi bat emanen dautzu."

"Markestsa" berriz hasi zen doinu eztiago batean, ohartua baitzen landare multzo eta soropilen gerizatzaleak gozotasunekin entzuten zuela kontra-erraiterik gogoan ukan gabe, maginan atxikiz ezpata lanjergabe bat, baratzegintzako tresna baten itxura zuena izaitekotz

- Eta gero, erran zuen, ene ohituak hautatzen ditut, eztut jende guzia onhartzen ene saloinak deritzeetenetan. Eztua saloin baten itxura, ene liliekin? Ohitu biziki maitagarriak baititut, beti batek edo bertzeak ekharri nahi dauta lila eder edo jazmin aldaxka bat, edo arrosak, ene lore hautetsia.

Ez lilarik, ez arrosa ederrik ehoiz ez ekharriz andere hark behar bada gaizki jujatzen ginituelako ideiak gorri-arazi ninduen, eta jujamendu gaixto bati soinez ihes egitera entseatzeko - edo auzi-ihesle bezala hartaz ez jujatua izaiteko - athera buruz aitzinatu nintzan. Baina ezta beti bizian arrosa ederrak ekhartzen dituztenendako maitagarrienik izaiten, ezen "Markestsa", uztez eta aspertzen nintzala, mintzatu baitzizatan:

- Kabina ttipi bat idek dezazutan eztuzu nahi?

Eta eza bainion:

- Ez, eztuzu nahi? gaineratu zuen irriño batekin; gogo onez zen, baina ontsa badakit eztirela haien ukaiteko ez pagatzea aski den behar batzu.

Ordu berean horiek hain zuzen sendi zituela iduri zuen emazte gaizki jantzi bat sartu zen tarrapatan. Baina etzen "markestsaren" munduan barne, hunek, handi-uste baten abretasunarekin, erran baitzaukon idorki:

- Libro denik jeus ezta, Anderea.

- Luze izanen dea? galdegin zuen andere gaixoak, bere lili horien azpian gorritua.

- Ha! Anderea, bertze norapait joaiteko aholkua emaiten dautzut, ezen ikusten duzu, bi jaun horiek igurikan baitira oraino, erran zuen ni eta baratzezaina erakutsiz, eta gabinet bat baizik eztut, bertzeak antolatzen ari dira… Horrek pagatzale gaixto baten burua du, erran zuen "markestsak". Ezta hemengo jende mota, eztu garbitasunik, ez errespeturik, nik behar ukanen nuen anderearendako garbitzen oren bat eman. Haren bi sosez eztut dolurik.

Azkenean, oren-erdi luze baten ondoan, eta eskupeko batez halako dembora egona izanez ukana zuen ausarkeriaren ezabatzea etzuela bilkatuko gogoan, gibelera jo nuen "markestsak" erakutsiko zaukokeen erdainuko zati baten ez ukaiteko, eta bidexka batera sartu, baina emeki, amatxik errex bat nindezantzat eta bidea enekin

jarraik zezan. Laster hori zen gertatu. Uste nuen amatxik erranen zautala: "Igurika-arazi haut, esperanza diat eztitukala hala ere hire adixkideak huts eginen", baina etzuen hitzik erran, hala nola nun apur bat nahigabetua, ezpainindakon lehenik mintzatu nahi ukan; azkenean begiak haren gana goitituz, ikusi nuen, ene ondoan urrats egiten zuen batean, burua bertze aldera itzulirik zadukala. Oraino bihoztarra ukan zezan beldur nintzan. Hobeki behatu naukon eta zuen urrats jauzikatuari ohartu. Xapela zeharka zuen, bizkarrekoa zikindua, bazituen karrosa batek bultzakatu edo izaka batetik athera den norbaiten itxura nahasia eta khexua.

- Bihoztarra ukan eztuzunez beldur izan niz, amatxi: hobeki sendi zirea? erran naukon.

Uste ukan zukeen ezin zezakeela, ni khexatu gabe, ez ihardets.

- "Markestsaren" eta baratzezainaren solasaldi guzia etzun diat, erran zautan. Ezin gehiago "Guermantes" zen eta "Verdurindarren multzo ttipi". Jainkoa! hitz zein galantetan ziren gauza horiek ezarriak. Eta gaineratu zuen oraino, arthamenekin, bere markestsaren, Sévigné-ko Anderearen hau: "Haien entzutean uste nuen goraintzi baten goxatasunak antolatzen ari zauztatela."

Horra erran zautan solasa, hartan ezarriak baitzituen bere xorroxtasun guzia, aiphaldietako gostua, klasikoetako orhoita, ohian egina ukanen zuen baino ere gehiago eta horren guziaren ontsa jabe zela erakusteko bezala. Baina erranaldi horiek, entzun nituen baino gehiago asmatu nituen, hain zituen erran mintzo murdurikatu batekin eta hortzak tinkatuz goitikatzeko beldurrak erran nahi ukan zezakeen baino gehiago.

- Goazen, erran naukon arinki haren alditxarra serioskiegi hartzen nuela ez iduri ukaiteko, bihoztar apur bat baduzunaz geroz, nahi baduzu etxera sartuko gira, eztut Champs-Elysées-etan ibil-arazi nahi janondo gaixtoa duen amatxi bat.

- Enindaikan eskaintzera menturatzen hire adixkiden gatik, ihardetsi zautan. Gaixo haurra! Baina nahi dukanaz geroz zuhurrago duk.

Hitz horiek nola ahozkatzen zituen ohar zadin beldur izan nintzan.

- Hea, erran naukon idorki, bihotzean min duzunaz geroz, mintzatzen etzaitela akhi, arrazoingabe da, sartuak izan gaiten zaude bederen.

Irriño egin zautan trixteki eta eskua tinkatu. Berehala hartua zuen asmatua nuena etzizatala gorde behar: odol ukhaldi ttipi bat ukana zuela.

(*) *Parentesiekilako arte-izenburuak ituzltzaleak emanak dira.*

II

KAPITULU LEHENA

Amatxiren eritasuna. - Bergotte-ren eritasuna. - Dukea eta medikua. - Amatxiren beherapena. - Haren hiltzea.

Berriz iragan ginuen Gabriel ethorbidea, ibiltzale aldearen artetik. Amatxi alki batean jarr-arazi nuen eta aloka-karrosa baten bila joan. Hura, haren bihotzean jartzen nintzalarik beti balio gutienik zuen jendearen jujatzeko, hetsia zizatan orai, kampoko munduaren zati bat bilakatua zen, eta iragaile xoil batzuer ere baino gehiago, bortxatua nintzan haren izanaraz gogatzen nuenaren, ene goganbeharraren hari gordetzera. Enindaukon mintzatzen ahalko arrotz bati baino konfienxia gehioagorekin. Itzuliak zauztan orai hauzaroaz geroz betiko segeretuz emanak nauzkon gogoetak, griñak. Etzen oraino hila. Bakarrik nintzan jadanik. Eta Guermantes-tarrer, Molière-ri, guk multxo ttipiaz ukanak ginituen solaser egin aieru horiek ere, hartzen zuten bermagailu gabeko, arrazoin gabeko, izaitegabeko itxura bat, jalgitzen zirelakotz, bihar behar bada, izaiterik ukanen etzuen izaite hortarik beretik, harendako erran-nahirik batere ukanen etzutenetik, amatxi sarri - horien gogatzeko ahalik gabe - izanen zen ezteus hortarik.

- Jauna, eztut erraiten, baina hitzartzerik enekin eztuzu hartu, zenbatik eztuzu. Bertzela ere ezta ene konsultako eguna. Zure medikua badukezu. Haren lekua eztezaket har, ezpadauta bederen konsultara dei egiten. Eginbidezko gauza da…

Aloka karrosa bati hel egiten ari nintzanean, E. erakasle aiphatua aurkitua nuen, aita eta aitatxiren abantzu adixkidea, zer nahi den haiekin adixkidantzan, Gabriel ethorbidean bizi zena, eta bapateko ideia batez hartua, sartzen ari zen orduan geldi-arazia nuen, ustez eta aholku ezin hobekoa izanen zen behar bada amatxirendako. Baina, lehiatua, bere eskutitzak harturik, gibelera igorri nahi ninduen, eta enindakon mintzatu ahal izan harekin igangailua hartuz baizik, hartako botoinen erabiltzera utz nezan galdegin baitzautan, haren bitxikeria zen.

- Baina, Jauna, eztut amatxi har dezazun galdatzen, zer erran nahi dutan gero entzunen duzu, ezta biziki heinean, galdatzen dautzut aldiz hemendik oren erdi bat barne gure etxera itzuli bat egin dezazun, hara sartua izanen baita.

- Zure etxera? baina, Jauna, ezin dateke. Salerospeneko Minixtroaren etxean auhaltzen niz, aitzinean ikustaldi bat egin behar dut, janztera banoa berehala; zorigaitz mukurruz, ene jantzi handia urratua izana da eta bertzeak eztu botoin-xilorik ohorezko agerien ezartzeko. Othoizten zitut, igangailuaren botoinen ez hunkitzeko atsegina egidazu, erabiltzen eztakizu, orotan zuhur izan behar da. Botoin xilo horrek berantean ezarriko nau oraino. Azkenik, zure etxekoendako adixkidetasunez, zure amatxi orai berean jiten baldin bada, hartuko dut. Baina jakin-arazten dautzut eztutala hari emaiteko oren laurden bat baizik ukanen.

Berehala berriz joana nintzan, igangailutik athera baino ere lehen E… erakasleak berak abian ezarria zuena ene jauts-arazteko, ez eni mesfidarekin so egin gabe.

Heriotzeko orena segurtasun gabea dela diogu bada, baina horren erraitean, oren hori gune uher eta urrun batean jarria bezala itxuratzen dugu, eztugu gogatzen jadanik hasia den egunarekin lotura baduela eta erran nahi ukan dezakeela herioa - edo gutaz haren jabetze lehena, horren ondotik ezpaikitu gehiago utziko - arratsalde hortan berean gertatzen ahalko dela, arratsalde hoin guti dudazko hortan, oren guzien erabilpena aitzinetik jarria den arratsalde hortan. Ibilaldiari atxikia izaiten da ilabete baten buruan behar den aire on guzia hartua izan dadin, eremanen den soingaineko baten hautatzeko dudan egona izaiten, karrosazainari hel egiteko; aloka-karrosan zira, eguna oso-osoan zure aitzinean, labur, andere adixkide baten ukaiteko ordu deno sartua izan nahi delakotz; biharamunean aroa hoin eder izan ladin nahi zinuke; eta ezta gogoari emaiten herioak, bertze eremu batean zure baitan baitzabilan, ilunbe ezin zilatu baten erdian, hain zuzen egun hori duela hautatua tauladan sartzeko, minuta zenbaiten buruan, nunbait han karrosa Champs-Elysées-etara helduko den orduan. Izan daiteke ohiki herioak duen berezitasun bitxiaren laztak goganbehartzen dituenek zerbait segurtagarri edirenen dutela heriotze mota hortan - herioaren lehenbiziko hunkitze mota hortan - itxura ezagun, etxekotu, egun orotako bat hartzen duelakotz. Aitzinean bazkari on bat ukana du, eta osagarria duten jendek badagiten atheratze bera. Ukan duen lehenbiziko ukhaldiaren gainera heldu da etxera karrosa idekian itzultzea; amatxi zen bezain eri izanik ere, oro har jende batzuek erranen ahalko zuten seiak hirian, Champs-Elyséees-etarik itzuli ginenean, agurtua zutela, karrosa idekian joanki, aro ezin ederrago batez. Legrandin-ek, Concorde-ko plazara buruz baitzoan, xapel ukhaldi bat eman zaukun, geldituz, itxura ustegabetua. Ezpainintzan ni oraino bizitik baztertua, amatxiri galdegin naukon ihardetsia zaukonez, Legrandin minbera zela orhoit-araziz. Amatxik, ontsa arin aurkitzen baininduken, eskua airera goititu zuen erraiten balu bezala: "Zer egiten du horrek? eztu muntarik batere."

Bai, arestian erraiten ahalko zen, karrosa bat bilatzen nuenean, amatxi alki batean jarria zela, Gabriel ethorbidean, apur bat berantago karrosa idekian iragana zela. Baina ontsa egina izanen zena? Alkiak, hark, ethorbide batean egoiteko - nahiz plomuan izaiteko kondizone batzuen menean den - gemen beharrik eztu. Bizidun bat aldiz geldian izaiteko, alki bati bermaturik ere ala karrosa batean, ohian giro tinkadura (alde orotara ari delakotz) hautemaiten dugun baino gehiago hautemaiten eztitugun indar batzuen zapaldiaren beharretan da. Gure inguruan hutsa egiten baliz behar bada eta aireko zapaldiaren jasaitera uzten bagine, sendi ginezake, gure suntsimenduaren aitzineko ephean, jeusek ezezta elezakeen phizu izigarria. Hala-hala, eritasuneko eta herioko lezeak aitzinean idekitzen zazkigunean eta mundua eta guhauren gorputza gainera harekin jauzten zazkigun nahasmenduari kontra egiteko ezer eztugunean, orduan gure ginarrien haztaren jasaiteko ere, munak xehakatzen dauzkun hotzikhararen ere, geldirik egoiteak ere, ohian gauza baten kontra-moldeko egonara xoila baizik eztela uste dugunean, orduan, baitezpada behar du,

burua zuzen atxiki nahi bada eta soa geldi, biziko gemena, eta gudu lehergarri baten gaia bilakatzen da.

Legrandin-ek itxura ustegabetu harekin behatua baldin bazaukun, hori da orduan iragaiten ari zirener bezala berari, alkixkan jarria iduri zuen aloka-karrosan, lezera lerratzen, hondatzen agertua zizakolakotz, haren soin ambildua doi-doia atxik zezaketen kuxiner lotzen, ileak nahasiak, begia galdua, ñiñika jasaitera heltzen etzizakon idurien jaukiteari ihardokitzeko ezinean. Nahiz ene ondoan izanki, agertua zen mundu ezezagun batean murgildua, arestian Champs-Elysées-etan ikusia nuenean haren hatzak ekhartzen zituen ukhaldiak jadanik ukanak zituelarik, harekin gudukatua zen aingeru ezin ikusiaren eskuaz xapela, begitartea, soinekoa makurtuak.

Geroztik gogoari eman dut odol-ukhaldiko ordu hark etzukeela amatxi osoki ustegabetarik hatzemana, behar bada luzaz aitzinetik ikusia zuela, igurikan egoitea ezaguna zuela. Dudarik gabe, ordu hilgarri hori noiz ethorriko zen etzuen jakina, segurtasun gabea baita, bere maitearen leialtasuaz arrazoingabeko itxaropen eta bidegabeko aieru batzuen aldizka ukaitera mota bereko duda batek deramatzan maitaleak bezalakoa. Baina bekan da eritasun handi horiek, hura azkenean aurpegi betean jo berria zuena bezalakoak, eztirela eriaren baitan luzaz jarriak izaiten hura hil baino lehen, eta egonaldi hortan eztituztela aski laster, auzo edo alokari "jendekin" batek bezala, harekin ezagutzak egiten. Ezagutza laztagarria da, emaiten dituen oinazez bizia hetara bortxatzen duen arau hertsituen berritasun bitxiaz baino gutiago. Nor bera hiltzen ikusten da, aldi hortan, ez heriotzeko ordu berezian, baina ilabeteak, batzuetan urteak lehenago, ezin itsuskiago gure baitan bizitzera jina denaz geroztik. Eriak ezagutza egiten du buru-munetan ibilki entzuten duen Arrotzarekin. Eiki eztu ikustez ezagutzen, baina erregularki egiten entzuten duen harrabotsetarik haren ohidurak ondoriotzen ditu. Gaixtagin bat dea? Goiz batez, eztu gehiago entzuten. Joana da. Ha! betikotz baliz! Arratsean, itzulia da. Zer ditu xedeak? Mediku konsultariak, galdez bortxatua, maitemindu bat bezala, zin eginez ihardesten du, egun batez sinetsia, egun batez dudan ezarria. Bertzela ere, maitearen jokoa egin orde, galdekatuak diren mutilena egiten du medikuak. Hor diren bertze jende batzu baizik eztira. Hertsatzen duguna, trahitzera doala aieru duguna, bizia bera da, hartan sinesten dugu oraino, zer nahi den dudan gaude, azkenean utziak gituen egunerano.

Amatxi ezarri nuen E… erakaslearen igangailuan, eta ephe baten buruan gure gana jin zen eta gabinetera sarr-arazi ginituen. Baina hor, zen lehiatua izanik ere, zuen itxura mokorra aldatu zen, hain dira ohidurak azkarrak, eta bazuen eriekin maitagarri izaitekoa, berdin ere jostakin. Amatxi biziki leteraduna zela baitzakien eta bera hala baitzen ere, hasi zizakon bizpahirur minutaz ari zen Uda arraiaz neurtitz eder batzuen erraiten. Jargia batean ezarria zuen, bera itzal-argian, haren ontsa ikusteko moldez. Ikherraldia ximena izan zen, ephe batez jalgi nindadin behar izan zen ere. Jarraiki zuen oraino, gero bururaturik, berriz hasi zen, nahiz oren laurdena azkenera zoan, amatxiri aiphamen batzuen erraiten. Irri-solas aski xorrotx batzu ere egin zauzkon, nahiago nituenak bertze egun batez entzun, baina medikuaren doinu jostatuaz osoki segurtatu nindutenak. Orduan orhoitu nintzan Fallières Jaunak,

Zenatuko presidentak, ukana zuela, urteak eta urteak lehenago, odol-ukhaldi falsu bat, eta haren burkiden etsipenean, hirur egun berantago berriz hasia zela bere karguen hartzen eta ari zela, ziotenaz, Errepublikako presidenziarako galdegite guti edo aski urrundu baten prestatzen. Amatxiren sendatze laster batean nuen konfienxia are gehiago osoa izan zen nun, Fallières Jaunaren behazunaz orhoitzen nintzan orduan, hurbiltze hortako gogamenaz urrundu izan bainintzan E… erakaslearen jostakeria bat bururatu zuen irri karkaila ozen batez. Hortan sakelako orena athera zuen, bekaina suharki zimurtu bortz minutaz berantean zela ikusiz, eta guri goraintzi erraitean jo zuen jantzia berehala ekhar zezoten. Amatxi aitzinean iragaitera utzi nuen, athea berriz hetsi eta jakintsunari egia galdegin.

- Zure amatxi galdua da, erran zautan. Uremiak eman-arazi odol-ukkaldia da. Bereaz, uremia ezta baitezpada gaitz hiltzale bat, baina aldia etsitua iduritzen zata. Huts egiten dutalako itxaropena dutala eztautzut erraitearen beharrik. Bertzela ere, Cottard-ekin esku ezin hobetan zirezte. Desenkusa nezazu, erran zautan gelari bat sartzen ikusiz besoan erakaslearen jantzi beltzarekin. Badakizu Salerospeneko Minixtroaren etxean auhaltzen nizala, ikustaldi bat egin behar dut aitzinean. Ha! bizia ezta bakarrik arrosez, zure adinean uste den bezala.

Eskua eskaini zautan garaziarekin. Athea berriz hetsia nuen eta mutil batek gidatzen ginituen aitzin-gambaran, amatxi eta ni, haserrezko oihu handi batzu entzun ginituelarik. Gelariak ahatzia zuen botoin xiloaren egitea ohorezko ageriendako. Horrek oraino hamar minuta beharko zituen. Erakaslea beti erasian ari zen mailartean so nindagonean galdua zen amatxiri. Jende bakoitza ontza bakarrik da. Berriz etxera abiatu ginen.

Iguzkia beheiti zoan; sutan ezartzen zuen bizi ginen karrikara heldu gabe gure karrosak luzatu behar zuen bururatze gabeko karrika bat, haren gainera sartaldeko argiak igortzen zuen zaldi eta karrosaren itzala beltzez ageri baitzen, Pompeiko eltzeki batean bezala. Azkenean heldu ginen. Eria jarr-arazi nuen sartokian mailalde beherean, eta amaren abisatzera igan nintzan. Erran naukon amatxi apur bat ez ontsan sartzen zela, burxoratze bat ukanik. Ene lehen hitzetan, amaren begitartea igan zen etsipen alta jadanik hain onhartu baten goren-gorenera, nun gogoan hartu bainuen urtez eta urtez geroz egun dudazko eta azken bateko bere baitan pres-presta zadukala. Jeus etzautan galdatu; iduri zen, gaixtotasunak bertzen oinazen handiegitzea maite duen bezala, maitasunez etzuela ama biziki joa zela onhartu nahi, oroz gainetik adimendua hunkitzen zuen eritasun batek. Ama hotzikharan zen, begitartea nigarrik gabe nigarretan zuen, medikuaren bila joan zaiten erraitera laster egin zuen, baina Françoise-ek galdegiten baitzuen eri nor zen, etzuen ihardetsi ahal ukan; mintzoa zintzurrean gelditu zizakon. Enekin jautsi zen lasterka, aurpegitik ezabatuz zimurtzen zuen hipa. Amatxi beherean sartzeko kanapean igurikan zagon, baina entzun ginitueneko, jeiki zen, xutik egon, eskuaz amari jestu alai batzu eginez. Begitartea erdi inguratua naukon dentela xurizko mantalina batez, mailaldean hotz ukan etzezan zela erranez. Enuen nahi ama sobera ohar zizeen begitarteko gaizteari, ahoko makurdurari; ene oharpena debaldekoa izan zen: ama amatxiri hurbildu zizakon, haren eskuari bere Jainkoarenari bezala musu eman zuen, igangailurano airean ereman, moldegaitz izaiteko beldurrarekin,

ezagutzen duen baliosenaren hunkitzeko eztela gai sendi duen norbaiten xumetasuna hetan zen oharpen ezin handiago batzuekin, baina etzituen begiak aldi bakar batez goititu ez eriaren begitartera so egin. Haren ikusteak alaba khexarazi ukana ahal zuela harek gogoan ukan etzezan izan zen behar bada; behar bada buruz-burukatzera menturatu etzen oinaze azkarregi baten beldurrez; behar bada errespetuz, ezpaitzuen uste haizu zizakola ozarreriarik gabe begitarte adoratuan adimenduaren ahultze zenbaiten hatzari ohartzea; behar bada gero garbirik hobeki atxiki nahiz amaren egiazko begitartearen itxura, izpirituz eta oneziaz arraia. Horrela ziren bata bertzearen ondoan igan, amatxi mantalinaz erdi gordea, ama begiak bazterreratuz.

Anartean norbait bazen alaba ikustera menturatzen etzen amatxiren aurpegi aldatutik asma zaitekeena begiez uzten etzuena, hartara so balditu, ausart eta aitzinseinale gaixtodun bat emaiten zuena: Françoise zen. Ez etzuelakotz amatxi zinez maite (amaren hotzaz nagibaketua izana zen eta ere abantzu gaitzitua bere amaren besoetara nigarretan aurdikitzen ikusi nahiko zuelarik), baina halako ixuri bat bazuen beti aitzinetik gaitzenaren ikusteko, haurzarotik atxikiak zituen elgar baztertu behar dutela iduri duten bi berezitasun: sendi dutenaren gordetzea bilatzen eztuten jende xoilen ikustate eskasa, berdin ere hari ez ohartzea pollitago lizatekeen gorputzeko aldatze baten ikusteak hetan emaiten duen lazta mingarria, eta orratxen hegalak errotik atheratzen dituen laborarisaren idortasun soraioa, oiloer lephoaren bihurtzeko aldia ukanen duen baino lehen, eta oinazetan den haragiaren ikustean sendi duen atsegina gorde-araz lezokeen herabea eskas duenarena.

Amatxi, Françoise-ren artha betegineri esker, etzana izan zenean, biziki errexago mintzo zela ohartu zen, uremiak egina zuen zain ttipi zenbaiteko urradura edo trabamendua biziki arina izana zatekeen. Nahi ukan zuen orduan amari ez hutsegin, hunek oraino iragan beharko zituen ephe bortitzenetan laguntza ekharri.

- He bada! alaba, erran zaukon, eskua hartuz, eta bertzea ahoaren aitzinean atxikiz idurizko arrazoin horren emaiteko hitz batzuen erraiteko oraino zuen neke arinari, horra nola dunan amaz urriki hartzen! janondo gaixto bat eztela gozagaitz uste dunala iduri dun!

Orduan lehen aldikoz amaren begiak amatxirenetan gelditu ziren gartsuki, begitarteko gaineratekoa ez ikusi nahiz, eta erran zuen ezin atxik dezazkegun hitzemaite gezurrezko haien zerrenda hasten zuela:

- Ama laster sendatua izanen zira, alabak dautzu bitzemaiten.

Eta bere maitasun azkarrena, ama senda zakidion borondate guzia haren gomendiotan ezartzen zituela, bere gogoaz, izaite guziaz haren ezpainen hegirano lagundu zuen musu batean, haren emaitera joan zen lañoki, deboki, bekoki adoratuan.

Amatxi deitoratu zen beti alde berean, ezkerreko zangoaren gainean egiten zen halako estalgi metatze batez, eta goititzera hel etzaitekeenaz. Baina etzen ohartzen berak zuela hori egiten, hala nola nun egun oroz Françoise zuzengaizki salatzen baitzuen ohearen gaizki antolatzeaz. Mugimendu daldarikatu batez, alde hortara botatzen zuen ile arinezko estalgi haguntsuen uhain guzia, han metatzen

baitziren itsas-adar laster ondartzera aldatu batean bezala (ezponda bat ezpazen eraikitzen) itsas-goratzearen ekharpen jarraikiez.

Amak eta nik - Françoise-ek, oharti eta laidagarri, gure gezurra aitzinetik argiki zilatua baitzuen -, ezkinuen erran nahi ere amatxi larriki eri zela, horrek atsegin eman balaue bezala hark bertzela ere etzituen etsaier, eta etzoala hain gaizki aurkitzea amultsuago izanen baliz bezala, oro har sobera maite ukanez Andrée-k Albertine sobera urriki zuela uste ukan-arazia zautan asmuzko sendimendu beraz. Jende berezietarik guzietarano gauza berak gertatzen dira gaitzaldi handietan. Gerla batean bere herria maite eztuenak eztu hartaz gaitzik erraiten, baina galdua dela uste du, deitoratzen, gauzak beltzez ikusten ditu.

Françoise-ek zerbitzu ezin handiagoa emaiten zaukun lorik gabe egoiteko, lan idorrenen egiteko zuen dohainaz. Eta gau andana batzu zutik eman ondoan etzatera joana zenean, lokartu eta oren erdi bat berantago haren deitzera joan behar baldin bazen, hain zen zorionean gauza nekagarri batzu munduko errexenak izan balire bezala egin ahal ukaiteaz nun, mutur egitetik urrun, begitartean gozaldia eta lañotasuna baitzuen erakusten. Bakarrik mezako ordua jiten zenean, eta askarikoa, amatxi azken hatsetan izan baliz ere, Françoise aski goiz itzaliko zen ez berantean izaiteko. Etzaitekeen bere mutil jantzi gazteaz ordaindua izan eta etzuen nahi. Eiki ekharria zuen Balbec-etik bakoitzak guri zor zauzkun eginbiden ideia biziki gora bat; norbaitek "behar bezala egin" etzezakun etzuen onhartuko. Horrek egina zuen hartaz erakasle bat hain noblea, manukaria, eragingarria, nun behin ere ezpaitzen izana gure etxean sehi aski gaitzera emanik biziaz zuen ideiaren ez berehala aldatzeko, garbitzeko, "liberatiko sosaren" ez gehiago hunkitzerano, eta lasterrez - ordurano hain guti zerbitzu eginak izanik ere - eni eskuetarik den paketa ttipienaren hartzerano eta ekhartzen ez akhitzera uzterano. Baina, Combray-n ere, Françoise-ek hartua zuen - eta Parisera sartua - bere lanean edozein laguntzaren ez jasan ahal ukaiteko ohidura. Eskukhaldi baten ezkaintzen ikustea laido bat zizakon, eta sehi batzu asteak eta asteak egon dira haren ganik goizeko agurrari ihardeste bat ukan ahal gabe, lanartetara joan ere hark goraintzi bat erran gabe eta hori zertako zen hek asmatu gabe, egiazki haren lanetik apur bat, hura ez ontsan zen egun batez, egin nahi ukana zutelako arrazoin bakarraren gatik. Eta amatxi hoin gaizki zen ordu hartan, Françoise-ren egitekoa bereziki berea iduritzen zizakon. Etzuen nahi, hark kargudunak, besta handi egun horietan, bere jokaldia ebastera utzi. Hortako mutil jantziak, harek bazterturik, zer egin etzakien, eta, Victor-ek bezala, ene bulegoan paperraren hartzea ez aski ukanik, hasia zen, gainera, ene liburutegitik neurthitz bilduma batzuen eremaiten. Irakurtzen zituen, egunaren erdi on batean, eginak zituzten poeten mirestez, baina ere, astia bazuen gainerateko demboran, bere herrixkako adixkider izkiriatzen zezteen ezkuthitzen artetan aiphamen batzuen ezartzeko. Eiki, horrela lilluratuko zituela uste zuen. Baina, gogoetetan guti jarraikia baitzen, hau moldatua zuen: ene liburutegian ediren poema horiek jende guziaz ezagunak zirela eta hetara joaitea ohikoa zela. Hala nola nun baldituko zituela uste zuen laborari haier izkiriatzean, bere oharrak Lamartine-ren neurtitz batzuez artekatzen baitzituen, erranen zuen bezala: biziko denak ikusiko, edo ere: egunon. Amatxiren oinazen gatik morfina haizu utzi zizakon. Zorigaitzez hunek eztitzen

baldin bazituen, albumina izaria handitzen zuen ere. Amatxiren baitan jarria zen gaitzarendako begiratzen ginituen ukhaldiek makur joiten zuten; hark, artean zen haren soin gaixoak zituen hartzen, auhen ahul bateko zinkurina baizik ez eginez. Eta emaiten ginauzkon oinazeak etziren egin ginezakokeen on batez ordainduak. Suntsitu nahi ukana ginuen gaitz abrea, doi-doia hunkitua baldin baginuen, ezkinuen gehiago sumintzen baizik, aitzinatuz behar bada gatibua iretsia izanen zen orena. Albumina izaria azkarregia izana zen egunetan, Cottard-ek zalantzan egonik morfinarendako eza emaiten zuen. Gizon hain baliogabe, hain bierarteko hartan bazen, deliberatzen ari zen ephe labur horietan, arthamendu baten edo bertzearen lanjerrak, batetan geldituko zen arteo, haren baitan aharran zirenetan, jeneral baten handitasun mota, gainerateko bizian arrunta izanez, erabaki duenaz hunkigarri izaiten baita aberriaren zoria jokatzen ari den orduan, ephe batez dudan egon eta, gerlako zuhurrena denetik bururatzen duenean eta erraiten: "Iguzkialdera buruz." Medikuntzaren aldetik, uremia gaitzaldi horren gelditzeko hain guti itxaropen izanik ere, giltxurrina etzen akhitu behar. Baina, bertze aldetik amatxik morfinarik etzuenean, oinazeak ezin jasanak bilakatzen ziren; ethengabe berriz hasten zuen auhenik gabe egiteko neke zizakon mugimendu bat: oinazea, zati handiz, khexatzen duen izanara berri batez konzienzia hartzeko, izanara horri sendikortasunaren egokitzeko soinak duen halako behar bat da. Oinazearen ethorki hori ezagun daiteke guziendako hala eztiren ez ontsa batzuetan. Usain sarkor batekilako kheaz betea den gambara batean, bi gizon arrunt sartuko dira eta bere egitekoetan ariko; heren batek, jitez beratzagoa, ethengabeko nahasmendu bat salatuko du. Haren sudurrak antsiarekin gelditu gabe hartuko du ez senditzera, iduriz, entseatu behar lukeen usaina eta, ezagutze zuzenago batez, bere usain senditze gaizkituari eratxikaraztera indar eginen duena. Hortik dathorke goganbehar bizi batek debekatzen duela hortz-errabia batez zinkurina egitea. Amatxi horrela oinazetan zenean, izerdiak bazarion haren bekoki malba-koloretik, ile xuri xerloak hartan lotuz, eta gambaran ezkinela uzte bazuen, oihuak egiten zituen: "Ha! izigarri da!", baina ama ikusten bazuen, orduan gemen guzia bazerabilan aurpegitik oinaze hatzen ezabatzen, edo, aldiz, auhen berak errepikatzen zituen argipen batzuekin lagunduz gibelara behatuz bertze erran-nahi bat emaiten baitzaueten amak entzunak ahal zituener:

- Ha! alaba, izigarri da, iguzki eder horrekin etzanik egoitea ibiltzera joan nahi lizatekeelarik, zuen manuen kontra errabiaz nigar egiten dut.

Baina etzezazkeen debeka behakoetako auhena, bekokiko izerdia, bere soinadarretako jauzte daldarikatu berehala geldi-arazia.

- Minik eztut, deitoratzen niz gaizki etzana nizalakotz, bihoztarra badut, harresiari kontra jo dut.

Eta amak, ohe zangoan, oinaze horri itzatua, bekoki minbera hura, gaitza gordetzen zuen soin hura, bere soaz zilatu nahiaren bortxaz, azkenean hartara heldu behar ukana balu bezala eta hura ereman, amak bazion:

- Ez, ama gaixoa, horrela sofritzera etzitugu utziko, zerbait aurkituko dugu, zekunda bat igurika ezazu, besarkatzera uzten nauzua zu higitu behar izan gabe?

Eta ohe gainera gurturik, zangoak plegatuz, erdi belhauniko, zori gehiago ukan balu bezala, lañotasunaren bortxaz, bere buruaren eskaintzearen onhar-arazteko, amatxiren gana begitartean bere bizi guzia beheititzen zuen eskaintzen zaukon ostia-untzi bat bezala, agerian xilo eta ximurdura hain amultsuez aphaindua, hain lastimatu eta eztiez, nun ezpaitzaitekeen jakin musu baten, hipa baten ala irriño baten xixelaz ziren marratuak. Amatxi entseatzen zen, hura ere, amaren gana begitartearen goititzera. Hanbatetarano aldatua zen nun ezpaitzatekeen, atheratzeko indarra ukana balu, xapeleko lumatik baizik ezagutuko. Haren aurpegiak, moldatzeko egonaldi batzuetan bezala, iduri zuen entseatzen zela, gainerateko guzitik baztertzen zuen indar batean, ezagutzen ezkinuen molde zenbaitetara berdintzen. Zizelkatzalearen lan hori bururatzera zoan; eta amatxiren begitartea ttipitua baldin bazen, gogortua zen ere. Zeharkatzen zuten zain beltzek iduri zuten, ez harbizi zenbaitenak, baina harri latzago batenak. Beti aitzinera gurtua hats-hartzeko nekearen gatik, aldi berean akhiduraz bere gana bildua, haren begitarte oiestu, ttipitu, laztagarriki errankorrak, iduri zuen, hastapeneko, abantzu ixtorio aitzineko gizaiduri, hilobietako zaintzale salbai zenbaiten aurpegi gogor, ubelaran, gorrail, etsitua. Baina etzen lan guzia bururatua. Gero, hautsi beharko zen, eta ondotik, hain nekez, tinkadura hain gogorrean zaindua zen hilobi hartara, jautsi.

Jendearen erranaren arabera zein sainduri hel egin eztakigun ephe horietarik batean, amatxi ainitz eztulka ari baitzen eta urtzinzka, X… jakintsunarekin hirur egunez salbu zela zion ahaide baten aholkuari jarraiki ginazkon. Munduko jendek hori diote bere medikuaz, eta beti sinesten dira Françoise-ek egunkarietako erreklamak sinesten zituen bezala. Jakintsuna jin zen bere bere eri guzien marrantez, Eole-ren zahagia bezala, kargatua zen bere untxiarekin. Amatxik ikhertzen uzteari garbiki ez erran zuen. Eta guk, debaldetan desarriñatua zen mediku horrendako jenatuak, onhartu ginuen gu guzien sudurren mihatzeko ukan zuen gutiziari amor emaitea, jeus etzutelarik alta. Baietz erran nahi ukan zuen, eta buruko min ala sabeleko, gaizki hartu den sudurreko erasuna dela. Gutarik bakoitzari erran zuen: "Horra berriz ikustea laket izanen zatan sudurreko hezurño bat. Ez sobera igurika. Su puntta batzuekin sendatuko zitut." Osoki bertze zerbait ginuen eiki buruan. Elgarri galdegin ginuen alta: "Zertarik sendatuko?" Hots gure sudur guziak eri ziren; etzuen huts egin gauza oraian ezarriz baizik. Ezen biharamuneko haren ikhertzeak eta anarteko loturak bere ondorioa ukan zuten. Gutarik bakoitzak ukan zuen bere kostoma. Eta karrikan aurkitu zuenean aita eztulka inharrosia, erdi-irriz hasi zen ez jakin batek uste ukan ahal zezalakotz gaitza haren egintzaren ondorioa zela gogoan. Jadanik eri ginen orduan ikhertuak omen ginituen.

Amatxiren eritasunak eman zauen jende batzuer adixkidantza soberakin edo eskas baten erakusteko aldia, ustegabetu baigininduten, batzuek edo bertzek hetaz aierurik ukanen ezkinuen gertaldizko edo berdin adixkidetasunezko gatinadurak agertzen zauzkutenen halabehar motak bezainbat. Eta ethengabe berri bila jiten ziren jendek erakutsi sendimenduek agertzen zaukuten ordu arteo amatxiren ondoan ukanak ginituen mila iduripen mingarrietarik aski berexia, baztertua ezkinuen gaitzaren seriostasuna. Depexaz abisaturik, haren ahizpek etzuten Combray utzi. Musikari bat aurkitua zuten gambarako musika hobereneko

entzunaldi batzu emaiten zezteena, musika horren entzutean uste baitzuten, eriaren oheburuan baino hobeki, bildutasun, gogo goititze mingarri bat aurkituko zutela, ezpaitziren moldean bitxiak iduritu gabe izan. Sazerat Andereak amari izkiriatu zaukon, baina ezkon-xede bapatez hautsiek (haustea dreyfusixma zen) behin betikotz haren ganik berexiak gituen norbaitek bezala. Aldiz Bergotte jiten zen egun oroz gurekin oren batzuen iragaitera.

Beti maite ukana zuen gasturik egiteko etzuen etxe ber batean ephe zenbaitez egoitera jitea. Baina lehenago moztua izan gabe elheketa artzeko zen, orai mintza zadin nehork galdegin gabe luzaz ixilik egoiteko. Biziki eri baitzen: batzuek zioten albumineriaz, amatxi bezala; bertze batzuen arabera minbizia zuen. Ahulduz zoan, nekez zuen gure mailaldea igaiten, nekezago oraino jausten. Nahiz barandari bermaturik ainitzetan behaztopatzen zen, eta etxean egonen zela uste dut ezpaliz atheratzeko ohiduraren, ahalaren osoki galtzeaz beldur izan, erne zelarik ezaguna nuen "bixarrarekilako gizon" hura, etzuen hain aspaldi. Etzuen gehiago batere ikusten, eta elhea ere ainitzetan trabatua zuen.

Baina horrekin batean, aldiz, haren lan guziek, bakarrik leteradunez ezagunak, Zuan Andereak haien hedatzeko egiten ziren indar herabeak laguntzen zituen aroan, orai ororen begietan handituak eta azkar, hartua zuten jende gehienean hedamenezko azkartasun ohigabeko bat. Dudarik gabe gertatzen da hil ondoan dela bakarrik idazle bat omenduna izaiten. Baina oraino bizirik eta hartara heldua etzen heriorako bide luzean bere lanek Omenera buruz egiten zutenaren lekuko zen. Hila den idazle bat akhitu gabe omendun izaiten da bederen. Haren izenaren eragin arraia hilobiko harrian gelditzen da. Betiereko loaren gortasunean, Ospeak eztu narda-arazten. Baina Bergotte-rendako kontra-gogoa etzen osoki bururatua. Harramantzaz oinazkatua izaiteko bazuen oraino aski bizi. Higitzen zen oraino, nekez bazen ere, haren liburuek, maite diren baina haien gaztetasun oldardunak eta atsegin harrabostunek akhitzen zituzten nexka gazte batzu bezala jauziz, egun oroz haren ohe zangorano miresle berri batzu bazematzatelarik.

Orai egiten zauzkun ikustaldiak zenbait urte berantegi heldu ziren enetako, ezpainun hainbertze miresten. Ezta hori haren omenaren handitze horrekin kontra-eginean. Idaz-lan bat bekan da osoki hartua eta irabazle, bertze idazle batena, oraino ilunbean, izpiritu behakorrago batzuen baitan, nagusi izaitetik abantzu gelditua denari miresmen berri baten ordezkatzen hasia izan gabe. Bergotte-ren liburuetan, usu berrirakurtzen nituenetan, haren erranaldiak nihauren ideiak, ene gambarako mubleak eta karrikako karrosak bezain argi ziren ene begien aitzinean. Gauza guziak errex ikusten ziren, beti ikusirik izanak ziren bezala ezpada, bederen orai ohiki ikusten ziren moldean. Idazle berri bat lan batzuen agerr-arazten hasia zen bada, hetan gauzen arteko loturak enetako lotzen zituztenetarik hain ezperdinak baitziren nun idazten zuenetik abantzu jeus ezpainuen hartzen. Bazion behazunez: "Ureztatzeko tutek miresten zuten bidetako antolamendu ederra" (et hori errexa zen, bide horien luzara banindoan lerraka) "bortz minuta oroz Briand eta Claudel-etik abiatzen zirenena". Orduan enuen gehiago hartzen hiri izen bat igurikatua nuelakotz eta jende izen bat emana zizatalakotz. Sendi nuen bakarrik etzela erranaldia gaizki egina, baina bururano joaiteko ni ez aski azkar eta zalu. Oldea

berriz hartzen nuen, beso eta zangoez neure burua laguntzen gauzen arteko arau berriak ikusiko nituen gunera heltzeko. Aldi bakoitz, erranaldiaren erdira nunbait han heldu eta, berriz erortzen nintzan, berantago erreximenduan "portika" deritzoten indar jokoan bezala. Enuen gutiago hala ere idazle berriarendako haur malestruk eta jimnaztikan, bertze trebeago baten aitzinean, zero emaiten zakon haur baten miresmena. Ordutik Bergotte gutiago miretsi nuen haren estilo argia eskasia iduritu baitzizatan. Aro bat izan zen gauzak ontsa ezagutzen zirena Fromentin-ek zituelarik margoztatzen eta gehiago ez Renoir-ek zituenean egiten.

Gostua duten jendek baderragute orai Renoir XVIII-garren mendeko margolari handi bat dela. Baina horren erraitean Aroa dute ahazten eta ainitz behar izan dela, XIX-garren mendean ere, Renoir edergile handi bat bezala agurtua izan dadintzat. Ezagutuak izaitera heltzeko, margolari eta edergile bereziki berriak, begietako medikuen moldean ari dira. Margazkiaz, hitz laxoaz egiten duten arthamendua ezta beti goxagarri. Bururatua denean, sendatzaleak erraiten dauku: orai so egizu. Eta horra nun mundua (ezpaita aldi batez egina izan, baina edergile berri bat gertatu den bezain usu) aitzinekotik osoki bertzelakoa agertzen zaukun, baina beteginki argia. Emazte batzu badoaz karrikan, lehengoak ez bezalakoak, Renoir batzu direnaz geroz, behin hetan emazte batzuen ikustea onhartzen ezkinuen Renoir horiek. Karrosak ere Renoir batzu dira, eta ura, eta zerua: nahi dugu oihan batean, lehen egunean oihan bat salbu zernahi - eta behazunez margo berexkuntza ainitzekilako tapizeria bat baina hain zuzen oihanetako margo berexkuntza bereziek hartan huts egiten zutena - iduritzen zizaikun hura bezalakoan ibili. Hori da egin berria izana den mundu berri iraungaitza. Margolari berri edo idazle berziki berria denak phiztuko duen ixtripu bortitzerano dute iraunen.

Bergotte enetako ordaindua zuenak akhitzen ninduen, ez araugabeaz, baina haier jarraikitzen ohitua enintzan loturen berritasun beteginki arautuaz. Hara berriz erortzen sendi nintzan uneak, beti berak, seinalatzen zuen egiteko zen indarraldi bakoitza berdina zela. Gainera, mila alditan batez idazleari bere erranaldiaren bururano jarraik ahal nindakionean, ikusten nuenak bazituen beti jostagarri bat, egia bat, goxagarri bat, lehenago Bergotte-ren irakurtzean aurkituak nituen bezalakoak, baina atsegingarriagoak. Gogoan nuen etzuela hainbertze urte munduaren berritze berdin bat, haren ondokoaren ganik igurikatzen nuena, Bergotte-ek zautala ekharria. Eta nihauri galdez nindagon egia zerbait bazenez ederlanaren, Homere-ren aroan baino aitzinatuagoa eztenaren, eta beti aitzinatzen ari den jakitatearen artean beti badagigun berexkuntzan. Badateke hortan ederlana, aldiz, jakitatearen idurikoa dela; idazle bereziki berri bakoitza aitzinean ukana zuenetik hobetzean iduritzen zizatan; eta nork zautan erraiten hogei urteren buruan, egungo idazle berriari akhitu gabe jarraikitzen jakinen nuenean, haren aitzinean oraikoa Bergotte-ren lerrora joanen zen bat etzela gertatuko?

Orduan idazle berriaz mintzatu nindakon. Hartaz higundu ninduen haren edergintza latza, errexa eta hutsa zela eni segurtatuz, huts egiteranokoan Bloch-en idurikoa ikusia zuela erranez baino gutiago. Iduri hori agertu zizatan handik goiti idazle berriaren orrialdetan, eta haren aditzeko nekearan hartzera enintzan gehiago bortxatua senditu. Bergotte hartaz gaizki mintzatua baldin bazizatan, gutiago zen,

ene ustez, haren ongi heltzeaz bekaizti zelakotz haren lana ezagutzen etzuelakotz baino. Jeus etzuen abantzu irakurtzen. Jadanik haren gogamenaren gehiena burumunetik liburuetara iragana zen. Hetaz operatua izana baliz bezala mehatua zen. Ume egiteko asmuak etzeraman gehiago egintzara, abantzu gogoan zuen guzia orai kampora emana zuenaz geroz. Bazeraman eriondo baten, haur ukan baten bizi landarena bezalakoa; haren begi ederrak geldirik zauden, erdi lilluran iduri, itsas-baterrean etzana den gizon batenak bezala, amets nahasi batean uhain ttipi bakoitzari bakarrik beha. Bertzela ere, lehen ukanen nuen baino oharpen gutiago baldin banuen harekin solastatzean, enuen hortaz urrikirik sendi. Hain zen ohiduretako gizona nun lañoenak aberaskeriakoenak bezala, behin hartuak zituenetik, dembora zenbaitez behar-beharrezkoak bilakatzen baitzizazkon. Lehen aldi batez zerk erakharri zuen eztakit, baina gero egun bakoitz bezperan izana zelako arrazoinaz izan zen. Etxera heldu zen ostatura joana izan baliz bezala, mintza etzakidion, bera - ontsa bekan - mintza ahal zadin, hala nola nun gure bihotzminaz hunkia zela edo enekin solastatzea laket zizakolako seinale bat ezpaitzen oro har ukaiten ahalko, holako jarraikitasunetik zerbait ondorioztatu izan ahal baliz. Baina horrek ama hunkitzen zuen, eriarendako errespetutzat har zaitekeen guzia sendi baitzuen. Eta egun oroz erraiten zautan: "Oroz gainetik etzakala haren ontsa eskertzea ahatz."

Ukan ginuen - emazte baten arthamendu begiratua, margolari baten emazteak bi egonaldien artean emaiten daukun arratsaldeko askaria bezala - senarrak egiten zauzkunen gainerateko urrua, Cottard Anderearen ikustaldia. Bere "kamerixtaren" eskaintzera heldu zizaikun; gizon baten zerbitzua nahiago baginuen, bila abiatuko zen; eta, gure ezaren aitzinean, erran zaukun uste ukan nahi zuela etzela hori bederen gure aldetik "gibelera egite" bat, hitz horrek haren munduan erran nahi baitu gomit baten ez onhartzeko estakurua. Segurtatu zaukun medikua, bere eriez etxean ehoiz etzelarik mintzatzen, bere emazteaz izan baliz bezain trixte zela. Berantago ikusiko da, hori egia izana baliz ere, aldi berean biziki guti eta ainitz izanen zela, leialtasun gabekoena eta eskerronekoena zen senar baten aldetik.

Eskaintza berdin baliagarriak, eta eginaraz (adimendu goreneko, hihotz handieneko, eta erran moldean zorion arraro batekoez egina baitzen) ezin gehiago hunkigarriak, emanak izan zizaztan Luxembourg-eko duke-handiaren ondokoaren ganik. Balbec-en ezagutua nuen hara bere izaba baten, Luxembourg-eko prinsezaren ikustera jina baitzen, etzelarik oraino Nassau-ko kondea baizik. Zenbait ilabete berantago ezkondua zen Luxembourg-eko bertze prinzesa baten alabarekin, ezin gehiago aberatsa irinetako afera gaitzeko baten jabe zen printze baten alaba bakarra zelakotz. Hortan Luxembourg-eko duke-handiak, haurrik ezpaitzuen eta iloba biziki maite, Gambararen ganik onharr-arazia baitzuen duke-handi ondoko aithortua izan zadin. Mota hortako ezkontza guzietan bezala, fortunaren ethorkia traba izaiten da, egin-arazten duena den bezala ere. Nassau-ko konde hortaz orhoit nintzan aurkitu ditutan mutiko gazte ohargarrietarik batez bezala, jadanik bere emaztegaiarendako maitasun ilun bezain bizi batez suntsitua. Biziki hunkia izan nintzan gelditu gabe amatxiren eritasunean izkiriatu zauztan

eskutitzez, eta amak ere, beraztua, errepikatzen zuen bere amaren hitz hau: Sévigné-k etzuen hobeki erranen.

Seigarren egunean, amak, amatxiren othoitzer obeditzeko, ephe batez utzi behar ukan zuen eta alegia atseden hartzera zoala egin. Nahiko nuen, amatxi lokhar zadintzat, Françoise etzadin higi. Nik othoiztu arren, gambaratik jalgi zen; amatxi maite zuen; bere gogo argi eta gaitzenera itzuliarekin, galdua zela uste zuen. Ahal zituen artha guziak eman nahiko zauzkon beraz. Baina erran berria zen langile eletrikari bat bazela etxean biziki aspaldikoa, haren nagusiaten koinata, urtez geroz lan egitera jiten zen gure etxeko bizitegietan estimatua, eta oroz gainetik Jupien-ez. Langile hori manaturik izana zen amatxi eritu baino lehen. Iduri zizatan gibelera igortzen ahalko zela edo igurika-arazi. Baina Françoise-ren urrats-arauak etzuen hori onhartzen, gizon gaizo harendako etzuen behar den gixakotasunik ukanen, amatxiren izanara etzen gehiago bali. Oren laurden baten buruan, sumindua, sukaldera haren bila joan nintzanean, zerbitzuko mailaldeko trampan harekin solasean aurkitu nuen, athea idekirik, horrek baitzuen, gutarik norbait ethortzen baliz, alegia elgar uztera zoazila egiteko abantaila, baina aire ukhaldi itsusi batzuen igortzeko behargabea. Françoise-ek langilea utzi zuen beraz, ez alta komplimendu batzu oraino oihukatu gabe, ahatziak zituenak, haren emazte 'ta koinatarendako. Combray-ko arrangura berezia, jendetasunari ez huts egitea, Françoise-ek atzerriko politikarano bazeramana. Jende xoxoek uste dute gizarteko gertakarien neurri handiak gizakien ariman sartzeko aldi ezin hobeak direla; gogoan hartu behar lukete aldiz jende berezi baten barnetarano jautsiz luketela gertaldi horien hartzeko zoria. Françoise-ek errepikatua zaukon mila aldiz baratzezainari gerla gaixtaginkerietan eroena dela eta jeusek eztuela baliorik, biziak ezpada. Bada, gerla erruso-xaponesa hasi zenean, jenatua zen, Kzarrari buruz, ezpaiginen gerlan jarri "gaixo Errusoen" laguntzeko, "alianzatuak girenaz geroz" erran zuen. Etzizakon hori biziki gixako Nikolas II-garrenaren aldera, "guretako elhe hain onak" ukanak baitzituen beti; erregela beraren ondorioak zaukon debekatuko Jupien-en ganik baso ttipi baten ez onhartzea "lixeritzeari kontra eginen" zaukola bazakielarik, eta horrek zuen ere egiten, amatxiren heriotzeari hoin hurbil, Frantzia Xaponiari buruz ez alde ez kontra gelditurik ogendun jujatzen zuen desoneskeria beraren egitea uste zuela, bera desenkusatzera ez joanez hainbat desarrañamendu hartua zuen langile eletrikari on horren ondora.

Zorionez Françoise-ren alabaz biziki laster arinduak izan ginen aste batzuendako joan izan behar ukan baitzuen. Combray-n eri baten familiari emaiten ziren aholku ohitueri: "Eztuzu bidaia ttipi bat entseatu, airez aldatzea, jateko guraren berraurkitzea, eta b.", alaba horrek gainera emana zuen bereziki moldatua zuen ideia abantzu bakarra eta ikusten zen aldi oroz akhitu gabe errepikatzen zuena ere, bertzen buru barnean sartzeko bezala: "Behar ukanen zuen hastetik *errotik* arthatu." Etzuen arthamendu mota bat bertze bat baino gehiago gomendatzen, hastetik arthamendu hori *errotik* egina izan zadin ber. Françoise-ek aldiz, amatxiri erremedio guti emaiten zizakola ikusten zuen. Ezpaitira, zionaz, urdailaren andeatzeko baizik, zorionean zen, baina gehiago oraino gaitzitua. Baizituen Hegoaldean gusi batzu, hein batean aberatsak, haien alaba, gazte-gaztean eriturik,

hogei-ta hirur urtetan hila baitzen; urte horietan haren aitamak erremedioetan, medikuetan, sendaleku batetik bertzera ibiliz, heriotzerano, hondatuak ziren. Hori bada Françoise-ri, ahaide horien aldetik, halako aberaskeria bat iduritzen zizakon, lasterretako zaldiak, jauregiak ukanak balituzte bezala. Hek berek, hain lastimatuak izanik ere, hoinbertze gastuetarik zerbait urgulu hartzen zuten. Jeus etzuten gehiago, oroz gainetik ez ontasun baliosena, bere haurra, baina errepikatzea maite zuten harendako jende aberatsenek bezainbat eta gehiago egina zutela. Ubel-haratagoko arraiak, nexkato gaixoari emanak baitzizazkon egunean aldi bat baino gehiagotan, ilabetez eta ilabetez, bereziki ohoragarri zizezteen. Aita, bere bihotzminean halako loria batez urgulu hartzen baitzuen, bazoan batzuetan bere alabaz harendako hondatua izanen zen Operako jantzari izar batez bezala mintzatzerano. Françoise etzen hoinbertze itxura emaitera sendikor izan gabe; amatxiren eritasuna inguratzen zuena apur bat eskasa iduritzen zizakon, probinziako antzoki ttipi zenbaitetan erakutsi eritasun bateko ona.

Ordu bat izan zen uremiako nahasmenduek amatxiren begietara egin baitzuten. Zenbait egunez jeus etzuen gehiago ikusi. Begiak etzituen batere itsu batenak eta beti berdinak ziren. Eta ikusten etzuela hartu nuen bakarrik, athea idekitzen zeneko zuen ongi-ethorrizko irriño baten bitxitasunean, egunon erraiteko eskua hartua izanen zizakon arteo, irriñoa goizegi hasten baitzen eta ezpainetan beti berdin egoiten, geldi, baina beti agerian eta alde orotarik ikusia izaitera entseatuz, arautua izaiteko ezpaitzuen gehiago soaren laguntzarik, ordu onaren, alderdiaren jakin-arazteko, zuzenean ezartzeko, sartu berria zen jendearen itxuraren edo lekuz aldatzearen araura alda-arazteko; irriño hori bakarrik gelditzen baitzen, ikuslearen oharpena hartarik apur bat baztertuko zuen begietako irriñorik gabe, eta hortik hartzen baitzuen, bere moldegaitzean, balio handiegi bat, maitagarritasun soberatu baten iduripena emanez. Gero ikustea berriz jin zen eta gaitza begietarik beharrietara iragan. Zenbait egunez amatxi elkor izan zen. Eta jiten entzuna etzuen norbaiten bapateko sartzeaz ustegabetua izan beldur baitzen, noiz nahi (nahiz harresi aldera etzana) burua bapatez athe aldera itzultzen zuen. Baina lephoko mugimendua moldegaitza zen, aldakuntza hortara ezpaita egun zenbaitez jartzen, harrabotsetara behatuz ezpada, edo bederen begiekin entzunez. Azkenean oinazeak ttipitu ziren, baina elheko traba handitu. Amatxiri behar zizakon abantzu erraiten zuen guzia errepika-arazi.

Orai amatxik, zer erran nahi zuen ezkinakola hartzen sendituz, elhe bakar baten erraitea uzten zuen eta geldi-geldia zagon. Ikusten ninduenean, bazuen halako jauzi bat bapatez aireak huts egiten dauetenek bezala, baina etzuen adigaitzak ziren hitzik baizik ahozkatzen. Orduan, bere ahalgabeaz beraz hezia, burua berriz uzten zuen erortzera, ohean zabal-zabala etzaten zen, begitartea larri, harbiziz, eskuak mihise gainean geldirik, edo egintza osoki gauzetako batean ari hala nola oihalaz erhien xukatzen. Etzuen gogoetatu nahi. Gero ethengabeko nahasmendu batek hartu zuen. Beti jeiki nahi zuen. Baina egitera etzen uzten, ahal zen bezainbat, bere paralesiaz ohar zadin beldurrez. Bakarrik utzia izana zen egun batez, aurkitu nuen, xutik, gau mantarrean, leihoaren idekitzera entseatzen.

Balbec-en, urera jauzia zen alharguntsa bat, berak nahi gabean salbatua izana zen egun batez, errana zautan (higitua behar bada gorputzeko biziaren mixterioak, alta hain argi gabekoak, emaiten daukun aitzin-sendimendu batez, baina geroa itxuratzen duela iduri duenaz) nahi ukana duen heriotik etsitua den baten atheratzea eta berriz bere martiriora itzultzea bezalako bortizkeriarik etzuela ezagutzen.

Ezkinuen amatxiren hartzeko ephea baizik ukan, amaren kontra gudu abantzu abre bat atxiki zuen, gero, garhaitua, berriz jargian ezarria, nahi ukaitetik, urrikitzetik gelditu zen, begitartea berriz sorgor bilakatu zizakon eta hasi zen arthoski gainera emana zizakon soineko horratu batek gau-mantarrean utziak zituen ilen ekhentzen.

Soa osoki aldatu zen, ainitzetan khexu, deitoratua, galdua, etzen orai lehenago zuen soa, burua galdua duen emazte zahar baten so mutiria zen.

Orraztatua izan nahi zuenez galdeginaren bortxaz, Françoise-ek uste ukan zuen azkenean galdea amatxiren ganik heldu zela. Ekharri zituen brozak, orrazeak, Koloña-ko ura, mainuko jantzi bat. Bazion: "Eztu horrek Amédée Anderea akhituko; norbait den ahula izanik ere beti orraztatua izaiten ahal da." Erran nahi baitu: nehoiz eztela bat ahulegi bertze batek, bere aldetik, ez orraztatua ahal ukaiteko. Baina gambaran sartu nintzanean, ikusi nuen Françoise-ren esku bortizen artean, hau amatxiri osasunaren itzultzen ari izan baliz bezala loriatua, orrazeak hunkia izaitearen jasaiteko indarrik etzuen adats zaharraren deitoratzetan, buru bat, emaiten zizakon egon-moldea ezin atxikiz, erortzen indarren ahitzea oinazearekin aldizkatzen zen ethengabeko zirimola batean. Françoise-ek bururatua ukanen zuen ordua hurbiltzen ari zela senditu nuen baina enintzan lehiatzera menturatu erranez: "Aski da", desobedi etzezatan beldurrez. Baina lehiatu nintzan aldiz, amatxik onsa orraztatua aurkitzen zenez ikus zezan, Françoise-ek, maleziarik gabe abreki, miraila bat hurbildu zuenean. Zorionean izan nintzan lehenik ordu zeno miraila haren eskuetarik hartua ahal ukanik, amatxik, miraila oro arthoski hartarik urrundua baitzen, ezin itxura zezakeen bere aurpegia ikusia ukana zezan baino lehen. Baina, ondikotz! ephe bat berantago, haren gana gurtu nintzanean hainbertze akhitua zuten bekoki eder hari musu emaiteko, so egin zautan itxura ustegabetu, mesfidatu, gaitzitu batekin: eninduen ezagutua.

Gure medikuaren arabera burumunetako ukhaldia handitzen ari zelako seinalea zen. Arindu behar zen. Cottard dudan zagon. Françoise-ek uste ukan zuen ephe batez bantuza "klarifikatuak" ezarriko zirela. Zer ondorio zuten bilatu zuen ene hiztegian baina ez aurkitu. Bilatu balu "klarifikatuak"-en orde "zkarifikatuak" etzuen hitz hori ere aurkituko, ezpaitzuen *k* hizkian *z* hizkian baino gehiago bilatzen: alabaina "klarifikatu" erraiten zuen baina "ezklarifikatu" izkiriatzen eta beraz horrela izkiriatzen zela uste. Cottard-ek, horrek Françoise nahigabean utzi baitzuen, hautua, itxaropen ainitz gabe, itxainetara eman zuen. Zenbait oren berantago, amatxiren gambarara sartu nintzanean, haren garhondoari, pholtsuer, beharrier lotuak, suge ttipi beltzak bihurdikatzen ziren haren adats odolduan, Meduse-arenean bezala. Baina haren aurpegi hits baketuan, geldi-geldian, ikusi nituen zabal-zabala idekiak, argi eta ezti, lehenagoko begi ederrak (erasun aitzinean izanak ziren baino ere adimenduz behar bada beteagoak, zeren eta, ezpaitzaitekeen

mintza, ezpaitzuen higitu behar, begietan bakarrik baitzezakeen ezar bere gogamena, hartzen diren odol xorta batzuer esker bere baitarik sortzen den zerbait bezala berphitz daitekeen gogamena), begi olioa bezain goxo eta ubilak, hetan ageri zen su berriz phiztuak argitzen baitzuen, eriaren aitzinean, berriz beretua zuten mundua. Haren jabaldura etzen gehiago etsipenezko zuhurtzia baina itxaropena. Hobeki zoala hartzen zuen, zuhur izan nahi, ez higitu, eta egin zautan bakarrik irriño eder baten eskaintza hobeki sendi zela jakin nezan, eta eskua arinki zapatu.

Banakien amatxik ihizi batzuen ikustean zer desgustua zuen, are gehiago hetaz hunkia izaitean. Banakien balio goren baten arrazoinez zituela itxainak jasaiten. Beraz Françoise-ek sumintzen ninduen jostatu nahi den haur batekin egiten diren irriñoekin errepikatzean: "Ho! mamutxa ñimiñoak Anderearen gainean ibilki." Gainera, gure eriarendako errespeturik ez ukaitea zen, haurtua baliz bezala. Baina amatxik, aurpegiak bihoztun eztoika baten geldia harturik, etzuen iduri entzuten zuela.

Ondikotz! itxainak ekhendu orduko, odolaldia berriz hasi zen, gero eta azkarrago. Ustegabetua izan nintzan amatxi hain gaizki zen ordu hartan Françoise noiz nahi itzaltzen baitzen. Doluko jantzi bat manatua zuen eta jostuna ez igurika-arazi nahi. Emazte gehienen bizian, oro, bihotzmin handienean ere, jantzi entseatzeko gauza batera biltzen da.

Zenbait egun berantago, lo nindagolarik, ama deitzera jin zizatan gauaren erdian. Bihotzmin barnatu batek joiten dituen jendek, gertaldi handietan, bertzeren nahigabe ttipietako bada ere, erakusten dituzten oharpen eztiekin:

- Hire loaren nahastera jitea barka ezatak, erran zautan.

- Enindagon lo, erran nuen atzartzean.

On-onean erraiten nuen. Atzartzeak gure baitan ekhartzen duen aldakuntza gutiago da konzienziako bizi argira sartzea, gure adimendua, uren zola esneztatuan bezala, hartan zagon argi apur bat eztituaren ohoitzapenetik atheratzea baino. Duela ephe bat oraino hetan gaindi ginabilan gogoeta erdi estaliek sortzen zuten gutan mugimendu bat atzarri izaitea errana ahal ginezeentzat beteginki aski zena. Baina orduan atzartzeak orhoitmenaren artera sartzen dira. Guti berantago, loa deitzen ditugu eztitugulakotz gogoan atxiki. Eta, atzar orduan, lo denaren gibelean haren lo osoa argitzen duen izarrak distiratzen duenean, sinets-arazten dauko sekunda zenbaitez, ez lo, baina atzarri izaitea zela; izar iheslea egia erran, bere argiarekin gezurrezko izaitea eremaiten duena, baina ametsaren itxurak ere, eta atzartzen dena uzten bakarrik bere baitan erraitera: "Lo egin dut."

Eni min egin beldur zela iduri zuen mintzo hain ezti batekin, amak galdegin zautan jeikitzeak eninduenez sobera akhituko, eta eskua pherehatuz:

- Gaixo haurra, ehaiz orai aitari eta amari baizik egoiten ahalko.

Gambaran sartu ginen. Ohean inguru erdi batean gurtua, amatxitik bertze izaite bat, haren ileak hartuak ukanen zituen eta haren mihisetan etzana izanen zen halako zerbait, hats-bahi zen, auhenka ari, bere daldarez estalgiak inharrosiz. Betespalak hetsiak ziren eta idekitzen baino gehiago gaizki hesten zirelakotz ikustera uzten zuten ñiñika xoko bat, ilundua, beteritsu, gorputzeko ikuspen baten eta barneko oinazearen ilunbea itxuratzen zuela. Nahasmendu hori guzia etzen

guretako, ezkinituen ikusten, ez ezagutzen. Baina zerbait baizik ezpazen hor higitzen ari, nun zen amatxi? Ezagutzen zen alta sudurraren moldea, orai gainerateko aurpegiarekin arautzerik gabe, baina ixkinan sor-seinale bat loturik gelditua, eskua estalgien baztertzen lehenago estalgi horiek jenatzen zutela erran nahiko zuen baina orai ezer erran nahi etzuen jestu batekin.

Amak galdegin zautan ur eta ozpin xorta baten bila joan nindadin amatxiren bekokiaren bustitzeko. Frexkatzen zuen gauza bakarra zen. Baina jin nindadin kheinu egin zautaten athetik. Amatxi ezin gaizkiago zelako berria berehala etxe guzian hedatua zen. Sehien akhiduraren arintzeko ohigabeko aldietan - horrek egiten baitu agoniek bestatik zerbait badutela - jin-arazten diren mutil-orde hetarik batek athea idekia zaukon Guermantes-ko dukeari, hunek, aitzin-gambaran gelditurik, galdegiten bainiduen; enuen hari ihes egin ahal ukan.

- Jaun maitea, berri ilun horiek jakin berri ditut. Adixkidantzako seinalez nahi nuke zure aita jaunari eskua tinkatu.

Ordu hartan haren desarrañatzeko zen nekeaz desenkusatu nintzan. Guermantes-ko Jauna bidaiara abiatzean bezala erortzen zen. Baina hainbertze sendi zuen egiten zaukun ikustatearen handitasuna, nun horrek bertze guzia gordetzen baitzaukon eta saloinera nahi zuen baitezpada sartu. Bazuen gehienetan hetaz norbaiten ohoratzeko hartua zuen beharrezko urratsen osoki betetzeari atxikia izaiteko ohidura, eta malak eginak zirenez ala hil-khutxa prest axola guti zuen.

- Dieulafoy ekharr-arazi duzue? Ha! huts larria da. Eta galdegin bazinautate, ene gatik jinen zen, nahiz eza eman daukon Chartres-ko dukesari. Ikusten duzu, odoleko prinzesa baten gainean emaiten niz deplauki. Bertzela ere herioaren aitzinean oro berdin gira, gaineratu zuen, ez amatxi haren heineratzen zela eni sinets-arazteko, baina senditurik behar bada Dieulafoy-ren gainean zuen indarraz eta bera Chartres-ko dukesa baino gorago izaiteaz solasaldi luze bat etzela biziki gostu onekoa izanen.

Haren aholkuak eninduen ustegabetzen. Dieulafoy-ren izena, Guermantes-tarren etxean, beti aiphatzen zela banakien (doi bat errespetu gehiagorekin bakarrik) "hornitzale" parerik gabe batena bezala. Eta Mortemart-eko dukesa zaharrak (ezin hartua da zer gatik, dukesa batez ari deneko "delako dukesa zaharra" erraiten den, eta aldiz gaztea baldin bada, aire xorrotx eta Watteau-ren arako batean, "delako dukesa ttipia"), Guermantes sortuak, abantzu huts egin gabe gomendatzen zuen aldi larrietan, begi-klixka eginez, "Dieulafoy, Dieulafoy", hormagile baten beharra baliz "Poiré Blanche" bezala edo bixkotxa ttipiena "Rebattet, Rebattet". Baina enakien aitak hain zuzen Dieulafoy-ri hel egin berria zuela.

Orduan ama, amatxiren hats-hartzea errextu behar zuten otzigena balonen igurikan baitzen ezin egonean, bera sartu zen han Guermantes-ko Jauna aurkituko zuela batere uste etzuen aitzin-gambaran. Dukea nun nahi gorde nahiko nuen. Baina hark ustez etzela jeus behar-beharragorik, ama gehiago lausenga zezakeenik eta aitoren seme bete baten omenaren atxikitzeko baitezpadakoagorik, hartu ninduen bortizki besotik eta nahiz neure burua zaintzen nuen bortxatze baten kontra bezainbat, errepikatuz "Jauna, jauna, jauna", amaren gana ereman ninduen

erranez: "Nahi dautazua egin zure *ama* andereari aitzineratzeko ohorea", *ama* hitzean apur bat lerrakatuz. Eta hainbat zuen edireiten ohorea amarendako zela nun ezpaitzaitekeen egon irriño egin gabe aldiko behar zen itxura hartzen zuen batean. Enuen dukearen izendatzeaz bertzerik egin ahal ukan, horrek abia-arazi baitzituen gurtze, jauzi gurutzatu, eta agurreko zeremonia osoaren hastera zoan. Uste zuen ere solasaldian hasiko zela, baina amak, bere bihotz-minean ithoa, erran zautan laster jin nindadin, etzuen Guermantes-ko Jaunaren erraner ihardetsi ere, hau, ikustaldiz hartua izanen zela uste baitzuen eta aldiz aitzin-gambaran bakarrik utzia gertatuz, azkenean atheratuko baitzen, ezpalu, ordu berean, Saint-Loup sartzen ikusi, goizean berean Parisera ethorria eta berrietara lasterrez jina; "Ha! ontsa polliki da!" egin zuen alaiki dukeak iloba atheratzer zuen botoin batetik hartuz, aitzin-gambara berriz iragaiten zuen amaz axolatu gabe. Saint-Loup etzen, ene ustez, egiazko bihotzminean izanik ere, ene ikustetik baztertzeaz bereziki gaitzitua, enetako zuen gogoaren arabera. Joan zen, osabak eremanik, hunek, hari baitezpadako zerbaiten erran beharrean eta hortako Doncières-era abiatzekotan izanik, ezpaitzezakeen sinets holako desarrañamendu batez arindua izaitea: "Ha! erran balizatak korroilaren iragaitea aski ukanen niala eta hi hemen aurkituko, jostakeria handi bat zela usteko nian. Hire lagun Bloch Jaunak balerrakeen bezala, aski trufa-joko duk." Eta soingainetik zatxikan Robert-ekin urruntzen ari zen batean: "Berdin duk, errepikatzen zuen, urka sokatik hunki diatala ageri duk, edo holako zerbait; suerte ederra badiat." Etzen hori Guermantes-ko dukea gaizki ikasia zelakotz, ez batere. Baina bertzen lekuan ezin jar daitezkeen gizon hetarik zen, hortan mediku eta hilketari gehienen idurikoa, horiek, aldiak behar duen bezalako itxura bat hartu ondoan, eta "Ordu biziki mingarriak dira" erranik, beharrez zu besarkaturik eta atseden hartzeko aholkua emanik, ezpaitute agonia bat edo ehorzketa bat bilkura mundutar guti edo aski hertsi bat bezala baizik ikusten, hartan, ephe batez tinkan atxiki den alaitasun batekin, begiez bilatzen baitute hari bere afera ttipiez mintzatzen ahal diren norbait, bertze norbaiti aitzinera ditzan galdeginen edo bere karrosan "leku bat eskainiko" etxera "eremaiteko". Guermantes-ko dukea, ilobaren gana igorria zuen "haize onaz" goresten zen batean, hainbertze ustegabetua gelditu zen amak ongi-ethorria egina zaukon moldeaz, alta hain naturalaz, nun erran baitzuen berantago aita ontsa ikasia zen bezain gozagaitza zela, "hutsune" batzu bazituela hetan iduri baitzen erraiten zizakona etzuela entzuten eta haren ustez etzela bere baitan eta behar bada ere etzuela burua osoa. Nahi ukan zuen bizkitartean, erran zautanaz, hori zatiz "gertaldien" gainera eman, eta erran ama gertakari hortaz biziki "hunkia" iduritua zizakola. Baina zangoetan zuen oraino bururatzera utzia etzen agur eta gibeleratuzko gurren gainerateko guzia, eta bertzela ere amaren bihozmina nolakoa zen hain guti zen ohartzen nun galdegin baitzuen, ehortzeko bezperan, enintzanez haren libertitzera entseatzen.

Amatxiren koinata batek, ezagutzen enuena eta frailea, Austriara telegrafiatu zuen bere ordenako buruzagia han baitzen, eta, fagore bereziz, baimena ukanik, egun hartan ethorri zen. Trizteziaz lehertua, ohe ondoan ari zen othoitz eta meditazione irakurtzen alta begi itzatuak eriaren ganik baztertu gabe. Amatxi ezagutzarik gabe zen ephe batez, aphez horren trixteziaren ikusteak min egin

zautan, so egin naukon. Ene urrikiaz ustegabetua iduritu zuen eta orduan zerbait bitxi gertatu zen. Eskuak begitarte gainean bildu zituen meditazione mingarri batean murgildu gizon batek bezala, baina, haren ganik begien baztertzera nindoala oharturik, ikusi nuen erhietan artekaño bat utzia zuela. Eta, ene soek uzten ari zutelarik, ohartu nintzan haren begi zorrotza eskuetako gerizapen hortaz baliatua zela ene bihotzmina zintzoa zenez ikusteko. Hor goaitan zagon kofesategi bateko itzalean bezala. Ikusten nuela ohartu zen eta berehala erdi idekia zuen sarea tinki-tinkia hetsi zuen. Berantago berriz ikusi dut, eta nehoiz etzen gutartean minuta hura aiphatu. Errangabean hitzartu zen goaitatzen ninduela enuela ikusia. Aphezaren baitan, ero sendatzalearenean bezala, bada beti juje inkestaritik zerbait. Bertzela ere, zein da adixkidea, hain maite izanik ere, gurearekin bat izana den haren iraganean, ahatziak dituzkeela sinestea errexago iduritzen zaukun minuta horietarik harekin izan eztenik?

Medikuak morfina pikura bat egin zuen eta hats-hartzea gutiago neke izan zadin otzigena balonak manatu zituen. Amak, medikuak, serorak eskuetan zaduzkaten; bat hustua zeneko, bertze bat emaiten zizaien. Ephe batez gambaratik jalgia nintzan. Sartu nintzanean halako mirakulu baten aitzinean bezala gertatu nintzan. Murmurika ethengabeko batez eztiki lagundua, amatxik iduri zuen gambara betetzen zuen kantu luze zorionezko bat igortzen zaukula, erne 'ta musikari. Berehala hartu nuen etzela hori gutiago konzienzia gabekoa, aitzineko hil-gorronga bezain osoki mekanika zela. Airea hats-hodietan ez molde osoki berdinean joanez, hats-hartzean goratasunez aldatzeko ondorioa zen oroz gainetik. Otzigena eta morfinaren egintza bikunaz lagundua, amatxiren hatsak nekerik etzuen gehiago, ez auhenik, baina bixi, arin, bazoan, lerraka, aire atsegingarrira. Badateke hatsarekin, haizea xirula baten ttuttan bezain sendigaitz, kantu hortan hasperen gizatarrago batzu nahasten zirela, herioaren hurbiltzean liberatuak, oinazezko edo zorionezko iduripen batzu emaiten baitituzte jadanik senditzerik eztutenetan, eta doinu gozoago bat ekhartzen baitute, baina neurkada aldatu gabe, igaiten eta oraino goititzen zen aire luzeari, gero berriz erortzen, bulhar arindutik oldean otzigenaren bila berriz abiatzeko. Gero, hain gora heldu eta, hainbat indarrekin luzatua, kantu hark, atseginezko othoizte baten murmurikaz nahasia, iduri zuen artetan osoki gelditzen zela agortzen den ithurri bat bezala.

Françoise-ek, bihotzmin handi bat zuenean, sendi zuen haren erraiteko hain debaldekoa den beharra, baina hortako behar zen antze hain xoilik ukan gabe. Amatxi osoki galdua zuela jakinez, bere iduripenak zituen Françoise-ek ezagun-arazi nahi. "Horrek zerbait egiten dauta" errepikatzea baizik etzakien, aza saldatik sobera hartua zuenean "Urdailean badut phizu bat bezala" erranen zuen doinu berean, hori bi aldi horietan iduriz uste zuen baino naturalagoa baitzen. Hoin ahulki erranik ere, etzen gutiago haren bihotzmina biziki handia, larritua oraino bere alaba, Combray-n (erdainuz "basamortua" zeritzona eta bera han "basati" bilakatzen sendi) egoitera bortxatua, itxura guzien arabarera ezpaitzen ehortzeko zeremoniara jiten ahalko, ezin ederrago izan behar zuela sendi zuelarik. Guti mintzatzen ginela baitzakien, zer gerta ere Jupien aitzinetik deitua zuen asteko arrats guzietako.

Bazakien ehorzketako orenean etzela libro izanen. Nahi zuen bederen, handik itzultzean, hari "khondu eman".

Bazen gau andana bat aita, aitatxi, gure gusieterak bat beilan zaudela eta etxetik ez atheratzen. Haien artha jarraikiak ezaxola baten itxura hartzen zuen azkenean, eta agonia horren ondoan ethengabeko auhertasunak erran-arazten zezteen burdinbideko bagon batean luzaz egoitetik ezin berexiak diren solas hek berak. Bertzela ere gusiak (ene izaba-bitxiaren iloba) sustatzen zuen nitan merexi zuen eta gehenietan ukaiten zuen bezainbat aihergo.

Gertaldi larrietan beti hura "hatzemaiten" zen, eta hain zen hil-urranen ondoan jarraikia, nun familiek, osagarriz beratza zela ziotelarik, itxura azkarra, mintzo lodia eta zapur baten bizarra ukanik ere, othoi-othoizten baitzuten beti ohi diren itzul-inguru guziekin etzadin ehorzketara joan. Aitzinetik banakien amak, bihotzmin handienaren erdian bertzeak gogoan baitzituen, bertze molde batean erranen zaukola beti entzuten ohitua zena:

- Hitzematazu etzirela "bihar" jinen. Egizu hori "harendako". Etzaitela bederen "hara" joan. Etzaiten jin berak galdegina zauzun.

Guzia debalde zen; beti lehena zen "etxean", hortako emana zizakon "ez lore, ez korona" izen goitia, guk ezagutzen ezkinuena. Eta "orotara joan" baino lehen, beti "oro gogoan ukana" zuen, horren gatik hitz hauk emaiten baitzizazkon: "Zuri, etzaizu milesker erraiten".

- Zer? egin zuen mintzo azkar batekin aitatxik apur bat elkor bilakatua baitzen eta ezpaitzuen entzuna gusiak aitari errana zaukon zerbait.

- Jeus ez, ihardetsi zuen gusiak. Banion bakarrik goiz huntan ukana nuela eskutitz bat Combray-tik, han izigarriko ekaitza baitute, eta hemen iguzki bat abantzu beroegia.

- Alta aro-neurkina biziki aphal da, erran zuen aitak.

- Nun bada diozu ekaitza dela? galdegin zuen aitatxik.

- Combray-n.

- Ha! enau ustegabetzen, hemen ekaitz den aldi oroz, Combray-n eguraldi da, eta *vice versa*. Jainkoa! Combray-z mintzo zirezte: Legrandin-en abisatzeaz orhoitu dea.

- Ba, etzaitela khexa, egina da, erran zuen gusiak haren matela bizar azkarregi batez ilunduek irriño egin baitzuten hauteman gabean hortaz orhoitu izanik zuen gozoaz.

Ordu hortan aita tarrapatan abiatu zen, hobetze edo gaizkitze bat bazela uste ukan nuen. Bakarrik Dieulafoy medikua zen ethorria. Aita joan zen haren hartzera ondoko saloinean, hala nola antzokira sartu behar duen jokari bat. Galdeginik izana zen ez sendatzeko, baina ikusteko, halako notari bat bezala. Dieulafoy medikua sendatzale handi bat izana ahal da alabaina, erakasle miragarri bat; hautekoa izan zen jokabide horier guzier, bertze bat lotzen zauen berrogei urtez kontrakorik gabe izan zena, arrazoinkaria, zkaramuxa ala aita noblea bezain jokabide berezia, agoniaren edo herioaren ikustera jitea zena. Izenak berak aitzinetik erraiten zuen atxikiko zuen ofizioaren handitasuna, eta neskatoak erraiten zuenean: "Dieulafoy Jauna", Molière-ren etxean uste izanen zen. Egonararen errespetagarria laguntzen

zuen ohartzera utzi gabe soinara gozagarriak. Begitarte bereaz ederregi bat gertaldi mingarrietako egokitasunak eztitzen zuen. Maripulis beltz hain noblean, erakaslea sartzen zen, fazoinik gabe trixte, etzuen emaiten alegiakoa usteko zen dolumin bakar bat ez eta ere arteziari kontra egite den arinenik. Hil ohe baten zangoan, jaun handia hura zen eta ez Guermantes-ko dukea. Amatxiri so egin eta hura akhitu gabe, eta mediku ohiarendako ikustate bat zen begirune soberakin batekin, hitz batzu erran zauzkon aitari ahapetik, errespeturekin amaren aitzinean gurtu zen, senditu bainuen indar egiten zuela ez hari erraiteko: "Dieulafoy jaun erakaslea". Baina hunek burua jadanik itzulia zuen, nardatu ez nahiz, eta athera zen munduan den molde ederrenean, lañoki hartuz emaiten zizakon saria. Etzuen ikusia zuela iduri ukana, guhaur ere ephe batez emana ginaukonez galdeka egon ginen hain zuen inkaminari baten malgutasunarekin gorde-arazia, hortako konsultari handi maripulis luze zetaz horratuarekilako eta buru eder urrikalmendu noblez betearekilako bere seriostasunetik ezer galdu gabe, hori handiturik ere izaitekoz. Zituen eztiak eta bizitasunak bazerakusaten, ehun ikustaldi egin behar bazituen oraino, etzuela lehian zela iduri ukan nahi. Ezen artezia, adimendua eta onezia bera zen. Gizon goren hura zendua da. Bertze mediku batzuek, bertze erakasle batzuek berdindu ahal ukan dute, gainditu behar bada. Baina haren jakitateak, gorputzeko dohainek, ikustate gorenak irabazle egiten zuten "ofizio" hura, ezta gehiago, edukitzen jakin ahal duten ondokoen eskasaz. Ama etzizakon Dieulafoy Jaunari ohartua ere, amaxi etzen guziak izaiterik etzuen. Orhoit niz hil-herrian (hemen aitzinatzen niz), ama han ikusi baitzen, naturaz gaineko agertze bat bezala, hil-hobira herabeki hurbiltzen, hartarik jadanik urrun hegaldatua zen izaiteari beha zagola iduri, aitak erranik: "Norpois zaharra etxean izan da, elizan, harendako biziki balioduna zen bilkura bat huts egin du, hitz bat erran behar zinakoke, biziki hunki lezake", amak, embaxadorea haren gana gurtu zenean, nigarrik egina etzuen bere begitartea etzuen eztiki behititu ahal ukan baizik. Bi egun berantago, - eta berriz ere aitzinatzeko gero berehala eria azken hatsetan zen ohe ondora itultzeko - amatxi hilaren beila egiten zenean, Françoise-ek, arima herratuak bazirela ez batere ukhaturik ere den harrabots ttipienean izitzen baitzen, bazion: "Hura dela iduritzen zata." Baina izialduraren orde, eztitasun mugagabeko bat zuten hitz horiek amaren baitan phiztu, hainbat nahiko baitzuen hilak berriz itzul zaiten, bere ondoan batzuetan amaren ukaiteko.

Orai agoniako oren horietara itzultzeko:

- Badakizue haren ahizpek zer telegrafiatu daukuten? galdegin zuen aitatxik gusiari.

- Ba, Beethoven, erran dautate; kadrean ezartzeko da, enau horrek ustegabetzen.

- Ene emazte gaixoak hainbertze maite baitzituen, erran zuen aitatxik nigar bat xukatuz. Etzaie aiher izan behar. Ero hutsak dira. Beti errana dut. Zer da, otzigena ezta gehiago emaiten?

Amak erran zuen:

- Baina, beraz, ama berriz gaizki hats-hartzen hasiko da.

Medikuak ihardetsi zuen:

- Ho! ez, otzigenaren ondorioak oraino ephe on batez iraunen du, sarri berriz hasiko gira.

Iduri zizatan etzela hori hil-urran batendako erranen, eta, ondorio on horrek iraun behar bazuen, haren biziko zerbait egin zaitekeela. Otzigenaren xixtua zenbait minutaz gelditu zen. Baina hatsaren auhen zorionduna jalgitzen zen oraino, arin, nahasia, ez osatua, beti berriz hasten. Noiztenka, guziak egina zuela iduri zuen, hatsa gelditzen zen, ala lo denaren hatsean diren oktaba aldatze hetaz, ala geldi-arte naturalez, sendimen-galtzearen ondorioz, haskabetzearen aitzinatzez, bihotzeko ahuldura zenbaitez. Medikuak hartu zuen berriz amatxiren pholsua, baina jadanik, lats agortuari bazter ur batek bere emaitza ekhartzen balauko bezala, kantu berri bat lotzen zizakon aire geldituari. Nork daki, amatxi hortaz konzienziarik ukan ere gabe, oinazeak tinkan atxiki hainbertze aldi zoriondun eta xamur etzirenez orai haren ganik jalgitzen luzaz gibelera atxiki diren aire arin batzu bezala? Iduri zuen erran behar zaukun guziak bazariola, nasaitasun, lehia, ixuri harekin guri zizaikula mintzo. Ohe zangoan, agonia horren hats guziek daldarikatua, nigar egin gabe baina arteka nigarrez gainditua, amak bazuen euriak joiten eta haizeak itzulzen duen orstail gogamen gabeko baten desolamendua. Begiak xuka-arazi zauztaten amatxiren besarkatzera joan baino lehen.

- Baina uste nuen etzuela ikusten, erran zuen aitak.

- Ezin daiteke jakin, ihardetsi zuen medikuak.

Ene ezpainek hunki zutenean, amatxiren eskuak inharrosi ziren, hotzikhara luze batek hartu zuen osoan, ala nahigabeko jestu, ala xamurtasun batzuek badutelakotz bere sendikortasun soberakina, konzienzia gabearen lanho artetik maitatzeko abantzu sentsuen beharrik eztutena ezagutzen baitu. Bapatez amatxi erdi zutitu zen, indar bortitz bat egin zuen, bizia zaintzen duen norbaitek bezala. Horren ikustean Françoise-ek etzuen iharduki ahal ukan eta hipaka hasi zen. Medikuak errana zuena gogoan, gambaratik jalgi-arazi nahi ukan nuen. Orduan amatxik begiak ideki zituen. Françoise-ren gana laster egin nuen haren nigarren gordetzeko, gurasoak medikuari mintzatuko zizazkon batean. Otzigenaren hotsa ixildua zen, medikua ohetik urrundu zen. Amatxi hila zen.

Zenbait oren berantago, Françoise-ek ukan ahal zituen azken aldi batez eta minik egin-arazi gabe urdinzuritzen baizik ari etziren, eta orai arteo amatxik baino adin gutiago zutela iduri zuten ile eder hek orraztatu. Baina orai hek zuten, aldiz, bakarrik zaharraroko korona ezartzen berriz gaztetua zen begitartean, handik zimurrak, kontra-eginak, lodidurak, gogordurak, ahuldurak, hainbertze urtez geroztik oinazeak ekharriak zauzkonak itzaliak zirenean. Bere aitamek senar bat hautatua zaukoten aro urrunduan bezala, garbitasunak eta obedienziak arinki marrazkitua zuten itxura hartua zuen, matelak dirdiran urtek emeki emeki suntsituak zituzten itxaropen garbi batez, zorionezko amets batez, alaitasun laño batez ere. Biziak joaitean eremanak zituen biziko nahigabeak. Hil ohe hortan, herioak, ertaroko zizelkatzaleak bezala, etzana zuen nexkato gazte baten itxuran.

KAPITULU BIGARRENA

Albertine-ren ikustaldia. - Ezkontza aberats baten aitzin-ikustea Saint-Loup-en adixkide batzuendako. - Guermantes-tarren izpiritua Parme-ko prinzesaren aitzinean. - Charlus-ko Jaunaren ikustaldi bitxia. - Gero eta gutiago dut haren nortasuna hartzen. - Dukesaren oski gorriak.

Nahiz etzen xoilki larrazkeneko arratsalde bat baizik, berphiztua nintzan, bizia ene aitzinean oso zen, ezen goizean, egun ezti andana baten ondotik, lanho hotz bat izana zen, eguerdi hirian baizik airatua etzena: bada, aro aldatze bat aski da munduaren eta guhauren berritzeko. Lehen, haizeak ene khebidean ufatzen zuelarik, trampan joiten zituen ukhaldiak entzuten nituen, *Ut minorreko Sinfonia* hasten duten zirite ukhaldi aiphatuen berdinak, halabehar mixteriozko baten deiak izan balire bezainbat bihotz-hunkidurarekin. Naturaren itxuraz aldatze orok bertzalakatze berdin bat eskaintzen daukute, gure gutizia berdinduak gauzen molde berriari arautuz. Lambroak, atzartzetik, nitaz egina zuen, egun ederretan giren izaite bazterrerakoiaren orde, gizon bere gana bildu bat, supazter xokoaz eta elgarrekilako oheaz gutiziatua, mundu bertzelako hortan Adame hozpil Eba etxekoi baten bila.

Baserri goiztiarr baten margo hautsaran eztiaren eta xokolet presa bero baten artean, atxik-arazten nuen, urte bat nunbait han lehenago Doncières-era eremana nuen gorputzeko, adimenduko eta moraleko biziaren berezitasun guzia, nitan moldatzen baitzuen, mendixka larrutu - ezin ikusia izanik ere beti hor zen - baten molde luzarakoaz harmaztatua, atsegin andana bat bertze orotarik osoki berexa, adixkide batzuer ezin errana, orkeztratzen zituzten iduripen elgarri aberaski josiek baitzituzten enetako eta nihaurek jakin gabean ezagun-arazten khondatzen ahalko nituen egintzek baino biziki gehiago. Ikuspegi hortan goiz hortako lanhoak murgildua ninduen mundu berria jadanik ezagutzen nuen mundu bat zen (ezpaitzaukon horrek egia gehiago emaiten) eta geroztik ahatzia nuena (horrek itzultzen baitzaukon bere berritasun guzia). Eta ikusi ahal nituen ene orhoitzak beretuak zituen lanho margazkietarik zenbait, bereziki "Goiza Doncières-en", ala lehen egunean kasernan, ala, bertze aldi batez, Saint-Loup-ek hogei-ta laur orenen iragaitera eremana ninduen auzoko jauregi batean: argi-hastean erridaua goititua naukon leihotik, berriz etzan baino lehen, agertuak zizaztan lehenbizikoan zaldizko bat, bigarrenean (urmael eta oihan baten bazter mehean, gainerateko guzia lanhoaren eztitasun berdin eta ubilean iretsia) karrosazain bat uhalen dirdiratzen ari, harresi margazki itsabasi batetik jalgitzen diren jende bekan batzu bezala, erdi-itzaleko nahasi mixteriozkoari jartzera bortxatua den begiarendako doi-doia berexkarri.

Ohetik nindagon orai orhoitzapen horier beha, berriz etzana bainintzan, zenbait egunendako Combray-ra joanak ziren aitamen ez hor izaiteaz baliatuz, Villeparisis-ko Anderearen etxean jokatzen zen antzerti ttipi baten ikustera joaiteko orduaren aiduru. Hek itzuli eta, enintzan behar bada egitera menturatuko; amak, amatxiren orhoitzapenarendako zuen errespetuko arranguretan, nahi zuen emanak zizazkon urriki seinaleak libroki eginak izan zaiten, zintzoki; atheraldi hori etzautan

debekatuko, etzuen onhartuko. Combray-tik aldiz, aburua galdeginik, etzautan ihardetsiko trixteki erranez: "Egik nahi dukana, zer egin behar dukan jakiteko aski handi hiz", baina ni Parisen bakarrik utzirik bere buruari erasian, eta ene bihotzmina beretik jujatuz, nahiko zuen harendako bere buruari ezetsiko zauzkon libertimendu batzu, eta bere ustez amatxik, oroz gainetik ene osagarriaz eta zainetako plomuaz axolatua, gomendatuko zauztanak.

Goizetik ur-berogailu berria phiztua zen. Haren harrabots gozagaitzak, noiztenka halako zotin bat eginez, etzuen ene Doncières-ko orhoitzapenekin iduririk batere. Baina nitan haiekin aurkitaldi luzatuak, arratsalde hartan, emanen zaukon haiekin halako egitea nun, orotako berogailua berriz entzunen nuen aldi bakoitz (haren ohidura apur bat galdurik), orhoit-araziko baitzauztan.

Etxean etzen Françoise baizik. Lanhoa joana zen. Egun hauts-koloreak, euri xehe bat bezala erortzen ari, ethengabe sare argal batzu josten zituen hetan igandeko ibilkariek iduri baitzuten zilharreztatzen zirela. Agertua etzen artikulu bat igorria nuenaz geroztik arthoski egun oroz eros-arazten nuen *Le Figaro* zangoetara egotzia nuen; iguzkirik ez izana gatik, argiaren indarrak seinalatzen zautan ezkinela oraino arratsalde erditan baizik. Leihoko erridau tulazkoek, eguraldiz izanen etziren bezala harro eta hauskor, bazuten orratxen hegalek eta Veneziako berinek duten eztitasunez eta phorroskatzezko nahaste hura bera. Are gehiago dorphe zizatan igande hartan bakarrik izaitea nun goizean eskutitz bat igorria bainaukon Stermaria-ko Andereñoari. Saint-Loup-eko Robertek, debaldeko entsegu mingarri batzuen ondotik amak ohaidearekin hauts-arazi ondoan, Marrokara igorria izana baitzen zenbait demboraz jadanik gehiago maite etzuenaren ahazteko, hitz bat izkiriatua zautan bezperan, hartan iragartzen baitzautan permisione biziki labur bateko Frantziara jite hurrana. Ezpaitzuen Pariseren hunkitzea baizik eginen (Rachel-ekin berriz adixkide zadin familia beldur zelakotz), jakin-arazten zautan, gogoan ukana ninduela erakusteko, Tanger-en aurkitua zuela Stermaria-ko Andereño edo izaitekotz Anderea, ezen hirur ilabeteren buruan ezkontza hautsia zuen. Eta Robert orhoitzen zen Balbec-en galdegina naukola emazte gaztearekin enetako hitzartze bat antola zezan. Enekin ontsa gogotik auhalduko zen, ihardetsia zaukon, berriz Bretainiara joan baino lehen, Parisen iraganen zituen egunetarik batez. Erraiten zautan Stermaria-ko Andereari laster izkiria nezon, Parisera jina baitzatekeen segurki.

Saint-Loup-en eskutitzak eninduen ustegabetua, nahiz enuen haren berririk ukana amatxiren eritasuneko demboran trahitzez eta fede gaixtoz salatua ninduenaz geroztik. Orduan biziki ontsa hartua nuen zer gertatua zen. Rachel-ek, haren bekaizkeriaren sustatzea maite baitzuen (eni aiher izaiteko arrazoin gaineragarri batzu bazituen ere) bere maitaleari sinets-arazia zaukon entsegu azpikari batzu eginak nituela, bera hor etzelarik, harekin adixkidantza batzuen ukaiteko. Itxura badu egia zela sinesten jarraikitzen zuela, baina haren maitatzetik gelditua zen, hala nola nun, egia ala ez, hori osoki berdin bilakatua baitzizakon, eta gure adixkidetasunak baitzuen bakarrik irauten. Berrikusia ukan nuelarik, bere erasiez mintzatzera entseatu nahi ukan nindakonean, ukan zuen bakarrik hartaz desenkusatzea iduri zuen erdi-irri on xamur bat, gero solasa aldatu zuen. Etzen hori

apur bat berantago, Parisen, Rachel batzuetan berriz ikusi behar etzuelakotz. Gure bizian egitate handi bat ukana duten jendeak, bekan dira bapatez handik behin betikotz jalgitzen. Artetan berriz han jartzera jiten dira (batzuek hetan maitasunaren berriz hastea dela uste ukaiterano) gero betiko utzi baino lehen. Rachel-ekin Saint-Loup-en haustea biziki laster gutiago mingarri bilakatua zizakon, bere maitearen diru galde ethengabekoek ekhartzen zaukoten atsegin jabalgarrier esker. Jelosiak, maitasuna luzatzen baitu, eztezake eduk idurimenaren bertze moldek baino biziki gauza gehiago. Bidaiara abiatzean eremaiten baldin badira bidean galduko diren hiruzpalaur iduri (Ponte Vecchio-ko Jandonijuane-lili eta eguerdi-loreak, eliza persiarra lanhoetan, eta bertze), mala jadanik betea da. Maite den emazte bat uzten denean, ontsa nahi ginuke, apur bat ahatzia den arteo, izan daitezkeen eta itxuratzen diren - erran nahi da hetaz jelos giren - hiruzpalaur ordaintzalen ontasuna bilaka eladin. Itxuratzen eztiren guziak jeus eztira. Bada, utzi den ohaide baten diru galde usuek eztautzute haren biziko ideia oso bat emaiten sukar gora bateko paperrek eritasunaz eman lezaketen baino gehiago. Baina bigarrenak eri delako seinalea lizatezke hala ere, eta lehenbizikoek bademate ustekeria bat, egia erran aski nahasia, utzi den edo uzten duen emazteak eztuela, ordaintzale aberatsetako, gauzia handirik aurkitu. Hortako galde bakoitza hartua da bekaizti baten oinazean eztitze batek emaiten duen bozkarioarekin, eta berehala diru igortze batzuez jarraikia, nahi baita jeusek eztezon huts egin maitalek salbu (itxuratzen diren hirur maiteletarik batek), nor bera apur bat sendatua izan arteo eta ondokoaren izena ahuldurarik gabe jakin daitekeeno. Batzuetan Rachel arratsean aski berant sartu zen maitale ohiari goizerano haren ondoan lo egiteko baimenaren galdatzeko. Gauza biziki eztia zen Robert-endako, ohartzen baitzen zenbat minki bizi izanak ziren hala ere elgarrekin, ikusiz bakarrik, berak ohearen erdi handi bat hartzen baldin bazuen, hura etzuela lo egiteko jeusetan jenatzen. Gogoan hartzen zuen hura hor bertze nunbait izanen zen baino gozokiago zela, bere adixkide zaharraren soinaren ondoan, horrela hotelean izan baliz ere - hartan ohitua den, han hobeki lo egiten den gambara lehenago ezagutu batean bezala. Sendi zuen bere soingainak, zangoak, bera guzia, harendako zirela, lo gabearen edo egiteko zen lanaren gatik sobera higitzen zenean ere, hain osoki ohikoak ziren gauza horien gatik nun ezpaitezakete jena eta haien senditzeak handitzen baitu oraino atsedeneko sendimendua.

Gibelera itzultzeko, hainbat gehiago nahasirik izana nintzan Saint-Loup-ek Marrokatik izkiriatua zautan eskutitzaz, nun irakurtzen bainuen lerroen artean argikiago izkiriatzera menturatua etzena. "Gombida dezakek nahi baduk gabinet berezi batera, zautan erraiten. Emazte gazte bat xoragarria duk, jite ezin hobekoa, elgar beteginki entzunen duzue eta aitzinetik segur nuk arratsaldi biziki on bat iraganen dukala." Gurasoak aste ondarrean sartzen baitziren, ebiakoitzean edo igandean, eta gero arrats oroz etxean auhaltzera ni bortxatua izanen, berehala izkiriatua naukon Stermaria-ko Andereari nahi zuen egunaren ezkaintzeko, ortzirale arteo. Ihardetsia zen eskutitz bat ukanen nuela, zortziak hirian, arratsean berean. Harano aski errex helduko nintzan, ikustaldi baten sokorria ukan baldin banu. Orenak solasaldiez inguratzen direnean, ezin izer daitezke, ez ikus ere, ezeztatzen dira, eta bapatez ihes egina zauzun gunetik ontsa urrun da gure oharpenaren

aitzinean aro zalu eta gorde-arazia berriz agertzen. Baina bakarrik baldin bagira, arrangurak, ordu oraino urrun eta gelditu gabe igurikatua gure aitzinera ekharriz, tiki-taka baten berdintasun eta usutasunarekin, orenak uzitzen ditu edo izaitekotz gehitzen adixkide batzuen artean khondatuko ezkinituen minuta guziez. Eta, ene gutiziaren berritzultze ethengabeaz, egun zenbaitez bakarrik Stermaria-ko Anderearen ondoan jastatuko nuen atsegin sutsuaren aitzinean ezarria, arratsalde hori, bakarrik bururatuko nuena, ontsa hutsa iduritzen zizatan eta ontsa gogoilungarria.

Artetan, goiti zoan igangailuaren hotsa entzuten nuen, baina bigarren batez jarraikia zen, ez itxarotzen nuenaz, ene estaian gelditzekoaz, baina bertze batez, osoki ezperdina, igangailuak bere bidearen jarraikitzeko egiten zuena gaineko estaietara oldean, ikustaldi bat igurikatzen nuenean hain usu ene estaiaren uztea erran nahi ukana zuelakotz gero gelditu baita enetako, gehiago ikustaldi gutiziarik enuenean ere, harrabots berez mingarri bat, hartan uzteko erabaki baten iduriak joiten zuena. Unhatua, etsitua, bere betiereko egitekoaz oren ainitzendako oraino hartua, egun hauts-kolorea ari zen nakarazko bere aphain-xerrenderiaren iruten, eta goibeltzen nintzan gogoan hartuz bakarrik buruz buru egonen nintzala bere lanean argiago ikusteko leiho ondoan jarria den eta gambaran den jendeaz axolatzen ezten andere langile batek baino gehiago ezagutzen eninduen harekin. Bapatez, nik joiten entzuna ukan gabe, Françoise athearen idekitzera jin zen, sarr-arazten zuela Albertine irriñoz ari, ixil, gixen, bere soinaren betean bazaduzkala, haien bizitzen jarraik nindadin antolatuak, ene gana jinak, hara nehoiz itzulia enintzan Balbec-en iragan egunak. Dudarik ezta, harekin ukanak ditugun harremanak - den ezteusenak izanik ere - aldatuak gertatzen diren norbait berrikusten dugun aldi oroz, bi aro dira elgarren aitzinera ekharriak. Maitale ohi bat adixkide bezala ikustera jin dakidigun beharrik ezta hortako, bizi mota bateko egunorokoan ezagutu dugun norbait Parisera ikustaldiz jin dadin aski da, eta bizi hura gelditua izan dadin, aste batez baizik ezpaliz ere. Albertine-ren begitarteko gune irri egile, galdekari eta jenatu bakoitzean, galde hauk errepika nezazkeen: "Eta Villeparisis-ko Anderea? Eta jantzako nagusia? Eta bixkotx-egilea?" Jarri zenean, haren bizkarrak iduri ukan zuen erraiten zautala: "Ori, ezta itsas-ezpondarik hemen, hala ere zure ondo-ondoan jar nadin onhartzen duzu, Balbec-en eginen nuen bezala?" Miragile bat iduri zuen eni Aroaren mirailaren eskaitzen. Hortan bekan berrikusten ditugun guziak, baina behin gurekin minkiago bizi izan direnak bezalakoa zen. Baina Albertine-rekin etzen bakarrik hori. Eiki, Balbec-en ere, gure egunean eguneko elgar aurkitzetan beti ustegabetua nintzan haren ikustean, hain zen egunetik egunekoa. Baina orai nekea bazen haren ezagutzeko. Inguratzen zuen lanho arrosa-koloreaz gabetua, haren begitartea zizelkadura bat bezala xorroxtua zen. Bertze begitarte bat zuen, edo hobeki begitarte bat bazuen azkenean; soina handitua zizakon. Hartan inguraturik izana zen eta haren axalean, Balbec-en, geroko moldea doi-doia marrazkitzen zen inguragailutik jeus etzen gehiago gelditzen.

Albertine, aldi huntan, Parisera ohian baino goizago sartzen zen. Etzen primaderan baizik ethortzen, hala nola nun, zenbait astez geroz lehenbiziko lilietan erauntsiez jadanik nahasia, ezpainuen, ene atseginean, Albertine-ren itzultzea urtaro

ederretik berexten. Aski zizatan Parisen zela erraitea eta ene etxean izana zela, itsas-bazterrean arrosa bat bezala ikus nezantzat. Eztakit sobera Balbec-en gutizia ala harena zenez orduan nitaz jabetzen, haren gutizia Balbec-ez jabetzekoaren molde auher, ahul eta ez oso bat izanez behar bada, gauza batez materialki jabetzea, hiri batez bere egoitzaren egitea, izpirituarekin hartaz jabetzearen berdina baliz bezala. Eta bertzalde, materialki ere, etzelarik ene idurimenaz itsasertzearen aitzinean leriatua, baina ene ondoan geldirik, ainitzetan arrosaxka bat bezala zizatan iduritzen, nahiko bainituen begiak haren aitzinean hetsi lorekietan halako akats baten ez ikusteko eta ondartzean hats-hartzen nuela uste ukaiteko.

Hemen erran dezaket, nahiz orduan enakien gero zer gertatu behar zen. Eiki, arrazoinekoago da emazter biziaren sakrifikatzea postako timbrer, tabako untzi zaharrer, margazkier eta gizaidurier ere baino. Bakarrik bertze bildumen behazunak behar ginituzke aldatzeaz gaztiatu, ez ukan emazte bakar bat, baina ainitz. Nexka gazte batek ondartze batekin, elizako gizaiduri baten adats trenzatuarekin, grabadura batekin, sartzen den aldi oroz hetarik baten baitan margazki xoragarri bat maita-arazten daukunarekin egiten dituen nahasketa xoragarri horiek, eztira biziki ontsa jarriak. Bizi zaite osoki emaztearekin, eta maita-arazia dautzunetik eztuzu jeus ikusiko; eiki bi gauza berexi horiek, bekaizkeriak berriz elgarretara dezazke. Elgarrekilako bizi luze baten ondotik Abertine-tan ezpaldin banuen azkenean gehiago emazte ohiko bat baizik ikusi behar ukan, haren maitaldi bat Balbec-en maitatua ukanen zuen bertze norbaitekin aski izanen zen behar bada berriz haren baitan ondartzaren eta uhainen oldarkatzearen sarr-arazteko eta harekin urtzeko. Bakarrik bigarren aldiko nahaste horiek eztauzkute gehiago begiak xoratzen, gure bihotzarendako dira sendigarri eta hilgarri. Ezin dateke aurkitu, hoin molde lanjerosean, mirakuluaren berritzea agiantzagarri. Baina urteak aitzintzen ditut. Eta urrikitu behar dut bakarrik hemen ez aski zuhur gelditua izanik xoilki ene emazte bildumaren ukaiteko, begixtagailu zaharrez ukaiten den bezala, nehoiz ez aski ainitz beti begixtagailu berri baten leku hutsa igurikan dagon berinategian.

Bere udaleku bidaien ordenu ohikoaren kontra, urte hartan Balbec-etik zuzen heldu zen eta oraino han ohian baino ontsa gutiago egonik. Bazen aspaldi ikusia enuela. Eta ezpainituen ezagutzen, izenetik ere, Parisen ikusten zituen jendeak, ene ikustera jin gabe egoiten zen aldiez ezer enakien. Hauk ainitzetan aski luzeak ziren. Eta gero, egun batez, Albertine bapatez jalgitzen zen, haren agerraldi arrosa-kolore 'ta ikustaldi ixilek aski xehetasun guti emaiten zautatelarik artean egina ahal zuenaz, hori murgildua gelditzen baitzen ene begiek zilatzeko axolarik guti zuten haren biziko ilunbe hartan.

Bizkitartean aldi huntan, seinale batzuek iduriz erakutsi nahi zuten haren bizian gauza berri batzu gertatuak zatezkeela. Baina hortarik ondorioztatu behar zen behar bada xoil-xoilki Albertine-ek zuen adinean biziki laster aldatzen dela. Behazunez, haren adimendua hobeki ageri zen, eta berriz aiphatu naukolarik Sophocle-ri "Ene Racine maitea" izkiria-arazteko zuen ideiaren hartzera ene bortxatzeko hainbertze suhartasun ukan zuen eguna, gogotik irriz hasten lehenbizikoa izan zen. "Andrée-ek zuen arrazoin, zozo hutsa nintzan, erran zuen, Sophocle-ek behar zuen izkiriatu: "Jauna". Ihardetsi naukon Andrée-ren "Jauna" eta

"Jaun maitea" etzirela haren "Ene Racine maitea" eta Gisèle-ren "adixkide maitea" baino gutiago irriegingarri, baina etzela zozorik, ororen buruan, Sophocle-ri Racine-rendako eskutitz bat igorr-arazten zuten erakasleak baizik. Hortan, Albertine etzizatan jarraiki. Zozorik hortan zer zen etzuen ikusten; adimendua idekitzen ari zizakon, baina etzen hedatua. Baziren haren baitan berritasun erakhargarriago batzu; sendi nuen, ene ohe ondoan jartzera jin berria zen nexka gazte pollit berean, zerbait bertzelakoa, eta, soan eta begitartean ohiko borondatea erraiten duten itxuretan, errotikako aldatze bat, erdi konbertitze bat, hetan barreatuak izan balire bezala haien kontra Balbec-en hautsirik izana nintzan ihardokitzeak, bieko berdin arautu baina oraikoaren kontra-moldeko bat egiten ginuen arrats jadanik urrundu batez, orduan hura zenaz geroz etzana eta ni haren ohe ondoan. Besarkatu nahi bainuen eta orai egitera utziko zenez segurtatzera ezin menturatuz, abiatzeko zutitzen zen aldi oroz, oraino egon zadin galdatzen naukon. Ukaitea etzen biziki errex, egin behar zuenik jeus ez ukanik ere (bertzela kampora jauzi eginen zuen), jende zuzena zen eta gainbera enekin guti maitagarri, ene ondoan egoitea guti laket zizakola iduri. Bizkitartean aldi guziez, bere orenari behatu eta, ene othoitzean berriz jartzen zen, hala nola nun oren andana bat enekin iragana baitzuen eta nik bertzerik galdegin ukan gabe; erraiten nauzkon elheak aitzineko orenetan erranak nauzkoner lotzen ziren, eta etziren jeusetan gogoan nuenari, gutiziatzen nuenari lotzen, hortarik beti urruntasun berean.

Gutizia bezalakorik ezer ezta erraiten diren gauzen debekatzeko gogoan denarekin iduririk batere ukaitetik. Lehia da, eta bizkitartean badiduri dembora luzatu nahi dela arranguratzen gituenetik osoki urrun diren gai batzuez mintzatuz. Solastatzen da, erran nahi ginukeen elhea jadanik jestu batez lagundua izan laitekeelarik, gerta badadi ere (bere buruari berehalako atseginaren emaiteko eta ekharriko dituen gibel-oldarrendako sendi den jakin-nahiaren asetzeko) hitzik erran gabe, baimenik batere galdegin gabe, jestu hori eztela egin. Eiki Albertine enuen batere maite: kampoko lanhoaren umea, ase zezakeen bakarrik aro berriak nitan atzartua zuen idurimenezko gutizia, kozinako edergintzek asetzen ahal duten eta eraikuntzetako zizeldurek egin dezaketenen artekoa zena, amets egin-arazten baitzautaten aldi berean neure haragiarekin gai ezperdin eta bero baten nahasteaz, eta ene gorputz etzanari gorputz kontrako baten lotzeaz, Ebaren gorputza Adamenari hankatik doi-doia lotua zeratxikan bezala, abantzu izkina zuzenean, emaztearen kreatzea molde hain noble 'ta baketian, abantzu oraino aro zaharreko frisa bat bezala, itxuratzen duten Balbec-eko kathedraleko zizeldura-aphal erromanetan; Jainkoa han orotan jarraikia da, bi minixtroez bezala, bi aingeru ttipiez hetan ezagutzen baitira - hala nola neguak hatzeman eta gupida ukan dituen ihizi hegaldun itzulikari hek - Herculanum-eko Amore batzu XIII-garren mende betean oraino bizi, bere azken hegaldatzearen herrestatzen, unhatuak baina hetarik igurika daitekeen garaziari ez huts egiten, kalostrapeak duen hedadura guzian.

Bada, ene gutizia burura emanez amets hortarik liberatuko ninduen atsegin hortaz, eta bertze edozein emazten baitan berdin gogotik bilatuko nuenaz, galdegin izan balizata - Albertine-ri gogoan nuen gauza bakarra ixilean uzten naukon elhasturia burutzerik gabeko hartan - ukan ahal zaitekeenaz nuen uste hoberenera

ekharria zertan oinarritzen zen, ihardetsiko nuen behar bada uste hori (Alberine-ren mintzoaren itxura ahatziek berriz haren nortasunaren orrazea marrazkitzen zautaten batean) haren hiztegikoak - bederen orai emaiten zauen erran-nahian - etziren hitz batzuen agertzearen ondorioan egiten zela. Erraiten baitzautan Elstir zozoa zela eta nik goraki ezesten:

- Enauzu hartzen, ihardetsi zuen irriño batekin, erran nahi dut gertaldi hortan zozo izana dela, baina badakit biziki ontsa jende osoki ohargarria dela.

Berdin ere, Fontainebleau-ko golfaz aphaina zela erraiteko, egin zuen:

- Osoki hautuko bat da.

Ukana nuen buruz-buruko gudu bateko, ene lekukoez erran zautan: "Hautuko lekukoak dira", eta ene begitarteari so eginez aithortu zautan "muxtatxaren ekhartzen" ikusi nahiko ninduela. Izan zen ere, eta orduan ene zoria biziki handia iduritu zizatan, erraiterano, aitzineko urtean ezagutzen etzuela zin eginen nuen hitz batekin, Gisèle ikusi zuenaz geroztik "ephe bat" iragana zela. Etzen hori Albertine-ek etzuelakoz jadanik Balbec-en nintzanean ontsa den familia bat berehala agerr-arazten duten itzuli horietako andana pollita, eta urtetik urtera ama batek alabari emaiten daukona, handitzen ari den arau, gertaldi handietan, bere joiak uzten dauzkon bezala. Albertine haur ttipi bat izaitetik gelditua zela senditua zen egun batez, andere atzerritar batek egina zaukon eskaintza batez eskertzeko, ihardetsia ukan zaukonean: "Ahalgetua niz." Bontemps Anderea etzen egon ahal izan senarrari so egin gabe, hunek ihardetsia ukan baitzuen:

- Zaude, hamalaur urtetara ari da.

Ezkont-adina ageri izan zen Albertine-ek, ara gaixtoa zuen nexkato batez mintzatzean, errana ukan zuenean: "Ezta pollita denez ere ikusten ahal, *zehe bat gorri* badu begitartean." Azkenik, nahiz oraino nexkato gazte, bere inguruko eta lerroko emaztearen arak hartzen zituen jadanik bazionean, norbaitek sinoak egiten bazituen: "Eztezaket ikus egiteko gura baitut nik ere", ala imitatzen jostatzen ari baziren: "Bitxiena, hark bezala egiten duzunean, haren idurikoa zirelakotz da." Hori guzia gizartekotik atheraia da. Baina hain zuzen Albertine-ren ingurumena etzizatan "hautukoa" hitza eman zezokeena iduritzen, aitak oraino ezagutzen etzuen eta haren adimendu handia goraiphatzen zaukoten lankide batez bazion erran-nahian: "Norbait osoki hautuko omen da." Golfarendako ere, "hautuko" hitza, Simonet familiarekin ezin akomeagarria iduri zizatan, "natural" izenlagunarekin Darwin-en lanetarik mende andana batez zaharragoko idazki batean bezainbat. "Ephe" hitza zotal hobea iduritu zizatan oraino. Azkenean ezagutzen enituen itzulaldi batzu argiago iduritu zizaztan, baina enetako itxaropen guzien haizu uzteko gai, Albertine-ek erran zautanean, aburua ezpaikoa eztuen norbaiten askiespenarekin:

- Gerta zaitekeen hoberena da, *ene iduriko*… Atherabide hoberena dela estimatzen dut, atherabide pollita.

Hain berri zen, lehen ezagutzen etzituen eremu batzuetan itzul-inguru hain aldakorretan bildu lurraz hain ageriki aieru emaiten zuen, nun, "ene iduriko" hitzak orduko, Albertine neure gana ekharri bainuen, eta "estimatzen dut"-etan ene ohean jarri.

Gerta daiteke jakitate gutiko emazte batzuek, gizon biziki leteradun batekin ezkontzean, horrelako erran-moldeak ukaiten dituztela dotearekin batean. Eta guti berantago eztei gauari jarraikitzen zakon aldakuntzaren ondotik, bere ikustaldien egitera doazenean eta bere adixkide ohiekin begiratuak izaiten, uztegabetuz ohartzen da emazte bilakatuak direla, norbait "adimenduna" dela diotenean; baina hori hain zuzen aldakuntza baten seinalea da, eta baziduritan mundu bat bazela erran-molde berri horien eta ezagutua nuen Albertine-ren hiztegiaren artean, haren mintza-molde ausartasun handienekoak hauk zirenean: jende bitxi batez "Modela bat da" erraitea, edo, Albertine-ri jostatzea eskaintzen bazizakon "Galtzeko dirurik eztut", edo ere, adixkide batek zuzena iduritzen etzizakon erasia bat egiten zaukonean: "Ha! zinez, miragarri aurkitzen haut!", orduan *Magnificat*-a bera bezain halako ohitza burjes zahar batek erran-araziak, eta nexkato gazte apur bat haserretu eta bere zuzenaz segur den batek, dioten bezala, "osoki naturalki" erabiltzen dituenak, erran nahi da amaren ganik ikasiak dituela othoitz egitea eta agurtzea bezala. Horiek oro, Bontemps Andereak ikasiak zauzkon Juduen herrarekin eta beti behar bezalako eta egoki izaiten den beltxez janztearekin batean, horiek argiki ikas-arazi ere gabe, baina xori-karddinale berriki sortuen gurguria karddinale aitamen gurguriari arautzen den bezala, hala nola nun berak egiazko karddinale bilakatzen baitira.

Harendako enuen bakarrik gehiago maitasunik, baina enuen ere, Balbec-en ahalko nuen bezala, haren baitan enetako gehiago etzen adixkidantza baten hausteko beldurrik. Aspaldidanik ontsa orobatekoa bilakatua nindakola etzen batere dudatzekoa. Ohartzen nintzan lehenago hartan sartzea hainbat bilatua nuen eta gero hartua izaitera heltzeaz hain zoriondun izana nintzan "andana ttipian" enintzala gehiago batere barne. Eta gero ezpaitzuen ere, Balbec-en bezala, zintzotasunez eta oneziazko itxura, enuen arrangura handirik sendi; uste dut alta, deliberatu ninduena, filologiako azken aurkintza bat izan zela. Ene gutizia mina haien gibelean gordetzen nuen solasen gatina ageriari erhaztun berri baten emaitean jarraikiz, mintzo bainintzan, orai Albertine ene ohe xokoan nuen batean, andana ttipiko nexkatoetarik batez, bertzeak baino ttipiago batez, baina hala ere aski pollita aurkitzen nuenaz: "Ba, ihardetsi zautan Albertine-ek, *muzme* ttipi baten itxura du." Ageriki, Albertine ezagutua nuenean, etzuen *muzme* hitza ezagutzen. Badu itxura, gauzak bere sail zuzenean jarraiki balire, etzuela nehoiz ikasiko, eta neure aldetik enuen hitz hortan behargabekorik ezer ikusiko, nardagarriago denik ezpaita. Entzutean sendi da ahoan hormaki gotorregi bat ezarria baliz bezalako hortzetako mina. Baina Albertine-ren baitan, pollita zen bezala, *muzme* hitza ere ezin zizatan gozagaitz izan. Aldiz, iduritu zizatan, kampoko erakaspen haste bat ezpada, bederen barneko aitzinamendu bat agertzen zuela. Zorigaitzez "ikus arteo" erran behar ukanen naukon ordua zen, auhariko aski goiz sar zadin nahi banuen eta ere nihaureneko aski goiz jeik nindadin. Françoise-ek zuen antolatzen, gibela zadin etzuen maite eta jadanik bere legeko artikulu zenbaiten kontrakoa aurkitzen zukeen Albertine, ene gurasoak hor izan gabean, ikustaldi hoin luzea egina ukan zezatan eta guzia berantean ezarriko zuena. Baina *muzme* horren aitzinean arrazoin horiek erori ziren, eta lehiatu nintzan erraitera:

- Asma ezazu enizala batere kilika, oren batez kilika nindezazuke nik senditu ere gabe.

- Zinez!

- Segur.

Gutizia baten erraiteko molde gaitz bat zela senditu zukeen, ezen galdatzera menturatzen etziren gomendio bat eskaintzen dautzun norbaitek, baina zure elhek baliagarri izan zakidizula phoragatua daukotenak bezala:

- Nahi duzua entsea nadin? erran zuen emazte baten xumetasunarekin.

- Nahi baduzu, baina orduan ohean osoki hedatzen bazine errexago lizateke.

- Horrela?

- Ez, sar zaite.

- Baina eniz phizuegi?

Erranaldi hori bururatzen ari zuenean, athea ideki zen, eta Françoise sartu argi bat eskuan. Albertine-ek ezuen berriz kaderan jartzeko astia baizik ukan. Badateke Françoise-ek etzuela ordu hori hautatua guri ahalge emaiteko baizik, athean entzuten baitzagon edo berdin gako-xilotik so. Baina enuen uste horren ukaite beharrik, asmuak aski usna-arazia zaukokeenaz begien bidez segurtatzea gutietsia ahal zukeen, ezen enekin eta ene gurasoekin bizi izanaren bortxaz beldurrak, zuhurtziak, oharpenak eta maltzurkeriak emana zaukoten azkenean gutaz, itsasoaz itsasturiak, ihiziaz ihiztariak, eta eritsasunaz, medikuak ezpada, bederen ainitzetan eriak duten ezagutza mota asmuzkoa eta abantzu azti batena. Jakitera heltzen zen guziak balditzen ahalko zuen aro zaharrekoen baitan jakitate batzuen aitzinamenduak bezainbat, berri jakiteko zituzten bide abantzu ezteusak ikusirik (harenak etziren bizki gehiago: solas batzu, auhaltzean gure solasaldietako hogeigarrena doi-doia egiten baitzuten, mahi-nagusiak airean bildurik sukalde-ondora gaizki hel-araziak). Haienak bezala haren hutsak, Platon-ek hetan sinesten zuen alegiak iduri, munduaren itxuratze hutsezko bati lotuak ziren eta aitzinetik moldatu ideia batzuer, gauzen eskasari baino gehiago. Horrela dira, gure egunetan oraino, mamutxen bizimoldetan aurkintza handienak entsegutegirik ez tresnarik batere etzuen jakintsun batek egin ahal izanak. Baina sehi izaitearen ondorioz zituen eragozpenek ezpazaukoten debekatua haien muga zen antzeko behar-beharrezkoa zen jakitate baten biltzea - eta aurkintza horiek guri jakin-araziz gure ahalgetzean zatzana - bortxuak gehiago egina zuen; hor etzen traba oldearen ez haustean gelditua, azkarki lagundua zuen. Dudarik gabe Françoise-ek etzuen lagungailurik batere bazterrera uzten, behazunez erranara edo egonara. Guk erraiten ginaukona eta sinets zezan nahi ginuena ezpazuen ehoiz sinesten, Françoise-ek duda ahamenik gabe sinesten zuen bere lerroko edonorrek errana zaukon arrazoingabekoena eta gure ideiak aldi berean ofensa zezazkeena, hainbat zuen gure hitzerranen entzuteko zuen arak haren sineskaitzaz lekukotasun emaiten, hainbat gehiago, bere nagusiak mehatxatuak zituela eta, hek jende guziaren aitzinean "ongarri" deituz, hetarik mila fagore ukanak zituela errana zaukon kozinersa baten ixtorioaren erraitean zuen doinuak (ezen estilo zehartuak gaztigurik gabe guri laido bortitzenen erraitea haizu uzten zaukon) erakusten zuen hori ebanjelioko hitza zizakola. Françoise-ek gaineratzen zuen ere: "Ni haren etxekanderea izan banintz, gaitzitua gertatuko

nintzan." Laurgarreneko etxekanderearen aldera guk hastapeneko adixkidantza guti ukanik ere, soingainak goititzen ahal ginituen, itxuragabeko alegia baten entzutean bezala, hain behazun gaixtoko ixtorio hortan, errailearen doinuak bazakien baieste sumingarrien eta ezin eztabadatuenaren zorroztasun eta motzaren hartzen.

Baina oroz gainetik, politikako libertateak edo literaturako anarkiak gabe utziko zituzten gogo biltzeko indar batera idazleak ainitzetan heltzen diren bezala monarka baten edo neurtitz-lege baten eragin bortitzez, hitz-neurkuntzako erregelen edo Estatuko erlisionearen garraztasunaz estekatuak direnean, berdin ere Françoise, molde argi batean guri ezin mintzatuz, Tiresias bezala mintzo zen edo Tacite-ek bezala izkiriatuko zuen. Bazakien zuzenean erran etzezakeen guziaren eduk-arazten guhaur salatu gabe ogenda ezkinezakeen erranaldi batean, erranaldi bat baino gutiagoan ere, ixil batean, gauza bat ezartzen zuen moldean.

Horrela, gertatzen zizatanean, ohargabean, mahi gainean, bertze eskutiz batzuen artean, ikusi behar etzuen eskutiz baten uztea, behazunez hura aiphatzen zelakotz haren aldera igortzalearen baitan bezala ukailearenean asma zaitekeen gaizki-nahi berdin handiarekin, arratsean, khexurik sartzen baldin banintzan eta zuzen gambarara joaiten, meta betegin batean ontsa lerrokatu eskutitzen gainean, paper salatzaleak berehala ene begiak joiten zituen Françoise-renak ez jo ahalak etzituen bezala, hark gain-gainean ezarria, abantzu berex, elhe bat zen ageri batean, bere hizkuntza bazuenean, eta athetik beretik oihu batek bezala ikhara-arazten ninduenean. Ikuslearen hoin ontsa argitzeko eginak ziren ikuskarri moldatze horietan ezin hobea zen, eta hura ez han ez izanik, ikusleak baitzakien hura gero sartuko zenean guzia bazakiela. Bazuen, gauza bizigabe baten horrela mintza-arazteko, Irving-en edo Frédérick Lemaître-ren antzea. Ordu hartan, Albertine-ren eta ene gainean bazatxikala oin-estalgian nexkato gaztearen soinak utziak zituen zilo oraino agerietarik bat itzalean uzten etzuen girisailu phiztua, Françoise-ek iduri zuen "Justizia Gaizkiaren argitzen". Albertine-ren begitarteak etzuen argitze hortan ezer galtzen. Bere mateletan agertzen zuen Balbec-en xoratua ninduen berniza iguzkitua. Abertine-ren begitarte horrek, bere osoan baitzuen batzuetan, kampoan, halako zuri-hits bat, erakusten zituen aldiz, girisailuak argitzen zituen arau, gune batzu hain distiratuki, hain berdinki margoztatuak, hain gogor eta hain leunak, nun lore batzuen larruantze berme batzuekin erkidatzen ahalko baitziren. Alta Françoise-ren sartze ustegabekoaz hatzemana, egin nuen:

- Nola, jadanik girisailua? Jainkoa argi hori zein bizia den!

Bigarren hitz hortaz ene nahasturaren gordetzea zatekeen ene xedea, lehenbizikoaz ene berantaren desenkusatzea. Françoise-ek ihardetsi zuen dudatze gaixto barekin:

- Behar duta hildu?

- Hil duna? egin zautan beharrira Albertine-ek, ni xoratua utziz, aldi berean nagusi eta gaizkidetzat hartzen ninduela, zikologiazko baieste hori gramatikako galde baten doinuan erdika erran zuen bizitasun etxekotuaz.

Françoise gambaratik jalgia izan zenean eta Albertine berriz ohean jarria:

- Zeren beldur nizan badakizua, erran naukon, horrela jarrikitzen bagira, zu besarkatu gabe ezin egon nadin.

- Zorigaitz handia lizateke.

Gomit horri enuen berehala obeditu. Bertze norbaiti soberakina idurituko zizakon, ezen Albertine-ek bazuen ahozka molde bat hain ginarritsu eta eztia nun, mintzatzean berean, besarkatzen zinituela iduri baitzuen. Haren elhe bat fagore bat zen, eta solasak musuz estaltzen zinituen. Bizkitartean ontsa goxagagarria zizatan gomit hori. Hala izanen zizatan ere adin bereko bertze nexkato pollit baten ganik; baina Albertine orai hain errexa izan zakiditan, horrek bazematan atsegina baino gehiago, ederrez beteak ziren iduri batzuen aitzinean izaitea. Orhoitzen nintzan lehenik Albertine-ez ondartzaren aitzinean, itsasoa gibelean abantzu marrazkitua, enetako etzuela antzokiko itxura hek baino egiazko izaite gehiago, hetan ezpaita jakiten ustez agertu behar lukeen andere jokaria denez ikusten, ala ordu hartan ordaintzen duen itxurazko jokaria, ala argi-igortze xoil bat. Gero egiazko emaztea argi arraitik berexia zen, ene gana jina, baina ohar ahal nindadin bakarrik etzuela batere, egiazko munduan, mirazko margazkian uste zizakon maitasuneko errextasun hartarik. Ikasia nuen ezin zaitekeela hunki, ezin besarka, harekin solasta zaitekeela bakarrik, etzela enetako egiazko emazte bat, jadazko mahats batzu, lehenagoko mahietako aphaindura ezin janak, mahatsak diren baino gehiago. Eta horra nun heren eremu batean hartaz ukana nuen bigarren ezagutzan bezala egiazkoa agertzen zizatan, baina ere lehenbizikoan bezala errexa; errexa, baina are gehiago gustagarriki nun luzaz uste ukana bainuen etzela hala. Biziaz nuen jakitate soberakina (hastapenean uste ukana nuen baino bizi gutiago berdinaz, gutiago lañoaz) anartean sinestegabean bururatzen zen. Zer baiezta daiteke, lehenik itxurazkoa iduritu zizaikuna gero gezurrezkoa agertua baldin bada, eta herenean egiazkoa izaiten? (Eta zorigaitzez, enintzan Albertine-rekilako aurkintzen burura heldua.) Hasteko, biziak bat bertzearen ondotik agertu eremu horietako aberastasun handiago baten erakaskuntzaren dei elhaberrietako hori izan ezpaliz ere (Saint-Loup-ek ezagutzen zuen deiaren kontrakoa, Rivebelle-ko auharietan, berraurkitzen zuenean, begitarte geldi batean biziak metatuak zituen masken erdian, behin ezpainetan atxikia zuen aurpegia), Albertine-ren mateletan musu emaitea egiten zaitekeen gauza bat zela jakitea, musu emaitea bera baino ere atsegin handiago bat zen behar bada enetako.

Zer ezperdintasuna haragizkoa baizik eztelakotz gure gorputza xoilik emaiten zakon emazte baten ukaitearen, eta ondartzan bere adixkiden artean, egun batzuez (jakin gabe ere zergatik egun horietan, bertze batzuetan baino gehiago, haren ez ikusteaz ikharan egoiten nintzan) ikusten zen nexkato gazteaz jabetzearen artean! Biziak gozoki luze luzean agertua zautzun nexkato gazte haren biziko elhaberria, haren ikusteko tresna bat mailegatua, gero bertze bat, eta haragiko gutizia lagundua zuen, bere losunetik jalgitzen eztiren eta, haragi zati batez jabetu baizik nahi eztutenean, hura bera joaitera uzten duten gutizia izpiritukoago eta gutiago asegarri hetaz, baina, handik gogo-minekin haizatuak sendi diren orhoitzapenetako eremu oso batez jabetzeko, haren ondoan zaparradan zutitzen baitira, gotortzen baitute, ezin jarraik baitzaizkio bururatzerano, materia gabeko gauza baten beretzerano, nahi den moldean ezina baita, baina gutizia hori biderditan igurikatzen baitute, eta gibelera joaiteko orduan, berriz laguntzen. Edozein emazteren matelen orde, diren bezain frexkoak izanik ere, baina izen gabeak, segeretu gabeak, xoratzekorik gabeak,

hain luzaz hetaz amets egina nuener musu emaitea, ontsa usu so egina naukon margo baten gostuaren, zaporearen ezagutzea izanen zen. Emazte bat ikusi da, biziko aphainduran itxura lañoa, Albertine bezala itsasoan orrazez, eta gero itxura hori, handik berex daiteke, nork bere ondoan ezar dezake, apurka haren izaria ikus, haren margoak, eztereozkopa baten berinen gibelean iragan-arazia baliz bezala. Hortako dira emazte apur bat zailak, berahala ukaiten eztirenak, nehoiz ukanen direnez ere berehala eztakigunak, gutiziagarri diren bakarrak. Ezen haien ezagutzea, haietara hurbiltzea, hetaz jabetzea, moldez, handitasunez, itxuraz giza-iduriaren aldatzea da, erlatibotasuneko ikastaldi bat da emazte baten gorputzaren, biziaren estimatzean, ikusteko eder, biziko aphainduran bere orrazeko mehetasuna berriz hartua duenean. Makaelaren etxean lehenbizian ezagutzen diren emazteak eztira gutiziagarri ezin aldatuak gelditzen baitira.

Bertzalde Albertine-ek bazaduzkan, bere inguruan lotuak, bereziki maitagarri zizatan itsas-margo andana bateko iduripenak. Iduri zizatan besarkatuko nuela, nexkato gaztearen bi mateletan, Balbec-eko ondartz osoa.

- Besarka zaitzatan zinez onhartzen baduzu, nahiago nuke hori berantagoko utzi eta ene ordua otsa hautatu. Bakarrik etzinuke orduan onhartua dautazula ahatzi behar. "Musu bateko tiketa" behar dut.

- Izenpetu behar duta?

- Baina orai berean hartzen banu, berantago ukanen duta hala ere?

- Zure tiketekin jostatzen nauzu, noiztenka berriz eginen dauzkitzut.

- Errazu, hitz bat oraino, badakizu, Balbec-en, oraino ezagutzen etzindutanean, ainitzetan baizinuen so bat idorra, maltzurra, ordu hetan gogoan zer zinuen ezin dautazu erran?

- Ha! orhotzapenik batere eztut.

- Oizu, zure laguntzeko, egun batez zure adixkide Gisèle-ek hartan jaun zahar bat jarria zen kadera gainetik bi zangoz jauzi egin du. Orduan zer gogatu duzun orhoitzera entsea zaite.

- Harekin gutienik ibiltzen ginena Gisèle zen, multxokoa zen nahi baduzu, baina ez osoki. Gogoan ukan duket ontsa gaizki ikasia zela eta arrunta.

- Ha! hori da guzia?

Ontsa nahiko nuen, besarkatu aitzin, nik ezagutu baino lehen ondartzan enetako zuen mixterioaz berriz bete ahal ukan, aitzinean bizi izana zen herria haren baitan berraurkitu; horren lekuan bederen, ezagutzen ezpanuen, sarr-araz nezazkeen Balbec-en gure biziko orhoitzapen guziak, ene leiho-pean oldarkatzen zen uhainaren harrabotsa, haurren garrasiak. Baina ene behakoa lerratzen utziz haren mateletako biribil eder arrosa-kolorean, haien axal eztiki uztaitua hiltzera baitzoan lerroka inharrosten ziren ile beltz ederretako lehen mendi-lerroen izurduretan, haien azpi-mendiak goititzen zituztela eta ibarretako mendixkak orhatzen, neure baitan erran ahal ukan nuen: "Azkenean, Balbec-en hortara ezin heldua izanik, Albertine-ren mateletako arrosa ez ezagunaren gostua nola den jakinen dut. Eta, gure biziak diraueno gauzer eta izaiter iragan-arazten ahal ditugun inguruak biziki ainitzak eztirenez geroz, neurea zerbait moldez betegina bezala estimatzen ahalko dut behar bada, noiz ere, guzien artean hautatua nuen begitarte

loreztatua bere kadre urrunetik jalgi-arazirik, ekharria ukanen baitut haren ezagutza azkenean ezpainetarik ukanen dutan gune berrira." Banion hori neure baitan ezpainetarikako ezagutza bat badela uste nuelakotz; banion haragizko arrosa haren gostua ezagutuko nuela, enuelakotz gogoari emana gizonari, hortan ageriki ikina edo balena baino gutiago eskasa izanik ere, behar-beharrezko alderdi batzuek huts egiten daukotela bizkitartean oraino, eta bereziki musu egiteko balia daitekeenik eztuela. Eztuen alderdi hori ezpainez ordaintzen du, eta hortik heltzen dateke behar bada adarrezko gerizagailu batez maitearen pherekatzera ekharria baliz baino ondorio doi bat onhargarriagora. Baina ezpainek, aho sabaira gutiziatzen dutenaren gostuaren ekhartzeko eginak, egon behar dute, bere hutsa senditu gabe eta nahigabea aithortu gabe, azaletik ibiltzean eta ezin zilatu baina gutiziatu matelako hesiari joitean. Bertzela ere ordu hartan, haragiaren hunkitzean berean, ezpainek, trebeagoak eta hobeki dohatuak bilakatzen balire ere, elezakete iduriz hobeki jasta naturak orai hartzea debekatzen daueten gostua, ezen, bere janaria ediren eztezaketen eremu huts hartan, bakarrik dira, behakoak, gero usaintzeak aspaldidanik utziak ditu. Lehenik ene soek musu emaitea eskainia zaueten mateletara ene ahoa hurbiltzen hasi zen arau, lekuz aldatzean matela berri batzu ikusi zituzten; lephoak, hurbilagotik ikusirik eta krixtailaz bezala, erakutsi zuen, bere pikor lodietan, begitartearen itxura aldatu zuen azkartasun bat.

Argazkietako azken egin-moldek etzaten dituzte kathedraleko oinetan, hurbildik, hain usu, abantzu dorre batzu bezain gorak iduritu zizaizkun etxe guziak, ibil-aratzen dituzte, erreximendu bat bezala, aldizka lerrotan, ordenu nahasian, meta tinkatuetan, eraikuntza horiek berak, Piazzetta-ko bi zutabeak arestian hain urrunak bat bertzeran kontrara hurbiltzen, Salute hurbila urruntzen, eta, zola histu batean, hedoiertze neurrigabeko baten atxik-araztera heltzen dira zubi baten arku-pean, leiho-arte batean, aitzin-gunean den zuhatz baten orstail artean, eta, margo azkarrago batekin, eliza ber bati kadretzat emaiten dauzkote bat bertzearen ondotik bertze guzietako uztaidurak: eztut hori baizik ikusten, itxura mugatu batekoa uste dugun gauza batetik, musu batek bezala, berdin ontsa hartan diren bertze ehun gauzak jalgi-araz ahal dezazkeenik. Hots, Albertine, Balbec-en, ainitzetan bertzelakoa iduritua zizatan bezala, orai - norbaitek harekilako aurkitaldietan eskaintzen dauzkun ikuspegi eta margoen aldatzetako lehia gaitzeko moldez handi-araziz, horiek guziak zekunda zenbaitetan atxik-arazi nahi ukan banitu bezala, entseuz jende baten nortasuna berezkatzen duen gertakariaren berregiteko, eta, untxi batetik bezala, batzu bertzetarik badaduzkan gertakizun guzien atheratzeko - ene ezpainetarik haren matelarako bide laburrean, hamar Albertine nituen ikusi. Nexkato gazte bakar hura buru ainitzekilako jainkosa bat bezala izanez, azkenik ikusia nuenak, haren gana hurbiltzera entzeatzen bainintzan, lekua bertze bati uzten zaukon. Hunkia enueno bederen, buru hura, ikusten nuen, usain on arin bat heldu zen hartarik nitarano. Baina ondikotz! - ezen, musuko, gure sudur xiloak eta begiak ezpainak bezain gaizki ezarriak dira, gaizki eginak - bapatez, ene begiak ikustetik gelditu ziren, sudurrak bere aldetik, lehertzean, usainik batere etzuen gehiago senditu, eta hortako arrosa-kolore gutiziatuaren gostua hobeki ezagutu gabe, jakin

nuen, seinale hastiagarri horietarik, azkenean Albertine-ren matelari musu emaiten ari nintzala.

Hori ote zen Balbec-ekoaren kontrako jokaldia (gauza baten itzulikatzeak itxuratua) emaiten ari ginuelakotz, ni etzana nintzalakotz, hura zutik, jaukizarre bortitz bati bazter egiteko eta bere nahitara atseginaren gidatzeko ahalean, hainbat errextasunekin hartzera utzi baitzautan orai lehenago hain itxura lardean ezetsia zautalna? (Badateke, lehenagoko itxura hortarik, orai ene ezpainen hurbiltzean haren aurpegiak hartzen zuen itxura atseginkoia etzela marren aldaratze ezin ttipiago batez baizik bertzelakatzen, baina hartan zauritu bat hiltzen duen baten eta sokorri ekhartzen daukonaren artean, potret ezin ederrago baten eta ezin itsusiago batenean den urruntasun guzia hartan izan daitekeena). Egonaran zuen aldatzeaz, azken ilabete horietan, Parisen edo Balbec-en, enetako lan egina zuen nahigabeko ongiegile zenbaiti ohore egin eta esker eman behar naukonez jakin gabe, uste ukan nuen aldatze horren arrazoin gehiena jarriak ginen moldea zela. Bertze bat zautan alta Albertine-ek eman, zuzen-zuzena hau: "Ha! hori da orduan, Balbec-en, ezagutzen etzinitutalakotz, xede gaixtoak bazinituela uste ukan nezakeen." Arrazoin horrek hagoan utzi ninduen. Albertine-ek zintzoki emana zautakeen. Hain du neke emazte batek bere alderdietako mugimenduetan, gorputzak jasaiten dituen sendipenetan, lagun batekin buruz-buruko solasaldien, arrotz batek hartara eror-araztea aitzinetik karkula zezan beldurtzen zen huts ez ezagunaren jakitea!

Dena den, zer baziren ere dembora zenbaitez geroztik haren bizian gertatu aldakuntzak, eta argi zezaketena behar bada ephe bateko ene gutiziari eta osoki gorputzekoari hain errexki emana ukaitea. Balbec-en ene maitasunari laztarekin ezetsia zuena, ustegabegarriagoko bat gertatu zen Albertine-ren baitan, arrats hartan berean, haren pherekuek nitan ekharria ukan zuten orduko hartaz bada ohartu zaitekeen gozaldia, eta, Gilberte-ek gertaldi berdin batean, erramu mutzo gibelean, Champs-Elysées-etan, ukana zuen higundurako eta ahalge laidoztatuko mugimendu ttipia egin-araz zezon beldurtua ninduena.

Osoki kontrakoa gertatu zen. Jadanik, ohean etzana ukan nuen orduan eta pherekatzen hasia nuenean, Albertine-ek hartua zuen ezagutzen enaukon itxura bat, borondate on manukorrekoa, abantzu haur baten lañotasuna. Griña guziak bere baitarik baztertuz, ohiko nahikaria guziak, atsegina aitzintzen duen orduak, hortan herioari jarraikitzen zaukona bezalakoak, emana zaukon haren aurpegi gaztetuari lehen adineko garbitasunaren arako zerbait. Eta badateke haren antzea bapatez jokoan ezarria den izaite oro laño bilakatzen dela, serios eta xoragarri; oroz gainetik antze hortaz baldin badaki guri atsegin handi baten emaiten, bera zorionean bada, beteginean eman nahi badauku. Baina Albertine-ren begitarteko itxura berri hortan bazen abantail nahi gabetik, ofizioko konzienziatik eta bihotzonetik baino gehiago, halako zerbitzura ekharri ohiko eta bapatekotik zerbait; eta bere haurzarora baino urrunago, bere arrazako gaztetasunera zen itzulia. Gorputzeko jabaltze bat baizik, azkenean ukana nuena, agiantzatua enuen nitarik ontsa bertzelakoa, Albertine-ek iduriz, haren aldetik gorputzeko atsegin hori moraleko sendimendu bat gabe joan zadin eta zerbaiten bururatzea izan, arrunkeria zenbait izanen zela aurkitzen zuen. Harek, arestian hain lehiatua zenak, orai, ene musuek maitasuna nahi zutela uste

zuketelakotz eta maitasunak bertze eginbide oro gainditzen, bazion bere auharia orhoit-arazten naukonean :

- Baina horrek eztu jeus egiten, hea, asti guzia badut.

Egina zuenaren ondotik berehala jeikitzeko jenatua iduri zuen, jenatua jendetasunez, Françoise bezala, uste ukana zuenean, egarririk gabe, behar zuela alaitasun onest batekin onhartu Jupien-ek eskaintzen zaukon baso arnoa, azken hurrupa edanik berehala abiatzera etzelarik menturatuko, zein baitezpadako eginbideak deitua ukana balu ere. Albertine - eta hori zen behar bada, gero ikusiko den bertze batekin, nihaurek jakin gabean hartaz gutizia-arazia ninduen arrazoinetarik bat - haren moldea harriz Saint-André-des-Champs-en den laborarisa frantzes ttipiaren itxuratzetarik bat zen. Françoise-tik, laster haren etsai amorratua bilakatu behar zuenetik, ezagutu nituen haren baitan ostatatzen den arrotzaren alderako jendetasuna, onestasuna, etzantzaren errespetua.

Françoise-ek, ene izaba hil ondoan doinu urrikaldu batekin baizik mintzatu behar etzuela uste zuena, bere alabaren ezkont-aitzineko ilabetetan, gaizki aurkitu zuen, hau bere gizongaiarekin bazabilanean, etzezan besotik atxik.

Albertine-ek, ene ondoan geldi-geldia, erraiten zautan:

- Ile pollitak dituzu, begi ederrak, gixakoa zira.

Beranta zela oharr-arazirik, gaineratzen bainuen: "Enauzu sinesten?", ihardetsi zautan, behar bada egia zena, baina bi minutaz geroz bakarrik eta oren zenbaitendako:

- Beti zinesten zitut.

Mintzatu zizatan nihaurez, ene familiaz, gizarteko ene ingurumenaz. Erran zautan: "Ho! zure aitamak biziki ontsa diren batzu direla badakit. Robert Forestier-en eta Suzanne Delage-ren adixkide zira." Lehenbiziko minutan, izen horiek jeus etzatataten erran. Baina orhoitu nintzan bapatez alabaina Champs-Elysées-etan jostatua nintzala berriz ehoiz ikusia enuen Robert Forestier-ekin. Suzanne Delage aldiz, Blandais Anderearen iloba-bitxia zen, eta aldi batez dantzako ikastaldi batera joana behar izana nintzan, eta ere jokaldi ttipi bat atxiki behar ukana saloineko komedia batean, haren aitamen etxean. Baina irri ero batez hartua izaiteko beldurrak, eta sudurreko odol-galtze batzuek trabatua ninduten, hala nola nun ehoiz ezpainuen berriz ikusi. Gehien-gehienik ustez hartua nuen lehenago Zuandarren errientsa lumaxkaduna haren gusien etxera izana zela, baina behar bada etzen errientsa haren ahizpa edo adixkide bat baizik. Albertine-ri erran naukon goraki Robert Forestier eta Suzanna Delage-ek leku ttipia zadukatela ene bizian. "Izan daiteke, zuen amak adixkidantzan dira, horrek zure lekua nun den jakin-arazten dauta. Suzane Delage usu gurutzatzen dut Messine-ko karrikan, aphainetik badu." Gure amek etzuten elgar ezagutzen Bontemps Anderearen idurimenean baizik, hunek, jakinik lehenago Robert Forestier-ekin jostatua nintzala eta, omen, neurtitzak erraiten nauzkola, ondorioztatua baitzuen familiako adixkidantzak baginituela. Amaren izena, errana izan zata, nehoiz etzuen iragaitera uzten erran gabe: "Ha! ba, Delage-tarren, Forestier-tarren eta holakoen ingurumena da", ene gurasoer merezi etzuten abantail bat emanez.

Bertzela ere, Albertinek gizarteaz zituen ideiak ezin gehiago zozoak ziren. Uste zuen Simonnet-tarrak bi *n*-rekin etzirela bakarrik Simonet *n* bakunarekilakoak baino aphalagoak, baina ahal diren bertze jende guziak baino ere. Norbaitek ukan dezala zuk duzun izen bera, zure familiatik izan gabe, haren gutiesteko arrazoin handi bat da. Eiki badira salbuespenak. Gerta daiteke bi Simonnet-ek (bata bertzeari aitzineraturik zernahitaz mintzatzeko beharra senditzen den eta nor bera bertzela ere gogo onez betea sendi den bilkura hetarik batean, hala nola hilerrira doan ehorzketako ahoku batean), izen bera dutela ikusiz, elgarren alderako ongi-nahi batekin bila dezaketela, eta ondoriorik gabe, jendakian direnez. Baina salbuespena da. Guti ohoragarri den gizon ainitz bada, baina hori eztakigu eta ezkitu axolatzen. Baina izen berdintasunak egiten badu haiendako ziren eskutitzak guri eman zaizkigun, ala *vice versa*, balio duketenaz mesfidatzetik hasten gira, ainitzetan arrazoinekin. Hutsegin beldur gira, aitzinetik baztertzen ditugu, desgustuzko sino batekin, hetaz mintzatzen bazaiku. Hek ekhartzen duten gure izenaren irakurtzean, egunkarian, iduri zaiku ebatsia daukutela. Gizarteko bertze lagunen hutsak ezpaikoak zaizku. Are phizukiago ditugu gure izen berekoak zamatzen. Bertze Simonnet-endako dugun herra are gehiago da azkarra nun ezpaita norbait berezirena, baina ondorez uzten baita. Bi gizaldien buruan orhoitzen da bakarrik aitatxi-amatxiek bertze Simonnet-en aldera zuten mutur laidagarriaz; horren arrazoina ezta jakina; elizateke ustegabetzekoa hori erahiltze batetik hasia dela jakitea. Hori guzia, ainitzetan, batere jendakian eztiren Simonnet andere 'ta gizon batzuen arteko ezkontza batetik bururatzen den egunerano.

Albertine etzizatan bakarrik Robert Forestier eta Suzanne Delage-ez mintzatu, baina bere baitarik, gorputzen hurbiltzeak badagien konfienxiazko eginbide batez, hastapenean bederen, lehenbiziko aldi batean, bikuntasun berezi bat eta jende beraren alderako segeretua sortua ukan ditzan baino lehen, Albertine-ek erran zautan bere familiaz eta Andrée-ren osaba batez, Balbec-en eni hitz baten erraitea onhartua etzuen ixtorio bat, baina oraino enetako segereturik ukan behar zuela etzuen uste. Orai adixkide hoberenak zerbait nitaz errana izan balauko eni salatzea eginbide bat izanen zizakon. Etxera sar zadin hisitu nintzan, abiatu zen azkenean, baina ene arrunkeriaz hain ahalgetua nun ene desenkusatzeko abantzu irri egiten baitzuen, haren etxera soineko motzean joaiten den etxekandere bat bezala, horrela onhartzen baitzitu, baina hori ezpaitzako berdin.

- Irriz ari zira? erran naukon.

- Eniz irriz ari, irriño bat egiten dautzut, ihardetsi zautan xamurki. Berriz noiz ikusten zitut? gaineratu zuen egin berria ginuena, ohiki burutzea denaz geroz, adixkidantza handi baten aitzin-egintza bederen izan zadin onhartzen ezpalu bezala, aitzinetik bazen eta aurkitu, aithortu behar ginuen adixkidantza batena, eta bakarrik egina ginuenaak argitzen ahal zuena.

- Baimena emaiten dautazunaz geroz, ahal ukanen dutanean zure bila igorriko dut.

Guzia Stermaria-ko Anderea ikusi ahal ukaitearen ondotik ezartzen nuela erraitera enindakon menturatu.

- Ondikotz! ustegabetarik izanen da, aitzinetik nehoiz eztakit, erran naukon. Arratsean libro izanen nizanean bila-araz zaitzatan ahal izanen dea?

- Laster hala izanen da, sartzea ene izabarenetik berex ukanen baitut. Baina orai ezin egina da. Zer nahi den bihar edo etzi arratsaldean ethorriko niz zer gerta dadin ere. Ahal baduzu baizik enauzu hartuko.

Athera heldu eta, aitzindua ukan enezan ustegabetua, matela eskaini zautan, iduri baitzizakon elgarri musu emaiteko etzela orai gorputzeko gutizia arrunt baten beharrik. Arestian elgarrekin ukanak ginituen harreman laburrak batzuetan etxekotasun oso eta bihotzeko hautu batera deramanetarik baitziren, Albertine-ek uste ukana zuen behar zuela zerbait asmatu eta, ohe gainean elgarri emanak ginituen musuer, bertsu joile gothiko batek asma zezazkeen bezalako zaldun baten eta haren anderearendako musu horiek seinalea izanen ziren sendimendua ephe batez gaineratu.

Saint-André-des-Champs-eko iduri egileak kalostrapean zizelkatu ahalko zuen Pikardiarsa gazteak utzia ukan nindуenean, Françoise-ek ekharri zautan bozkarioz bete ninduen eskutitz bat, Stermaria-ko Anderearena baitzen, azteazkeneko auhaltzea onhartzen zuen: Stermaria-ko Anderearena, erran nahi da enetako egiazko Stermaria-ko Anderearena baino gehiago, Albertine jin baino lehen egun guzian gogoan ukana nuenarena. Maitasunaren enganio izigarria da josta-arazten hasten gituela ez kampoko mundukoa den emazte batekin, baina gure buru-munen barneko pampina batekin, gure menean dugun bakarra bertzela ere, hartaz jabetuko giren bakarra, orhoitaren nahi libroak, abantzu idurimenarena bezain osoak, egina ukan dezakeena egiazko emaztetik amestua nuen Balbec-a enetako egiazkotik izana zen bezain bertzelakoa: izaite alegiazkoa, haren iduri izaitera, gure zorigaitzeko, bortxatuko baitugu egiazko emaztea.

Albertine-ek hainbat berandua ninduen nun komedia bururatua baitzen Villeparisis-ko Anderearen etxera heldu nintzanean; eta berri handiaz mintzatuz, Guermantes-ko duke 'ta dukesaren elgarretarik berextea, joaiten ari zen gomiten uhainaren errebeska hartzeaz ez biziki gutiziatua, jarria nindagon, etxekanderearen agurtzera joan ahal artean, bigarren saloineko jargia handi batean, noiz ere, lehenbizikotik, jalgitzen ikusi bainuen, maiestatedun, gora eta zabal, gaitzeko lo-belar lore beltz batzu agerian zituen satin horizko zaia luze batean, dukesa. Haren ikusteak eninduen gehiago batere nahasten. Egun batez, eskuak bekokian ezarriz (eni bihotz-min emaiteko beldur zenean ohi zuen bezala), amak erran zautanean: "Etzazkikala hire atheraldiak jarraik Guermantes-ko Anderearen aurkitzeko, etxeko irri-solasa hiz. Bertzela ere, ikusak amatxi zein eri den, badituk zinez hitaz trufatzen den emazte baten bidean jartzea baino gauza seriosagoak", aldi bakar amets sobera luze batetik iratzarria ninduen, loizun egin-arazle batek han zinela uste zinuen idurimenezko herri urrunetik itzul-arazten zituen, begiak idekitzen dauzkitzun bezala, edo, medikuak eginbideko eta biziko sendimendura deituz, hartan gustatzen zinen idurimenezko eritasun batetik sendatzen. Ondoko eguna bazterrera uzten nuen gaitz hari azken adio baten erraiten emana izan zen; orenez jarraikian kantatua nuen nigarretan Schubert-en *Adio*-a:

… Adio, mintzo arrotzek

Nitarik urrun deitzen haute, Aingeruen zeruk(o) ahizpa.

Hortan bururatua izan zen. Goizeko artheraldiak utziak nituen, eta hain errex nun orduan aitzin-asmu hau ukan bainuen, berantago hutsezkoa gertatu zena, nekerik gabe jarriko nintzala, gainerateko bizian, emazterik ez ikusteari. Eta gero Françoise-ek errana ukan zautanean Jupien-ek, handitu nahiz, auzoan saldegi bat bilatzen zuela, harendako bat aurkitu nahiz (berdin zorionean ere, jadanik ohetik ondartze bat bezala argian oihuka entzuten nuen karrikan astira ibiliz, esneki-saldegietako burdin-erridau goitituaren azpian, mahunga xuriekilako esnekarisa ttipien ikusteaz), atheraldi horiek berriz hasi ahal ukanak nituen. Libertate ainitzekin ere, sendi bainuen enituela gehiago Guermantes-ko Anderearen ikusteko egiten: hala nola maitale bat dueno oharpen ezin handiagoak hartzen dituen emazte bat, harekin hautsi duen egunetik haren eskutitzak agerian uzten baititu, egitetik batean hartaz beldur izaitetik gelditua den huts baten segeretuaren senarrari agertzeko irriskutan.

Bihotzmin emaiten zautana, abantzu etxe guzietan jende zorigaitzeko batzu bizi zirela jakitea zen. Hemen emaztea beti nigarretan zen senarrak trompatzen zuelakotz. Hor kontrakoa zen. Bertze nunbait ama langile bat, seme edale batek bortizki joiten zuena, auzoen begietara bere oinazearen gordetzera entseatzen zen. Gizaldearen erdi bat osoa nigarretan zen. Eta ezagutua ukan nuenan, hain sumingarria zela ikusi nuen nun galdez egon bainintzan, ez ote zenez senar edo emazte ezkontza hauslea (ezpaitziren hala legezko zoriona etzutelakotz ukana baizik, eta goxagarri baitziren eta leial haien emazte edo senarra etzen ororen aldera) arrazoin zuena. Laster enuen Jupien-i baliagarri izaitearen beharrik ere ukana ene goizeko ibilaldien jarraikitzeko. Ezen ikasi zen gure korroilako ebenixtak, haren landegiak ezpaitziren Jupien-en saldegitik artesi biziki mehe batez baizik berexiak, eraikuntzako buru zenaren ganik joaiteko manua ukanen zuela harrabots sobera egiten zuelakotz. Jupien-ek etzezakeen hoberik igurika, landegiek zurerien ezartzeko lurpe bat bazuten, gure sotoekin bidez lotua zena. Jupien-ek bere ikatza han ezarriko zuen, artesia aurdik-araziko, eta saldegi bakar eta zabal bat ukanen. Eta ere, Guermantes-ko Jaunak egiten zuen prezioa biziki gora aurkituz, Jupien-ek lekua ikustera uzten baitzuen, dukeak, alokaririk ez ukaiteaz etsiturik, beheititze baten egitea onhar zezon, Françoise-ek, ikusterik egiten etzen orena joan eta ere etxezainak saldegiko athean "Alokatzeko" hitza uzten zuela oharturik, hark ezarri trampa zenbait usnatu zuen, Guermantes-tarren mutil-jantziaren ezkongaiaren hara erakhartzeko (bazuten han maitatzeko atherbe bat) eta gero han ustegabetarik haien hatzemaiteko.

Dena den, Jupien-endako saldegi baten bilatzerik ez gehiago ukanik ere, bazkal-aitzin atheratzen jarraiki nintzan. Atheraldi horietan usu Norpois-ko Jauna aurkitzen nuen. Gertatzen zen, bere lankide batekin solasean, nitara behako batzu igortzen zituela, ni osoan ikhertu ondoan, haren solaskidera itzultzen zirenak eni ikusi ezpanindu baino gehiago irriño ez agurrik egin gabe. Ezen diplomata gotor horietan, molde berezi batez so egiteak eztu helburutako ikusia zituztela zuri jakin-araztea, baina etzituztela ikusia eta behar dutela bere lankidearekin zenbait gauza

seriosez solastatu. Etxe ondoan usu gurutzatzen nuen emazte handi bat enekin gutiago begiratua zen. Ezen ezagutzen ezpanuen ere, ene aldera itzultzen zen, igurikatzen ninduen - debaldetan - saltzalen berinategietako aitzinean, irriño egiten zautan, besarkatuko banindu bezala, bere buruaren uzteko jestu bat egiten zuen. Ezagutzen zuen norbait edireiten bazuen enetako itxura hormatu bat hartzen zuen. Aspaldidanik goizeko ibilaldi horietan, egin behar nuenaren arau, egunkari ezteusenaren erostea baizik ezpaliz ere, bide laburrena hautatzen nuen, dukesaren ibilaldiek hartzen zuten bide ohikotik kampo baldin bazen dolutu gabe 'ta, hetarik baldin bazen aldiz, arrangurarik eta gordekeriarik gabe, etzizatalotz gehiago han eskergabe bati berak nahi gabean ikusteko fagorea hartzen naukon bide debekatua zela iduritzen. Baina enuen gogoari emana ene sendatzeak, neure buruari Guermantes-ko Anderearen aldera egonara ohi bezalako bat emanez, aldi berean lan bera eginen zuela hari zoakonaz eta gertakizun bilakatuko zituela gehiago axolatzen eninduten maitagarritasun bat, adixkidantza bat. Ordu arteo haren gana ene hurbiltzeko batuak ziren mundu osoaren indar guziak ezeztatuko ziren maitasun dohakabe batek emaiten duen zori gaixtoaren aitzinean. Gizonak baino andere azti indardunago batzuek erabaki dute, ezer eztela, aldi horietan, baliagarri izanen gure bihotzean zintzoki hitz hau errana ukanen dugun egunerano: "Eztut gehiago maite." Saint-Loup-i aiher izana nindakon bere izabaren etxera ez eremanik. Baina nor nahi baino gehiago, etzen enkantamendu baten hausteko gai. Guermantes-ko Anderea maite nueno, bertzetarik ukaiten nituen gixakotasunezko seinalek, komplimenduek, bihotzmin emaiten zautaten, ez bakarrik hori etzelakotz haren ganik heldu, baina etzituelakotz jakiten. Bada, jakin balitu ere etzen hori batere baliagarri izanen. Baina atxikimendu bateko gauza ttipietan ere, lekuan ez izaite bat, auhari baten ez onhartze bat, nahigabeko, ohartugabeko garraztasun bat, kozmetikak eta jantzi ederren guziak baino baliagarriago dira. Hortara heltzen direnak balizateke, heltzeko antzea alde hortara erakasten baliz.

Jarria nintzan saloina iragaiten ari nuen orduan, ezagutzen enituen eta gero bertze arratsaldi batean hark berriz aurkituko zituen adixkidez gogoa osoki betea, Guermantes-ko Andereak ene jargia handian ikusi ninduen (maitagarri izaitea baizik bilatzen enuen egiazko axolagabea, aldiz, maite nuelarik, hainbat bilatua nuenean, heldu gabe, axolagabeko itxuraren hartzea); zeharka egin zuen, enegana jin zen eta Opera-ko arratsean zuen eta maite etzuen norbaitez maitatua izaiteko sendimendu penagarria ezabatzen etzuen irriñoa berriz hartuz:

- Ez, etzaitela desarriña, ephe batez zure ondoan jar nadin onhartzen duzu? erran zautan garaziarekin goitituz hori gabe jargia oso-osoan hartuko zuen zaia neurrigabekoa.

Ni baino handiagoa baitzen eta oraino zaiaren izari guziaz handitua, haren beso has miragarriak abantzu hunkitzen ninduen, inguruan ilepitz tinki doi-doia ageri zen batek beti urrez bezala lanhotzen zuela, eta bere usain ona igortzen zautaten iletako bihurdura horiak. Leku guti ukanez, ene gana etzaitekeen errex itzul eta, ene aldera baino bere aitzinera so egitera bortxatua, itxura ameskor ezti bat hartzen zuen, potret batean bezala.

- Badituzua Robert-en berriak? erran zautan.

Orduan Villeparisis-ko Anderea iragan zen.

- He bada! oren pollitean ethortzen zira, jauna, ikusten zitugun aldi bateko.

Eta haren ilobarekin mintzo nintzala ohartzean, bazakien baino adixkideago ginela ustez behar bada:

- Baina eztut Oriane-kilako zure solasa nahasi nahi (ezen makaelaren zerbitzu onak etxekandere baten eginbidetan sartzen dira). Eztuzu harekin auhaltzera jin nahi astezkenean?

Stermaria-ko Anderearekin auhaldu behar nuen eguna zen. Eza eman nuen.

- Eta ebiakoitzean?

Ama ebiakoitzean edo igandean itzultzen zen, arrats oroz harekin auhaltzen ez egoitea etzen biziki gixako izanen; berriz ere ez erran nuen.

- Ha! etzira etxean ukaiteko gizon errexa.

- Zergatik etzira nehoiz ene ikustera jiten? erran zautan Guermantes-ko Andereak, Villeparisis-ko Anderea urrundua izan zenean kantarier komplimendu egieko eta *diva*--ri arrosa buket baten emaiteko, haren balio guzia eskaintzen zuen eskuak egiten zuena, ezpaitzen hogei libera baizik gostatua. (Bertzela ere sari gorena zen aldi batez baizik kantatua etzenean. Goizaldi eta arratsaldi guzietan kantatzen zuten anderek ukaite zituzten markestsak margoztatu arrosa batzu.) Bertzen etxean baizik elgar ez ikustea nardagarri da. Ene izabaren etxean enekin auhaldu nahi eztuzunaz geroz, zergatik etzinitazke jin ene etxean auhaltzera?

Jende batzuek, ahal bezain luzaz han egonik, edozein estakuru-pean, baina azkenean jalgitzen ari, dukesaren ikustean mutiko gazte batekin solasean jarria, muble hain hertsian nun biga baizik ezpaitzaitezkeen egon, uste ukan zuten berriak gaizki emanak izan zizezteela, etzela dukesa, baina dukea berextea galdegiten zuena, enegatik. Gero berri horren hedatzera lehiatu ziren. Gezurra zela jakiteko nornahi baino gaiago nintzan; baina ustegabetua, oraino bururatua ezten berexte bat egiten ari den arte gaixto horietan, dukesak, bakartzeko orde, gomita lezan hain zuzen guti baizik ezagutzen etzuen norbait. Aierua ukan nuen dukea izana zela harek etxera ukan nindezan nahi ukana etzuen bakarra eta, orai dukeak uzten zuelarik, dukesak trabarik etzuela laket zizazkon jendez inguratua izaiteko.

Bi minuta lehenago, balditua izanen nintzan Guermantes-ko Andereak haren ikustera joaitea galdegiten zautala erran balautate, are gehiago auhaltzera jitea. Guermantes-ko saloinak etzezazkeela erakuts izen hortarik jalgiak nituen berezitasunak jakiten ahal nuen, hara sartzea debekatua izana ukaiteak, saloin hari agerbidea elhaberri batean irakurria edo iduria amets batean ikusia dauegun saloinen izaite mota beraren emaitera ni bortxatuz, bertze guziak bezalakoa zela segur banintzan ere, osoki bertzelakoa asma-arazten zautan; ene 'ta haren artean bazen erreala hartan bururatzen den muga. Guermantes-tarren etxean auhaltzea, luzaz gutiziatu bidaia baten egitea bezala zen, gutizia baten iragan-araztea burutik begien aitzinera eta amets batekin ezagutza egitea. Uste ukan nezakeen bederen etxeko nagusiek erakutsi nahi eztuten norbait gomitatzen duten auhari hetarik bat zela, diotelarik: "Zaugi, ezta *baitezpada* gu baizik izanen", alegia erromesaren gain emanez bere adixkidekin hura nahasia ikusteaz duten beldurra, eta ere etxekotu minendako bakarrik atxiki abantail gutiziagarri batera aldatu nahiz baztertzen den, bere

nahigabean salbai eta fagoratu haren bahimendua. Senditu nuen, aldiz, Guermantes-ko Andereak gozagarriena zizakonaren eni jasta-arazteko gutizia bazuela erran zautanean, begien aitzinera emanez Fabrice-ren izabaren etxera heltze bateko edertasun ubelarana eta Mosca kondeari aitzineratua izaiteko mirakulua bezalako zerbait:

- Ortziralean, etzintazke libro izan, bilkura ttipian? Gixako lizateke. Parmeko prinzesa han izanen da, xoragarria da; lehenik jende gozagarri batzuen aurkitzeko ezpaliz etzinitutan gomitatuko.

Goititzeko bethiereko mugimendu batera emanak izan diren jende mundutar bierartekoetan baztertua izanik, familiak badaduka, aldiz, leku handi bat burjesia ttipia bezalako jendalde geldietan eta arixtokrazia prinzetarra bezalakoetan, hunek ezpaitezake goititzea bila, berak, duen ikuspegi berezitik, gainean jeus eztuenaz geroz. "Villeparisis izabak" eta Robert-ek erakusten zautaten adixkidantzak egina zuen behar bada nitaz, Guermantes-ko Anderearen eta haren adixkidendako, beti bere artean eta lagunkideria berean bizi baitziren, hartaz aierurik enuen ikusi-nahi bitxi baten gaia.

Ahaide horietaz bazuen ezagutza bat familiakoa, egunorotakoa, arrunta, asmatzen dugunetik osoki bertzelakoa, hartan, guhaur barne gertatzen baldin bagira, gure egintzak handik begiko erhautsa eta kontra-zintzurreko xorta bezala kampora igorriak izaitetik urrun, han grabaturik geldi baitaitezke, aztertuak, khondatuak ere guhaurek ahatzi eta urteak berantago, han haien berraurkitzeaz ustegabetuak izanak giren palazioan, gure eskutitz bat egilek berek sinatu paper bilduma balios batean bezala.

Jende aphain xoil batzuek zain dezakete bere athe gehiegi hartua. Baina Guermantes-tarrena etzen zaindua. Arrots batek abantzu behin ere etzuen haren aitzinean iragaiteko aldirik. Dukesak hetarik bat erakutsia izaiten bazakusan aldi bateko, ekharriko zuen balio mundutarraz axolatzea etzuen gogoan, hark emaiten zuen gauza zenaz geroz eta berak har etzezakeena. Etzituen egiazko gaitasunak baizik gogoan: Villeparisis-ko Andereak eta Saint-Loup-ek errana zaukoten banituela. Eta etzituzten sinetsiak ukanen, nahi zutenean ehoiz enindutela jin-arazten ahal ohartua izan ezpaliz, enintzala beraz munduari atxikia, hori dukesari arrotz bat "jende gozagarrietarik" zelako seinalea iduritzen baitzizakon.

Ikusi behar zen, guti maite situen emazte batzuez mintzatzean, begitartez berehala nola zen aldatzen, hetarik bat aiphatzen zenean, izendatzen baldin bazen, behazunez, haren koinata anderea. "Ho! xoragarria da", zion xorroxtasun eta segurtasunezko itxura batekin. Hortaz emaiten zuen arrazoin bakarra hau zen: andere horrek etzuela nahi ukan Chaussegros-ko markestsari eta Silistrie-ko prinzesari aitzineratua izan. Etzuen gaineratzen andere horrek etzuela nahi ukana berari, Guermantes-ko dukesari aitzineratua izaitea. Alta hori gertatua zen, eta egun hartarik, dukesaren izpiritua alhan zen, ezagutzeko neke zen anderearen baitan zer bada gertatzen zen jakiteko. Haren etxean hartua izaiteaz minki gutiziatua zen. Munduko jendek hainbaterano dute bilatuak izaiteko ohidura nun ihes egiten dauetena fenitz bat iduritzen baitzaie eta oharpena hartzen baitaue.

Ene gomitatzeko arrazoin egiazkoa, Guermantes-ko Anderearen gogoan (maite enuenaz geroztik), nahiz haren ahaidez galdegina izana, enindabilala haien ondotik zena? Eztakit. Dena den, ene gomitatzera deliberatua izanik, etxean zuen hoberenaren ohoreak egin nahi zauztan, eta hara joaitea debekatuko ahal zautaten bere adixkideak, nardagarri zirela bazakienak, urrundu nahi zituen. Bere bidetik dukesa baztertua zuena zeri zor zizakon enuen jakina, bere izar urratsaren bihurtze ikusia nuenean, ene ondoan jartzera jiten eta auhaltzera gomitatzen, arrazoin ezjakin batzuen ondorioa: hortaz berri eman dezagukeen sentsu berezi baten faltan, uste dugu doi-doia ezagutzen ditugun jendek (nik dukesa bezala) ezkituztela gogoan ikusten gituzten ephe bakarretan baizik. Bada, gutaz dutela uste dugun ahazte betegin hori osoki idurimenekoa da. Hala nola nun, bakartasuneko ixilean, gau eder batekoa bezalakoan, gizarte oneko erreginak asmatzen ditugunean zeruan bere bideari jarraikitzen mugagabeki urrun, ezkaitezke egon eragozpenezko edo atseginezko jauztaldi bat gabe, gain hartarik erortzen baldin bazaiku, Artizarrean edo Cassiopée-n ezaguna zela uste ezkinuen gure izena grabatua dadukan ortzarri bat bezala, auhaltzeko edo solasadi txar baterako gomita.

Behar bada, batzuetan, Guermantes-ko Andereak, printze persiarren moldean, *Ezther-en Liburu*-ak dionaz, gartsutasuna erakutsia zaueten bere menpekoen izenak izkiriatuak ziren liburuak irakurr-arazten baitzituzten, ikhertzen zuenean xede oneko jenden zerrenda, egina zuen nitaz: "Auhaltzera jitea galdeginen daukogun bat". Baina bertze gogoeta batzuek baztertua zuten

(Arrangura bortitzez inguratu printzea
Gauza berrietara beti dat(e) eremana)

Mardochée palazioko athean bezala bakarrik ikusia nuenen ordurano; eta ene ikusteak orhoita berriturik, nahi ninduen, Assuérus-ek bezala, dohainez bete.

Erran behar dut bizkitartean kontrako ustegabetze bat jarraikiko zizakola Guermantes-ko Andereak gomitatua ninduen orduan ukana nuenari. Lañoago eta eskerronezkoago iduritua baitzizatan lehenbiziko ustegabetze horren ez gordetzea eta enetako zuen bozkarioaren gehiegituz erakustea, Guermantes-ko Andereak, azken arratsaldi batera abiatzera zoala, errana zautan, abantzu desenkusatzeko estakuru bat bezala, eta nor zen ontsa jakin enezan beldurrez, nik itxura hain ustegabetua harturik haren etxerako gomitaz: "Badakizu biziki maite zituen Saint-Loup-eko Robert-en izaba nizala, eta ere hemen jadanik elgar ikusia dugu." Hori banakiela ihardestean, gaineratu nuen ezagutzen nuela ere Charlus-ko Jauna "enetako Balbec-en eta Parisen biziki ona izana baitzen". Guermantes-ko Andereak ustegabetua iduritu zuen, eta haren soek iduri ukan zuten, egiaztatze bateko bezala, barneko liburuko orsto jadanik zaharrago bati zaudela. "Nola! Palamède ezagutzen duzu?" Izen horrek hartzen zuen Guermantes-ko Anderearen ahoan eztitasun handi bat nahigabeko lañotasun batekin mintzo zelakotz gizon hoin distiratu batez, baina harendako koinata baizik etzena eta harekin hazia izana zen gusia. Eta Guermantes-ko Anderearen biziak enetako zuen hauts-kolore nahasian, Palamède izen horrek bazeman udako egun luzetako argia bezala harekin jostatua zenean,

nexkato gazte, Guermantes-en, baratzean. Gainera, aspaldidanik iragana zen haien biziko zati hortan, Guermantes-ko Oriane eta Palamède haren gusia geroztik bilakatuak zirenetik biziki bertzelakoak izanak ziren; bereziki Charlus-ko Jauna, ederlaneko gostu batzuetara osoki emana gero hain ontsa eskuratuak zituenak nun balditua izan bainintzan ordu hartan dukesak zabaltzen zuen gaitzeko aireztagailu lirio beltz eta horiekilakoa hark margotua zuela jakitean. Erakusten ahalko zautan ere lehenago harendako egina zuen zonatina bat. Batere enakien baroinak bazituela nehoiz aiphatzen etzituen dohain horiek. Derragun artetik Charlus-ko Jauna familian Palamède izendatua izaiteaz etzela loriatua. "Mémé"-ri doakonaz asmatzen ahalko zen ere etzizakola laket. Laburtze zozo horiek ariztokraziak berea duen poesia hartzen eztuelako seinale bat dira (judueriak berdin egiten du bertzela ere, Lady Rufus Israels-en iloba bat, bere izenaz Moïse, munduan ohiki "Momo" deitua zenaz geroz), arixtokraziakoa denari iduriz munta handirik emaiteaz ez axolatzearekin batean. Bada, Charlus-ko Jaunak bazuen gauza hortan poesiazko idurimenik eta urgulu agerian emanik gehiago. Baina Mémé guti gusta-arazten zaukon arrazoina Palamède izen ederrerano hedatzen zenaz geroz. Egia hau da: familia prinzetar batekoa zela estimatuz eta jakinez, nahiko zuen anaiak eta koinatak hartaz erran zezaten "Charlus", Marie-Amélie erreginak eta Orléans-ko dukeak erran zezaketen bezala bere seme, semabitxi, iloba eta anaiez: "Joinville, Nemours, Chartres, Paris".

- Zer gordekaria Mémé, egin zuen. Zutaz luzaz mintzatu gitzazko, zure ezagutzaren egiteaz zorion handi lukeela erran dauku, nehoiz ere ikusia ezpazinitu bezala. Aithorrazu jostagarri dela! eta, ene ganik erraitea biziki gixakoago eztena adoratzen eta haren balio arraroa miresten dutan koinata, noiztenka apur bat eroa denaz!

Charlus-ko Jaunari eman hitz hori biziki ohargarri aurkitu nuen eta neure baitan egin erdi-erotasun horrek behar bada gauza batzu argitzen zituela, behazunez hain loriatua iduritua izaitea Bloch-ek bere ama jo zezan galdegiteko xedeaz. Ohartu nintzan, ez bakarrik erraiten zituen gauzez baina erraiten zituen moldeaz, Charlus-ko Jauna apur bat eroa zela. Abokat edo jokari bat entzuten den lehen aldian, solasaldian haien doinu hain ezperdinaz ustegabetua izaiten da. Baina ohartzen baita jende guziak hori osoki natural aurkitzen duela, jeus ezta bertzer erraiten, jeus ez nor berari, antzearen estimatzean gelditzen da. Gehien-gehienik Antzoki-Frantzeseko jokari batez gogatzen baita: "Beso goititua erortzera uzteko orde zergatik du gelditaldiz moztu jauzi ttipika jauts-arazi, hamar minutaz bederen?" edo Labori batez: "Zergatik, ahoa ideki dueneko, eman ditu soinu tragediako, ustegabeko horiek, den gauza xoilenaren erraiteko?" Baina guziek hori *a priori* onhartzen dutenaz geroz, ezta gaizki hartzen. Berdin ere, gogoa hortara emanez, nork bere baitan egiten zuen Charlus-ko Jauna bere buruaz hitz hanturan mintzo zela, batere ohiko elhekatzekoa etzen doinu batean. Bazidurien minuta oroz erran behar zizakola: "Baina zergatik duzu hoin azkarki oihu egiten? zergatik zira hoin ozar?" Bakarrik horrela ontsa zela iduriz jende guziak ixilki onhartua zuen. Eta elheka ari zenean besta egiten zaukon dantzara sartzen zen. Baina segurki aldi batzuez arrotz batek usteko zuen burutik joan bat zela oihuka ari.

- Baina, egin zuen berriz dukesak haren baitan lañotasunari lotzen zizakon ausartasun arinarekin, ontsa segur zirea eztuzula nahasten, ene koinata Palamède-ez mintzo zirela bada? Mixterioak maite ukan dezazke, hori ontsa azkar iduritzen zata!…

Ihardetsi nuen osoki segurrean nintzala eta Charlus-ko Jaunak ene izena gaizki entzuna behar zuela.

- He bada! uzten zitut, erran zautan urrikiz bezala Guermantes-ko Andereak. Zekunda batez Ligne-ko prinzesaren etxera joan behar dut. Etzira hara joaiten? Ez, mundua eztuzu maite? Ontsa arrazoin duzu, nardagarri da. Bortxatua ezpanintz! Baina ene gusia da, elizateke gixako. Noberekoitasunez damu dut, nihaurendako, ereman ahalko baitzinitutan, eta itzuliko ere. Beraz ikus arteo eta ortziraleko bozkariatzen niz.

Charlus-ko Jauna enetako gorritua izan zadin Argencourt-eko Jaunaren aitzinean, badoa oraino. Baina bere koinatari, eta hartaz ideia hoin handia zuenari, ezagutzen ninduela ukha zezan, gauza hain naturala, aldi berean izaba eta iloba ezagutzen nituenaz geroz, ezin har nezakeena hori da.

Bururatuko dut erranez ikuspegi berezi batean bazela Guermantes-ko Anderearen baitan egiazko handitasun bat bertze batzuek zatiz baizik ahatziko etzuten guziaren osoki ezabatzean zatzana. Nehoiz eninduen aurkituko, bere goizeko ibilaldietan, haren hatzari jarraikitzen, zelatatzen, ene egunorotako agurrari nehoiz etzuen ezin egon sumindu batekin ihardetsiko, nehoiz etzuen Saint-Loup gibelera igorriko gomita nindezan othoiztua ukan nuenean, enekin ara nobleagoak eta jitez maitagarriagoak ukanen ahal etzituen baino gehiago. Etzen bakarrik gibelerako argibide batzuetan ez gelditzen, hitz-erdi, ezpaiko irriño, azpi-entzun batzuetan, etzuen bakarrik oraiko bere gixakotasunean, gibelera itzultzerik gabe, gordekeriarik gabe, bere soinara maiestateduna bezain burgoiki zuzena zen zerbait, baina norbaiten kontra iraganean senditu ahal ukanak zituen arrangurak hain osoki ziren erhauts bilakatuak, erhauts horiek ere haren orhoitetik edo bederen egon-aratik hain urrun egotziak, nun, bertze hainbertzeren baitan hoztasun ondar baten estakurua izanen zena ezin lañõki eta ederkiago egin behar zuen aldi oroz haren begitarteari behatzean, halako garbitaldi oso baten iduripena ukaiten baitzen.

Baina ustegabetua banintzan ene aldera haren baitan egina zen aldakuntzaz, zenbat gehiago haren aldera neure baitan hainbat handiago baten aurkitzeaz! Ordu bat etzena izana bizi eta indar berriz hartzen enuena, beti xede berri batzu asmatuz, haren etxean harr-araziko ninduen norbait bilatua ezpaldin banuen baizik eta, lehenbiziko zorion horren ondotik, ene bihotz gero eta azkarkiago galdekariari bertze ainitz emanen zaukon bat? Nehoren aurkitzeko ezinak ninduen Saint-Loup-eko Robert-en ikusteko Doncières-era abia-arazia. Eta orai, haren eskutiz baten ondorioez nintzan bada nahasia, baina Stermariako Anderearen arrazoinez eta ez Guermantes-ko Anderearenez.

Gainera dezagun, arratsaldi harekin bururatzeko, gauza bat gertau zela, egun zenbait berantago gezurtatua, ustegabetu gabe utzi eninduena, Bloch-ekin zenbait demboraz samurr-arazi, eta bereaz argibidea liburu hunen ondarrean aurkituko den kontra-egin bitxietarik bat dena. Beraz, Villeparisis-ko Anderearen etxean, Bloch

etzizatan Charlus-ko Jaunaren itxura maitagarritasunezkoaz espantu egitetik gelditu, delako Charlus-ek, karrikan aurkitzen zuenean, begietara so egiten baitzaukon ezagutzen balu bezala, haren ezagutzeko gura baitzuen, nor zen biziki ontsa baitzakien. Irriño egin nuen lehenik, Bloch Charlus-ko Jaun beraz hainbat bortiztasunekin mintzatua izanik Balbec-en. Uste ukan nuen bakarrik Bloch-ek, haren aitak Bergotte bezala, baroina ezagutzen zuela "ezagutu gabe". Eta behako maitagarri batentzat hartzen zuena ohargabeko so bat zen. Baina Bloch azkenean hainbertze xehetasunetara jin zen, bizpahirur aldiz Charlus-ko Jauna mintzatu nahi ukan zizakola hain segur iduritu zuen, nun, baroinari ene laguna aiphatua naukola orhoituz, harek hain zuzen, Villeparisis-ko Andereari ikustaldi batetik itzultzean, Bloch-ez galde batzu eginak zauztala, uste ukan bainuen etzela gezurrez ari, Charlus-ko Jaunak haren izena ikasia zuela, ene adixkide zela eta bertze. Hortako, zenbait dembora berantago, antzokian, galdegin naukon Charlus-ko Jaunari Bloch aitzinera nezon, eta baroinaren baian haren bila joan nintzan. Baina Charlus-ko Jauna ohartu zizakoneko, berehala geldi-arazi zuen ustegabetze bat agertu zen haren begitartean haserre gorri baten phindarrek ordaindu baitzuten. Etzuen bakarrik Bloch-i eskua ez eman, baina hau mintzatu zizakon aldi oroz itxura ozarrenean ihardetsi zaukon, mintzo sumindu laidagarri batekin. Hala nola nun Bloch-ek, baroinaren ganik ezpaitzuen ordu arteo, erran zautanaz, erdi-irri batzu baizik ukanik, uste ukan baitzuen enuela gomendatu, baina kalte ekharri, haren gana ereman baino lehen, urrats-arauendako zuen gostua jakinez, ene lagunaz mintzatua nindakon solas laburrean. Bloch-ek utzi ginituen, beti laurhazkan abiatzera doan zaldi batera igan, edo beti ur-harrietara egozten zituzten uhainen kontra igerikatu nahi ukan duen norbait bezain ezindua, eta etzautan gehiago sei ilabetez hitzik erran.

Stermariako Anderearekilako ene auhariaren aitzineko egunak izan zizaztan, ez atsegingarriak, baina ezin jasanak. Orotakoan, egin gogo dugunetik berexten gituen ephea gehiago da laburra, are gehiago zaiku luze iduritzen, eztauzkogulakotz neurri laburragoak emaiten, edo bakarrik gogoan haren neurtzea dugulakotz. Erroma katholikoak, diote, mendetik mendera du karkulatzen, edo berdin eztu karkulatzea gogoan, helburua mugagabekoa duelakotz. Enea bakarrik hirur egunen burukoa baitzen, zekundaz karkulatzen nuen, banindoan pherekuen hastapenak diren idurimenetara, emazteaz beraz bururatuak ez izaiteaz errabiatzen den pherekuenak (phereku berezi hek hain zuzen, bertze guziak baztertuz). Eta, oro hartuz, gutiziatu gauza batera heltzeko nekeak (ez ezinak, hunek ezeztatzen baitu) gutizia azkartzen duela egia baldin bada, bizkitartean, gutizia osoki gorputzeko bateko, ephe hurbil eta berezi batean egina izanen delako segurtasuna ezta duda baino biziki gutiago gogo-berogarria; abantzu duda hertsagarriak bezainbat, duda antsiagarriak ezin jasangarria egiten du atsegin ezin hutseginaren igurikatzea, igurikatze hortaz bururatze ezin zenbatu bat egiten duelakotz eta, aitzinetik itxuratzetako usutasunak, aroa antsiak balegikeen bezain zerra ttipietan zatitzen.

Behar nuena, Stermaria-ko Anderearen ukaitea zen: zenbait egun bazen, ene gutiziek, ethengabe alhan, atsegin hura ene idurimenean prestatua zutela, atsegin bakar hura; bertze bat (bertze batekilako atsegina) etzen, hura, prest izanen, atsegina

ezpaita aitzin-gutizia baten eta beti berdina eztenaren asetzea baizik, ametseriako mila antolemenduen arau aldatzen denaren, orhoitzapeneko halabeharren, jiteko izanararen, gutizietan den ordenuaren arau, hauetan onetsi diren azkenak geldirik baitaude egiteak uzten duen nahigabea apur bat ahatzia den arteo. Jadanik utzia nuen orotako gutizien bide handia, eta bereziago bateko bidexkan sartua nintzan; behar izanen zen, bertze hitzartze baten agiantzatzeko, urrunegitik itzuli berriz bide handira heltzeko eta bertze bidexka baten hartzeko. Stermaria-ko Anderearen ukaitea hara auhariz gomitatua nuen Boulogne-ko Oihaneko irlan, hori zen minuta oroz asmatzen nuen atsegina. Suntsitua izanen zen bada, irla hortan auhaldu baninz Stermaria-ko Anderea gabe; baina behar bada ere azkarki ttipitua, auhalduz, harekin ere, bertze nunbait. Gainera, atsegin bat haien araura itxuratzen den egonarak, emaztea baino, hortako egoki den emazte mota baino lehenago jarriak dira. Atsegina manatzen dute, lekua ere; eta horren gatik berriz itzul-arazten ditu, aldizkatuz, gure gogo aldikorrera, horrelako emazte bat, leku bat, gambara bat, bertze aste batez gutietsiko gituenak. Egonaran moldatuak, emazte batzu eztoaz han haien ondoan bakea aurkitzen den ohe handia gabe, eta bertze batzuek, xede segeretuzkoago batekin pherakatuak izaiteko, nahi dituzte orstoak haizera, urak gauaz, horiek bezain arin dira eta iheskor.

Dudarik gabe Saint-Loup-en eskutitza ukan baino ontsa lehenago, eta Stermaria-ko Anderea oraino gogoan etzelarik, Oihaneko irla iduritua zizatan atsegineko egina, han gerizatuko nuenik ez ukaiteko trixteziaren ezagutzera hara joaiten gertatua nintzalakoz. Irla hartara deramaten aintzirako hegietan, eta, udako azken astetan, oraino joanak eztiren emazte paristarrak haien luzara ibiltzera joaiten direnetan da urrats egiten, urteko azken dantzaldian hartaz amoratua den nexkato gaztea iragaiten ikusiko delako esperanzan, ezpaita berriz arratsaldi batez ondoko primadera baino lehen aurkitzen ahalko. Maite dena joan den bezperan, behar bada biharamunean sendi dela izanez, hartzen dira, ur izurtuaren bazterrean, hetan jadanik lehenbiziko orsto gorritu bat azken arrosa bat bezala lili den ibilbide ederrak, ikhertzen hedoiertzea, hartan gure begiek, haien biribilgune-pean aitzinaldeko jende ezkozkoek gibeleko oihal margoztatuari barnatasunaren eta izariaren itxura emaiten daukoten panorametako amarruaren kontrako batez, iraganez arterik gabe parke landutik Meudon-go eta Valérien mendiko bizkar naturaletara, ezpaitakite muga nun ezar, eta egiazko baserria sarr-arazten baitute haren gozagarri artifiziala den lekutik ontsa urrun igortzen duten baratzegintzako lanean; berdin ere landaregintzako baratze batean libroan hazi diren xori arraroek, egun oroz baitoaz mugako oihanetarano herri urrunetako nota baten ezartzera. Udako azken bestaren eta neguko baztertzearen artean, antsiarekin ibiltzen da segurtasunik gabeko aurkitaldi eta maitasunezko gogoilunduren erresuma hortan gaindi, eta elizateke norbait ustegabetuago lurr-eremutik bertze nunbait jarria izan ladin, Versailles-en, zabaltzaren gainean, Van der Meulen-en arako zeru urdinari kontra hedoiak inguruan metatzen diren behatokia, naturatik kampo horrela igan ondoan, ikasten baliz baino, urbide handiaren haraindian zabaltza berriz hasten den lekuan, garbiki ikus ez daitezkeen herrixkak, hedoiertze itsasoa bezain lilluragarrian, Fleurus edo Nimègue deitzen direla.

Azken zaldi-karrosak iragan eta, jinen eztela bihotz-minekin senditzen denean, irlan auhaltzera joaiten da; ihardesten daueten baino gehiago arratseko mixterioez orhoit-arazten duten zuhar daldaratuen gainetik, hedoi arrosa-kolore batek biziko azken margo bat ezartzen du zeru baketuan. Euri xorta batzu erortzen dira hotsik gabe ur zaharraren, baina, bere haurzaro jainkotarrean, beti aroaren margoan gelditura eta ordu oroz hedoi eta loren itxurak ahazten dituenera. Eta moko-loreak, margoen argiari indar emanez, ilunabarrarekin debaldetan gudukatuak direnean, lambro bat jiten da inguruan irlaren estaltzera; ilunbe hezean ur uraren sahetsetik ibiltzen da han gehien-gehienik beltxarga baten iragaite ixilak baitzitu ustegabetzen, gauazko ohe batean atzarria zela uste etzen haur baten begi ephe batez zabalduek eta irriñoak bezala. Orduan hainbat gehiago nahi lizateke norberarekin maitale bat ukan nun bakartua sendi baita eta urrun dela uste.

Baina irla hartan, udan ere ainitzetan lambroa baitzen, zenbat zoriondunago izanen nintzan Stermaria-ko Anderea hara eremanez orai aro txarra, larrazken ondarra jina zenaz gero! Igandetik landako aroak ezpazituen berez gure idurimena hetan bizi zen herrialdeak urdinaran eta itsastar bilakatu - bertze urtaro batzuek usainonduak, argitsu, italiarrak bazegitzaten bezala -, egun zenbaiten buruan Stermaria-ko Anderearen ukaiteko itxaropena aski izanen zen orenean hamar aldiz ene idurimen beti berdin gogo-ilunduan lambro erridau baten jeik-arazteko. Hasteko, bezperatik Parisen ere jeikia zen lambroak, etzautan bakarrik gomitatu berria nuen andere gaztearen sorlekua ethengabe gogoratzen, baina itxura baitzen arratsean behar zuela, hirian ere baino lodiago, Oihana berriz hartu, bereziki aintzira ondoan, uste nuen Zisnen irlaz eginen zuela doi batez enetako, hango giro itsastar lanotsuak soineko batek bezala Stermaria-ko Anderea enetako beti inguratua zuen Bretainiako irla. Eiki gazte denean, Méséglise alderako ibilaldietan nuen adinean, gure gutiziak, gure usteak bademote emaztearen jantziari nor bederaren berezitasun bat, zerbaitetara ezin bilduzko izaite huts bat. Egiazki denaren ondotik ibiltzen da. Baina ihes egitera uztearen bortxaz, azkenean ohartzen da ezteusa ediren den entseu debaldeko horietan zehar, zerbait gogor gelditzen dela: hori zen bilatzen. Maite den gauzaren berexten hasten da, ezagutzen, ukaitera entseatzen, amarru baten bidez izanik ere. Orduan, ezeztatu den ustearen eskasean, jantziak erran nahi du uste hori nahizko lilluramendu baten bidez ordaintzen dela. Banakien bada etxetik oren-erdi bat bidetan enuela Bretainia aurkituko. Baina irlako ilunbetan, ur bazterrean, Stermaria-ko Anderearekin besoz-beso ibiltzean, bertze batzuek bezala eginen nuen, komentu batera sartzeko ezinean, emazte batez jabetu baino lehen, bederen, seroraz janzten baitute.

Uste ukan nezakeen ere andere gaztearekin uhainen zalapasta zenbait entzunen nuela, ezen, auhari bezperan, ekaitz bortitz bat egin zen. Bizar mozten hasten ari nintzan irlara joaiteko gabinet baten atxikitzera (nahiz urteko zati hortan irla hutsa zen eta ostatua jenderik gabe) eta janarien hautatzera biharamuneko auhariko, Françoise-ek Albertine hor zela erran zautanean. Berehala sarr-arazi nuen, bidar beltz batez itsustua ikus nindezan axolatu gabe, Balbec-en harendako nehoiz azki eder aurkitzen enintzalarik, eta orduan emana zautalarik Stermaria-ko Andereak orai bezainbat nahasmendu eta neke. Nahi nuen hunek ukan zezan

biharamuneko arratsaldiaz ahal zen iduripen hoberena. Galdegin naukon beraz Albertine-ri berehala enekin irlarano jin zadin janarien hautatzen laguntzeko. Guzia hari emaiten den emaztea hain laster da bertze batez ordaindua, nun ustegabetuak baigira berririk dugunaren emaiteaz, oren guziez, geroko itxaropenik gabe. Ene eskaintzan, Albertine-ren begitarte irriñodun arrosa-koloreak, xano ttipi zabal begietarano jausten zizakonaren azpian, dudan zela iduritu zuen. Bertze xede batzu bazituzkeen; hasteko errexki sakrifikatu zauztan, ene gozaldi handian, auharia nik baino hobeki mana zezakeen manaiari gazte baten enekin ukaiteari balio handia bainemakon.

Segur da, Balbec-en, osoki bertzelako zerbait izana zela enetako. Baina gure etxekotasunak, orduan ez aski hertsia estimatzen ginuenean ere, hartaz hartua giren emazte batekin, egiten ditu haren eta gure artean, orduan min egin-arazten daukuten eskasiak izanik ere, gure maitasunaren ondotik eta maitasuneko orhoitzapenarenetik ere irauten duten gizarteko lotura batzu. Orduan, guretako bertze batzuetarako bidea baizik ezten emaztearen baitan, ustegabetuak gira eta jostatuak gure orhoitetik ikasteaz haren izenak zer berezi erran nahi ukana zuen lehenago izanak giren bertze izaitearendako, karrosazain bati helbide bat eman ondoan, Capucines-etako karrika handian ala Bac-eko karrikan, han ikusiko dugun jendea gogoan ukanez bakarrik, izen horiek behin haien komentua hor zen serora kaputxinen eta Zekuanaren iragaiteko gabarraren izenak izan zirela ohartzen baldin bagira bezainbat.

Eiki, Balbec-eko ene gutiziek hain ontsa zuten Albertine-ren soina zohitua, hartan zapore hain frexkoak eta eztiak bilduak nun, gure Oihaneko lasterraldian, haizeak, baratzezain arthatsu batek bezala, zuhatzak inharrosten zituen batean, fruituak eror-arazten, orsto zimelduak ekhortzen, bainion neure baitan, Saint-Loup-ek huts egina zuelako irriskua baldin bazen, edo haren eskutitza gaizki hartua ukan nezan eta Stermaria-ko Andererarekilako ene auhariak jeusetara ereman etzezan, Albertine-rekin hitzartuko nintzala arrats bereko biziki berant, atsegin hutsezko oren batez, orai gaindizka zituen xoramen guziak lehenago ene jakin-nahiak uste ukanak, karkulatuak zituen gorputza besoetan atxikiz, Stermaria-ko Anderearen alderako maitasunaren hastapen hortako bihotz-hunkiduren era behar bada trixtezien ahaztekotan. Eta segurki, uste ahal ukan banu Stermaria-ko Andereak etzautala lehenbiziko arrats hartan fagorerik batere emanen, harekilako ene arratsaldia aski nahigabeko moldean itxuratuko nuen. Sobera ontsa ikasia nuen nola gure baitan elgarri jarraikitzen diren bi aldiak, ezagutu gabe gutiziatua dugun emazte baten alderako maitasun hastapen horietan, haren baitan maite baitugu, oraino abantzu ez ezaguna den hura bera baino gehiago, eremaiten duen bizi berezia, -nola bi aldi horiek egintzetan bitxiki itxuratzen diren, erran nahi da ez guhauren baitan, baina harekin ditugun hitzartzetan. Harekin ehoiz ere mintzatu gabe, dudan egon gira, guretako itxuratzen duen poesiaz gutiziatuak. Hura izanen dea ala bertze norbait? Eta horra nun ametsak haren inguruan jartzen diren, harekin bat egiten duten. Harekilako lehenbiziko hitzarraldiak, berehala jarraikiko baita, sortzera zoan maitasun hori itxuratu behar luke. Ezta halakorik. Gauzetako biziak ere bere lehen aldia ukan behar balu bezala, jadanik maite dugularik, molde ezteusenean mintzo

gitzazko: "Irla huntara auhaltzera jitea galdegin dautzut lekua gustatuko zaitzula uste ukan baitut. Jeus bertzerik eztut bertzela zuri erraiteko. Baina ontsa heze dela beldur niz eta hotz ukan dezazun. - Baina ez. - Maitagarritasunez erraiten duzu. Onhartzen dut, anderea, oraino oren laurden batez hotzari iharduk dezazun, zure ez oinazkatzeko, baina oren laurden baten buruan, bortxaz eremanen zitut. Eztautzut marranta bat bil-arazi nahi." Eta hari jeus errana ukan gabe, eremaiten dugu, hartaz orhoitzapenik atxiki gabe, ezpada gehien gehinik so egiteko molde bat, baina berriz haren ikustea baizik ez gogoan. Bada, bigarren aldian (soa ere, orhoitzapen bakarra, ez berriz aurkituz, baina hala ere berriz haren ikustea baizik ez - oraino ontsa gehiago - gogoan) lehen maila iragana da. Bitartean jeus ezta gertatu. Alta, ostatuko gozo eskasaz mintzatzeko orde, emazte berri hori, itsusia aurkitzen duguna, erraiten dugunak ustegabetu gabe, baina biziko minuta oroz guhaurez mintza lakidioten nahi ukanez, badiogu: "Ukanen dugu zer egin gure bihotzen artean metatu eragozpen guzien garhaitzeko. Helduko girela uste duzua? Gure etsaiak menpera dezazkegula asmatzen duzua, ethorkizun zorionezko bat ukan dezakegula?" Baina kontramoldeko solasaldi horiek, lehenik baliogabeak, gero maitasunaz aierudunak, etziren gertatuko, Saint-Loup-en eskutitza sinets nezakeen nuen. Stermaria-ko Anderea lehenbiziko arratsean berean emanen zen, enuen beraz, gaitzenean, etxera Albertine-ren jin-arazteko beharrik ukanen. Debalde zen, Robert-ek etzuen ehoiz behar baino gehiago erraiten, haren eskutitza garbi zen.

Albertine guti mintzatzen zizatan, arranguratua nintzala sendi baitzuen. Urrats zenbait egin ginuen oinez, zuhazti tinki baten harpe berdail, abantzu itsastarraren azpian, haren gopoilaren gainean entzuten ginuelarik haizea oldarkatzen eta euria zalapastatzen. Lurrean lehertzen nituen maskur batzu bezala lohian sartzen ziren orsto zimelak eta gaztena batzu ikinoak bezain sistakorrak makilaz joiten.

Abarretan azken orsto daldarikatuak etzizazkon haizeari jarraikitzen bere girtainaren neurriaz baizik, baina batzuetan, hau hausten baitzen, lurrera erortzen ziren eta lasterrez hatzemaiten zuten. Gogatzen nuen bozkariorekin zenbat, aro hark irauten bazuen, irla bihar oraino urrunago izanen zen eta hasteko osoki hutsa. Berriz karrosara igan ginen, eta erauntsia eztitua baitzen, Albertine-rek galdegin zautan Saint-Cloud-erano jarraikitzea. Beherean orsto zimelak bezala, gainean hedoiak haizeari jarraikitzen zizazkon. Eta arrats batzu herriz aldan, zeruan urradura hertsi batek ikustera uzten zuela bat bertzearen gainean haien metatze gorraxta, urdina eta muskerra, aro-mota ederrago batzuetarako prest-presta jarriak ziren. Bere zolatik oldean abian zen harbizizko jainkosaren hurbilagotik ikusteko, hari konsekratua iduri zuen oihan handi batean bakar-bakarrik, bere jauzi erotuen mithologiako izialdura, erdi abre, erdi sakratuaz betetzen zuela, Albertine bixkar batera igan zen, nik bidean iguritzen nuen batean. Hark berak, horrela beheretik ikusiz, ez orai lodi eta biribil joan den egunean bezala ene ohean, haren larruko pikorrak ene begietako krixtail hurbilean agertzen zirelarik, baina zizelkatua eta lerden, iduri zuen hartan Balbec-eko minuta zoriondunek bere leundura ezarria zuten gizaiduri ttipi bat. Etxean berriz bakarrik aurkitu nintzanean, arratsaldean Albertine-rekin erosketa baten egiten izana nintzala orhoituz, biharamunagoan

Guermantes-ko Anderearen etxean auhaltzen nintzala, eta behar nuela Gilberte-ren eskutitz bati ihardetsi, maitatuak nituen hirur emazte, banion neure baitan gure gizarteko bizia, edergile baten landegia bezala, betea dela hetan maitasun handi baten beharra jartzen ahalko ginuela ephe batez uste ukana dugun lanekai bazterrera utziez, baina enuen gogoan, lanekaia zaharregia ezpada, batzuetan berriz har dezagun gerta daitekeela eta lan osoki bertzelako bat hartaz egin, behar bada hastean xedatua ginuena baino ere gotorragoa.

Biharamunean, hotz eta eguraldi egin zuen: negua sendi zen (eta egiaz, urtaroa hain zen aitzinatua nun mirakulu baitzen Oihan jadanik andeatuan urre muskerrezko gopoil batzu aurkituak ukaitea). Atzartzean ikusi nuen, Doncières-ko kasernako leihotik bezala, lanbro hits, leun eta xuria iguzkian airoski dilindan, azukre harilkatua bezain tinki eta ezti. Goizik iluntzen hasi zen, aphainketa egin nuen, baina abiatzeko goizegi zen oraino; Stermaria-ko Andereari karrosa baten igortzea deliberatu nuen. Enintzan igaitera menturatu enekin bidearen egitera haren ez bortxatzeko, baina harendako hitz bat eman naukon karrosazainari haren hartzera joan nindadin onhartzen zuenez galdegiten bainuen. Anartean, ohean etzan nintzan, begiak ephe batez hetsi nituen, gero berriz ideki. Erridauen gainean, etzen gehiago iluntzera zoan argi ipura mehe bat baizik. Oren debaldeko hori ezagutzen nuen, atseginaren aitzin-gune barna, haren huts ilun ezin goxoagoaren ezagutzea ikasia bainuen Balbec-en, noiz ere, orai bezala ene gambaran bakarrik, bertze guziak auhaltzen ari zirenean, bainakusan trixteziarik gabe eguna erridauen gainean hiltzen, jakinez, laster, lurburuko gauak bezain gau labur baten ondotik, argiago berphiztuko zela Rivebelle-ko garren dirdiran. Ohetik jauzi egin nuen, ene lephoko beltza ezarri, iler brozaldi bat eman, ordenu emaite berandu bateko azken jestuak, Balbec-en eginak nituelarik ez nihaur baina Rivebelle-en ikusiko nituen emazteak gogoan, aitzinetik irriño egiten nauen batean gambarako miraila zeharkatuan, eta hortako argiez eta musikaz nahasi libertimendu baten aitzin- seinaletako geldituak. Mirazko seinale batzuek bezala hura gogoratzen zuten, biziki gehiago jadanik egiten; haier esker banuen Combray-n uztailean - paketatzalearen mailu ukhaldiak entzuten nituenean eta, ene gambara iluneko hoxturan, beroaz eta iguzkiaz gozatzen nintzalarik - bezain haren egiaz ideia bat segurra, haren xoragarritasun arinegiaz atsegin bat osoa.

Hortakotz ikusi nahiko nuena etzen osoki Stermaria-ko Anderea. Orai harekin arratsaldiaren iragaitera bortxatua, aitamak itzuli baino lehen hau azkena nuena baitzen, nahiagoko nuen librorik izan zadin eta Rivebelle-ko emazteak bila ahal nitzan. Eskuak berriz ikuzi nituen azken aldi batez, eta atseginak bizitegian egin-arazten zautan ibilaldian, jateko sala ilunean xukatu nituen. Aitzin-gambara argitura idekia iduritu zizatan, baina atheko arteka argituarendako hartua nuena, aldiz hetsia baitzen, etzen harresiari kontra ezarri miraila batean (amaren itzultzeko bere lekura eman artean) ene esku-oihalaren leinuru zuria baizik. Berriz gogoratu zizaztan gure bizitegian aurkituak nituen lilluramendu guziak eta begietakoak bakarrik etzirenak, ezen lehenbiziko egunetan uste ukana nuen auzoko emazteak bazuela zakur bat, errobinet bat idekitzen zen aldi oroz kozinako ur-hodi batek egiten zuen sainga luze, abantzu gizatarraren gatik. Eta trampagaineko athea etzen

ber-bera, biziki emeki, mailadiko airetara hesten, *Tannhäuser*-ko aitzin-musikaren ondarrera, Beilarien koroan bat bertzearen gainera doazen atseginezko aire auhenkatuetako hausturak joz baizik. Gainera ukan nuen, oihala bere lekuan berriz utzi eta, sinfonia zati lilluragarri horren entzute berri bateko aldia, ezen xilintxa ukaldi batek jorik, aitzin-gambarako athearen idekitzera laster egin bainuen ihardespena ekhartzen zautan karrosazainari. Uste nuen izanen zela: "Anderea beherean da" edo "Andereak igurikatzen zitu". Baina eskuan bazadukan gutun bat. Ephe batez dudan egon nintzan Stermaria-ko Andereak izkiriatua zuenaz ezagutza hartzeko, luma eskuan zueno bertze zerbait izan baitzaitekeen, baina orai, hartarik berex, bere bidea zeraman halabehar bat baitzen eta deus aldatzen ahal etzizakona. Karrosazainari galdegin naukon berriz jauts zadin eta ephe batez igurika zezan, nahiz lambroaz marmarikan ari zen. Joana izan zen orduko, eskutitz-estalgia ideki nuen. "Vicomtesse Alix de Stermaria"-rekilako kartaren gainean, ene gomitak izkiriatua zuen: "Lastimatua niz, nahigabe batek debekatzen dauta gaur zurekin irlako Oihanean auhaltzea. Besta bat zizatan. Stermaria-tik luzazago izkiriatuko dautzut. Urriki dut. Adixkidantzak." Geldi-geldia egon nintzan, hartua nuen ukaldiaz balditua. Oinetara eroriak zizaztan karta eta estalgia, tiroa joana denean harma bateko tapagailua bezala. Bildu nituen, hitza ikhertu. "Enekin Oihaneko irlan ezin auhal daitekeela dio. Egin laiteke hortarik enekin bertze nunbait auhaldu ahalko zela. Eztut ukanen haren bila joaiteko ausarkeria, baina azkenean hori onhar laiteke." Eta Oihaneko irla hartarik, laur egunez geroz aitzinetik Stermaria-ko Anderearekin han jarria baitzen, ene gogoaren itzul-araztera enindaitekeen hel. Ene gutiziak nahigabean hartzen zuen berriz hainbertze orenez geroz hartan zoan malda, eta mezu hori ukana gatik, hari nagusitzeko berrikiegi, asmuz oraino abiatzera nindoan, etsamina batean onhartu ezten ikasle batek oraino galde bati ihardetsi nahi lukeen bezala. Deliberatu nintzan azkenean karrosazainaren ordaintzera joan zadin Françoise-ri galdegitera. Barne-bidea iragan nuen, hura ezin hatzemanez jateko salara jo; bapatez ene urratsak zolan joitetik gelditu ziren ordurano egina zuten bezala eta ixil batean eztitu, horrek, arrazoina ezagutu ere baino lehen, ithotzeko eta hetsia izaiteko sendipen bat eman baitzautan. Tapizak ziren, aitamen itzultzeko, itzatzen hasiak, zorionezko goizetan hain ederrak diren tapizak, haien desordenuan iguzkia zure igurika dagolarik baserrian auhaltzera eremaiteko ethorria zaizun, eta hetara oihanaren soa emaiten duen adixkide bat bezala; baina orai, aldiz, neguko presondegiaren lehenbiziko antolamenduak ziren, hartarik, han bizitzera bortxatua, aphairuen familian hartzera, ezpainintzan gehiago nahi bezala athera ahalko.

- Jaunak eror guardi eman beza, eztira oraino itzatuak, oihu egin zautan Françoise-ek. Argia phiztu beharko nuen. *Burubilean* gira jadanik, egun ederrak joan dira.

Laster negua; leiho xokoan, elhur gogortuzko zain bat; eta, Champs-Elysées-etan ere, igurikatzen diren nexkato gazten orde, murru xoririk baizik ez.

Stermaria-ko Anderearen ez ikusteak ene etsipena handitzen zuena zen haren ihardespenak uste ukan-arazten zautala, ni, orenez oren, auhari hortako baizik bizi enintzalarik, hark etzuela hori aldi batez ere gogoan ukana. Geroago, egin zuen

arrazoingabeko ezkontza bat ikasi nuen, ordu hartan jadanik ikusten zukeen gizon gazte batekin eta ene gomita ahatz-arazia zaukokeenarekin. Ezen orhoitu baliz, hitzartua zenaren arau igorri behar enaukon karrosa etzuen igurikatuko, etzela libro eni jakin-arazteko. Irla lanbroz hartu batean nexkato gazte feodalaz eginak nituen ametsek bidea idekia zaukoten oraino izaiterik etzuen maitasun bati. Orai ene nahigabeak, haserreak, eza emana zuen emazteaz berriz jabetzeko gutizia etsituak, ene sendikortasuna barne hartuz, jar zezaketen ordu arteo ene idurimenak bakarrik, baina nagikiago, eskainia zautan eta ukaiten ahal zen maitasuna.

Zenbat baden, gure orhoitzapenetan, zenbat gehiago ahazpenetan, nexkato gazte ala andere gazte begitarte horietarik, oro ezperdinak, lilluragarri denik eta berriz haien ikusteko gura eroturik hetan ezarri eztugunik, azken orduan gibelera egina zutelakotz baizik! Stermaria-ko Anderearen eretzean, ontsa gehiago zen, eta aski zizatan orai, haren maitatzeko, berriz haren ikustea, iduripen hain bizi baina hain labur horiek, baina laburregiak eta hori gabe orhoitak aitzinean izan gabean haien atxikitzeko indarra ukanen etzuenak, berrituak izan zaitentzat. Gertaldiek bertzela deliberatu zuten, enuen berriz ikusi. Maitatu nuena etzen hura izan, baina hura izana ahal zatekeen. Eta laster ukanen nuen maitasun handia behar bada bortizkienik mingarria egin zautaten gauzetarik bat, izan zen, arratsaldi hartaz orhoit-araztean, nihauren baitan erraitea, gertaldi biziki ttipi batzu aldatuak izan balire, bertze norbaiten gana joan ahalko zela, Stermaria-ko Anderearen gana; hain guti berantago ukan-arazi zautanari emanik, etzen beraz - sinesteko hainbat gura, hainbat behar ukanen nuen bezala - osoki baitezpadakoa eta aitzinetik jarria.

Françoise-ek utzia ninduen jateko salan bakarrik, hark sua phiztua ukan gabe han egonez huts egiten nuela erranez. Auhariaren egitera zoan, ezen aitamak itzuli ere baino lehen eta arrats hartan berean, hetsirik egoitea hasten zizatan. Gaitzeko tapiza meta bati ohartu nintzan oraino biribilkatuak, alhaseko izkina batean ezarria zena, eta burua han gordez, haien erhautsa eta ene nigarrak iretsiz, doluan burua hautsez estaltzen zuten Juduak iduri, hasi nintzan hipaka. Hotzikharetan nintzan, ez bakarrik barnea hotza zelakoz, baina - lanjerrari buruz eta, erran behar bada, kontra egin nahi etzakon goxagailu arinari - beroaren jauste bat egiten baitute gure begietarik, xortaka, darioten nigar batzuek, euri mehe, sarkor, hormatu, nehoiz geldituko eztela iduri duen batek bezala. Bapatez mintzo bat entzun nuen:

- Sartzen ahal dea? Françoise-ek erran dautak jateko salan hintzala. Heldu nindian elgarrekin norapait auhaltzera joan gaiten nahi ehuenez jakitera, gaitzik ezpadauk egiten, ganibetaz mozteko lanbroa ari baitik.

Saint-Loup-eko Robert zen, goizean berean ethorria, oraino Marrokan uste nuelarik edo itsasoan.

Errana dut (eta hain zuzen Robert-ek ninduen, Balbec-en, hortaz konzienzia hartzen lagundua) adixkidetasunaz zer dutan gogatzen: hain gauza gutia dela nun nekez hartzen baitut nola jeinu zerbaiteko gizon batzuek, eta behazunez Nietzsche-ek, ukan duten hari adimenduko balio zerbaiten emaiteko lañotasuna, eta ondorioz adimenduko estimua lotua izanen etzizeen adixkidantzen ez onhartzekoa. Bai, beti ustegabetzeko arrazoina izana zata ikustea nola gizon batek, bere buruarekilako zintzotasuna bazeramana, konzienziako arranguraz, Wagner-en musikatik

baztertzerano, asmatu duen egia izan daitekeela egintza batzu orotara, eta, bereziki, adixkidantza batzu diren bezalako ager-molde jitez nahasi eta ez egoki hortan, eta edozein erran-nahi izan daitekeela nork bere lanaren uztean adixkide baten ikustera joaiteko eta harekin nigar egiteko Louvre-ko sutearen berri falsuaren jakitean. Heldua nintzan, Balbec-en, nexkato gazte batzuekin jostatzeko atsegina izpirituko biziarendako, hartarik berex baitago bederen, adixkidantza baino gutiago kaltegarri zela sinesterano, adixkidantzaren indar guzia guhauren baitan den egiazko eta (ederlanaren bidez bertzela) ezin jakin-arazia den zatiaren sakrifika-araztea baita azaleko ni bati, bertzeak bezala bere baitan bozkariorik aurkitzen eztuenari, baina kampoko zurkaitz batzuez lagundua senditzean berazte nahasi bat aurkitzen duenari, nortasun arrotz batean ostatatua, han, emaiten zakon gerizatzeaz zorionean, bere ongi-izana onespenetan irradia-arazten baitu eta miresten baita bere baitan hutsak dei lizazkeen eta haien zuzentzea bila zezakeen kalitate batzuez. Bertzela ere adixkidantzaz gaitzerraileak, lillurarik gabe baina ez urrikitzerik, munduko adixkide hoberenak izan daitezke, bere baitan nagusi-lan bat bedakarren eta bere eginbidea lan egiteko bizi egoitea dela sendi duen edergile batek, hala ere, berekoia dela ez iduritzeko edo ez irriskatzeko, bizia debaldeko arrazoin bati bademan bezala, eta are gehiago beldurrik gabe nun haien gatik ez emaitea nahigo ukanen zuen arrazoinak abantailnahi gabeko arrazoinak baitira. Baina zer izan zadin ere adixkidantzaz nuen aburua, bazematan zautan atseginaz baizik ez mintzatzeko ere, balioaz hain bierartekoa nun akhiduraren eta aspertzearen arteko zerbait iduri baitzuen, ezta edari hain kaltegarririk ordu zenbaitez baliodun eta bizkorgarri bilaka eztaitekeenik behar ginuen azote ukhaldia, guhauren baitan ezin aurki dezakegun beroa ekharriz.

O

ntsa urrun nintzan segurki Saint-Loup-i galdegitetik, zuela oren bat nahi nuen bezala, Rivebelle-ko emazte batzu ikus-araz zezaztan; Stermaria-ko Andereaz nuen bihotzminak uzten zautan hatzak etzuen hoin laster ezabatua izan nahi, baina, neure bihotzean zorion arrazoinik batere sendi enuen orduan, Saint-Loup-en sartzea, ongiegin, alaitasun, bizi ethortze bat bezala izan zen, nitarik kampoan zirenak dudarik gabe, baina eni eskaintzen, eneak izaitea baizik galdegiten etzutenak. Berak etzuen ene eskerronezko oihua eta mardotasunezko nigarrak zer ziren gogoan hartu. Uste denaren kontra, adixkide horietarik bat baino amultsuagorik zer da bertzela ere - diplomata, airekolari, ala Saint-Loup zen bezala armadako -, biharamunean baserrira berriz abian eta hortik Jainkoak daki nora, guri emaiten daukuten arratsaldi hartan, iduri baitute beretako eduk-arazten dutela, hain da bekana eta laburra, hainbertzetarano eztia izaiten ahal zaien, eta, hainbat laket dutenaz geroz, haren gehiago luzatzen edo usuago berritzen ikustean ustegabetzen duen iduripen bat? Aphairu batek gutartean, gauza hain naturala, emaiten daue arrotz horier gure karrika handiek Asiatar bati bezain atsegin bitxi eta ezin goxoago bera. Elgarrekin abiatu ginen auhaltzera joaiteko eta mailaldean jausten nintzan batean orhoitu nintzan Doncières-ez, han arrats oroz ostatuan Robert-en aurkitzera bainindoan, eta jateko sala ttipi ahatziez. Geroztik berriz nehoiz gogoratua etzizatan batez orhoitu nintzan eta Saint-Loup auhaltzen zen hotelean gertatu etzen batez,

baina ontsa xumeago batean, ostaleria eta pensionearen artekoa, han etxekandereak eta haren sehietarik batek zerbitzatzen baitzuten. Elhurrak han geldi-arazia ninduen. Arrats hartan Robert-ek etzuen ere hotelean auhaldu behar eta enuen urrunago joan nahi ukana. Jatekoak ekharri zauztaten gainean, dena zurez egina zen sala ttipi batean. Auharian lampa hil zen, neskatoak ekharri zituen bi ezkargi. Nik, azietaren eskaintzean alegia ez ontsa ikusten, hartan lursagar ezartzen ari zen batean, haren ukho hasa eskuan hartu nuen gidatzeko bezala. Etzuela gibeleratzen ikusiz, pherekatu nuen, gero, hitzik erran gabe, osoan neure gana erakharri, ezkargia ufatu eta orduan erran naukon miha nindezan, diru aphur bat har zezan. Ondoko egunetan, iduritu zizatan gorputzeko atseginak, hartua izaiteko, behar zuela ez bakarrik neskato hura, baina jateko sala zurezkoa, hain baztertua. Robert eta haren adixkideak auhaltzen ziren hartara nintzan bizkitartean joan arrats oroz, ohiduraz, adixkidantzaz, Doncières-tik abiatu baino lehen. Alta, bere adixkidekin pensione hartzen zuen hotel hura ere, bazen aspaldi enuela gehiago gogoan. Gure biziaz ezkira guti baizik baliatzen, udako ilunabarretan ala neguko gau goiztiarretan bururaturik gabe uzten ditugu hetan bake edo atsegin apur bat alta edukia izaiten ahal zela iduritua zizaikun orenak. Baina oren horiek eztira osoki galduak. Iraganen ziren atseginezko ordu berri batzuek bere aldian kantatzen dutenean, berdin mehar eta marratuak, heldu zeztee bere oinarriaren, orkeztratze aberats bateko goritasunaren ekhartzera. Horrela hedatzen dira berriz noiztenka baizik berraurkitzen eztiren baina izaiten jarraikitzen duten zorion mota hetarik batetarano; zorion hori, oraiko aldian, gainerateko guziaren uztea zen, orhoitzapenen indarraz bidaia agiantza batzu naturako marrazki batean hesten dituen leku gozo batean auhaltzeko, bere gemenaz, atxikimendu guziaz, atsegin hunki bat, guhauren indarretik ala libertimendu mundutarretarik ukan ginezakeenetik ontsa bertzelakoa harr-araziko daukun adixkide batekin; ezkira harekin baizik izanen, adixkidantzazko zinak eginen dauzkogu, oren hortako artesietan sortuak, han hetsirik geldituz, ezpaitziren behar bada biharamunean atxikiak izanen, baina Saint-Loup-i arrangurarik gabe egin nezozkeenak, biharamunean, hartan zuhurtzia ainitz eta adixkidantza ezin barna daitekeela aitzinetik senditze ainitz sartzen zen kuria batekin, berriz joana izanen zenaz geroz.

Mailaldearen jaustean berriz nitan bizi baziren Doncières-ko arratsak, karrikara helduak izan ginenean, bapatez, lanhoak karrikargiak hilak zituela - ezpaitziren, ontsa ahul, hurbil-hurbiletik baizik ikusten - iduri zuen gau abantzu osoak berriz ekharri ninduen Combray-ra, arratsean, nik dakita noizko ethortzera, hiria etzenean oraino urrundik urrunera baizik argitua, itsumandoka ibiltzen zelarik ilun heze, ephel, krexakoa bezain saindu batean, han-hemenka doi-doia izarkatua ezkargi batek baino gehiago argitzen etzuen muka batez. Combray-ko urte (ez segurra bertzela ere) haren eta arestian erridauen gainean berriz ikusi Rivebelle-ko arratsen artean, nolako ezperdintasunak! Hetaz orhoitzean sendi nuen gogo-berotze bat emankor izan ahal zaitekeena, bakarrik izan banintz, eta horrela nitarik baztertuko zuena, liburu hau haren ixtorioa den dei ezin ikusia ager ladin baino lehen, hetarik oraino iraganen nintzan debaldeko urte ainitzetako itzulia. Hori arrats hartan gertatu baliz, karrosa hark merexi ukanen zuen enetako Percepied

medikuarena baino orhoikarriago gelditzea, hartako jarlekuan bainuen egina Martinville-ko ezkiladorren agerbidea, hain zuzen zuela guti berraurkitua, antolatua, eta debaldetan *Figaro*-ra igorria. Hori ote da gure urteak bere lerro jarraikian, egunez egun, berbizitzen eztitugulakotz, baina goiz edo arrats baten hoxturako edo iguzkitzeko orhoitzapen geldian, holako leku baztertu, gelditu eta galdu bateko itzala hartzen duenean, bertze orotarik urrun, eta horrela aldakuntza mailkatuak, ez bakarrik kampoan, baina gure ametsetan eta bertzelakatzen den gure nortasunean, senditu gabe bizian ereman baikituzte aro batetik osoki bertzelako batera, ezabatuak gertatzen direlakotz? Bertze orhoitzapen bat berriz ukaiten baldin badugu, bertze urte batean hartua, horien artean, huskune batzuer, ahazte zati neurrigabeko batzueri esker, goratasunez ezperdintzean bezalako lezea edireiten dugu, hats hartu den aire 'ta ingurumeneko margoetako bi nolakotasunen ezin akomeatzea bezalakoa. Baina ukanak nituen orhoitzapenen, jarraikian Combray-ko, Doncières-ko eta Rivebelle-koenen artean, ordu hartan sendi nuen aro urruntasun bat baino biziki gehiago, materia han berdina izanen etzen mundu oso batzuen artean lizatekeen urruntasuna. Liburu batean nahi ukan banu ene Rivebelle-ko orhoitzapen ezteusenak zizelkatuak agertzen zizaztan urruna itxuratu, gorraxtaz zainkatu beharko nuen, bapatean zehargi-arazi, tinkatu, hoxturan eta ozen, ordurano Combray-ko harri pikorkatu ilunaren itxurako gaia.

Baina Robert, karrosazainari bere argipenen emaitea bururaturik, karrosan enegana itzuli zen. Agertuak zizaztan gogoetek ihes egin zuten. Jainkosa batzu dira batzuetan hilkor bakartu bati ikuskarri bilakatzea onhartzen dutenak, bide bateko itzulgunean, lo delarik bere gambaran ere, athe-uztaian zutik bere iragarpena ekhartzen daukotenean. Baina biga gireneko, itzaltzen dira, elgarrekin dauden gizonek ehoiz eztituzte ikusten. Eta aurkitu nintzan adiskidantzara berriz igorria.

Robert-ek ethortzean lanbro ainitz bazela jakin-arazia zautan bada, baina solastatzen ari ginen artean loditzetik etzen gelditua. Etzen bakarrik irlan jeikiko zela eta Stermaria-ko Anderea eta biak inguratuko ginituela againtzatua nuen lanho arina. Karrikargiak bi urratsetan iraungitzen ziren eta orduan gaua zen, baserrietan, oihanean, edo izaitekotz hara joan nahiko nuen Bretainiako irla guri batean bezain iluna; iphar itsaso zenbaiten bazterrean bezain galdua sendi nintzan, han hiltzea hamar aldiz irriskatzen den ostatu bakartira heldu baino lehen; bilatzen den lillura bat izaitetik geldituz, lanbroa haien kontra gudukatzen den lanjerretarik bat bilakatzen zen, hala nola nun ukan baiginituen, bidearen hatzemaiten eta nahi ginuen lekura heltzen, duda-mudan era arroztua den bidariari segurtasunak - galtzeaz mehatxatua eztenari hain sendigaitzak - emaiten dauzkon nekeak, khexua eta azkenean bozkarioa. Gure itzuli menturatuan gauza bakar batek irriskutan ezatzer zuen ene atsegina, ephe batez eman zautan ustegabetze suminduaren gatik. "Badakik, erran zautan Saint-Loup-ek, Bloch-i erran dakeat ehuela batere hainbertze maite, arruntasun batzu aurkitzen hauzkokala. Ni hola nuk, gauzak garbian nahi ditiat", bururatu zuen itxura askietsi eta ihardesterik onhartzen etzuen doinu batean. Balditua nintzan. Enuen bakarrik Saint-Loup-en baitan konfienxia oso-osoena, haren adixkidetasunaren leialtasunean, eta Bloch-i errana zaukonarekin trahitua zuen, baina iduri zizatan, gainera, horren egitea debekatua izan behar

zaukotela bere gaitasunek bezainbat bere hutsek, ikustatea zintzotasun eskas baterano ereman zezakeen ikaskuntzatik ohigabeki ukana zuenak. Haren itxura triunfaria eragozpen zenbait gorde nahi dugunean hartzen duguna zena, egin behar ezkinuela badakigun zerbaiten aithortzean? ohartze gabea salatzen zuena? ezagutzen enaukon akats bat bertutera bihurtzen duen zozokeria? nitarik urruntzera bazeraman ene kontrako omore gaixto iraupen gutiko baten aldi bat? ala ni irriskuan ezarriz ere zerbait gozagaitz erran nahi ukanen zaukon Bloch-en aldera omore gaixto iragankor bateko aldi zenbaiten hartzea? Gainera, hitz arrunt horiek erraiten zauztan batean, haren aurpegia bizian aldi bat edo biez baizik ikusia enaukon itzul-inguratze itsusi batez orbaindua zen, eta lehenik begitarte erditsutik, ezpainetara heldurik hauk makurtzen zituena, aphaltasunezko itxura hastiagarri bat emaiten, abantzu abretasun osoki iraupen gabeko eta arbasoetarik ukana zukeen bat. Bi urtetarik behin baizik itzultzen etzatezkeen ordu horietan, bazatekeen haren nortasunaren zatizko itzalaldi bat, haren baitan itxuratzen zen arbaso zenbaiten nortasunaren iragaite bat. Robert-en itxura askietsiak bezainbat, "gauzak garbian nahi ditiat" hitzek duda berera bazeramaten, eta gaizki-erran bera merezi ukanen zuten. Erran nahi naukon, "gauzak garbian maite baldin badira", nor berari doakonean zintzotasunezko aldi batzu behar direla eta bertze norbaiten kaltetan ez bertute errex sobera ukan. Baina jadanik karrosa gelditua zen haren aitzinalde zabal berinaztatu dirdiratuak bakarrik iluna zilatzen zuen ostatuaran aitzinean. Lanhoak berak, barneko argitze gozoez, iduri zuen oinbiderano sartzea erakusten zautzula nagusiaren joaitea itxuratzen duten mutilen bozkarioarekin; leinuru berexi arinenez hortzadartzen zen sartzea erakusten zuela, zutabe argiztatuak Hebrearrak gidatu zituen bezala. Hetarik ainitz bazen bertzela ere jaletan. Ezen ostatu hortara ziren luzaz jinak Bloch eta haren adixkideak, urtean behin bederen gertatzen ezten erritoko barura bezain barur gosagarri batez, kafez eta politikako jakin-nahiz hordituak. Gogoaren sustatze orok emaiten baitaue hari lotzen diren ohidurer lehentasuna duen balio bat, kalitate goren bat, gostu doi bat bizirik ezta horrela bere inguruan jende multzo bat moldatzen eztuenik, hartan bertze lagunen alderako ikustatea bakoitzak oroz gainetik bizian bilatzen duena baita. Hemen, probinziako hiri ttipi batean izanik ere, aurkituko dituzu musikan amorratuak; haien astiko hoberena, diruko gehiena gambarako musikaldi batzuetan joaiten da, musikaz solastatzen den bilkuretan, musika maitaleak elgarretaratzen diren eta musikarier hurbiltzen zaien ostatuetan. Bertze batzuek, airekoez gustatuak, nahi dute baitezpada airekogune gaineko ostatu berinaztatuko mutil zaharrak ontsa ikus ditzan; haizolbean, itsasargi bateko berinazko kaiolan bezala, jarraiki ahalko zaie, orduan airean ezten airekolari baten ondoan, itzuliko egiten ari den aire-bidari baten jokoer, bertze bat, aitzinean ikusten etzena, bapatez lurreratu berria denean, Rock xoriaren hegal harrabots handi batean. Zola-ren auziko sendipen iragankorren barnatzeko, iraun-araztera indar egiteko biltzen zen lagunkideria ttipiak ere bazemakon ostatu hari balio handi bat. Baina gaizki ikusia zen, berduleriaz aphaindu baranda arin batez bakarrik aitzinekotik berexia, ostatuko bigarren sala bat hautatua zuen eta aitoren seme gazte batzuek egiten zuten jendearen bertze zatia. Dreyfus eta haren aldekoak trahitzaletzat zaduzkaten, nahiz hogei-ta bortz

urte berantago, ideiek ordenatzeko dembora ukanik eta dreyfusixmak ixtorioan halako aphaintasun baten hartzekoa, aitoren seme horien beren semek, boltxebixtar eta balzari bilakaturik, galdekatzen zituzten "intelektualer" erran behar zaueten, segurki, aro hartan bizi izan balire, Dreyfus-en alde izanen zirela, jakin gabe Afera zer izana zen, Edmond de Pourtalès kondesa edo Galliffet-eko markestsa, haien sort-egunean jadanik iraungiak ziren bertze eder-eder batzu, nor izanak ziren baino biziki gehiago. Ezen, lanbroa zen arratsean, berantago "intelektual" gazte gibelera behatuz dreyfustiar horien aitak izan behar zuten ostatuko aitoren semeak, oraino mutiko ziren. Segurki, guzien familiek ezkontza aberats bat xedatzen zuten, baina etzen oraino nehorendako egina. Oraino bakarrik gertagaia, aldi berean batek baino gehiago agiantzatzen zuen ezkontza horrek ("partida aberats" batzu baziren bada ikuspegian, baina ezkongai baino dote azkar biziki gutiago) mutiko gazte horien artean etsaigo zerbait zuen bakarrik ezartzen.

Ene zorigaitzak nahi ukan zuen, Saint-Loup zenbait minutaz karrosazainari mintzatzen egonik auhal-ondoan gure hartzera itzul zadin erraiteko, bakarrik sartu behar ukan nuela. Bada, hasteko, ohitua enintzan athe itzulikarian sartu eta, uste ukan nuen enintzala hartarik jalgi ahalko. (Derragun artetik, hiztegi zuzenago baten maitale direnendako, athe-atabal hark, bere itxura baketia ukanik ere, athe-errebolberaren izena duela, *revolving door* angelesetik.) Etxeko nagusia arrats hartan, kampora joanez bustitzera ez menturatuz ez eta bere ohituen uztera, sartzearen ondoan zagon bizkitartean, jiteko nekea eta galtzeko beldurra ukanak zituzten jende batzuen gozaldiaz oro argiztatuak heldu zirenen zinkurina alaien entzuteko atseginaren ukaiteko. Alta haren ongi-ethorri arraia ezeztatua izan zen berinazko bolantetarik atheratzen etzakien heltzale berriaren ikustean. Jakingabeko ezagugarri ageri horrek bekaina zimurr-arazi zaukon *dignus est intrare* delakoaren ez erraiteko gutizia handia duen etsaminalari bati bezala. Zorigaitzaren mukurruz arixtokraziarendako berezia zen salan jartzera joan nintzan handik ene jalgi-araztera jin baitzen garrazki, mutil guziak berehala hartara jarri ziren arrunkeria batekin leku bat bertze sala batean erakutsiz. Are gutiago zizatan gustatu nun leku hura zen alkixka jendez betea baitzen jadanik eta aitzinean bainuen Hebrearrendako berezia zen athea, hark, ez itzulikaria, noiz nahi hetsiz et idekiz, hotz bat izigarria igortzen baitzautan. Baina nagusiak bertze bat ezetsi zautan erranez: "Ez, jauna, jende guzia eztezaket zuretako jena." Laster ahatzi zuen bertzela ere nintzan auhaltier berankor jenagarria, jile berri bakoitzaren ethortzeaz osoki hartua, hunek behar baitzuen, bere *bock*-a edo oilasko ixter hotza manatu baino lehen (auhariaren ordua aspaldi joana zen), elhaberri zaharretan bezala, bere saria eman gertatua zizakona erranez gerizaleku bero eta segur hortara sartzean, han ihes egina zizakonarekilako kontramoldeak eman-arazten baitzituen gau-goaita baten su aitzineko alaitsuna eta lagungoa.

Batek zion bere karrosak, Konkorda-ko plazara heldua zela ustez, Embaldituetako itzulia egina zuela hirur aldiz; bertze batek berea, Champs-Elysées-etako ethorbidearen jaustera entseatzean, Itzulguneko landare multzo batean sartua zizakola, handik jalgitzeko hirur oren laurden emanak baitzituen. Gero heldu ziren zinkurinak lanbroaz, hotzaz, karriketako herio ixilaz, horiek guziak erranak eta

etzunak baitziren han ene lekuan salbu bero zen salako giro ohigabeki eztiak, eta jadanik ez ikusten ohitu begiak klixka-arazten zituen argi biziak eta beharriak bere lanean ezartzen zituen solasaldien harrabotsak bazematen itxura bereziki alaiarekin.

Heltzen ari zirenek ixilik egoitea neke zuten. Gertaldietako berezitasuna, bakar-bakarra uste zutena, ezin zezaketen atxik, eta begiez ari ziren harekin solasean hasiko ziren norbaiten bila. Etxeko nagusiak berak neurriaren sendimendua galtzen zuen: "Foix-ko printze Jauna hirur aldiz galtzer da Dona-Marteko athera jitean" irriz erraiteko etzen beldur, ez printzea erakutsi gabe, ikuskarri batean bezala, abokat izraeldar bati, haren ganik bertze edozein egunez landarez aphaindua zen leiho handia baino iragaiteko ontsa nekeagoa izanen zen heskailu batek berexten zuenari. "Hirur aldiz, so egizu" zion abokatak xapela hunkiz. Hurbildu nahizko erranaldi hori etzizakon printzeari gustatu. Ozartasunez artzea, lehenbiziko mailekoa etzen noblezia baten aldera ere, egintza bakartzat zadukala iduri zuen arixtokrata multzo batekoa zen. Agur bati ez ihardestea; gizon ikustateduna hisitzen bazen, itxura trufari batekin murrikatzea edo aire erotu batean buruaz gibelera egitea; zerbitzu egina zaukon gizon adin handiko bat alegia ez ezagutu egitea; esku tinkatzearen eta agurraren atxikitzea bakarrik dukendako edo dukek aitzineratzen zezteeten bere adixkide min batzuendako: hori zen mutiko gazte haien egonara eta bereziki Foix-ko printzearena. Horrelako egonara gaztaro leheneko gogo nahasiaz lagundua zen (adin hartan, burjesian ere, eskergaitz iduritzen da eta bere burua oies erakusten, emaztea galdu berria duen ongi egile bati izkiriatzea ahatzia ukanik, ezpaita gero errextasunez agurtzen ere), baina oroz gainetik kastako handi-ustekeria ezin saminago batek emana. Egia da, adinera heltzean agerpenak eztitzen zezteen zainetako eritasun batzuetan bezala, handi-ustekeria horrek behar zuela gehienetan molde hoin etsaian agertzetik gelditu jende gazte hoin ezin jasanak izanak zirenen baitan. Gaztaroa iragan eta, bekan da ozartasunean hetsia gelditzen. Hura baizik etzela uste ukana zen, eta bapatez aurkitzen da, hain printze izanik ere, badirela musika, literatura, berdin ere deputatugoa. Giza-bertuten ordenamendua aldatua gertatzen da, eta solasetan hasten gira lehenago soaz aurdikitzen zenarekin. Jende horietan igurikatzeko pairamena ukan dutener eta jitea aski ongi egina - hori erran behar bada -, suerte on, berrogei urte inguruan hogeietan idorki ezetsia zizaien garazia onaren eta ongi-ethorriaren ukaitean atsegin senditzeko!

Foix-ko printzeaz erran behar da, aldia denaz geroz, hamabi-hamabortz mutiko gazteko lagunkideria batekoa zela eta laurko multzo ttipiagokoa. Hamabi-hamabortzeko lagunkideriak bazuen berezitasun hau, printzeak, ene ustez, etzuena, mutiko gazte horietarik bakoitzak itxura bikun bat erakusten zuela. Zorrez ithoak, hornitzalen begietan eztus batzu iduri zuten, hauek "Konde Jauna, Markes Jauna, Duke Jauna …" erraitean zuten atsegina izanik ere. Atheka gaixtotik jalgiko zirela uste zuten "ezkontza aberatsa", oraino "zorro handia" zeritzotenaren bidez, eta gutiziatzen zituzten dote gotorrak ezpaitziren laurzpabortz baizik, batzuek bere bateriak ezkongai berarendako ezartzen ari zituzten. Eta segeratua hain ontsa zen atxikia nun, hetarik batek ostatura jitean erraiten zuelarik: "Adixkide ezin hobeak, sobera maite zituztet Ambresac-eko Anderaurenarekin ezkongai nizala zuer ez iragartzeko", oihu batzu entzuten baitziren, hetan batek baino gehiagok, harekin

gauza jadanik beretako egina zela ustez, ezpaitzuen behar zen odol hotza lehenbizian errabiaz eta baldidurazko oihuaren ithotzeko. Châtellerault-eko printzea etzagokeen, ustegabez eta etsipenez phurtxeta erortzera uzten zuela, oihuz erran gabe: "Beraz ezkontzea atsegin zaik, Bibi?", uste ukana baitzuen Ambresac-eko Anderaurenaren ezkongai-besta berak laster agertuak izanen zirela, baina harekin, Châtellerault-ekin. Eta bizkitartean Jainkoak daki haren aitak trebeki Ambresac-tarrer errana zuen guzia Bibi-ren amaren kontra. Etzaitekeen egon Bibi-ri bigarren aldian "Beraz ezkontzeak jostatzen hau?" galdegin gabe, hunek, hobeki prestatua "abantzu ofizial" zenaz geroztik ukana baitzuen bere egonararen hautatzeko asti guzia, ihardesten zuela irriño batekin: "Atsegin diat, ez ezkontzeaz, baina ezin gustagarriago aurkitzen diatan Ambresac-eko Dianarekin ezkontzeaz." Ihardespen horrek irauna zuen artean, Châtellerault-eko Jauna berriz bere baitaratua zen, baina gogatzen zuen lehen bai lehen itzuli egin behar zuela La Canourque-ko Andereñoaren edo Miss Forster-en aldera, bigarren et heren ezkongai handiak, Ambresac ezkontzaren aiduru zauden hartzeduner pazienzia galdatu, eta azkenik Ambresac-eko Anderaurena ezin gustagarriagoa zela errana zauener ere erakutsi ezkontza hori Bibi-rendako on zela, baina hura familia guziarekin samurtuko zela ezkondu ukan balu. Soléon-go Anderea, zuen gero erranen, onhartuko etzituela erraiterano izana zen.

Baina hornitzalen, ostatu nagusiendako eta bertze, jende gutikoen itxura baldin bazuten, aldiz, izaite bikun bezala, munduan gertatzen ziren orduko, etziren gehiago bere fortunaren andeamendutik jujatuak eta haren antolatzera entseatzeko ari ziren ofizio trixtetarik. Berriz Printze Jaun, Duke Jaun holakoa bilakatzen ziren, eta etziren nobleziako mailetarik baizik estimatuak. Abantzu miliarduna zen duke bat eta iduriz guzia berekin zuena, haien gibeletik zoan, hek familiako buru izanez, lehenago han diru joiteko zuzenbidea eta bertze ukan zuten herri ttipi zenbaiteko printze nagusi izanak baitziren. Ainitzetan, ostatu hortan, batek begiak beheititzen zituen bertze bat sartzen zenean, sartzen zenaren ez bortxatzeko agur egitera. Aberastasunaren ondotik bere lasterkatze idurimenezkoan, diruzain bat auhaltzera gomitatua baitzuen. Mundu handiko gizon bat horrela diruzain batekin harremanetan sartzen den aldi oroz, hunek ehun mila liberako bat gal-arazten dauko, ezpaitu horrek munduko gizona bertze batekin berriz hastetik halere debekatzen.

Baina Foix-ko Printzea, bera ere aberatsa, etzen bakarrik hamabortz mutiko gaztetako lagunkeria aphain hortakoa, baina bertze laurko multzo hetsiago eta ezin berexi batekoa, Saint-Loup hetan barne baitzen. Behin ere etziren bat bertzeak gabe gomitatzen, laur maitale ordainduak zeritzoten, ibilaldian beti elgarrekin ikusten ziren, jauregietan gambara elgarretara idekiak emaiten zizezteen, hala nola nun, are gehiago laurak biziki ederrak izanez, hain elgarrekilako etxekotasunaz erran-merran batzu baitzabiltzan. Saint-Loup-i zoakonaz molde baitezpadakoenean gezurtatu ahal ukan nituen. Baina bitxi dena, erran-merran horiek berantago laur-laurez egiak zirela jakin baldin bazen, bakoitza aldiz bertze hirurez jakingabean egona zen. Alta bakoitzak ere bertzez jakinduru izaitea bilatua zuen bada, ala gutizia baten asetzeko, edo izaitekotz gorromio baten, ala ezkontza baten trabatzeko, ala adixkide

agertuaren gainean burupe ukaiteko. Borzkarren bat (laureko multzoetan beti laur baino gehiago izaiten baita) laur platoniarrer juntatua zizaien, bertze guziak baino gehiago hala zena. Baina erlisioneko arrangura batzuek gibelera atxiki zuten laureko multzoa elgarretarik berexia izan zen baino biziki berantago eta bera ezkondua, aita familiako, heldu behar zen haurra mutikoa ala nexkatoa izan zadin Lurden othoizka, eta artean soldadoetara jauzika.

Prinzearen izan-moldea hori izanik ere, solasa haren aitzinean errana izaiteak zuzen hari egina izan gabe, haserrea hori gabe izanen zen baino gutiago azkarra eman zaukon. Gainera, arratsaldi horrek bazuen zerbait ohi ez bezalako. Azkenik abokatak etzuen printzearekin harremanetan sartzeko jaun noble hori ekharria zuen karrosazainak baino zori gehiago. Printzeak uste ukan zuen beraz ihardets zezokeela bazterka eta hala ere itxura mokor-burgoi batekin, lanbroari esker bidaide bat bezala zen solaskideari, munduaren azken mugetako itsas-bazter haizez jo edo lanhoetan murgildu zenbaitetan aurkitua: "Ezta aski galdua izaitea, nun den ezpaita gero aurkitzen." Gogoeta horren zuzenak etxeko nagusia jo zuen, arrats hartan aldi bat baino gehiagotan erraiten entzuna zuelakotz.

Alabaina, ohidura bazuen entzuten edo irakurtzen zuenaren beti erkidatzeko jadanik ezaguna zen erran zenbaitekin eta bien artean ezpazuen ezperdintasunik ikusten senditzen zuen miresmena bere baitan jeikitzen. Gogo izanara hori ezta gauza guti, ezen, polititako solasaldier emanik, egunkarien irakurtzeari, gogo publikoa moldatzen du, eta hortik gertakari handiener bidea idekitzen. Alemaniako ostatu nagusi ainitzek etzituztenean bere jan-edaleak edo egunkariak miresten baizik, Frantziak, Angeleterrak eta Errusiak Alemaniarekin iphizta "bilatzen zutela" ziotenean, gertagarri egina dute, Agadir izan zelarik, hala ere hasi ezten gerla bat. Ixtoriolariek, erregeren nahiaren bidez jendalden egintzen aztertzea baztertuz ezpadira hutsean izan, hori behar dute jende xoilaren, jende xoil bierartekoaren goga-moldeaz ordaindu.

Politikan, sartu berria nintzan ostatuko nagusiak etzuen zenbait demboraz geroztik bere gogozko errepikaldi erakasle gogo-mota Dreyfus aferako zati batzuetako baizik baliatzen. Hitz ezagunak ezpaldin bazituen jan-edale baten solasetan edo gazeta bateko lerro-zutabetan aurkitzen, bazion artikulua nardagarri zela, edo jalea ez zintzo. Foix-ko printzea aldiz hainbaterano miretsi zuen nun dodoia baitzaukon solaskideari erranaldiaren bururatzeko astia utzi. "Ontsa errana, ene printze jauna, ontsa errana (horrek erran nahi baizuen, oro har, "hutsik gabe errepikatua"), hori da, hori", egin zuen, zabaldua, *Mila 'ta bat gau*-etan erraiten den bezala, "gozaldiaren mugan". Baina printzea jadanik sala ttipira itzalia zen. Gero, bizia berriz hasten baita gertaldi berezienen ondotik ere, lanbro itsasotik atheratzen zirenek manatzen zuten batzuek bere edaria, bertzek auharia; auhen artean, Jockey-ko mutiko gazte batzu, eguna ohi ez bezalakoa izanez, etziren dudan egon sala handiko bi mahietan jartzeko, eta horrela eni biziki hurbil aurkitu ziren. Horrela hondamenak ezarria zuen, sala ttipitik handira ere, ostatuko gozoak sustatzen zituen gizon gazte horien guzien artean, lanbro itsasoan luzaz galduak egon ondoan, hartarik ni bakarrik baztertua nindagon etxekotasun bat, Noe-ren arkakoa haren idurikoa zatekeena.

Bapatez, ikusi nuen nagusia gurka makurtzen, mahi-nagusi guziak lasterrez jiten, horrek jende guziari burua itzul-arazi baitzaukon. "Laster, Cyprien dei ezatazu, Saint-Loup-eko Markes Jaunarendako mahi bat", zion oihuz nagusiak, Robert ezpaitzen harendako bakarrik ospe handi batez gozatzen zen jaun handi bat, Foix-ko printzearen begietan ere, baina bizia lauhazkan zereman eta ostatu hortan diru ainitz xahutzen zuen ohitu bat. Sala handiko jaleak beha zauden ikusi-nahian, ttipikoak hel-helez nor gehiagoka oinetakoen idortzen ari zen adixkideari. Baina sala ttipira sartzera zoan orduan, ikusi ninduen handian. "Jainko ona, oihukatu zuen, zer ari hiz hor, athea ere hire aitzinean idekirik", erran zuen, ez behako sumindu bat igorri gabe hestera laster egin zuen nagusiari, mutilen gainera desenkusatuz: "Beti erraiten dauet hetsirik atxik dezaten."

Ene mahiaren desarrañatzera bortxataua izana nintzan eta enearen aitzinean ziren bertze batzuen, haren gana joaiteko. "Zergatik higitu hiz? Sala ttipian baino nahiago duk hor auhaldu? Baina, gaixo-gaixoa, hormatu behar duk. Athe horren kondenatzeko atsegina eginen dautazu, erran zaukon nagusiari. - Orai berean, jaun Markesa, hemendik hara jinen diren jendeak sala ttipitik iraganen dira, horra guzia." Eta bere kharraren hobeki erakusteko, lan hortako mahi-nagusi bat eta mutil andana bat manatu zuen, ontsa egina ezpazen izigarriko mehatxuak gora-goraki entzun-araziz. Errespetuzko seinale soberakinak emaiten zauztan, ni heldu orduko etzirela hasiak ahatz nezan, baina Saint-Loup ethorri zenean bakarrik, eta, ohitu aberats arixtokratak erakusten zautan adixkidantzari zor zirela enezan bizkitartean sinets, irriño ttipi batzu igortzen zauztan gordeka, hetan adixkidantza osoki enetako berezi bat agertzen zela iduri baitzen.

Ene gibelean jale baten solasak ephe batez burua itzul-arazi zautan. "Oilaxko hegala, biziki ontsa, xampaña xorta batekin, baina ez idorregi" hitzen orde hau entzuna nuen: "Glizerina nahiago nuke. Bai, beroa, biziki ontsa." Horrelako aphairuaz zigortzen zen gorputz-hezlea ikusi nahi ukana nuen. Burua berehala berriz Saint-Loup-en gana itzuli nuen ahoxuri bitxiaz ezagutua ez izaiteko. Ezagutzen nuen mediku bat zen xoil-xoilki, eta norbaitek, lanhoaz baliatuz ostatu hortan hetsirik haren atxik-arazteko, konsulta bat eskatzen zaukon. Medikuek molsalariek bezala "ni" erraiten dute.

Bitartean Robert-i so nindagon eta gogoan hau nuen: kafe hartan baziren, banuen ere bizian ezaguturik, ainitz atzerritar, intelektual, mota orotako margolari gazte, haien bizkarreko luzek, 1830 arako lephokoek eta ontsa gehiago ere jestu moldegaitzekoek sortzen zituen irria etsian hartuak, etzirela axolatzen erakusteko haren sustatzerano joanez, adimenduko eta moraleko balio egiazkoa zuten jendeak, sendikortasun barnatu batekoak. Etziren (bereziki Juduak, Judu ez bertzeak bezalakotuak erran gabe doa, eztira bertzeak aiphagarri) itxura bitxi, xoxola bat (Albertine-k Bloch-i bezala) ezin jasan dezaketen jenden gostukoak. Orotara gero onhartzen zen, ile sobera luzeak, sudur eta begi handiegiak, jestu antzokitar eta jauzikatuak bere kontra ari baldin bazizezteen, hortan haien jujatzea haurkeria zela. Juduetan bereziki, guti zen gurasoak bihotz onekoak etzituztenik, gogo zabalekoak, zintzoak, horien ondoan Saint-Loup-en amak eta Guermantes-ko dukeak moralean itxura gaixtoa baitzematen bere idorraz, eskandalak salatzen etzituen erlisione

azalekoaz, eta huts egin gabe diruzko ezkontza gaitzeko batera (bakarrik estimatzen zen adimenduaren bide ustegabekoetarik) bazeraman girixtinotasunaren goresteaz. Baina Saint-Loup-en baitan, zer moldez ere gurasoen akatsak elgarrekin nahasirik izanak baziren kalitate berri batzuen sortzeko, bazen gogo eta bihotzeko ideki bat xoragarria. Eta orduan, erran behar da bada Franziaren loria hiltzegabekoarendako, kalitate horiek Frantzes garbi baten baitan gertatzen direnean, izana dadin arixtokraziakoa ala jende xoila, loratzen dute - zabaltzen dira erraitea gehiegi lizateke, neurria eta muga atxikiak baitira - atzerritarrak, hain estimagarri izan dadin, eskaintzen eztaukun garazia batekin. Adimenduko eta moraleko kalitateak, bertzek ere badituzte segurki, eta gustatzen ezten, ofensatzen duen eta erdi-irria sortzen duenetik iragan behar baldin bada lehenik, eztira gutiago baliosak. Baina hala ere gauza pollita da eta behar bada bakarrik frantzesa, zuzentasunean estimatuz eder dena, gogo eta bihotzaren araura balioa duena, izan dadin lehenik begiendako goxagarri, garaziarekin margotua, xorroxki zizelkatua, ukan dezan ere bere gaian eta modean barneko beteginzarrea. Saint-Loup-i so nindagon, eta banion neure baitan gauza bat pollita dela gorputzeko akatsik eztenean barneko garazietara sargune izaiteko, sudur- hegalak arinak direnean eta molde beteginekoak soroetako loretan, Combray inguruan, gelditzen diren pimpirina ttipienak bezala; eta *opus francigenum* egiazkoa, haren segeretua ezpaita XIII-garren mendetik hunara galdua izan, ezpailizateke ere gure elizekin batean suntsituko, eztirela hainbat Saint-André-des-Champs-etako harrizko aingeruez, baina Frantzes ttipi, aitorenseme, burjes ala laborariez egina, begitartea zizelkatua kalostrape aiphatuan bezain ohikoak gelditu diren xorroxtasun eta zintzotasun haiekin, baina oraino kreatzale direnekin.

Ephe batez joan izanik athearen hesteari berak behatzeko eta auhariaren manatzeari (biziki hisitu zen "harakindegiko haragitik" har ginezan, hegaztineria ez agian hoberenetik izanez), nagusia itzuli zen Foix-ko printze Jaunak nahiko zuela Markes jaunak onhar zezan gure ondoko mahi batera auhaltzera jin zadin erraitera. "Baina guziak hartuak dira, ihardetsi zuen Robert-ek enea trabatzen zuten mahiak ikusiz. - Hortako, jeus ezta: Markes Jaunari gozagarri izan ahal balizako, jende horier lekuz alda daiten galdegitea ontsa errex nuke. Jaun Markesarendako egin daitezkeen gauzak dira! - Baina deliberatzea hiri, erran zautan Saint-Loup-ek, Foix mutiko on bat duk, aspertuko hauenez eztakiat, bertze ainitz baino gutiago zozoa duk." Robert-i ihardetsi naukon segurki gustatuko zizatala, baina harekin auhaltzen nintzan aldi bakar bateko eta hain zorionean aurkitzen nintzaneko, nahiagoko nuela bakarrik izan giniten. "Ha! bizkarrekoa ontsa pollita du, Jaun printzeak, erran zuen nagusiak deliberatzen ari ginelarik. "Ba, ezagutzen dut", ihardetsi zuen Saint-Loup-ek. Robert-i erran nahi naukon Charlus-ko Jaunak bere koinata andereari ezagutzen ninduela gordea zaukola, eta hortako arrazoina zer zaitekeen geldegin, baina Foix-ko printzearen jiteak eninduen utzi. Haren galdea onhartua zenez jakitera ethortzen, ohartu ginindakon bi urratsetan egonki. Robert-ek elgarri aitzineratu ginituen, baina etzaukon adixkideari gorde enekin solastatu behar ukanez, nahiagoko zuela utz ginitzaten. Printzea urrundu zen egin zautan goraintziko agurraren gainera, Saint-Loup erakusten zuen irriño bat eta luzeagoa nahiko zuen aitzineratzearendako hark nahi ukana zuen laburtasunaz desenkusatzen zela iduri zuena eginez. Baina orduan

Robert, bapateko ideia batez joa iduri, bere lagunarekin urrundu zen, eni erran ondoan: "Jar hadi beti eta auhaltzen has, heldu nuk", eta sala ttipian itzali zen. Penatua izan nintzan ezagutzen enituen mutiko gazte aphain haien etzutean, ixtorio irriegingarrien ete gaizki-nahienen erraiten Balbec-en ezaguna nuen Luxembourg-eko duke-handi (aitzineko Nassau-ko konde) gazte ondokoaz eta amatxiren eritasunean adixkidantzazko phorogu hain minberak emanak zauztanaz. Batek bazion errana zaukola omen Guermantes-ko dukesari: "Ene emaztea iragaiten denean nahi dut guziak zuti daiten", eta dukesak ihardetsia (izpiritu bezainbat zuzentasun gabea izanen zena, prinzesa gaztearen amabitxia beti munduko emazte onestena izanik): "Hire emaztearen iragaitean zutitu behar dik, eztuk amabitxirenetik berdin izanen harendako gizonak etzaten baitzitian." Gero erran zen aurten bere izaba Luxembourg-eko prinzesaren ikustera joanik, eta Hotel Handian jautsirik, nagusiari (ene adixkidea) zinkurinan ari izana zizakola Luxembourg-eko ikurrina itsas-ezpondan ez ezarririk. Ikurrina hura bada Angeleterrakoa eta Italiakoa baino gutiago ezaguna izanez, haren ukaiteko egun andana bat behar ukana zen, duke-handi gaztearen samurgo bizian. Ixtorio hortarik hitz bat enuen sinetsi, baina neure baitan hitzeman, Balbec-era joanen nintzan bezain laster, hoteleko nagusia galdekatuko nuela asmu hutsa zela segurtatzeko. Saint-Loup-en igurikatzean, ostatuko nagusiari galdegin naukon ogia eman-araz zezatan. "Berehala, jaun baroina. - Eniz baroina, ihardetsi naukon alegia trixteziazko itxura batean. - Ho! barkatu, jaun kondea!" Bigarren ihardukitze baten erraiteko astirik enuen ukan, haren ondotik "jauna markesa" bilakatuko bainintzan segurki; errana zuen bezain laster, Saint-Loup sartzeko athean berriz agertu zen eskuan printzearen bikufiazko bizkarrekoarekin, gogoan hartu bainuen hotz har enezan galdegina zaukola. Urrundik kheinu egin zautan desarraña enindadin, aitzineratu zen, ene mahia beharko zen berriz ere higitu edo ni lekuz aldatu, hura jar ahal zadin.

Sala handian sartu zen orduko, igan zen arinki salako harresiaren luzean ingurua egiten zuten alkixkara han, nitarik kampo, jarririk ezpaitzen Jokey-ko hirurzpalaur mutiko gazte ezagun baizik, sala handian lekurik aurkitu ahal etzutenak. Mahien artean eletrika hari batzu hedatuak ziren lurretik goratasun batean; hetan trabatua izan gabe Saint-Loup-ek jauzikatu zituen lasterretako zaldi batek traba bat bezala; hori enetako bakarrik eta mugimendu ontsa errex baten egitera ez ene uzteko egina izan zadin ni ahalgetua, aldi berean miretsia nintzan soka-jauzi hori ene adixkideak egiten zuen segurtasun hortaz; eta enintzan bakarra; ezen, jale gutiago arixtokrata eta bihotzon baten ganik aski guti gustatuko baldin bazizaiekeen ere, nagusia eta mutilak lilluratuak zauden, ezagule batzu phizategian bezala; komis bat balditua, bazagon geldi-geldia ondoan auhaltiar batzu haren aiduru zauden plat bat eskuan; eta Saint-Loup, bere adixkiden gibeletik iragan beharrean, bizkarraldekoaren hegira igan zen eta han plomua atxikiz aitzinatu: salaren zokotik esku-zarta begiratu batzuek jo zuten. Azkenean ene heinera heldurik, bere oldea batez gelditu zuen errege baten jar-leku aitzinean buruzagi baten zuzentasunarekin eta, gurtuz, bikufiazko bizkarrekoa eskaini zautan gortesiaz eta obedienziazko aire batekin, gero berehala, ene ondoan jarririk eta nik jestu bat

egin behar ukan gabe, ene bizkarrean antolatu baitzuen, xala arin eta bero baten moldean.

- Erratak, gogoan diatano, erran zautan Robert-ek, ene osaba Charlus-ek zerbait erran behar dauk. Bihar haren etxera igorriko hautala erran dakeat.

- Hain zuzen, hartaz mintzatzera nindoakan. Baina bihar arratsean hire izaba Guermantes-en etxean auhaltzen nuk.

- Bai baduk izigarriko aphairua bihar, Oriane-ren etxean. Enuk gomitatua. Baina osaba Palèmede-ek nahi likek ehadin joan. Desmezua eztezakek eman? Zer nahi den, hoa gero ene osaba Palamède-ren etxera. Baitezpada ikusi nahi haukala uste diat. Hea, han izan haitekek bada hameka orenak hirian. Hamekak, ez ahatz, haren abisatzea ene gain hartzen diat. Biziki minbera duk. Joaiten ezpahiz, aiher izanen zaik. Eta beti goizik bururatzen duk Oriane-ren etxean. Auhaltzea baizik egiten ezpaduk, osabaren etxean izan haitekek bada hameketako. Bertzela, nihaurek, Oriana ikusi beharko nian, aldatu nahi nikekan ene Marrokako egon-lekuko. Gauza horietako hain duk gixakoa eta gauza haren menean den San-Josepeko jeneralaz nahi dikana egin dezakek. Baina etzakokala aipha. Parme-ko prinzesari hitz bat errana dakeat, nahi bezala joanen duk. Ha! Marroka, biziki gogo eratxikigarri. Hiri erraiteko ainitz bailizatekek. Gizonak biziki xorrotxak dituk han. Adimenduko berdintasuna senditzen duk.

- Gauza hortaz Alemanak gerlarano joan daitezkeela eztuk uste?

- Ez, horrek aspertzen ditik, eta biziki zuzen duk oro har. Baina emperadorea baketiarra duk. Beti gerla nahi diela sinets-arazten daukuie amor emaitera gure bortxatzeko. Ikus poker jokoa. Monaco-ko printzeak, Guillome bigarrenaren gizonak, erran berria daukuk segeretuan Alemaniak gainera jauzi eginen daukukala amor ezpadiaguk emaiten. Beraz amor emaiten diaguk. Baina emaiten ezpaginu, elizatekek gerlarik batere. Gogoari emaitea aski duk gerla bat gaurregun zer izigarrikeria lizatekeen. *Uholde handia* edo *Götterdämmerung* baino hondagarriago. Baina gutiago iraun lezakek bakarrik.

Mintzatu zizatan adixkidantzaz, hautespenaz, urrikiaz, nahiz, haren arako bidairi guziak bezala, biharamunean berriz abiatzera zoan baserrian ilabete zenbaiten eremaiteko eta etzuen Parisera berrogoi-ta zortzi orenendako baizik berriz jin behar Marrokara (edo bertze norapait) itzuli baino lehen; baina arrats hartan nuen bihotzeko beroaldian, horrela egotzi zituen hitzek ametseria ezti bat phizten zautaten. Gure buruz-burutaldi bekanek, eta oroz gainetik horrek, ene orhoitean geroko hatza utzi dute. Harendako, enetako bezala, adixkidantzako ilunabarra izan zen. Alta ordu hartan sendi nuen hura (eta horren gatik ez urriki zenbait gabe) etzen, beldur nintzan, sustatzea gustatuko zizakon hura. Lauhazka ttipian aitzinatzen eta helburura garaziarekin heltzen ikustean ukana nuen atseginaz guzia betea, sendi nuen atsegin hori harresiaren luzean, alkixkaren gainean eginak zituen mugimendu bakoitzatri lotua zela, bere erran-nahia, bere arrazoina Saint-Loup-en jite berezian zuela behar bada, baina gehiago oraino jaiotzeaz eta ikaskuntzaz bere arrazatik ukana zuenean.

Gostuko segurtasun bat ez ederreko baina eginaretako lerroan, eta gertaldi berri baten aitzinean gizon aphainari - hala nola ezaguna ezten zati baten joitea

galdegiten zaukon musikariari - berehala hark nahi duen sendimendua, jestua harr-arazten zaukona eta hoberenak diren mekanikeria, tegnika hari arautzen, gero gostu hura hedatzera uzten, hainbat burjes gazte paralesiatuko zituen bertze arrazoin mota edozeinen bortxurik gabe, ikustateari huts eginez bertzeren begietan irriegingarri izan beldurrez bere adxikidearenetan lehiatuegiak iduritzez bezainbat, eta Robert-en baitan bere bihotzean segur ehoiz senditua etzuen erdainu batek ordaintzen zuena, baina ondorez bere soinean ukana zuena, eta haren arbasoen arak gurtuak zituena haien ustez emana zizakona lausenga eta loria baizik etzezaketen etxekotasun batera; azkenik eskuzabaltasun noble bat, hoinbertze gauzazko abantailez batere axolatu gabe (ostatu hortan gastu nasaiek egina zuten, hor bertzetan bezala, moda handienean zen norbait eta orotan fagoratuena, haren aldera ez bakarrik mutileriaren baina gazteria distiratuen guziaren arthak azpimarratzen zuen izanara), oinazpika-arazten zauzkon, egiazki eta alegiazki azpian ostikatuak zituen alkixka gorrindol hek bezala, bide handizki aberats bat iduri, ene gana garazia eta zalutasun gehiagorekin jiten laguntzen zuelakotz baizik ene adixkideari gustatzen etzizakona: horrelakoak ziren, ez enea izanen zen bezala argaltasunik gabea eta iluna, baina errankor eta argia zen soin horren gibelean ageri ziren haren gaitasunak, oro arixtokrazian baitezpadakoak, hala nola ederlan baten barnean egina duenaren indar antzedun eraginkorra, eta harresiaren luzean Robert-ek hedatua zuen laster arinaren mugimenduak egiten zituena frisa baten gainean zizelkatu zaldikoenak bezain adigarri eta xoragarri.

"Ondikotz, gogatuko zuen Robert-ek, balio duea gaztaroa iragana ukan dezatan sortzearen erdainatzen, bakarrik justiziaren eta izpirituaren ohoratzen, bortxuz emanak zizaztan adixkidetarik kampo, lagun moldegaitz eta gaizki jantzi batzuen hautatzen elhea ederra zuten ber, nitan agertzen den izaite bakarra, hartaz orhoitzapen balios bat atxikitzen dena, izan dadintzat ez ene borondateak, indar eta mereximenduz, ene itxurara moldatua duena, baina ene egintza ezten izaite bat, ni ezten bat ere, beti gaitzetsi dutana eta garhaitu ukan nahi; balio dea adixkide hautetsiena maitatua ukan dezatan egin dutan bezala, nitan edireiten duen atsegin handiena nihaur baino biziki orotakoagoa den zerbaiten aurkitzea izan dadintzat, batere adixkidantzakoa - dion bezala eta zintzoki sinets eztezakeen bezala - eztena, baina adimendukoa eta abantailnahirik gabea, ederlaneko atsegina iduri bat?" Horra orai Saint-Loup-ek batzuetan gogatua duela beldur nizana. Huts egina du, aldi hortan. Maitatu ezpalu, egina zuen bezala, bere soinaren zalutasun jaioa baina goragoko zerbait, aitorenseme izaiteko urgulutik ezpaliz hoin luzaz baztertua egon, arthamen eta dorpetasun gehiago izanen zen haren zalutasunean ere, eginaretan arruntasun gotor bat. Villeparisis-ko Andereak seriostasun ainitz behar ukana zuen bezala bere solasaldi eta Orhoitzapenetan arinkeriako iduripenaren emaiteko, hau adimendukoa baita, berdin ere, Saint-Loup-en soina hoinbertze aitorensemetasunez betea izan zadintzat, hunek haren gogamenetik ihes egina ukan behar zuen, goragoko gauza batzuetara itzulia izan, eta, bere soinera bildurik, han ohargabeko marra noble batzuetan gelditua. Hortik haren gogoko aphaintasuna etzen gorputzeko aphaintasunean izan gabe, ezpaitzen hau, lehenbizikoak huts eginez, betegina izanen. Ederlangile batek zuzenki bere gogamenaren erraite beharrik eztu

bere lanean, hunek haren kalitatea itxura dezantzat; errana ahal izan da ere Jainkoaren alderako laudorio handiena, kreatzale beharrik ez ukaiteko Kreazionea aski betegina edireiten duen jainkogabearen ukhatzean dela. Eta ontsa banakien ere enuela ederlan bat miresten bere lasterraren frisa harresiaren luzean hedatzen zuen zaldizko gazte hortan; ene abantailetan utzi berria zuen printze gaztea (Foix-ko Katalina, Nabarrako erregina eta Charles VII-garrenaren alababitxitik jausten zena), ene aitzinean gurtzen zuen sortzez eta aberastasunezko izanara, ene soin hozpilaren inguruan bikufiazko bizkarrekoaren ezartzeko ukanak zituen segurtasuna, zalutasuna eta gortesian oraino bizirik zauden arbaso erdainari malguak, hori guzia ez ote zen haren bizian ni baino adixkide zaharrago batzu bezala, - haien gatik betikotz berexiak izanen ginela uste ukanen bainuen, eta sakrifikatzen baitzauztan aldiz adimenduko gorenean baizik egin eztaitekeen hautu batez -, Robert-en mugimenduek itxuratzen zuten eta hartan adixkidantza betegina jartzen zen libertate nagusi harekin?

Guermantes-tar baten etxekotasunak - Robert-en baitan hartzen zuen aphaintasunaren orde, ethorkizko erdainua ezpaitzen hartan moraleko xumetasun egiazko baten jantzia, ohargabeko garazia bilakatua baizik - agertua ukanen zuen burgoikeria arrunta ezagutua ahal nuen, ez Charlus-ko Jaunaren baitan, hartan orai arteo ontsa hartzen enituen jitezko huts batzu arixtokraziako ohiduren gainera emanak baitziren, baina Guermantes-ko dukearen baitan. Hark ere bizkitartean, amatxiri hain guti gustatua zizakon arruntasunezko guzian lehenago Villeparisis-ko Anderearen etxean aurkitua zuelarik, handitasun zahar bateko zati batzu erakusten zituen, sendigarri izan baitzizaztan haren etxean auhariz izan nintzanean, Saint-Loup-ekin iragan nuen arratsaldiko biharamunean.

Etzizaztan ez haren baitan ez dukesarenean agertuak, lehenik bere izabaren etxean ikusiak nituenean, Berma bere lagunetarik berexten zuten ezperdinasunak lehen egunean ikusiak nituen baino gehiago, hunen baitan berexkuntzak munduko jendetan baino ezin gehiago ohargarriagoak izanik ere, ageriagoak bilakatzen direnaz geroz gauzak egiazkoagoak, adimenaz hargarriagoak bilakatzen diren arau. Baina azkenean gizarteko berexkuntzak hain arinak izanik ere (hainbaterano nun Sainte-Beuve bezalako erakusle egiati batek nahi dituenean agerr-arazi Geoffrin Anderearen, Récamier Anderearen eta Boigne-ko Anderearen saloinen artean izan ziren berexkuntzak, oro hain berdinak agertzen baitira nun haren ikerlanek agerian ezartzen dutena, egilearen jakin gabean, saloinetako biziaren ezteusa baita), bizkitartean, Bermarendako zen arrazoin beraren indarraz, Guermantes-tarrak orobat bilakatuak izan zizaztanean eta haien berezitasunaren ithoia etzenean gehiago ene idurimenaz ihiztatua izan, bildu ahal ukan bainuen, zen ezin haztagarria izanik ere.

Dukesa ezpaitzizatan, bere izabaren arratsaldian, senarraz mintzatua, galdez nindagon hea, ezkontza hausteaz ziren erran-merranekin, auharian izanen zenez. Baina laster segurtatua izan nintzan, ezen atzin-gambaran zutik zauden mutil jantzien eta iraulaldi hortako arrazoinaren bilatzen ari zaitezkeenen artean (ordu arteo ebenixtaren haurrak bezalatsu hartua ninduketenaz geroz, erran nahi da bere nagusia baino sendimendu gehiagorekin, baina haren etxean hartua izaiteko ahalik

gabe), Guermantes-ko Jauna ikusi bainuen lerraka ene ethortzearen goaitan baitzagokeen athe alhazean ene hartzeko eta berak bizkarrekoaren ekhentzeko.

- Guermantes-ko Anderea ezin gehiagoko zorionean izanen da, erran zautan doinu trebeki sinets-arazle batekin. Onhar ezazu ekhen ditzazutan zure phildak (jende xoilaren hizkuntzan mintzatzea gozagarri eta irriegingarri iduritzen zitzakon). Ene emaztea huts egin zinezan beldur zen, nahiz zure eguna emana zinuen. Goizetik baginion elgarri: "Ikusiko duzu eztela jinen." Guermantes-ko Andereak nik baino zuzenago ikusi duela erran behar dut. Ukaiteko etzira gizon errexa eta huts eginen zinaukula segur nintzan.

Eta dukea hain zen senar gaixtoa, hain abrea ere, zioten, nun esker on emaiten baitzizakon, gaixtoer bere eztitasunaz eskerron den bezala, harekin bat egin zezan dukesaren gainera hegal gerizatzale bat hedatzen zuela iduri zuten "Guermantes-ko Andereak" hitz horiez. Bitartean, etxekoki eskua eni hartuz, ene gidatzeko eta saloinetara eremaiteko xedetan abiatu zen. Mintza-molde ohitu batek gusta dezake laborari baten ahoan, lekuko aztura baten iraupena erakuts badeza, ixtorioko gertakari baten hatza, haier aieru badagienak ezagutzen eztituenak behar bada; berdin ere, Guermantes-ko Jaunaren ikustate horrek xoratu ninduen mende 'ta mendetako azturen ondar batek bezala, XVII-garren mendekoenak bereziki. Iragan mendetako jendeak gutarik ezin urrunago iduritzen zaizkigu. Xoilki erraiten dutenaz haratagoko xede barnaturik badutela uste ukaitera ezkira ausartzen; ustegabetuak gira Homeren gizandi baten baitan guhaurek ditugun sendimenduak bezalatsuko bat aurkitzen dugunean edo Hannibal-en baitan Cannes-ko guduan garhaipideko joko trebe bat, han sahetsean sartzera utzi baitzituen ustegabez etsaiaren inguratzeko; badiduri poeta epiko hori eta jeneral hori asmatzen ginituela gutarik ihizitegi baratze bateko ihizi bat bezain urrun. Luis XIV-garrenaren gorteko jende batzuen baitan ere, gortesiazko ezagugarri batzu edireiten ditugunean haien lerroaz beheragoko eta jeusetan baliagarri izaiten ahal etzaien gizon zenbaiti izkiriatu eskutitzetan, ustegabetuak uzten gituzte, jaun handi haietan bapatez agertzen baitaukute nehoiz zuzenean erraiten eztituzten bat baina hetaz gobernatuak diren sinesmenetako mundu oso bat, eta bereziki behar direla sendimendu batzu jendetasunez alegia ukan eta amultsutasunezko egiteko batzu arrangura handienarekin bete.

Iraganaren urruntasun idurimenezko hori da behar bada idazle handi batzuek ere Ossian bezalako enganatzale bierarteko batean jeinuzko edertasun bat ediren dutela harr-arazten duena. Hain gira ustegabetuak urrungo bertsugile batzuek oraiko gogamen batzuen ukaiteaz, nun miresmenean baigira, noizpaiteko kantu gaeliar bat dela uste dugunean, bat edireiten badugu aro berriko baten baitan baizik antzeduna aurkituko ezkinuena. Itzultzale trebe batek, guti edo aski zuzen emaiten duen idazle zahar bati, oraiko izen batez izenpeturik eta berex argiraturik, goxagarri baizik idurituko etziren zati batzuen gaineratzea aski du: berehala bademo bere poetari handitasun hunkigarri bat, horrek horrela mende 'ta mendetako musika jo-arazten baitu. Itzultzale hori etzen gai liburu bierarteko baten egiteko baizik, liburu hori bere lan berri bat bezala argiratua izan baliz. Itzulpen bezala emanik, nagusi-lan bat iduri du. Iragana ezta iheskor, lekuan badago. Eztute bakarrik gerla bat hasi eta,

ilabeteak ondotik lehiarik gabe bozkatu diren lege batzuek haren gainean indar ukaiten ahal, eztitu bakarrik ezin zilatua gelditu den erahiltze baten hamabortz urte ondotik juje batek haren argitzeko baliatuko diren gai batzu oraino edireiten ahal; mende 'ta mendeak iraganik, herri urrun batean leku-izendegia, biziliarren ohidurak ikhertzen dituen jakintsunak, bil dezake oraino girixtinotasuna baino ainitz lehenagoko leienda bat edo bertze, Herodote-ren aroan hartzen etzena jadanik, ahatzia ere berdin, eta harri mota bati eman izenean, erlisioneko zeremonia batean, oraiaren erdian badirauena, emaitza tinkiago, orhoitzez aitzineko eta geldi bat bezala. Bat bazen ere, biziki gutiago zaharra, gorteko biziko emaitza, Guermantes-ko Jaunaren ara usu arruntetan ezpazen, bederen haier manatzen zuen izpirituan. Jastatu behar nuen oraino, usain zahar bat bezala, guti berantago saloinean berraurkitu nuenean. Ezpainintzan hara berehala joana.

Sargunearen uztean, Guermantes-ko Jaunari errana naukon haren Elstir-en ikusteko gura handia nuela. "Zure manuer nago, Elstir Jauna zure adixkidetarik dea bada? Hein hortarano gogoa eratxikitzen zautzula ez jakinik azkarki dolu dut. Apur bat ezagutzen baitut, gizon gixakoa da, gure aitek gizon onesta zeritzotena, jiteko fagorea egin zezatan galdegin nezokeen, eta auhaltzera jin zadin othoitz egin. Zurekin arratsaldiaren iragaiteaz biziki lausengatua izanen zen segurki." Biziki guti erresuma zaharrekoa hala izaitera horrela entseatzen zenean, gero nahi ukan gabe berriz hala bilakatzen zen. Margazki hek erakuts zezaztan gutiziatzen nuenez galdeginik, ereman ninduen, athe bakoitzaren aitzinean garaziarekin baztertuz, desenkusatuz, eni bidearen erakusteko, aitzinean joaitera bortxatua zenean, joko ttipi bat (aitorensemearen eginbide arinegi horien betetzean Guermantes-tarren arbaso batek bere hoteleko ohoreak ximentasun berarekin egin zauzkola San-Simunek erraiten duen aroaz geroztik) egina izan zatekeena, gutarano lerratu baino lehen, bertze Guermantes ainitzek egin ukana zuketena bertze ikusle ainitzendako. Eta dukeari errana bainaukon ephe batez margazkien aitzinean bakarrik izaitea goxo izanen zizatala, begiratuki itzalia zen haren berraurkitzera saloinera jitea aski ukanen nuela erranez.

Baina Elsetir-en margazkiekin behin buruz buru izan eta, auhal-ordua osoki ahatzi nuen; Balbec-en bezala berriz ere aitzinean nituen margolari handi haren ikus-molde bereziaren agertzea baizik etzen eta haren elhek batere emaiten etzutenaren mundu margo ezezagunekilakoaren zatiak. Haren margazkiez estaliak ziren harresi guneak, guziak itxura berdinekoak, mirazko lanterna batenak bezalako iduri argidunak ziren, hura izan baitzen, aldi hortan, edergilearen burua, eta ezpaitzen haren bitxitasunaz aieru ukanen gizonaren ezagutzea baizik egina ukanen etzeno, erran nahi da lamparen gainean lanterna baizik ikusia ukanen etzeno, berina margodun bat aitzinean ezarria izan baino lehen. Margazki haien artean, munduko jender irriegingarrienak iduritzen zezteenetarik batzuek bertze batzuek baino gehiago banatxikaten, arrazoinamendua sarr-arazten ezpaginu gauzak ezagun ezkinizazkeela phorogatzen daukuten begietako lilluramen hek berregiten baitzituzten. Zenbat aldiz eztugu karrosan aurkitzen gure aitzinean zenbait metretan hasten den karrika luze bat, aitzinean eztugularik barnatasunaren lillura emana daukun harresi zati bortizki argitu bat baizik! Eztea ordutik zuzen, ez itxurapen

erabiltzezko amarruaren bidez, baina iduripenaren errora berera itzultze zintzoaz, gauza baten erakustea, hastapeneko lillura baten zimiztan, harendako hartua ginuen bertze baten bidez? Eremuak eta izariak, ezagutuak ditugunean gure orhoitak gaineratzen dezteen gauzen izenetarik berex dira egiazki. Elstir-ek indar egiten zuen senditu berria zuenetik bazakienaren ekhentzeko; ainitzetan haren indarra ikuspena deritzogun arrazoinamendu bil-meta horren urtzea izana zen.

"Itsuskeria" horiek hastiatzen dituzten jendeak ustegabetzen ziren, Chardin, Perroneau, hainbertze margolari, hek, munduko jendek maite zituztenak, Elstir-ek ere maite ukaiteaz. Etziren ohartzen Elstir-ek gauzen aitzinean berriz egina zuela berari zoakonaz (ikherketa batzuendako zuen gostuaren seinale bereziarekin) Chardin baten edo Perroneau baten indar bera, eta ondorioz, beretako lan egitetik gelditzen zenean, haien baitan miresten zituela mota bereko entseu batzu, aitzinetik bere lanetako zatiak iduri batzu. Baina munduko jendek etzaukoten Elstir-en lanari gogoaz gaineratzen Chardin-en margazkien maitatzeko edo bederen haier eragozpenik gabe so egiteko ahala emaiten zauen Aroko ikuspegi hura. Alta zaharrenek bere baitan erranen ahal zuketen bizian zehar ikusia zutela, urtek hetarik urruntzen ari zituzten arau, Ingres-en nagusi-lan bat bezala jujatzen zuten eta betikotz itsuskeria bat gelditu behar zuela (behazunez Manet-en *Olympia*) uste zutenaren arteko urruntasuna ttipitzen, bi margazkiek biritxi batzuen itxura ukanen zuten arteo. Baina erakaspen edozeinez baliatzen ezta jakiten, orotakorano jausten jakiten eztelakotz eta beti uste delakotz iraganean aitzinekorik eztuen entseu baten aitzinean dela.

Bi margazkietan (egiazkoagoak, hek, eta eginaraz zaharragoak) jaun ber bat, aldi batez saloinean jantzi hegaldunean, bertze batez han ageriki zer egin etzuen ur bazterreko jende-besta batean soineko motz eta xapel goran, phorogatzen baitzuen etzela Elstir-endako bakarrik modela bat, baina adixkide bat, behar bada gerizatzale bat, bere margazkietan ezartzea maite zuena, lehenagoko Carpaccio-k Veneziako jaun handi ezagun - eta beteginki iduriko - batzu bezala; berdin ere Beethoven-ek atsegin baitzuen lan hautetsi baten buruan Rodolphe arxiduke maitatuaren izenaren izkiriatzea. Ur bazterreko besta horrek bazuen zerbait loriagarri. Ur erreka, emazten zaiak, untziteako belak, batzu bertzen arteko leinuru ezin zenbatuak elgarren auzo ziren Elstir-ek arratsalde mirazko batean moztua zuen laur kantoineko margazki hortan. Beroaren eta hats-bahitzearen gatik ephe batez jantzatzetik gelditzen zen emazte baten zaian xoratzen zuena, leinurutan zen ere, eta molde berekoa, bela geldi baten oihalean, portu ttipiko urean, zurezko zubi-zabalean, orstailetan eta zeruan. Balbec-en ikusia nuen margazkietarik batean ospitaleak, bere urdin-harrizko zeruaren azpian kathedralea bera bezain ederra, Elstir theorialaria baino, Elstir gizon gostuduna eta Ertaroaren maitalea baino ausartago, kantatzen zuela bazidurien bezala: "Gothikorik ezta, nagusi-lanik ezta, estilorik gabeko ospitaleak loriazko atharia balio du", berdin ere entzuten nuen: "Ezagule batek ibilaldian so egin gabe utziko zuen, naturalezak aitzinean moldatzen daukon poesiazko margazkitik baztertuko zuen andere doi bat arrunta, emazte hori ederra da ere, horren zaiak untziko belaren argi bera hartzen du, gauza gehiago edo gutiago baliosik ezta, zaia arrunta eta bereaz pollita den bela leinuru beraren bi mirailak dira.

Balio guzia margolariaren behakoan da." Hunek bada jakina zuen hiltzegabeko moldez orenen mugimenduaren gelditzen andereak bero ukana zuen eta jantzatik gelditua zen ordu argituan, zuhatza itzal batez ingurutua zenean, untzi oihalek urrezko berniza batean lerratzen zirela iduri zutenean. Baina hain zuzen gutan orduak hainbat indarrekin phizatzen zuelakotz, oihal hain geldi horrek iduripen iheskorrena emaiten zuen, sendi zen anderea berehala joanen zela, untziak itzaliko zirela, itzala lekuz aldatuko, gaua ethorriko, atsegina bururatzen dela, bizia iragaiten, eta orduak, elgarren ondoan zauden hainbertze argiez erakutsiak, eztirela berraurkitzen. Ezagutzen nuen oraino Ordua denaren itxura bat, egia da osoki bertzelakoa, mithologiazko gaiekilako ur-margazki batzuetan, Elstir-en hastapenetakoak, hetaz ere saloina aphaindua baitzen. Munduko jende "aitzinatuak" bazoazen eginara hortarano, baina ez urrunago. Etzen zinez Elstir-ek hobekienik egina zuena, baina jadanik gaia gogaturik izana zen zintzotasunak hotzetik zerbait ekhentzen zaukon. Horrela ziren, behazunez, Museak itxuratuak mota zaharkindu bateko izaiteak izanen ziren bezala, baina, mithologiako aroetan, arrats batez iragaiten haien ikustea bitxi izanen etzena, bizpahirurka, mendiko bidexka zenbaiten luzean. Zenbait aldiz poeta bat, ihizietan jakile batendako nortasun berezi bat (sesu artekotasun zenbaitez berexkarria) ere bazuen arrazakoa, bazabilan Muse batekin, naturalezan izaite ezperdinetako batzu baina adixkideak bezala eta elgarrekin joanki. Ur-margazki horietarik batean, poeta bat ikusten zen mendian itzuli handi baten ondotik ezindua, bidean aurkitu duen Giza-zaldi batek, haren akhiduraz hunkia, bizkarrean hartzen duena eta eremaiten. Bertze batzuetan, neurrigabeko eskualdea (han gertaldi mithokoak, ametsetako gizandiek leku ezin ttipiago bat baitadukate eta galduak bezala baitira) emana da, mendi hegietarik itsasorano, orena baino gehiago, den minutarano bademan zorroztasunarekin, iguzki beherapeneko hein zuzenari, itzalen egiatasun iheskorrari esker. Hortik edergileak bademo alegiaren itxurapenari, ordu zuzen batean ezarriz, bizi izan den halako egia ixtorioko bat, iragan zuzenean margoztatzen du eta erraiten.

Elstir-en margazkier beha nindagolarik, ethortzen ari ziren gomiten xilintxa ukaldiek joa zuten, gelditu gabe, eta eztiki leriatua ninduten. Baina jarraiki zizaien ixilak eta aspadidanik jadanik irauten zuenak ene ametseriatik - emekiago egiaz - athera ninduen azkenean, Bartholo bere lotik jalgi-arazten duen Lindor-en musikarenak bezala. Ahatzia ukan nindezaten beldur izan nintzan, mahian izan zaiten, eta saloinera buruz laster egin nuen. Elstir-en margazkiekilako bulego athean igurikatzen zuen mutil bat aurkitu nuen, zahartua ala pudratua, eztakit, minixtro español baten itxurakoa, baina errege baten oinetan ezarriko zuen errespetu bera erakusten zautala. Haren itxuran oren batez oraino igurikatuko ninduela senditu nuen, eta izialdurak hartu ninduen auhariari ekharria naukon beranta gogoan, oroz gainetik hameka orenetan Charlus-ko Jaunaren etxean izaitea hitzemana nuelarik.

Minixtro españolak (ez bidean aurkitua ukan gabe etxezainak toleatzen zuen mutil jantzia, hau, zorionez arrai bere emaztegaiaren berriak galdegin nauzkonean, erran baitzautan biharamunean zela hain zuzen hura eta biak atheratzen ziren eguna, egun osoa harekin eremaiten ahalko zuela, eta gorestsi zuen Andere dukesaren onezia) saloinera ereman ninduen han Guermantes-ko Jauna omore

gaixtoan aurki beldur bainintzan. Hartu ninduen, aldiz, zatiz ageriki alegiazko eta ikustatezkoa zen zorion batekin, baina bertzela zintzoa, hoinbertzetaranoko berantak gosetua zuen urdailak eman-arazia, eta saloina osoki betetzen zuten gomit guzietan ezin-egon berdina bazelako konzienziak. Berantago jakin nuen, alabaina, hirur oren laurden hurbil igurikatua nindutela. Guermantes-ko Jaunak gogatu zukeen minuta biez ororen oinazearen luzatzeak etzuela larrituko, eta ikustateak mahian jartzeko orduaren hoin luzaz gibelatzera ekharririk, ikustate hori osoagoa izanen zela, ez berehala zerbitza-araziz, enuela beranta eta etzutela enegatik igurikatu eni sinets-araztera heltzen baldin zen. Galdegin zautan beraz, auhal-aitzinean oren bat ukan baginu et gomit zenbait oraino hor izan ezpalire bezala, Elstir-ak nola aurkitzen nituen. Baina aldi berean eta bere urdaileko thirakaldiak agertzera utzi gabe, zekunda bat gehiagoren galtzera ez uzteko, dukesarekin batean ari zen elgarri jenden ezagun-arazten. Orduan bakarrik nintzan ohartu zerbait gertatua zela ene inguruan, ordu arteo ohitua nintzalarik - Zuan Anderearen etxeko egonaldia salbu - amaren etxean, Combray-n eta Parisen, haur bati bezala egiten zautaten burjestsa muttur egile batzuen molde ala gerizatzale ala begiratuer, ingurumen aldatze bat, Parsifal bapatez neska-loren erdira sartzen duenaren idurikoa. Inguratzen ninduten anderek, osoki lepho-has (larrua agertzen zizeen mimoza aldaxka itzul-ingurukatu baten bi aldetarik edo arrosa baten lore-hegal zabalen azpian), etzautaten egunon erran ene aldera bekaho pherekari luze batzu ixuriz baizik ene besarkatzetik herabeak bakarrik trabatu ukan balitu bezala. Bizimoldearen aldetik ainitz biziki onestak ziren hala ere; ainitz, ez guziak, bertutedunek ere ezpaitzuten arinak ziren bertzeren aldera amak sendituko zuen higuntza hartarik. Bizimoldeko burutaldiek, andere adixkide saindu batzuek ukatuak, agerian izanik ere, iduri zuten, Guermantes-tarren munduan, atxikitzen jakina zen ezagutzek baino balio biziki gutiago zutela. Etxekandere baten gorputza nahi zuenaz eskuztatua zela alegia ez jakina egiten zen, haren "saloina" garbi gelditua zen ber.

Dukea bere gomitekin biziki guti jenatzen baitzen (haietarik eta haier ikastekorik jeus ezpaitzuen aspaldidanik), baina enekin ainitz, nuen gaitasunak, ezagutzen etzuelakotz, emaiten baitzaukon zerbait moldez minixtro burjesek Luis-XIV-garrenaren gorteko jaun handier bezalatsuko errespetua, iduri zizakon bere gomiten ez ezagutzeak etzuela muntarik batere, haien berendako ezpazen, bederen enetako, eta, haien baitan sortuko nuen iduripenaz arranguratzen nintzan batean, haren gatik, etzen ene baitan hek eginen zutenaz baizik axolatzen.

Lehen lehenik, zilibokata ttipi bikun bat gertatu zen bertzela ere. Saloinean sartua nintzan ordu berean, alabaina, Guermantes-ko Jaunak, eni dukesaren agurtzeko epherik utzi gabe ere, eremana ninduen andere aski ttipi baten aldera, hari ustegabeko zerbait onen egiteko bezala iduri zuelarik erraiten zaukola: "Huna zure adixkidea: badakusazu, lepho gibeleko larrutik atxikiz ekhartzen dautzut." Bada, dukeak bultzaturik ni haren aitzinera heldua izan ere baino ontsa aitzinetik, andere hura etzen gelditua bere begi beltz zabal eztiez, behar bada ezagutzen ezkituen ezagun zahar bati igortzen dauzkogun mila irriño aditu eni igortzetik. Ene aldetik hala baitzen hain zuzen eta nor zen orhoitzera ezpainintzan heltzen, haren

aitzinera nindoan batean burua baztertzen nuen ihardeste beharrik ez ukaiteko moldez, aitzineratzeak eragozpenetik jalgia ukan nindezan arteo. Anartean, andererak enetako zuen irriñoa bazatxikan dilinda aldakor batean. Bazidurien haren uzteko lehian zela eta nik azkenean erran nezan: "Ha! anderea, uste dut bada! Amak zer zoriona lukeen guk berriz elgar aurkitua ukaiteaz!" Haren izenaren jakiteko ezin-egonean nintzan, hura azkenean ezagutza osoan agurtzen nuela ikusia ukaiteaz bezainbat eta bere irriño *sol* dieza bat bezala ethengabe luzatua azkenean gelditzen ahal zela. Baina Guermantes-ko Jauna hain gaizki hasi zen ene ustez bederen, nun uste ukan bainuen ni ninduela bakarrik izendatua eta delako alegia ezezaguna nor zen enakiela oraino, hunek ezpaitzuen bere izenaren emaiteko gogoa ukan, hain zizazkon gure etxekotasunaren arrazoin, enetako ilunak, argiak iduritzen. Alabaina, haren ondoan izan nintzan orduko, eskua eskaini zautan, baina etxekoki enea hartu, eta mintzatu zizatan gogoan zituen orhoitzapen onen jakile izan baninz ere bezala. Erran zautan Albert-ek, haren semea zela hartu nuena, zenbat urriki ukanen zuen ezin jin ahal izanik. Ene lagun ohietan izena Albert zeinek zuen bilatzen nuen, Bloch baizik enuen aurkitu, baina aitzinean nuena etzaitekeen izan Bloch anderea, hau zuela urteak hila zenaz geroz. Indar banegien debaldetan gogoan zuen haren eta ene arteko iraganaren asmatzeko. Baina etzizatan agertzen irriñoa baizik uzten etzuten begi ñiñi zabal eztien jagatan zehar, berina beltz baten gibelean, iguzkiaz suztatua izanik ere, eskualde bat ikusten den baino hobeki. Galdegin zautan aita etzenez gehiegi akhitzen, eta enuenez egun batez Albert-ekin antzokira joan nahi, gutiago eri nintzanez, eta ene ihardespenek, nintzan adimenduko ilunean haldamaldaka, ezpaitziren argi bilakatu arrats hartan enintzala ontsa erraiteko baizik, berak kadera bat aitzineratu zautan ene aitamen bertze adixkidek ehoiz hetara ohitua eninduten mila fazoinekin. "Xoragarri aurkitzen zaitu", murmurikatu zautan dukeak beharrira, joa izan baitzizatan hitz horiek ez ezagunak izan ezpalitu bezala. Villaparisis-ko Andereak erranak zauzkunak ziren, amatxiri eta eni, Luxembourg-eko prinzesaren ezagutza egina ginuenean. Orduan guzia hartu nuen, oraiko andereak ezer etzuen Luxembourg-eko Anderearekilakorik, baina eskura emaiten zautanaren elhetik, ihiziaren mota ezagutu nuen: "Alteza" bat zen. Ezkinituen batere ezagutzen ez ene ama ez eta ni, baina arraza noblenetik atheraia eta munduko fortuna handienaren jabe (ezen, Parmeko printzearen alaba izanez, gusi berdin printzetar bat ezkondua zuen), gutiziatzen zuen, Kreatzaleari esker onez, urkoari, nahi den ethorki behardun eta xumekoa izanik ere, etzuela gutiesten erakustea. Egia erran, irriñoek asmatzera utz ahal nindezaketen, Luxembourg-eko prinzesa ikusia bainuen ondartzean zekale ogi ttipi baten erosten amatxiri emaiteko, delako "Jardin d'Acclimatation" hartako orein-eme bati bezala. Baina etzen oraino aitzineratua nindakon odoleko bigarren prinzesa baizik, eta desenkusagarri nintzan handien maitagarritasuneko berezitasun orotako guziak ez berexiak ukanik. Bertzela enindutena ere berek abisatua maitagarritasun horri enindadin gehiegi egon, Guermantes-ko dukesak, Opera-Comique-an eskuaz hainbertze agur eginak zauztanak, itxura erotu bat hartua zuenaz geroz karrikan agurtu nuenean, hala nola jende batzuek, aldi batez norbaiti luis bat emanik, horrekin behin betikotz erregelan direla uste baitute? Charlus-ko Jaunaz bezainbatean, haren goiti-beheitiak oraino

kontramoldekoagoak ziren. Ikusiko da azkenik bertze moldeko goientasun eta maiestate batzu ezagutu ditutala, alegia erreginarena badagiten erreginak, eta mintzo direnak ez bere motakideak, baina Sardou-ren antzertietako erreginak bezala.

Guermantes-ko Juanak hainbat lehia emana baldin bazuen han zirenen aitzinera ene eremaiteko, hori da bilkura batean Goientasun erregetiar batek ezagutzen eztuen norbaiten izaitea ezin onhartua delakotz eta zekunda batez ezpaitaiteke luza. Lehia hori bera zuen Saint-Loup-ek ukana amatxiri bere buruaren aitzinera-arazteko. Bertzela ere, ikustate mundutarra deitzen den gortetako bizitik ondorez ukana den ondar batez, eta azalekoa eztenaz, baina hartan, barnera kampokoaren itzultzeaz, azala baita beharrezkoa eta barnatua, Guermantes-ko duke 'ta dukesak, baitezpadako eginbide bat bezala zadukaten, usu bazterrera utziak ziren, bietarik batez bederen, garitatea, kastotasuna, urrikia eta justizia baino baitezpadakoagoa, Parme-ko prinzesari heren personan baizik ez mintzatzea.

Bizian oraino nehoiz Parme-n ez izana gatik (Bazkoko lanarte aspaldiko batzuez geroz gutiziatzen nuena), hango prinzesaren ezagutzea, bainakien palaziorik ederrenaren jabe zela hiri hartan, bertzela ere oro gai berekoa zatekeenean, gainerateko mundutik berex izanez, harresi leundu batzuen artean, haren izen tinki eztiegiaren giro, hiri ttipi italiar bateko plaza batean udako arrats bat bezain ithogarrian, horrek, itxuratzera entseatzen nintzana Parme-n egiazki bazenaz ordezkatu beharko zuen bapatez, halako zatizko ethortze batean eta higitu gabe; hori, Giorgione-ren hirirako bidaiaren aljebran, ez ezagun bateko lehenbiziko karkulagai bat bezala zen. Baina urteak baldin baziren Parme-ko prinzesa izen horri harr-araziak naukola - usainontzale batek urin meta bati bezala - milaka brioleten usaina, aldiz, prinzesa ikusi nueneko, ordu arteo bederen Sanseverina zela segur izanen bainintzan, bigarren egitaldi bat hasi zen, hura ezpaitzen bururatua izan, egia erraiteko, zenbait ilabete berantago baizik, eta izan baitzen, ximiako orhatze berri batzuez lagunduz, briolet ezanza-olio ororen eta prinzesaren izeneko usain stendhaldar ororen kamporatzea, eta haien lekuan emazte ttipi beltz baten iduriaren sartzea, ongi eginez axolatua, maitagarritasun hain xumekoa nun berehala hartzen baitzen maitagarritasun horrek zein urgulu burgoian zuen hastapena. Gainera, zenbait berezitasun ezpada, bertze andere handien idurikoa, behazunez Parisen, Europako auzo aldean, Parmeko karrika bezain guti stendhaldarra zen, Parmeko izenaren biziki gutiago idurikoa baita auzoko karrika guziena baino, eta Fabrice han hiltzen den Chartreuse-a baino gutiago gogoratzen baitu Saint-Lazare garan ibilguneko sala.

Haren maitagarritasuna bi gauzer lotua zen. Bat, orotakoa, errege alaba harek ukana zuen erakaskuntza zen. Amak (ez bakarrik Europako erret-familia guziekin ahaidegoan, baina oraino - Parmeko duken familiaren kontra - erreinatzen zuen edozein prinzesa baino aberatsagoa) harr-araziak zauzkon, haurr-haurretik, handi-uste ebanjelioko baten erakaspen burgoiki xumeak; eta orai alabaren begitarteko itxura bakoitzak, soingainetako inguruak, besoen mugimenduek baziduriten errepikatzen zutela: "Orhoit hadi Jainkoak tronu bateko mailetan jaio-arazi bahau, eztunala hortaz baliatu behar Probidenzia jainkotarrak (laudatua izan dadila!) sortzez eta aberastasunez haien gainekoa izan hadin nahi ukana dinen gutiesteko.

Izan hadi, aldiz, ttipiendako ona. Hire arbasoak Clèves-ko eta Juliers-ko printze zitunan 674-eko. Jainkoak bere onezian nahi ukana din Suez-ko urbideko abantzu diru-balio guziak eta Rothschild-eko Edmondek Royal Dutch baino hiruretan gehiagoren jabe izan hadin, hire ethorki zuzena genealogixtek jarria dine aro girixtinoko 63 urtetik hunara; koinatetato baditun bi emperadoresa. Nehoiz etzanala beraz mintzatzean hoin abantail handiez orhoitzen hizala iduri ukan, ez iraupen gutikoak direlakotz (arrazako zahartasunean jeus ezpaitaiteke alda eta jendea beti petrola beharretan izanen baita), baina debalde dun nor nahi baino hobeki jaioa hizala erakastea eta hire diru plazamenduak lehenbizikiko mailekoak direla. Dohakaber ekhar ezeen sokorri. Zeruko oneziak hi baino beherago haien ezartzeko garazia egina daunan guzier eman ezeen ahal dunana hire lerrotik erori gabe, erran nahi baita diruzko laguntzak, erizain baten arthak ere, baina, erran gabe doan, ehoiz ez hire arratsaldietara gomitik, ezpailezakeen horrek onik batere egin, baina, dunan ospe handia ttipituz, hire egintza ongiegileari bere eragintasuna ekhen bailezokenan."

Beraz, ongia egin etzezakeen orduetan ere, prinzesak erakutsi nahi zuen, edo izaitekotz sinets-arazi, mintzatze mutuaren kampoko sienale guzien bidez, etzela haien artean gertatzen zen jendeak baino goragoa. Bakoitzarekin bazuen jende ontsa ikasiek azpiekoekin duten ikustate xoragarri hura eta noiz nahi, baliagarri izaiteko, bere kadera baztertzen zuen leku gehiagoren uztekotan, ene eskularruak atxikitzen zauztan, burjestsa burgoi batzuendako desohoragarri izanen ziren zerbitzu guziak eskaintzen, baina erreginek ontsa gogotik emaiten dituztenak, edo ere, ohargabean eta ofizioko ohiduraz, mutil ohiek.

Parme-ko prinzesak erakutsi zautan maitagarritasunaren bigarren arrazoina bereziagoa zen, baina ez batere ene alderako adixkidantza mixteriozko zenbaitez. Baina bigarren arrazoin horren barnatzeko astirik enuen aldi hartan ukan. Jadanik alabaina, dukeak, elgarri jenden aitzineratzearen bururatzen lehian iduri baitzuen, mila loretarik bertze baten gana eremana ninduen. Haren izenaren entzutean errana naukon haren jauregiaren aitzinetik iragana nintzala, Balbec-etik ez urrun. "Ho! zuri haren erakusten zenbat zorion ukanen nuen!", erran zuen abantzu ahapetik bere burua xumeago erakutsi nahiz, baina doinu senditu batekin, atsegin osoki berezi bat huts egin ukanaren urrikiaz guzia hartua, eta gaineratu zuen behako sarkor batekin: "Ezta agian oro galdua. Eta erran behar dut gogoa gehienik hartuko zauzuna, ene izaba Brancas-en jauregia izanen zen; Mansard-ek egina da; probinziako perla." Etzen bakarrik hura bere jauregiaren erakusteko zorionean izanen zena, baina haren izaba Brancas ez gutiago xoratua eni berearen ohoren egiteaz, andere hark segurtatu zautanaz, ageriki gogoan baitzuen, oroz gainetik bizitzen eztakiten dirulari batzuen eskuetara lurra iragaitera doan aro batean, beharrezkoa dela handiek atxik ditzaten jaunek ostatatzeko dituzten ohidura gorak, jeusetara ezteramaten elhe batzuen bidez. Hori zen ere, haren inguruneko jende guziek bezala, mintzaideari atsegin gehienik egin zezoketen gauzen erraitea bilatzen zuelakotz, bere buruaz ideia gorenaren emitea, haier izkiriatzen zauenak lausengatzen zituela sinets-araztea, bere gomitak ohoratzen, haren ezagutzeko ezin-egonean zirela. Bere buruaz bertzer ideia goxagarri hori eman nahi ukaitea bada batzuetan, egia erraiteko, burjesian ere.

Ongi-nahirako gogo hori han aurkitzen da, huts baten ordaintzeko norberak duen gaitasun bat bezala, ez, ondikotz! adixkide segurrenen baitan, baina bederen andere lagun goxagarrienetan. Zer nahi den, bakar-bakarrik loratzen du. Arixtokraziako zati handi batean, aldiz, jitezko berezitasun hori norbait berezirena izaitetik gelditua da. Erakaspenak landua, aphaldua izaiteko beldurrik ukan eztezakeen, etsairik ezagutzen eztuen handitasun berezi baten ideiak arthatua, gixakotasunaz zoriondunak egin dezazkeela badaki, eta egitea laket du, jende mota baten orotako berezitasuna bilakatua da. Eta bere huts kontrakoegiek bihotzean atxikitzea debekatzen dauetenek ere, haren hatz gogo-gordekoa badadukate bere hitzetan edo jestuetan.

- Biziki emazte ona da, erran zautan Guermantes-ko Jaunak Parmeko prinzesaz, eta nehork ez bezala "andere handi" izaiten badakiena.

Emazter aitzineratua nintzalarik, bazen jaun bat ezin-egonaren seinale ainitz emaiten zuena: Bréauté-Consalvi-ko Hannibal kondea zen. Berant ethorria, gomitak nor ziren jakiteko astirik etzuen ukana eta saloinera sartu nintzalarik, nitan ikusiz dukesaren lagunartekoetarik etzen gomit bat eta beraz hara sartzeko osoki ohigabeko tituluak bazituzkeena, bere begitako bakuna ezarri zuen bekain-arku uztaituaren azpian, ustez eta hunek lagunduko zuen, ene ezagutzen baino biziki gehiago, zer gizon mota nintzan berezten. Bazakien Guermantes-ko Andereak bazuela, emazte zinez goien batzuen ontasun berezi baliosa, "saloina" deritzoten bat, erran nahi da bere munduko jender gaineratzen zauela batzuetan erremedio baten aurkitzeak edo nagusi-lan baten emaiteak agerian ezarria zuen jende ezagun zenbait. Saint-Germain hiri-bazterra, Angeleterrako errege 'ta erreginari ongi-ethorri egiteko aldian dukesa etzela Detaille Jaunaren gomitatzeko beldur izana ikasirik ukanaren ustegabean zen oraino. Hiri-bazterreko emazte izpiritudunak gomitatuak ez izanik nekez konsolatzen ziren, hain ziren ezin goxokiago hunkiak izanen jeinu bitxi hari hurbiltzeaz. Courvoisier-ko Andereak bazion Ribot Jauna ere han zela, baina gezur bat zen Orianek senarra embaxadore izenda-araztea bilatzen zuela sinets-arazteko asmatua. Azkenik, eskandalaren mukurruko, Guermantes-ko Jauna, Saxe-ko marexalarendako gai zen galantasun batekin, Comédie-Française-ko ibildokira izana zen eta Reichenberg Andereñoa othoiztua zuen erregearen aitzinean neurthitz erraitera jin zadin, gertatu zen gauza eta saloin-bestetako urtekarietan aitzinekorik gabea zena. Hoinbertze ustegabekoez orhoitzean, osoki onhartzen zituenak bertzela ere, bera ere aphaindura bat bezainbat izanez, eta Guermantes-ko dukesaren molde berean, baina sesu arrean, saloin batendako konsekratze bat, Bréauté-ko Jaunak, nor ninzatekeen bere buruari galdez, eremu zabal-zabal bat sendi zuen bere ikherraldietara idekia. Ephe batez Widor Jaunaren izena gogoan ukan zuen; bain uste ukan zuen organixta izaiteko ontsa gaztea nintzala, eta Widor Jauna, saloin batean "hartua" izaiteko gutiegi aiphatua. Itxurakoagoa iduritu zizakon xoilki nitan aiphaturik izan zizakon Suedako ordaritzako embaxadore-lagun berriaren ikustea; eta haren ganik aldi andana batez biziki ontsa hartua izana zen errege Oscar-en berri eni galdegitera zoan; baina dukeak, nor nintzan erraiteko Bréauté-ko Jaunari ene izena emana ukan zaukonean, hunek, izen hori osoki ez ezaguna zizakola ikusiz, ordutik etzuen, hor nintzanez

geroz, omendun norbait nintzala batere dudatu. Orianek zinez etzuen bertzerik egiten, eta bere saloinera gizon aiphatuen ekharr-arazteko antzea bazuen, arauez bat ehunendako, erran gabe doa, hori gabe lerrotik jautsiko baitzuen. Bréauté-ko Jauna hasi zen beraz ezpainak milikatuz eta sudur xilo lixterrez zurruntzatuz, gosetua ez bakarrik eginen zuela segur zen auhari onaz, baina ene han izaiteak ohargarri baizik egin etzezakeen bilkuraz eta biharamunean Chartres-ko Dukearekin bazkariko solasaldian gai jostakin bat hari emanen zaukonaz. Etzakien oraino xuxen minbiziaren kontrako entseatu berria zen gerlia enea zenez ala Antzoki-Frantzesean ikasten hasi berria zen ondoko erridau-goititzea, baina, adimendun handia, "bidaia ixtorio" maitale handia, etzen ene aitzinean gur, kheinu aditu, begitako bakunaz irezi irriño egitetik gelditzen; ala balioko gizon batek gehiago estimatuko zuelako idiea hutsezkoan, harendako, Bréauté-Consalvi-ko Kondearendako, gogoko abantailak etzirela sortzekoak baino gutiago errespetagarri sinest-araztera heltzen baldin bazizakon; ala xoil-xoilki bere satifamenduaren erraiteko beharraz eta nekeaz, enetako erabili behar zuen mintzararen ez jakinean, oro har bere almadia han gelditua izanen zen lur ez ezagunetako herritarretarik baten aitzinean gertatua izan baliz bezala eta haiekin, zerbaiten irabazteko esperanzan, haien azturer jakin-nahiarekin beha zagon batean eta adixkidantzazko haien erakuspenak moztu gabe 'ta haiek bezala oihuka artzea ahatzi gabe, auztruka arraultze 'ta ezpezia batzuekin berineria batzuen trukatzera entseatuko baitzen.

Haren bozkarioari ahal bezain ontsa ihardetsi eta, Châtellerault-eko dukearen eskua tinkatu nuen, jadanik Villeparisis-ko Anderearen etxean aurkitua bainuen eta hartaz errana baitzautan biligarro on bat zela. Ezin gehiago Guermantes zen, ileantzearen horiaz, aurpegi orratz makotuaz, matelako larrua gaizten duten titez, XVI eta XVII-garren mendek utzi dauzkuten familia hortako idurietan jadanik ikusten den guzia. Baina dukesa ezpainuen ordukotz maite, mutiko gazte batean haten berharagitzeak etzuen enetako lilluratzekorik. Châtellerault-eko dukearen sudurrak bazegien makoa, luzaz ikhertua ukanen nuen, baina batere gehiago atxikitzen eninduen margolari baten sinadura bezala irakurtzen nuen. Gero egunon erran naukon ere Foix-ko dukeari, eta, makatuak baizik jalgi etziren ene erhi-hexurren zorigaitzeko, tinkagailu bat zen aleman arako bortzeko batean hartzera utzi nituen, Faffenheim-eko printze, Norpois-ko Jaunaren adixkidearen irriño irkaitzezko edo gozo batez lagunduan, eta, haren inguruneko berezitasuna zen izengoitien bitxikeriaz, hain zena orotan "printze Von" izendatua nun berak "prince Von" izenpetzen baitzuen, edo, ezagun min batzuer izkiriatzen zauenean, "Von". Laburdura hori onhar zaitekeen oraino, izen batzun baten luzetasunaren gatik. Gutiago ohartzen zen Elisabeth noiz Lili-ez, noiz Bebeth-ez ordain-arazten zuten arrazoinez, bertze mundu batean Kikim-ak populkatzen ziren bezala. Ikusten da zer gatik gizon batzuek, bizkitartean orotara aski auher eta arinek, "Quiou" erabiltzen duten "Montesquiou" erranez demboraren ez galtzeko. Baina gutiago ikusten da zer irabazten zuten bere gusietarik bati "Dinand" erranez "Ferdinand"-en orde. Elizatake bertzalde sinetsi behar izen-ttipien emaiteko Guermantes-tarrak ezin aldatuki silaba bat errepikatuz ari zirela. Horrela bi ahizpek, Montpeyrous-ko kondesa eta Vélude-ko bizkondesa, bi-biak izigarri lodiak zirenak, nehoiz etzuten

bere burua deitzen entzuten, den gutienik gaitzitu gabe 'ta nehork irriño bat egin gabe, hain zen ohidura zaharra, "Ñimiñoa" eta "Pollita" baizik. Guermantes-ko Andereak, Montpeyroux-ko Anderea minki maite baitzuen, hura larriki eritua izan baliz, nigarretan galdeginen zaukon haren ahizpari: "Erraiten dautate "Ñimiñoa" biziki gaizki dela." L'Eclin-go Andereak ileak emaiten baitzituen beharriak osoki gordetzen zauzkoten xerrendetan, ehoiz etzen "sabel gosea" baizik izendatzen. Zenbait aldiz aski zen senarren izenari *-a* baten gaineratzea emaztearen izendatzeko. Baster-hiriko gizon zikoitz, zikin, urrikalgaitzenak izen ttipia Rafael ukanez, haren maiteak, harrokatik jalgitzen zen ere liliak, izenpetzen zuen beti Rafaela. Baina eztira horiek ezin zenbatuzko erregela batzuen xantilunak baizik, hetarik batzu, gertaldia jiten bada, beti argitzen ahalko baititugu.

Gero galdegin naukon dukeari Agrigente-ko printzeari aitzinera nindezon: "Nola, eztuzu oraino hauteko Gri-Gri hori ezagutzen", egin zuen Guermantes-ko Jaunak, eta ene izena erran zaukon Agrigente-ko Jaunari. Hunena, Françoise-k hain usu aiphatua, beti berineria argal bat bezala agertua zizatan, haren azpian ikusten bainituen, urrezko iguzki baten arrai zehartuek itsaso ubelaren bazterrean joak, aro zaharreko hiri baten seiki gorraxtak, dudatzen enuelarik printzea bera - mirakulu labur batean Paristik iragaiten - zela, argi berdinarekin ziziliarra eta lorioski zaharrez zoldatua, hango egiazko nagusia. Ondikotz, aitzineratu nindakoten karamarlo arrunta, ete eni egun on erraiteko itzulikatu zena aphain zela uste zuen ozartasun phizu batean, bere izenetik berex zen, ukan zezakeen - haren leinururik batere berekin ekharri gabe, behin ere hari so egina ukan gabe behar bada - ederlan bat bezainbat. Agrigente-ko printzea hain osoki zen printze baten edozein gauzarik eta Agrigentez orhoit-araz zezakeenik gabe, nun uste izanen baitzen haren izenak, haren ganik osoki berex, zen jendeari ezerez lotua, ukana zuela gizon haren baitan, edonorrenean bezala, poesia nahasi batekoa izaiten ahalko zen guziaren bereganatzeko indarra, eta egintza horren ondotik silaba loriagarri horietan hestekoa. Egintza hori gertatua baldin bazen, zer nahi den ontsa eginik izana zen, ezpaitzen Guermantestarren ahaide hortarik lillurazko atoma bat hartzeko gelditzen. Hala nola nun Agrigente-ko printzea zen munduko gizon bakarra hura gertatzen baitzen, eta behar bada gutienik hala zen gizona. Bertzela hala izaiteaz osoki zorionean zen, baina diruzain bat mina bateko diru-balio ainitz ukaiteaz bezala, mina horrek "Ivanhoe mina" eta "Primerose mina" izen pollitak zituenez, ahal bakarrik "mina lehena" izena duenez bertzela axolatu gabe. Bizkitartean, erraiteko hain luze diren baina, saloinean sartzean berean hasirik, ephe zenbait baizik irauna etzuten aitzineratzeak bururatzen ari ziren batean, eta Guermantes-ko Andereak, doinu abantzu othoizle batean erraiten zautalarik: "Segur niz Basinek akhitzen zituela batetik bertzera horrela eremanez, gure adixkideak ezagun ditzazun nahi dugu, baina oroz gainetik etzitugu akhitu nahi berriz usu hunara jin zaiten", dukeak, mogimendu aski moldegaitz eta uzkur baten, eman zuen (Elstir-er beha betea nuen oren bat lehenago ontsa egin nahiko zuena) zerbitza zaitekeelako seinalea.

Gaineratu behar da gomitetarik batek huts egiten zuela, Grouchy-ko Jaunak, haren emaztea, Guermantes jaioa, bere aldetik bakarrik jina baitzen, senarrak behar

zuelakotz eguna hartan ibilia zen ihizitik zuzen ethorri. Grouchy-ko Jaun hori, Lehen Imperioko haren ondokoa, gaizki errana izan baita Waterloo-ko gudu hastean haren han ez izaitea izana zela Napoleonen galtzearen arrazoin nagusia, hauteko familia batekoa zen, nobleziaz hartuak diren batzuen begietan ez aski alta. Horrela Guermanes-ko printzeak, urteak berantago beretako gutiago behakor izan behar zuenak, bazuen bere iloba anderer erraiteko ohidura: "Zer zorigaitza Guermantes-ko Andere gaixo horrek (Guermantes-ko bizkondesa, Grouchy-ko Anderearen ama) haurrak eztitzan behin ere ezkondu ahal ukan! - Baina, oseba, zaharrenak Grouchy-ko Jauna esposatua du. - Hori eztut senarra deitzen! Azkenan, badiote François osabak gaztena galdegina duela, horrek eginen baitu eztirela guziak neska geldituak izanen."

Zerbitzatzeko manua emana izan orduko, klixka itzulikari zabal batean, batzuna eta betangoa, jateko salako bi atherdiak ideki ziren; zeremonietako buruzagi bat iduri zuen mahi-nagusia Parme-ko prinzesaren aitzinean gurtu zen eta berria iragarri zuen: "Anderea zerbitzatua da", "Anderea hiltzera doa" erranen zuen doinu berean, baina bilzarreari tristeziarik batere eman gabe, aire eroxka batekin baitziren, udan Robinson-en bezala, bat bertzearen gibeletik jendeak pareka jateko salara buruz aitzinatu, elgarretarik berexiz lekura helduak zirenean, haien gibelean mutil jantzi batzuek kadera aitzinatzen baitzuten; azkenik, Guermantes-ko anderea ene gana jin zen, mahira ereman nezan eta beldurtu ahalko ninduen herabe izpirik nihaurek senditu gabe, ezen ginarrietako trebetasun handi batek garazia errextua daukon andere ihiztari bezala, ikusia baitzukeen behar etzen alderdian emana nintzala, ene inguruan hain trebeki itzulikatu zen nun haren besoa enearen gainean aurkitu bainuen eta mugimendu garbi noble batzuetan naturalki hartua izan bainintzan. Are gehiago errexki obeditu nauen nun Guermantes-tarrak ezpaitziren hetaz egiazko jakintsun bat jakitateaz baino gehiago axolatzen, haren etxean jakitate gabeko batenean baino gutiago lotsatua izaiten baita; bertze athe batzu ideki ziren eta handik sartu zen salda khetan, auharia "pupazzi" antzoki trebeki mekanikaztatu batean izan baliz bezala, eta gomit gazte baten ethortze beranduak ezartzen baitzuen, nagusiaren kheinu batean, erroteria guzia alhan.

Herabea izana zen eta ez nagusi maiestatedun batena dukearen kheinu hori, eta mekanikeria gizatar handi, obedient, antzedun eta zabal horren abiatzeak ihardetsia zaukon. Jestuaren dudak etzuen enetako jarraikia zizakon ikuskarriaren ondorioari kalterik ekharri. Ezen sendi nuen dudakor eta eragozkarri egina zuena auhaltzeko ni baizik enindutela igurikatzen eta luzaz igurikatua zutela eni ikustera uzteko beldurra zela, berdin ere Guermantes-ko Anderea beldur baitzen, ni hainbertze margazkier beha egonik, jarraikian jender aitzineratuz neka nindezaten eta goxoan izaitetik traba. Hala nola nun jestuaren handitasun eskasak baitzuen egiazko handitasuna agertzera emaiten, bere aberastasunaz dukeak zuen axolagabe horrek, aldiz bereaz ezteus zen baina ohoratu nahi zuen gomit baten alderako egitateak.

Etzen hori Guermantes-ko Jauna etzelakotz alde batzuetarik biziki arrunta eta etzituelakotz ere gizon aberatsegi baten irrigarritasun batzu, hala etzen aberats berri baten urgulua. Baina estatuko kargudun batek edo aphez batek bere antze

bierartekoa mugagabean gehitua badakusan bezala (hala nola itsaso osoak gibeletik bultzatzen duen uhain bat) hetan bermatzen den indarrez, Adminixtrazione frantsesaz eta Eliza katholikoaz, berdin ere Guermantes-ko Jauna bertze indar hartaz eremana zen, arixtokraziako ikustate zintzoenaz. Ikustate horrek jende ainitz bazterrera uzten ditu. Guermantes-ko Andereak etzituen hartuko Cambremer-ko Anderea edo Forcheville-ko Jauna. Baina norbait, ni nintzan bezala, Guermantes-tarren ingurunera bildua izaiteko gai zela iduri zen ber, ikustate horrek agertzen zituen ostatatzeko lañotasun batzu balio handikoak, saloin zahar hek baino, hor gelditu muble miragarri hek ere baino ahal bada handizki ederragoak.

Norbaiti atsegin eman nahi zuenean, Guermantes-ko Jaunak bazuen horrela bere buruaz, egun hartan, jende nagusiaren egiteko, gertaldiez eta lekuaz baliatzen bazakien antzea. Badateke Guermantes-en haren "berexkuntza" eta "garazia" horiek bertze molde bat hartuko zutela. Atela-araziko zuen ene eremaiteko auhal-aitzin harekin itzuli baten egitera. Ziren bezala, zituen eginarez hunkia senditzen zinen, , aro hartako Orhoitzapen batzuen irakurtzean den bezala, Luis XIV-garrenak oneziarekin, itxura arrai eta gur erdi batekin ihardesten daukolarik galde egitera heldu zakon norbaiti. Behar da ere oraino, bi aldietan, gogoan hartu ikustate hori etzoala izen horrek erran nahi duena baino urrunago.

Luis XIV-garrenak (haren aroan nobleziaz hartu-minduek "etiketaz" zuen axola gutiaz gaizkitzen zuten, hortakotz ezpaita, dio San-Simunek, lerroko, errege ontsa ttipia baizik izana Valois-ko Filipe, Charles V-garrenaren eta bertzen ondoan) erregela ximenenak idatz-arazten ditu odoleko printzek eta embaxadorek jakin dezaten erresumetako zein buruzagier behar duten eskua hartu. Aldi batzuez, akomeatzera heltzeko ezinean, nahiago da deliberatu Luis XIV-garrenaren semeak, Monseigneur-ek, errege arrotz bat eztuela etxetik kampoan baizik hartuko, jauregira sartzean bata bertzearen aitzinean joan dela errana izan eztadin; eta Electore palatinak, etxean auhaltzera Chevreuse-ko dukearen hartzean, alegia eri dela egiten du, huni eskuaren ez emaiteko, eta hunekin auhaltzen da baina etzanik, horrela eragozpena hausten baita. Duke Jaunak Monsieur-i zerbitzuaren emaiteko aldiak baztertzen baitzituen, hunek bertzela ere samurki maite duen errege anaiaren aholkuz, estakuru bat hartzen du jeikitzera bere gusiaren igan-arazteko eta athorraren emaitera bortxatzeko. Baina sendimendu barnatu batez ari izan behar den orduko, bihotzeko gauzez, eginbidea, ikustatez baizik ari eztenean hain gogorra, osoki aldatzen da. Anaia hori, maitatuenak dituen jendetarik bat, hil eta oren zenbait berantago, Monsieur, Montfort-eko dukearen hitzaz, "oraino bero-beroa" denean, Luis XIV-garrena operako aire kantatzen ari da, ustegabetzen da Burgoñako dukesa, bihotzminaren gordetzea neke baitzako, itxura hoin goibelduan izaiteaz, eta alaitasuna berehala berriz has dadin nahiz, gortelariak berriz jokora eman daiten, Burgoñako dukeari manatzen dauko mede partida bat has dezan. Bada, ez bakarrik egintza mundutar eta bilduetan, baina Guermantes-ko Jaunaren mintzatze nahi gabekoenean, arranguretan, ordutaldian, kontramolde bera edireiten zen: Guermantes-tarrek etzuten bertze hilkorrek baino gehiago bihotzmin senditzen, erran daiteke ere haien egiazko sendikortasuna ttipiagoa zela; aldiz, egun oroz haien izena ikusten zen *Gaulois*-ko berri mundutarretan, hetan bere izenaren ez

emaitea hogendun idurituko zizaien ehorzketa elemeniaren gatik. Xéhophon-ek eta Jondoni Paulok ezagutu ahal ukan zituzten zabaltzak, bidaiariak abantzu berdinak berraurkitzen dituen bezala, berdin ere Guermantes-ko Jaunaren eginaretan, gizon goxatasunez hunkigarria eta gogortasunez hastiagarria, eginbehar ttipienen esklaboa eta hitzarmen sakratuenetarik libratua, bi mende iraganen ondotik edireiten nuen oraino garbi-garbia, Luis XIV-garrenaren gorteko biziak zuen makurdura berezi hura, eta konzienziako arrangurak baderamatzana, sendimenduen eta moraleko zuzentasunaren eremutik, molde hutsezko gaietara.

Parmeko prinzesak erakutsi zautan maitagarritasunaren bertze arrazoina bereziagoa zen. Aitzinetik segur baitzen Guermantes-ko Anderearen etxean ikusten zuen guzia, gauza eta jende, bere etxean ikusia zuena baino gaitasunez biziki goroagoa zela. Bertze jende guzien baitan, horrela izan baliz bezala ari zen, egia da; den janari xoilanarendako, lili ohikoenendako, etzen gogo-erauztean gelditzen, eskatzen zuen biharamunean berean errezetaren bila igortzeko baimena, edo motaren ikustea bere kozinerraren edo baratzezain nagusiaren bidez, lan-sari gotorrarekilako jendeak, bere karrosa berezia bazutenak eta oroz gainetik bere ofizioko handi-nahia, azkarki aphalduak sendi baitziren janari gutietsi batez xehetasun bila jiteaz edo julufre mota batez, etzelarik erdiz ere aspaldidanik prinzesaren etxean ukanak zituenak bezain ederra, margoz aldizkatua, handia. Baina hunen aldetik, guzien etxean, den gauza ttipienen aitzineko ustagabetze hori alegiazkoa baldin bazen, eta bere lerro gorenetik eta aberastasunetarik etzuela, erakasle ohiek debekatua zaukoten, bere amak gordea zuen eta Jainkoak jasan etzezakeen urgulurik hartzen erakusteko egina, aldiz, zintzotasun osoan zuen Guermantes-ko dukesaren saloina, han atseginez ustegabetzera baizik joan etzaitekeen leku hautuzko bat bezala ikusten. Orotako moldez bertzela ere, baina gogo izanara horren argitzeko ontsa eskas lizatekeenaz, Guermantes-tarrak arixtokraziako gaineratekotik aski bertzelakoak ziren, prezioasogoak, arraroagoak. Lehenbiziko ikustaldian kontrako iduripena emana zautaten, arruntak aurkituak nituen, gizon eta emazte guzien berdinak, baina hetan aitzinetik izen batzu ikusiak nituelakotz, Balbec-en, Firenzen, Parmen bezala. Ageriki saloin hortan, Saxe-ko gizaiduri ttipi batzu bezala asmatuak nituen emazte guziak hala ere emazte gehien-gehienen idurikoak ziren. Baina Balbec eta Firenze-k bezala, Germantes-tarrek, asmua nahigabean utzirik bere izenarena baino gehiago bere edurikoen itxura baitzuten, adimenduari eskaintzen ahal zauzkoten gero, nahiz neurri ttipiago batean, berexten zituzten berezitasun batzu. Soineko itxura bera, ubelerano zoan larruko gorraxta berezi bateko margoa, abantzu argitzen zuen ile arin, gizonetan ere tusta urreztatu ezti batzuetan bilduetako hori berezi bat, erdi harresietako liken, erdi gatukarako larru (argi dirdirant horri ihardesten zaukola adimenduko dirdiratze batek, ezen, "Guermantes-tarren larruantze 'ta ileak" erraiten baldin bazen, Mortemart-tarren izpiritua bezala erraiten zen Guermantes-tarrena), halako gizarteko gaitasun bat xorrotxagoa - Luis XIV-garrena baino lehenagotik - eta orotaz are gehiago ezaguna nun berek argiratzen baitzuten, horrek guziak egiten zuen, han hemenka hartan hartuak aurkitzen ziren arixtokrazian, Guermantes-tarrak ezagungarri gelditzen zirela, haier ohartzeko eta jarraikitzeko errex, hala nola

haien horiak jaspa eta agata marratzen dituen zainak, edo ere izaitekotz argizko ileantze horren ixurkatze malgua, zurda harrotuak lasterrez doazkolarik, arrai guri batzu bezala, agata argalaren sahetsetan.

Guermantes-tarrak - izen horren ukaiteko gai zirenak bederen - etziren bakarrik haragi, ile, behako argian hauteko kalitate batekoak, bazuten ere egoiteko, ibiltzeko, agurtzeko, eskua tinkatu baino lehen so egiteko, eskuaren tinkatzeko molde bat, hortan guzian munduko edozein gizonetarik, hau zamarrekilako laborari batetik bezain bertzelakoak egiten zituena. Eta zuten amultsutasuna ukanik ere hau erraiten zen: zinez dretxorik eztutea, nahiz gordetzen duten, ikusten gituztenean ibiltzen, agurtzen, atheratzen, haiek eginik ainararen hegaldatzea edo arrosaren ukurtzea bezain garaziadunak bilakatzen ziren gauza horiek guziak, "Gutarik bertze arraza batekoak dira, eta gu, lurreko printzeak gira" gogatzeko? Geroago, hartu nuen Guermantes-tarrek alabaina bertze arraza batekoa uste nindutela, baina haien gutizia phizten zuenekoa, ezagutzen enituen eta hek bakarrik handi zirela aithortzen zuten merezimendu batzu banituelakotz. Geroago oraino senditu dut aithormen hori erdi zintzoa baizik etzela eta haien baitan erdainua eta ustegabetzea miresmenarekin eta gutiziarekin batean bizi zirela. Germantestarrer baitezpadakoa zizaien soinaren malgua bikuna zen: bati esker, beti ari zena, ordu oroz, eta behazunez Guermantes gizon bat andere baten agurtzera baldin bazoan, soinari orraze bat emaiten zuen mugimendu arautu eta zainez berdindu batzuen hein berdinaz egina, zango bat apur bat herrestan, ala espes, ala ihizian ainitzetan hautsia izanik gorputz gainari emaiten baitzaukon, bertze zangoaren ordaintzeko, soingain baten goititzeak kontraphizu egiten zaukon zehardura bat, begitako bakuna begian jartzen ari zen batean, bekain bat goiti-arazten zuelarik ile ttupetta agurtzeko beheititzen zen ordu berean. Bertze malgudurak, uhainaren, haizearen edo behin betikotz kuxkuak edo untziak badatxikan ur-ildoaren moldea bezala, halako higikortasun geldi baten ara bezala hartua zuen, sudur makoa uztaituz orhoit-arazten zuela, begi urdin buru axal-axalekoen azpian, hetarik emaztetan mintzo erlats bat jalgitzen zen ezpain mehegien gainetik, XVI-garren mendeko genealogixta bizkarkin helenixten nahikaria onak arraza horri eman ethorki ametsetakoa, arraza zaharra dudarik gabe, baina ez zioten bezainbat, ethorkitzat Xori jainkotarraz ithurrandere baten ernaltze mithologiazkoa bazemotenean.

Guermantes-tarrak etziren gorputzeko ikuspegitik baino gutiago bereziak adimendukotik. Gilbert printzea salbu, "Marie Gilbert"-en senar ideia noizpaitekilakoa eta bere emaztea ezkerretik jarr-arazten zuena karrosan zabiltzanean, etzelakotz odolez, alta erregetiarra, hura bera bezain ona (baina salbuespen bat zen eta, hor etzenean, familikoen nausen gaia zen eta ixtorio beti berrituena), Guermantestarrak, arixtokrazia hautatuenean bizi ziren batean, nobleziaz alegia batere ez axolatuarenak egiten zuten. Guermantes-ko dukesaren theoriak, hura egia erran Guermantes izanaren bortxaz neurri batean bertzelako eta gozagarriagoko zerbait bilakatzen baitzen, hainbertze zuten adimendua ororen gainean ezartzen eta politikan hain zozialixtak ziren, nun jendea galdez baitzagon haren hotelean arixtokraziakoaren bizi atxikitzeko kargua zuen Jeinua nun gordetzen zatekeen, beti ezin ikusia baina segurki gordea noiz aitzin-gambaran, noiz

saloinean, noiz ikuztegian, tituluetan sinesterik etzuen emazte horren mutiler orhoit-arazten baitzauen "Andere dukesa" erran zezoten, irakurtzea baizik maite etzuen eta giza-errespeturik gabe zen emazte horri, zortzi orenek joiten zutenean koinataren etxera auhaltzera joaiteko eta hortako lepho-has jartzeko.

Familiako Jeinu berak bazemakon Guermantes-ko dukesari bertze dukesen izanara, bederen hetan lehenbizikoena eta hura bezala miliun ainitzen jabe zirenena, the aspergarri, hirian auhari, saloin-besta batzuendako, gauza lakegarri batzu irakurtzen ahalko zituen orenen sakrifikatzea, euriaren iduriko halabehar gozagaitz batzu bezala, Guermantes-ko Andereak onhartzen baitzituen hetara bere gogo bizi khitzikaria ixuriz, baina haien onhartzeko zituen arrazoinen bilatzerano joan gabe. Adimenduan baizik sinesterik etzuen emazte hari Guermantes-ko Anderearen mahi-nagusiak beti "Andere dukesa" erraitean zen halabeharraren ondorio bitxia etzoan alta haren ofensatzerano. Nehoiz etzizakon gogoratua xoil-xoilki "Anderea" erran zezon galdegitea. Gogo ona azken mugetarano eremanez, uste ukan ahalko zen, ohargabean, bakarrik "Anderea" entzuten zuela eta hori luzatzen zuen hitza etzela hautemana. Bakarrik, gorrarena egiten bazuen, etzen mutua. Bada, senarrari mezu baten igortzeko beharra zuen aldi oroz, bazion mahi-mutilari: "Orhoit-araziko daukozu Jaun dukeari …"

Familiako Jeinuak bertze egitekorik bazuen bertzela ere, behazunez moralaz mintza-araztea. Eiki, Guermantes berezikiago adimendunak baziren, Guermantes berezikiago moralakoak, eta ohiki etziren berak. Baina lehenbizikoak - falsukeria batzu eginak zituen eta jokoan xikanatzen zuen Guermantes bat ere 'ta orotako goxagarriena, ideia berri eta zuzen guzietara idekia - moralaz bigarrenak baino hobeki mintzo ziren, eta Villeparisis-ko Anderearen molde berean, familiako Jeinua andere xaharraren ahotik mintzo zenean. Horrelako orduetan Guermantes-tarrak ikusten ziren bapatez abantzu markestsarena bezain doinu zahartu, gozo baten hartzen, sehi batez erraiteko: "Zola ona baduela sendi da, ezta arrunta den neska, jende on batzuen alaba dateke, segurki beti bide zuzenean egona da." Ordu horietan familiako Jeinua doinu bilakatzen zen; baina batzuetan egonara zen ere, aurpegi itxura, dukesaren baitan haren aitabitxi marexalaren hura bera, halako daldarikaldi ezin hauteman bat, Sugearena bezalakoa, Barka familiaren Jeinu karthagotarra, haren gatik aldi bat baino gehiagotan bihotz pilpira batez harturik izan bainintzan ene ibilaldi goiztiarretan, noiz ere, Guermantes-ko Anderea ezagutua ukan baino lehen, hark ikusia sendi nintzanean esneki-saldegi ttipi baten zolatik. Jeinu hori sartua zen orobat izaitetik urrun izana zen gertaldi batean, ez bakarrik Guermantes-tarren baina Courvoisier-tarrendako, familiako alderdi kontrakoa, eta nahiz hek bezain odol onekoa osoki bertzelakoarendako (haren amatxi Courvoisier-en bidez zuten ere Guermantes-tarrek argitzen Guermantes-ko printzeak beti sortzez eta nobleziaz mintzatzeko zuen aburu alderdikaria balioa zuen gauza bakarra izan baliz bezala). Courvoisier-tarrek etzuten bakarrik adimendua Guermantes-tarrek egiten zuten lerro berean ezartzen, baina etzuten ere hartaz ideia bera. Guermantes-tar batendako (zozoa izanik ere), adimenduna izaitea, ausikari izaitea zen, gaiztakeria erraiteko, irabaziaren eremaiteko gai, zuri berdin margolaritzaz, musikaz, eraikintzaz ihardoki ahal ukaitea ere, angelesez

mintzatzea. Courvoisier-tarrek adimenduaz aburu gutiago aldekoa zuten eta, norbait haien mundukoa etzen ber, adimenduna izaitea etzen "itxura guzien arabera aitamak erahilak ukaitea" erran nahi ukaitetik hain urrun. Adimendua haiendako nehondik ere ezagutzen etziren jende batzuek hari esker saloin errespetatuenetako atheak idek-arazten zituen halako zerrapo-bortxagailu bat zen, eta Courvoisier-tarren etxean jakina zen holako jende-mota onhartua ukaitea azkenean beti garratz izanen zizaizula. Haien mundukoak etziren jende adimendunen hitzerran ezteusener, Courvoisier-tarrek hutsegin gabeko mezfidatze batez ihardesten zuten. Notbaitek aldi batez erranik: "Baina Zuan Palamède baino gazteago da. - Bederen hala erraiten dautzu; eta erraiten badautzu, segur izan zaite bere abantaila hatzemaiten duela", ihardetsia zuen Gallardon-go Andereak. Gehiago ere, Guermantes-tarrek ukaiten zituzten bi andere atzerritar aphainez erraiten baitzen bat aitzinean joan-arazia zela zaharrena zenaz geroz: "Baina zaharrena ere ote da?" zuen galdegina Gallardon-go Andereak, ez egiazki jende mota horrek adinik ukan ezpalu bezala, baina itxura guzien arabera errexixtro eta bataio-izenik, ohidura segurtaturik gabe izanez, guti edo aski gazteak izan balire bezala, hala nola xare ber bateko gatukumeak haien artean maraxel batek bailezake bakarrik zein zein den ezagun.

Courvoisier-tarrek bazadukaten bertzela, Guermantes-tarrek baino hobeki, erran-nahi batean, nobleziako bertute osoa aldi berean bere izpirituko hertsiari eta bihotzeko gaixtoari esker. Guermantes-tarrak (haiendako, erret-familien eta Ligne, La Trémoïlle eta bertze zenbaiten azpian, gainerateko guzia xehekeria batean nahasten baitzen) ozar ziren bezala Guermantes-ko ingurunetan bizi ziren arraza zaharreko jende batzuekin, hain zuzen etzutelakotz Courvoisier-tarrek handizki hartzen zituzten bigarren maileko merezimendu horier behatzen, merezimendu horien hutsaz axola guti zuten. Bere probinzian lerro biziki gorarik etzuten emazte batzu, baina distiratuki ezkonduak, aberatsak, pollitak, dukesez maitatuak, Parisen, han "aitamez" gauza guti jakina baita, barnera ekhartzeko artikulu hautak ziren. Gerta zaitekeen, nahiz bekan, horrelako emazteak izan zaiten, Parmeko prinzesaren bidez, edo bere goxatasun bereziaren gatik, Guermantes batzuen etxean onhartuak. Baina, haien aldera, Courvoisier-tarren sumindurak ehoiz etzuen amor emaiten. Bortz eta sei orenen artean, bere andere gusiaren etxean, jende batzuen aurkitzea, haien gurasoekin bere gurasoek Perche-ko herrialdean ibiltzea maite etzutenen, handituz zoan errabiatzeko arrazoin bat zen haiendako eta ethengabeko deitoratze batzuen gaia. G… kondesa xoragarria, behazunez, Guermantes-tarren etxean sartzen zen orduko, Villebon-go Anderearen begitarteak zuzen-zuzena hartzen zuen neurtitz hau - ezagutzen etzuena bertzela ere - erran baehar ukan balu hartuko zuen itxura:

Bat baizik ezpada gelditzen, izanen niz hura.

Courvoisier andere horrek iretsiak zituen abantzu astelehen oroz kremaz hantu bixkotxa batzu G… kondesatik zenbait urratsetan, baina bertze ondoriorik gabe. Eta Villebon-go Andereak aithortzen zuen gordeka asma etzezakeela bere andere gusiak nola zuen onhartzen bigarren mailekoa ere etzen emazte bat, Châteaudun-en. "Eztu zinez balio ene gusia hoin behakor izan dadin bere

ezagutzetan, hori jendeaz trufatzea da", bururatzen zuen Villebon-go Andereak begitarteko bertze itxura batean, hura erdi-irrizkoa eta etsipenean maltzurra, hartan asmaketazko joko ttipi batek bertze neurtitz bat ezarriko baitzuen izaitekotz, kondesak alabaina batere gehiago ezagutzen etzuena:

Oi Jainkoak! Ustea daut gainditu zorigaitzak.

Gainera, gertaldiak aitzin ditzagun erranez Villebon-go Andereak G… Andereari erdainu egitean zuen "iraupenak" - "zorigaitzak"-ekin errimatzen baitu ondoko neurthitzean - balio apur bat ukan zuela. G… Anderearen begietan Villebon-go Anderea hainbateko ospeaz dohatu zuen, asmu hutsekoaz bertzela ere, nun G… Anderearen alaba, orduko dantzaldietan aberatsena eta pollitena, ezkontzekotan izan zenean, ustegabetu baitziren duke guziak baztertzen zituela ikustean. Hori zen amak, Grenelle-ko karrikan Châteaudun-en orhoitzapenez aste oroz jasanak zituen laidoak gogoan, ezpaitzuen egiazki alabarendako senar bakar bat baizik nahi: Villebon bat.

Guermantes eta Courvoisier-tarrak elgarrekin aurkitzen ziren gauza bakarra, norbaiten ganik urrun zaudela erakusteko zuten antzea zen, bertzela ere mugarik gabe aldagarria. Guermantes-tarren arak etziren orotan osoki berdinak. Baina, behazunez, Guermantes-tar guziak, zinez hala zirenak, haien aitzinera ekharria zinenean, halako zeremonia bati emaiten ziren, zuri eskua luzatu ukaitea zaldunetako zure sakratzea bezain gauza handi-handia izan baliz bezalaxe. Guermantes batek, hogei urte baizik ezpalu ere, baina jadanik aitzinekoen urratsetan, aitzineratzaleak zure izena errana zuela entzuten zuen orduan, zure gainera erortzera uzten zuen, zuri egunon erraitera etzela batere deliberatua iduri, behako bat gehienetan urdina, beti zure bihotzeko xoko barnatuenetara sartzeko prest zela iduri zuen alzeiru bat bezain hotza. Hori zen ere Guermantes-tarrek egiten zutela uste zutena, lehenbiziko lerroko zikologak zirela estimatzen baitzuten. Uste zuten oraino jarraikiko zen eta jakinean baizik emana izanen etzen agurraren amultsutasuna ikherraldi horrek handituko zuela. Hau guzia egiten zen zutarik urruntasun batean, ttipia harma-joko batez ari izan baliz, gaitzekoa iduri zuena esku-tinkaldi bateko, eta bigarren huntan hormatzen zuena lehenean eginen zuen bezala, hala nola nun Guermantes-tarrak zure arimako eta ohoragarritasuneko azken gordalekuetan itzuli bat lasterrez egin ondoan, jujatua zinituenean handik hara harekin aurkitzeko gai, haren eskuak, osoan luzatu beso baten puntan zure gana itzulia, gudu berezi bateko joko-ezpata bat eskaintzen zautzula iduri baitzuen, eta esku hura oro har ordu hartan Guermantes-tarretik hain urrun ezarria zen, nun, burua gurtzen zuenean, neke baitzen zu ala bere eskua zuen agurtzen berextea. Guermantes-tar batzuek, neurria nun zen ez jakinean edo ethengabe ez errepikatzeko ezinean, sobera egiten zuten aurkitzen zinituzten aldi oroz zeremonia hori berriz hasiz. Hartako "familiako Jeinuak" bere botereak utziak zezteen Zikologiako aitzin ikharraldi egiterik eta haren ondorioen emaiterik ezpaitzuten, esku tinkaldiaren aitzineko soaren hisitze zilatzalea eztzaitekeen adi-araz haien soak hartua zuen erregulartasunaz edo bazutela uste zuten lilluratzeko dohainaz baizik.

Courvoisier-tarrak, gorputzez bertzelakoak baitziren, debaldetan indar egina zuten agur ikerlari hortaz jabetzeko eta gogortasun handikari edo axolagabe lehiatu

batean geldituak ziren. Aldiz, Courvoisier-tarrer zuten iduriz Guermantes andere biziki bekan batzuek hartua anderen agurra. Alabaina, Guermantes horietarik bati aitzineratua zinen orduan, agur handi bat egiten zautzun hartan burua eta gorputz-gaina zutara hurbiltzen zituela, nunbait han berrogei-ta bortz gradoko izkin batean, azkarki gora zuen gorputzeko beherea opo egiten zuen gerrirano geldirik zagon batean. Baina doi-doia zuena horrela zure gana igorria bere soinaren zati gorena, bapateko gibelatze batean zut izaitetik luzetasun berdintsu batez gibeleratzen zuen. Jarraikitzen zen uzkailtzeak zuri emana zela iduri zizaizuna ezeztatzen zuen, ustez hartua zinuen eremua etzen buruz-buruko gudu bateko bezala irabazia ere gelditzen, hastapeneko egon lekuak atxikiak ziren. Berriz urruntzeaz amultsutasunaren hauste hori bera (ethorkiz Courvoisier zena eta lehenbiziko mugimenduan egin aitzinatze horiek etzirela ephe bateko jokoa baizik erakusteko egina) berdin ageriki agertzen zen, Courvoisier-tarren baitan Guermantes-tarrenean bezala, haien ganik ukaiten ziren eskutitzetan, haien ezagutza egiten zen hastapenetan bederen. Eskutzitzeko mamiak ukan zezazkeen adixkide bati baizik, iduriz, izkiriatuko etziren erranaldi batzu, baina debaldetan zinuen andere horren adixkidea izaiteaz espantu egin zinezakeela uste ukanen, ezen eskutitza "Jauna"-tik hasten zen eta "Sinetsazu, jauna, ene sendimendu ikustatezkoetan"-etik bururatzen. Ordutik, gaineratekoaren erran-nahi guzia aldatzen zuten hastapen hotz eta bururapen hormatu horien artean, joan zaitezkeen (doluminezko zure eskutitz bati ihardestea baldin bazen) Guermantes andere hark ahizparen galtzeaz ukana zuen bihotzminaren erakuspen hunkigarrienak, haien artean zen adixkidantza minaz, ibiltzen zen herrien edertasunez, bere semalaba bitxien xoramenean edireiten zituen konsolamenduez, hori guzia etzen gehiago bildumetan aurkitzen direnak bezalako eskutitz bat baizik eta haren etxekotasunezko itxurak etzuen alta zure 'ta ezkutizlari anderearen artean Plinius gaztearen et Simiane-ko Anderearen artean baino etxekotasun gehiago.

Egia da Guermantes andere batzuek izkiriatzen zautzutela lehenbiziko aldietan beretan "adixkide maitea" edo "adixkidea": etziren beti hetan lañoenak, baina izaitekotz, erregen erdian baizik ez bizi eta, bertzaldetik, "arinak" izanez, hetarik heldu zen guziak atsegin emaiten zuelako segurtasuna bere urguluan hartzen zutenak eta bere ustelduran eskain zezaketen gozaldi batez ere ez tratu egiteko ohidura. Gainera, aski baitzen Luis XIII-garrenaren aroan andere arbaso ber bat ukana izaitea Guermantes andere gazte batek Guermantes-ko markestsaz mintzatzean erran ahal ukaiteko "Adam izaba", Guermantes-tarrak hainbertze ziren nun, zeremonia xoil horietako ere, behazunez aitzineratzeko agurreko, molde ainitz baitzen. Azpi andana doi bat xotil bakoitzak bazuen berea, aitametarik haurrer hel-arazten zena zauri sendagarri baten errezeta eta erreximeta egiteko ara berezi bat bezala. Horrela da ikusi Saint-Loup-en esku tinkaldia berak nahi gabean bezala abiatzen zure izena entzuten zuen orduan, behakoa barne izan gabe, agurrak lagundu gabe. Arrazoin berezi zenbaiten gatik - aski bekan gertatzen zena hala ere - Saint-Loup azpi-andanari aitzineratua zen zorigaitzeko bilaun oro galdeka zagon bere baitan, hoin bapateko agur gutien horren aitzinean, nahitara ohargabearen iduripenak hartzen zituenean, Guermantes gizon ala emazteak haren kontra zer

ukan zezakeen jakiteko. Eta ontsa ustegabetua zen jakitean hark zuzen aurkitua zuela berezi-bereziki zenbat gustatua zinindakon eta agian berriz ikusiko zinituela erraiteko aitzineratzaleari izkiriatzea. Saint-Loup-en jestu mekanika bezain bereziak ziren Fierbois-ko markesaren jauzi gurutzatu adigaitz zaluak (Charlus-ko Jaunak irigarri aurkitzen zituenak), Guermantes-ko printzearen urrats larri neurtuak. Baina ezina da hemen Guermantes-tarren dantza-molde horren aberastasunaren erakustea dantzari multzoak zuen hedamenaren gatik.

Guermantes-ko dukesaren aldera Courvoisier-tarrak phizten zituen aihergora itzultzeko, hek hartaz urriki ukaiteko konsolamendua ukan ahala zuketen gazte zeno, orduan fortuna guti baitzuen. Zorigaitzez, betidanik halako bafada khedartsu eta berezi batek lurperatzen zuen, begietarik gordetzen, zen handia izanik ere, ilun gelditzen zen Courvoisier-tarren aberastasuna. Andere Courvoisier biziki aberats batek hartzen ahal zuen ezkongai gotor bat, beti gertatzen zen senar-emazte gaztek Parisen etzutela berea zuten egoitzarik, han aitamaginarriben etxean "jausten" zirela, eta urte gaineratekoa probinzian bizitzen nahastekarik baina distirarik ere gabeko jenden artean. Saint-Loup-ek, zorrik baizik etzuelarik, Doncières bere zaldi-karroseriez lilluratzen zuen batean, Courvoisier aberats-aberats batek etzuen ehoiz han tramua baizik hartzen. Kontrako aldera (eta bertzela urte ainitz lehenago) Guermantes-ko Anderaurenak (Oriane), gauza handirik etzuenak, bere aphaindurez mintza-arazten zuen Courvoisier guziek berez baino gehiago. Haren solasen eskandalak berak halako erreklama bat egiten zuen janzteko eta orraztatzeko zuen moldearendako. Ausartua zen Errusiako duke-handiari erraitera: "He bada! Enejauna, Tolstoï erhail-arazi nahi omen duzu?" Courvoiser-tarrak - bertzela ere Tolstoï-ez guti jakinak - gomitatuak etziren auhari batez. Etzakiten biziki gehiago idazle grekez, Gallardon-go dukesa (Gallardon-go prinzesa oraino nexka gaztearen amaizuna) alhargunetik jujatu behar bada, bortz urtez Orianeren ikustaldi bakar batez ez ohoratua izanik, han ez izaitearen arrazoina galdegiten zaukon norbaiti ihardetsi baitzuen: "Munduan Ariztotele (erran nahi zuen Ariztofane) gogoz erraiten omen du. Hori eztut nik etxean onhartzen!"

Asma daiteke Tolstoï-ez Guermantes-ko Anderaurenaren "atheraldi" horrek, Courvoisier-tarrak sumintzen baldin bazituen, Guermantes-tarrak lilluratzen zituela, eta, haratago, haier, hurbil ala urruundik, eratxikia zen guzia. Argencourt-eko kondesa alhargunak, Seineport sortua, nunbait han nor nahi onhartzen zuena andere jakintsuna egiten baitzuen eta nahiz haren semea izigarriko handi-ustea zen, hitza errepikatzen zuen leteretako jende batzuen aitzinean erranez: "Guermantes-ko Oriane, ambara bezain xorrotxa dena, ziminoa bezain abila, orotako dohatua, margolari handi batendako gai diren ur-margazkiak eta poeta gutik egiten dituzten bezalako neurtitzak egiten dituena, eta badakizu, familiaz goren-gorena den guzia baita, amatxi Montpensier-ko Anderaurena zuen, eta ezkontza gaitz bakar bat gabe Guermantes-ko Oriane hemerzortzigarrena da, Frantziako odol garbiena eta zaharrena." Hortako Argencourt-eko Andereak onhartzen zituen letera-gizon falsu horiek, erdi-adimendun horiek, ehoiz ere berek ezagutzeko aldia ukanen etzuten Guermantes-ko Oriane itxuratzen baitzuten Badroul Boudur prinzesa ere baino gauza miragarriago eta ohigabekoagoa bezala, etziren bakarrik hiltzera prest jende

hoin noble batek Tolstoï oroz gainetik goresten zuela jakitean, baina sendi zuten gogoan indar berri bat hartzen zauela Tolstoïendako zuten amodioak, kzarixmari ihardokitzeko zuten gutiziak. Gogamen liberal horiek haien baitan ezeztatuak izan zaitezkeen, horien ospea dudan eman ahala zuten, aithortzera gehiago ez ausartuz, noiz ere Guermantes-ko Anderaurenaren beraren ganik, erran nahi da nexka gazte hain segurki balios et burupekoa, bekokian ileak xabalduak zituenarenetik (Courvoisier batek behin ere onhartuko etzuena) baitzuten horrelako laguntza ukaiten. Gauza on ala gaitz andana batek ainitz irabazten du horrela gure baitan burupe duten jende batzuek onhartua izaitetik. Behazunez Courvoisier-tarren baitan, karrikan jendetasunezko zeremonia agurtze berezi batez egina zen, biziki itsusia eta bereaz guti amultsua, baina egunon erraiteko molde ikustate handikoa zela jakina zena, hala nola nun jende guzia, bere baitan irriñoa, ongi-ethorri ona ezabatuz, jimnaztika hotz hori bezala egitera entseatzen baitzen. Baina Guermantes-tarrak, orotara, eta Oriane bereziki, zeremonia horiek ehork baino hobeki ezagutzen zituzten batean, etziren dudan egoiten, karrosa batean ikusten bazinituzten, eskuaz egunon gixako baten egiteko, eta saloin batean, Courvoisier-tarrak uzten zituztela bere agur dorpe 'ta gogorretan, lagun bati bezala eskua emaiten zautzuten bere begi urdinak irriñotan, hala nola nun bapatez, Guermantes-tarrer esker aphainaren gai ordu arteo apur bat huts eta idorrean, sartzen baitzen jitez maitatuko zen baina baztertu nahi ukana zen guzia, ongi-ethorria, egiazko amultsutasun bateko ixuria, zintzotasuna. Molde berean, baina aldi huntan berrestimatze guti baieztagarri batez, dira gehienik musika gaitzaren eta, hain arruntak izanik ere, zerbait pherekatzale 'ta errex duten airen gostua bere baitan dadukaten jendeak, sinfonien ezagutzeari esker, bere baitan gostu horren hildumatzera heltzen. Baina hein hortara heldu eta, Richard Strauss-en orkeztrako margo lilluragarriez arrazoinekin miretsiak, ikusten dutenean musikari hori, Auber-endako gai den errextasun batekin, aire arruntenen onhartzen, jende horiek maite dutenak edireiten du bapatez burupe hoin gorakoa duenaren baitan loriatzen dituen baieztatzea, eta arrangurarik gabe eskerron bikunduarekin xoratzen dira, *Salomé*-ren entzutean, *Les Diamants de la Couronne*-etan debekatua zizaienaren maitatzeaz.

Egiazkoa ala ez, Guermantes-ko Anderaurenaren ihardestea duke-handiari, etxez etxe hedatua, auhari hortan Oriane zein aphaintasun soberakinean emana zen erraiteko aldi bat zen. Baina handikeria ezpada aberastasunetik sortzen (hortako zen hain zuzen Courvoisier-tarrendako helgaitza), baina nasaiki gastatzetik, bigarrenak gehiago irauten du hala ere azkenean lehenbizikoaz lagundua baldin bada, hark orduan bere phindar guzien igortzeko gai uzten baitu. Bada, ez bakarrik Orianek, baina Villeparisis-ko Andereak, agerian emaiten zituen prinzipioak zirenak izanez, erran nahi da nobleziak eztuela dirua khondatzen, lerroaz axolatzea irriegingarri dela, zoriona eztuela fortunak egiten, bakarrik adimenduak, bihotzak, antzeak dutela balioa, Courvoisier-tarrek uste ukan zezaketen markestsaren ganik ukana zuen erakaskuntzaren indarrez, Orianek mundukoa etzen norbait esposatuko zuela, edergile bat, justiziaz kondenatu ohi bat, erromes bat, gogo libro bat, behin betiko Courvoisier-tarrek "bide zuzenetik atheratuak" zeritzotenak. Hori are gehiago uste ukan zezaketen nun, Villeparisis-ko Anderea ordu hartan gizarteko aldetik gaitzaldi

neke baten iragaitean izanez (haren etxean aurkitu nituen jende distiratuetarik bat etzizakon oraino itzulia), hastio barnatu bat erakustera emaiten baitzuen baztertua zadukan munduaren aldera. Ikusten zuen bere iloba Guermantes-ko printzeaz mintzo zenean ere, etzuen harendako aski trufa sortzeaz hartua zelakotz. Baina Oriane-rendako senar baten edireiteaz ari izana zen orduan berean, etziren gehiago izabak eta ilobak agerian eman prinzipioak gauzaren buru izanak, "familiako Jeinu" mixteriozkoa zen. Villeparisis-ko Anderea eta Oriane nehoiz ezpalire errenda tituluez eta ethorkiez baizik mintzo izanak bezain hutsegingabe, literaturako mereximendu eta bihotzeko gaitasunen orde, eta markestsa, zenbait egunendako, - geroago izanen zen bezala - khutxan hila izan baliz bezala, Combray-ko elizan, han familiako bakoitza ezpaitzen Guermantes bat baizik, bataio-izen eta nortasunaz gabetua, oihal handi beltzetan G gorrindol bakarrak, duke korona bat gainetik, erakustera emaiten zuena, Saint-Germain bazter-hiriko ezkongai aberatsenaren, sortze hoberenekoaren, Guermantes-ko dukearen seme zaharranaren, Laumes-ko printzearen gainera zuen familiako Jeinuak ekharria Villeparisis-ko Andere adimendun, jazarle, ebanjeliokoaren hautua. Eta bi orenez, ezkontzako egunean, Villeparisis-ko Andereak etxean ukan zituen hetaz trufatzen zen jende noble guziak, hetaz trufatu baitzen ere gomitatuak zituen burjes minki ezagun batzuekin, eta Laumes-ko printzeak orduan karta batzu ezarri zezteenekin, ondoko urtean "soka moztu" baino lehen. Courvoisier-tarren zorigaitzaren eremaiteko mukurrura, adimenduaz eta antzeaz gizarteko nagusitasun bakarrak egiten dituzten errankizunak berriz abiatu ziren Laumes-ko prinzesaren etxean, ezkontza egin bezain laster. Eta alde hortarik, artetik erraiteko, Saint-Loup-ek zaintzen zuen aburua Rachel-ekin bizi zenean, Rachel-en adixkidekin zabilanean, Rachel-ekin ezkondu nahi zuenean, gutiago gezurrezkoa zen - zein okaztaldi sortzen bazuen ere familian - orotara Guermantes anderaurenena baino, adimenduaren goraiphatzean, gizonen arteko berdintasunaz dudatzearen abantzu batere ez onhartzean, hori guzia hain zuzen kontrako aburuak ukan balituzte bezalako ondorio berera zoan, erran nahi da duke ezin aberatsago batekin ezkontzera. Saint-Loup ari zen, aldiz, bere theorien arabera, horrek erran-arazten baitzuen bide gaixtoan zela. Eiki, moralaren aldetik, Rachel alabaina guti onhargarri zen. Baina ezta segur norbaitek balio gehiago ukan ezpalu, baina dukesa izan baliz edo miliun ainitzen jabe, Marsantes-ko Anderea etzela ezkontzaren alde izanen.

Bada, berriz Laumes-ko Anderera itzultzeko (laster gero aitaginarrebaren hiltzetik Guermantes-ko dukesa), Courvoisier-tarrer jasan-arazi zizaien zorigaitz berhapen bat izan zen prinzesa gaztearen theoriek, horrela haren mintzaran egonez, haren eginara jeusetan ez manatua ukaitea; ezen filosofia horrek (horrela erran badaiteke) etzaukon Guermantes-tarren saloinaren aphaintasun arixtokratikari kalterik batere ekharri. Dudarik ezta Guermantes-ko Andereak onhartzen etzituen jende guziek uste ukan zutela hori aski adimendunak etzirelakotz zela; eta holako Amerikanosa aberats batek, ehoiz etzuelarik Parny-ren olerki bilduma ttipi zahar batez bertze libururik ukan, nehoiz ez idekia, eta, "arokoa" zelakotz, bere saloin ttipiko muble baten gainean ezarria, izpirituko gaitasunez zenbat axolatzen zen erakusten zuen Guermanes-ko dukesaren gainera igortzen zituen behako iresletarik,

haur Operan sartzen zenean. Dudarik gabe ere Guermantes-ko Anderea zintzo zen norbait zuen adimenduaren gatik hautatzen zuenean. Emazte batez bazionean "xoragarria" omen dela, edo gizon batez adimendunena den guzia zela, etzuen uste haien onhartzeko bazuela xoramen edo adimendu hortaz bertze arrazoinik, Guermantes-tarren Jeinua ezpaitzen azken minuta hortan barne izaiten: barnago jarria, Guermantes-tarrek han jujatzen zuten guneko sartze ilunean, Jeinu begirale horrek etzituen Guermantes-tarrak uzten gizonaren aurkitzera adimendun edo emaztearen xoragarri, balio mundutarrik ezpaldin bazuten, oraiko edo geroko. Gizona jakitateduna errana zen, baina hiztegi bat den bezala, edo, aldiz, orotakoa, komis ibilkari bat bezala, emazte pollitak bazuen itxura bat izigarria, edo sobera mintzo zen. Lerrorik etzutenak hek hastiagarri ziren, handi-uste batzu. Bréauté-ko Jauna, jauregia Guermantes-etik hurbil-hurbila baitzuen, etzen goientasun batzuekin baizik ibiltzen. Baina hetaz trufatzen zen eta etzuen erakustokietan bizitzea baizik amesten. Hortako Guermantes-ko Anderea sumindua zen Bréauté-ko Jauna handi-uste deitzen zutenean. "Handi-ustea, Babal! Baina eroa zira, adixkide gaixoa, kontrakoa da osoki, jende distiratuak hastio ditu, ezagutza bat ezin zako egin-arazi. Ene etxera ere! berri den norbaitekin gomitatzen badut, ezta auhenka baizik jiten."

Ezta hori Guermantes-tarrek, bizian ere, etzutelakotz adimenduari Courvoisier-tarretarik osoki bertze balio bat emaiten. Egiazki Guermantes eta Courvoisier-tarren arteko erperdintasun horrek bazematzan jadanik ondorio batzu aski ederrak. Horrela Guermantes-ko dukesak, bertzela ere hainbertze poetek urrundik hartan amets egiten zuten mixterio batean inguratua, jadanik aiphatua dugun besta bat emana zuen, hartan Angeleterrako errege bertze nun nahi baino gehiago gustatua zena, ukana baitzuen, ehoiz gogora jinen etzizaien ideia eta Courvoisier-tar guzien kuraia gibela-araziko zuen ausartasuna, erranak ditugun jende aiphatuen artean, Gaston Lemaire musikariaren eta Grandmougin antzerti egilearen gomitatzeko. Baina oroz gainetik ezezko aldetik zen adimendutasuna sendi-arazten. Adimenduko eta xorameneko arau beharrezkoa aphalduz baldin bazoan Guermantes-ko dukesaren etxera gomitatua izan nahi zuen jendearen lerroa goiti zoan arau, zerora hurbiltzerano buru koronatu nagusiez ari zenean, aldiz gehiago zen hein hortarik beherago jausten, are gehiago araua goititzen. Behazunez, Parme-ko prinzesaren etxean, jende andana bazen Goientasunak onhartzen zituenak haurrean ezagunak zituelakotz, edo holako dukesaren ahaideak, edo erret-lerrokoa zen holakoari atxikiak, jende horiek bertzela itsusiak izanik ere, edo aspergarriak edo zozoak; bada, Courvoisier-tar batendako "Parmeko prinzesaz maitatua", "Arpajon-go dukesaren amaren ahizpa" izaiteko arrazoina, "urte oroz hirur ilabete Espainiako erreginaren etxean eremanez", aski izanen zen horrelako jenden gomit-arazteko; baina Guermantes-ko Andereak, hamar urtez geroz haien agurra ikustaterekin ukaiten zuena Parme-ko prinzesaren etxean, ehoiz etzituen bere alharzearen iragaitera utziak, saloin batez hitzaren erran-nahi gizartekoan gauzetakoan bezala doala estimatuz, haren ezin itsusiago bilakatzeko aski baitira pollitak aurkitzen eztiren mubleak, baina betetzeko eta aberastasuneko phorogu bezala usten direnak. Horrelako saloin batek badu jakitatea, distira, errextasuna erakusten duten erranaldietarik elikatzen jakina ezten liburu baten itxura. Liburu

batek bezala, etxe batek bezala, "saloin" baten gaitasunak, gogatzen zuen arrazoinekin Guermantes-ko Andereak, izkin-harritako sakrifizioa du.

Parme-ko prinzesaren adixkide anderetan ainitzek, eta haiekin urtez geroz Guermantes-ko dukesak egunon beharbezalako bera, edo ordainez karta itzultzea aski zizakon batzuek, behin ere hek gomitatu gabe, eta haien bestetara joan gabe, hortaz Goientasunari begiratuki zinkurina egiten zuten, hunek, Guermantes-ko Jauna bakarrik ikustera jiten zizakonean, hitz bat erraiten baitzaukon. Baina jaun maltzurrak, senar gaitza dukesarendako ohaideak bazituen bezainbatean, baina lagun ezin hobea saloinaren (eta hango aphaingailu nagusia zen dukesaren izpirituaren) ibiltze oneko, ihardesten zuen: "Baina ene emazteak ezagutzen dua? Ha! orduan, alabaina, egin behar ukanen zuen. Baina egia erranen dautzut Anderea: Orianek azkenean emaztekilako solasaldiak eztitu maite. Izpiritu goieneko gorte batez inguratua da - ni, eniz haren senarra, eniz haren lehenbiziko gambarazaina baizik. Multxo ttipi-ttipi bat salbu, hek biziki izpiritudunak, emaztek aspertzen dute. Hea Anderea, Zure Goientasunak, hoinbertze xorroxtasun duenak, eztauta erranen Souvré-ko markestsak izpiritua baduela. Bai, ikusten dut bada, prinzesak oneziaz onhartzen du. Eta gero ezagutzen du. Orianek ikusia duela diozu, badateke, baina biziki guti segur izan zaite. Eta gero prinzesari hau erranen daukot, doi bat haren hutsa da ere. Ene emaztea biziki akhitua da, eta hain du maitagarri izaitea maite nun, egitera uzten banu, gelditu gabeko ikustaldiak bailitzateke. Ez barda baino berantago, sukarra bazuen, Bourbon-go dukesari pena egin beldur zen haren etxera ez joanez. Khexatu behar ukan dut, atelatzea debekatu dut. Oizu, Anderea, badakizu, ontsa gutiziatua niz Orianeri ez erraitera ere Souvré-ko Andereaz mintzatu zizatala. Orianek hain du maite Zure Goientasuna nun berehala joanen baita Souvré-ko Anderearen gomitatzera, ikustaldi bat gehiago izanen da, horrek bortxatuko gitu senarra biziki ontsa ezagutzen daukotan ahizparekin ezagutza egitera. Uste dut eztaukotala Orianeri jeus ere erranen, prinzesak baimena emaiten badauta. Horrela ainitz akhidura eta nahasmendu baztertuko daukogu. Eta segurtatzen zitut horrek eztuela Souvré-ko Anderea jeusez gabetuko. Orotara joaiten da, leku distiratuenetara. Guk, eztugu nehor onhartzen ere, ezjeusetako auharixka batzu, Souvré-ko Anderea ezin jasaiterano enhoa laiteke." Parmeko prinzesa, xintxoki sinetsirik Guermantes-ko dukeak etzaukola bazegien galdea dukesari jakin-araziko eta Souvré-ko Andereak gutiziatzen zuen gomita ez ukan ahalik lastimatua, are gehiago zen lausengatua saloin hoin helgaitzean ohituetarik bat izaiteaz. Gozaldi horrek bazituen bere nahigabeak. Horrela Parme-ko prinzesak Guermantes-ko Anderea gomitatzen zuen aldi oroz, gogoa oinazetan ezarri beharrean zen dukesari laket etzizakon eta berriz jitea debekatuko zaukon norbaiten ez ukaiteko.

Ohiko egunetan, beti gomit batzu bazituen auhariaren ondoan (biziki goizik, aztura zaharrak atxikiak ukanik), Parme-ko prinzesaren saloina ohituendako idekia zen, eta orotako moldez arixtokrazia frantzes ala atzerritar handi guziarendako. Gomitaldia hunela egina zen: jateko salatik jalgitzean, prinzesa kanape handi batean jartzen zen mahi biribil handi baten aitzinean, auhalduak ziren emazte gotorrenetarik biekin solastatzen zen, edo "magazina" bati behako bat emaiten

zuen, karta jokoan artzen zen (edo hala ari zela alegia egiten zuen, gorte alemaneko ohidura bati jarraikiz), ala pazienziako joko bat eginez, ala partaide egiazko edo alegiazkotako hartuz norbait seinalatu. Bederatziak hirian, saloin handiko athea etzen bi atherditan idekitzetik, berriz hestetik, berriz idekitzetik gelditzen, prinzesaren orener jarraikitzeko tarrapataka auhalduak zirenek ikuslierrer (edo, hirian auhaltzen baziren, kafea huts egiten zutener itzuliko zirela erranez, "athe batetik sartu eta bertzetik jalgiko" zirelakoan alabaina) iragan lekuaren uzteko. Bitartean prinzesak, bere jokoari ala solasaldiari beha, sartzen ziren andereak ikusten ezpalitu bezala egiten zuen, eta etzen aitzinean bi urratsetan zituen orduan baizik garaziarekin xutitzen onheziarekin irriño bat eginez emaztendako. Hauek orduan belhaurikatzerano zoan gur bat bazegiten xutik zen Goientasunaren aitzinean, bere ezpainen ezartzeko moldez biziki behera dilindan zagon esku ederraren heinean eta hari musu emaiteko. Baina orduan prinzesa, alta biziki ontsa ezagutzen zuen eginara hortaz aldi oroz ustegabetua iduri, belhaurikatua bortxa-bortxaz bezala berriz zutitzen zuen, berdinik gabeko garazia eta eztitasun batekin, eta mateletan aphatzen. Garazia eta eztitasun horiek galdegiten baitzuten, erranen da, bazethorren andereak belhaunaren plegatzeko zuen xumetasuna. Dudarik gabe; eta badiduri gizalde berdintzale batean jendetasuna itzaliko zela, ez, uste den bezala, erakaskuntzaren hutsaz, baina batzuen baitan ospe handiari zor den adeia itzaliko zelakotz, ondoriodun izaiteko idurimenezkoa izan behar baitu, eta oroz gainetik bertzen baitan nasaiki emaiten den, eta hartzen duenarendako mugageko balioa duela sendi denean xorroxten den amultsutasuna, hau bapatez ezteusera eror baitaiteke berdintasunean jarria den mundu batean, konfienziazko balioa baizik eztuen guzia bezala. Baina gizalde berri batean jendetasunaren itzaltze hori ezta segurtatua, eta batzuetan gehiegi emanak gira gauzek orai dituzten izanarak ukan ahal dezazketen bakarrak direla sinestera. Izpiritu biziki on batzuek uste ukan dute errepublika batek elezakeela ukan diplomaziarik eta batasunik egin, eta laborarieriak Elizaren eta Estatuaren berextea jasan. Ororen buruan, gizalde berdintzale batean elizateke jendetasuna burdin bidetako arrakasta eta airekoen erabiltze gerlakoa baino mirakulu handiagoa. Eta gero, jendetasuna itzaltzen baliz ere, jeusek eztu zorigaitz bat lizatekeela phorogatzen. Azkenik gizalde bat elizatekea segeretuki mailkatua demokratagoa lizatekeen arau? Izan daiteke. Aitasainduen botere politikazkoa ainitz handitu da Estaturik ez armadatik eztutenez geroztik; kathedralek ospe ontsa gutiago handia zuten XVII-garren mendeko elizatiar baten baitan XX-garreneko jainkogabe batenean baino, eta Parmeko prinzesa Estatu baten buru izan baliz, uste dut hartaz mintzateko gogoa ukanen nuela errepublikako president batez bezainbat, erran nahi da batere ez.

Prinsesak ardieslea zutitu eta besarkatu ondoan, berriz jartzen zen, berriz pazienziari emaiten, ez alta, andere ethorri berria gotorra baldin bazen, ephe batez harekin solastatu gabe hura jargia batean jarr-araziz.

Saloina sobera betea bilakatzen zenean, ordenu zerbitzuko kargua zuen ohorezko andereak lekua egiten zuen ohituak gidatuz saloinak hartara zeman gaitzeko ezkaratz batera, potretez eta Bourbon familiarekin ikusteko zuten arrarotasunez betea. Prinzesaren gomit ohikoek orduan gogotik egiten zuten

erakuslearen jokaldia eta gauza ohargarri batzu erraiten zituzten, mutiko gaztek haien entzuteko astirik ezpaitzuten, Goientasun biziduner behatzera oharkorrago (eta beharrez haier bere buruaren aitzinera-araztera ohorezko anderearen edo andereñoen bidez) erregina hil batzuen erliken urkustera baino. Egin ahal zituzketen ezagutzez edo behar bada bilduko zituzten gomitaldiez sobera hartuak, jeus eta jeus etzakiten, urteak ondotik ere, monarkiako artxiboen erakustoki hortan zen baliodunaz, eta nahasiki orhoitzen ziren bakarrik landare xixtrodun eta palma-ondo gaitzekoez edertua zela, aphaintasunetako erdigune hori bilakatzen zuela "Jardin d'Acclimatation"-eko Palmategiaren idurikoa.

Egia da Guermantes-ko dukesa, hildumaz, batzuetan jiten zen, aldi horietan, prinzesari lixeritzeko ikustaldi baten egitera, hunek beti bere ondoan atxikitzen baitzuen, dukearekin jostatzen zen batean. Baina dukesa auhaltzera jiten zenean, prinzesa ontsa begiratzen zen bere ohiko gomiten ukaitetik eta mahitik jalgitzean athea hesten zuen, gutiegi hautuko ikuslari batzu dukesari gusta etzaizkidion beldurrez. Arrats horietan, jakinak etziren ohitu batzu Goientasunaren athera agertzen baldin baziren, etxezainak ihardesten zuen: "Haren Goientasunak eztu gaur nehor hartzen." Aitzinetik, bertzela ere, prinzesaren adixkide ainitzek bazakiten etzirela, egun hartan, gomitatuak izanen. Zerrenda hori berezia zen, hortan sartuak izaitea gutiziatuko zuten hainbertze jendendako hetsia. Baztertuek, abantzu segurki, hautatuak izenda zezazketen, eta bazioten elgarri doinu bildu batekin: "Ontsa badakizue Oriane eztela nehoiz bere aitzindarieria guziarekin baizik ibiltzen." Hunek lagunduz, Parme-ko prinzesak nahi zuen dukesa harresi gerizatzale batez bezala inguratu haren ondoan haien arrakasta dudazkoa izanen zen jenden kontra. Baina dukesaren adixkide hautetsi batzuer, "aitzindarieria" distiratu hortako batzuer, Parme-ko prinzesa ikustate egiteaz jenatua zen, harendako biziki guti egiten zutenaz geroz. Segurki Parme-ko prinzesak biziki ontsa onhartzen zuen norbaiti Guermantes-ko Anderearen lagunartea berea baino gehiago laket izan zakidion. Nahitez ikusten zuen dukesaren "egunetan" jendea metatzen zela eta berak ainitzetan han aurkitzen zituela haren etxean bere kartaren ezartzea aski zizaien hirurzpalaur goientasun. Eta Orianeren hitzak gogoan atxik zezazkeen, haren zaiak imita, bere the-aldietan marrubi tarta berak zerbitza, batzuetan gertatzen zen egun osoa bakarrik egoiten zela ohorezko andere 'ta atzerri ordaritza bateko konseilari batekin. Beraz, norbaitek (behazunez lehenago Zuanekin izana zen bezala) eguna etzuenean ehoiz bururatzen dukesaren etxean bi orenen iragaiten izan gabe 'ta Parme-ko prinzesari bi urtetarik aldi batez ikustaldi baten egiten, etzuen hunek, Oriane-ren jostatzeko ere, nornahi zen Zuan horri auhaltzera gomitatzeko "aitzin-urrats" batzuen egiteko gutizia handirik. Hots, dukesaren gomitatzea Parme-ko dukesarendako zer egin ez jakiteko aldi bat zen, hain zen Orianek oro gaizki aurki zezan beldurraz hartua. Aldiz, eta arrazoin beraz, Parme-ko prinzesa auhaltzera Guermantes-ko Anderearen etxera zethorrenean, aitzinetik segur zen oro ongi, ezin goxoago izanen zela, etzuen beldur bat baizik, gogoan hartzen, atxikitzen, gustatzen ez jakitea, ideiak eta jendeak nola beretuko zituen ez jakitea.

Alde hortarik han ene izaiteak haren oharpena eta gutizia sustatzen zituen, fruitu girlandekin mahiaren aphaintzeko molde berri batek eginen zuen bezain ontsa, ezpaitzen segur bata ala bertzea, mahiaren aphaintzea ala han ene izaitea, zenez berezikiago gozagarritasun horietarik bat, Oriane-ren gomitaldietako arrakastaren segeretua, eta, dudan, ondoko bere auharian bataren eta bertzearen ukaitera ontsa deliberatua. Bertzela ere Guermantes-ko dukesaren etxera Parme-ko prinzesak ekhartzen zuen jakin-nahi xoratua osoki onharr-arazten zuena, hartan prinzesa halako beldur batekin, baldidura batekin eta atsegin bizi batekin murgiltzen zen gai irriegingarri, sustagarri hura zen (hala nola itsaso bazterrean mainu-gidariek haien lanjerra, xoil-xoilki batek ezpaitaki igerika, seinalatzen duten "uhain mainu" hek), handik atheratzen baitzen bizkortua, zorionean, gaztetua, eta Guermantes-tarren izpiritua zeritzotena. Guermantes-tarren izpiritua - biribilaren laurkatzea bezain izaite gabeko gauza, dukesak zionaz, haren jabe zen Guermantes bakarra zela estimatzen baitzuen - Tours-ko gantxigorrak ala Reims-ko bixkotxak bezalako omen bat zen. Adimenduko berezitasun batek hedatzeko ezpaititu iletako edo larruko kolorearen moldeak, segur da dukesaren adixkide min batzuek, eta haren odolekoak etzirenek, bazutela bizkitartean izpiritu hura, etzelarik aldiz sartu ahal izana edozein izpiritu motari sobera gogor ziren Guermantes batzuen baitan. Dukesaren jendakiakoak etziren Guermantes-tarren izpirituaren jabek bazuten orotara ezagugarritako gizon distiratu batzu izanak zirela, haiendako lagunkideriako biziari hautatuak zituzten ofizioetako dohatuak, izan zaitela ederlanak, diplomazia, parlamentuan mintzatzea, armada. Hauteste hori behar bada argitua izanen ahalko zen berezitasuneko, edo lehen urrats egiteko, edo nahikariako, edo osasuneko, edo zoriko, edo handi-usteko eskas zenbaiten bidez.

Batzuen baitan (salbuespen bat zela aithortu behar da bertzela ere), Guermantes-tarren saloina haien ofizioko behaztopagunea izana baldin bazen, haien gogoaren kontra zen. Horrela mediku bat, margolari bat eta ethorkizun handiko diplomata bat etziren bere ofizioan ongi heldu ahal izanak, hartako ainitz baino biziki distiratukiago dohatuak baziren ere, Guermantes-tarrekin zuten etxekotasunak egiten baitzuen lehenbiziko biak munduko jende batzuendako hartuak zirela, eta hirurgarrena gibel-politikari batendako, horrek debekatua baitzauen hiruer bere heinekoez onhartuak izaitea. Fakultatetako bilkura hauteslek oraino janzten dituzten noizpaiteko arropa eta xano gorria ezta, edo bederen eztu oraino hain aspaldi etzen, gogo hertsi eta alderdikaritasun hetsi bateko iraganaren luzamen garbiki axaleko bat baizik. Ezkur urrekilako xanoaren azpian aphez handiak Juduen bonet ttutturru moldekoaren azpian bezala, "profezurrak" oraino, Dreyfus aferaren aitzineko urtetan ideia hertsiki farisiano batzuetan hetsiak zauden. Du Boulbon ondarrean edergile bat zen, baina mundua maite etzuelakotz salbu zen. Cottard bazabilan Verdurin-darren etxean, baina Verdurin Anderea eri bat zuen, eta gero bere arruntasunaz begiratua zen, azkenik etzuen etxean Fakultatea baizik onhartzen, hetan fenol azida usain bat airean zabilan lagun-aphairu batzuetan. Baina azkarki jarriak ziren jendetaldetan, hetan aitzin-gogoetako gogortasuna ezpaita bertzela ere onestasun ederrenaren ordain-saria baizik, moraleko gogoeta gorenetakoa, ingurumen gogo-zabalago, libroago, eta, laster, lizunago batzuetan

makurtzen baitira, profezur bat, bere arropa satin gorrindolezko eta martaxuriz horratuan Veneziako Doga (erran nahi da duke) bere palazioan hetsi batena bezala, San-Simungo Jauna, bertze duke hura, ezin hobea baina izigarria, bezain bertuteduna zen, prinzipio noble batzuer berdin atxikia, baina kampokoa zen ororendako berdin urriki gabea. Kampokoa, mediku mundutarra zen, bertze ara batzu zituena, bertze ezagutza batzu. Ontsa egin nahiz, hemen aiphatzen dugun zorigaitzekoak, bere lankiden gaitzesteaz (zer ideia munduko gizon baten!) hek sala etzezaten Guermantes-ko dukesa gordetzen baldin bazauen, uste zuen ezti-araziko zituela mediku gaia mundutarrean ithoa zen auhari nahastekatu batzu emanez. Etzakien horrela bere galpena zuela sinatzen, edo izaitekotz ikasten zuen, Hamarreko (zenbataz doi bat gorago) bilzarreak behar zuenean kathedra baten hutsa bete, eta mediku ohi bezalakoago baten izena zenean, izanik ere bierartekoa, boz-untzi zorigaitzekotik atheratzen, eta Fakultate zaharrean "veto"-ak joiten zuenean, Molière hartan hil zen "juro"-a bezain ospedun, irrigarri, izigarri. Horrela da ere behin betikotz gizon mundutarren lerroan ezarria den margolariaz, ederlan egiten zuten munduko jende batzu margolari lerroan jarriak izaitera helduak zirenean; horrela gibel-politikariekin lotura gehiegi duen diplomataz.

Baina gertaldi hori zen bekanena. Guermantes saloinaren zola egiten zuten gizon aphainen mota bere nahiz gaineratekoari ukho egina (edo bederen hala uste) zutenena zen, Guermantes-tarren izpirituarekin, Guermantes-tarren ikustatearekin ezin akomeagarri zen guziari, "jendalde moldatu" edozeinek hastio duen xoragarritasun ezin argigarriarekin.

Eta dukesaren saloineko ohitu horietarik batek urrezko medaila ukana zuela lehenago Saloinean, bertzeak, abokaten bilzarreko segeretaria, Gambaran hatsarre ozenak eginak zituela, heren batek embaxadore lagun bezala Frantzia trebeki zerbitzatua zuela bazakitenek, ezteus batzuendako har zezazketen hogei urtez geroz ezer egina etzuten jendeak. Baina "jakin" horiek guti ziren, eta barne zirenak berak hortaz orhoit-arazteko azkenak izanen, titulu zahar horiek baliorik batere gabeak zizezteelakotz, Guermantes-tarren izpirituaren beraren indarrez: etzituena bada hunek aspergarri eta ezteus bezala sala-arazten, edo aldiz saldegi mutil bezala, minixtro goren batzu, bat apur bat ospeduna, bertzea hitz-joko maitalea, egunkariek haien laudorioez kantu egiten zutelarik, baina Guermantes-ko Anderea haien ondoan ahaurrausiaka ari baitzen eta ezinegoneko kheinuetan etxekandere baten arinkeriak auzotzat hetarik bat edo bertzea emana baldin bazaukon? Lehen maileko Estatu-gizon izaitea batere etzenaz geroz gomendio bat dukesarendako, haren adixkidetan diplomaziako ala armadako kargua utzia zutenek, edo Gambarara berriz presentatuak etzirenek uste zuten, egun guziez bere adixkide handiarekin auhaltzera edo solastatzera jitean, bertzela ere guti estimatzen zituzten - hala zioten bederen - Goientasun batzuen etxean haren aurkitzean, alde hoberena zutela hautatua, haien aire gogoilunduak, alaitasunaren erdian ere, kontra emaiten bazuen ere zuten aburuko zuzenbidearekin.

Hala ere aithortu behar da gizaldeko biziaren arintasunak, Guermantes-tarren etxeko solasen xorroxtasunak, ziren meheak izanik ere, egiazko zerbait bazutela. Titulu ofizialetan batek ere etzuen balio minixtro boteredunenek bere etxera

ekharr-arazi ahalko etzituzten Guermantes-ko Anderearen hautetsi batzuen goxagarria. Saloin hartan hainbertze adimenduko handi-nahi eta ere indar errespetagarri behin betiko ehortzirik izanak baldin baziren, bederen, haien erhautsean, mundutartasun arraroenaren lorea sortua zen. Eiki, gizon izpiritudun batzuek, Zuanek bezala behazunez, balio egiazkoa zuten gizon batzu baino goragoak zirela uste zuten, hek gutiesten zituzten, baina hori zen dukesak oro baino gorago ezartzen zuena etzelakotz adimendua, baina izpiritua - haren ustez antzearen mota elhezko baterano eremana zen adimenduaren molde goren-gorena, arraroena, ezin hobea. Eta lehenago Verdurin-darren etxean, Zuanek Brichot edo Elstir estimatzen zituenean, bat jakintsun-nahi bat bezala, bertzea oies bat bezala, izanik ere batek zuen jakitate guzia eta bertzearen jeinu guzia, gogora Guermantes izpirituaren sartzeak zauzkon horrela ordena-araziak. Ehoiz etzen dukesari bataren edo bertzearen aitzineratzera ausartuko, sendituz aitzinetik zer itxurarekin hartuko zituen Brichot-en atheraldiak eta Estir-en hitz-jokoak, Guermantes izpirituak ezartzen baitzituen mota serios edo mota trufariko solas handi-uste 'ta luzatuak zozokeria ezin jasanenaren lerroan.

Haragiaren, odolaren araukoak ziren Guermantes-tarrez den bezainbatean, ezpazituen Guermantes-tarren izpirituak osoki hartuak, behazunez, literaturako bilkuretan gertatzen den bezala, hetan jende guziak ahozkatzeko, mintzatzeko, eta ondorioz gogatzeko molde berdin bat duelakotz, ezta hori segurki berezitasuna ingurune mundutarretan azkarrago delakotz eta bertzek bezala egiteari traba egiten. Baina imitatzeak nahi du, ez bakarrik berezitasun ezin bildurik ez ukaitea, baina oraino hastapenetik gero imitatuko denaren senditzera utziko duen beharriko xorroxtasun doi bat. Bada, Guermantes batzu baziren musikako antze horrek Courvoisier-tarrer bezain osoki huts egiten zauenak.

Behazun bezala, imitatze hitzaren bertze erran-nahi batean, "imitazione egitea"-ren hartzeko (horri Guermantes-tarren etxean "jaukitea" baitzerizoten), Guermantes-ko Andereak xoragarriki egiten ahal zituen, Courvoisier-tarrak horren hautemaiteko, gizon eta emazte orde, lapin multzo bat izan balire bezain ahalgabeak ziren, ehoiz ezpaitziren ohartuak dukesak haren sinoa egin nahi zuenaren akatsari ala doinuari. Limoges-ko dukea "imitatzen" zuenean, Courvoisier-tarrek ihardesten zuten: "Ho! ez, ezta hala ere horrela mintzo, barda oraino harekin auhaldua niz Bebeth-en etxean, arratsaldi guzian mintzatu zata, etzen horrela mintzo", aldiz Guermantes-tar apur bat jakinagoek bazegitenean: "Jainkoa Oriane zenbat jostagarria den! Azkarrena, imitatzean duenean, haren eite duela da! Uste dut entzuten dutala! Oriane, Limoges puxka bat oraino!". Bada, Guermantes horiek (joan ere gabe dukesak Limoges-ko dukea imitatzen zuenean, miresmenekin "Ha! *badadukazula* erran daiteke" edo "badadukanala" erraiten zuten biziki ohargarri hetarano) izipiriturik gabe izan zaitezkeen, Guermantes-ko Andereak zionaz (hortan egia zuen), dukesaren hitzen entzute 'ta erraitearen bortxaz, helduak ziren, ongi ala gaizki, haren mintzatzeko, jujatzeko (Zuanek, dukesak berak bezala, haren "khondatzeko" moldea ziona), bere solasaldietan emaiterano Courvoisier-tarrer Orianek zuen izpirituaren itsuski berdina iduritzen zizaien zerbait eta hek Guermantes-tarren izpiritua deitzen zutena. Guermantes horiek harendako

ezpaitziren bakarrik ahaideak baina miresleak, Oriane (gainerateko familia azkarki baztertua baitzaudukan, eta bere erdainuez mendekatzen baitzituen orai hunek neska gazte zenean eginak zauzkon gaixtakeriak) joaiten zizaien batzuetan ikustera, eta gehienetan dukea lagun, urtaro ederrean, harekin atheratzen zenean. Ikustaldi horiek gertakari bat ziren. Bihotzak azkarkixago joiten zaukon Epinay-ko prinzesari jendea behereko bere saloin handian ukaiten zuelarik, urrundik ikusiz, hala nola lanjergabeko sute baten lehenbiziko leinuruak edo uste etzen hedatze bateko ikherraldiak, emeki korroilaren iragaiten, urratsa zeharka, dukesa xapel xoragarri bat buruan eta handik uda usainon batek zarion iguzkitako bat beheitituz. "Oizu, Oriane" zion, andere ikusleak zuhurtzian abisatu nahi zituen "garde-à-vous" bat bezala, ordenuan atheratzeko astia ukan zezaten, eta saloinak izialdurarik gabe huts. Han zen jendearen erdia etzen egoitera ausartzen, zutitzen zen. "Baina ez, zergatik? berriz jar zaite bada, apur bat oraino zure atxikitzeaz loriatua niz", zion prinzesak doinu airin eta errex batekin (andere handi egiteko), baina falsura egina zuen mintzo batekin. "Elgar elheztatzeko beharra bazinukete. - Zinez, presan zira? ori bada, zure etxera jinen niz", zuen ihardesten etxekandereak berdin joan zaiten nahigo zuener. Dukeak eta dukesak jendetasun ainitzekin agurtzen zituzten urtez geroz hor ikusten zituzten batzu hortako gehiago ezagutu gabe, eta egunon, begiratutasunez, doi-doia erraiten zauetenak. Joanak ziren bezain laster dukeak amultsuki hetaz xehetasunak galdegiten zituen, halabeharraren gaiztakeriaz edo emazterekin ibiltzea gaixto zizakon Oriane-ren zainetako izanararen gatik, onhartzen etzituen jende batzuen barneko gaitasunaz axolatzen zela iduri ukaiteko: "Xapel gorraxtarekilako andere ttipi hori zer zen? - Baina, ene gusia, usu ikusia duzu, Tours-ko bizkondesa da, Lamarzelle sortua. - Baina badakizu pollita dela, izpiritudun iduri du; azpiko ezpainean akats ttipi bat ezpaliz, onez-onean xoragarri lizateke. Oriane, badakizu haren bekainek eta ileak landatuak dituen moldeak nor dautan gogoratu? Ligne-ko Hedwige zure gusia." Guermantes-ko dukesak, bertze emazte baten edertasuna aiphatzen zen orduko ahitzen baitzen, solasaldia uzten zuen erortzera. Etzuen khonduan hartua senarrak zuen gostua onhartzen etzituen jendez osoki jakina zela erakustera emaiteko, hortaz emaztea baino "seriosago" agertzea uste baitzuen. "Baina, erraiten zuen indarrekin bapatez, Lamarzelle-ren izena erran duzu. Orhoitzen niz, Gambaran nintzanean, hitzaldi osoki ohargarri bat errana izan zela … - Ikusia baizik eztuzun andere gaztearen osaba zen. - Ha! zer antzea!… Ez, ñiminoa" zion Egremont-eko bizkondesari - Guermantes-ko Andereak jasan etzezakeena, baina hura, han bere nahiz neskatoaren ofizio egiterano (etxera sartzean berearen joitekotan) jausten zen Epinay-ko prinzesaren etxetik ezpaitzen higitzen, egoiten zen, ahalgetua, nigartsu, baina egoiten duke senar-emazteak han zirenean, bizkarrekoak hartzen zituen, baliagarri izaitera enseatzen zen, begirunetasunez ondoko barnera joanen zela erranez - , "etzazula therik egin guretako, lañoki solasta gaiten, jende xumeak gira, fazoinik gabe. Bertzela, gaineratzen zuen Epinay-ko prinzesaren aldera itzuliz (Egremontsa uzten zuela gorritua, umil, handi-nahi eta khartsu), eztautzukegu eman oren laurden bat baizik." Oren laurden hori oso osoa hartua zen aste hartan dukesak erranak zituen eta berak segurki berriz erranen etzituen, baina trebeki dukeak, alegia eresiatzen zuela sortuak

zituzten liskarrren gatik, haien errepikatzera ekhartzen zuen hitzen halako erakustaldi batean.

Epinay-ko prinzesa, gusia maite baitzuen eta komplimenduak laket zizazkola jakinki, gogo-erauzten zen haren xapelaz, iguzkitakoaz, izpirituaz: "Mintza zaite haren jantziez nahi duzun bezainbat", zion dukeak hartua zuen doinu mokhor batean eta irriño maltzur batez eztitzen zuenean samurgo hori serioski har etzezaten, "baina, othoi-othoi, ez duen izpirituaz, emazte hoin izpiritudunaren ukaitetik ontsa begira nindaike. Palamède ene anaiaz egina duen hitz-joko gaixtoari aieru egiten dukezu, zion gainera, biziki ontsa bazakielarik prinzesak eta gainerateko familiak hitz-joko hori etzutela ezagutzen, eta balioan bere emaztearen ezartzeaz loriatua. Lehenik hitz-joko gaixto egitea etzata egoki iduritzen, batzuetan, aithor dut, gauza aski pollitak erran dituen norbaiten ganik, baina oroz gainetik biziki minbera den ene anaiaz, eta horrek ondoriotzat harekin ene samurtzea ukan behar baldin badu, balio du zinez!"

- Baina eztakigu! Oriane-ren hitz-joko bat? Ezin pollitagoa dateke. Errazu othoi!

- Baina ez, ezetz, egiten zuen berriz dukeak oraino mokhorr baina irriñotan, loriatua niz ezpaduzue ikasi. Zinez, anaia biziki maite dut.

- Oizu, Basin, zion dukesak senarrari ihardesteko ordua jina baitzizakon, eztakit zergatik diozun horrek Palamède gaitzi lezakeela, ontsa badakizu kontrakoa dela. Ainitzez adimendunegia da damugarririk jeus eztuen atheraldi zozo hortaz samurtzeko. Gaixtakeria bat erran dutala sinets-araziko duzu, jostagarri ezten zerbait ihardetsi dut xoil-xoilki, baina zuk daukozu zure suminduraz munta emaiten. Etzitut hartzen.

- Izigarri artegatzen gituzu, zertaz da?

- Ho! larri den jeusez segurki! egiten zuen Guermantes-ko Jaunak. Entzun dukezu nahi zuela eman Brézé, emaztearen jauregia, bere arreba Marsantes-i.

- Ba, baina erran daukute etzuela nahi, hartan den herria etzuela maite, etzizakola hango aro-mota gustatzen.

- He bada! hain zuzen norbaitek hori guzia zion ene emazteari eta anaiak arrebari jauregi hori emaiten baldin bazaukon, etzela hari gustatzeko, baina khitzikatzeko. Hain baita khitzikaria, Charlus, zion jende hark. Badakizu bada Brézé erretarakoa dela, milun andana bat balio duke, lehenago erregeren lur bat izana; bada hor Frantziako oihan ederrenetarik bat. Horrelako khitzikak egin zezezteen nahi luketen jende ainitz bada. Eta "khitzikari" hitz horren entzutean Charlus-i emana jauregi hoin ederra emaiten zuelakotz, Oriane ezin egon da, nahi gabetarik, aithortu behar dut, eztu hortan gaixtakeriarik ezarri, zimizta bezala jin baita: "Khitzikari… khitzikari… Orduan Khitzikari Burgoia da!" Hartzen duzu, gaineratzen zuen berriz dukeak bere doinu mokhorrean eta ez behako bat inguruan emana ukan gabe bere emaztearen izpirituak egin ondorioaren estimatzeko, bertzela ere Epinay-ko Andereak ixtorio zaharraz zuen ezagutzaz aski dudakor, hartzen duzu, Tarkino Burgoiaren gatik da, Erromako erregea; xoxokeria da, hitz-joko gaixto bat, ez Oriane-ren heinekoa. Eta gero ni emaztea baino behakinago nizana, izpiritu gutiago baldin badut, gertatuko denari nago, zorigaitzak nahi badu hori

anaiari errepikatua izan dadin, gaitzeko ixtorio bat izanen da. Are gehiago, gaineratu zuen, nun Palamède hain zuzen biziki handikaria baita eta ere biziki punttalakurko, erran-merraneri biziki emana, jauregiko gauzatik kampo ere, erran behar da Khitzikari Burgoia aski ongi doakola. Anderearen hitzak salbatzen dituena, hala-hulako arrunkeria batzuetara jautsi nahi duenean ere, berdin izipirituduna gelditzen dela da eta jendeak aski ontsa itxuratzen dituela.

Horrela noiz Khitzikari Burgoiari esker, noiz bertze hitz bati, duke 'ta dukesaren ikustaldi horiek haien familiari ixtorio hornidura berritzen zaukoten, eta emana zuten hunkimenak emazte izpirituduna eta haren impresarioa joan ondoan ontsa luzaz irauten zuen. Lehenik loriatzen zen, bestan barne izanak ziren hautatuekin (han egonak zirenekin), Orianek erranak zituen hitzez. "Khitzikari Burgoia eztakizu?" galdegiten zuen Epinay-ko prinzesak. "Ba, zihardetsan gorrituz Baveno-ko markestsak, Sarsina-La Rochefoucauld-eko prinzesak aiphatua zautan, ez osoki hitz beretan. Baina horrela ene gusiaren aitzinean erraiten entzutea ontsa lakegarriago izana dateke", gaineratzen zuen "egileaz laguntzen entzutea" erranen zuen bezala. "Arestian hemen zen Oriane-ren aszken hitzaz ari ginen", erraiten zizakon andere ikuslier bati lastimatua aurkituko baitzuen ez oren bat lehenago ethorririk.

- Nola, Oriane hemen zen?

- Baina ba, doit bat lehenago ethorri bazine…, ihardesten zaukon Epinay-ko prinzesak, erasiarik gabe, baina andere malestrukak huts egina zuen guzia entzutera utziz. Haren falta zen munduaren Kreazionean ezpazen izana edo Carvalho Anderearen azken agerraldian. "Oriane-ren azken hitzaz zer diozu? Khitzikari Burgoia biziki maite dutala aithortzen dut", eta "hitza" jaten zen oraino hotzik biharamuneko bazkarian, hortako gomitatzen ziren etxekotu minen artean, eta saltsa aldatuz aste osoan berriz agertzen zen oraino. Aste hartan prinzesa Parmeko prinzesari urteko ikustaldiaren egitean ere baliatzen zen Goientasunari hitza bazakienez galdegiteko eta erraiten zaukon. "Ha! Khitzikari Burgoia" zion Parmeko prinzesak, hastetikako miresmen batez begiak zabaldurik, baina Epinay-ko prinzesak emaitea onhartzen zuen argitze gehiagoko batez othoi egiten zuela. "Khitzikari Burgoia erran-molde bezala ezin gehiago laket zatala aithortzen dut", bururatzen zuen prinzesak. Egiazki, "erran-molde" hitza etzen batere hitz-joko horrendako egoki, baina Epinay-ko prinzesak, Guermantes-tarren izpiritua beretua zuela uste ukaiteko nahikaria baitzuen, Oriane-ri hartuak zauzkon "moldatu, erran-molde" itzuliak oharmen handirik gabe zerabiltzan. Parme-ko prinzesak bada, Epinay-ko prinzesa ezpaitzuen biziki maite itsusia aurkitzen zuelakotz, zikoitza zela jakinki eta gaixtoa zela uste, Courvoisier-tarrak sinetsirik, ezagutu zuen Guermantes-ko Andereari erraiten entzuna zuen "erran-molde" hitz hori eta berberak emaiten jakina etzuena. Iduritu zizakon, alabaina, "erran-molde" hitzak zuela egiten Khitzikari Burgoiaren gozagarritasun guzia, eta andere itsusi zikoitzarendako zuen aihergoa osoki ahatzi gabe, etzen zaindu ahal izan Guermantes-tarren izpirituaz hain ontsa jabetua zen emazte batendako hainbertzetaranoko miresmenezko sendimendu batetik nun Epinay-ko prinzesa Operara gomitatu nahi ukan baitzuen. Lehenik Guermantes-ko Andereari aholku galdatzea behar bada

egoki izanen zelako gogamenak gibelatu zuen bakarrik. Epinay-ko Andereaz den bezainbatean, Courvoisier-tarretarik ontsa bertzelakoa, mila garazia egiten baitzauzkon Orianeri eta maite baitzuen, baina haren ezagunez bekaizti baitzen eta dukesak jende guzien aitzinean bere zikoizkeriaz egiten zauzkon hitz jostagarriez apur bat nardatua, etxera sartzean erran zuen Parme-ko prinzesak zenbat neke ukana zuen gogoan "Khitzikari Burgoia"-ren hartzen eta Orianek zenbat handiustea izan behar zuen horrelako pulindarekin adixkidantzan izaiteko. "Nahi ukan banu ere nehoiz enintzan Parme-ko prinzesarekin ibili ahalko, Epinay-ko Jaunak ezpaitzuen haren moralgabearen gatik onhartuko, erran zauen auhariz zituen adixkider, prinzesaren atsegalekeria osoki idurimenezkoer aieru eginez. Senar gutiago garratza ukan banu ere, eginen ahal enuela aithor dut. Beti haren ikusteko Orianek nola egiten duen eztakit. Ni, banoa urtean behin eta ikustaldiaren bururano heltzeko aski neke badut."

Guermantes-ko Anderearen ikustaldi orduan Victurienne-ren etxean ziren Courvoisier-tarrak aldiz, dukesaren ethortzeak gehienetan ihesari eman-arazten zituen Oriane-rendako egiten ziren "zalamalek soberakinek" sumintzen zituztelakotz. Bat bakarrik gelditu zen Khitzikari Burgoiaren egunean. Etzuen hitzjokoa osoki hartu, hala ere erdia, ikasia baitzen. Eta Courvoisier-tarrak ari izan ziren Orianek Palamède osaba "Khitzikari Burgoia" deitua zuela errepikatzen, horrek aski ontsa itxuratzen baitzuen haien ustez. "Baina zergatik hoinbertze ixtorio egin Orianekin? gaineratzen zuten. Erregina batendako etzen gehiago eginen. Oro har, Oriane zer da? Guermantes-tarrak eztirela ethorki zaharrekoak eztut erraiten, baina Courvoiser-tarrak eztira jeusetan hek baino ttipiago, ez aiphamenez, ez zahartasunez, ez ahaidegoez. Ezta ahatzi behar Oihal Urrezko kampamenduan, Angeletarreko erregek François Lehenari galdegiten zaukonean han ziren jaunetan zein zen noblena: "Jauna, ihardetsi zuen Frantziako erregek, Courvoisier da." Bertzela ere Courvoisier-tarrak egon izan balire ere, hitzek are gehigako sorgor utziak ukanen zituzten nun gehienetan sorr-arazten zituzten gertakariak hetaz osoki betze ikuspegi batean hartuak izanen baitziren. Baldin, behazunez, Courvoisier andere bat, emaiten zuen gomitaldi batean, kadera eskasean gertatzen baldin bazen, edo ezagutua etzuen ikuslari bati mintzatzean izenez huts egiten bazuen, edo mutiletarik batek hari erranaldi irriegingari bat bazion, ezin gehiago aspertua, gorrituz, nahasmenez daldaran, horrelako nahigabeaz lastimatzen zen. Eta ikuslari bat bazuenean eta Orianek jin behar, doinu antsiarekin eta goratasunekin galdezko batean bazion: "Ezagutzen duzua?" beldurrez eta, ikuslariak bera ezagutzen ezpazuen, haren han izaiteak iduripen gaixto bat eman zezon Oriane-ri. Baina Guermantes-ko Andereak, aldiz, horrelako gertakarietarik hartzen zuen Guermantes-tarrak nigarrerano irriz has-arazten zituen ixtorio batzuetako aldia, hala nola nun hartaz jelos izaitera bortxatua izan behar baitzen hark kadera eskas ukanik, mutil bati behargabe bat eginik edo egin-arazirik, etxean nehork ezagutzen etzuen norbait ukanik, nor bere buruaren gorestera bortxatua izan behar den bezala idazle handiak gizonez urrun atxikiak eta emaztez salatuak izaiteaz, haien aphaltze 'ta pairu horiek izanak direnean, haien jeinuaren sustagailua ezpada, bederen haien lanetako gaiak.

Courvoisier-tarrak etziren gehiago ahaldun Guermantes-ko dukesak bizi mundutarrean sartzen zuen berrikuntzako gogorano goititzeko, orduan orduko beharren asmu segur baten arabera egokituz, ederlaneko zerbaitetara moldatzen zuenean, erregela gogor batzuen erabiltze arrazoinkatuak emanen zauzkolarik, maitasunean edo politikan ongi heldu nahi lukeen bati, bere bizian Bussy d'Amboise-ren goi-egintzak zuzen-zuzena errepikatuko lituzkeen norbaiti bezain ondorio gaitzak. Courvoisier-tarrek familiako barazkari edo auhari bat emaiten baldin bazuten printze batendako, gizon izpiritudun baten, semearen adixkide baten ekhartzea ondorio gaixtoena eman zezakeen araugabetasuna idurituko zizeen. Aita Emperadorearen minixtro izana zizakon Courvoisier andere batek, goizaldi bat eman beharrean Mathilde prinzesaren ohoretan, geometriako izpirituz ondorioztatu zuen bonapartixta batzu baizik etzezazkeela gomita. Abantzu batere etzuen bada ezagutzen. Bere ezagutzetako emazte aphain guziak, gizon gozagarri guziak urrikirik gabe bahituak izan ziren; Courvoisier-tarren gogo arrazoinezkoaren arabera, Goientasun Imperialari gozagaizkarri izan zaitezkeen. Hau, etxean Saint-Germain bazter-hiriko lorea ukaiten zuena, aski ustegabetua izan zen Courvoisier-ko Anderearen etxean aurkitu zituenean bakarrik andere uxkipitxer aiphatu bat, Imperioko prefet ohi baten alarguna, Postetako buruzagiaren emazte alarguna eta Napoleon III-garrenaren alderako leialtasunaz, zozotasunaz eta aspegarriaz ezagunak ziren jende batzu. Mathilde prinzesak etzuen gutiago ixuri bere garazia goien eztiaren jariotze nasaia jende itsusi haien gainera, Guermantes-ko dukesa haien gomitatzetik ontsa begiratu baitzen prinzesaren ukaiteko aldia hari izan zenean, eta ordaindu baitzituen, bonapartixmaz aitzin arrazoinkatzerik gabe, halako usna, artezia eta antze batek emperadorearen ilobari, errege beraren familiakoak izanik ere, gozagarri izanen zizazkola sendi-arazten zaukon eder guzien, balioko guzien, omendun guzien floka aberatsaz. Etzuen Aumale-ko dukeak ere huts egin, eta, abiatzean, prinzesak, gurra egiten zaukon eta eskua aphatu nahi zaukon Guermantes-ko Anderea goitituz, bi mateletan musu eman zaukonean, bihotzaren zolatik zuen dukesa segurtatu ahal ukan ehoiz etzuela egun hoberik iragan eta etzela besta hobeki egin batean izan.

Parmeko prinzesa Courvoisier zen gizarteko gauzetan berrikuntza egiteko zuen ahalgabeaz, baina, Courvoisier-tarrenean ez bezala, Guermantes-ko dukesak beti emaiten zaukon ustegabetzeak sortzen zuen haren baitan ez aihergoa baina miresmena. Ustegabetze hori handitua zen oraino prinzesak zuen kultura ezin gehiago gibelatuaren gatik. Guermantes-ko Anderea bera uste zuen baino biziki gutiago aitzinatua zen. Baina Parmeko Anderea baino gehiago hala izan zadin aski zen hunen balditzeko, eta kritikarietako gizaldi bakoitza aitzinekoek onhartu egier kontra-egitean gelditzen baita, Flaubert, burjesen etsai hura, oroz gainetik burjes bat zela erraitea aski zuen, edo Wagner-etan ainitz musika italiar bazela, prinzesari, ekaitzean igerika doan norbaiti bezala, ezin sinetsi eta nahasian gelditzen zizazkon ikuspegi batzuen emaiteko. Baldidura hori etzen bertzela ere bakarrik ederlanez, baina ere berek ezagutzen zituzten jende batzuez, eta berdin munduko egintzez goratik erran arrazoingabekerien aitzinean gertatzen. Dudarik gabe Guermantes-tarren izpiritu egiazkoaren berexteko izpiritu horren molde eskasean ikasietarik

Parmeko Andereak zuen ahalgabea (horrek sinets-arazten baitzaukon Guermantes-tar batzuek eta bereziki andere batzuek adimenduko balio gora bat bazutela, gero ahalgetua izaitekotan dukesaren entzutean irriño batekin ergel batzu baizik etzirela erraiten), hori zen prinzesa beti ustegabetzen zuten arrazoinetarik bat Guermantes-ko Anderearen entzutean jenden jujatzen. Baina bazen bertze bat eta nik, aro hartan jende baino liburu gehiago ezagutzen nuenak eta mundua baino hobeki literatura, argitzen nuena gogoan hartuz dukesak, langabea eta agortasuna gizarteko egintza egiazkoendako kritika ederlan egitearendako dena diren mundu hortan bizia eremanez, bere inguruneko jendetara hedatzen zituela ikuspegietako aldakortasuna, arrazoinkariaren egarri kaltegarria, bere izpiritu agorregiaren asetzeko badoalarik oraino apur bat berri den edozein arrazoingabekeriaren bila, eta jenatuko eztelarik *Iphigénie* ederrena ez Gluck-ena baina Piccini-rena delako aburu frexkagarriaren atxikitzeko, eta beharrez egiazko *Phèdre* Pradon-ena dela.

Emazte adimendun, ikasi, izpiritudun bat ezkondua zenean bekan ikusten zen eta nehoiz entzuten etzen buzoka batekin, Guermantes-ko Andereak asmatzen zuen egun batez izpirituko atsegin bat ez bakarrik emazteaz gaitzerraitean baina senarra argira emaitean. Cambremer senar-emaztetan, behazunez, orduan ingurune hortan bizi izan baliz, erabakiko zuen Cambremer-ko Anderea zozoa zela, eta aldiz, jende ohargarria, gaizki ezaguna, hautekoa, emazte kalakari batek ixilera bortxatua, baina hura milatan balio zuena, markesa zela, eta horren erraitean dukesak hartuko zuen kritikariak, *Hernani* hiruretan hogei urtez geroz miresten denari, *Lehoin amoratua* hautesten daukola aithortzean sendi duen frexkagarri mota bera. Berrikeria nola nahikoen behar gaizpera berdinaren gatik, bere gaztarotik emazte beharbezalako, egiazko saindu batez jendea urriki baldin bazen frikun batekin ezkondua izanik, egun batez Guermantes-ko Andereak bazion frikun hori gizon arina zela, baina dena bihotza, emaztearen gogorkeria urrikalgaitzak zinezko arrazoingabekeria batzuetara eremana zuena.

Banakien etzela bakarrik ederlanen artean, mendetako zerrenda luzean zehar, baina lan ber bateko barnerano, kritika jostatzen aspaldiegitik distiran zenaren berriz itzalera sartzen eta behin betiko ilunbera kondenatzen. Enituen bakarrik ikusiak Bellini, Winterhalter, eraikile jesuistak, Erretate-berrituko ebenixta bat, akhituak erran izanak ziren jeinu batzuen lekuaren hartzera jiten, xoilki adimendun astidunak hetaz akhitu zirelakotz, zain-ahulak akhituak eta aldakorrak diren bezala. Ikusia nuen Sainte-Beuve-ren baitan hautesten aldizka kritika eta poeta, Musset neurthitzez den bezain batean arbuiatua, salbu antzerti ttipi biziki baliogabe batzuetan, eta ipuinlari bezala goretsia. Dudarik gabe entseu idazle batzu ogendun dira *Cid* edo *Polyeucte*-ko agerraldi aiphatuenen gainean ezartzen dutenean *Gezurtari*-ko neurthitzalde bat, baitematza, lan-marrazki zahar batean bezala, aro hartako Parisez xehetasun batzu, baina haien hautu lehena, ederreko arrazoinez ezpada, bederen lekukotasunezko balio batez onhargarria, gehiegi arrazoinezkoa da oraino kritika eroarendako. Molière osoa uzten du *L'étourdi*-ko neurthitz batendako, eta Wagner-en *Tristan* nardagarri aurkituz ere, "ihizi-tutako nota pollit bat" salbatuko ihiztariak badoazen orduan. Arrazoin galtze horrek lagundu ninduen Guermantes-ko Andereak erakusten zuenaren hartzen, deliberatzen zuenean haien munduko

gizon bihotz on bat bezala ezaguna, baina zozoa, norberekoi izigarri bat zela, uzte zen baino xorrotxagoa, eskuzabal bezala ezagutu bertze batek zikoizkeria itxura zezakeela, ama on bat etzela bere haurrer atxikia, eta bizioduna uste zen emazte batek sendimendu gorenak bazituela. Bizi mundutarreko ezteuskeriaz andeatuak bezala, Guermantes-ko Anderearen adimendua eta sendikortasuna sobera kordokan ziren haren baitan desgustua laster arrakastari jarraikia ez izaiteko (aldizka bilatua eta utzia zuen izpiritu motaren aldera berriz erakharria senditzekotan) eta gizon bihoztun bati aurkitua zaukon gozagarria aldatua, anderea sobera ikusten bazuen, haren baitan hark emaiten ahal etzazkon bide batzu sobera bilatzen bazituen, miresleak emana uste zuen, eta atseginaren bilatzean gelditzen denean haren aurkitzeko ezinak baizik emana etzuen nardamendu batera. Dukesaren jujamenduko aldapenek ehor etzuten gupidesten, haren senarra salbu. Hark bakarrik etzuen ehoiz maitatua; haren baitan dukesak beti senditua zuen burdinazko jite bat, zituen burutaldietara sorgor, zuen ederraren gutiesle, bortitz, ehoiz amor emanen eztuten borondate hetarik bat, zaintsuek haien legearen azpian baitakite bakarrik jabalduraren aurkitzen. Bertzalde Guermantes-ko Jaunak, emaztekiaren edertasun mota berdin baten ondotik ibiliz, baina hura usu aldatu ohaide batzuetan bilatuz, etzuen, hek behin utziak zituenean eta hetaz trufatzeko, partaide iraunkor bat baizik, beti berdina, bere elhasturiaz usu sumintzen zuena, baina jende guziak arixtokraziako ederrena, bertutedunena, adimendunena, ikasienarentzat zadukala bazakiena, Guermantes-ko Jauna hura aurkitua ukanik zoriondunegi zen emazte batentzat, bere desordenu guziak estaltzen zauzkona, nehork ez bezala gomitak hartzen, eta haien saloina Saint-Germain bazter-hiriko lehenbiziko saloinaren heinean atxikitzen. Bertzek zuten aburu hori berea zuen ere; ainitzen emaztearendako omore gaixtoan, hartaz urgoi zen. Baldin, zikoitz bezain ospeduna, garitateko, sehiendako diru den arinena ezesten bazaukon, baitezpada nahi zuen aphaindura miragarrienak eta zaldi-karrosa ederrenak ukan zitzan. Azkenik nahi zuen bere emaztearen izpiritua agerian ezarri. Bada, Guermantes-ko Andereak, haien adixkidetarik baten mereximenduez ala hutsez, bapatez berak hek elgarrekin aldizkaturik, arrazoingabekeria berri eta hauteko bat asmatu berria zuen aldi oroz, haren entseuaren egiteko ezin-egonean zen jastatzeko gai ziren jende batzuen aitzinean, haren zikologiako berezitasunaren goza-arazteko eta gaizki-nahi motzaren distira-arazteko. Dudarik gabe aburu berri horiek etzuten aitzinekoek baino egia gehiago, ainitzetan gutiago; baina hain zuzen arrazoingabeko eta ustegabekotik zuten guziak adimenduko zerbait emaiten zauen, jakin-arazteko hunkigarri egiten zituena. Bakarrik, dukesaren zikologia haren gainera eroria zen pairatzalea gehienean etxekotu min bat zen, eta dukesak bere aurkintza haier jakin-arazi nahi zauenek etzakiten batere etzela gehiago fagoreko mukurruan. Hortako Guermantes-ko Anderea adixkide paragabea, sendimenduna, eztia eta zerbitzu egina zelako omenak, jaukitze hastea neke egiten zaukon; gehien-gehienik gero zezakeen egin bortxatua izan baliz bezala, ihardespena emanez eztitzeko, alegia kontra-erraiteko, zinez haren sustatzea bere gain hartua zuen elhaide baten laguntzeko; hori zen hain zuen Guermantes-ko Jauna ezin hobean zen jokoa.

Egintza mundutarrez den bezainbatean, bertze atsegin bat zen oraino, nahitara antzoki moldekoa, Guermantes-ko Andereak sendi zuena hetaz Parmeko prinzesa ethengabeko ustegabe ezin goxoagoez azotatzen zuten igurikatu gabeko aburu batzuen emaitean. Baina dukesaren atsegin hori zein zatekeen gutiago nintzan gogoan hartzera entseatu literaturako kritikaren bidez, politikako biziarenez eta Gambarako ixtorioez baino. Guermantes-ko Andereak hetaz bere inguruneko jenden baitan ethengabe gauzen balioko ordenua aurdikitzen zuen erregela jarraiki eta elgarren kontrakoak ez gehiago aski izanez haren libertitzeko, bilatzen zuen ere, gizarteko bizia bazeraman eta bere den gutieneko erabaki mundutarrez mintzo zen moldean, bihotz-hunkidura artifizial horietaz gozatzea, bilkuretako sendikortasuna sustatzen duten eta politikarien gogoari onhar-arazten zazkon eginbide alegiazkoer obeditzea. Jakina da minixtro batek Gambaran diolarik bere ustez ontsa egin duela gizon zentzudunari alabaina xoil-xoila iduritzen zakon eta biharamunean bere egunkarian bilkura haren agerbidea irakurriko duen egin molde bati jarraikiz, irakurle zentzudun hori bizkitartean bapatez hunkia sendi da, eta minixtroaren baieztatzean arrazoin ukana duenez dudatzen hasten, hunen hitzaldia nahasmendu bizi batean entzuna izan dela ikusiz eta gaizki-erran batzuez mozturik izana, hala nola "Biziki larri da", izena eta tituluak hain luze dituen deputatu batek ahozkatu dituen eta mugimendu hain azkarrez jarraikiak izan diren hitzak, nun, hauste hortako arte osoan, "Biziki larri da!" hitzek hamalaurko batean neurthitz-erdi batek baino leku gutiako hartzen baitute. Behazunez lehenago, Guermantes-ko Jaunak, Laumes-etako printzeak, Gambaran alkia bazuelarik, batzuetan Parisko egunkarietan, nahiz gehienik Méséglise-ko herri-eremuko errana zen eta boz-emailer etzituztela bere bozak mandatari geldi eta mutu bati emanak erakusteko, hau irakurtzen zen:

GUERMANTES-BOUILLON-GO JAUN, LAUMES-ETAKO PRINTZEAK: "Hau larri da!" (*Biziki ontsa! Biziki ontsa! erdian eta eskunean alki zenbaitetan, oihu biziak ezker-buruan.*)

Irakurle zentzudunak badatxika oraino leialtasun liphar bat minixtro zuhurrarendako, baina bihotza joite berri batzuez inharrosten zako minixtroari ihardesten daukon mintzalearen lehenbiziko hitzetan:

- Oraino, uste dut, Gobernuan barne denaren hitzek (*Esku-zartak nasaiki; deputatu batzu lehiatzen dira minixtroen alkira; Posta eta Telegrafetako Azpi-Segeretari Jaunak bere lekutik baiezko buru kheinu bat egiten du*) egin dautaten ustegabeak, balditzeak, ezta sobera erraitea (*ondorio bizia gambarako zati eskunekoan*) …

"Ezku-zartak nasaiki" horrek irakurle zentzudunaren azken ihardokitzeak eremaiten ditu; Gambararendako laidagarri, izigarri, iduritzen zako berez baliogabea den egintza molde bat. Behar bada, gauza zuzen bat, behazunez aberatser beharduner baino gehiago ordain-araztea, bidegabe baten argitzea, gerla baino lehen bakearen hautatzea, eskandala idurituko zako eta horietan laido bat ikusiko du egiazki gogoan ukanak etzituen prinzipio batzuendako, gizonaren bihotzean ez grabatuak, baina azkarki hunkitzen dutenak phizten dituzten oihuen eta biltzen dituzten maioria tinkien gatik.

Aithortu behar da bertzela ere Guermantes-tarren ingurunearen eta gero bertze batzuen argitzeko baliatu zizatan politikarien xotilasun hori eztela argipen emaiteko xorroxtasun berezi eta ainitzitean "lerro artean irakurtze" itzulitik deitzen denaren gaiztatze bat baizik. Bilzarretan xorroxtasun horren gaiztatzetik arrazoingabea izaiten baldin bada, oro "hitzez hitz" hartzen duen publikoaren xorroxtaxun eskasez zozokeria da, kargudun handi bat "bere galdez" kargutik baztertua denean ezpaitu kampora igortzea delako aierurik, bere baitan baitio "Ezta haizatua bere galdez egina bada"; galtze bat dela Errusoak gerlako mugimendu batean Xaponesen aitzinean gune azkarrago eta aitzinetik prestatu batzuetara gibelatzen direnean; eza dela probinzia batek Alemaniako emperadoreari bere gain jartzea galdeginik, hunek erlisioneko bere gain izaitea emaiten daukonean. Gerta daiteke ere, Gambarako bilkura horietara itzultzeko, idekitzen direnean, deputatuak berak haien agerbidea irakurriko duen gizon zentzudunaren berdinak izan daiten. Lan galditzean diren langile batzuek ordariak minixtro baten gana igorri dituztela jakitean, behar bada xintxoki bere buruari galdez daude: "Ha! dakusagun, elgarri zer erran dute? guzia antolatu dela itxaro dezagun", minixtroa mintzategira igaiten ari den orduan jadanik sendimendu artifizial batzuen gostua bademan ixil handi batean. Minixtroaren lehenbiziko hitzak, "Eztut Gambarari erraiteko beharrik gobernuko eginbidez badutala sendimendu goregi bat, ene karguaren botereak ezagutu behar etzituen ordari horiek onhartuak ukaiteko", ustegabeko ukhaldia dira, deputatuen zentzu onak asmatua etzuen aieru bakarra. Baina hain zuzen ustegabekoa baita, hainbateko esku-zartekin hartua da nun minuta zenbaiten buruan baitu minixtroak bere burua entzun-arazten ahal, eta ukanen baititu, bere alkira itzultzean, bere lagunen goresmenak. Besta handi ofizial batera kontra egiten zaukon Herriko bilzarreko buruzagiaren gomitatzeaz minixtroa axolatu ezten egunean bezain hunkia izaiten dira, eta erraiten da aldi batean ala bertzean zinezko Estatuko gizon bezala egin duela.

Guermantes-ko Jauna, bere biziko aro hartan, usu izana zen, Courvoisier-tarren eskandala handian, minixtroari goresmen emaiten izanak zirenetan barne. Geroago erraiten entzun dut ere, Gambaran egitate aski handia ukana zuen ordu batean, eta minixterio edo embaxada batendako hura gogoan zenean, adixkide bat zerbitzu baten galdatzera jiten zizakonean, Guermantes-ko duke izanen etzen bertze nor nahik baino gutiago jende handi egiten zuela politikan, ezin gehiago lañoagoa zela. Ezen noblezia gauza guti zela baldin bazion, lankideak bere heinekoak bezala hartzen bazituen, etzuen hori batere gogatzen. Politikako karguak bilatzen zituen, alegia estimatzen, baina egiazki gaitzesten, eta beretako Guermantes-ko Jaun gelditzen baitzen, etzuten haren inguruan bertze batzu ezin hurbilduak egiten dituzten kargu handien dorpe hura ezartzen. Eta hortik, haren urguluak gerizatzen zituen kalte orotarik ez bakarrik haren eginara etxekotasun agerian ezarriarekilakoak, baina egiazko lañotasunetik ukaiten ahal zuena.

Guermantes-ko Andereak, haren delibero politikarienak bezala artifizial eta hunkigarrietara berriz itzultzeko, etzituen Guermantes-tarrak, Courvoisier-tarrak, Bazter-hiri guzia eta nehor baino gehiago Parmeko prinzesa gutiago nahasten, erabaki ustegabeko batzuez haien azpian sendi baitziren prinzipio batzu are gehiago

oharr-arazten zutenak nun gutiago baitziren gogoan ukanak. Greziako minixtro berriak dantzaldi maskatu bat emaiten baldin bazuen, bakoitzak hautatzen zuen bere jantzia, eta jendea bazagon dukesarena zein izanen ote zen. Batek uste zuen Burgoñako dukesan izan nahi zuela, bertze andere batek emaiten zuen Dujabar-ko prinzesan aldatzea itxurazkoa bezala, heren batek Psyché-tan. Azkenik Courvoisier batek galdeginik: "Zertan jarriko hiz, Oriane?" eman-arazten zuen gogoan ukana etzen erantzun bakarra: "Baina jeusetan ez!" mihiak ibil-arazten baitzituen erakusten zuelakotz Orianen egiazko aburua Greziako minixtro berriaren izanara mundutarraz eta haren aldera ukan behar zen eginaraz, erran nahi da atzinetik ikusi behar izanen zen aburuaz, dukesa batek "etzuela joaiterik" minixtro berri horren dantzaldi maskatura. "Greziako minixtroaren dantzaldira baitezpada joan behar dela eztut uste, eztut ezagutzen, eniz Greziarra, zergatik joanen niz hara? egitekorik jeus eztut han", zion dukesak.

- Baina jende guzia badoa, loriagarri izanen omen da, egiten zuen Gallardon-go Andereak.

- Baina loriagarri da ere supazter xokoan egoitea, ihardesten zuen Guermantes-ko Andereak.

Courvoisier-tarrak ustegabetuak ziren, baina Guermantes-tarrek, hari jarraiki gabe, baiesten zuten: "Erran gabe doa jende guzia eztela Oriane bezala ohitza guziekin hausteko heinean. Baina alde batetik eztaiteke erran ogendun dela sobera egiten dugula erakutsi nahiz nundik heldu diren ere eztakigun atzerritar horien aitzinean ahuspez emaiten girenean."

Baitzazkien alabaina egonara batek ala bertzeak huts egin gabe eman-araziko zituen solasak; Guermantes-ko Andereak han haren beha egoitera menturatzen etziren besta batean sartzen bezainbat atsegin bazuen etxean egoiten edo senarrarekin arratsaldiaren emaiten antzokian, "jende guzia hara zoan" besta bateko arratsean, ala ere, diadema ixtorioko batez diamanta ederrenak itzaliko zituela uste zenean, joia bakar bat gabe sartzen eta baitezpadakoa zela gaizki uste zenetik bertze jantzi batean. Nahiz Dreyfusen kontrakoa zen (Dreyfus ogengabea zela uste zuen batean, bizia munduan zeraman bezala ideietan baizik zinesten etzuen batean), jendea handizki balditurik utzia zuen Ligne-ko prinzesaren etxeko arratsaldi batean, lehenik jarririk egonez andere guziak zutitu zirenean Mercier jeneralaren sartzean, eta gero zutituz eta ageri-agerian bere jendeak galdeginez mintzatzale nazionalixta batek hitzaldi bat hasia ukan zuenean, mundua politikaz mintzatzeko egina zela etzizakola iduritzen horrela erakutsiz; buru guziak haren aldera itzuli ziren Ortzirale Sainduko musikaldi batean ezpaitzen egon, nahiz Voltaire-ren aldekoa zen, ikuskarrian Krixtoren ezartzea behar ez bezalakoa iduritua zizakolakotz. Jakina da zer den, andere mundutar handienendako ere, urtean bestak hasten diren ordua, hainbertzetarano nun Amoncourt-eko markestsak, elhekatzeko beharrean, zikologiako bitxikeriaz eta sendimendu eskasaz, ainitzetan zozokeria batzu erraiten baitzituen azkenean, ihardetsi ahal ukan baitzuen aitaren, Montmorency-ko Jaunaren heriotzeaz dolumin erraitera jina zizakon norbaiti: "Horrelako pena bat gerta zakidizun oraino trixteago da mirailan badirenean gomitezko kartak ehunka." He bada, urteko ordu hartan, Guermantes-ko dukesa auhaltzera gomitatzen zenean,

jadanik atxikia etzadintzat lehiatuz, ez erraiten zuen mundutar bati nehoiz gogoratuko etzizakon arrazoin baten gatik: itsas-itzuliz abiatzera zoan ohargarriak zizazkon Noruegabo itsas-adarren ikusteko. Munduko jendeak hortaz baldituak izan ziren, eta dukesak bezala egiteaz axolatu gabe, haren egintzaz ukan zuten Kant-en baitan ukaiten den arinaldia, edireiten denean, determinixmako erakuspen hertsienaren ondotik, halabeharreko mundua baino gorago badela libertatekoa. Gogora nehoiz jina etzen asmakuntza orok izpiritua sustatzen du, hartaz baliatzen eztakiten jendena ere. Bapurrez itsas-iragaitekoa gauza guti zen, etxean egoiteko *sasoina* denean itsas-iragaite hortaz baliatzearen ondoan. Noruegako itsas-adarren ikustera joaiteko, hiriko ehun auhari edo barazkari, bietan gehiago "the", hiruretan gehiago arratsaldi, Operan astelehen distiratuenak eta Antzoki Frantzeseko astearteak bere nahiz huts zaitezkeelako ideia, Courvoisier-tarrer *Hogei mila lekoa itsaspean* bezain ezin argigarria iduritu zizaien, baina eman zauen libertate 'ta lillurako sendimen bera. Egunik etzen beraz entzuten etzenik, ez bakarrik "Orianeren azken hitza ezagutzen duzu?", baina "Orianeren azkena badakizu?" Eta Orianeren "azkenaz", Orianeren azken "hitzaz" bezala, errepikatzen zen: "Orianerena da zinez", "Zinez Oriane-tik da", "Oriane-tik da garbi-garbia." Orianeren azkena, behazunez, X. kardinal Macon-go apezpikuari (ohiki Guermantes-ko Jaunak, mintzo zizakonean, "Mascon-go Jauna" zeritzona, Frantzia zahar egiten zuela iduri baitzizakon) lagunarte aberritiar baten izenean ihardetsi beharrean, bakoitza eskutitza nola itzulia izanen zen bila zabilalarik, eta lehen hitzak aurkitzen zituenean bada: "Eminenzia" edo "Enejauna", baina gaineratekoaz eragozpenean, Orianeren eskutiza, guzien ustegabean "Kardinal Jauna"-tik hasten zen akademiako ohidura zahar baten gatik, edo "Ene gusia"-tik, hitz hori erabilia izanez Elizako printzen eta Jainkoari batzu eta bertzeak "bere geriza errespetagarri sainduan" atxik zitzan galdatzen zuten Guermantes-tar eta erregen artean. "Orianeren azken" batez mintza zaitentzat, aski zen Paris guzia han zen eta antzerti biziki pollit bat jokatzen zen ikuskizun batean, Guermantes-ko Anderea bilatzen zelarik Parmeko prinzesaren egongian, Guermantes-ko prinzesarenean, gomitatua zen bertze hainbertzerenean, aurki zadin bakarrik, beltzez jantzia, xapel ñimiño batekin, erridauaren goititzeko ethorria zen jargia batean. "Balio duen antzerti bateko hobeki entzuten da", argitzen zuen, Courvoisier-tarren eskandalan eta Guermantes-tarren mirestean, baitzakusaten bapatez antzerti baten hastapenaren entzuteko "fazoina", auhari handi baten ondotik azken egitaldiko jitea baino eta arratsaldi batean agertze baten egitea baino berriago zela, berezitasun eta adimendu gehiago (Orianeren aldetik ustegabetzeko etzena) erakusten zuela. Horrelakoak ziren Parmeko prinzesak hetara prestatu behar zuela bazakien ustegabetzeko motak literaruraz edo munduaz galde bat egiten bazaukon Guermantes-ko Andereari, egiten baitzuten, dukesaren etxeko auhari horietan, Goientasuna etzela den gai ttipienera menturatzen bi uhain-olden artetik jalgitzen ari den mainariaren zuhurtzia urduri eta loriatuarekin baizik.

Saint-Germain-go bazter-hirian buru ziren hein berdintsuko bertze bizpahirur saloinetan ez izanez, Guermantes-ko Anderearen saloina hetarik berexten zuten gauzen artean, Leibniz-ek "monada" bakoitzak mundu osoa

itxuratzen duen batean zerbait berezi emaiten daukola onhartzen duen bezala, gutienik gustagarri zirenetarik bat emaiten zuten ohiki han izaiteko bere edertasunaz eta Guermantes-ko dukeak erabiliak izaiteaz bertze titulurik etzuten bat edo bi emazte biziki ederrek, haien han izaiteak berehala agerr-arazten baitzuen, bertze saloin batzuetan ustegabeko margazki batzuek bezala, huntan senarra emazten garazien miresle suhar bat zela. Guziak apur bat elgar iduriak ziren; ezen dukeari emazte handienak gustatzen zizazkon, aldi berean maiestatedun eta arinak, *Venus de Milo* eta *Victoire de Samothrace*-ren arteko mota batekoak; ile usu horiak, bekan beltzaranak, batzuetan gorriak, berrienak zituen bezala, auhari hortan baitzen, hainbat maitatua zuen Arpajon-go bizkondesa hura nun luzaz bortxatua baitzuen egunean hamar eskutitzen igortzerano (dukesa horrek apur bat nardatzen baitzuen), Guermantes-en zenean urzo bidaiariez izkiribatzen baitzaukon, eta azkenik hura gabe luzaz hain baitzen ezin egon ahala izan nun, Parmen iragan behar ukan zuen negu batez, aste oroz Parisera itzultzen baitzen, bi egun bidaia eginez haren ikusteko.

Ohiki, itxurazko jokari eder horiek haren ohaideak izanak ziren baina gehiago etziren hala (Arpajon-go Anderea hortan zen) edo hala izaitetik gelditzera zoazen. Bizkitartean behar bada dukesak sendi-arazten zauen ospe handiak eta haren saloinean onhartuak izaiteko itxaroak, nahiz berak lerro azkarki arixtokratekoak ziren baina bigarren mailekoak, delibera-araziak zituen, hunen edertasunak baino gehiago, dukearen gutizier amor emaitera. Etzuen bertzela ere dukesak ihardukimendu baitezpadako bat eginen haren etxean haien sartzeari; bazakien batean baino gehiago aldeko bat aurkitua zuela, hari esker ukanak zituela gutiziatzen zituen mila gauza eta Guermantes-ko Jaunak emazteari urrikirik gabe ezesten zauzkonak bertze batez amoratua etzeno. Hortako haien atxikimendua jadanik biziki aitzinatua zenean baizik dukesaren etxean onhartuak etzirela egiten zuena, lehenik lotua zen izaitekotz dukeak, maitasun handi batean abiatua zen aldi oroz, maitaldi xoil bat baizik izanen etzela uste ukanari, horren ordainez bere emaztearen etxean onhartua izaitea ainitz zela estimatzen baitzuen. Gertatzen zen bada biziki gutiagorendako eskaintzen zuela, lehen musu batendako, uste ukanak etzituen ihardukitze batzu izaiten baitziren, edo aldiz ihardukitzerik ezpaitzen izan. Maitasunean, ainitzetan, esker onak, plazer egiteko nahikariak, esperanzak eta abantailak hitzemana zuten baino gehiago eman-arazten dute. Baina orduan eskaintza horren gauzaratzea bertze gertaldi batzuez trabatua zen. Lehenik Guermantes-ko Jaunaren maitasun horri ihardetsia zuten, eta batzuetan amor emana etzutenean ere, aldizka hetsirik atxikiak zituen. Etzituen gehiago nehoren ikustera uzten, abantzu oren guziak haien ondoan eremaiten zituen, haien haurren erakaskuntzaz artha hartzen zuen, gertatu baitzen batzuetan, berantago eite ezin argiago batzuetarik jujatu behar bada, anaia edo arreba bat eman zauela. Gero, atxikimenduaren hastapenean, Guermantes-ko Andereari aitzineratzeak, dukeak batere gogoan ukana etzuena, zerbait egina baldin bazuen ohaidearen gogoan, atxikimenduak berak aldatuak zituen emazte horren ikuspegiak. Dukea etzen harendako bakarrik Parisko emazte aphainenaren senarra, baina ohaide berriak maite zuen gizon bat, aberatseria gehiagoren ukaiteko ahala eta gostua usu emanak

zauzkon gizon bat ere 'ta handi-usteko eta abantaileko ideien balioak aitzinean zuen ordenamendua aldizkatua zuena; azkenik batzuetan, mota orotako jelosia batek phizten zituen dukearen ohaideak Guermantes-ko Anderearen kontra. Baina hori bekanago zen; bertzela, aitzineratzeko eguna azkenean jiten zenean (ohiki jadanik dukearendako aski orobat zizakolarik, haren egintzak, jende guzienak bezala, aitzineko egintzek manatuak baitziren gehiago izaiterik etzuen lehenbiziko arrazoinak baino usuago), gertatzen zen ainitzetan Guermantes-ko Andereak zuela etxean hartu nahi ukana esperanza hartan zuen eta haren baitan, senar izigarriaren kontra, laguntzale balios baten edireiteko hain behar handia zuena.

Etzen hori Guermantes-ko Jaunak, arte bekan batzuetan salbu, etxean, dukesa sobera mintzo zenean, harritzen zuten hitz eta oroz gainetik behako batzu agertzera uzten zituenean, bere emaztearen aldera "itxurak" deritzeetenak atxikitzen etzituelakotz. Ezagutzen etzituzten jendek hortan huts egin zezaketen. Aldi batzuez, larrazkenean, Deauville-ko zaldi lasterren, uren, Guermantes-era joaitearen eta ihizitaldien artean Parisen eremaiten diren aste gutietan, dukesak "café-concert"-a maite baitzuen, dukea bazoan harekin han arratsaldi baten iragaitera. Jendea berehala ohartzen zizakon, biga baizik egon eztaitezkeen egongia ttipi hetarik batean, Herkules hari "smoking"-etan (Frantzian guti edo aski britaniarra den gauza orori emaiten baita Angeleterran ukaiten eztuen izena), begitako bakuna begian, bere esku lodi ederrean, erhaztun-erhian zafir bat dirdiran, hartarik artetan bafada bat hatzen zuen zigarro lodi bat, soak ohian han baitezpada nehor ezagutzen etzuen antzoki-zolara itzuliak, eztitasunezko, begirunezko, ikustatezko aire batez mutisten zituela. Bertsu bat jostagarri iduritzen zizakonean eta ez gordinegia, dukea irriño batekin emaztearen gana itzultzen zen, harekin batean hartzen zuen, elgar entzuteko eta oneziazko kheinu batean, kantu berriak emaiten zaukon alaitasun lañoa. Eta ikuslek uste ukan zezaketen hura baino senar hoberik etzela, ez eta dukesa baino jende gutiziagarriagorik - bizian balioa duten guziak dukearendako emazte hortarik kampo zirena, maite etzuen emaztea, haren trompatzetik ehoiz gelditu etzena. Dukesa akhitua sendi zenean, ikusten zen dukea xutitzen, bera hari bizkarrekoaren ezartzen, lepho-gatinen antolatzen horraduran hartuak izan etzaiten, eta atherano hari bidearen idekitzen artha lehiatu eta errespetuzko batzuekin, hor jendetasun xoila baizik ikusten eztuen andere mundutarraren hoztasunarekin hartzen zituenak, eta batzuetan ere galtzeko lillurarik gehiago eztuen ezkontide desenganatuaren gogo samin apur bat irkaiztunarekin. Baina itxura horiek izanik ere, eginbideak barnatasunetarik azalera ekharr-arazi dituen jendetasun horren bertze zatia, dembora jadanik urrundu batean, baina ondotik bizi direnendako oraino badirauenean, dukesaren bizia nekea zen. Guermantes-ko Jauna etzen berriz bihotzon, urrikaltsu bilakatzen ohaide berri batendako baizik, ainitzetan dukesaren alderdia hartzen zuena; hunek ikusten zuen orduan egin zezazkeela azpikoendako emaitza batzu, behardunendako garitateak, beretako ere, geroko, beribil berri miragarri bat. Baina ohiki Guermantes-ko Anderearen baitan aski laster sortzen zen suminduratik, gehiegi menperatuak zizazkonen aldera, dukearen ohaideak etziren baztertuak. Dukesa berehala hetaz higuntzen zen. Bada, ordu hartan ere, Arpajon-

go Anderearekilako atxikimendua bururatzera zoan. Bertze ohaide bat agertzen ari zen.

Dudarik gabe Guermantes-ko dukeak jarraikian guziendako ukana zuen maitasuna egun batez hasten zen berriz sendi-arazten: lehenik maitasun horrek erortzean uzten zituen, dukesaren saloinean bere molde luzaz etsai izanak elgarren ondoan zituzten harbizi ederrek bezala - dukearendako ederrak ziren harbiziak, horrela zatiz artixta bilakaturik, maitatuak zituelakotz, eta orai maitasunik gabe gustatuko etizazkon itxura batzuendako sendikor baitzen -, bekaizkeriez eta aharrez janak, eta azkenean adixkidantzan baketuak. Eta gero adixkidantza hori bera Guermantes-ko Jaunari, ohaideak zituenen baitan, gizaki orotan badiren baina atseginean bakarrik hautemaiten diren bertute batzu oharr-araziak zauzkon maitasunaren ondorioa zen, hala nola nun ohaide izana guretako zernahi eginen zuen "hauteko lagun bat" bilakatua izaitea, klixe bat baita, medikua edo aita deritzoguna mediku bat edo aita bat ezten bezala, baina adixkide bat. Baina lehenbiziko aldi batean, Guermantes-ko Jaunak bazterrera uzten hasten zuen emaztea zinkurinaka hasten zen, aharraldi batzu egiten zituen, garraztua agertzen zen, ausartua, okaztagarri. Dukeak hastioan hartzen ari zuen. Orduan Guermantes-ko Andereak argian ezarri behar zituen nardatzen zuen emaztearen huts egiazko ala ustezkoak. Ona zela ezaguna, Guermantes-ko Andereak ukaiten zituen baztertua zenaren telefonaldiak, segeretuak, nigarrak, eta etzen hortaz deitoratzen. Senarrarekin irri egiten zuen, gero etxekotu min batzuekin. Eta zorigaitzekoari erakusten zaukon urriki horren gatik, harekin khitzikari izaiteko dretxoa bazuela ustez, hura han zenean ere, hark zer erran zezan ere, dukeak eta dukesak moldatua zaukoten jite irrigarrian hori sar zadin ber, Guermantes-ko Anderea senarrarekin behako elgar entzute irkaitzezko batzuen ordainkatzeko etzen jenatzen.

Bitartean, mahian jartzean, Parmeko prinzesa orhoitu zen Heudicourt-eko Anderea nahi zuela Operara gomitatu, eta hori Guermantes-ko Andereari gozagaitz izanen etzizakonez jakiteko gutizian, sundatu nahi ukan zuen.

Orduan sartu zen Grouchy-ko Jauna, haren treinak, burdinbidetik atheratze baten gatik, oren bateko gelditaldia ukana baitzuen. Ahal zuen bezala desenkusatu zen. Haren emaztea, Courvoisier izan baliz, ahalgez urtuko zen. Baina Grouchy-ko Anderea etzen "Guermantes" debaldetan. Senarra berantaz desenkusatzen baitzen:

- Badakusat, erran zuen hitza hartuz, gauza ttipietan ere, beranta ukaitea zure familiako ohitza bat dela.

- Jar zaite, Grouchy, eta ez zure burua balditzera utz.

- Neure aroarekin nabilan batean, bortxatua niz Waterloo-ko guduak onetik ukan duela aithortzera, berriz Bourbon-darren jartzea ekharri baitu, eta hobeki oraino, jendeaz gaizki ikusiak bilakatu dituen moldean. Baina egiazko Nemrod bat zirela ikusten dut!

- Pheza eder batzu ekharri ditut alabaina. Bihar dukesari dotzena bat nauderren igortzeko ausartzia hartuko dut.

Ideia bat iragan zela iduritu zen Guermantes-ko Anderearen begietan. Grouchy-ko Jaunak nauderren igortzeko lana har etzezan hisitu zen. Eta, kheinu bat eginez Elstir-etako salaren uztean mintzatua nintzan mutil jantzi ezkongaiari:

- Pouillen, erran zuen, Jaun kondearen nauderren bila joanen zira eta berehala ekharriko dituzu, ezen Grouchy, eztea hala, ikustate batzu egin ditzadan onhartuko duzu? Eztitugu gu biek, Basin-ek eta nik, hamabi nauder janen.

- Etzi aski goiz lizateke, erran zuen Grouchy-ko Jaunak.

- Ez bihar nahiago dut, hisitu zen dukesa.

Pouillen zuritua zen; ezkongaiarekilako hitzartzeak huts egina zuen. Hori aski zen dukesaren libertimenduko, guziak bihotzonezko itxura bat atxik zezan nahi baitzuen.

- Badakit zure atheratzeko eguna dela, erran zaukon Poullein-i; askiko duzu Georges-ekin aldizkatzea bihar atherako baita eta etzi egonen.

Baina biharamunean Poullein-en ezkongaia etzen libro izanen. Atheratzea ala ez berdin zizakon. Pollein handik joana izan zen orduko, bakoitzak dukesa goretsi zuen bere sehiekin zuen oneziaz.

- Baina eztut haiekin enekin izan laiten nahi nukeena izaitea baizik egiten.

- Egia! zure etxean leku ona dutela erraiten ahal dute.

- Ez hain ohigabekoa. Baina uste dut aski maite nautela. Hori apur bat nardagarria da amoros delakotz, itxura gogoilindu bat hartu behar duela uste du.

Ordu hartan Poullein sartu zen.

- Alabaina, erran zuen Grouchy-ko Jaunak, eztu irriñotan dela iduri. Horiekin on izan behar da baina ez sobera.

- Aithor dut enizala izigarria; bere egun osoan zure nauderren bila joaitea askiko du, hemen egoitea jeus egin gabe eta hetarik bere zatiaren jatea.

- Jende ainitzek nahiko lukete haren lekua, erran zuen Grouchy-ko Jaunak, gutiziak itsu bilakatzen baitu.

- Oriane, erran zuen Parmeko prinzesak, joan den egunean ukan dut zure gusi Heudicourt Anderearen ikustaldia; ageriki adimendu goreneko emaztea da, Guermantes bat, guzia errana da, baina gaitzerrailea dela diote …

Dukeak eman zaukon emazteari behako luze nahitara baldidurazko bat. Guermantes-ko Anderea irriz hasi zen. Prinzesa ohartu zen azkenean.

- Baina… etzirea ene aburuko? galdegin zuen goganbeharrekin.

- Baina Anderea onegia da Basin-en itxurez axolatzean. Hea, Basin, etzazula har gure jandakiez gaitzerraitea entzun-arazten duzulako itxura.

- Gaixtoegia aurkitzen du? galdegin zuen bizi-bizia prinzesak.

- Ho! ez batere, ihardetsi zuen dukesak. Zure Goientasunari gaixtoa dela nork erran daukon eztakit. Aldiz ehoiz ehorez gaitzerrana eztuen jende ezin hobea da, ez eta ehori gaitzik egina.

- Ha! erran zuen Parmeko prinzesak arindua, enintzan hortaz ere ohartua. Baina izpiritu ainitz denean maltzurtasun apur baten ez ukaitea neke dela badakit …

- Ha! hori bada, gutiago du oraino.

- Izpiritu gutiago?… galdegin zuen prinzesak balditua.

- Hea, Oriane, hautsi zuen dukeak doinu deitoratu batean eskun eta ezker inguruan so jostatu batzu igorriz, prinzesak emazte nagusi bat dela erraiten dautzula entzuten duzu.

- Ezta hala?

- Bederen nagusiki gizena da.

- Etzatzula entzun, Anderea, Basin ezta zinez ari. "Antzera-at" bezain zozoa da, erran zuen mintzo azkar erlastu batean Guermantes-ko Andereak, ohartzen etzenean dukea baino ere ontsa gehiago Frantzia zahar izanez, hala izaitea bilatzen nahi baitzuen ainitzetan, baina senarrak zuen dentelazko papo eta hondamenera egin moldetik kontrako batean, lur usain latz eta ezin goxoago bat zuen ahozkatzeko molde abantzu baserritarrean. "Baina munduan den emazte hoberena da. Eta eztakit ere hein hortan zozotasuna erraiten ahal denez. Horrelako jenderik ehoiz ezagutu dutala eztut uste; kasu bat da mediku batendako, badu zerbait eritasunetik, halako "enuxent", makhal, gibelatu bat, melodrametan eta *Arlésienne*-an bezala. Banago beti, hemen denean, haren adimendua atzarriko den ordua eztenez jina, horrek beti apur bat beldurtzen baitu." Prinzesa erran-molde horiez miresten zen erabakiaz balditua zen batean. "Erran dauta, Epinay-ko Andereak bezala, Khitzikari Burgoiaz zure hitza. Hautekoa da."

Guermantes-ko Jaunak hitza argitu zautan. Erran nahi naukon haren anaiak, eninduela ezagutzen ziolarik, arrats hartan berean igurikatzen ninduela hameka orenetan. Baina hitz-hartze hortaz mintzatzen ahal nintzanez enaukon Robert-i galdegina eta, Charlus-ko Jaunak hori abantzu eni finkatua ukaiteak kontra egiten baitzuen dukesari errana zuenarekin, ixilik egoitea begiratuago iduritu zizatan.

- Khitzikari Burgoia ezta gaizki, erran zuen Guermantes-ko Jaunak, baina Heudicourt-eo Andereak eztautzuke khondatu Orianek joan den egunean erran daukon hitz ontsa pollitago bat, bazkaltzera gomitatze bati ihardesteko.

- Ho ez! errazu!

- Hea, Basin, ixil zaite, lehenik hitz hori zozoa da eta prinzesari ene gusia baino ere ergelago nizala sinets-araziko dauko. Eta gero eztakit zergatik diotan ene gusia dela. Basin-en gusia da. Hala ere apur bat jendakian da enekin.

- Ho! egin zuen prinzesak Guermantes-ko Anderea zozoa aurki zezakeela gogoan, eta galdua bezala goraki aithortuz deusek etzezakeela dukesa jauts-araz haren miresmenean zadukan lerrotik.

- Eta gero jadanik ekhenduak dauzkogu izpirituko gaitasunak; hitz horrek baiterama ere bihotzeko batzuen ukhatzera, gaizki jina dela iduritzen zata.

- Ukhatzea! Gaizki jina! zein ontsa mintzo den! erran zuen dukeak alegiako irkaitz batekin eta dukesaren mirets-arazteko.

- Hea, Basin, etzaitela zure emazteaz trufa.

- Erran behar da Zure Erret-Goientasunari, egin zuen berriz dukeak, Orianeren gusia goren-gorena da, ona, lodia, nahi den guzia, baina ezta preseski, nola erranen dut … emailea.

- Ba, badakit, biziki zekena da.

- Erran-moldera enintzan ausartuko, baina hitz zuzena aurkitu duzu. Hori etxeko bizi-moduan agertzen da eta bereziki kozinan, hauta baita baina neurtua.

- Horrek gertaldi aski irriegingarriak emaiten ditu ere, hautsi zuen Bréauté-ko Jaunak. Beraz, Basin gaixoa, egun baten iragaitera izan niz Heudicourt-en, han igurikatuak baitzinezten Oriane eta zu. Ospe handiko aphailuak eginak ziren, noiz ere, arratsaldean, mutil jantzi batek ekharri baitzuen jinen etzineztelako depexa bat.

- Enau horrek ustegabetzen! erran zuen dukesak ezpaitzen bakarrik ukaiteko nekea, baina maite baitzuen hori jakin zezaten.

- Zure gusiak telegrama irakurtzen du, lastimatzen da, gero berehala, karta galdu gabe, eta bere buruan eginez debaldeko gasturik etzela behar ni bezalako jaun arteko batendako, mutila berriz deitzen du: "Kozinako nagusiari errozu oilaskoa ekhen dezan", oihu egiten dauko. Eta arratsean entzun dut mahi-nagusiari erraiten: "He bada? eta atzoko behiki ondarrak? Eztituzu zerbitzatzen?"

- Bertzela, aithortu behar da "xera" betegina dela, erran zuen dukeak, uste baitzuen hitz hori erabiliz gobernu-molde zaharreko agertzen zela. Hobeki jaten den etxerik eztut ezagutzen.

- Eta gutiago, hautsi zuen dukesak.

- Aski da eta ni bezalako gizagaizo arrunt batendako biziki sano, egin zuen berriz dukeak; bere gose hartan egoiten da.

- Ha! arthamenduko baldin bada, orduan bertzerik da. Ospedun baino osasunekoago da segurki. Ezta bertzela heinbertze on, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak, ezpaitzuen biziki maite Parisko mahi hoberenaren omena bereaz bertze mahi bati emana izan zakidion. Ene gusiarekin, hamabortz urtetarik egitaldi bakuneko antzerki bat edo hamalaurkun bat erruten duten idazlekin bezalako gauza bera gertzatzen da. Horiek dira nagusilan ttipiak deitzen direnak, joiak diren ezteus batzu, hitz batez, gehienik hastio dutan gauza. Kozina Zénaïde-ren etxean ezta gaixtoa, baina arruntagoa aurki laiteke gutiago xuhurra baliz. Haren kozina-nagusiak ontsa egiten dituen gauzak badira, eta badira huts egiten dituenak. Han orotan bezala auhari biziki gaixto batzu egin ditut, bakarrik bertzetan baino gutiago kalte egin dautate urdaila oro har ainitzarendako kalitatearendako baino sendikorrago baita.

- Azkenik, hortan gelditzeko, bururatu zuen dukeak, Oriane auhaltzera jioan zadin Zénaïde hisitzen zen, eta ene emazteak ezpaitu etxetik atheratzea biziki maite, ihardokitzen zuen, bilatzen zuen, etxekoz etxeko aphairu baten estakuru, etzutenez desleialki "tralala" handi batera eremaiten, eta entseatzen zen debaldetan gomitak zein izanen ziren jakitera. "Haugi, haugi, hisitzen zen Zénaïde bazkariko izanen ziren gauza onak goraiphatuz, gaztena ahi bat janen dun, bertzerik eztaunak erraiten, izanen ditun zazpi erregin-ahameño. - Zazpi ahameño, egin zuen Orianek. Beraz zortzi bederen izanen gira!"

Ephe zenbaiten buruan, prinzesak hori hartua ukanik ortzantza bezalako irri karkaila bat joaitera utzi zuen. "Ha! zortzi izanen gira, xoragarri da! zer erran-molde ona!" erran zuen, indar handi batean berriz hatzemanik Epinay-ko Andereak erabilia zuen itzulia eta aldi huntan hobeki zoana.

- Oriane, prinzesak diona biziki pollita da, "erran-molde ona."

- Baina, gizona, jeus eztautazu ikasten, prinzesa biziki izpirituduna dela badakit, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak hitz bat errexki gustatzen baitzizakon Goientasun batek errana zuen ber eta berak zuen izpiritua goresten. Andereak ene erran-molde lañoak onesten dituelakotz biziki urgoi niz. Bertzela ere hori erranik eniz orhoit. Eta erran badut, ene gusiaren lausengatzeko zen, ezen

zazpi ahamen baldin bazituen, ahoek, erraitera ausartzen baniz, hamabiak gainditzen zituzketen.

Anartean Arpajon-go kondesak auhal-aitzin errana baitzautan haren izabak hainbat zorion ukanen zuela Normandiako bere jauregia eni erakutsiz, erraiten zautan, Agrigenteko printzearen buruaren gainetik, hara gomitatu nahi ninduena oroz gainetik, Côte d'Or-era zela, zeren han, Pont-le-Duc-en, bere etxean zen.

- Jauregiko artxiboak gogoa eratxik lezazukete. Badira han eskutitzeria batzu ezin ohargarriagoak XVII, XVIII, XIX-garren mendetako jende seinalatuen guzien artean. Oren miragarriak baderamatzat han, iraganean bizi niz, segurtatu zautan Guermantes-ko Jaunak literaturan ezin gehiago azkarra zela errana zautan kondesak.

- Bornier-ko Jaunaren esku-izkiribu guziak baditu, egin zuen berriz, Heudicourt-eo Andereaz mintzatuz, prinzesak, agerr-arazi nahi baitzituen harekin adixkidantzan sartzeko ukan zezazkeen arrazoin onak.

- Amets egin duke, uste dut etzuela ezagutzen ere, erran zuen dukesak.

- Oroz gainetik ohargarri dena, eskutitzeria horiek erresuma andana bateko jendenak direla da, jarraiki zuen Arpajon-go Andereak, Europako duke etxe 'ta erretexte gehienekin ere ahaidegoan, hortaz orhoit-arazteaz zorionean baitzen.

- Baina ba, Oriane, erran zuen Guermantes-ko Jaunak ez xederik gabe. Orhoit zira bada Bordier-ko Jauna auzo zinuen auhari hartaz!

- Baina, Basin, hautsi zuen dukesak, Bornier-ko Jauna ezagutu dutala erran nahi badautazu, segurki, aldi bat baino gehiagotan ene ikusten izana da ere, baina nehoiz eniz haren gomitatzera deliberatu ahal izana aldi oroz formolez khotsua garbi-arazi behar ukanen bainuen. Auhari hartaz den bezainbatean, eniz sobera baizik orhoitzen, etzen batere Zénaïde-ren etxean, Bornier ezpaitu bere bizian behin ikusi eta uste baituke, *La Fille de Roland* aiphatzen denean, Greziako erregeren alabaren ezkongaia dela omen dioten Bonaparte prinzesa bat dela; ez, Austriako embaxadan zen. Hoyos gozagarriak uste ukana zuen atsegin eginen zautala ene ondoan kadera batean ezarriz akademiako usaindu hura. Jandarma multzo bat sahetsean nuela uste nuen. Ahal nuen bezala auhari guzian sudurraren tapatzera bortxatua izana niz, eniz hats hartzera gruieran baizik menturatu.

Guermantes-ko Jaunak, bere segeretuzko helburura heldua baitzen, gordeka ikhertu zuen gomiten begitartean dukesaren hitzak egina zuen ondoria.

- Goaxagarritasun berezi bat aurkitzen dut bertzela ere eskutitzetan, jarraiki zuen, Agrigente-ko printzearen begitartea artean jarririk ere, literaturan azkar zen eta jauregian eskutitz hain bereziak bazituen andereak. Ohartua zirea ainitzetan idazle baten eskutitzak haren gainerateko lana baino hobeak direla? Nola deitzen da *Salammbô* izkiribatua duen idazle hura?

Ez ihardetsi nahiko nuen solasaldi horren ez luzatzeko, baina senditu nuen Agrigente-ko printzeari gaizki eginen naukola, iduri ukana baitzuen *Salammbô* nork egina zuen bazakiela ezin hobeki eta ikustate hutsez zautala horren erraiteko atsegina uzten, baina eragozpen gaixto batean baitzen.

- Flaubert, erran nuen azkenean, baina printzearen buruak egin zuen baiezko kheinuak itho zuen ene ihardestearen soinua, hala nola nun ene soslaskideak

ezpaitzuen zuzen jakin Paul Bert ala Fulbert nuen errana, osoki askietsi etzuten izenak.

- Dena den, egin zuen berriz, haren eskutitzak zein ohargarriak diren eta liburuak baino hobeak! Hori berek argitzen dute bertzela ere, liburu baten egiteko duen nekeaz erraiten duen guzitik ikusten baita etzela egiazko idazle bat, dohaina bazuen gizon bat.

- Eskutitzeriaz mintzo zira, Gambetta-rena miresgarria edireiten dut, erran zuen Guermantes-ko dukesak, etzela langile xehe 'ta erradikal bati gogo eratxikitzeko beldur erakutsi nahiz. Bréauté-ko Jaunak hartu zuen ausartzia horrek zuen izpiritu guzia, inguruan so egin zuen begi aldi berean moxkor eta mardo batekin, gero begitako bakuna garbitu zuen.

- Jainkoa, azkarki nardagarri zen, *La fille de Roland*, erran zuen Guermantes-ko Jaunak Bornier-ko Jaunean gelditua baitzen, hartan hainbat aspertua zuen lan bat baino goragoa izaiteaz zuen gozaldiarekin, behar bada ere, auhari on baten erdian, senditzen dugun *suave mari magno*-az, hoin arratsaldi izigarriez orhoitzean. Baina baziren neurtiz eder batzu, sendimendu aberritiar bat.

Entzutera eman nuen miresmenik batere enuela Bordier-ko Jaunarendako.

- Ha! baduzu zerbait hartaz gaizki erraiteko? galdegin zautan jakin nahian dukeak uste baitzuen beti, gizon batez gaizki mintzatzen zenean, hori nor beraren erresumin zenbaiti lotua zatekeela, eta emazte batez bazen maitekeria baten ahastepana zela. Zer egin dautzu? Erran ezaukuzu! Baina bai, zerbait izigarrikeria badukezue bien artean, belzten duzunaz geroz. Luze da, *Le fille de Roland*, baina aski ontsa senditua da.

- "Senditua" zuzen da hoinbertze usaindua den idazle batendako, hautsi zuen irkaitzekin Guermantes-ko Andereak. Gaixo ttipi hori behin harekin gertatu bada, sudurrean ukan dezan aski adigarri da!

- Andereari aithortu behar dut bertzela ere, egin zuen berriz dukeak Parmeko prinzesari mintzatuz, *La Fille de Roland* bazterrera utzirik, literaturan eta musikan ere izigarriki moda zaharrekoa nizala, gustatzen etzatan gauza hain zaharkinik ezta. Eninduzun behar bada sinetsiko baina, arratsean, ene emaztea pianoan jartzen bada, gertatzen da galdegiten daukotala Auber-ren, Boieldieu-ren, berdin Beethoven-en aire zahar bat! Horra zer dutan maite. Aldiz, Wagner-ek, berehala lokhartzen nau.

- Hutsean zira, erran zuen Guermantes-ko Andereak: luzetasun ezin jasan batzuekin Wagner-ek jeinua bazuen. *Lohengrin* nagusi-lan bat da. *Tristan*-etan ere bada han edo hemen zati ohargarri bat. Eta *Vaisseau fantôme*-ko Irulen koroa mira hutsa da.

- Eztea hala, Babal, erran zuen Guermantes-ko Jaunak Bréauté-ko Jaunari mintzatuz, hautesten dugu:

Kompainia nobleko hitzartze guziak
Leku xoragarri hortan dirad' emanak.

Loriagarri da. Eta *Fra Diavolo*, eta *La Flûte enchantée*, eta *Le Chalet*, eta *Les Noces de Figaro*, eta *Les Diamants de la Couronne*, horra musika! Literaturan, gauza bera da. Horrela ezin gehiago maite dut Balzac, *Le Bal de Sceaux*, *Les Mohicans de Paris*.

- Ha! gaixoa, Balzac-ekin abiatzen bazira, eztugu berehala bururatuko, atxikazu hori Mémé hor izanen den egun bateko. Harekin, hobeki da oraino, badaki gogoz.

Emaztearen hausteaz sumindua, dukeak atxiki zuen ephe batez ixil mehatxatzale baten suaren azpian. Eta haren ihiztari begiek bi pixtolet kargatuen itxura zuten. Bitartean Arpajon-go Andereak ukanak zituen Parmeko prinzesarekin tragediako poesiaz eta bertze, nitarano argiki helduak etziren solas batzu, hau entzun nuenean Arpajon-go Andereak erranik: "Ho! Andereak nahiko duen guzia, uzten daukot mundua itsusian erakusten daukula itsusiaren eta ederraren berexten eztakielakotz, edo izaitekotz haren hantukeria ezin jasanak erraiten duen guzia ederra dela sinets-arazten daukolakotz, Zure Goinetasunarekin aithor dut, delako poesian, badirela gauza batzu irriegingarriak, adigaitzak, gostuko huts batzu, hartzeko neke dela, irakurtzeko bademala errusiarrez ala xinatarrez izkiribatua baliz bezainbat neke, baina neke hori hartua denean, nola sariztatua izaiten den, hainbat idurimen badu!." Hitzaldi ttipi horren hastapena enuen entzuna. Hartu nuen azkenean ez bakarrik itsusia ederretik berex etzezakeena Victor Hugo zela, baina ere hartzeko erusiarrak edo xinattarrak bezainbat neke emaiten duena hau zela:

Haurra denean agertzen, familia osoa
Esku-zartetan emaiten …

poetaren lehenbiziko aroko zatia eta behar bada Deshoulières Andereari *Mendetako Leienda*-ri baino hurbilago dena. Arpajon-go Anderea irriegingarri aurkitzetik urrun, ikusi nuen hura, hainbertze nahigaberekin jarria nintzanean mahi hain egiazko, hain nolanahiko hartan lehenbizikoa, ikusi nuen, izpirituko begiez, Rémuzat-eko Andereak, Broglie-ko Andereak, Saint-Aulaire-ko Andereak ekharri zituzten ile kuxkula luze biribilkatuak jalgitzen diren dentelazko bonetaren azpian, emazte hain aphain hek, bere eskutitz xoragarrietan hainbertze jakintza eta egokitasunekin aiphatzen baitituzte Sophocle, Schiller eta *Imitazionea*, baina lehenbiziko olerki erromantikoek emaiten baitzaueten amatxirendako Stéphane Mallarmé-ren azken neurtitzetarik ezin bereziak ziren laztura eta akhidura hek.

- Arpajon-go Andereak poesia biziki maite du, erran zaukon Guermantes-ko Andereari Parmeko prinzesak, hitzaldia erran izana zen doinu suharraz hunkia.

- Ez, eztu hitzaren hitzitik hartzen, ihardetsi zuen ahapetik Guermantes-ko Andereak, baliatu baitzen Arpajon-go Anderea, Beautreillis-ko jeneralaren kontra-ihardespen bati erantzuten ari, dukesak ahapeka erranak zituenen entzuteko bere erranetan sobera hartua izaiteaz. Utzia denaz geroztik literaturako bilakatzen ari da. Erranen daukot Zure Goientasunari nik dutala horren guziaren phizua jasaiten, ene ondora baita auhenka jiten Basin ikustera joana etzakon aldi oroz, erran nahi da abantzu egun guziez. Aspertzen baldin badu ezta hala ere ene hutsa, eztut haren etxera joaitera bortxatzen ahal, nahiago banu ere apur bat leialago izan lakidion, apur bat gutiago ikusiko bainuke. Baina nardatzen du eta ezta harritzekorik. Ezta jende gaixtoa, baina enhoagarri da ezin asma dezakezun hein baterano. Egun bakoitz emaiten dauzta halako buruko minak nun "pyramidon" kaxet bat hartu behar baitut. Eta hori guzia Basin-i laket izan baitzauko urte batez harekin eni trompakeria batzuen egitea. Eta horrekin mutil jantzi baten ukaitea neska arin batez

amoratua eta mokor egiten duena jende gazte hari bere oinbide irabazkarria utz dezan galdegiten ezpadaukot enekin thearen hartzera jiteko! Ho! bizia nardagarri da, bururatu zuen langidurarekin dukesak.

Arpajon-go Andereak nardatzen zuen oroz gainetik Guermantes-ko Jauna hau berriki bertze baten maitalea baitzen, Surgis-le-Duc-eko markestsa zela ikasi nuena. Hain zuzen atheratzeaz gabetu mutil-jantzia zerbitzatzen ari zen. Eta gogoan ukan nuen, oraino trixterik, nahasmendu ainitzekin ari zela, ohartu bainintzan Châtellerault-eko Jaunari platen emaitean, bere lana hain moldegaizki egiten zuela nun dukearen ukondoa gertatu baitzen aldi bat baino gehiagotan zerbitzariarenarekin joiten. Duke gaztea etzen batere gorritzen zen mutil-jantziaren kontra gaitzitu eta aldiz bere begi urdin argiarekin irriz so egin zaukon. Omore ona, gomitaren aldetik, oneziazko phorogu bat iduritu zizatan. Baina haren irriaren hisiak sinets-arazi zautan, mutilaren nahigabearen jakinean, behar bada, aldiz, bozkario gaixto bat zuela senditzen.

- Baina, maitea, badakizu guri Victor-Hugo-z mintzatzean eztuzula aurkintza bat egiten, jarraiki zuen Guermantes-ko dukesak aldi huntan aire khexu batekin buruaren itzultzen ikusia zuen Arpajon-go Andereari mintzatuz. Hasi-berri hori abia-arazten duzula uste ukan etzazula. Antzea baduela jende guziak badaki. Hastiagarri dena, azkeneko Victor Hugo da, *Mendetako Leienda*, izenburuak ahatzi ditut. Baina *Larrazkeneko Orstoak*, *Ilunabarreko Kantuak*, hori anitzetan poeta baten, egiazko poeta batena da. *Behamen*-etan ere, gaineratu zuen dukesak, solaskideak ezpaitziren hari kontra-erraitera menturatu arrazoin onez, badira oraino gauza pollitak. Baina aithortzen dut nahiago dutala berdin *Ilunabarr*-etik haratago ez menturatu! Eta gero Victor Hugo-ren olerki ederretan, eta badira, ainitzetan ideia bat aurkitzen da, ideia barnatu bat ere.

Eta sendimendu zuzen batekin, gogoeta trixtea bere doinuko indar guziez agerian ezarriz, hura mintzotik haratago ezarriz, eta aitzinean so ameslari xoragarri bat geldituz, dukesak emeki erran zuen:

- Oizue:

Oinazea fruitu da, Jainkoak eztu jin-arazten
Abar ahulegian oraino haren jasaiteko,

edo oraino:

Hilek ontsa guti diraute…
Ondikotz, khutxan erhauts dira bilakatzen
Emekiago gure bihotzetan baino!

Eta irriño lilluragabe batek haren aho minbera itzul-inguru garaziadun batez izurtzen zuelarik, dukesak Arpajon-go Anderean gelditu zuen bere begi argi xoragarrien so ameslea. Haien ezagutzen hasten ari nintzan, eta haren mintzoaren ere, hain dorpeki herrestatua, hain lazki zaporeduna. Eiki, mintzo horrek arteka lurrunetako gogortasun baten agerr-arazteko zuen alegia-eginean bazen gauza bat baino gehiago: Guermantes familiako abar baten ethorki osoki probinziarra, luzazago lekukoa gelditua, ausartago, gehiago basaka, jaukitzaleagoa; gero berezitasun aphaina eztela ezpainen punttatik mintzatzea badakiten jende zinez aphainean eta jende izpiritudunen ohidura, eta ere bere laborariekin burjesekin

baino gogotikago haurridetzen diren aitorenseme batzuena; oro, munduan Guermantes-ko Andereak zuen erregina lerroak errexago agerian emaitera eta bete-betean jalgi-araztera utziak zituen berezitasunak. Mintzo hori bera ba omen zen haren ahizpa batzuen baitan, hastiatzen zituenak, eta, hura baino gutiago adimendunak eta abantzu burjeski ezkonduak, hitz hortaz balia badaiteke aitorenseme guti ezagutu batzuez ari denean, bere probinziako edo Parisko ziloetan gordeak, dirdirarik gabeko Saint-Germain bazter-hiri batean, hek ere baitzuten mintzo hura baina ahal bezainbat gibela-arazia baitzuten, zuzendua, eztitua, gutarik batek duen berezitasunaren ausartzia atxik dezan eta gehienik goraiphatzen diren ereduer iduritzera ar eztadin bekan den bezala. Baina Oriane hainbat zen bere ahizpak baino adimendunagoa, hainbat aberatsagoa, oroz gainetik hainbat modakoagoa, hain ontsa zuen, Laumes-etako prinzesa bezala, euri ala atheri egina Galles-ko printzearen ondoan, nun gogoan hartua baitzuen bertzekin gaizki joiten zuen mintzo hori xoragarri zela, eta hortaz egina baitzuen, munduko ordenamenduan, antzokikoan Réjane batek, Jeanne Granier batek (bi jokari horien balio eta antzearekin segurki erkidatzerik gabe), berezitasunaren eta arrakastaren ausartziarekin, bereaz egina dutena, miragarriko zerbait eta hain berexkarria nun Réjane eta Granier ahizpa batzu, ehork ehoiz ezagun eztituenak, huts bat bezala behar bada gordetzera entseatu zirena.

Bere lekuko berezitasunaren zabaltzeko zituen hoinbertze arrazoinen gainera, Guermantes-ko Anderearen idazle hautetsiek, Mérimée, Meilhac eta Halévy, emana zuten, "naturala" denarendako errespetuarekin, handik poesiara heltzen zen hitz-laxoko gutizia bat eta ene aitzinean eskualde batzu sortzen zituen gizarte hutseko izpiritu bat. Betzela ere dukesa osoki gai zen, eragin horier ederlaneko bilatze bat gaineratuz, hitz gehienetan hautatua ukaiteko, gehienik *Ile-de-France*, gehienik *xampañatar* iduritzen zizakon ahozka moldea, erabiltzen etzuenaz geroz, osoki bere koinata Marsantes-en heinean ezpazen, idazle frantzes zahar batek erabili ahalko zuen hiztegi garbia baizik. Eta oraiko hizkuntza nahastekatu ñabarraz akhitua zinenean, atseden handi bat zen, ontsa gauza gutiago erraiten zuela jakina zen batean, Guermantes-ko Anderearen solasaren entzutea, harekin bakarrik zenean eta bere elhea oraino hertsatzen eta argitzen zuenean, abantzu kantu zahar baten entzutean senditzen den hura bera. Orduan Guermantes-ko Andereari so egitean, haren entzutean, banakusan, haren begietako arratsalde geldi betierekoan preso, Ile-de-France-ko edo Xampañako zeru bat hedatzen, urdinarana, zeharkatua, Saint-Loup-en baitan zuen makurdurako izkina berarekin.

Horrela, moldakuntza horien guzien bidez, Guermantes-ko Andereak erakusten zituen aldi berean arixtokraziako Frantzia zaharrena, gero, biziki berantago, Uztaileko monarkian Broglie-ko dukesak Victor Hugo maitatu edo gaizkitu ahalko zuen ara, azkenik Mérimée 'ta Mailhac-etarik jalgia zen literaturako gostu bizi bat. Moldakuntza horietan bigarrena baino laketago zizatan lehena, gehiago laguntzen ninduen bidaiak eta Saint-Germain bazter-hirira, uste ukana nuenetik hain bertzelakora jiteak emana zautaten nahigabearen arintzen, baina hirurgarrenari hautesten naukon oraino bigarrena. Bada Guermantes-ko Anderea abantzu nahi ukan gabe Guermantes zelarik, Pailleron-endako, Dumas

semearerendako zuen gostua gogoetatua zen eta nahi ukana. Gostu hori enearen kontrakoa baitzen, ene izpiritua literaturaz hornitzen zuen Saint-Germain baster-hiriaz mintzo zizatanean, eta nehoiz etzizatan literaturaz mintzo zizatanean bezain zozoki Saint-Germain bazter-hirikoa iduritzen.

Azken neurthitzek hunkia, Arpajon-go Andereak egin zuen:

Erlika bihotzeko horiek ere badute bere erhautsa!

Jauna, hori beharko dautazu ene aireztatzekoan izkiribatu, erran zaukon Guermantes-ko Jaunari.

- Gaixo emaztea, pena emaiten dauta! erran zaukon Parmeko prinzesak Guermantes-ko Andereari.

- Ez, Anderea eztadila beratz, merezi duena baizik eztu.

- Baina… barkatu hori zuri erraiten badautzut… bizkitartean maite du zinez.

- Baina ez batere, ezin egin dezake, uste du maite duela Musset-en neurthitz bat erraiten duenean Victor Hugo aiphatzen duela uste duen bezala. Oizu, gaineratu zuen dukesak doinu gogoilundu batean, nehor elizateke egiazko sendimendu batez ni baino hunkiagoa. Baina behazun bat emanen dautzut. Atzo, aharra izigarri bat egina dauko Basin-i, Zure Goientasunak uste du behar bada Basin-ek bertze bat maite duelakotz zela, gehiago maite eztuelakotz; ez batere, haren semeak Jockey-ra aitzineratu nahi eztituelakotz zen! Andereak hori amoratu batena dela edireiten dua? Ez! Gehiago erranen dautzut, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak bermuki, sorgortasun arraro bateko jendea da.

Bitartean begia gozaldiaz dirdiran Guermantes-ko Jaunak emaztea entzuna zuen Victor Hugo-z ustegabetarik mintzatzen eta haren neurthitz batzuen emaiten. Dukesak ainitzetan nardatzen ahal zuen, hau bezalako orduetan hartaz burgoi zen. "Oriane zinez ohi ez bezalakoa da. Orotaz mintza daiteke, oro irakurria du. Etzezakeen asma solasa gaur Victor-Hugo-ra eroriko zela. Zein ere gaitan hasten zakon, prest da, jakintsunener iharduk dezake. Mutiko gazte hau balditua dateke."

- Baina solasez alda gaiten, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak, biziki minbera baita. Ontsa moda zaharrekoa aurkitzen naukezu, egin zuen eni mintzatuz, badakit gaurregun poesian ideien maitatzea, gogoeta baduen poesiaren maitatzea ahulkeria bat bezala hartua dela.

- Moda zaharreko da? erran zuen Parmeko prinzesak beha etzagon berri nahasi horrek bazemakon baldidura arinarekin, nahiz bazakien Guermantes-ko dukesarekin solastatzeak emaiten zauzkola beti ukaldi jarraiki eta ezin goxoago horiek, lazta hats-bahigarri hori, akhidura sano hori, gero uste baitzuen oldez behar zuela kabina batean zango mainu bat hartu eta lasterrez ibili "ihardokitzearen egiteko".

- Ene aldetik, ez, Oriane, erran zuen Brissac-eko Andereak, Victor Hugo-ri eniz aiher ideiak badituelakotz, ontsa kontrakoa, baina izigarrikeria denean bilatzen baititu. Oro har literaturan itsusiari hark gitu jarri. Itsuskeria aski bada jadanik bizian. Zergatik ez bederen hek ahatz irakurtzen ari girenean? Bizian hartarik burua itzuliko ginuen ikuskarri penagarri bat, horra Victor Hugo erakhartzen duena.

- Victor Hugo ezta Zola bezain errealixta, hala ere? galdegin zuen Parme-ko prinzesak.

Zola-ren izenak etzuen zain bat higi-arazi Beautreillis-ko Jaunaren begitartean. Jenerala barnatukiegi Dreyfus-en kontrakoa zen hori erakutsi nahi ukaiteko. Eta gai horietan hasten zenean haren ixil ongi-nahiak ezagule etzirenak hunkitzen zituen aphez batek erlisioneko eginbidez zuri mintzatzea baztertuz, edo dirulari batek haien huruzagi den egitekoen ez gomendatzeari gogo emanez, edo indar gaitzeko gizon batek ezti dela erakutsiz eta ukhabilekorik zuri ez emanez duen gixakotasun beraz.

- Badakit Jurien de la Gravière amiralaren ahaidea zirela, erran zautan aire alegia entzun batekin Varambon-go Andereak, Parmeko prinzesaren ohorezko anderea, emazte ezin hobea baina gogo-hertsia, dukearen amak Prinzesari ekharria zaukona lehenago. Etzizatan oraino mintzatua eta nehoiz enaukon berantago gogotik ekhendu ahal ukan, prinzesaren erasiak eta ene ezesteak izanik ere, ikustekorik zerbait banuela amiral akademiakoarekin, osoki ez ezaguna baitzizatan. Parmeko prinzesaren ohorezko anderearen hisitzeak nitan Jurien de la Gravière amiralaren iloba baten ikustean bazuen berez arrunki irrigarri zen zerbait. Baina bazegien hutsa etzen, munduak jartzen duen "fixa"-n gure izena laguntzen duten hainbertze huts arinagoen, hobeki berexkatuen, nahi gabeko ala nahituen molde soberakina eta idortua baizik. Orhoit niz Guermantes-tarren adixkide batek, ene ezagutzeko gutizia bizi bat erakutsirik, Chaussegros-ko Andere haren gusia biziki ontsa ezagutzen nuelako arrazoina eman zautala, "xoragarria da, biziki maite zitu". Hartu nahi ukan nuen, ontsa debaldetan, huts egiten zuela hisitzeko artha, Chaussegros-ko Anderea enuela ezagutzen. "Beraz haren ahizpa duzu ezagutzen, gauza bera da. Eskozian aurkitua zitu." Ehoiz enintzan Eskozian izana eta onestasunez hortaz ene elhaidearen abisatzera entseatu nintzan debaldetan. Chaussegros-ko Andereak berak zuen ezagutzen ninduela errana, eta onez onean hala uste zukeen, lehenbiziko hutsegin baten ondotik, ikusten nindueanean ehoiz ezpaitzen eni eskuaren emaitetik gelditu. Eta, oro har, nindabilan ingurumena zuzen-zuzena Chaussegros-ko Anderearena baitzen, ene umiltasunak baliorik etzuen. Chaussegros-tarrekin etxeko mina nintzala, egiazki, etzen egia, baina, gizarteko ikuspegian, nuen lerroaren araukoa, lerroaz mintza badaiteke mutiko nintzan bezain gazte batendako. Guermantes-tarren adixkideak nitaz bakarrik gauza hutsezkoak erran ahal zauztan, eninduen ez aphaldu ez goititu (munduko ikuspegian) nitaz ukaiten jarraiki zuen ideian. Eta ororen buruan, komediarik jokatzen eztutenendako, beti jende mota berean bizitzeko aspertzea ephe batez ezeztatua da, tauladara igaiten baliz bezala, bertze norbaitek zutaz ideia hutsezko bat duenean, ezagutzen eztugun andere batekin adixkidetuak girela uste duenean, eta nehoiz egin eztugun bidaia xoragarri batean ezagutua dugula ekharria denean. Huts gehitzale 'ta maitagarriak, eztutenean Parmeko Anderearen ohorezko andere zozoak, ene ukhatzeak izanik ere, egiten eta bizi guzian egin zuen hutsaren gogortasun ezin malgutua, beti baitzagon Jurien de la Gravière amiral aspergarriarekin ahaide nintzalako usteari itzatua. "Ezta biziki azkarra, erran zautan dukeak, eta gero edanaldi sobera eztu behar, doi bat Bakhusen eragin-pean dela uste dut." Egiazki Varambon-go Andereak etzuen ura baizik edana, baina dukeak horrela bere itzuli hautetsien erraitea maite zuen.

- Baina Zola ezta errealixta, anderea! poeta da! erran zuen Guermantes-ko Andereak, gogoa emanez azken urte hetan irakurriak zituen kritika lan batzuer eta hek bere jeinu berezira arautuz. Ordu arteo goxagarriki bultzakatua arratsalde hartan hartzen zuen izipirituko mainuaz, harendako inharrosten zenaz, eta bereziki on eginen zaukola uste zuenaz, bere burua uzten zuela bat bertzearen ondotik jarraikitzen ziren arrazoingabekerietan eremaitera, bertzeak baino gotorragoa zen hunen aitzinean, Parmeko prinzesak jauzi egin zuen aurdikia izan beldurrez. Eta mintzo artezkatu batez, hatsaren galtzen ari izan baliz bezala, zuen erran:

- Zola, poeta bat!

- Baina ba, ihardetsi zuen irriz dukesak, eman-arazia zuen hats-bahitze hortaz loriatua. Zure goientasuna ohar dadila hunkitzen duen guzia nola handitzen duen. Erranen dautazu hain zuzen eztuela… zorion ekhartzen duena baizik hunkitzen! Baina hortaz izarigabeko zerbait egiten du; ongarria epikoa du! Zikin hustearen Homeroz da! Cambronne-ren hitzaren izkiribatzeko eztu aski hizki-nagusi.

Senditzen hasten ari zuen akhidura handia izanik ere, prinzesa loriatua zen, ehoiz etzen hobeki senditua. Etzituen Shœnbrunn-en egonaldi batekin trukatuko, lausengatzen zuen gauza bakarra zen alta, hoinbertze gatzek bizkorgarri egiten zituen Guermantes-ko Anderearen auhari xoragarri horiek.

- C handi batekin izkiribatzen du, egin zuen Arpajon-go Andereak.

- M handi batekin izaitekotz, uste dut, gaixoa, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak, ez senarrarekin aldatua ukan gabe "Aski zozoa denez!" erran nahi zuen behako alai bat. Oizu hain zuzen, erran zautan Guermantes-ko Andereak nitan so irriñodun ezti bat ezarriz, nahi baitzuen, etxekandere hoberen bezala, bereziki gogo eratxikitzen ninduen edergileaz, bere jakitatea agertzera utzi eta beharrez neurearen erakusteko aldia eni eman, oizu, erran zautan lumazko bere aireztagailua arinki inharrosiz, hain zen orduan ostatatzeko eginbideak osoki betetzen zituela ohartua eta, bati ez huts egiteko, kheinu bat eginez ere salsa musulinarekilako azparragoak eman zezaztaten berriz, oizu, uste dut hain zuzen Zola-k ikherlan bat idatzia duela Elstir-ez, arestian haren margazki batzuen ikusten izana ziren margolari hartaz, - harek eginik maite ditutan bakarrak bertzela ere, gaineratu zuen. Egiazki, Elstir-en margolaritza hastio zuen, baina etxean zuen guziari kalitate paregabekoa aurkitzen zaukon.

Guermantes-ko Jaunari galdegin naukon jendekilako margazkian xapel molde gorakoarekin ageri zen jaun hura nor zen bazakienez, Guermantes-tarrek ondo-ondoan haren potret ospekoa zuten hura bera zela ezagatua bainuen, Elstir-en nortasuna osoki agertua etzen eta oraino apur bat Manet-i jarraikitzen zen aro hartakoa nunbait han. "Jainkoa, ihardetsi zautan, arrotza ezten norbait dela badakit ez eta ere bere gaian zozoa, baina izenekin samurtua niz. Hor dut mihiaren punttan jaun… jaun…, azkenean guti balio du, eztakit. Zuanek hori erran lezauzuke, hark dauzko gauza horiek Guermantes-ko Andereari eros-araziak, beti maitagarriegi baita, beti samurr-araz sobera beldur baita norbaiti eza emaiten badu; gutartean, margazki txar batzu sakatu dauzkula uste dut. Erraiten ahal dautzutana, jaun hori Elstir-endako halako Mezenaz bat dela da, eta ainitzetan eragozpenetik athera duela margazki batzu hari manatuz. Eskerronez - eskerrona baderitzozu, gostua nola den

- leku hortan itxuratu du bere igandekari jantzian, iduripen bitxi bat emaiten baitu. Jakitatez handi-mandi bat da behar bada, baina xapel molde gorako bat noiz ezartzen den eztaki. Berearekin, ile luzekin diren nexka horien guzien artean, airosean den probinziako notari ttipi baten itxura du. Baina, erratazu bada, margazki horietan osoki hartua zirela iduri duzu. Jakin ukan banu, xehetasun bila izanen nintzan zuri ihardesteko. Gainera, ezta buru munen zilatze beharrik Elstir Jaunaren margazkien argitzeko, Ingres-en *Ithurria*-z edo Paul Delaroche-ren *Eduard-en haurrak*-ez ari izan baliz baino gehiago. Horietan estimatzen dena, xorrozki ikusia dela da, jostagarri, paristar, eta gero aitzina. Horri behatzeko ezta jakinduru izaite beharrik. Badakit bada josta-lan xoil batzu direla, baina etzaizkit aski landuak iduritzen. Zuanek bazuen guri *Azparrago haxea*-ren eros-arazi nahi ukaiteko bekokia. Egun zenbaitez hemen egon dira ere. Margazkian etzen hori baizik, azparrago haxe bat hain preseski iresten ari ziren horiek bezalakoa. Baina nik, Elstir Jaunaren azparragoen irestea eztut onhartu. Hirur ehun libera galdegiten zituen. Hirur ehun libera, azparrago haxe batendako! Luis bat, horra zer balio duen, goiztiarretan ere! Gotor aurkitu dut. Gauza horietan jende batzu ezartzen dituen orduko, itxura arrunt, gogo-ilun, laket etzatan bat hartzen du. Zu bezalako izpiritu xorrotx, buru aphain batek hori maite duela ikusteaz ustegabetua niz."

- Baina hori zergatik erraiten duzun eztakit, Basin, erran zuen dukesak ezpaitzuen maite haren saloinak zaduzkanak gutietsiak izan zaiten. Elstir-en margazkietan berxkuntzarik gabe guziaren onhartzetik urrun niz. Bada hartzeko eta uzteko. Baina ezta beti antzerik gabe. Eta behar da aithortu erosiak ditutanak edertasun arrarokoak direla.

- Oriane, mota hortan mila aldiz nahiago dut Vibert Jaunaren lan ttipi ur-margazkilarien Erakustaldian ikusia duguna. Jeus ezta nahi baduzu, esku ahurrean atxik laiteke, baina izpiritua bada azkazal punttetarano; hezur eta larru den misionest zikin hura, bere xakur ttipiaren josta-arazten ari den apezpiku mardo haren aitzinean, xorroxtasunezko eta barnatasunezko ere poema ttipi-ttipi bat da.

- Uste dut Elstir jauna ezagutzen duzula, erran zautan dukesak. Gizona goxagarria da.

- Adimenduna da, erran zuen dukeak, ustegabetzen da, harekin solastatzen denean, haren margazkia hoin arrunta izaiteaz.

- Adimenduna baino gehiago da, azki izpirituduna da ere, erran zuen dukesak hortan ezagulea den norbaiten aire aditu eta jastariarekin.

- Etzuena zure potret bat hasia, Oriane? galdegin zuen Parmeko prinzesak.

- Bai, xangurruen gorriz; ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak. Itsuskeria bat da, Basin-ek nahi zuen suntsitu.

Hitz hori, Guermantes-ko Andereak usu erraiten zuen. Baina bertze batzuetan, aburua bertzelakoa zen: "Haren margolaritza eztut maite, baina ene potret eder bat egina du lehenago." Jujamendu horietarik bat ohiki dukesari bere potretaz mintzo zizazkoner emana zen, bertze bat hartaz mintzatzen etzizazkoner eta hura bazela ikasi nahi zauener. Lehenbizikoa aphainkeriak eman-arazia zaukon, bigarrena hantukeriak.

- Zure potret batez itsuskeria baten egitea! Baina orduan ezta potret bat, gezur bat da: nik pinzel baten atxikitzen doi-doia dakitana, zure potreta egiten banu iduritzen zata, bakarrik ikusten dutanaren itxuratzeaz, nagusi-lan bat eginen nuela, erran zuen xintxotasunekin Parme-ko prinzesak.

- Nihaur ikusten nizan bezala ikusten nauke, erran nahi da goxagarri denik gabe, erran zuen Guermantes-ko Andereak Elstir-ek erakutsia zuenetik bertzelakoa zela agerr-arazteko egokiena iduritu zizakon behako aldi berean gogo-ilundu, laño eta pherekariarekin.

- Potret hori gustatzen zakoke Gallardon-go Andereari, erran zuen dukeak.

- Margolaritzan ezagutzen eztelakotz? galdegin zuen Parmeko prinzesak baitzakien Guermantes Andereak bere gusia erdeinatzen zuela. Baina biziki emazte ona da, eztea hala? Dukeak ustegabetze barnatu bateko itxura hartu zuen.

- Baina, hea, Basin, prinzesa zutaz trufatzen dela eztuzu ikusten (prinzesak etzuen hori gogoan). Gallardonette *pozoin* zahar bat dela badaki zuk bezain ontsa, egin zuen berriz Guermantes-ko Andereak, haren hiztegia, ohiki itzuli zahar horietan mugatua, zaporeduna baitzen Pampile-ren liburu hautekoetan aurki daitezkeen, baina bizian hain bekanak bilakatu diren janari hek bezala, hortan jelerak, burra, jusa, arhapilak egiazkoak baitira, nahastekarik batere gabe, eta gatza ere Bretainiako gatz-bilgunetarik jin-arazten baita: doinuan, hitzen hautuan ikusten zen dukesaren solaseko zola Guermantes-tik heldu zela zuzen. Hortik, dukesa Saint-Loup bere ilobatik, hainbertze ideia eta erran-molde berriez hartua zenetik osoki bertzelakoa zen; Kant-en ideiez eta Baudelaire-ren gogo-ilunduraz hunkia izaiten denean, Henri IV-garrenaren frantzes hautekoan idaztea neke da, hala nola nun dukesaren hizkuntzako garbitasuna muga bateko seinalea baitzen, eta haren baitan adimendua eta sendimendua berritasun guzier hetsiak geldituak baitziren. Hor ere Guermantes-ko Anderearen izpiritua laket zizatan hain zuzen baztertzen zuenetik (eta bereziki nihauren gogameneko gaia egiten zuenetik) eta horren beraren gatik atxikia zuen guzitik, soinen malgutasun gustagarri hura, gogoeta ahigarri edozeinek, moraleko arrangura edo zainetako nahasmen edozeinek andeatu eztutena. Haren izpiritu enea baino hainbat lehenago moldatua, itsas-bazterrean multxo ttipiko neskato gazten ibilarak eskainia zautanaren balio berekoa zen enetako. Guermantes-ko Andereak eskaintzen zauztan, maitagarritasunaz, izpirituko balioen alderako errespetuaz menperaturik eta hezirik, Combray-ko ingurunetako arixtokraziako nexkato ttipi gaixto baten gemena eta xoragarria, haurzarotik zaldiz igaiten zena, gatuer gerruntzeak hausten zezteena, lapiner begiak atheratzen, eta, bertuteko lore bat gelditua zen bezain ontsa, zenbait urte lehenago izaiten ahalko baitzen, hainbat zituen aphaintasun berak, Sagan-go printzearen ohaide dirdiratuena. Bakarrik haren baitan bilatua - Guermantes izenaren xoragarria - eta apur bat doi-doia aurkitua - Guermantes-ko ondarkin probinziar bat - nuenaren hartzeko ahalik etzuen. Gure adixkidantza gaizki-entzun batean oinarritua zen, agertzea huts egin ezpaitzezakeen ene gizamenak, hala zela uste zuen emazte hein batean gorari eskainiak izan orde, bertze emazte berdin bierarteko eta nahi gabean xoragarri bera emaiten zuenari eginak izanen ziren orduko. Gaizki-entzute hain ohikoa eta beti izanen dena gizon gazte ameslari eta munduko emazte baten

artean, baina hura barnatuki durduzatzen duena, bere idurimeneko indarrak zer diren oraino ezaguna eztueno, eta jenden ondoan, antzokian, bidaian eta maitasunean ere senditu behar dituen nahigabe ezin hutseginez etsi egina eztueno.

Guermantes-ko Jaunak errana ukanik (Elstir-en azparragoer eta oilasko "financière"-ren ondotik zerbitzatu berriak izanak zirener jarraikiz) azparrago muskerrak, airera jinak, eta, E. de Clermont-Tonnerre sinatzen duen idazle hautekoak hain jostagarriki dion bezala, "ezpaitute bere ahizpen gogortasun ustegabegarria", arraultzekin jan behar zirela, "Batzuer gustatzen zauenak bertzeak desgustatzen ditu eta *vice versa*, ihardetsi zuen Bréauté-ko Jaunak. Kanton-go probinzian, Xinan, etzauzue baratze-xori arraultze osoki ustel batzu baino janari hautekoagorik eskaintzen ahal." Bréauté-ko Jauna, Mormon-ez *Revue des Deux Mondes*-ean agertua zen lan baten egilea, etzabilan ingurune arixtokratenetan baizik, baina bakarrik adimenduko aiphamen zerbait bazutenetan. Hala nola nun haren izaitetik, bederen molde jarraiki batean, emazte baten etxean, jakiten baitzen hunek saloin bat bazuenez. Bazion mundua hastio zuela eta dukesa bakoitzari berezirik segurtatzen zaukon zuen izpirituaren eta edertasunaren gatik zuela ikusi nahi. Orok sinesten zuten. Parmeko prinzesaren etxean arratsaldi handi batera, hiltzeko gogoan, joaiteko etsia hartzen zuen aldi bakoitz, guziak jin-arazten zituen kuraia emaiteko eta etzen horrela bilkura min baten erdian baizik agertzen. Zuen adimendun omenak mundutarkeriaren ondotik iraun zezan, Guermantes-tarren izpirituko erregela batzu erabiliz, andere aphain batzuekin bazoan dantzaldien orduan jakitatezko bidaia luze batzuen egitera, eta jende handi-uste bat, beraz oraino munduko lerrorik gabe, orotara joaiten hasten ari zenean, abreki hisitzen zen hura ez ezagutu nahian, hari aitzineratua izaitera ez uztean. Handi-ustendako zuen herra bere handi-ustearen ondorioa zatekeen, baina xintxoer, erran nahi da mundu guziari, bera hartarik garbi zela sinets-arazten zauen.

- Babal-ek dena badaki! egin zuen Guermantes-ko dukesak. Xoragarri iduritzen zata han esneki-saltzaleak arraultze ontsa ustelak, izar adardunaren urteko arraultzeak saltzen dauzkitzun herri bat. Hemendik ikusten niz hetan ene zopa burratuaren bustitzen. Erran behar dut Madeleine (Villeparisis-ko Anderea) izabaren etxean gauza usteldu batzuen zerbitzatzea gertatzen dela, arraultzeak ere (eta Arpajon-go Anderea oihuz hasten baitzen): Hea, Phili, nik bezain ontsa badakizu. Xitoa jadanik arraultzean da. Eztakit ere han egoiteko nola diren aski pherestuak. Ezta moleta, oilategi bat da, baina bederen ezta janari zerrendan ezarria. Herenegun auhaltzera ez jinez ontsa egin duzu, errondo bat bazen fenol azidan! Etzuen mahiko zerbitzu bat iduri, baina khotsatu zerbitzu bat. Zinez, Norpois-ek leialtasuna baderama gizandi izaiterano: berriz hartu du!

- Uste dut haren etxean ikusi zitutala Bloch Jaun hari (Guermantes-ko Jaunak, behar bada izen izraeldar bati itxura atzerritarrago baten emaiteko, etzuen Bloch-en *ch* ahozkatu *k* bat bezala, baina alemanez *hoch*-tan bezala) atheraldi hura egin zaukonean errana baitzuen nik dakita zein *puetaz* ezin hobea zela. Châtellerault-ek zango hezurrak hausten ahal zauzkon Bloch Jaunari, hunek etzuen hartzen, eta uste zuen ene ilobaren belhaun ukhaldiak haren ondo-ondoan zen emazte gazte batendako zirela (hemen Guermantes-ko Jauna apur bat gorritu zen). Etzen

ohartzen bere "ezin hobe" nolanahika emanekin gure izaba aspertzen zuela. Hots, izaba Madeleine-k, ezpaitu mihia sakelan, ihardetsi dauko: "He, jauna, Bossuet-eko Jaunarendako zer atxikiko duzu bada?" (Guermantes-ko Jaunak uste zuen izen aiphatu baten ondotik atzizkia eta jauna baitezpada gobernu-molde zaharreko zirela.) Lekuaren ordaintzea balio zuen.

- Eta Bloch Jaunak zer ihardetsi du? galdegin zuen ohargabean Guermantes-ko Anderak, ordu hartan berezitasun eskasean, uste ukan baitzuen behar zuela senarraren ahozka-moldea kopiatu.

- Ha! Segurtatzen zitut Bloch Jaunak eztuela gaineratekoa galdegin, eta geroztik lasterrez doala.

- Baina ba, egun hartan ikusi zitutala biziki ontsa orhoit niz, erran zautan doinu azkartu batekin Guermantes-ko dukesak, orhoitzapen horrek haren aldetik ainitz lausengatu behar ninduen zerbait ukan balu bezala. Biziki ohargarri izaiten da beti ene izabaren etxean. Hain zuzen aurkitu zitutan azken arratsaldian, galdegin nahi nautzun gure ondotik iragan zen jaun zahar hura etzenez François Coppée. Izen guziak badazkikezu, erran zautan ene adixkidantza poetikendako gutizia zintzo batekin eta ere ene alderako maitagarritasunez, literaturan hain jakina zen mutiko gazte baten hobeki jartzeko bere gomiten begietan. Dukesari segurtatu naukon aurpegi omendunik batere enuela ikusirik Villeparisis-ko Anderearen arratsaldian. "Nola! erran zautan xoroki Guermantes-ko Andereak, hortik leteretako jendendako zuen errespetua eta munduaren erdeinua bazion baino azalekoagoak zirela aithortuz eta behar bada uste zuen baino ere, nola! idazle handirik etzen! Ustegabetzen nauzu, hainbertze buru bitxi bazen alta!

Biziki ontsa orhoit nintzan arrats hartaz, gertakari osoki ezteus baten gatik. Villeparisis-ko Andereak Bloch aitzineratua zaukon Alphonse de Rotschild Andereari, baina ene lagunak izena etzuen entzuna eta, ustez andere angeles zahar doi bat ero bati mintzo zen, etzaukon lehenagoko Ederrari silaba bakunez baizik ihardetsia, noiz ere Villeparisis-ko Andereak, bertze norbaiti aitzineratzean, errana baitzuen, aldi huntan garbiki: "Alphonse de Rotschild baronesa". Orduan bapatez Bloch-en zainetan miliunezko eta omenezko hainbertze gogoeta sartuak ziren, zuhurki berexiak izan behar ukanen zutenak, nun bihotzean ukhaldi bat bezala hartua baitzuen, burura odol-ukhaldi bat, eta andere zaharraren aitzinean errana: "Jakin banu!", hitz horren zozotasunak zortzi egunez lo egitea debekatua baitzaukon. Bloch-en hitz horrek balio guti zuen, baina orhoitean nuen, bizian batzuetan bihotz-hunkidura ohigabeko baten senditzean, gogoan dena erraiten delako lekukotasun bezala.

- Uste dut Villeparisis-ko Anderea eztela osoki… moralekoa, erran zuen Parmeko prinzesak, dukearen izabaren etxera etzela jendea joaiten baitzakien eta, hunek errana zuenetik, baitzakusan hartaz libroki mintza zaitekeela. Baina Guermantes-ko Andereak iduri baitzuen hori etzuela onhartzen, gaineratu zuen:

- Baina, hein hortan, adimenduak oro joan-arazten du.

- Baduzu ene izabaz orotara ukaiten den aburua, ihardetsi zuen dukesak, eta, ororen buruan, biziki hutsezkoa dena. Hori zen hain zuzen Mémé-k ez atzo baino lehenago erraiten zautana. (Gorritu zen, nitaz ezaguna etzen orhoitzapen batek

begiak lanhoztatu zauzkon. Egin nuen Charlus-ko Jaunak gomita ezezta ezatan galdegina zaukola, Robert-en ganik haren etxera joan enindadin othoitz-arazia ninduen bezala. Iduritu zizatan dukeak bere anaiaz ephe batez mintzatzean ukana zuen gorridura - bertzela ere enetako ezin adigarria - etzaikeela arrazoin beraren gain eman). Ene izaba gaixoa! Erresema-zaharreko norbaiten omena atxikiko du beti, izpiritu lilluragarri batena eta ahalgegabekeria ezin hezi batena; adimendu burjesagorik, seriosagorik, hitsagorik ezta. Ederlanen gerizatzaletzat hartua izanen da, erran nahi baitu margolari handi baten ohaidea izana dela, baina egundano eztauko margazki bat zer den harr-arazi ; eta haren biziaz den bezainbatean, jende galdu bat izaitetik urrun, hainbat zen ezkontzako egina, hainbat ezkontide sortua, nun, senarra ez atxiki ahal ukanik, gizatzar bat baizik ezpaitzen bertzela ere, adixkidantza bat ezpaitu ukan legezko ezkontza bezain serioski hartu eztuenik, minberatasun berekin, haserre berekin, leialtasun berarekin. Ohar zaite batzuetan horiek direla zintzoenak, senar baino maitale ezin konsolagarri gehiago bada oro har.

- Alta, Oriane, ikusazu hain zuzen aiphatzen ari duzun zure koinata Palamède; Charlus-ko Andere gaixo hura egina izan den bezala deitoratua izaiteaz amets egin dezakeen ohaiderik ezta.

- Ha! ihardetsi zuen dukesak, zure Goientasunak onhar dezala osoki haren aburuko izan enadin. Eztu mundu guziak molde berean deitoratua izan nahi, bakoitzak bere hautuak.

- Hala ere, hil denaz geroztik egiazko errespetu bat ukan du harendako. Egia da hilendako egiten direla batzuetan biziendako nehoiz eginen etziren gauza batzu.

- Lehenik, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak zuen xede trufariari kontra egiten zaukon doinu amesle batean, biziendako nehoiz egiten eztena! (Guermantes-ko Jaunak itxura maltzur batekin so egin zaukon Bréauté-ko Jaunari dukesaren izpirituaz irri egitera sustatzeko bezala.) Baina aithor du zintzoki, hasi zen berriz Guermantes-ko Anderea, gizon batez deitoratu izaitea agiantza nezakeena, eztela ene koinatarena.

Dukearen aurpegia ilundu zen. Emazteak aburuak nolanahika eman zitzan etzuen maite, oroz gainetik Charlus-ko Jaunaz. "Behakorra zira. Haren urrikia mundu guziak miretsi du", erran zuen doinu mokor batean. Baina dukesak bazuen senarrarekin hezlen edo ero batekin bizi diren eta haren khexatzeko beldur eztiren jenden ausartasun mota hura:

- He bada, ez, zer nahi duzu, errespetagarri da, eztut erraiten, egun oroz badoa hilherrira barazkaltzen zenbat jende ukanak dituen hari erraitera, handizki urriki du, baina gusi batek bezala, amatxi batek bezala, arreba batek bezala. Ezta hori senar baten dolua. Egia da bi saindu zirela, horrek dolua apur bat berezia egiten baitu. (Guermantes jaunak, emaztearen kalakaz nardatua, hartan itzatzen zituen gelditasun izigarri batekin ñiñika beteki kargatuak.) Ezta Mémé gaixoaz gaitz erraiteko, hasi zen berriz dukesa, nehor bezain ona dela aithortzen dut, ezin goxoago da, badu gizonek ohian eztuten gixakotasun bat, bihotz bat. Emazte baten bihotza da Mémé.

- Diozunak arrazoinik eztu, hautsi zuen bizi-bizia Guermantes-ko Jaunak, Mémé-k emekarakorik jeus eztu, nehor ezta hura baino gehiago gizon.

- Baina eztautzut den gutienik emakarakoa dela erraiten. Har ezazu bederen zer dutan erraiten, egin zuen berriz dukesak. Ha! hori, anaia norbaitek hunki nahi daukola uste duen orduko…, gaineratu zuen Parme-ko prinzesaren gana itzuliz.

- Biziki gixako da, entzuteko ezin goxoago. Elgar maite duten bi anaia baino ederragorik jeus ezta, erran zuen Parme-ko prinzesak, jende xehe ainitzek egina ukanen zuten bezala, ezen odolez printzerarra den familia batekoa izan daiteke eta, izpirituz, familia biziki xehekoa.

- Zure familiaz mintzo ginenaz geroz, Oriane, erran zuen prinzesak, atzo ikusi dut zure iloba Saint-Loup; zerbitzu bat galdegin nahi lukezula uste dut.

Guermantes Jaunak zimurtu zuen Jupiter baten bekaina. Zerbitzu baten egitea maite etzuenean, emazteak bere gain har zezan etzuen maite, berdin izanen zela jakinez eta dukesa haier eskatzera bortxatua izanen zen jendek menaia osoaren gain ezarriko zutela, senarrak bakarrik eskatua izana baliz bezain ontsa.

- Zergatik eztauta berak galdegin? erran zuen dukesak, atzo bi orenez egona da hemen, eta Jainkoak daki zein aspergarri izana den. Elizateke bertze baino ergelago ukan balu, munduko hainbertze jendek bezala, zozo egoiteko adimendua. Bakarrik jakitatezko latsun hori da izigarri. Adimendu ideki bat ukan nahi du… gogoan hartzen eztituen gauza guzietara idekia. Marrokaz mintzatzen zaizu, laztagarri da.

- Eztu hara itzuli nahi, Rachel-en gatik, erran zuen Foix-ko printzeak.

- Baina hautsia dutenez geroz, egin zuen artetik Bréauté-ko Jaunak.

- Hain guti dute hautsia nun duela bi egun aurkitu baitut Robert-en mutildegian, etzuten jende samurtu batzuen itxura, segurtatzen zitut, ihardetsi zuen Foix-ko printzeak maite baitzuen Robert-i ezkontza bat hutsegin-arazten ahal zauzkon erran-merran guzien hedatzea eta bertzela egiazki bururatua zen atxikimendu bateko berriz haste artekatuez enganatua izaiten ahal baitzen.

- Rachel hori zutaz mintzatua zata, artetan ikusten dut hola goizean Champs-Elysées-etan, halako goiarin bat da erraiten duzuen bezala, deskortxetatua deitzen duzuen bat, halako "Kameliekilako Andere" bat, itxuratuki, erran gabe doa. (Solas hori Von printzeak atxikia zautan nahi baitzuen literatura frantzesean eta xorroxkeria paristarretan jakina zela iduri ukan.)

- Hain zuzen, Marrokako da…, egin zuen prinzesak juntura hori berehala hartuz.

- Zer duke nahi Marrokako? galdatu zuen lardeki Guermantes-ko Jaunak; Orianek jeusik eta jeusik eztezake gauza hortan egin, ontsa badaki.

- Gerla-moldakuntza asmatua duela uste du, jarraiki zuen Guermantes-ko Andereak, eta gero hitz batzu bitxiak erabiltzen ditu den gauza ttipienendako, horrek ezpaitu bere eskutitzetan tatxak egiten dituela debekatzen. Joan den egunean, lur-sagar *ezin hobeak* jan dituela erran du, eta alokatzeko egongia *ezin hobe* bat edirena zuela.

- Latina mintzo du, erran zuen gainera dukeak.

- Nola, latina? galdegin zuen prinzesak.

- Zin-zinez! Andereak galda beza Orianeri sobera diotanez.

- Baina segurki, anderea, joan den egunean erran du gelditu gabe: "*Sic transit gloria mundi* hunkigarriagorik eztazagut"; erranaldia badiot zure Goinetasunari zeren eta hogei galde egin ondoan eta *hizkuntzalari* batzuer hel eginik, berriz moldatzera heldu baigira, baina Robert-ek igorri du hori hatsik hartu gabe, hortan latinik bazenez doi-doia berex zaitekeen, *Idurimenezko eria*-ko jokari bat iduri zuen! Eta hori guzia Austriako emperadoresaren heriotzeko emana zen!

- Gaixo emaztea! egin zuen prinzesak, zein jende ezin goxoagoa zen.

- Ba, ihardetsi zuen dukesak, apur bat xoroa, apur bat arrazoingabea, baina emazte biziki ona zen, xoro gixako biziki maitagarri bat, bakarrik ehoiz eztut hartu zergatik etzuen lekuan egoiten zen hortz-orde bat erosi, zuena erranaldien bururatzean beti erortzen zizakon, eta haren ez iresteko behar zituen moztu.

- Rachel hura zutaz mintzatu zata, Saint-Loup ttipiak biziki maite zinituela erran daut, hura baino maiteago ere, erran zautan Von printzeak, haur-jale bat bezala jaten ari zen batean, larruantzea gorri-bizi, betiereko irriak hortz guziak agertzen zizazkolarik.

- Baina orduan nitaz jelos dateke 'ta hastiatzen nauke, ihardetsi nuen.

- Ez batere, zutaz ongi ainitz erran daut, Foix-ko printzearen ohaidea zutaz behar bada jelos lizateke zu hari hautesten bazindu. Eztuzu hartzen? Itzul zaite enekin, hori guzia argituko dautzut.

- Ori, atzo galdegin-arazi daut gaur auhaltzera jin nadin, baina ez hamekak laurden gutitik hara. Baina haren etxera joan nahi baduzu, enekin zaugi bederen Antzoki-Frantzeserano, ingurunean izanen zira, erran zuen printzeak uste baitzukeen horrek "hurbil" edo "erdigunean" erran nahi zuela.

Baina haren begi zabalduek bere aurpegi gorri eder eta lodian izitu ninduten eta ezetsi nuen adixkide bat bila jin behar zizatala erranez. Ihardespen hori etzizatan laidagarri iduritzen. Printzeak bertze iduripen bat ukan zukeen, geroztik behin ezpaitzizatan mintzatu.

- Napoliko erreginaren ikustera joan behar dut hain zuzen, zer bihotzmina dukeen! erran zuen edo bederen iduritu zizatan errana zuela Parmeko prinzesak. Ezen hitz horiek etzizaztan garbiki helduak, Von printzeak biziki aphal alta, hurbilagotik, erranak zauztanen artetik, beldur izana baitzen behar bada, gorago mintzatzen baliz, Foix-ko Jaunaz entzuna izan zadin.

- Ha! ez, ihardetsi zuen dukesak, batere eztuela uste dut.

- Batere, beti gorenekoetan zira, Oriane, erran zuen Guermantes-ko Jaunak bere itsas-ezpondaren jokoa egiten zuela, uhainari ihardokiz, bere haun gandorraren gorago igortzera bortxatzen baitu.

- Basin-ek badaki nik baino ere hobeki egia diotala, ihardetsi zuen dukesak, baina zu hemen izanez itxura garratz batzu hartu behar dituela uste du eta eskandala eman dezazutan beldur da.

- Ho! ez, othoi, egin zuen prinzesak beldurrez eta haren gatik zerbait andeatua izan zadin Guermantes-ko dukesaren asteazken ezin goxoago horietan, Zuedako erreginak berak jastatzeko dretxoa oraino ukana etzuen fruitu debekatu hortan.

- Baina hari berari dauko ihardetsi, hark erraiten zaukolarik, aire arrunki trixte batean: "Baina erregina dolutan da; nortaz bada? dolumin bat dea Zure Maiestatearendako? - Ez, ezta dolu handi bat, dolu ttipi bat da, ttpi ttipi bat, ene ahizpa." Horrela loriatua dela da egia, Basin-ek biziki ontsa badaki, besta batera gomitatu gitu egun hartan berean eta bi perla eman dauzta. Ahizpa bat egun guziez gal lezan nahiko nuke! Eztu ahizparen hiltzeaz nigarrik, karkailetan irri egiten du. Badioke bere baitan, Robert-ek bezala, *Sic transit*, oizu gehiago eztakit, gaineratu zuen lañotasunez, nahiz biziki ontsa bazakien.

Bertzela ere Guermantes-ko Anderea hortan izpirituz ari zen, eta gainera gezurrez, ezen Napoliko erreginak, Alençon-go dukesak bezala, hura ere tragikoki hila, bihotz handia zuen eta bere familiakoez zintzoki nigar egin du. Guermantes-ko dukesak sobera ezagutzen zituen ahizpa noble bavierarrak, bere gusiak, horren ez jakiteko.

- Nahiko zuen Marrokara ez itzuli, erran zuen Parmeko prinzesak berriz hartuz haga bat bezala Guermantes-ko Andereak ontsa nahi gabean eskaintzen zaukon Robert-en izena. Uste dut Monserfeuil-go jenerala ezagutzen duzula

- Biziki guti, ihardetsi zuen aitzindari harekin adixkidantza minean zen dukesak. Prinzesak argitu zuen Saint-Loup-ek zer nahi zuen.

- Jainkoa, ikusten baldin badut… Aurki dezatan gerta daiteke, ihardetsi zuen, eza emaiten zuela ez iduritzeko, dukesak Monserfeuil-go jeneralarekin zituen adixkidantzak laster bekanduak iduri baitzuten hari zerbaiten galdegiteaz ari zenez geroztik. Ezpai hori etzizakon alta dukeari aski izan, emaztea moztuz erran baitzuen:

- Ontsa badakizu eztuzula ikusiko, Oriane, eta gero egin eztituen bi gauza eskatuak dauzkozu jadanik. Ene emazteak badu maitagarri izaiteko errabia hasi zen berriz dukea gero eta haserretuago, bere galdearen uztera prinzesaren bortxatzeko horrek dukesaren maitagarritasunaz duda-arazi ahal ukan gabe, eta Parmeko Andereak gauza dukearen jite izaitez aldikariaren gain eman zezan. Robert-ek nahi lukeena egin lezake Monserfeuil-ekin. Bakarrik, zer nahi duen ezpaitaki, gure bitartez galdegin-arazten du, gauzari hutsegin-arazteko ara hoberik eztela badakielakoz. Orianek sobera gauza badu Monserfeuil-i galdeginik. Haren galde bat orai, eza eman dezan arrazoin bat da.

- Ha! horrela bada, dukesak ezer egin eztezan hobe da, erran zuen Parmeko Andereak.

- Naturalki, bururatu zuen dukeak.

- Jeneral gaizo hori, bozketan oraino garhaitua izan da, erran zuen Parmeko prinzesak solasaren aldatzeko.

- Ho! ezta handi, ezta zazpigarren aldia baizik, erran zuen dukeak, berak politika utzi behar ukanik, bertzeren ophorrak aski maite baitzituen.

- Konsolatu da emazteari haur berri bat egin nahi ukanez.

- Nola! Monserfeuil-go Andere gaixoa berriz haur beharretan da, egin zuen prinzesak.

- Ba eiki, ihardetsi zuen dukesak, jeneral gaizoak ehoiz ophor egin eztuen *arrondizamendu* bakarra da.

Gero beti gomitatua izaitetik enintzan gelditu, jende bakar batzuekin baizik ezpazen ere, lehenago neure baitan gomitak Kapera-Sainduko Apostuluak bezala itxuratuak nituen aphairu horietara. Hor biltzen ziren alabaina, lehenbiziko girixtinoak bezala, ez bakarrik gauzazko janariaren uzitzeko, ezin hobea bertzela ere, baina halako Azken-Auhari gizarteko batean; hala nola nun auhari guti barne ene ostatzalen adixkide guzien ezagutza egin bainuen, adixkide horier aitzineratzen bainindaueten onginahi hain bereziarekin (betidanik aitama batzuen moldean hautetsirik ukana luketen norbait bezala) nun hetarik bat ezpaitzen duke 'ta dukesari huts eginen zauela uste ukanen etzuenik dantzaldi bat emana ukan balu ni gomiten zerrendan ezarr-arazi gabe, eta aldi berean, Guermantes-tarren sotoek zaduzkaten Yquem-etarik bat edanez, xori gizen batzu jakituz jaten nituen dukeak moldatzen eta zuhurki aldatzen zituen errezeten araura akomeatuak. Bizkitartean mahi miztikan aldi bat baino gehiagotan jarririk izana zen batendako, horien jatea etzen baitezpada beharrezkoa. Guermantes-ko Jaun-Anderen adixkide zahar batzu haien ikustera jiten ziren auhal-ondoan, "hortzen xahutzeko" erranen zuen Zuan Andereak, igurikatuak izan gabe, eta neguan tillula kikera bat hartzen zuten saloin handiko argien azpian, udan iranja-edari baso bat laur-kantoineko baratze ttipiaren buruko gauan. Ehoiz etzen Guermantes-tarren ganik, baratzeko arratsalde horietan, iranja-edaria baizik ezaguna izan. Erritual zerbait bazuen. Gainera bertze frexkagarri batzuen emaiteak ohidura gaixtatuko zuela idurituko zuen, Saint-Germain bazter-hirian saloin-besta bat gehiago saloin-besta ezten bezala, komedia bat edo musika baldin bada. Behar da, behazunez, norbait Guermantes-ko prinzesari xoilki - bortz ehun jende han izanik ere - ikustaldi baten egitera jiten dela uste izana dadin. Ene eragina miretsi zen iranja-edariaren gainera eman-arazi ahal bainituen gerezi egosi edari bat, madari egosi edari bat. Etxekotasun minean hartu nuen, horren gatik, Agrigente-ko printzea, hura, idurimenik, baina ez zikoiztasunik gabeko jende guziak bezala, edaten duzunaz miresten baitira eta hartarik xorta baten hartzea eskatzen baitautzute. Hala nola nun aldi oroz Agrigente-ko Jaunak, ene edari zatia ttipituz, atsegina andeatzen batzautan. Ezen fruitu jus hori nehoiz ezta egarriaren hausteko aski nasaiki izaiten. Jeusek eztu gostu batera fruitu baten margoaren aldatzeak bezain guti akhitzen, iduri baitu, egosirik, lilien sasoinera gibelatzen dela. Sagardoi bat primaderan bezain gorribizi, ala fruitu-onoden azpian haize ezti bat bezala kolorerik gabe 'ta hotx, edaria xortaz xorta usaintzera eta behatzera uzten da, eta Agrigente-ko Jaunak, aldi guziez, eninduen asetzera uzten. Fruitu edari horiek izanik ere, ohiko iranja edaria jarraiki zen tilula bezala. Itxura saindu laño horietan, gizarteko komunionea etzen gutiago egiten. Hortan, dudarik gabe, Guermantes-ko Jaun-Anderen adixkideak, lehenik asmatuak nituen bezala, haien kampoko itxurak uste ukaitera ekharriko ninduen baino ezperdinagoak geldituak ziren hala ere. Jende zahartu ainitz heldu zen dukesaren etxean, betiko edariarekin batean, ongi-ethorri usu guti amultsu baten ukaitera. Bada, etzaitekeen izan handi-ustez, berak nehor gorago etzen lerro batekoak izanez; ez aberaskeria maitez ere: maite zuten behar bada, baina, gizarteko lerro ttipiago batzuetan, miragarriko bat ezagutzen ahalko zuten, ezen, arrats ber horietan, dirulari aberats-aberats baten emazte xoragarriak

ahal zuen guzia eginen zuen Espainiako erregerendako bi egunez emanen zituen ihizi lilluragarri batzuetan haien ukaiteko. Eza emana zuten bizkitartean eta jinak ziren zer gerta ere Guermantes-ko Anderea etxean zenez ikustera.

Hor osoki berek zituztenen araberako aburuen aurkitzeaz etziren segur ere, edo sendimendu bereziki bero batzuen. Guermantes-ko Andereak bazematzan batzuetan Dreyfus aferaz, Errepublikaz, erlisionearen kontrako legez, edo ere, erdi-ahapeka, hetaz berez, haien narrioez, haien solasaren aspergarriaz, etzituztela hautemaiten alegia egin behar zuten gogoeta batzu. Dudarik gabe, hor izaiteko ohidura bazatxikaten, ahoxuri mundutarraren jendetasun xorroxtez zen, gizarteko janariaren balio oso eta lehenaren ezagutze argiaz, gostu on etxekotuarekilakoaz, segurtagarriaz, nahasterik gabeaz, ez andeatuaz, haren ethorkia eta ixtorioa baitzakiten zerbitzatzen zauen emazteak bezain ontsa, hortan berek zakiten ere baino "nobleago" gelditua. Bada, auhal-ondoan haier aitzineratua izan nitzaien ikuslierr horien artean, halabeharrak egin zuen han zela Parmeko prinzesak aiphatua zuen Monserfeuil-go jeneral hura eta Guermantes-ko Andereak, haren saloineko ohituetarik bat zelarik, arrats hartan jin beharra zela etzakiena. Ene izenaren entzutean, ene aitzinean gurtu zen, gerlako Konseilu nagusiko buruzagia izan banintz bezala. Uste ukana nuen ikustategabekeria barnatu zenbaitez bakarrik, eta hartako dukea izpirituko bezala - maitasuneko ezpazen ere - bere emaztearen gogaide izanez, zaukola dukesak Monserfeuil-go Jaunari bere ilobaren gomendatzea abantzu ezetsia. Eta banakusan hor ezaxoltasun bat are gehiago ogenduna nun Parmeko prinzesak joaitera utzi hitz batzuetarik uste ukana bainuen Roberten egon-lekua lanjerosa zela eta handik alda-araztea zuhurtzia. Baina Guermantes-ko Anderearen egiazko gaixtakeriaz nintzan sumindua izan, Parmeko prinzesak herabeki eskainirik bera mintzatuko zizakola jeneralari eta bere gain, dukesak ahal ukan zuen guzia egin zuenean hortarik Goientasunaren baztertzeko.

- Baina, Anderea, egin zuen, Monserfeuil-ek eztu gobernu berriarekin den gutieneko ahal eta indar motarik. Ezpataz uraren joitea lizateke.

- Entzun ahal ginezazkeela uste dut, murmurikatu zuen prinzesak dukesa aphalago mintzatzera gomitatuz.

- Eztadila Zure Goientasuna jeusen beldur izan, eltze bat bezain elkorra da, erran zuen mintzoa aphaldu gabe dukesak, jeneralak garbiki entzun baitzuen.

- Uste baitut Saint-Loup-eko Jauna eztela leku biziki segurtagarri batean.

- Zer nahi duzu, ihardetsi zuen dukesak, mundu guzia den bezala da, hara joaitea berak galdegina duelako ezperdintasunarekin. Eta gero, ez, ezta lanjeros; hori ezpaliz hartaz artha har nezakeela ontsa badakizu. Auhaltzean Saint-Joseph-i aiphatuko naukon. Biziki indardunagoa da, eta langile bat! Ikusten duzu, joana da jadanik. Gainera hunekin baino gutiago minbera lizateke, hirur seme Marrokan baititu hain zuzen eta haien aldatzea ezpaitu galdegin nahi ukan; hori kontra ihardets lezake. Zure Goientasunak nahi duenaz geroz, aiphatuko daukot Saint-Joseph-i, ikusten badut, edo Beautreillis-i. Baina eztitut ikusten, Robert etzazula sobera urriki ukan. Nun zen joan den egunean argitua daukute. Nihun elizatekeela hobeki uste dut.

- Zer lili pollita, nehoiz enuen berdinik ikusia, zu baizik ezta, Oriane, horrelako mirarik ukan dezakeenik! erran zuen Parmeko prinzesak, Monserfeuil-go jeneralak dukesa entzuna ukan zezan beldurrez, solasaren aldatzea bilatzen baitzuen. Ezagutu nuen Elstir-ek ene aitzinean margotuak zituen motako landaretarik bat.

- Gusta zaizkitzun loriatua niz; xoragarriak dira, ikusazu horien balusa malba-kolorezko lepho inguru ttipia; bakarrik, jende biziki pollit eta biziki aphaindu batzuer gerta lakidiekeen bezala, izena itsusia dute eta usaina gaixtoa. Hori izanik ere, biziki maite ditut. Baina apur bat trixe dena, hilen direla da.

- Baina eltzean dira, eztira lili moztuak, erran zuen prinzesak.

- Ez, ihardetsi zuen irriz dukesak, baina berdin heldu da, andereak baitira. Andereak eta jaunak ondo berean izaiten eztiren landare mota dira. Zakur eme bat duten jendeak bezala niz. Senar bat behar nuke ene liliendako. Hori gabe eztute umerik ukanen!

- Zein bitxi den. Baina beraz naturalezan…

- Bai, mamutxa batzu badira ezkontzaren egitea bere gain hartzen dutenak, erregendako bezala, ordaintzaz, ezkongaiek ehoiz elgar ikusi ukan gabe. Hitzemaiten dautzut beraz ene mutilari gomendatzen daukotala ene landarea ahal duen bezainbat leihoan ezar dezan, noiz korroil aldean, noiz baratze aldean, baitezpadako mamutxa ethorriko delako ustean. Baina hainbateko halabeharra galda lezake horrek! Gogoari emazu, mota bereko eta sesu bereko norbaiten ikustera joana izan beharra luke hain zuzen, eta etxean karta batzuen ezartzera jiteko ideia ukana. Ezta hunarano ethorria, uste dut ene landarea beti arrosa lili izaiteko gai dela, ahalgebabe doi bat laketago nukeela aithortzen dut. Oizu, ene korroilan den zuhatz eder hori bezala da, haurrik gabe hilen da gure herrietan biziki bekan den mota bat baita. Hunendako, haizea da batzearen egiteaz kargatua, baina harresia apur bat goregi da.

- Alabaina, erran zuen Bréauté-ko Jaunak, behar ukanen zinuen zentimetra batzuez bakarrik aurdik-arazi. Egitea jakin behar den lan batzu dira. Arestian zerbitzatu daukuzun hormaki hautekoan zen banilla usaina, dukesa, banillondoa deritzoten landare batetik dathor. Horrek lore arrak eta emeak egiten ditu bada, baina halako paret gogor batek, bien artean jarriak, harreman oro debekatzen du. Nehoiz etzen beraz fruiturik ukaiten ahal, Réunion-ean jaio beltz gazte Albins deitu batek, hori, artetik erraiteko, aski irrigarri baita beltz batendako "zuri" erran nahi duenaz geroz, itze ttipi batez lagunduz alderdi berexien harramenetan ezartzeko ideia ukan zuen egunerano.

- Babal! loriagarri zira, oro badakizu, egin zuen dukesak.

- Baina, zuhaurek, Oriane, uste enituen gauza batzu ikasi dauztazu, erran zuen prinzesak.

- Erranen daukot Zure Goientasunari Zuan zaitala landare-jakitateaz ainitz mintzatu. Aldi batzuez, the batera edo goizaldi batera joaiteak sobera nardatzen ginituenean, baserrira abiatzen ginen eta erakusten zauztan loren artean ezkontza batzu ohigabekoak, hori jenden ezkontzak baino biziki jostagarriago baita, eztei-aphairu eta sankristurik gabe. Ontsa urrun joaite beharrik ehoiz etzen. Orai

beribilak baitira, xoragarri lizateke. Zorigaitzez artean berak ezkontza bat egin du oraino biziki ustegabegarriagoa eta oro neke egiten duena. Ha! anderea, gauza laztagarria da bizia, dembora eremaiten da aspertzen zituzten gauza batzuen egiten, eta noiz ere, halabeharrez, gauza ohargarri batzuen ikustera harekin joaiten ahal zen norbait ezagutzen baita, Zuanen ezkontza egin behar ukaiten du. Landaretan ibilaldien uztearen eta jende desohoragarri batekin ibiltzera bortxatua izaitearen artean, bi helgaitz horietan lehena hautatu dut. Bertzela ere, azkenean, elizateke hoin urrun joaite beharrik. Ene baratze puxka ttipian egun betean, gauaz… Boulogne-ko oihanean baino gauza behar ez bezalako gehiago gertatzen omen da! Bakarrik ezta hortaz ohartzen lilien artean hori biziki lañoki egiten delakotz, eurixka iranja-kolore bat ikusten da, edo uli biziki erhaustatu bat bere oinen xahutzen edo duxa baten hartzen lili batean sartu baino lehen. Eta oro egina da!

- Landarea gainean ezarria den komoda miragarria da ere, Imperioko da, ene ustez, erran zuen prinzesak, Darwin-en eta haren ondokoen lanekin guti etxekotua izanez, dukesaren jostakerien erran-nahia gogoan gaizki hartzen baitzuen.

- Eztea hala, ederra da. Andereari gusta zakidion loriatua niz, ihardetsi zuen dukesak. Gauza ezin ederrago bat da. Erranen dautzut Imperioko estiloa beti adoratu dutala, modan etzen orduan ere. Orhoit niz Guermantes-en ene amaginarrebaz gaitzets-arazia izan nintzala errana bainuen behar zirela hegazpetik jautsi Basin-ek Montesquiou-tarren ganik ondorez ukanak zituen Imperioko muble miragarriak, eta bizi nintzan hegala hetaz mubleztatua bainuen.

Guermantes-ko Jaunak irriño bat egin zuen. Orhoit zaitekeen alta gauzak molde biziki ezperdinean iraganak zirela. Baina Laumes-ko prinzesaren jostakeriak bere amaginarrebaren gostu gaitzaz ohikoak izanik printzea bere emazteaz amoros izana zen ephe laburrean, bigarrenaren alderako maitasunaren ondotik irauna zuen lehenbizikoaren izpiritu ttipiagoaren erdeinuak, bertzela aitxikimendu eta errespetu ainitzekin batzen zena.

- Iena-tarrek badute jargia bera Wedgwood zati lotu batzuez aphaindua, ederra da, baina nahiago dut neurea, erran zuen dukesak bi muble horietarik bat ere ukan ezpalu bezalako itxura alderdigabe berarekin; aithortzen dut bertzela nik eztitutan gauza mireskarriak badituztela.

Parmeko prinzesa ixilik egon zen.

- Baina egia da, Zure Goientasunak eztu haien bilduma ezagutzen. Ho! enekin aldi batez baitezpada jin behar luke. Parisko gauza ederr-ederrenetarik bat da, bizia balukeen erakustoki bat.

Eta eskaintza hori dukesaren ausartzia gehienik Guermantes zirenetarik bat baitzen, Iena-tarrak Parmeko prinzesarendako zuzenkontra hartzale huts batzu zirelakoz, haien semeak baitzadukan, bereak bezala, Guastalla-ko duke titulua, horrela emaitean Guermantes-ko Anderea ezin egon zen (bere berezitasunarendako zuen maitasunak oraino hainbat zuen garhaitzen Parmeko prinzesaren alderako adeia) bertze gomiter behako jostatu irriñodun batzu igorri gabe. Haiek ere irriño egitera indar egiten zuten, aldi berean izituak, miretsiak, eta oroz gainetik loriatuak Oriane-ren "azkenaren" lekukoak zirela gogoan, eta "bero-beroa" erranen ahalko zutela. Etziren erdi harrituak baizik, jakinez dukesak bazuela aitzin-gogamen

Courvoisier-tar orori ukho egiteko antzea biziko ongi heltze jostakinago eta xoragarriago batendako. Etzuena, azken urte horietan, Mathilde prinzesarekin batua Aumale-ko dukea, hunek izkiribatua zaukolarik prinzesaren anaiari berari delako eskutitz aiphatua: "Ene familian gizon guziak bihoztunak dira eta emazte guziak kastoak"? Bada, printzeak printze gelditzen baitira hala direla ahatzi nahi dutela iduri dutenean ere, Aumale-ko dukea eta Mathilde prinzesa hainbat ziren elgar gustatu Guermantes-ko Anderearen etxean nun bat bertzearen etxera joan baitziren gero, Luis XVIII-garrenak erakutsi zuen iraganaren ahazteko dohain harekin minixtrotzat hartu zuenean haren anaiaren hiltzea bozkatua zuen Fouché. Guermantes-ko Anderea Murat prinzesaren eta Napoliko erreginaren elgarretara hurbiltzeko xede berean zen. Anartean, Parmeko prinzesak iduri zuen Herri-Aphal eta Belgikako koronaren ondokoak, nor bere aldetik Orange-ko printze 'ta Brabant-eko duke, izanen ziren bezainbat eragozpenean, aitzineratu nahi ukan balitzaiete Mailly-Nesle-ko Jauna, Orange-ko printzea, eta Charlus-ko Jauna, Brabant-eko dukea. Baina lehenik dukesak, Zuan eta Charlus-ko Jauna (nahiz hau Iena-tarren ez ezagutzera deliberatua zen) neke handitan helduak baitzizazkon azkenean Imperioko estiloaren maita-araztera, egin zuen:

- Anderea, zintzoki, ezin erran dezauzuket zenbat eder idurituko zaizun! Imperioko estiloak beti ainitz hunkitu nauela aithor dut. Baina, Iena-tarren etxean lilluramendu bat bezala da zinez. Egiptoko armada-itzuliaren, nola erranen dautzut, halako … uhain-itzultze hori, eta ere gutarano Zaharraroaren berrigaite hori, gure etxetarano hedatzen den hori guzia, jargien zangoetan jartzera heldu diren Gizalehoinak, gandelabretan biribilkatzen diren sugeak, gaitzeko Musa bat zuzi ttipi bat eskaintzen dautzula eraki-untzitan jostatzeko, edo gozoki zure khebidera igana eta zure erloiari ukhondoz emaiten dena, eta gero Pompei-arako girisailu guziak, untzi moldeko ohe ttipiak Nil-ean aurkituak izan direla iduri baitute eta hetarik Moises jalgitzen ikusiko dela uste baita, laur zaldizko karro zahar horiek ohe-mahien luzara laurhazka …

- Ezta ontsa jarria izaiten Imperioko mubletan, ausartu zen erraitera prinzesa.

- Ez, ihardetsi zuen dukesak, baina maite dut, gaineratu zuen irriño batekin hisituz, maite dut gaizki jarria izaitea zurgorrizko jarleku balusa grenataz edo zeta muskerrez estali horietan. Maite dut kadera kurula onhartzen eztuten gerlarien goxatasungabe hori eta, saloin handi baten erdian, harma-haxeak gurutzaten zituztenean eta ohorezko erramuak metatzen. Segurtatzen zitut, Iena-tarren etxean, nola jarria izaiten den ephe batez eztela gogoari emaiten, bere aitzinean ikusten denean Bitoria handi bat harresian margazkitua. Senarrak erregetiar ontsa gaixtoa aurkituko nau, baina gogamen biziki gaixtokoa niz, badakizu, segurtatzen zitut jende horien etxean N horien guzien, erle horien guzien maitatzerano joaiten dela. Jainkoa, erregen menean, zenbait dembora baitzen ezkinela loriaren aldetik biziki gastatuak, jargien besoetarano ezartzen zituzten hainbertze korona bazekhartzaten gerlari hek, horrek guziak zerbait aphain baduela iduritzen zait! Zure Goientasunak behar luke.

- Jainkoa, hala uste baduzu, erran zuen prinzesak, baina uste dut eztela errex izanen.

- Baina Andereak ikusiko du guzia biziki ontsa akomeatuko dela. Biziki jende onak dira, ez zozoak. Chevreuse-ko Anderea hara ereman dugu, gaineratu zuen dukesak etsempluaren indarra baitzakien, xoratua izana da. Semea biziki goxagarri da ere… Erranen dutana ezta biziki behar den bezalakoa, gaineratu zuen, baina badu gambara bat eta oroz gainetik ohe bat hartan lo egin nahi baitzinezake - hura gabe! Gutiago behar ez bezalakoa dena oraino, aldi batez haren ikusten izana nizala da eri zelarik eta etzana. Haren ondoan, ohe hegian, bazen Itsas-andere luze bat hedatua, nakarazko buztan batekin, eta eskuan halako lotoz batzu badaduzkana. Segurtatzen dautzut, gaineratu zuen Guermantes-ko dukesak, - elhea emekituz bere ezpain eder mutturtuez, esku luze errankorren ardatz-araz moldatzen zituela iduri zuen hitzen oraino hobeki agerian ezartzeko, prinzesaren gainean so ezti, geldi eta barnatu bat lotzen zuen batean, - palmetekin eta ondoan zen urrezko koronarekin, hunkigarri zela, Gustave Moreau-ren *Gizon Gaztea eta Herioa*-ko antolamendua zen osoki (Zure Goientasunak nagusi-lan hori ezagutzen duke segurki.)

Parmeko prinzesak, margolariaren izena ezagutzen ere etzuenak, burua bortizki higitu zuen eta suharki irriño egin margazki hori zenbat miresten zuen erakustera emaiteko. Baina haren jestu jokoaren indarra etzen heldu zertaz mintzatu nahi den eztakiguno gure begietan ezten argi haren ordaintzera.

- Mutiko pollita da, ene ustez? galdegin zuen.

- Ez, tapir baten itxura baitu. Begiak argi-estalgi bateko Hortense erregina batenak bezalatsu dira. Baina uste ukan duke eite horren hedatzea gizon batendako apur bat irriengingarri izanen zela, eta mameluk baten itxura bademakoten matela ankoztikatu batzuetan nahasten da. Sendi da goiz guziez thorratzalea joaiten zakola. Zuan, egin zuen berriz duke gaztearen ohera itzuliz, Itsas-andere horrek Gustave Moreau-ren *Herioa*-rekin duen eiteaz joa izana da. Baina bertzela, gaineratu zuen doinu lehiatuago baina serios batean, gehiago irri egin-arazteko, joak izaiteko arrazoinik eztugu, marranta bat baitzen, eta mutiko gaztea osagarri ezin hobean da.

- Handi-ustea dela diote? galdegin zuen Bréauté-ko Jaunak itxura gaizki-nahi, suhartu batekin eta "Esku eskunean laur erhi baizik etzuela errana dautate, egia dea?" errana ukan balu bezain zuzentasun bera igurikatuz ihardestean.

- Mm… Jainkoa, e…ez, ihardetsi zuen Guermantes-ko Jaunak irriño barkakor ezti betekin. Behar bada itxuraz apurño bat handi-ustea, gaxte-gaxtea baita, baina egiazki hala izaiteaz ustegabe nindaike, adimenduna baita, gaineratu zuen, haren aburuz handi-ustea eta adimendua elgar ezin adigarriak izan balire bezala. Xorrotxa da, jostagarri ikusia dut, erran zuen oraino itxura ahoxuri eta ezagule batekin, norbaitez jostagarri dela erraiteak alaitasunaren itxura zerbait hartu behar ukan balu, edo ordu hartan Guastalla-ko dukearen atheraldiak gogora itzultzen balizazko bezala. Gainera, munduan ezpaita hartua, handi-uste horrek erabiltzerik eluke, egin zuen berriz Parmeko prinzesa etzuela horrela biziki sustatzen ohartu gabe.

- Guermantes-ko printzeak, "Iena Anderea" deitzen baitu, zer erranen duen galdez nago, haren etxean izana nizala jakiten badu.

- Baina nola, egin zuen ohigabeko bizitasun batekin dukesak, badakizu guk daukogula utzi Gilbert-i (orai hortaz azkarki urriki zuen) Quiou-Quiou-ren ganik

ukana ginuen Imperioko joko-sala oso bat eta mira bat dena! Hemen lekurik etzen haren etxean baino hobeki emaiten zuelarik alta. Gauza bat osoki ederra da, erdi etrusko, erdi egiptiar…

- Egiptiar? galdegin zuen prinzesak etruskok gauza guti erraiten baitzaukon.

- Jainkoa, biak apur bat, Zuanek hori erraiten zaukun, argitu dauta, bakarrik, badakizu, gaizo jakitate gabe bat niz. Eta gero ororen buruan, Anderea, erran behar dena, Imperioko estiloko Egiptoak ezer ikustekorik eztuela egiazko Egiptoarekin, ez haien Erromatarrek egiazko Erromatarrekin, ez haien Etruriak…

- Zinez! erran zuen prinzesak.

- Baina ez, Bigarren Imperioan Luis XV jantzia deitzen zena bezala da hori, Mouchy-ko Anaren gaztaroan ala Brigode maitearen amarenean. Arestian Basin Beethoven-ez mintzo zizaizun. Joan den egunean gauza bat joiten zaukuten, bertzela biziki ederra, apur bat hotza, hartan baita aire errusiar bat. Hori errusiar uste zuela hunkigarri da. Eta berdin margolari xinatarrek uste ukan dute Bellini kopiatzen zutela. Bertzela herri ber batean ere, norbaitek gauzak molde apur bat berrian ikusten dituen aldi oroz, jendetako laur laurdenek eztute erakusten dezteenetan izpirik ikusten. Berextera hel daitentzat berrogei urte behar dira bederen.

- Berrogei urte! egin zuen prinzesak harritua.

- Baina ba, hasi zen berriz dukesa, gero eta gehiago hitzen gainera emanez (abantzu ene hitzak zirenak, ideia berdintsu bat emana bainuen hain zuzen haren aitzinean), ahozka-moldeari esker, hizki imprimatuetan "italika" deitzen denaren ordaina, halako norbait lehenbiziko berezi bat bezala da oraino izaiterik eztuen eta populkatuko den mota batekoa, haren aroan giza-motak eztuen *zentzu* mota batez dohatua den norbait. Nihaurez guti mintza naiteke, nik, aldiz, beti hatsarretik maitatu ditutalakoz agerpen ohargarri guziak, ziren berriak izanik ere. Baina hala ere joan den egunean izana niz dukesa handiarekin Louvre-an, Manet-en *Olympia*-ren aitzinetik iragan gira. Nehor ezta orai hortaz ustegabetzen. Ingres-en zerbait iduri du! Jainkoak daki alta zenbat gudukatu behar ukan dutan oro gustatzen etzaitan, baina segurki norbaitena den margazki horrendako. Haren lekua ezta behar bada osoki Louvre-an.

- Ontsa da, dukesa handia? galdegin zuen Parmeko prinzesak kzarraren izaba Manet-en modela baino ainitzetan etxekotuago baitzizakon.

- Bai, zutaz mintzatu gira. Azkenean, hasi zen berriz dukesa, bere aburuari atxikia baitzen, egia, ene koinata Palamède-ek dion bezala, nor beraren eta jende bakoitzaren artean hizkuntza arrotz baten harresia badela da. Gainera hori nehorez eztela Gilbert-ez bezainbat zuzen aithortzen dut. Iena-tarren etxera joaitea jostagarri bazaizu, izpiritu sobera baduzu zure egintzen ezartzeko gizon gaizo horrek gogoan ukaiten ahal duenaren menean, jende maite ogengabe bat dena, baina bertze mundu bateko ideia batzu dituena oro har. Ene karrosazainarekin, ene zaldiekin hurbilago sendi niz, odol berekoago, beti Filipe Harditaren edo Luis Gizenaren aroan gogatuko zenari dagon gizon horrekin baino. Emazu gogoari, baserrian dabilanean, laborariak itxura onon batekin baztertzen dituela, bere makilaz, erranez: "Zoazte, petzeroak!" Mintzo zaitanean ilharri gothikoetako

"gizaiduri etzanak" eni mintzatzen entzuten banitu bezain ustegabetua niz ondarrean. Harri bizidun hori ene gusia izaiten ahal da, izitzen nau eta ideia bat baizik eztut, bere ertaroan uztekoa. Hori salbu, nehoiz eztuela nehor erahil aithortzen dut.

- Hain zuzen harekin auhaldu berria niz Villeparisis-ko Anderearen etxean, erran zuen jeneralak, baina irriñorik gabe eta dukesaren jostakerien alde izan gabe.

- Norpois-ko Jauna han ote zen? galdegin zuen Von prinzeak, beti Jakintza moraletako Akademia baitzuen gogoan.

- Bai, erran zuen jeneralak. Zuen emperadoreaz mintzatu da ere.

- Gillome emperadorea biziki adimenduna omen da, baina Elstir-en margazkiak eztitu maite. Eztiot bertzela hori haren kontra, ihardetsi zuen dukesak, haren ikus-moldearekin bat niz. Nahiz Elstir-ek egina duen ene potret eder bat. Ha! eztuzu ezagutzen. Ezta idurikoa, baina bitxi da. Egonaldietan bera ohargarria da. Halako atso zahar bat bezala egina nau. Hals-en *Ospitaleko Erreientsak* imitatzen ditu. Gauza ezin ederrago horiek ezagutzen dituzula uste dut, ene ilobak maite duen hitz baten hartzeko, erran zuen ene gana itzuliz bere aireztagailu luma beltzekilakoa arinki inharros-arazten zuen dukesak. Bere kaderan zuzen baino zuzenago, burua gibelera nobleki igortzen zuen, ezen beti andere handi zen batean, apurño bat andere handiarena egiten baitzuen. Erran nuen lehenago Amsterdam-en eta La Haye-n izana nintzala, baina guziaren ez nahasteko, aldia mugatua bainuen, Haarlem bazterrera utzia nuela.

- Ha! La Haye, zer erakustokia! egin zuen Guermantes-ko Jaunak. Erran naukon Vermeer-en *Delft-eko Ikuspegia* miretsia zukeela. Baina dukeak urgulu baino jakitate gutiago zuen. Aski izan zizakon beraz, handikeriazko itxura batekin, orhoitzen etzen erakustoki bateko ederlan bat edo Saloin bat aiphatzen zizakon aldi oroz bezala, eni ihardestea: "Ikusteko baldin bada, ikusia dut"!

- Nola! Holandako bidaia egin duzu, eta etzira Haarlem-en izan? egin zuen dukesak. Baina oren laurden bat baizik ukan ezpazinu ere, ikusia izaiteko ohigabeko gauza bat dira Hals-ak. Gogotik erran nezake tramu baten galeriatik gelditu gabe baizik ikus ahal elezazkeen norbaitek, kampoan ezarriak balire, begiak zabal-zabalik ideki behar lituzkeela.

Hitz horrek ofensatu ninduen etzuelakotz ezagutzen eder lanetako iduripenak gure baitan nola diren moldatzen, eta gure begia berehalako iduri batzuen hartzale xoila baizik eztela entzutera utzi nahi zutela iduri baitzuten.

Guermantes-ko Jaunak, dukesa ohargarri zizaztan gauza batzuez hoinbertze jakitaterekin mintzo zizatalakoz zorionean, bere emaztearen trebetasun aiphatua ikusten zuen, Frans Hals-ez ziona entzuten, eta gogatzen: "Orotan azkar baino azkarrago da. Ene gomit gazteak bere baitan erran dezake aitzinean duela lehenagoko andere handi bat hitzaren erran-nahi osoan, eta gaurregun bigarren bat ezten bezalakoa." Horrela nituen biak ikusten, behin, bizi ezin asmagarri baten eremaiten itxuratzen nituenak, orai bertze gizon eta emazten berdinak, bakarrik bere arokidetarik apur bat gibelean, baina ez hein berean, Saint-Germain bazterhiriko hainbertze senarr-emazte bezala hetan emazteak ukana baitu urre aroan gelditzeko antzea, gizonak iraganeko aro goxagaitzekora jausteko zorigaitza, hura

Luis XV-garreneko geldituz oraino, senarra ospatsuki Luis-Filipe delarik. Guermantes-ko Anderea bertze emazteak bezalakoa zela, enetako nahigabe bat izana zen lehenik, orai gibel-oldarrez, eta hoinbertze arno onek lagunduz, mira bat zen. Austriako Don Juan bat, Este-ko Izabela bat, guretako izenen munduan jarriak, Méséglise-ko aldea Guermantes-ko aldearekin bezain guti gurutzatzen dira ixtorio handiarekin. Este-ko Izabela dudarik gabe biziki prinzesa ttipia izan zen egiazki, Luis XIV-garrenaren aroko gortean lerro berezirik batere ukaiten etzutenen idurikoa. Baina, guri izaite bakar batekoa iduritzen baitzaiku eta, beraz, paregabekoa, eztezakegu asma hura baino handitasun ttipiagokoa zela, hala nola nun Luis XIV-garrenarekin auhari batek balio zerbait bazuela idurituko baitzizaikun bakarrik, Este-ko Izabelaren baitan aldiz gertatuko ginenean, naturaz goitiko aurkitaldi batez, gure begietan elhaberriko emalehen baten ikusten. Bada, Este-ko Izabela ikhertuz, pairamenekin mirazko mundu hortarik ixtoriokora aldatuz, ikusi ondoan haren biziak, haren gogamenak ezer etzadukala haren izenak adi-araztera emana zaukun mixteriozko arroztasunetik, nahigabe hori iretsi ondoan, esker on mugagabeko bat zor daukogu prinzesa horri ukan baititu, Mantegna-ren margazkiaz, ezagutza batzu, ordu arteo gutietsiak eta Françoise-ek erranen zuen bezala "lurra baino beherago" ezarriak ginituen Lafenestre Jaunarenen heinekoak abantzu. Guermantes izenaren goratasun ezin helduetara igana izan ondoan, dukesaren biziko malda barnekoaren jaustean, sendi nuen, han Victor Hugo-ren, Frans Hals-en eta, ondikotz, Vibert-en izen etxekotuen aurkitzean, bidaiari batek duen ustegabetze bera, Erdi-Amerikako edo Iphar-Afrikako ibar basa bateko bizimolden asmatzeko lurraldearen urruna, landare izenen bitxitasuna khonduan harturik, aurkitzen dituenean, gaitzeko zabilen edo manzenillondoen erridaua iragan eta, jende batzu (batzuetan ere antzoki erromatar baten eta Benuz-i eskaini zutabe baten hondakinen aitzinean) *Mérope* edo *Alzire*-ren irakurtzen ari. Eta, hain urrun, hain baztertua, ezagunak nituen burjestsa jakinak baino hainbat gorago, Guermantes-ko Andereak, abantailik gabe, handi-nahizko arrazoinik gabe, nehoiz ezagunen etzituenen heinera jausteko haren bidez indar egina zuen kultura berdintsuak, bazuen gizon politikari edo mediku baten baitan zakarki feniziarretako jakitate baten, ezin erabilia izaitearan bortxaz abantzu hunkigarriaren berezitasun merezigarria.

- Bat biziki ederra erakusten ahalko nautzun, erran zautan maitagarriki Guermantes-ko Andereak Hals batez mintzatuz, ederrena, diote jende batzuek, eta gusi aleman baten ganik ondorez ukana dutana. Zorigaitzez jauregian "feodatua" gertatu da; eztuzu hitz hori ezgutzen? nik ere ez, gaineratu zuen, ohidura zaharrez, baina haier jakingabean gogorki atxikia zenez jostakeria egiteko (hetaz aro berrikoa zela uste baitzuen) zuen gostuarekin. Ene Elstir-ak ikusi baitituzu zorion dut, baina gehiago ere banukeela aithor dut, ene Hals-aren, margazki "feodatu" haren ohoreak egin ahal banauzkitzu.

- Ezagutzen dut, erran zuen Von printzeak, Hesse-ko duke handiarena da.

- Hain zuzen, haren anaiak ene arreba ezkondua zuen, erran zuen Guermantes-ko Jaunak, eta bertzela ere haren ama Oriane-ren amaren lehen gusia zen.

- Baina Elstir Jaunaz den bezainbatean, gaineratu zuen printzeak, erraitera ausartuko niz, ezagutzen eztitutan haren lanez abururik ukan gabe, emperadoreak harendako duen herrak eztuela ene ustez haren kontra atxikia izan behar. Emperadorea adimendu mireskarrikoa da.

- Bai, bi aldiz harekin auhaldu niz, aldi bat ene izaba Sagan-en etxean, aldi bat Radziwill ene izabarenean, eta bitxi aurkitu dutala erran behar dut. Etzata lañoa iduritu! Baina bada zerbait jostagarri, "ukana" den zerbait (erran zuen dukesak hitza bereziz) julufre musker bat bezala, erran nahi da ustegabetzen nauen eta izigarriki gustatzen etzatan zerbait, egin ahal izaitea ustegabekoa den zerbait, baina egin ahal ukan ezpaliz berdin ontsa lizatekeela iduritzen zatana. Etzitut agian ofensatzen?

- Emperadoreak adimendu ezin zinetsia badu, egin zuen berriz printzeak, ederlanak suharki maite ditu; badu hetako gostu bat zerbait moldez ezin hutsegilea, nehoiz eztu huts egiten: gauza bat ederra baldin bada, berehala ezagutzen du, eta herran hartzen du; zerbait hastio badu, dudarik ezta ukan behar, ezin hobea da.

Guziek irriño egin zuten.

- Segurtatzen nauzu, erran zuen dukesak.

- Emperadorea gompara nezake gogotik Berlin-en dugun arxeologa zahar bati, egin zuen berriz printzeak, arkeologa hitzaren ahozkatzen (erran nahi da "keologa" izkiribatua baliz bezala) ez jakinez ezpaitzuen hartaz baliatzeko aldi bat galtzen. Aziriako eraikuntza zaharren aitzinean arxeologa zaharrak nigar egiten du. Baina aro berriko trafikatutik bada, eztu egiten. Orduan, arxeologiako gauza bat zinez zaharra denez jakin nahi baldin bada arxeologa zaharrera ekhartzen da. Nigar egiten badu, gauza erakustokiko erosten da. Begiak idor gelditzen bazazko, saltzalearen etxera itzultzen da eta falsukeriaz jaukitzen zako. He bada, Postdam-en auhaltzen nizan aldi bakoitz, emperadoreak "Printzea, hori ikusi behar duzu jeinueriaz betea da" erraiten baldin badauta, gogoan atxikitzen dut, hara joaitetik begiratzeko, eta erakustaldi baten kontra erasian entzuten baldin badut, ahal dutan orduko hara laster egiten.

- Norpois ez ote da Angeles eta Frantzesen hurbiltzearen alde? erran zuen Guermantes-ko Jaunak.

- Zer balio luke? galdegin zuen Von printzeak itxura aldi berean haserretu eta maltzur batekin Angelesak ezpaitzezazkeen jasan. Hain dira zozoak. Ontsa badakit laguntza elezazuketela gerlari bezala eman. Baina hala ere bere jeneralen zozotasunetik estima daitezke. Ene adixkidetarik bat berriki mintzatu da Botha-rekin, badakizue, Boerr-en buruzagia. Erraiten zaukon: "Laztagarri da horrelako armada bat. Bertzela maite ditut, izaitekotz, Angelesak, baina ondarrean gogoari emazue nik, baserritar bat baizik enizanak, gudutaldi guzietan zafratu ditutala. Eta azkenean, etsaialde hogei aldiz handiago baten azpian amor emaitera nindoanean, ukan dut oraino bi mila presonerren egiteko indarra! Baserritarren buruzagi bat baizik enintzalakoz izan da bada, baina nehoiz asto hek behar balute egiazko armada europatar batekin gudukatu, zer gerta laitekeen gogoratuz haiendeko ikharatzen da!" Bertzela ere, aski duzu ikustea haien errege, nik bezala ezagutzen duzuna, gizon handi batentzat hartzen dela Angeleterran.

Doi-doia nituen ixtorio horiek, Norpois-ko Jaunak aitari erraiten zauzkonen motakoak entzuten; maite nituen ametserier etzauen hazkurririk batere ekhartzen; eta bertzela, hetaz gabe zirenak ukan balituzte ere, ontsa sustatzaleak izan beharko zuten ene bizi barnekoa atzar ahal zadintzat, larru azalean bizi nintzan oren mundutar horietan, ileak ontsa orraztatuak, athorra papoarekilakoa, erran nahi da, enetako, bizian, atsegina zenetik ezer sendi enezakeenetan.

- Ha! eniz zure aburuko, erran zuen Guermantes-ko Andereak, printzeak artezia eskas zuela iduritzen baitzizakon, Eduard errege xoragarria aurkitzen dut, hain laño, eta uste den baino ontsa xorrotxago. Eta erregina, orai ere, munduan dazagutan jende ederrena da.

- Baina, dukesa *anterea*, erran zuen printzeak sumindua eta etzela gustatzen ohartu gabe, bizkitartean Galesko printzea jende xoil bat izan baliz, bilkura bat ezta marratua elukeenik eta nehork etzuen hari eskuaren hunkitzea onhartuko. Erregina loriagarria da, ezin gehiago ona eta gogo-hertsia. Baina zerbait ofensagarri bada menekoez egiazki horni-arazten den erret-pare hortan, berak egin behar lituzkeen gastu guziak dirulari judu gotorrer paga-arazten dituenean, eta hek ordainez "baroinet" izendatzen. Bulgariako printzea bezala da…

- Gure gusia da, erran zuen dukesak, izpiritua badu.

- Enea ere, erran zuen printzeak, baina eztugu hortako uste gizon *un* bat dela. Ez, gutarik zinukete behar hurbildu, emperadorearen gutizia handiena da, baina nahi du hori bihotzetik jin dadin; nahi dutana esku tinkaldi bat da, dio, ez xapel ukhaldi bat! Horrela ezin garhaituak zintazke. Norpois-ko Jaunak pheredikatzen duen hurbiltze frantzes-angelesa baino egin-errexago lizateke.

- Ezagutzen duzu, badakit, erran zautan dukesak solasalditik kampoan ez uzteko. Orhoituz Norpois-ko Jaunak errana zuela hari eskuan musu eman nahitan iduri izana nintzala, ixtorio hori Guermantes-ko Andereari errana zaukokeela gogatuz eta, zer nahi den, etzizakola nitaz gaizki baizik mintzatua, aitarekin zuen adixkidantza izanik ere, irriegingarri ene egiteko dudan egona etzenaz geroz, munduko gizon batek eginen zuena enuen egin. Norpois-ko Jauna hastiatzen zuela erranen zuen eta sendi-araziko zaukon; erranen zuen embaxadorearen gaitzerranen nahizko arrazoina zela, ezpaitziren orduan gezurrezko mendekatze abantail-nahi batzu baizik izanen. Erran nuen, aldiz, neure urriki handitan, Norpois-ko Jaunak eninduela maite uste nuela. "Ontsa hutsean zira, ihardetsi zautan Guermantes-ko Andereak. Biziki maite zitu. Galdatzen ahal daukozu Basin-i. Maitagarriegi izaiteko omena emaiten badautate, hura ezta hala. Erranen dautzu nehoiz eztugula Norpois entzun norbaitez zutaz baino gixakokiago mintzatzen. Eta berrikitan nahi ukan dautzu minixterioan kargu gozagarri bat eman. Jakin baitu ez ontsan zinela eta onhar etzinezakeela, ukan du ezin gehiago estimatzen duen zure aitari bere xede onaren ez aiphatzeko ere jendetasuna." Haren ganik laguntza bat igurikatu nuen azken jendea zen bada Norpois-ko Jauna. Egia dena da, trufaria eta aski gaizki-nahia ere izanez, haritz baten azpian justizia emaiten ari zen San Luis baten haren itxuretan, haren aho beharrira soberaxko goxotik jalgitzen ziren elhen soinu errex urrikalduetan ni bezala hartzera utziak zirenek zinezko fede gaixto bat zela uste zutela, haien alderako gaitzerran bat jakiten zutenean bere bihotza elhetan ezartzen

zuela iduri zuen gizon baten ganik. Gaitzerran horiek aski usu ziren haren baitan. Baina horrek etzuen adixkidantza batzuen ukaitetik debekatzen, maite zituenen gorestetik eta haiendako zerbitzura ekharria izaiten atsegin ukaitetik.

- Estimatzen zituelakoak enau ustegabetzen, erran zautan Guermantes-ko Andereak, adimenduna da. Eta biziki ontsa gogoan hartzen dut, gaineratu zuen bertzerendako, ezagutzen enuen ezkontzeko xede bati aieru eginez, ene izaba, ohaide zahar bezala jadanik biziki jostatzen eztuena, ezkontide berri bezala debaldekoa iduri zakidion. Are gehiago nun uste baitut, ohaide ere, baduela aspaldi eztela hala, eta debozionean urtua da. Booz-Norpois-ek Victor Hugo-ren neurthitzetan bezala erran dezake:

Aspaldi du harekin lo egin dutanak ohantza,
Oi Jaun ona, dautala zurearentzat utzia!

Zinez ene izaba gaixoa aitzin-guardiako artixta hek bezala da, bizi guzian Akademiaren kontra ari izan ondoan, azkenera, bere akademia ttipi berezia jartzen baitute; edo sotana utzi ondoan beretako erlisione berezi bat bermoldatzen dutenak bezala. Beraz, jantziaren atxikitzea hobe zen, edo elgarrekin ez juntatzea. Eta nork daki, gaineratu zuen dukesak itxura ameslari batean, aitzinetik alhargungoaren ikustez izan daiteke. Jasan eztaitezkeen doluak baino trixteagorik jeus ezta.

- Ha! Villeparisis-ko Anderea Norpois-ko Andere bilakatzen baliz, uste dut Gilbert gure gusia eri laitekeela, erran zuen Saint-Joseph-ko jeneralak.

- Guermantes-ko printzea gixakoa da, baina, sortzeko eta etiketako gauzer biziki atxikia, erran zuen Parmeko prinzesak. Bi egunen iragaiten izana niz haren etxean baserrian prinzesa zorigaitzez eri zelarik. Ñimiñoaz (Hunolstein-go Andereari emaiten zizakon izangoitia zen, izigarri lodia zelakoz) lagundua nintzan. Printzea igurikatzera jin zata aitzin-harrimail beherera, besoa ezkaini daut eta Ñimiñoa ikusten ezpalu bezala egin du. Lehen estaira saloinetako sartzerano igan gira eta orduan han, sartzera ene uzteko baztertuz, erran du: "Ha! egunon Hunosltein-go Anderea" (nehoiz eztu horrela baizik deitzen, berexia denez geroztik), alegia etzuela orduan baizik Ñimiñoa ikusten, beherean haren agurtzera jiterik etzuela erakusteko.

- Horrek enau batere ustegabetzen. Zuri erraite beharrik eztut, erran zuen dukeak ezin gehiago aro berriko zela uste baitzuen, nor nahi baino gehiago sortzearen gutiesle, errepublikar ere, ene gusiarekilako ideiarik ainitz eztutala. Anderea jelos daiteke elgar entzuten dugula nunbait han egunak eta gauak bezala. Baina erran behar dut ene izaba Norpois-ekin ezkontzen baliz, aldi bateko Gilbert-en aburuko nintzatekeela. Guise-ko Florimond-en alaba izaitea eta horrelako ezkontza baten egitea, erraiten den bezala, oiloer irri egin-arazteko lizateke, zer nahi duzu erran dezautzutan? (Azken hitz hauk, ohian erranaldi baten erdian emaiten zituenak, osoki debaldekoak ziren hor. Baina bazuen horien erraiteko behar betierekoa, errantza baten azkenera igorr-arazten zauzkona bertze nunbait lekurik ediren ezpazuten. Harendako, bertze gauza batzuen artean, hitz neurtzeko gai bat bezala zen.) Ohar zaite, gaineratu zuen, Norpois-tarrak aitorenseme on batzu direla, leku onekoak, ethorki onekoak.

- Oizu, Basin, eztu balio Gilbert-ez trufatzea gero hura bezala mintzatzeko, erran zuen Guermantes-ko Andereak harendako sortze baten "onezia", ez arno batena baino gutiago, Guermantes-ko printzearen eta dukearendako bezala, haren zahartasunean baitzatzan zuzen-zuzena. Baina, bere gusia baino gutiago zintzoa eta senarra baino xorrotxagoa, solastatzean etzuen Guermantes-tarren izipiritua ukhatu nahi eta bere elhetan lerroa gaitzesten zuen egintzez ohoratzekotan.

- Baina etzireztea ere apur bat gusiak? galdegin zuen Saint-Joseph-ko jeneralak. Iduritzen zata Norpois La Rochefoucauld batekin ezkondua zela.

- Ez batere molde hortan. La Rochefoucauld-eko duken abarretik zen, ene amatxi Doudeauville-ko duketarik. Edouard Coco, familiako gizon zuhurrenaren amatxi bera da, ihardetsi zuen zuhurtziaz ideia apur bat azalekoak zituen dukeak, eta bi abarrak eztira Luis XIV-garrenaz geroztik elgarretaratu; urrunxko lizateke.

- Ori, ohargarri da, enakien, erran zuen jeneralak.

- Bertzela ere, egin zuen berriz Guermantes-ko Jaunak, ama, uste dut, Montmorency-ko dukearen arreba zuen eta La Tour d'Auvergne batekin ezkondua. Baina Montmorency horiek doi-doia baitira Montmorency, eta La tour d'Auvergne horiek ez batere La Tour d'Auvergne, horrek lerro handi bat emaiten daukola eztakusat. Badio, gehiago lizatekeena, Saintrailles-etik jausten dela, eta hartarik zuzen jausten baigira…

Bazen Combray-n ehoiz berriz gogoan ukana enuen Saintrailles-ko karrika bat. Bretoineria-ko karrikatik bazeraman Xoriaren karrikara. Eta Saintrailles, Jeanne d'Arc-en lagun hark, Guermantes batekin ezkonduz familia hortan sarr-arazia baitzuen Combray-ko kondatea, haren harmek Guermantes-tarrenak laurdenkatzen zituzten Saint-Hilaire-ko eliza-berina baten beherean. Berrikusi nituen harri pikorkatu beltzezko mail batzu, doinuz aldatze batek Guermantes izen hori lehen entzuten nuen doinu ahatzira ekhartzen zuen batean, gau hartan haien etxean auhaltzen ari nintzan ostatzale maitagarriak erran nahi zituenetik hain ezperdina. Guermantes-ko dukesaren izena enetako ororen izena baldin bazen, etzen hori bakarrik ixtorioan, ukana zuten emazte guzien emendatzetik, baina ere ene gaztaro labur guzian, jadanik ikusiak baitzituen, Guermantes-ko dukesa bakar hortan, hainbertze emazte ezperdin metatzera jiten, bakoitza itzaltzen zela ondokoak aski bermetasun hartua zuenean. Izenak eztira hainbertze mendetan urte zenbaiten ephean baino gehiago guretago erran-nahiz aldatzen. Gure orhoita eta gure bihotza leial ahal izaiteko eztira aski handiak. Gure oraiko gogoan eztugu aski leku bizien ondoan hilen atxikitzeko. Aitzinean izana denaren gainean eraikitzera bortxatuak gira eta lur zilatze bateko ustegabean, Saintrailles izenak egin berria zuenaren motakoan baizik berraukituko eztugunean. Horren guziaren argitzea debalde iduritu zizatan, eta ere, apur bat lehenago, errangabean gezurra emana nuen Guermantes-ko Jaunak "Zure herrixka eztuzu ezagutzen?" galdegina zautanean ez ihardetsiz. Bazakien ere behar bada ezagutzen nuela, eta ikustatez baizik izan ezpaliz ere, etzen hisitu. Guermantes-ko Andereak athera ninduen ene ametseriatik.

- Nik hori guzia nardagarri aurkitzen dut. Oizu, ezta beti ene etxean hoin aspergarri. Itxarotzen dut berriz laster auhaltzera jinen zirela ordainaldiz, ethorkirik gabe aldi hortan, erran zautan erdi-ahapetik dukesak, haren etxean aurkitzen ahal

nuen xoragarri motaren hartzeko ahalik gabean eta landare desmodatuez bete belartegi bat bezala eni gustatzeko lañotasunaren.

Ene igurikian Guermantes-ko Andereak nahigabetzen zuela uste zuena, aldiz, azkenera - dukea eta jenerala ezpaitziren ethorkiz mintzatzetik gelditu - ene arratsaldia nahigabetze oso batetik salbatzen zuena zen. Nolaz enuen bat orai arteo senditua ukanen? Auhariko gomit bakoitzak urrundik haren azpian bakarrik ezaguna eta amestua nuen izen mixteriozkoa ezagutzen nituen jende guzien gorputz eta adimendu berdin edo aphalago batez bitxiki jantziz, emana zautan *Hamlet*-en irakurle suhartu orori Elseneur-ko portu danesean sartzeak eman dezokeen arruntasun gezazko iduripena. Dudarik gabe zuhazti eta ezkila dorre gothiko batzu bere izenean ezartzen zituzten lurreko eremu horiek eta iragan zahar horrek moldatuak zituzten, neurri batean, haien aurpegia, izpiritua eta aitzin-gogamenak, baina etziren hetan gelditzen eman duen arrazoina ondorioan bezala baizik, erran nahi da adimenduko agerr-araz ahalak behar bada, baina idurimenari ez batere sendigarriak.

Eta lehenagoko aitzin-gogamen horiek itzuli zaueten bapatez Guermantes-ko Jaun-Anderen adixkider galdua zuten poesia. Eiki, aitorensemek bereak dituzten goga-gaiak eta hetaz hizkuntzako leteradunak, hitz-erro biltzaleak egiten dituztenak, ez hitzetan baina izenetan (eta oraino burjesiako erdi-neurri jakitate gabeari doakonaz bakarrik, ezen, bierartekotasun berdinean, elizatiarr bat gogo libro bat baino gehiago gai izanen da zuri liturgiaz ihardesteko, eta aldiz aphezen kontra den arkeologa batek ainitzetan bere erretora garhaitu ahalko du hunen elizarekin berarekin ikustekorik duen guzian), gogo-gai horiek, egian gelditu nahi badugu, erran nahi da izpirituan, jaun handi horiendako etzuten burjes batendako ukanen zuten gozagarritasuna ere. Bazakiten behar bada nik baino hobeki Guise-ko dukesa Clèves-ko prinzesa zela, Orléans-goa, Porcien-goa eta bertze, baina ezaguna zuten, izen horiek guziak ere baino lehen, Guise-ko dukesaren begitartea, ordutik, izen horrek itxuratzen zauena. Ni mixteriozko anderetik abiatua nintzan, laster suntsitu behar bazuen ere, hek, emaztetik.

Burjesiako familietan ikusten dira batzuetan bekaizkeriak sortzen ahizpa gaztena zaharrena baino lehen ezkontzen baldin bada. Berdin arixtokraziako munduak, Couvoisier-tarrenak gehienik, baina Guermantes-tarrenak ere, bere nobleziako handitasuna etxeko nagusitasun xoil batzuetara ttipitzen zuen, lehenik liburuetan ezaguna nuen (zuten xoragarritasun bakarra hura zen) haurkeria baten indarraz. Tallemant des Réaux-ek eztua Guermantes-tarrez ari dela iduri Rohan-darren ordez, gozaldi ageri batekin dionean nola Guéménée-ko Jaunak oihu egiten zaukon anaiari: "Hunara sartzen ahal hiz, eztuk Louvre-a!" eta Rohan-go zaldunaz erraiten (Clermont-eko dukearen seme baxtarta zelakoz): "Hura, bederen, printze da!" Solasaldi hartan penatzen ninduen gauza bakarra hau zen: Luxembourg-eko duke gazte xoragarriaz egiten ziren ixtorio arrazoingabeak saloin hortan Saint-Loup-en lagunen ondoan bezain ontsa sinesten zirela ikustea. Zinez izurrite bat zen, bi urte baino gehiago etzuena behar bada iraunen, baina orotara hedatzen zena. Gezurrezko ixtorio berak berriz hasi ziren, bertze batzu gaineratu zizezteen. Hartu nuen Luxembourg-eko prinzesak berak, bere iloba zaintzen zuelako itxurarekin,

haren jaukitzeko harmak hornitzen zituela. "Hura zainduz huts egiten duzu", erran zautan Guermantes-ko Jaunak Saint-Loup-ek egina zuen bezala. "Oizu, utz dezagun gure ahaiden aburua, ororena baita, mintza gaiten hartaz haren sehier, hek baitira azkenean hobekienik ezagutzen gituztenak. Luxembourg-eko Andereak emana zaukon ilobari bere beltx ttipia. Beltxa nigarrez itzuli da: "Duke-handiak ni jo, ni ez gaixtoa, duke-handia gaixtoa." Xoragarri da. Eta jakinean erraiten ahal dut, Oriane-ren gusia da.

Ezin dezaket erran, gainera, zenbat aldiz arratsaldi hortan entzun nituen gusi eta gusia hitzak. Alde batetik, Guermantes-ko Jaunak, Oriana-ek erraiten zuen abantzu izen bakoitzen egiten zuen: "Baina Oriane-ren gusi bat da!" oihan batean galdua den gizon batek duen bozkario berarekin irakurtzen duenean bi marra-puntten buruan, kontrako aldera ezarriak plaka erakusle batean eta kilometra zenbaki biziki ttipi bat ondotik: "Belvédère Casimir-Périer" eta "Croix du Grand-Veneur", eta hortik bide zuzenean dela gogoan hartzen. Bertzalde, gusi eta gusia hitz horiek xede osoki bertzelako batean (salbuespen egiten zuela) erabiliak ziren Turkiako embaxadoresaz, auhal-ondoan ethorria baitzen. Handi-nahi mundutarraz ithoa, eta gauzen beretzeko adimendu egiazko batez dohatua, errextasun berarekin ikasten zituen Hamar Milakoen erretira ala xorietan sesuko gaizkira emaitea. Hutsean haren hartzea ezin izanen zen lan aleman berrienetan, gaia ukana zezaten ekonomia politikaz, erotasunez, eskuzkatzeko molde bereziez, ala Epikuren filosofiaz. Entzuteko emazte lanjerosa zen gainera, ezen, beti hutsean, emazte arin baino arinago batzu bezala emaiten zauzkitzun bertute ezin gaitzerran batzu, xede garbienekilako gizon baten kontra guardian ezartzen zinituen, eta liburu batetik atheratzen direla iduri duten ixtorioak erraiten zituen, ez duten seriosaren gatik, baina itxuragabekoak izaitearen.

Aro hartan munduan guti onhartua zen. Bazabilan aste batzuez Guermantes-ko dukesa bezalako emazte osoki distiratu batzuen etxean, baina, orotara, familia biziki nobletan, gelditua zen, bortxaz, Guermantes-tarrak haiekin gehiago ibiltzen ere etziren abar guti ezagutu batzuetan. Uste zuen osoki munduko itxura ukanen zuela bere adixkideak zituen jende guti onhartu batzuen izen handiak aiphatuz. Berehala Guermantes-ko Jauna, usu haren etxean auhaltzen ziren jende batzuez ari zela ustez, herri ezagunean aurkitzeaz bozkariotan daldaratzen zen eta elgarretara biltzeko oihu bat emaiten zuen: "Baina Oriane-ren gusi bat da! Neure sakela bezain ontsa badazagut! Vaneau karrikan bizi da. Ama Uzès-ko Anderaurena zuen." Embaxadoresa bortxatua zen behazuna ihizi ttipiagoetarik hartua zuela aithortzera. Guermantes-ko Jaunarener bere adixkiden estekatzera entseatzen zen, huni zeharka berriz lotuz: "Badakit biziki ontsa nor erran nahi duzun. Ez, eztira horiek, gusi batzu dira." Baina embaxadoresa gaizoak emaiten zuen gibelera egiteko erranaldi hori berehala erortzen zen. Ezen Guermantes-ko Jaunak, nahigabetua, ihardesten zuen: "Ha! beraz, eztakusat nor erran nahi duzun." Embaxadoresak etzuen hitzik erraiten, ezen ehoiz ezpaldin bazituen behar zirenen "gusiak" baizik ezagutzen, ainitzetan gusi horiek etziren ahaideak ere. Gero, Guermantes-ko Jaunaren ganik, "Baina Oriane-ren gusia da" andana berri bat zen, hitz horiek iduri baitzuten bazutela Guermantes-ko Jaunarendako, erranaldi bakoitzean, poeta latinendako

izenlagun erabil errex batzuen balio berdina, bere sei-neurrikoendako daktilo edo ezpondeo bat emaiten baitzaueten.

Bederen "Baina Oriane-ren gusia da" horren zartatzea osoki egokia iduritu zizatan Guermantes-ko prinzesaz, hura dukesaren ahaide biziki hurbila baitzen alabaina. Embaxadoresak iduri zuen prinzesa hori etzuela maite. Erran zautan aphal-aphala: "Zozoa da. Bana ez, ezta hain ederra. Omena zuzenkontra hartua da. Eta ere, gaineratu zuen doinu aldi berean gogoetatu, higun eta deliberatu batean, azkarki aihergarri zata." Baina ainitzetan ahaidegoa biziki urrunago hedatzen zen, Guermantes-ko Andereak eginbidez "ene izaba" erraiten baitzauen Luis XV-garrenerano igan gabe bederen harekilako arbasorik edirenen etzizauen jende batzuer; berdin-berdina ere aroetako zorigaitzak miliardunsa bat printze zenbaitekin ezkontzen zuen aldi oroz, hunen okhilasoak, Guermantes-ko Anderearenak bezala, Louvois-en alaba bat ezkondua zuelarik Amerikanosaren bozkarioetarik bat, Guermantes-ko hotelera lehenbiziko ikustaldi bat egiten zuen orduko, han bertzela ere guti edo aski ontsa hartua baitzen eta guti edo aski hurbildik ikhertua, Guermantes-ko Andereari "ma tante" erran ahal ukaitea zen, hunek erraitera uzten baitzuen ama baten irriñoarekin. Baina Guermantes-ko Jaunaren eta Beauserfeuil-go Jaunarendako "sortzea" zer zen jakiteaz guti axolatua nintzan; gai hortaz zuten solasaldietan, enuen poesiazko atsegin bat baizik bilatzen. Berek hori zer zen ezagun ukan gabe, emaiten zautaten laborari edo itsasturi batzuek laborantzaz edo arraineriaz mintzatzean eginen zuten bezala, gauza horiek haietarik gutiegi baitira bereziak hartzea nik neure gain hartzen nauen edertasuna berek hetan jastatu ahal ukaiteko.

Batzuetan, arraza batez baino gehiago, gertakari berezi batez, urte batez, zuen izen batek orhoit-arazten. Guermantes-ko Jaunaren entzutean Bréauté-ko Jaunaren ama Choiseul zela orhoit-arazten eta haren amatxi Lucinge, uste ukan nuen ikusten nituela, perla botoin xoilekilako athorra arruntaren azpian, bi krixtailezko borobilen barnean odoletan erlika adeigarri hauk: Praslin-go Anderearen bihotza eta Berri-ko dukearena; bertze batzu atseginkoiago ziren, Tallien Anderearen ileak ala Sabran-go Anderearenak.

Aldi batzuez banakusana etzen erlika xoil bat. Haien arbasoak zer izanak ziren bere emaztea baino jakinduruago, Guermantes-ko Jauna, haren solasaldiari zinezko nagusi-lan ezagunik gabeko baina margazki egiazko, bierarteko eta maiestatedunez bete 'ta horrek guziak handi egiten duen egoitza zahar baten itxura eder bat emaiten zaukoten orhoitzapen batzuen jabe gertatzen zen. Agrigente-ko prinzeak galdeginik zergatik X…-ko printzeak, Aumale-ko dukeaz mintzatzean, errana zuen "ene osaba", Guermantes-ko Jaunak ihardetsi zuen: "Haren amaren anaiak, Wurtemberg-eko dukeak, Luis-Filiperen alaba bat ezkondua zuelakoz." Orduan beha egon nindagon arka oso bati, Carpaccio edo Memling-ek margazkitzen zituztenen berdinari, lehenbiziko berexkunetik, han prinzesa agertzen baitzen bere anaia Orléans-ko dukearen ezteietan, baratzeko zaia xoil bat soinean, harendako Syracuse-ko printzearen eskuaren bila joanak ziren embaxadoreak gibelera igorriak ikusirik zuen omore gaixtoaren erakusteko, azkenerano, han mutiko batez amatu berria baita, Wurtenburg-eko dukeaz (oraietan harekin

auhaldua nintzan printzearen osaba bera), "Faintaisie"-ko jauregi hartan, familia batzu bezain arixtokraziakoak diren lekuetarik bat: hek ere, gizaldi batetik haratago iraunez, badakusate jende gotor bat baino gehiago haier lotzen; hortan bereziki bizi dira elgarren ondoan Bayreuth-eko margrabearen orhoitzapenak bere senarraren jauregia laket zela erraiten zizakon bertze prinzesa (Orléans-ko dukearen arreba) doi bat aldekari harenak, Baviera-ko erregerenak, eta azkenik X…-ko printzearenak, hain zuzen haren helbidea izanez, hara izkiriba zezon galdegin berria baitzaukon Guermantes-ko dukeari, ezen ondorez ukana zuen eta ez Wagner-en agerraldietako baizik alokatzen, Polignac-eko printzeari, bertze "burukerialari" ezin goxoago bat. Guermantes-ko Jauna, Arpajon-go Anderearen ahaide nola zen argitzeko, hain urrun eta hain xoilki, hirur edo bortz emazte arbasoen zerrendaren eta esku batuen bidez, Marie-Louise-rano edo Colbert-erano igaitera bortxatua zenean, gauza bera zen oraino: aldi horietan guzietan, ixtorioko gertakari handi bat etzen artetik agertzen maskatua, itxuraldatua, hertsitua baizik, etxe baten izenean, emazte baten izen ttipietan horrela hautatuak Luis-Filiperen eta Maria-Ameliaren albabitxia zelakotz, horiek ez gehiago Frantziako errege 'ta erregina bezala edukiak, baina bakarrik, aitatxi-amatxi bezala ondore bat utzi zuten neurrian. (Ikusten da, bertze arrazoin batzuen gatik, hartan *Giza-komedia*-rekin dituzten loturen gatik bakarrik jende aiphatuenak agertzen diren Balzac-en laneko izendegi batean, Napoleon Rastignac-ek baino leku ontsa ttipiago baten edukitzen, eta hori bakarrik Cinq-Cygne-ko anderaurener mintzatua delakotz.) Horra nola duen arixtokraziak, bere egitura dorpean, leiho bekan batzuez zilatuan, sartzera argi guti uzten duenean, eraikuntza erromanaren airatze eskas bera derakusanean, baina ere indar phizu eta itsu bera, ixtorio guzia hesten, harresistatzen, mokortzen.

Horrela gure orhoiteko eremuak apurka apurka izenez betetzen ziren, hauek, ordenuan emanez, batzu bertzeri buruz, elgarren artean gero eta gehiago lotura jarriz, imitatzen zituzten berezia den izpirik eztuten, zati bakoitzak aldizka izaiteko arrazoina bertzetarik ukaiten duen eta berea hetan ezartzen duen ederlan hek.

Luxembourg-eko Jaunaren izena berriz tapizara jinik, Turkiako embaxadoresak khondatu zuen haren emazte gaztearen aitatxik (irinetarik eta pastetarik bildu gaitzeko fortuna hura zuena) Luxembourg-eko Jauna barazkaltzera gomitaturik, hunek eza emana zuela eskutiz estalgian ezarr-arazirik: "***-ko Jaun eiherazaina", aitatxiak horri ihardetsia baitzuen: "Jin ahal izana etzaiaten are gehiago lastimatua niz, nun zutaz etxekotasunean gozatu ahalko bainuen, ezen bilkura ttipian ginen eta ezpaitzen auharian eiherazaina, haren semea eta zu baizik izanen." Ixtorio hori etzen bakarrik enetako hastiagarri bainakien ene Nassau-ko Jaun maiteak zuen moraleko ezina emaztearen aitatxiri izkiritua ukaiteko (haren ganik ondoretua izanen zela jakinez) hura "eiherazain" deituz; baina zozokeria lehenbiziko hitzetan beretan begiatara jauzten zen, eiherazain izena agerikiegi ezarria izanez La Fontaine-ren alegiako izenburuaren ekhartzeko. Baina Saint-Germain bazter-hirian hainbertzetaranoko ñukukeria bada, gaizki-nahiak larritzen duenean, nun bakoitzak "ontsa igorria" zela aurkitu baitzuen eta aitatxiak, guziek berehala erran baitzuten konfienxiaz gizon ohargarri bat zela, bere suhi ttipiak baino izpiritu gehiago bazuela. Châtellerault-eko dukeak ixtorio hortaz baliatu nahi

ukan zuen kafean entzuna nuenaren khondatzeko: "Jende guzia etzatera zoan", baina lehenbiziko hitzetan beretan eta errana ukan zuenean Luxembourg-eko Jaunaren nahikaria, haren emaztearen aitzinean, Guermantes-ko Jauna zuti zadin, dukesak gelditu zuen eta goraki iharduki: "Ez, irriegingarria da, baina ez hala ere hein hortarano." Segur nintzan barne-barnetik Luxembourg-eko Jaunaz erraiten ziren ixtorio guziak berdin gezurrezkoak zirela eta, erraile edo lekukoetarik baten aitzinean gertatuko nintzan orduko, gezurtamen bera entzunen nuela. Galdez nindagon bizkitartean Guermantes-ko Andereak emana zuena egiaz axolatzeari zor zizakonez ala bere alderako amodioari. Zer nahi den, azken hunek gaizki-nahiaren aitzinean amor eman zuen, dukesak irriz gaineratu baitzuen: "Bertzela, ukana dut ere neure laido ttipia, arratsalde-askarira gomitatu bainau, Luxembourg-eko dukesa handia ezagun-arazi nahiz; bere emaztearen horrela izendatzeko gostu ona badu, izabari izkiribatzean. Desenkusatuz ihardetsi daukot eta gaineratu: "Eta "dukesa handiaz" den bezainbatean, errakok ene ikustera jiten bada ortzegun guziez 5 orenetan etxean nizala." Bigarren laido bat ere ukana dut. Luxembourg-en nintzan batez telefonatu daukot telefonara mintzatzera jin dakiditan. Haren Goientasuna barazkaltzera zoan, barazkaldu berria zen, bi oren iragan ziren ondoriorik gabe eta orduan bertze bide batez baliatu niz: "Nahi daukozu erran Nassau-ko kondeari mintzatzera jin dakiditan?" Bizian xixtatua, minutan berean ethorri zen." Mundu guziak irri egin zuen dukesaren ixtorioaz eta mota bereko bertze batzuez, erran nahi da, segur-segurra niz, gezurrez, ezen Luxembourg-Nassau hori baino gizon adimendunagorik, hoberik, xorrotxagorik, den bezala derragun, hautekoagorik, nehoiz eztut aurkitu. Geroak nik nuela arrazoin erranen du. Aithortu behar dut bere "gaixtakeria" guzien artean Guermantes-ko Andereak ukan zuela alta erranaldi gixako bat.

- Ezta beti horrelakoa izana, erran zuen. Arrazoina galdu baino lehen, errege bilakatua dela uste duen gizona, liburuetan dioten bezala, izan baino lehen, etzen zozoa, eta ere, ezkongai bestetako lehenbiziko egunetan, molde aski gustagarrian aiphatzen zituen, ustegabeko zorion bat bezala: "Egiazko azti-andere ixtorioa da, Luxembourg-en sartzea mirazko karrosa batean egin beharko dut", zion bere osaba Ornessan-i, hunek ihardetsi baitzaukon, ezen, badakizue, ezta handia Luxembourg: "Mirazko karrosa, beldur nuk ehizala sartzen ahalko. Aholkatzen deat ahuntz-orga har dezakan izaitekotz." Etzuen bakarrik horrek Nassau ez gaitzitu, baina lehena izan zen guri hitzaren erraiten eta hortaz irri egiten.

- Ornessan izpirituz betea da, badu nori atxik, ama Montjeu zuen. Ontsa gaizki da, Ornessan gaizoa.

Izen horrek ukan zuen mugabean jarraikiko ziren gaixtakeria gezen mozteko indarra. Alabaina, Guermantes-ko Jaunak argitu zuen Ornessan-go Jaunaren amatxi-aitatxien ama Castille Montjeu-ko Mariaren ahizpa zela, Lorrenako Timoleonen emaztea, eta ondorioz Oriane-ren izaba. Hala nola nun solasaldia ethorkietara itzuli baitzen, Turkiako embaxadoresa zozoak beharrira ufatzen zautanean: "Guermantes-ko Jaunaren paperretan biziki ontsa zirela iduri duzu, guardi emazu", eta argi nindezan galdegiten bainuen: "Erran nahi dut, hitz erdika hartuko duzu, alaba lanjerrik gabe gomendiotan eman lakidiokeela, baina ez semea."

Bada, nehoiz gizon batek aldiz emazteak suharki eta bakarrik hek maitatu bazituen, Guermantes-ko dukea izan zen segurki. Baina hutsa, egiaren kontrakoa xoxoki sinetsia biziko ingurumena bezala ziren embaxadoresarendako hetarik kampo ezpaitzaitekeen higi. "Horren anaia Mémé-k, bertze arrazoin batzuen gatik (hark etzuen agurtzen), bertzela, funtsez aihergarri baitzata, egiazko pena du dukearen bizi-moldez." Horien izaba Villeparisis-ek berdin. Ha! itsuki maite dut. Horra emazte saindu bat, lehenagoko andere handien eredua. Ezta bakarrik bertutea bera, baina begirunea. Badio oraino: "Jauna" egun guziez badakusan Norpois embaxadoreari eta, artetik erraiteko, Turkian ohoitzapen ezin hobea utzia duenari."

Embaxadoresari enaukon ihardetsi ere ethorkien entzuteko. Etziren oro handiak. Gertatu zen ere, solasaldian zehar, Guermantes-ko Jaunak ikasi zauztan ezkontzazko ahaidegoetarik bat ezkontza gaitz bat zela, baina ez xoragarririk gabea, ezen, Uztaileko monarkian, Guermantes-ko dukea eta Fezensac-ekoa itsasturi omendun baten bi alaba xoragarriekin batuz, bi dukeser emaiten zauen horrela herri urrunetako garazia baten ustegabeko bixitasun bat, luisfilipetar moldean indiarra. Edo ere, Luis XIV-garrenaren aroan, Norpois batek ezkondua zuen Mortemart-eko dukearen alaba, hunen titulu omendunak joiten baitzuen, aro hartako urrunean, hitsa edireiten nuen eta berria uste ukan nezakeen Norpois-en izena, hartan barnatuki zizelkatzen medaila baten ederra. Aldi hortan bertzela ere, etzen bakarrik izen gutiago ezaguna hurbiltze hortaz abantaildua zena: bertzea, dirdiraren bortxaz arrunt bilakatua, itxura berri eta ilunago horren azpian gehiago ohargarri zizatan, margoztatzale lilluragarri baten potreten artean, baldigarriena batzuetan guzia beltzez egin bat den bezala. Izen horiek oro, horietarik hain urrun uste nituen bertze batzuen ondoan jartzera jinez, hartaz dohatuak iduri zizaztan higikortasun berria, etzagon bakarrik ene jakingabeari; ene gogoan egiten zituzten harat-hunarat horiek, etzituzten gutiago errexki eginak, titulu bat beti lur bati lotua izanez, huni familia batetik bertze batera jarraikitzen zizakon aro hetan, hala nola nun, behazunez, Nemours-ko edo Chevreuse-ko duke titulua den eraikuntza feodal ederrean, aurki bainezazkeen jarraikian kurubilkatuak itsas-etxetiarr baten egoitza ostatzalean bezala, Guise bat, Saboiako printze bat, Orléans bat, Luynes bat. Batzuetan bazen bat baino gehiago kuxku berarendako bilakide: Orange-ko prinzipatearendako Herri-Aphaletako erret-familia eta Mailly-Nesle-ko Jaunak; Brabanteko dukatearendako Charlus-ko Jauna et Belgikako erret-familia; hainbertze gehiago Neapoliko printze, Parmeko duke, Reggioko duke tituluendako. Aldi batzuez kontrakoa zen, bazen hain aspaldi kuxkua hustua zela aspaldidanik hilak ziren jabez nun ezpainuen ehoiz gogoari emana horrelako jauregi izen bat izan ahala zela, oro har aro urrundu batean, familia baten izena. Horrela, Guermantes-ko Jaunak Monserfeuil-ko Jaunaren galde bati ihardesten zuelarik: "Ez, ene andere gusia erregetiar errabiatu bat zen, Fétrene-ko markesaren alaba, hunek egitate zenbait ukan baitzuen Xuanen gerlan", ikustean Féterne izen hori, Balbec-eko ene egonaldiaz geroztik enetako jauregi izen bat zena, nehoiz asmatuko enuena izana ahal zatekeela, familia baten izena, ukan nuen hartan dorrexka batzu eta aitzin-harrimail bat phizten eta jende bilakatzen diren mirazko ikuskarri bateko ustegabetze bera.

Erran-nahi hortan, ixtorioak, ethorkizkoa baizik ez izanik ere, harri zaharrer bizia emaiten dauela erran daiteke. Gizarte paristarrean izan ziren gizon batzu, hartan Guermantes-ko dukeak edo La Trémoïlle-ko dukeak bezain egitate handikoak, bere aphaintasun eta izpirituaren gatik arrakasta gehiago ukan zutenak, eta berak sortze berdin gorakoak zirenak. Orai ahazpenera eroriak dira, gehiago entzuten ezten haien izenak, ondorerik ez ukanez, izen ezezagun batek bezala joiten duelakoz; gehien gehienik gauza izen batek, haren azpian gizon izen baten asmatzea ezpaitzaiku gogoratzen, badirau jauregi zenbaitetan, edo herrixka urrun batean. Ondoko egun batez, Burgoñako zolan, Charlus herrixkan geldituko den bidariak hango elizaren ikusteko, ikastera aski emana ezpada edo lehiatuegia hango ilharrien ikhertzeko, eztu jakinen Charlus izen hori handienen pareko zoan gizon batena izan zela. Gogoeta horrek orhoit-arazi zautan abiatu behar zela eta, Guermantes-ko ethorkiez mintzatzen entzuten nuelarik, haren anaiarekin hitzartua nuen orena hurbiltzen ari. Nork daki, jarraiki nuen gogoetatuz, egun batez Guermantes bera leku izen batez bertze zerbait idurituko denez, salbu halabeharrez Combray-n gelditu arkeologer, eta Gilbert Gaixtoaren eliza-berinaren aitzinean Théodore-ren ondokoaren hitzaldien entzuteko pairamena edo erretoraren gida-liburuaren irakurtzekoa ukanen dutener. Baina izen handi bat iraungia ezteno, ekhartzen dutenak badatxizka argi betean; eta hori dateke, alde batetik, ene begietan familia horien ospeak eskaintzen zuen balioa, jarraikitzen ahal baitzaie, egundik hasiz, mailez mail XIV-garren mendeaz ontsa haratago eta berraurki baitaitezke Charlus-ko Jaunaren, Agrigente-ko printzearen, Parme-ko prinzesaren arbaso guzien Orhoitzapenak eta eskutitzeriak, familia burjes baten ethorkiak gau ezin zilatu batek estaliko zituen iragan batean, eta hetan berexten baititugu, izen baten argi-egozte gibelerakoan, hunelako eta horrelako Guermantes batzuen zainetako berezitasun, bizio, nahasmendu batzuen ithurburua eta iraupena. Eritasunez abantzu oraikoen berdinak, mendez mende sustatzen dute lerro berekoen oharpen asaldatua, izan daiten prinzesa Palatinarra eta Motteville-ko Anderea baino lehenagokoak ala Ligne-ko printzeaz gerokoak.

Bertzela ere, ixtorioko ene jakin-nahia ederrarako atseginari erkidatuz ttipia zen. Aiphatu izenen ondorioa dukesaren gomiten gorputzez jabetzea zen haien maska haragizko eta adimendugabekoak edo adimendu ohikodunak nolanahiko gizon batzuetara aldatuak baitzituen, hala nola nun oro har sarguneko lastaira eroria bainintzan, ez izenen mundu lilluragarriko alharzera, uste ukana nuen bezala, baina haren azken burura. Agrigente-ko printzea bera, haren ama Damas, Modene-ko dukearen alababitxia zela entzuna ukan nueneko, liberatua izan zen, lagun kimika aldakor batetik bezala, ezagutua izaitea debekatzen zaukoten aurpegiaz eta elhez, eta joan zen Damas eta Modene-kin, hauk ezpaitziren titulu batzu baizik, antolamendu mugagabeki gustagarriago baten egitera. Harekilako iduririk bazuela aierurik ukana enuen bertze izen batera erakhartzeak lekuz aldatua zuen izen bakoitzak uzten zuen ene burumunetan bazadukan leku aldaezina, ohidurak han histua baitzuen, eta, Mortemart, Stuart, Bourbondarrekin batzera joanez, marratzen zituen haiekin aldaxka batzu ezin gehiago garaziadun emaiten zutenak eta kolorez aldakorrak. Guermantes-tarren izenak berak ukaiten zuen haier lotua zela bakarrik ikasten nuen

izen eder iraungi eta are gehiago suharki berphiztu horietarik orotarik, izaite berri bat, osoki poesiazkoa. Gehien gehienik, zuhatzondo burgoiko hantura bakoitzaren buruan, ikus nezakeen errege zuhur edo prinzesa omendun baten itxuran zabaltzen, hala nola Henri IV-garrenaren aitaren edo Longueville-ko dukesarenean. Baina aurpegi horiek, hortan gomitenetarik bertzelakoak, ezpaitziren enetako gauzazko ezagutza ondarkinez eta bierartekotasun mundutar edozeinez lodituak, gelditzen ziren, bere marrazki ederrean eta leinuru aldakorretan, izen horien gai berekoak, horiek, arte berdin batzuetan, bakoitza bere margoan, Guermantes-tarren ethorkiko zuhatzetik berexten baitziren, eta ezpaitzituzten edozein gauza arrotz eta ez argalez nahasten botoin zehargi, aldizkatu eta margo ainitzetakoak, hauk, Jesusen arbasoak Jessé-rekilako eliza-berina zaharretan bezala, loratzen zirela berinazko zuhatzaren alde bat eta bertzean.

Aldi bat baino gehiagotan jadanik erretiratu nahi ukana nuen, eta bertze arrazoin ororen gatik baino gehiago, ene hor izaiteak bilkurari emaiten zaukon ezteustasunaren gatik, luzaz alta hain ederrak zirela asmatua nuelarik, eta dudarik gabe hala izanen zen lekuko jenagarririk ukan ezpalu. Ene joaiteak utziko zituen bederen gomitak, elizakoa etzena joan ondoan, azkenean segeretuzko batzarrean jartzera. Haien ospatzeko bilduak ziren mixterioak egiten ahalko zituzten, ezpaitzen nabariki Frans Hals-ez edo zikoizkeriaz mintzatzeko burjesiako jendek badagiten molde berean bezala. Ezteuskeriarik baizik etzen erraiten, dudarik gabe han nintzalakotz, eta urrikiak banituen, emazte pollit haien guzien ikustean berexirik, debekatzen nauelakotz, ene han izaiteaz, saloinetan preziosenean, Saint-Germain bazter-hiriko bizi mixteriozkoaren eremaitea. Baina beti egin nahi nuen abiatze hori, Guermantes-ko Jaun-Anderek bazeramaten zakrifizioko gogoa ni han atxikiz gibelatzerano. Bitxiago dena oraino, andere horietan batzu, lehiatuak, loriatuak, aphainduak, harrieriez izarreztatuak, ene faltaz, Saint-Germain-go bazter-hiritik bertze lekuetan emaiten zirenetarik - gure begiek ohiki ikusten duten hiri batean Balbec-en senditzen ezten baino gehiago - baitezpada bertzelakoa etzen besta batean izaiteko baizik jinak etzirenak, joan ziren, ez nahigabetuak, izan behar ukanen zuten bezala, baina eremana zuten arratsaldi ezin goxoagoaz Guermantes-ko Anderea bihotzetik eskertuz, bertze egunetan, ni hor enintzanetan, bertze gauzarik gertatzen ezpaliz bezala.

Hau bezalako auhari batzuen gatik ote ziren, zinez, jende horiek guziak aphaintzen eta bere saloin hoin hetsietara burjestsa batzu sar zaiten ote zuten ez onhartzen? Hau bezalako auhari batzuetako? han izan ezpaninz berdinetako? Aieru hori ukan nuen ephe batez, baina sobera arrazoingabea zen. Zentzu on xoilak horren baztertzera uzten ninduen. Eta gero, onhartua ukan banu, Guermantes izenetik, Combray-z geroz jadanik hain andeatutik, zer geldituko zen?

Gainera neska-lore horiek, hein bitxi batean, bertze norbaitez askietsiak izaiteko errexak ziren, edo haren askiesteko gutiziatuak, ezen arratsaldi osoan bizpahirur elhe baizik emanak nezteenetarik eta haien zozotasunak gorri-arazia ninduenetarik batek baino gehiago jin nahi ukan zuen eri erraitera, saloinetik joan baino lehen, bere begi ederrak nitan geldituz, bulharra inguratzen zaukon orstopeko-lore girlanda goititzen zuen batean, zein atsegin bizia ukana zuen ene

ezagutzen, eta mintzatu - hitz-erdika auhaltzera gomitatzeko aieru bat - "zerbaiten antolatzeko" zuen xedeaz, Guermantes-ko Anderearekin "eguna hartua" ukanen zuenean.

Andere-lore horietarik bat etzen Parmeko prinzesa baino lehen abiatu. Hunen han izaitea - ezta Goientasun bat baino lehen joan behar - zen asmatuak enituen bi arrazoinetarik bat, haien gatik baitzuen dukesak egon nindadintzat hainbertze hisi ezarria. Parmeko Anderea zutitua izan zen orduko, liberatze bat bezala izan zen. Andere guziek gur bat eginik prinzesaren aitzinean, zuti-arazi baitzituen, ukan zuten haren ganik musu batean, belhauniko galdegina ukanen zuten benedizione bat bezala, bere bizkarreko eta eskularruen galdegiteko baimena. Hala nola nun, athe aitzinean, Frantziako Ixtorioko izen handien errepikaldi bat bezala izan baitzen. Parmeko prinzesak Guermantes-ko Andereari debekatua zaukon haren laguntzeko sargunerano jauts zadin hotz har zezan beldurrez eta dukeak gaineratua zuen: "Hea, Oriane, Andereak onhartzen duenaz geroz, medikuak zer errana dautzun orhoit zaite."

"Uste dut Parmeko prinzesa gurekin auhalduz *biziki kontent* izana dela." Erranbidea ezagutzen nuen. Dukeak saloin guzia iragana zuen ene aitzinean erraitera jiteko, itxura zerbitzura ekharri eta zintzo batekin, diploma bat emaiten balauta bezala edo bixkotxaño batzu ezkaintzen. Eta ordu hetan hartzen zuela iduri zuen atseginetik eta begitarteari ephe batendako itxura bat hain eztia emaiten zaukonetik, senditu nuen horrek harendako itxuratzen zuen artha mota bere biziaren bururano emanen zituenetarik bat zela, hala nola, haurturik ere, oraino atxikitzen diren kargu ohorezko eta errexak.

Abiatzera nindoanean, prinzesaren ohorezko anderea saloinera sartu zen, julufre miragarri batzuen eremaitea ahatzirik, Guermantes-tik jinak, dukesak prinzesari emanak baitzauzkon. Ohorezko anderea aski gorritua zen, sendi zen bultzakatua izana zela, ezen prinzesak, jende guziarendako hain ona, ezin-egona ezpaitzezakeen atxik andere-lagunaren ñukukeriaren aitzinean. Hunek beraz laster egin zuen bere julufreak bazeramatzala, baina, gostura ari zela bere itxura ernearen atxikitzeko, ene aitzinetik iragaitean egin zuen: "Prinzesak berandua nizala aurkitzen du, joanak izan gaiten nahi luke eta hala ere julufreak ukan. Bada! eniz xoriño bat, eniz aldi berean leku bat baino gehiagotan izaiten ahal."

Ondikotz! Goientasun bat baino lehen zutitzea etzen arrazoin bakarra. Enintzan berehala abiatu ahal izan, baitzen bertze bat: hori zen bere adixkiden goza-arazteko Guermantes-tarrak, izan zaiten joriak ala erdi hondatuak, hartan ezin hobeak ziren aberaskeria aiphatu hura, Courvoisier-tarrek ezagutzen etzutena, etzela bakarrik gauzetakoa, baina, Saint-Loup-eko Robert-ekin ainitzetan phorogatua nuen bezala, elhe goxagarri, egintza gixakoetako aberaskeria bat zela ere, elhetako aphaintasun oso bat, barneko bizi egiazko batek hazia. Baina hau, auhertasun mundutarrean, erabilpenik gabe gelditzen baita, batzuetan ixurtzen zen, aldaragarri bat bilatzen zuen halako ixuri iheskor batean, are gehiago antsitua, eta, Guermantes-ko Anderearen aldetik, atxikimendua zela sinets-arazi ahalko zuena. Bertzela ere hori gainditzera uzten zuenean senditzen zuen, ezen orduan, harekin gertatzen zen adixkide gizon ala emaztearen kompainian, halako xoramendu batek

hartzen zuen, ez batere sentsuetakoa, baina jende batzuer musikak emaiten dauenaren idurikoa; gertatzen zizakon papotik lili baten, medialun baten hartzea, eta horien emaitea harekin arratsaldia iraun-arazi nahiko zuen norbaiti, gogo-ilundurarekin sendi zuen batean horrelako luzatze batek etzuela solastatze hutsal batzuetara baizik eremanen ahalko, hetara ezpaitzen zainetako atseginetik, bihotz-hunkidura iragangorretik ezer iragan ahal izanen, primaderako bero lehenen idurikoak uzten duten akhidurazko eta trixteziazko sendimenduaren gatik. Adixkideaz zen bezainbatean, etzuen agiantzez sobera bairatua izan behar, egundaino entzuna zuen edozein baino xoragarriagoak, emazte horiek goratik erranak, hainbat indarrekin sendi baitute ephe baten eztitasuna, eta hartaz egiten, ohi bezalako jendek ezagutzen eztuten gixakotasun, noblezia batekin, nagusi-lan garaziaz eta oneziaz hunkigarri bat, eta beretik ezer ezpaitute gehiago emaitekorik bertze aldi bat ethorri den orduko. Haien sendimenduak manatzen duen gogo-berotzearen ondotik eztu irauten; eta orduan entzuteko gutizia zinuen gauza guzien asmatzera eta zuri erraitera ekharriak zituen izpirituko xorroxtasunak berdin ontsa utziko ditu, zenbait egun berantago, zure irrigarritasunen hartzera eta hetaz ikuslierretarik bertze baten jostatzera, harekin izanen direnean hain laburrak diren "musika ordu" hetarik batez gozatzen ari.

Sargunean, mutil jantzier galdegin nezteenean zer gerta ere elhurrarendako hartuak nituen "snow-boot"-ak, laster iztilera aldatu elhur-luma batzu eroriak baitziren, guti aphain zela ohartu gabe, senditu nuen, guzien irriño erdeinatzaletik, ahalge bat mukurrurano heldu zena, Parmeko Anderea etzela joana eta ene kautxu amerikarren janzten ikusten ninduela. Prinzesa berriz ene gana jin zen: "Ho! zer ideia ona, egin zuen, zein erabilgarri den! horra gizon adimendun bat. Anderea, horiek erosi beharko ditugu" erran zaukon ohorezko andereari, mutilen irkaitza errespetura aldatzen zen batean eta gomitak ene inguruan lehiatzen mira horiek nun erosiak nituen jakiteko. "Horier esker, eztuzu jeusen beldur izaiterik ukanen, berriz elhur egiten badu ere 'ta urrun joaiten bazira; sasoinik ezta gehiago", erran zautan prinzesak.

- Ho! alde hortarik, Zure-Erret-Goientasuna segurrrean izan daiteke, hautsi zuen ohorezko andereak itxura xorrotx batekin, eztu berriz elhurtuko.

- Zer dakizu, anderea? galdegin zuen Parmeko prinzesa ezin hobeak, ohorezko anderearen zozotasuna baitzen bakarrik haren narda-araztera heltzen.

- Zure Erret-Goientasunari baiezta dezoket, ezin daiteke berriz elhur egin, gauza ezina da.

- Baina zergatik?

- Ezin da berriz elhur egin, hortako behar dena egin da: gatza egotzi da.

Andere xintxoa etzen prinzesaren haserreaz ohartu eta bertze jenden alaitasunaz, ezen, ixiltzeko orde, erran zautan irriño goxo batekin, Jurien de la Gravière amiralaz ene ukhatzez axolatu gabe: "Bertzela ere, zer munta du? Jaunak oina itsasokoa duke. Odol onak ezin gezurrik egin."

Eta Parmeko prinzesa lagundurik, Guermantes-ko Jaunak erran zautan ene bizkarrekoa hartuz: "Zure phildetan sartzen lagunduko zitut." Etzuen gehiago irriñorik ere hitz horren erabiltzean, ezen arruntenak direnak, hortako bereko,

Guermantes-tarrek alegia hartzen zuten lañotasunaren gatik, arixtokratikak bilakatuak ziren.

Gogo-berotze bat ezpaita gogo-ilundura batean baizik bururatzen, artifiziala delakotz, hori izan zen ere, nahiz osoki Guermantes-ko andereak ez bezala, senditu nuena haren etxetik jalgi eta, Charlus-ko Jaunaren hotelera eremanen ninduen karrosan. Gure hautuz bi indar horietan batera edo bertzera joaitera utz gaitezke, bat guhaurtarik sortzen da, bertzea kampotik heldu zaiku. Lehenbizikoak badakhar naturalki berekin bozkario bat, kreatzalen biziak emaiten duena. Bertzeak, gutan kampoko jendeak nahasten dituen mugimenduaren sartzera entseatzen denak, eztu atsegina lagun; baina bat gaineratzen ahal daukogu, gibel ukhaldi batez, xoramen hain alegiazko batean, nun laster aspertzera itzultzen baita, trixteziara; hortik hainbertze mundutarren aurpegi iluna, eta haien baitan bere buruaz egiterano ereman dezaketen izanara zaintsuak. Bada, Charlus-ko Jaunaren etxera ninderaman karrosan, bigarren gogo-berotze mota hortaz hartua nintzan, gure baitako iduripen batez emana zaukunetik ontsa bertzelakoa, bertze karrosa batzuetan ukana nuena bezala: aldi batez Combray-n, Percepied medikuaren karroan, handik ikusiak bainituen Martinville-ko ezkiladorreak iguzki sartzera marrazkitzen; egun batez, Balbec-en, Villeparisis-ko Anderearen kalexan, zuhatzekilako bidexka batek eskaintzen zautan orhoitaldiaren argiratzea bilatzen nuenean. Baina heren karrosa huntan, izpirituko begien aitzinean nituenak, Guermantes-ko Anderearen auharian hain aspergarri idurituak zizaztan solasaldiak ziren, behazunez Von printzearen ixtorioak Alemaniako emperadoreaz, Botha jeneralaz eta armada angelesaz. Barneko eztereozkopan ezarri berriak nituen, hartan zehar, guhaur izaitetik gelditzen giren orduko, arima mundutar batez dohaturik guhauren bizia bertzetarik baizik ukan nahi eztugun orduko, errana dutenak, egina dutenak agerian ezartzen baititugu. Gizon mozkor bat bezala, zerbitzatua duen ostatu mutilarendako omore amultsuez betea, neure zorionaz miresten nintzan, senditua enuena, egia da, orduan berean, Gillome II-garrena hoin ontsa ezagutzen zuen eta hartaz ixtorio xehe, alafe, biziki izpiritudunak erranak zituen norbaitekin auhaldua izanik. Eta orhoituz, printzearen doinu alemanarekin, Botha jeneralaren ixtorioaz, gora-gora irriz ari nintzan, irri hori, barneko miresmena handitzen duten esku-zarta batzuen idurikoa, ixtorio horrendako baitezpadakoa baliz bezala zuen irrigarriaren egiaztatzeko. Berina loditzalen gibelean, Guermantes-ko Anderearen aburuetan zozoak idurituak zizaztanak ere (behazunez tramu batetik ikusiko behar zen Frans Hals-ez) bizi bat hartzen zuten, ohigabeko barnatasun bat. Eta erran behar dut, gogo-berotze hura laster erori baldin bazen, etzela osoki eroa. Egun batez gehienik gutiesten ginuen jendearen ezagutzeaz zorionean izan baldin bagaitezke, maite dugun nexkato batekin adixkidantzan gertatzen delakotz eta beraz balioa eta goxagailua eskaintzen dauzkulakotz, betikotz horietaz gabetua zela uste baiginuen, ezta solasik, adixkidantzarik baino gehiago, hetarik egun batez zerbait atherako eztela segur izan daitekeenik. Guermantes-ko Andereak errana zautana tramu batetik ere ikustea balio zuten margazkiez, gezurra zen, baina bazadukan geroago baliosa izan zizatan egia zati bat.

Berdin ere erranak zauztan Victor Hugo-ren neurthitzak, aithortu behar da, gizon berri bat bilakatua zen arotik lehenagokoak ziren, aldakuntzan literatura mota oraino ez ezagun bat, agerr-arazia zuenetik alderdi batzunago batzuez dohatua. Lehenbiziko olerki horietan, Victor Hugo-k gogatzen du oraino, gogatzera emaitea, naturalezak bezala, aski ukaiteko orde. "Gogamenak", orduan molde zuzenenean erraiten zituen, abantzu dukeak hitza hartzen zuen erran-nahian, noiz ere, haren besta handietako gomitek, Guermantes-en, jauregiko albunean bere sinaduren ondotik filosofoa eta poesiazko ohar bat ezar zezaten zahartua eta eragozkarri aurkituz, berriki ethorriak doinu othoizle batekin abisatzen baitzituen: "Zure izena, adixkidea, baina gogoetarik ez!" Bada, Victor Hugo-ren "gogoeta" horiek (*Mendetako Leiendan* abantzu Wagner-en bigarren eginaran "aireak" eta "kantuak" bezainbat huts egiten dutenak) zituen Guermantes-ko Andereak maite hastapeneko Victor Hugo-an. Baina ez osoki zuzenkontra. Hunkigarriak ziren, eta haien inguruan jadanik, eginmoldeak etzuelarik oraino berantago baizik hartara heldu behar etzuen barnatasuna, hitz berri batzuen eta errima aberaski juntatuen uhainak erkidagarri bilakatzen zituen, Corneille baten baitan, behazunez, ediren daitezkeen neurthitz haiekin, eta erromantixma artekatu, begiratu, eta are gehiago hunkitzen gituen bat ezpaita bizkitartean biziko ithurburu gauzazkoetarano sartua, gogamena han dagon mundu ezin senditu eta orotara hedagarria ezpaitu aldatu. Hutsean nintzan beraz orai arteo Hugoren azken liburuetan hetsia geldituz. Lehenbizikoetako zati ezin ttipiago batez zen, egia da, Guermantes-ko Anderearen solasaldia aphaintzen. Baina hain zuzen, neurthitz bat horrela berezirik erranez haren indar erakhargarria ainitzez handitzen da. Ene orhoitean sartuak edo berriz sartuak zirenek, auhari hortan, erakharr-arazten zituzten bere aldian, beregana deitzen, hainbat indarrekin ohiki haien barnean hetsirik zaudenak, nun ene esku eletrikatuek ezpaitzaukoten berrogei-ta-zortzi oren baino gehiago iharduki ahal ukan hartan *Orientalak* eta *Ilunabarreko kantuak* josiak ziren liburura buruz zeramatzan indarrari. Françoise-ren mutil-jantzia madarikatu nuen ene *Larrazkenako Orstoak* liburuaz bere sort-herriari emaitza egina ukanik, eta ephe bat galdu gabe bertze baten erostera igorri nuen. Liburu horiek berrirakurri nituen hastetik bururano, eta bakea enuen ediren bapatez ikusi nituenean baizik, hartan mainatua zituen argian igurikatzen nindutela, Guermantes-ko Andereak erranak zauztan neurthitzak. Arrazoin horien guzien gatik, dukesarekilako solasaldiek bazuten jauregi bateko liburutegian biltzen diren jakitate haien iduria, noizpatekoa, osatugabea, adimendu baten moldatzeko ahalgabea, maite dugun guzitik abantzu gabetua, baina batzuetan xehetasun ohargarri bat eskaintzen daukuna, berdin ere ezagutzen ezkinuen orrialde eder bateko aiphamena, eta gero zorionean baigira haren ezagutzea jauregi eder bati zor daukogula orhoitzean. Orduan, *La Chartreuse*-rendako Balzac-en aitzin-solasa edo Joubert-en eskutitz ez agertu batzu aurkituak ukanik, badugu han eremana dugun biziaren balioaren handiegitzeko gutizia, ahazten dugula, arrats bateko irabazi ustegabeko horrendako, hango arinkeria agorra.

Ikuspegi hortan, mundu horrek ezpazuen lehen aldian ene idurimenak igurikatzen zuenari ihardesten, eta ondorioz behar baninduen lehenik jo mundu

guziekilakoa zuenaz bertzelakorik zuenaz baino gehiago, bizkitartean apurka apurka ontsa berezia bezala agertu zizatan. Jaun handiak hetarik laborarietarik bezainbat ikasten den jende abantzu bakarrak dira; haien solasa aphaintzen da lurrarekin, hetan lehenago bezala bizi zen egoitzekin, ohidura zaharrekin, diruko munduak barnatuki ezagutzen eztuen guziarekin ikusteko duen guziaz. Arixtokrata bere nahikarietan izarikoenak hatzemana duela azkenean hartan bizi den aroa asmatuz ere, amak, osabek, izababitxiek eratxikitzen dute, bere haurzaroaz orhoitzen denean, gaurregun abantzu ezezaguna den bizi bati. Oraiko hil baten gambaran, Guermantes-ko Andereak etzuen ohiduretan huts egite guziez oharr-araziko, baina berehala ikusiko zituen. Ofensatua zen, ehorzte batean, emazteak gizonekin nahasiak ikusiz, zeremonia berezi bat badelarik emaztekin egin behar dena. Bloch-ek haren erabiltzea ehortzetako begiratua zela, ehortzetako agerbidetan aiphatzen diren hil-oihalaren kordoinen gatik, usteko zuen ezkont-oihalaz den bezainbatean, Guermantes-ko Jauna orhoitzen ahal zen Mailly-Nesle-ko Jaunaren ezkontzan, oraino haurra, atxikitzen ikusia zuen demboraz. Saint-Loup-ek salduak zituelarik bere "Ethorkizko Zuhatz" baliosa, Bouillon-darren protret batzu, Luis XIII-garrenaren eskutitz batzu, Carrière batzuen eta muble "modern style" batzuen erosteko, Guermantes-ko Jaun-Anderek, ederlanaren amodioak hartan behar bada indar ttipiagoa zuen sendimendu batez eta berak bierartekoagoak uzten zituenaz, atxikiak zituzten Boulle-en bere muble miragarriak, multzo bat eskaintzen baitzuten edergile batendako bertzela ere gustagarria. Literaturatzale bat ere haien solastatzeaz loriatua izanen zen, harendako - gose amikatu batek ezpaitu bertze gose amikatu baten beharrik - egun bakoitz gehiago ahazten diren erran-moldetako hiztegi bizidun bat izanen baitzen: San-Josepe lephoko bat, urdinari dohatu haurrak, eta bertze, eta bere nahitarik iraganaren begiratzale maitagarri jartzen direnen baitan baizik aurkitzen eztirenak. Haien artean, bertze idazlen artean baino ainitz gehiago, idazle batek senditzen duen atsegin hori, ezta lanjerrik gabeko atsegina, iraganeko gauzek bere baitarik xoramen bat badutela sinesteko irriskuan baita, diren bezala bere lanera, aldi hortan hilik sortura ekhartzekoan, "Pollita da egia delakotz, hola erraiten da" erranez konsolatzen den aspertze bat emanez. Solasaldi arixtokratika horiek bazuten bertzela, Guermantes-ko Anderearen baitan, frantses ezin hobe batean eginak izaiteko xoragarritasuna. Horren gatik onhargarri egiten zuten Guermantes Anderearen aldetik, haren irritaldia Saint-Loup-ek bazerabiltzan "vatika", "kosmika", "pythika", "goien-goienena" hitzetan, - Bing-en etxeko haren mublen aitzinean bezala.

Hala ere, elhorrixuri batzuen aitzinean edo madalena baten jastatzean senditu ukan ahala nuenetik hortan ontsa ezperdinak, Guermantes-ko Anderearen etxean entzunak nituen ixtorioak arrotzak zizaztan. Ephe batez neure baitan sartuak, ezpainintzan hetan gorputzez baizik hartua, erranen zen (berez gizartekoak izanez eta ez nihaurenak) handik atheratzeko ezin egonean zirela. Karrosan pithoniza bat bezala inharrosten nintzan. Hartan nihaur halako X.-ko printze bat, Guermantes-ko Andere bat bilaka ahal nindaitekeen auhari berri bat igurikatzen nuen eta hek khonda ahal nezazkeena. Anartean, ahopiatzen zituzten ene ezpainak daldara-arazten zituzten eta debaldetan entseatzen nintzan indar bazterrerakoi batek

burtzoratzekotan bazeraman izpirituaren neure gana biltzera. Bertzela ere solas eskasa gora-gora mintzatuz ordaintzen nuen karrosa batean, haien phizuaren bakar-bakarrik luzazago ez jasaiteko ezinegon sukartsu batekin nuen beraz jo Charlus-ko Jaunaren athean; eta erranen naukon guzia errepikatzen nuen eta erranen zautana gehiago gogoan guti nuen neure buruarekilako bakarrizketa luze batzuetan nuen iragan hara mutil-jantzi batek sarr-arazi ninduen eta bertzela hari so egiteko nahasiegia nintzan saloin batean egon nintzan dembora guzia. Banuen halako beharra Charlus-ko Jaunak hari erraiteko ezin-egonean nintzan ixtorioak entzun zitzan, nun bortizki atsekabetua izan bainintzan etxeko jauna behar bada lo zagola gogoratuz eta beharko nuela ene elhezko xoramenduaren lixeritzera etxera sartu. Ohartua nintzan alabaina bazela hogei-ta bortz minuta, ahatzia nindutela behar bada, saloin hortan nintzala, eta gehien-gehienik erranen ahalko nuela gaitzekoa zela, berdaila, potret batzuekin. Mintzatzeko beharrak eztu entzutea debekatzen bakarrik, baina ere ikustea, eta aldi hortan kampoko ingurumenaren erakusterik batere ez izaitea barneko izanara baten erakustea da. Saloinetik jalgitzera nindoan norbaiti hel egitera entseatzeko eta, nehor ezpanuen aurkitzen, neure bidearen hatzemaiteko aitzin-gambaretarano eta idek-arazteko, noiz ere, zutitu berria nintzan orduan berean eta zola mozaikatuan urrats batzu eginak nituenean, gambarazain bat sartu baitzen itxuraz griñatua: "Jaun baroinak hitzarraldiak ukanak diru orai arteo, erran zautan. Bada oraino igurikatzen duen jende multzo bat. Jauna har dezan ahal dutan guzia eginen dut, segeretariari bi aldiz telefona-arazia daukot jadanik."

- Ez, etzaitela desarraña, hitzarrraldia banuen jaun baroinarekin, baina ontsa beranta da jadanik, eta, gaur hartua denaz geroz, bertze egun batez itzuliko niz.

- Oi! ez, jauna eztadila joan, egin zuen gambarazainak. Jaun Baroina khexa laiteke. Berriz entseatuko niz.

Charlus-ko Jaunaren mutilez errana zautatenaz orhoitzen nintzan eta zenbat ziren bere nagusiari zerbitzu egitera ekharriak. Etzaitekeen hartaz osoki erran Conti-ko printzeaz bezala gustatzea bilatzen zuela orobat mutilari eta minixtroari, baina hain ontsa jakina zuen galdatzen zituen den gutieneko gauzez halako fagore baten egiten, nun, arratsean, mutilak bere inguruan errespetuzko urruntasun batean bilduak, soaz guziak begiztaturik, erraiten zuenean: "Coignet, argi-mutila!" edo: "Ducret, athorra!", bekaizgoaz murdurikatuz baitziren bertzeak erretiratzen, nagusiak berezia ukana zuen hartaz jelos. Biga ere, elgar hastiatzen zutenak, batak bertzeari fagorearen ebastera entseatzen ziren, baroinari, goizago igana baldin bazen, estakuru arrazoingabekoenean, mezu baten emaitera joanez, arrats hartan argi-mutil edo athorrako kargua ukanen zuelako ustekerian. Hetarik bati zuzen mintzatzen baldin bazizakon zerbitzuko etzen zerbaitetako, gehiago oraino, neguan, baratzean, karrozainetarik bat marranta zela jakinez, hamar minuten buruan erraiten zaukonean: "Burukoa ezarrazu", bertzeak etzizazkon hamabortz egunez mintzatzen, bekaizkeriaz, egina izan zizakon garaziaren gatik.

Oraino hamar minutaz igurikatu nuen eta, sobera luzaz egon enindadin galdegina izan zizatan ondoan, Jaun baroin akhituak jende gotor andana bat gibelera igorr-arazia zuelakotz, haren ondora sarr-arazi ninduten. Charlus-ko Jaunaren inguruko ager-joko hori haren anaia Guermantes-ko dukearen lañotasuna baino

biziki gutiago handitasunezkoa iduritu zizatan, baina athea jadanik idekia zen, baroinari ohartua nindakon, gambarako arropa xinatarrean, lephoa hasik, kanape batean emana. Ordu berean ohartu nintzan "zortzi leinuru"-ko xapel gora bati peliza batekin kadera batean, baroina sartu berria baliz bezala. Gambarazaina joan zen. Uste nuen Charlus-ko Jauna enegana jinen zela. Mugimendu bakar bat egin gabe, begi urrikalmendugabeko batzu nitan gelditu zituen. Harangana hurbildu nintzan, egunon erran, eskua etzautan luzatu, ez ihardetsi, kadera bat har nezan ez erran. Ephe baten buruan galdegin naukon, mediku gaizki ikasi bati eginen zen bezala, zutik egon nindadin beharrezkoa zenez. Xede gaixtorik gabe egin nuen, baina Charlus-ko Jaunak zuen haserre hotzezko itxura iduriz larritu zen oraino. Enakien, gainera, bere etxean, baserrian, Charlus-ko jauregian, bazuela auhal-ondoan, errege egitea hain zuen maite, pipatzeko salan jargia batean hedatzeko ohidura, gomitak inguruan zutik utziz. Bati galdegiten zuen sua, bertzeari zigarro bat eskaintzen, eta ephe zenbaiten buruan erraiten: "Baina, Agrigente, jar zaite bada, kadera bat harrazu, adixkidea" eta bertze, zutik haien egoitea luzatu nahi ukanik, haier erakusteko bakarrik jartzeko baimena harenganik heldu zizaiela. "Luis XIV-garren alkian jar zaite", ihardetsi zautan doinu manukari batekin eta jartzera gomitatzeko baino gehiago haren ganik urruntzera bortxatzeko. Urrun etzen jargia bat hartu nuen. "Ha! horra zer duzun Luis XIV-garren alkia deitzen! badakusat mutiko gazte ikasi bat zirela", egin zuen nausarekin. Hainbat nintzan balditua nun ezpanintzan higitu, ez joaiteko egin behar ukanen nuen bezala, ez alkiz aldatzeko nahi zuen bezala. "Jauna, erran zautan, hitz guziak phizatuz, ozarrenen hastapenean konsonant pare bikun bat ezartzen zuela, zuri emaitea azkenean onhartu dutan solasaldia, haren izena erran eztezadan nahi duen norbaiten othoitzean, gure harremanetako azken pundua izanen da. Hobeki uste ukana nuela eztautzut gordeko; hitzen erran-nahia bortxatuko nuke behar bada, egin behar eztena, haien balioa ezagutzen eztuen batendako ere, eta nork bere errespetu xoilez, zuretako adixkidantza ukana nuela zuri erranez. Uste dut alta "onginahi" hitzak, bere erran-nahi eragingarrienik gerizatzalean, sendi nuena elezakeela gaindi, ez eta erakustea xedatzen nuena. Balbec-en berean jakin-arazia nautzun, Parisera itzulia izan orduko, nitan khondatzen ahal zinuela." Gogoan bainuen nolako atheraldiarekin Charlus-ko Jaunak utzia ninduen Balbec-en, ukhatzeko jestu batean abiatu nintzan. "Nola, egin zuen haserrerekin, eta alabaina haren begitarte daldarikatu zuria zuen ohiko begitartetik bertzelakoa zen itsasoa den bezainbat, galerna goiz batez, ohiko eremu irriñodunaren orde, hagun eta heldetan mila suge ikusten direnean, badiozu nitaz orhoitu behar zinuelako ene mezua - abantzu aithormen bat - eztuzula ukan? Aphainduretako zer zen, hel-arazi nautzun liburuaren inguruan?

- Edergailu artekatu itxuradun batzu biziki pollitak, erran naukon.

- Ha! ihardetsi zuen itxura erdeinatzale batekin, Frantses gaztek guti ezagutzen dituzte gure herriko nagusi-lanak. Zer erran laiteke *Walkyria* ezagutzen eztuen Berlindar gazte batez? Begiak ez ikusteko ukan behar dituzu bertzela ere, nagusi-lan horren aitzinean bi oren iraganak zinituela errana dautazunaz geroz. Badakusat lilietan etzirela estiloetan baino hobeki ezagule; etzazula estiloez goraki iharduk, oihukatu zuen errabia ezin saminago batekin, zure gibelaldeari sutondoko

kadera Directoire bat eskaintzen daukozu jargia Luis XIV-garren baten orde. Egun hauetarik batez Villeparisis-ko Anderearen belhaunak ikuztegi batendako hartuko dituzu. Han zer eginen duzun eztakigu. Molde berean, eztuzu Bergotte-ren liburuan Balbec-eko elizako *orhoit-lorekilako* athaburua ezagutu. Zuri "Ahatz enezazula" erraiteko molde argiagorik bazena?

Charlus-ko Jaunari so nindagon. Eiki haren buru ezin ederregoak, eta okaztatzen zuenak, haren jendakia guzienak gainditzen zituen alta; erranen zen Apollon zahartua; baina jus oliba koloreko batek iduri zuen haren aho gaixtotik jalgitzera zoala; adimenduaz, harenak, etzaitekeen ukha, idekidura zabaldu baten gatik, Guermantes-ko dukeari beti ez ezagunak geldituko zizazkon gauza ainitzetara ikuspen bazuela. Baina zein elhe ederrez margozta zitzan ere bere herrak, sendi zen, hetan baldin bazen ere noiz urgulu ofensatutik, noiz amore nahigabetu bat, edo aiherkundetik, zadizmatik, khitzikaldi bat, ideia geldi bat, gizon hura erhaiteko gai zela, eta ere arrazoin zuzen eta mintzaera ederraren bortxaz arrazoinekin egina zuela phorogatzeko, etzela hala ere gutiago bere anaia, koinata anderea eta bertze guziak baino ehun ukhondoz gorago.

- Velasquez-en *Aztak*-etan bezala, jarraiki zuen, irabazlea lañoena denaren gana aitzinatzen da, eta aitorenseme orok behar duen bezala, guzia ni nintzanez geroz eta zu jeus ez, nik ditut lehenbiziko urratsak zure gana egin. Handitasun deitzea eni etzenari zozoki ihardetsi duzu. Baina eztut neure burua etsitzera utzi. Gure erlisioneak pairamena pheredikatzen du. Zure aldera ukan dutana baliatua izanen zata, agian, eta irriño baizik ez egina ukaitea ozartasun izenaz salatua izan ahal zaitekeenaz, hainbertze ukhondoz gainditzen zituen baten aldera hortarik ukaitea zure menean baliz; baina azkenean, jauna, hori guzia ezta gehiago aiphu. Gure munduko gizon goren bakarrak izpiriturekin maitagarritasun handienaren phorogua deritzonean ezarri zitut, eta arrazoinekin guzietako izigarriena dela dionean, hazi ona irakatik berex dezakeen bakarrean. Doi-doia erasia zindezaket hori ondorio onik gabe jasana ukaiteaz, irabazle direnak ontsa bekan baitira. Baina bederen, eta hori da lur huntan ukanen ditugun solasetako azken hitza, zure asmu gaitzerrelarik gerizataua izan nahi dut.

Orai arteo enuen gogoan ukana Charlus-ko Jaunaren haserrea errepikatua zizakon elhe damugarri batek emana ahal zukeela; ene orhoitari galde egin nuen; nehori enindakon hartaz mintzatua. Hori osoan gaixtagin zenbaitek asmatua zuen. Goraki aithortu naukon Charlus-ko Jaunari hartaz enuela hitzik errana. "Eztut uste gaitzitu zitutala Guermantes-ko Andereari erranez zure ezagutza egina nuela." Irriño egin zuen erdeinuz, mintzoa azken doinuetarano igan-arazi, eta hor, nota goren eta ozarrenetik eztiki hasten zela:

- Oi! jauna, erran zuen ezin emekiago doinu natural batera itzuliz, eta xoratuz bezala, artetik, beheiti zoan gama hortako bitxikeriez, zuhauri kalte badagizula uste dut elgarrekin "ezagutzan" ginela erranik zure burua salatuz. Enago hitzetako zuzentasun handi baten aiduru Chippendale-ren muble bat errex kadera "rococo" batentzat har lezakeen norbaiten ganik, baina eztut azkenean uste, gaineratu zuen, mintzoko phereku gero eta gehiago trufari batzuekin eta haren ezpainetan irriño xoragarri bat ere ezarr-arazten zutenekin, eztut uste erran duzula, ez eta uste ukan

duzula ere, elgarrekin *ezagutzan* ginela! Eni *aizineratua* izanik espantu egina ukaitea, *enekin solastatua* izanik, apur bat ni *ezaguturik*, abantzu galderik egin gabe egun batez nik *gerizatua* ahal izana ukanik, hori egin duzula biziki natural eta adimendun edireiten dut. Gure artean den adineko ezperdintasun goren-gorenak onhartzen du aithor dezatan irriegingarri izan gabe *aitzineratze* hori, *solasaldi* horiek, *ezagutzetako* hastapen ez argi hori zuretako, eztago eni erraitea ohore bat izan zirela, baina bederen azkenean abantail bat eta aurkitzen dut zure zozokeria izan zela ez hori ezagun-arazi ukaitea, baina atxikitzen ez jakin ukana. Gaineratuko dut ere, erran zuen, bapatez iragaiten zela haserre urgoitik eztitasun batera trixteziaz hainbaterano hartua nun uste bainuen nigarrez hastera zoala, Parisen egin dautzutan eskaintza ihardetsi gabe utzi duzularik, hori zure ganik hain ezin sinetsia izana zatala, ontsa ikasia iduritua baitzinindatan eta familia *burjes* on batekoa (izenlagun hortan bakarrik haren mintzoak ukan zuen ozartasunezko xixtu ttipi bat), nun ukan bainuen ehoiz gertatzen eztiren irri-gezur guzietan sinesteko xintxotasuna, galdu diren eskutitzetan, helbidetako hutsetan. Aithor dut xintxotasun handi bat izan zela ene aldetik, baina San Bonaventure-ek nahiago ukan zuen idi bat aira zaitekeela sinetsi bere anaiak gezur bat erran zezakeela baino. Azkenean hori guzia bururatua da, gauza etzaizu gustatu, ezta gehiago aiphatuko. Iduritzen zata bakarrik izkiriatzen ahalko zinatala (eta baziren zinez haren mintzoan nigarrak), ene adinarendako ikustatez baizik ezpaliz ere. Nahiago ukan duzu jakingabean ezetsi, zure egitekoa da. Baina, badiotzutan bezala, *izkiria* daiteke beti. Nik zure lekuan, eta neurean ere, eginen nuen. Nahiago dut horren gatik neurean izan zurean baino, horren gatik diot, lekuak guziak berdinak direla uste dutalakotz, eta langile adimendun batendako badut duke ainitzendako baino adixkidantza gehiago. Baina neure lekua nahiago dutala erran dezaket, baitakit egin duzuna, jadanik aski luze hasten ari den ene bizi guzian, eztutala nehoiz egin. (Haren burua itzalean itzulia zagon, enezakeen ikus haren begiek nigarrak ixurtzen zituztenez, mintzoak sinestera bazeman bezala.) Baniozun zure aitzinera ehun urrats egin ditutala, horren ondorioa izan da zuk gibelera berrehun egin dituzula. Urruntzea orai eni dago eta eztugu gehiago elgar ezagutuko. Zure izena eztut gogoan atxikiko, baina zure gertaldia, gizonek bihotzik, ikustaterik, edo bakarrik bigarrenik gabeko zori bat joaitera ez uzteko adimendua badutela sinestera ekharria ninzatekeen egunetan, goregi haien ezartzea dela orhoit nadintzat. Ez, ezagutzen ninduzula errana ukan dezazun hori egia zenean - ezen orai hala izaitetik gallituko da - zuzen baizik eztezaket aurki eta gizamenetako dadukat, erran nahi da gozagarri. Zorigaitzez, bertze nunbait eta bertze gertaldi batzuetan, solas azkarki bertzelako batzu atxiki dituzu.

- Jauna, ofensa zindezakeen ezer erran eztutala zin egiten dautzut.

- Eta nork erraiten dautzu ofensatua nizala? egin zuen haserre gorrian ordu arteo geldirik egona zen kadera luzean zutituz, mintzoa, aurpegiko suge zurail haguntsuak xifritzen zizazkolarik, aldizka mehatzen eta loditzen zizakon batean galerna elkorgarri erotu bat bezala. (Mintzatzean ohiki zuen indarra, eta kampoan arrotzak itzul-arazten zituena, ehunka gehitua zen, *forte* bat egina den bezala, pianoan joa izaiteko orde, orkeztran egina bada, eta gainera *fortissimo* batera aldatzen baita. Charlus-ko Jauna orroaz ari zen.) Ene ofensatzea zure meneko dela uste

duzua? Eztakizu bada nori mintzo ziren? Uste duzua zure adixkidetarik bortzehun gizonxken thu pozoindatuak, batzu bertzen gainera iganik, ene oin-erhi adeigarrietarano heldertzera hel laitezkeela bakarrik?

Bazen ephe bat, hartaz ehoiz enuela gaitzik erran ez erraiten entzun Charlus-ko Jaunari sinets-arazteko nahiari, jarraikia zizakola errabia ero bat, xoil-xoilik, ene ustez, haren urgulu neurrigabeak erran-arazten zauzkon elhek emana. Badateke egiazki, zatiz bederen, urgulu horren ondorioa zirela. Gainerateko abantzu guzia oraino ezagutzen enuen eta beraz bere lekua hari ez emanez ogendun izan enintzan sendimendu batetik heldu zen. Guermantes-ko Anderearen elhez orhoitu baninz, urguluarekin, sendimendu ez ezagun horren eskasean, erotasun apur bat nahasten ahalko nuen. Baina ordu hartan erotasunaren ideia etzizatan gogoratu. Haren baitan etzen, ene ustez, urgulurik baizik, neurean haserre gorririk. Haserre hori (Charlus-ko Juana orro egitetik gelditzen zenean bere oin-erhi adeigarriez mintzatzeko, hartaz gaitzerraile ilunen alderako mutturtze batek, oka nardatu batek laguntzen zuten maiestate batekin), haserre gorri hori etzen atxiki ahal izan. Mugimendu jauzkor batez zerbait jo nahi ukan nuen, eta zuhurtzia ondar batek ni baino hainbat zaharrago zen gizon bat, eta ere, zuten ederlaneko gaitasunaren gatik, haren inguruan ezarri porzelana alemanak errespeta-arazten baitzauztan, jauzi egin nuen baroinaren xapel gora berrira, lurrera egotzi nuen, zangopilakatu, osoki xehakatzera amorratu nintzan, barneko oihala athera nuen, korona bi zatitan urratu, bazarraitzan Charlus-ko Jaunaren garrasiak entzun gabe 'ta, joaiteko barnea zeharkatuz, athea ideki nuen. Bi aldetarik, ene baldidura handian, bazauden bi mutil-jantzi, emeki urrundu zirenak hor bere zerbitzuko ustegabez gertatuak zirela iduri ukaiteko. (Geroztik haien izenak jakin ditut, bat Burnier izendatzen zen, bertzea Charmel.) Enintzan ephe batez haien urratsara axolagabeak iduriz eskaintzen zautan argibide hortaz enganatua izan. Itxuragabekoa zen; bertze hirur gutiago hala iduritu zizaztan: bata baroinak ukaiten zituela batzuetan haien kontra laguntza beharrez (baina zertako?) urgazteko leku hurbil baten ukaitea beharrezkoa jujatzen zuen gomit batzu; bertzea, jakin-nahiak erakharririk, entzuten jarriak zirela, hoin laster jalgiko nintzala uste gabean; herena, Charlus-ko Jaunak egina zautan atheraldi guzia aphailatua izanez eta jokatua, entzutea berak galdegina zauela, ikuskarriaren amodioz bakoitza hartaz baliatuko zen *Nunc erudimini* bati loturik behar bada.

Ene haserreak etzuen baroinarena ematua, gambaratik ene jalgitzeak, oinaze bizi bat emaiten zaukola iduritu zuen, berriz hel egin zautan, berriz deit-arazi ninduen, eta azkenean, ephe bat lehenago, bere "oin-erhi adeigarriez" mintzatzean, bere buruaren jainkotzearen lekuko egiten ninduela uste ukana zuela ahatziz, laster handiz abiatu zen, sargunean hatzeman ninduen eta athea debekatu zautan. "Goazen, erran zautan, etzaitela haurra izan, sar zaite minuta batez: maite duenak ontsa gaztigatzen du, eta egin baldin bazitut, ontsa maite zitutalakotz da." Ene haserrea joana zen, utzi nuen "gaztigatze" hitza iragaitera eta baroinari jarraiki nindakon, mutil-jantzi bati hel eginez, chapel xehatuaren phorroskak ereman-arazi baitzituen bere alderako amodiorik batere gabe eta bertze batez ordain-arazi baitzen.

- Erran nahi baldin badautazu, jauna, nork nauen fede gaixtoz gaizki salatu, erran naukon Charlus-ko Jaunari, horren ikasteko nago eta gezurtiaren ahalge-arazteko.

- Nork? eztakizua? Eztuzua erran duzuna gogoan atxikitzen? Uste duzua gauza horietaz gaztiatzeko zerbitzua bademataten jendeak eztirela segeretua atxik dezatan galdatzetik hasten? Uste duzua ere emana dutan hitza janen dutala?

- Jauna, erran dezatazun ezin da? galdegin nuen, Charlus-ko Jaunaz nori mintzatua ahal nindakon neure baitan (enuen ehor hatzeman) bilatuz.

- Salatzaleari segeretua hitzeman dutala eztuzu entzun, erran zautan mintzo idor batean. Ikusten dut solas okaztagarrien gostuari baderatxikozula hisitze debaldekoena. Ukan behar zinuke bederen azken solasaldi batez baliatzeko eta osoki jeus ezten zerbait erranez mintzatzeko adimendua.

- Jauna, ihardetsi nuen urruntzean, laido egiten dautazu, ahalik gabe niz aldi bat baino gehiagotan ene adina duzunaz geroz, partida ezta berdin; bertzalde eztezautzut sinets-arazten ahal, jeus erran eztutala zin egina dautzut.

- Beraz gezurra diot! egin zuen doinu izigarri batean, eta halako jauzia eginez nun nitarik bi urratsetan aurkitu baitzen.

- Bairatu zituzte.

Orduan mintzo ezti, amultsu, gogo-ilundu batekin, zati guzien artean gelditu gabe joiten diren sinfonia hetan bezala, eta *scherzo* garaziadun, maitagarri, ametsetako bat jarraikitzen zaienean lehen zatiko ortzi ukhaldier: "Hala izan daiteke, erran zautan. Zuzenez, errepikatzen den solas bat bekan da egia. Zure hutsa da, eskainiak nauzkitzun ene ikusteko aldiez ez baliaturik, eztautazu eman, konfienxia sortzen duten elhe garbi egun orotakoez, trahitzale bezala itxuratzen zinduen elhearen kontrako begiragailu bakar eta hoberena. Zer nahi den, solasak, egia ala gezurra, bere lana egina du. Emana dautan iduripenetik enindaike orai jalgi. Eztut ere maite duenak ontsa gaztigatzen duela erraiten ahal, ezen ontsa gaztigatu zitut, baina etzitut gehiago maite." Hitz horiek bazerratzan batean, berriz jartzera bortxatua ninduen eta xilintxa joa zuen. Mutil-jantzi bat sartu zen: "Ekharrazu edatera, eta karrosa-motza atela dezaten erreezu." Erran nuen enintzala egarri, ontsa beranta zela eta bertzela ere banuela karrosa. "Ordaindua dukete eta gibelera igorria, erran zautan. Atela-arazten dut etxera lagun zaitzaten… Berantegi dela beldur bazira… hemen gambara bat emanen hal nautzun…" Erran nuen ama khexatuko zela. "Ha! ba, egia ala gezurra, solasak bere lana egina du. Ene adixkidantza apur bat aitzinatuegia goizegi loratua zen; eta Balbec-en poesiako moldean aiphatuak zinituen sagarrondo hek bezala, eztu lehenbiziko horma bati ihardoki ahal ukan." Charlus-ko Jaunaren adixkidantza hondatua izan ezpaliz, etzuen alta bertzela egin ahal ukanen, samurtuak ginela erraiten zautan batean, jarr-arazten ninduenaz geroz, edatera emaiten, etzan nindadin galdegiten eta etxera lagun-araziko ninduela. Iduri zen ere ene uzteko eta bera bakarrik izaiteko orduak lotsatzen zuela, haren koinata eta gusi Guermantes-ko Andereak, zuela oren bat, sendi zuela iduritua zizatan beldur apur bat antsiatu harekin, apur bat oraino egoitera bortxatu nahi ukana ninduenean, enetako gostu mota iraupen gabeko ber batekin, minuta baten luza-arazteko indar berarekin.

- Zorigaitzez, egin zuen berriz, eztut hondatua denaren berriz lora-arazteko indarrik. Ene adixkidantza zuretako hila da. Deusek eztezake phitz-araz. Apur bat Victor-Hugoren Booz bezala niz:

Alargun niz, alargun, eta gaua nitan erortzen ari.

Zeharkatu nuen berriz harekin saloin berdaila. Erran naukon, mentura osoan, zenbat ederra aurkitzen nuen. "Eztea hala? ihardetsi zautan. Behar da bada zerbait maitatu. Zureriak Bagard-enak dira. Aski gixako dena, ikusten duzu, Beauvais-ko alki eta bazter-mahiendako eginak direla da. Ohartzen zira, horien marrazki aphaingarri bera dutela. Hori horrela den bi egoitza baizik etzen gehiago, Louvre-a eta Hinnisdal-go Jaunaren etxea. Baina erran gabe doa, karrika huntan bizitzera jin nahi ukan dutan bezain laster, Chimay hotel zahar bat gertatu da nehork ehoiz ikusia etzuena hunara *enetako* baizik ethorri eztenaz geroz. Ororen buruan, ontsa da. Hobeki izan laiteke behar bada, baina ezta gaizki. Eztea hala, gauza pollitak badira, Poloniako errege 'ta Angeleterrako errege, Mignard-ek eginik. Baina zer diotzut, nik bezain ontsa badakizu, saloin huntan igurikatu duzunaz geroz. Ez? Ha! Saloin urdinean ezarri zituzkete bada, erran zuen ala ene ez jakin nahiaren aldera ozarreriazko doinu batekin, ala bere baitako nagusitasun batez eta nun igurika-arazia ninduten ez galdeginik. Oizu, gabinet huntan, badira Madama Elizabeth-ek, Lamballe-ko prinzesak eta Erreginak erabili xapel guziak. Hori etzaizu ohargarri, eztuzula ikusten iduri duzu. Edertasun mota hau gehiago maite baduzu, huna Turner-en ortzadar bat dirdiratzen hasten dena bi Rembrandt hauen artean, baketzeko seinalez. Entzuten duzu: Beethoven batzen zako." Eta alabaina entzuten ziren *Sinfonia pastorala*-ko hirurgarren zatiko lehen notaldeak, "ortziaren ondotik bozkarioa", gutarik ez urrun, lehen estaian dudarik gabe, musikari batzuek joiten ari. Galdegin nuen xintxoki zein ustegabeko gertaldiz zen hori joiten eta musikariak nor ziren. "Ha bada! ezta jakina. Ezta nehoiz jakina. Musikari ezin ikusi batzu dira. Pollit da, eztea hala, erran zautan doinu arinki ozar batekin eta bizkitartean Zuanen eragina eta doinua apur bat gogoratzen zuenarekin. Baina futitzen zira arraina sagar batez bezala. Nahi duzu etxera sartu, Bethoven-en aldera eta enera errespetuz huts egitekotan. Bademazkizu zuhauren kontrako jujamendua eta kondenamendua", gaineratu zuen itxura amultsu trixte batekin, ene joaiteko ordua jin zenean. Desenkusatuko nauzu ezpazitut atherano laguntzen, eginara onek egitera bortxatuko ninduten bezala, erran zautan. Berriz zure ikusteko gutiziatua ez izanez, zurekin bortz minuta gehiago egoiteko axola guti dut. Baina akhitua niz eta badut zer egin." Bizkitartean, aroa eder zela ohartuz: "He bada! bai, karrosa hartuko dut. Ilargixuri miragarria da, zu lagundu eta ikustera joanen bainiz. Nola! bizarraren mozten eztakizu, hirian auhaltzen ziren arrats batez ere ile batzu uzten dituzu, erran zautan bidarra bi erhi hala erraiteko otandu batzuen artean hartuz, ephe batez ihardukirik, ile mozle baten erhiak bezala ene beharrietarano igan baitziren. Ha! goxagarri lizateke "ilargixuri urdin" horri beha egoitea Oihanean zu bezalako norbaitekin", erran zautan bapateko eztitasun batekin eta nahigabetarik bezala, gero, itxura trixterik: "Gixakoa baitzira hala ere, nor nahi baino gehiago hala izan ahal zindaike, gaineratu zuen eni soingaina aita baten moldean hunkituz. Lehenago, ontsa guti ohargarri aurkitzen zindutan." Oraino hala aurkitzen ninduela gogatu

beharko nuen. Aski nuen, doi-doia zuela oren erdi bat, zer errabiarekin mintzatua zizatan orhoitzea. Hala ere banuen ordu hartan zintzo zelako iduripena, zuen bihotz onak garhaituko zuela nik izanara minberatasun eta urguluz abantzu erotua bezala hartzen nuen izanara. Karrosa aitzinean ginuen eta solasaldia luzatzen zuen oraino. "Goazen, egin zuen bapatez, igan zaite; bortz minuten buruan zure etxean izanen gira. Eta gauon bat erranen dautzut gure adixkidantza hautsiko duena eta behin betiko. Hobe da, sekulako elgar utzi behar dugunaz geroz, musikan egin dezagun, notalde betegin batean." Sekula elgar ikusiko ezkinuelako erran ospetsu horiek izan arren, zin eginen nuen Charlus-ko Jauna, arestian ez jendetasunekin ari izanik nahigabetua eta pena egina zautalako beldurrean, etzela aldi batez oraino berriz ene ikusteaz gaitzitua izanen. Enuen huts egiten, ezen ephe baten buruan erran zuen: "Hea bada! huna nun beharrena ahatzi dutan. Zure amatxi anderearen orhoitzapenez, zuretako jos-arazia dut Sévigné-ko Anderearen argitaldi ohargarri bat. Horra elgarr-ikuste hau azkena izaitetik debekatuko duena. Gauza batzunak bekan direla egun batez garbitzen erranez konsolatu behar da. Behazu zenbat iraun duen Vienako Kongresoak."

- Baina zu desarrañatu gabe bila-araz nezake, erran nuen gogo onez.

- Nahi duzua ixildu, xoxoa, ihardetsi zuen haserrerekin, eta nik onhartua izaitea (eztut erraiten segurki, gambara mutil batek baitauzkitzu behar bada liburuak emanen) gauza guti bezala dadukazulako itxura irriegingarria ez ukan.

Bere baitaratu zen: "Etzitut hitz horietan utzi nahi. Gaizki joiten duenik ez; betiereko ixilaren aitzinean, borzkarren gradoko notaldea!" Iduri zuen samurtzeko hitz samin batzuen ondotik berahala itzultzeaz bere zainendako zela beldur. "Eztuzu Oihanerano jin nahi", erran zautan doinu ez galdekari baina baiezko batean, eta iduritu zizatanaz, ez eskaini nahi etzautalakotz, baina bere alderako amodioak eza ukan zezan beldur zelakotz. "Ha bada horra, erran zautan luzatuz oraino, Whistler-ek dion bezala, burjesak etxera sartzen diren ordua da (neure alderako amodiotik bildu nahi ninduen behar bada) eta so egiten hasi behar dena. Baina eztakizu Whistler nor den ere." Solasaldia aldatu nuen eta galdegin naukon Iena-ko prinzesa adimenduna zenez. Charlus-ko Jaunak gelditu ninduen, eta ezagutzen naukon doinu erdeinariena hartzen zuela:

Ha! jauna, aieru badagiozu hartan ikustekorik ezer eztutan izendegi mail bati. Bada behar bada arixtokrazia bat Tahitiarren artean, baina ezagutzen eztutala aithor dut. Erran duzun izenak, bitxi da, duela zenbait egun ene beharrietan joa du bizkitartean. Guastalla-ko duke gaztea aitzineratua izan zizatan onhartzera jautsiko nintzanez galdegiten zautaten. Galdeak ustegabetu ninduen, Guastalla-ko dukeak ezpaitu eni aitzineratua izaiteko beharrik batere, ene gusia delako eta betidanik ezagutzen ninduelako arrazoinez; Parme-ko prinzesaren semea da, eta ahaide biziki ontsa ikasi bezala, urthatsez eni bere eginbiden egitera jitea nehoiz eztu huts egiten. Baina, berriak hartu eta, etziren ene ahaideaz ari, baina gogoa eratxikitzen dautzun anderesaren semeaz. Izen hortako prinzesarik ezpaita, uste ukan dut Iena-ko zubiaren azpian etzaten den erromes zenbaitez ari zirela eta bitxiki Iena-ko prinzesa titulua hartua zuen batez, Batignolles-etako Pantera eta Alzeiruko Erregea erraiten den bezala. Baina ez, jende aberats bat zen erakustaldi batean haren muble biziki

eder batzu miretsiak bainituen eta jabearen izenaren gainean baitute ez falsuak izaiteko abantaila. Delako Guastalla-ko dukeaz den bezainbatean, ene segeratariaren diru tratularia zatekeen, diruak hainbat gauza emaiten du. Baina ez, Emperadorea da, omen, jende horier titulu preseski ezin hartu baten emaiten jostatu. Boterearen lekukotasuna da behar bada, edo jakingabearen, edo maltzurtasunaren, oroz gainetik aurkitzen dut bere nahigabean zuzenkontra jabetzale horier joko biziki gaixto bat egina dauela. Baina estautzuket azkenean hortaz guziaz argitasunik eman, ene jakitatea Saint-Germain bazter-hirian gelditzen da han, Courvoisier eta Gallardon guzien artean, aurkituko baitituzu, hara sarr-arrazle zenbaiten edireitera heltzen bazira, espesuki Balzac-etik jalgi zaharreria batzu eta jostatuko zituztenak. Naturalki horrek guziak ezer ikustekorik eztu Guermantes-ko prinzesaren ospearekin, baina, ni eta ene "Idek-hadi" gabe, hunen egoitza helgaitza da.

- Zinez biziki ederra da, jauna, Guermantes-ko prinzesaren hotela.

- Ho! ezta biziki ederrea. Den gauza ederrena da; prinzesaren ondotik bizkitartean.

- Guermantes-ko prinzesa Guermantes-ko dukesa baino goragoa da?

- Ho! ezta batere berdin. (Ohartzeko da munduko jendek asmamen doi bat baduten orduko, koronatzen dituztela edo aurdikitzen, bere adixkidantzen eta nahasmenduen araura, iduriz izanara azkarrena eta hobekienik jarria zutenak.) Guermantes-ko dukesa (ez "Oriane" deituz nahi zuen behar bada haren eta ene artean urruntasun gehiago ezarri) ezin goxoago da, asmu ahal dukezuna baino biziki gorago. Baina azkenean, bere gusiarekin ezin erkidatua. Hau zuzen-zuzena Halles-etako jendek Metternich-eko prinzesa nor zen asma dezaketena da. Baina Metternich-sak uste zuen Wagner abia-arazia zuela berak Victor Manuel ezagutzen zuelakotz. Guermantes-ko prinzesak, edo izaitekotz hunen amak, egiazkoa ezagutu du. Eta hori ospe handia da, emazte horren edertasun ezin sinetsia aiphatu gabe. Eta Esther-en baratzeak baizik ezpalire ere!

- Eztaitezke ikus?

- Baina ez, gomitatua izan behar lizateke, eta arteratzen ezpaniz *ehor* ezta behin ere gomitatzen.

Baina berehala, eman ondoan, amuzki horren eskaintza gibelatuz, eskua luzatu zautan, ene etxera helduak baiginen.

- Ene egitekoa bururatua da, jauna; elhe zenbait gaineratzen dauzkot bakarrik. Bertze batek erranen dautzu behar bada egun batez bere adixkidantza nik egina dutan bezala. Behazun hau erakaspenetako balia zaizula. Ahatz etzazula. Adixkidantza bat beti balios da. Bizian egin eztaitekeena bakartasunean, galda eztaitezkeen gauza batzu badirelakotz, edo ezin egin, ez nahi ukan, ez ikas, bertze batzuekin egin daiteke, eta Balzac-en elhaberrian bezala hamahirur izan behar gabe, edo *Hirur Musketari*-etan bezala laur. Goraintzi.

Akhitua zaitekeen eta ilargi xuriaren ikusteko ideia utzia zukeen, galdegin baitzautan karrosazainari etxera sartzeko erran nezon. Berehala bapateko mugimendu bat egin zuen errana zuzendu nahi ukan balu bezala. Baina manua jadanik emana nuen eta, gehiago ez berantzeko, athean joitera joan nintzan, berriz gogoan ukan gabe Charlus-ko Jaunari erran behar nauzkola, Alemaniako

emperadoreaz, Botha jeneralaz, ixtorio arestian hain gogo-hertsagarriak, baina haren ongi-ethorri ustegabeko eta harrigarriak nitarik ontsa urrun aira-araziak zituenak.

Sartzean ikusi nuen ene bulego gainean Françoise-ren mutil-jantzi gazteak bere adixkidetarik bati izkiribatua zuen eskutitz bat eta ahatzia. Ama etxean etzenaz geroztik, etzuen edozein ausarkeriek izitzen; ogendunago izan nintzan estalirik gabe, ene aitzinean zabaldua zagon eskutitzaren irakurtzekoaren ukaiteaz :

"Adichquide ta gusi maitia,

Agian osagarria beti ontsa doac eta berdin duc familia tchipi gousiarendako eta bereçiki Josep ene semabitchi gaçtearendaco espaitiat oraino uqhan haren eçagutzeko atsegina eta ene semabitchi beçala ciek guçiak baino hautetsiago baitçatak, bihotzeco erliqa horiec ere badie bere erhautsa, escuac estitçagula heien ondar sacratuetarat eman. Bertzenaz adichquide ta gusi maitia norc erraiten daic bihar hi ta hire maçte maitia Maria ene gusia etçiretela bibiac ambilduac içanen itsasoaren çolarano marignela masta haundiaren puntan esteqan beçela, bici hau espaituc nigerretaco haran bapaicic. Adichquide maitia eran behar deiat ene egiteco nagusia hire ustegabeco segur nuc, esin gehiago maite diatan puesia dela oray, demborac baa igaro behar dic. Beraç adichquide maitia ehiçala sobera harritua içan ezpanuc oraïno hire açken gutunari ihardetzia, barcamendu faltaç utzaq jiten ahançtea. Badaquiqan beçela, Madamaren ama zendua duc sofriqario ecin erranetan aski aqhitu baitie hiru mirikuetarano iqhusitic. Haren ehorçegouna egoun ederra içan duc Jaunaren eçagutça guciaq jinac baitçitian metan minichtro andana becelaere. Hilerrirat yoaiteco bi oren baino guehiago eman diaguc horrec guçier begui haundi batçu ideqaracico baitçaiçquie, ezpaitie segourki hoinbertce eguinen Michusarendaco. Ene bicia eçtuc beraç hasperen luçebat baiçic içanen. Içigarriqui jostatçen nuc motocicletan berriqui iqhasia baitiat. Çer eran çineçaquete adichqide maitiac horla jiten baninç tarrapatan Ecorretarat. Guermantesco Duquesarequin banabilac, gure herri ignorantetan isena ere entçoun estoucan jende batçou. Beraç atseguin handiarequin tiat egorrico Racine, Victor Hugoren, Chenedolléren, Alfred de Museten paia haoutatouequilaco liburuac, ceren nahi niquek arguia eman deiatan herria nahitez erahiltcerano deramacan ignoranciatic sendatou. Estiat erraitecoric guehiago jeus iqhusten ta igortçen desteat pelican piaja louce bateç ounhatouac becela ene agourr hounac eta hire emaçte ta ene sematchiari ta hire arreba Roseri. Ailiç esteçaten hartaç erran: ta rosac estic bici içan arroseq bici diena baisic, Victor Hugoc erran diqan becela, Arversen sonneta, Alfredde Musset jeinu haundi horiec guciac hortaco hilaraci baitiçtie sutegiko garretan Jeanna d'Arc becela. Lasterrartio hire ondoco hitça, harçquic ene mousouac anaia batenac beçela Perigot Josep."

Ezezagun zerbait itxuratzen daukun bizi orok, desegiteko den azken lilluramendu batek erakharriak gira. Charlus-ko Jaunak erranak zauztan gauza ainitzek azote ukhaldi azkar bat emana zaukoten ene idurimenari eta, huni ahatz-araziz zenbat Guermantes-ko dukesak nahigabean utzia zuen (jenden izenez herrienez bezala da), Oriane-ren andere gusiaren gana bidatua zuen. Gainera,

Charlus-ko Jaunak eninduen arte batez munduko jenden idurimenezko balioaz eta molde bereziez enganatu bera enganatzen zelakotz baizik. Eta hori behar bada ezer egiten etzuelakotz, ez idazten, ez margotzen, ez ere jeus irakurtzen ara serios eta barnatu batean. Baina, mail andana batez munduko jendeak baino gorago, hetarik eta haien ikustetik baldin bazuen bere solasetako gaia hartzen, etzen hortakotz haien ganik aditua. Edergile bezala mintzatuz, gehien-gehienik munduko jenden xoragarritasun gezurrezkoa zezakeen agerr-araz; baina bakarrik edergilendako, haien aldera eginen ahalko baitzuen ipharr-orkatzek Ezkimoendako badagiten jokoa: ihizi balios horrek haiendako atheratzen ditu, desertuko harroka batzuetan, hek ezin aurkhi ez balia zezazketen liken eta goroldio batzu, baina ipharr-orkatzak egotsirik, Ipharburuko jendendako janari lixerigarri bat bilakatzen direnak.

Horri gaineratuko dut Charlus-ko Jaunak munduaz bazegitzan margazki horiek bizi ainitz bazutela, zituen herra abre 'ta adixkidantza debozionezkoen nahasteaz - herrak oroz gainetik gizon gazte batzuen kontra, debozionea bereziki emazte batzuek sustatua.

Hauen artean, Guermantes-ko prinzesa Charlus-ko Jaunaz tronu gorenean ezarria baldin bazen, haren gusia bizi zen "Aladin-en palazio ezin hurranduaz" erranak zituen elhe mixteriozkoak eztira aski ene baldiduraren argitzeko, gomitatua izan gabe hara joanen nintzan egoitza batetik haiza-arazi nahiko ninduen norbaitek muntatu trufa-joko gaixto baten beldurraz berehala jarraikiaren, noiz ere, dukesaren etxean ene auhariaren ondotik nunbait han bi ilabeteren buruan eta hau Cannes-en zelarik, itxurak ohigabeko jeusez abisatua eninduan eskutitz estalgi bat idekirik, karta batean hitz hauk irakurri bainituen: "Guermantes-ko prinzesa, Bavierako dukesa sortua, etxean izanen da ***-ean." Egia da, Guermantes-ko prinzesaren etxera gomitatua izaitea etzen behar bada, munduko ikuspegitik, dukesaren etxean auhaltzea baino gauza nekeagoa, eta heraldikan nuen jakitate ahulak ikasia zautan printze titulua eztela dukekoa baino gorago. Banion gero neure baitan munduko emazte baten adimendua eztaitekeela izan haren motakidetarik Charlus-ko Jaunak zion bezain berdintasunik gabea. Baina ene idurimenak, Elstir bezala zabaleko itxurapen emaiten ari bertze moldez bazituzkeen fisikako ezagutzak gogoan hartu gabe, erakusten zautan ez nik banakiena baina berak ikusten zuena; ikusten zuena, erran nahi da izenak erakusten zaukona. Bada, dukesa ezagutzen enuenean ere, Guermantes izenak prinzesa titulua aitzinean, inguruneko gauzek, hunkitzen duen matematikako edo ederlaneko "seinaleak" barnatuki aldatu duten nota edo margoa edo zenbakia bezala, zerbait osoki bertzelakoa gogoratua zautan beti. Titulu horrekin Luis XIII eta XIV-garrenaren aroko Orhoitzapenetan aurkitzen da gehienik; eta Guermantes-ko prinzesaren hotela itxuratzen nuen Longueville-ko dukesa edo Condé handia guti edo aski han zabilana bezala, haien han izaiteak behin ere han sar nindadin ontsa itxuri gutikoa egiten baitzuen.

Handitze artifizialetan aiphatuko ditutan neure baitako ikuspegi guzier datxikeena izan arren, gauzazko egia bat gelditzen da hala ere izaite horietan guzietan, eta ondorioz horien arteko ezperdintasun zenbait.

Eta nola lizateke bertzela? Harekin gabiltzan gizaldea eta gure ametsekin hain guti egite duena, Orhoitzapenetan, jende ohargarrien eskutitzetan erakutsia ikusi

dugun eta ezagutzeko gutizia ukan dugun hura bera da bizkitartean. Harekin auhaldu giren agure gutienik ohargarria, 70-ko gerlazko liburu batean, Frédéric-Charles printzeari haren eskutitz handia bihotz-hunkidurarekin irakurri duguna da. Auhaltzean aspertzen da idurimenak han huts egiten duelakotz, eta liburu batekin jostatzen, hartan gurekin delakotz. Baina jende berak dira aiphu. Ederlanak hain ontsa gerizatu zituen Pompadour-ko Anderea ezagutu ahal ukaitea maite ginuke, eta haren ondoan oraiko Egerienean bezainbat asper gintazke, hauen gana berriz itzultera ezpaigaitezke delibera hain dira bierartekoak. Ezperdintasun horiek badiraute hala ere. Jendeak eztira nehoiz osoki batzu bertzeak bezalakoak, gure aldera egiteko duten arak, erran laiteke, adixkidantza berdinean, ezperdintasun batzu salatzen dituela, ororen buruan, ordaina bademateneak. Montmorency-ko Anderea ezagutu nuelarik, eni gauza gozagaitz batzuen erraitea maite ukan zuen, baina zerbitzu baten beharretan banintzan, haren ukaiteko emaiten zuen, eragintasunekin, zuen indar guzia, ezer gupidetsi gabe. Bertze norbaitek aldiz, Guermantes-ko Andereak bezala, nehoiz etzautan penarik egin nahiko, etzuen nitaz atsegin emaiten ahal zautana baizik erraiten, betetzen ninduen Guermantes-tarren moraleko bizimodu aberatsa bazegiten amultsutasun guziez, haina, hortarik hara ezteus bat galdegina ukan baldin banaukon, eni horren ardiets-arazteko etzuen urrats bat eginen, nor beretako beribil bat, gambara-mutil bat baden, baina bestako antolamenduan ekharria ezten sagarno baso bat ezin ukana den jauregietan bezala. Egiazko adixkidea zein zen enetako, Montmenrency-ko Anderea, ene gaitzitzeko hain zorionean eta zerbitzu emaiteko beti prest, ala Guermantes-ko Anderea, eginen zizatan den gutieneko atsekabeaz oinazetan eta eni baliagarri izaiteko den indar gutienaren egiteko ezinean? Bertzalde, bazioten Guermantes-ko Anderea etzela ezteuzkeriez baizik mintzo, eta haren andere gusia izpiritu bierartekoenarekin, gauza beti ohargarriez. Izpiritu moldeak hain dira bereziak, hain batzu bertzen kontrakoak, ez bakarrik literaturan, baina munduan, nun ezpaitira bakarrik Baudelaire eta Mérimée elgar gutiesteko dretxoa badutenak. Berezitasun horiek badagite, jende guzien baitan, behako, mintzaldi, egintzazko sistima bat, hain berdinki arautua, hain garratza, nun haien aitzinean girenean iduri baitzaiku gainerateko guzia baino gorago dela. Guermantes-ko Anderearen baitan, elheak, theorema bat bezala haren izpiritu motaren ondorioak, erranak izan zaitezkeen bakarrak iduritzen zizaztan. Eta, ororen buruan, haren aburuko nintzan, erraiten zautanean Montmorency-ko Anderea zozoa eta izpiritua hartzen etzituen gauza guzietara idekia zuela, edo, haren gaixtakeria baten ikastean, dukesak erraiten zautanean: "Hori duzu emazte on bat deitzen, mustro bat deritzotana da." Baina gure aitzinean denaren tirania hori, girisailuaren argiak duen ageri hori argi-haste ja urrundua orhoitzapen xoil bat bezala histen baitu, itsabasten ziren Guermantes-ko Anderetik urrun nintzanean, eta bertze andere batek, ene hein berean jarriz eta dukesa gutarik biziki gorago zela jujatuz, erraiten zautanean: "Oriane ororen buruan ezta jeusetaz axolatzen, ez eta nehorez", eta ere (Guermantes-ko Anderearen aitzinean ezin sinetsia iduriko zena hain zion berak goraki kontrakoa): "Oriane handi-ustea da." Mathematika batek ere ezpaigitu uzten Arpajon-go Anderearen eta

Montpensier-koaren biltzera gai bereko zenbaki batzuetan, zein zizatan bertzea baino gorago iduritzen galdegin balizata ihardesteko ezinean izanen nintzan.

Bada, Guermantes-ko prinzesaren saloineko berezitasunen artean, ohikienik aiphatua zena zatiz prinzesaren jaotze erregetiarrari zor zen berezkuntza bat zen, eta oroz gainetik printzearen aitzin-gogamen arixtokratiken idorkeria abantzu zaharkitua (bertzela ene aitzinean duke 'ta dukesak hetaz trufatzea huts egina etzuten aitzin-gogamenak) eta, erran gabe doa, itxuragabekoagoa oraino aurki-arazi behar baitzautan gizon hark gomitatua izan nindezan, etzituelarik goientasunak eta dukeak baizik khondutan hartzen eta auhari bakoitzean kalapita sortzen zuelarik mahian ukana etzuelakotz Luis XIV-garrenaren demboran dretxoz ukanen zuen lekua, leku hori, ixtorio eta ethorkietan zuen jakitate ezin handiagoari esker, ezagutzen zuen bakarra baitzen. Hortakotz, munduko jende ainitzek duke 'ta dukesaren abantailetan emaiten zituzten hek bere gusietarik berezten zituzten ezperdintasunak. "Duke 'ta dukesa biziki modernoago dira, biziki adimendunago, eztira, bertzeak bezala, bakarrik kartierren zenbataz axolatzen, haien saloina hirur ehun urtez bere gusiarenaren aitzinean da" ohiko erranaldi batzu ziren, eta horietaz orhoitzeak orai gomitatzeko kartari so egitean ikharatzen baininduen, enganatzale batek igorria zautalako zori biziki gehiago emaiten baitzaukoten.

Oraino Guermantes-ko duke 'ta dukesa ezpalire Cannes-en izan, haien ganik entseatu ahalko nintzan ukana nuen gomita zinezkoa zenez jakitera. Nuen duda hori ezta ere batere, ephe batez hoilatua nintzan bezala, munduko gizon batek ukanen etzuen sendimendu bat eta ondorioz idazle batek, hortarik kampo munduko jenden kastakoa baliz ere, ontsa "ez alderdikari" izaiteko eta jende mota bakoitzaren ezperdinki ixuratzeko eman behar zukeena. Berriki aurkitu dut, alabaina, Orhoitzapenetako liburu goxagarri batean, gomiteko prinzesareren kartak hetarik iragan-arazten ninduen duda berdintsu batzuen emaitea. "Georges eta ni (edo Hély eta ni, egiaztatzeko eztut liburua eskuan) hain azkarki xifritzen ginen Delessert Anderearen saloinean onhartuak izaiteko, nun gomit bat haren ganik ukan eta, uste ukan baiginuen zuhur zela, bakoitza bere aldetik, ezkinela ilhar zenbaitez bairaturik izanak segurtatzea." Bada, ixtorio errailea ezta Haussonville kondeaz bertzerik (Broglie-ko dukearen alaba ezkondu zuen hura), eta bertze gizon gaztea "bere aldetik", enganio baten jostagailua izan eztenez segurtatzera doana, Georges edo Hély izendatzen den araura, Haussonville Jaunaren adixkide minetarik bata edo bertzea, Harcourt-eko Jauna edo Chalais-ko printzea.

Guermantes-ko prinzesaren etxeko arratsaldia izan behar zen egunean, ikasi nuen dukea eta dukesa bezperan Parisera itzuliak zirela eta goizean haien ikustera joaitea deliberatu. Baina, goizik jalgiak izanik, etziren oraino sartuak. Igurikatu nuen lehenik karrosaren jitea goaitaleku ona iduritu zizatan barne ttipi batetik. Egiaz ene behatokia biziki gaizki hautatua nuen, handik doi-doia berexten bainuen gure korroila, baina bertze batzu ikusi nituen, horrek, enetako baliagarri izan gabe, ephe batez libertitu baininduen. Eztira bakarrik Venezian ukaiten margolariak eratxiki dituzten aldi berean etxe andana baterako ikuspegi horietarik, baina berdin ontsa ere Parisen. Eztut Venezia uztegabetarik erraiten. Auzoalde behartu horiek dituzte Parisko auzoalde behartu batzuek gogoratzen, goizean, iguzkiak margo gorraxta

bizienak, gorri argienak emaiten dezteen bere khebide gora zabalduekin; baratze oso batek du etxen gainean loratzen, eta leinuru hain aldakorretan nun iduri baitu, hiriaren gainean landatua, Delft eta Haarlem-eko tulipa maitale baten baratzea. Bertzela ere korroila berean bi aldetako leihoekilako etxen hurbiltasun ezin handiagoak egiten du berina bakoitzatik han kozinersa bat lurrera so ameskerian dagon kadrea, han urrunago nexkato gazte bat bere ilen orraztatzera uzten dena, erdi-ilunbean doi-doia ageri den sorgin aurpegiarekilako atso batez; horrela korroila bakoitzak badagi etxeko auzoarendako, bere arteaz harrabotsa ezabatuz, jestu ixilak ikustera utziz leihoen zerraduraz berinapean ezarria den laurkantoin luze batean, ehun margazki metatuekilako erakustaldia. Eiki, Guermantes-ko hoteletik etziren ikuspegi mota berak, baina ohargarriak hala ere, oroz gainetik emana nintzan gune izkinkatu bitxitik eta soa jeusek trabatzen etzuenetik urrunean, aitzinean ziren eremu guti ageriak biziki maldan izanez, Silistriako prinzesaren eta Plassac-eko markestsaren hotelak egiten zituen munoetarano, Guermantes-ko dukesaren gusi biziki noble batzu eta ezagutzen enituenak. Hotel hortarano (Bréquigny-ko Jaun haien aitarena zen), eraikuntza zati guti gora batzu baizik etzen, molde ezperdinenetara aldekatuak, ikuspena hautsi gabe, bere orraze zeharkatuez, urruntasuna handitzen baitzuten. Frécourt-eko markesak bere karrosak han ezartzen zituen aterbeko dorrexka teila gorriekilakoa punta gorago batean gelditzen zen, baina hain mehea nun ezpaitzuen jeus gordetzen, eta gogoratzen zituen mendietako zolan, bakartuak, goititzen diren Suizako eraikuntza zahar pollit hek. Begiak han gelditzen ziren gune ez argi eta kontrako aldetara zoazen horiek guziek gutarik karrika eta harresi andana batez berezia izan baliz baino urrunago agerr-arazten zuten Plassac-eko Anderearen hotela, egiazki aski hurbila baina Alpetako eskualde bat bezala lilluraz urrundua. Haren leiho zabal laur-kantoinekoak, iguzkiaz dirdiran harroka-krixtailezko orsto batzu iduri, etxe-garbitzeko idekiak zaudenean, ukaiten zen, estaia guzietan ezin ontsa berexiak ziren baina tapizak joiten zituzten mutil-jantzier begiaz jarrikitzen, Turner-en edo Elstir-en margazki-eskualde batean, Saint-Gothard-eko goratasun ezperdin batzuetan, karrosa handian doan bidaiari edo mendi-gidari baten ikustean den atsegin bera. Baina jarria nintzan ikuspegi hortarik, Guermantes-ko Jaunaren edo Anderearen sartzen ez ikustea irriskatuko nuen, hala nola nun, arratsaldean ene goaitaren berriz hartzeko libro izan nintzanean, mailalde gainera joan bainintzan bakarrik, athe-handiaren idekitzea ezpaitzaitekeen handik ikusi gabea izan, eta mailaldean nintzan goaitan jarri, nahiz han etziren ageri, hainbat lilluragarri bere mutil-jantzi urruntasunaz ttipi-ttipituekin garbitzen ari, Bréquigny-ko hoteleko edertasun Alpetakoak. Mailaldean igurikatze horrek bada ukan behar zituen enetako ondorio hain gotorrak eta eskualde bat agerrarazi behar zautaten, ez Turner-en arakoa baina moralekoa, hain handia, nun hobe baita ephe zenbaitez horren ixtorioaren gibelatzea, aitzinean emanez lehenik sartuak izan zirenean Guermantes-tarrer egin nauen ikustaldiarena.

Duke bakarrak ninduen hartu bete liburutegian. Hara sartzen ari nintzanean, ile zuri-zuri batzuekilako gizon ttipi bat jalgi zen, itxuraz behartua, Combray-ko notariak eta aitatxiren adixkide batzuek zituztena bezalako lephoko beltz ttipi batekin, baina herabeagoa iduri eta, eni agur handi batzu igorriz, ni sartua izan

baino lehen ehoiz jautsi nahi ukan etzuena. Liburutegitik dukeak oihukatu zaukon hartu enuen zerbait, eta bertzeak ihardetsi harresiari igorri agur berri batzuekin, dukeak ezpaitzezakeen ikus, baina halere gelditu gabe errepikatuak, zurekin telefonan solasean dauden jenden irriño debaldekoak bezala; bazuen mintzo mehe bat, eta berriz agurtu ninduen negozio-gizon baten xumetasunarekin. Eta Combray-ko negozio-gizon bat izan zaitekeen bertzela ere, hain zuen hango jende ttipien, agure lañoen itxura probinziarra.

- Oriane sarri ikusiko duzu, erran zautan dukeak sartua izan nintzanean. Zuanek sarri jin behar baitu hari Malte-ko Ordenako monerez egin duen lan bateko entseu batzuen ekhartzera eta, gaizkiago dena, monera horien bi alderdiak hartan ezarr-arazi dituen argazki baten, Orianek nahiago izan du lehenik jantzi, auhal-ordurano harekin egon ahal izaiteko. Gauzez jadanik eragozpenean gira nun ezar ez jakiterano eta galdez nago argazki hori nun sarraraziko dugun. Baina badut emazte bat amultsuegia, plazer egitea sobera maite duena. Uste ukan du gixako zela Zuani galdegitea Rhodes-en ediren dituen Ordenako nagusi horiek guziak elgarren ondoan ikusi ahal ukaitea. Ezen Malte erraiten nautzun, Rhodes da, baina Jerusalemeko Jondoni-Johaneren Ordena bera. Ororen buruan ezta hortaz axolatzen Zuan egiten delakotz baizik. Gure familia ixtorio hortan guzian biziki sartua da; oraino gaurregun ere, ezagutzen duzun ene anaia Malte-ko Ordenako kargudun gorenetarik bat da. Baina hortaz guziaz Oriane-ri ni mintzatu banindako eninduen entzunen ere. Aldiz, aski izan da Zuanen ikhertzek Templariez (erlisione bateko jenden errabia bertzerenaz lan egiteko ezin sinetsia da) eremana ukan dezaten Rhodes-ko Zaldun, Templarien ondokoen ixtoriora, Orianek berehala zaldun horien buruak ikusi nahi ukan ditzan. Biziki mutiko ttipiak ziren Lusignandarren, Kipriz-ko erregen ondoan, hetarik zuzenean jausten baigira. Baina orai arteo Zuan ezta hetaz axolatu, Orianek eztu beraz Lusignandarrez jeus ikasi nahi."

Enaukon berehala dukeari erran ahal ukan zertako jina nintzan. Alabaina, andere ahaide edo adixkide batzu, hala nola Silistrie-ko Anderea eta Montrose-ko dukesa, ethorri ziren dukesari ikustaldi baten egitera, eta hura ez aurkituz, egon ziren ephe batez dukearekin. Andere horietan lehenbizikoak (Silistrie-ko prinzesa), lañoki jantzia, idorra baina itxuraz amultsua, bazadukan kana bat eskuan. Zauritua edo hebaindua izan zadin beldur izan nintzan lehenik. Biziki zalu zen aldiz. Trixtezia ainitzekin mintzatu zen dukearen gusi batez - ez Guermantes aldetik, baina distiratuagotik oraino ahal bazen - haren osagarria, zenbait dembora hartan biziki hunkia, bapatez gaizkitua baitzen. Baina ageri zen dukeak, gusiaren zoriaz urrikitzen zen eta "Gaizo Mama! hain da mutiko ona" errepikatzen zuen batean, ezagubide hobea emaiten zuela. Alabaina han izan behar zuen auhariak jostatzen zuen, Guermantes-ko prinzesaren etxeko arratsaldiak etzuen aspertzen, baina oroz gainetik goizeko oren batean, emaztearekin, joan behar zuen gau-aphairu handi eta dantzaldi beztitu batera, hortako prest-presta baitziren harendako Luis XI-garren arako jantzi bat eta Isabeau Baviera-koareneko bat dukesarendako. Eta dukeak etzuen nahi libertimendu horietan guzietan Osmond-eko Amanien onaren oinazeaz durduzatua izan. Bertze bi andere kana eskuan, Plassac-eko Anderea eta Tresmes-

ko Anderea, biak Bréquigny-ko kondearen alabak, ethorri ziren gero Basin-i ikustaldi egitera eta erran zuten Mama gusiaren izanarak etzuela esperanzarik uzten. Soingainak goititu ondoan eta solasez aldatzeko, dukeak galdegin zauen arratsean Marie-Gilbert-en etxera bazoazenez. Ezetz ihardetsi zuten, azken ezinbertzean zen Amanien-en izanararen gatik, eta dukea zoan auhariko desmezua emana zuten ere, erna baitzaukoten hartako gomitak nor ziren, Thédodose erregeren anaia, Maria-Concepción infanta, eta bertze. Osmond-eko markesa haiendako Basin-endako baino ahaide gutiago hurbila izanez, haien "ihesgoa" bere eginararendako halako gaizki bat iduritu zizakon, eta guti maitagarri agertu zen. Beraz, nahiz Bréquigny-ko hoteleko heguietarik jautsiak dukesaren ikusteko (edo izaitekotz hari bere gusiaren eritasuneko izanara asaldagarriaren eta bilkura mundutarrekin ezin akometuaren iragartzeko), etziren luzaz egon, eta, bere makila alpinixtenarekin, Walpurge eta Dorothée-k (bi ahizpen izenak horiek ziren) hartu zuten berriz bere bizkarrerateko bide zuta. Kana horiek, hain usuak Saint-Germain bazter-hiri batean, zertako ziren Guermantes-tarrer galdegitea etzata nehoiz gogoratu. Behar bada, parropia guzia bere lurraldea bezala edukiz eta fiakren hartzea ez maite ukanez, ibilaldi luze batzu egiten zituzketen, hetako hezur haustura zahar zenbaitek, izari gabe ihizin ibiltzeak eta usu dakartzan zaldizko erortzer zor zizaienak, edo xoilki ezker ur hegiko eta jauregi zaharretako hezetik zethotzen errematisimer, kana beharrezkoa egiten baitzauen. Etziren behar bada, bere auzoaldean, hoin itzuli urrunekoaren egitera abiatuak, eta, bere baratzera (dukesarenetik guti urrun) jautsirik bakarrik bere kompotetako behar ziren fruituen biltzera, heldu ziren, etxera sartu baino lehen, Guermantes-ko Andereari gauon erraitera etzoazilarik alta haren etxera mahats-aixtur edo urtatzeko baten ekhartzerano.

Dukeak hunkia iduritu zuen ni haien etxera jinik itzuliak ziren egun berean. Baina begitartea ilundu zizakon errana ukan naukonean haien gusiak zinez gomitatua ninduenez haren emazteari galdatzera heldu nintzala. Guermantes-ko Jaun-Anderek emaitea maite etzuten zerbitzu hetarik bat hunkia nuen. Dukeak erran zautan berantegi zela, prinzesak gomitik igorria ezpalinbazatan, baten eskatzen ari iduri ukanen zuela, gusiek jadanik bat ezetsia zaukotela, aldi batez, eta etzuela gehiago nahi, ez hurran ez urrundik, haien gomit zerrendetan "sudurra sartzen" zutela iduri ukan, azkenik etzakiela hura eta haren emaztea, hirian auhaltzen baitziren, etzirenez berehala etxera sartuko, orduan prinzesaran arratsaldira ez joanak izaiteko desenkusa hoberena Parisera itzuliak zirela hari gordetzea zela, hori izan ezpaliz, segurki, aldiz horren jakin-araztera lehiatuko zirela nitaz hari hitz bat edo telefonaldi bat igorriz, eta segurki berantegi, ezen prinzesaren lixtak zer nahi ere hetsiak ziren. "Etzira harekin gaizki", erran zautan itxura aierutsu batekin, Guermantes-tarrak azken nahasmenduen ez jakiteaz beti beldur baitziren eta baketzearen bilatzea haien bizkarrean egin zadin. Azkenik dukeak baitzuen guti gixako iduri ukan zezaketen delibero guzien bere gain hartzeko ohidura: "Oizu, haurra, erran zautan bapatez, ideia ordu berean gogoratzen balizako bezala, badut ere hortaz mintzatua zizatala Orianeri ez batere erraiteko gutizia. Zein amultsua den badakizu, gainera izigarri maite zitu, bere gusiaren etxera igorri nahi luke, erran nezokeen guziaren gatik ere, eta uhal-ondoan akhitua bada, ezta desenkusarik

izanen, arratsaldira joan beharko du. Ez, segurki, jeus eztaukot erranen. Gainera sarri ikusiko duzu. Hitz bat ez hortaz, othoi. Arratsaldira joitea deliberatzen baduzu, eztautzut erraite beharrik zurekin iragaiteaz zer bozkarioa ukanen dugun." Gizatasunezko arrazoinak sobera sakratuak dira haren aitzinean emaiten diren batek haien aitzinean amor eman eztezantzat, zintzoak izan daiten ala ez; ene gomitaren eta Guermantes-ko Andereak ukan zezakeen akhiduraren artean ephe batez zalantzan nintzala enuen iduri ukan nahi, eta hitzeman nuen ene ikustaldiaren helburua enuela aiphatuko, Guermantes-ko Jaunak jokatua zautan komedia ttipiaz enganatua izan ezpaninz bezain zuzen. Dukeari galdegin naukon Stermaria-ko prinzesa Anderea ikus nezan zoririk banuela uste zuenez.

- Baina ez, erran zautan ezagule baten itxurarekin; diozun izena badakit glubetako urtekarietan ikusten baitut, ezta batere Gilbert-en etxera doan mundu mota. Ezituzu hor ezin gehiago behar bezalakoak eta biziki aspergarriak diren jendeak baizik ikusiko, iraungiak zirela uste zen tituluekilako dukesa batzu eta gertaldiko athera direnak, embaxadore guziak, Cobourg, atzerriko Goientasun ainitz, baina Stermaria-ko itzalik etzazula igurika. Gilbert eri lizateke, zure usteaz beraz. Oizu, margolaritza maite baituzu, erakutsi behar dautzut ene gusiari erosi daukotan margazki ezin ederrago bat, zatiz Elstir batzuekin aldizkatzez, ezpaiginituen segurki maite. Philippe de Champagne batendako saldu dautate, baina nik oraino handiago dela uste dut. Nahi duzua ene gogoa jakin? Velazquez bat dela uste dut eta aro ederrenekoa, erran zautan dukeak begietara so eginez, ala ene iduripenaren jakiteko, ala haren handitzeko. Mutil jantzi bat sartu zen.

- Andere dukesak duke Jaunari galdegiten dauko duke Jaunak Zuan hartu nahi duenez, Andere dukesa ezpaita oraino prest.

- Zuan Jauna sarr-araz ezazu, erran zuen dukeak sakel-orenean ikusirik zenbait minuta bazituela oraino janztera joan baino lehen. Naturalki ene emaztea, jiteko errana baitauko, ezta prest. Eztu balio Marie-Gilbert-en arratsaldiaz mintzatzea Zuanen aitzinean, erran zautan dukeak. Gilbert-ek biziki maite du, uste baitu Berri-ko dukearen sasikumea dela. (Hori gabe, dakizula! ene gusia odol ukhaldiz erortzen delarik judu bat ehun metretan ikusten duen orduko.) Zuanek gogoan hartu behar ukanen zuen, bertze nehork baino gehiago, jende horiekin lokarri oro hautsi behar zuela; bada, kontrako osoan, badatxizka solas dolugarri batzu.

Dukeak berriz deitu zuen mutil-jantzia Osmond gusiaren etxera igorria zuena itzulia zenez jakiteko. Alabaina dukearen xedea hau zen: gusia hil-urran zela uste baitzuen arrazoinekin, berriak harr-arazi nahi zituen heriotzea baino lehen, erran nahi da bortxazko dolua baino. Amanien oraino bizi zelako segurtamen ofizialaz behin gerizaturik, bere auharira laster eginen zuen, printzearen arratsaldira, han Luis XI-garrenean izanen zen bestara eta ohaide batekin hitzarraldi jostakinena bazuenera, eta berriak etzituen gehiago biharamunerano galdeginen, atseginak bururatuak izanen zirenean. Orduan dolua hartuko zen, arratsean hila baldin bazen. "Ez, duke jauna, ezta oraino itzulia. - Alajinkua! nehoiz eztira hemen gauzak azken orenean baizik egiten", erran zuen dukeak Amanienek arratseko egunkari bateko

"leher egiteko" eta hari bestaren hutsegin-arazteko astia ukana zuela gogoan. *Le Temps* galdegin-arazi zuen, hartan deus etzen.

Zuan enuen aspaldidanik ikusia, ephe batez egon nintzan hea lehenago sudupekoa mozten zuenez, eta ileak etzituenez zut, zerbait aldatua aurkitzen bainaukon; hori zen bakarrik alabaina azkarki "aldatua" zelakotz, biziki eri baitzen, eta eritasunak aurpegian egiten ditu aldakuntza batzu bizarraren ekhartzen hasteak eta lekuz ile-marraren aldatzeak bezain barnatuak. (Zuanen eritasuna haren ama eremana zuen eta haren adinean zuzen hartua zuena zen. Gure biziak egiazki, ondoretasunaz, sorginak zinez balire bezain beteak dira mixteriozko seinalez, xarma egotziez. Eta gizaldearendako orotara biziko iraupen berezi bat baden bezala, bada ere bereziki familiendako, erran nahi da, familietan, elgarren egitea dutenendako.) Zuan jantzia zen, haren emaztea bezala, izana zenarekin orai zena lotzen zuen aphaintasun batekin. Soineko luze belzuri argi batean tinkan, haren kaizu gora balioan ezartzen zuena, lerden, eskularru xuri beltzez marratuekin, bazuen xapel gora hautsaran molde zabaldu batekoa Delion-ek etzuena gehiago harendako, Sagan-go printzearendako, Charlus-ko Jaunarendako, Modène-ko markesarendako, Charles Haas Jaunarendako eta Turenne-ko Luis kondearendako baizik egiten. Ustegabetua izan nintzan ene agurrari ihardesteko haren irriño goxagarri eta esku tinkaldi gixakoaz, ezpainuen uste hoinbertze dembora iraganik berehala ezagutuko ninduela; erran naukon ene ustegabea; irri karkailetan hartu zuen, sumindura apur batekin, eta berriz esku tinkatze batekin, ezagutzen eninduela uste ukaitea haren burumunen osasunaz edo adixkidantzaren zintzotasunaz dudatzea izan baliz bezala. Eta hori bera zen bizkitartean; eninduen ezagutu, luzaz berantago jakin dut, minuta zenbaiten buruan baizik, ene izenaren erraiten entzutean. Baina haren begitartean, solasetan, erran zauztan gauzetan aldakuntza batek ere etzuen salatu Guermantes-ko Jaunaren hitz batek egin-arazi zaukon aurkintza, hainbat zen bere buruaren jabe 'ta bizi mundutarreko jokoan segurtatua. Bazuen bertzela ere eginaretan eta bere urratsetan, janzteko gauzetan ere, Guermantes-tarren motako berezitasuna zen zintzotasun hura. Horrela zen glubetako gizon zaharrak ezagutu gabe egina zautan agurra ez munduko gizon osoki formalixtaren agur hotz idorra, baina agur bat dena amultsutasun egiazko, garazia zinezko batez betea, Guermantes-ko dukesak zituenak bezalakoa behazunez (aurkitzen bazinituen zuk hura agurtu ene baino lehen zuri lehenik irriño egiterano bazoana), Saint-Germain bazter-hiriko anderek ohi zituzten agur ohargabekoen kontramoldera. Horrela ere haren xapela, itzaltzen ari zen bere ohiduraren arabera ondoan lurrean ezarri zuena, larru muskerrez horratua zen, ohian egiten etzen gauza, baina (zionaz) biziki gutiago zikingarri zelakotz, eta egiazki (erraiten etzuena) biziki aphainago.

- Oizu, Charles, zu ezagule handi bat zirena, zerbaiten ikustera zaugi; gero, haurrak, ephe batez elgarrekin uzteko baimena galdeginen dautzuet janztera joanen nizan bitartean; bertzela ere uste dut Orianek eztuela beranduko." Eta Zuani erakutsi zaukon bere "Velazquez"-a. "Baina hori ezagutzen dutala iduritzen zata", egin zuen Zuanek mintzatzea jadanik oinaze bat den jende erien ihakinarekin.

- Ba, erran zuen dukeak ezaguleak bere miresmenaren erraiteko emaiten zuen berantak seriostua.

- Ha! alabaina, orhoitzen niz.

- Zer uste duzu dela?

- He bada, Gilbert-en etxean baldin bazen, zure *arbasoetarik* bat dateke, erran zuen Zuanek ez ezagutzea ikustate gabe 'ta irrigarri aurkituko zuen, baina hartaz, gostu onez, "jostatuz" baizik mintzatu nahi etzuen handitasun baten alderako irkaitz eta adei nahasketa batekin.

- Bana segurki, erran zuen gogorki dukeak. Boson da, Guermantes-etako nik dakita zeingarrena. Baina hortaz, futitzen niz. Enizala ene gusia bezain feodala badakizu. Rigaud-en izena erraiten entzuna dut, Mignard-ena, Velazquez-ena ere! erran zuen dukeak Zuanen gainean ezarriz bai inkisidore baten bai burrego baten soa, aldi berean haren gogoan irakurtzeko eta ihardespenean eragin ukaiteko nahian. Azkenean, bururatu zuen (ezen, gutiziatzen zuen aburu baten artifizialki eman-araztera ekhartzen zenean, bazuen, ephe zenbaiten buruan, zintzoki eman izana zela sinesteko dohaina), hea, lausengurik ez. Erran ditutan nagusi handietarik dela uste duzua?

- Eeeez, erran zuen Zuanek.

- Bana orduan, nik eztut azkenean jeus ezagutzen, margazki txar hori norena den deliberatzea eztago eni. Baina zuk, ezagulea, gauza hortan nagusi bat, noren gain emaiten duzu?

Zuan ephe batez zalantzan egon zen ageriki ezin itsusiagoa aurkitzen zuen margazkiaren aitzinean: "Gaizki-nahiaren!" zaukon irri eginez dukeari ihardetsi, hunek ezpaitzuen errabiazko mugimendu bat atxiki ahal kan. Jabaldua izan zenean: "Ontsa gixakoak zirezte bi-biak, igurika ezazue ephe batez Oriane, banoa ene marluza buztanaren ezartzera. Ene andreari jakin-araziko daukot biak haren aiduru zaudetela."

Ephe batez Dreyfus aferaz solastatu nintzan Zuanekin eta galdegin naukon Guermantes guziak Dreyfusen kontrakoak zirela nolaz gertatzen zen. "Lehenik jende horiek guziak juduen etsai direlakotz", ihardetsi zuen Zuanek ontsa bazakielarik alta berak ikasiaz zenbait etzirela hala, baina, aburu sutsu bat duten jende guziek bezala, uste ukan nahiago baitzuen, jende batzu etzirela aburu berekoak argitzeko, aitzinetik asmatu arrazoin bat bazutela, haren kontza ezer egin etzaitekeen aitzin-gogamen bat, eztabadatzera utziko zatezkeen arrazoin batzu baino lehen. Bertzela ere, bere biziko muga goizegira heldurik, setiatzen den ihizi akhitu bat bezala, hertsatze bortitz horiek hastiatzen zituen eta bere aiten arditegira sartzen ari zen.

- Guermantes-ko printzeaz, erran nuen, egia da, juduen etsai zela errana zautaten.

- Ho! hori, eztut aiphatzen ere. Aitzindari zenean, hortzetako errabia izigarri batekin, judua zen lekuko horzkin bakarraren konsultatzera joan baino lehen oinazetan egoitea hautatzerano da, eta berantago han suak hartuak zuen bere jauregiko hegal bat erretzera utzi du, pompak galdegin beharko baitziren Rothschild-tarrena zen auzoko jauregian.

- Etzirea suertez gaur haren etxera joaiten?

- Ba, ihardetsi zautan, nahiz ontsa akhitua sendi niz. Baina posta-mezu bat igorria dauta zerbait erran behar zautala jakin-arazteko. Haren ukaiteko egun hautan sobera eri izanen nizala senditzen dut, horrek guziak inharrosiko nau, nahiago dut hortaz berehala libratua izan.

- Baina Guermantes-ko dukea ezta juduen etsai.

- Badakusazu bada baietz, Dreyfus-en kontrakoa denaz geroz, ihardetsi zautan Zuanek, arrazoin aitzineko ondorio bat emaiten zuela ohartu gabe. Horrek eztu egiten gizon hori - zer diot! duke hori - nahigabeturik enizala penatua uste zuen Mignard, ni dakita zer hori ez miretsia ukanik.

- Baina azkenean, egin nuen berriz Dreyfus aferara itzuliz, dukesa, hura adimenduna da.

- Bai, xoragarria da. Ene ustez, gainera, gehiago ere hala izana da oraino Laumes-etako prinzesa deitzen zenean. Haren izpirituak zerbait izkinkatu hartua du, andere handi gaztearen baitan hori guzia xamurrago zen. Baina azkenean, guti edo aski gazte, gizon ala emazte, zer nahi duzu, jende horiek oro bertze arraza batekoak dira, ezta feodalitateko mila urte odolean kalterik gabe ukaiten. Alabaina hori guzia haien aburuetan jeusetako eztela uste dute.

- Baina Saint-Loup-eko Robert alta Dreyfustiarra da!

- Oi hainbat hobe, are gehiago haren ama biziki kontrakoa dela baitakizu. Hala zela errana zautaten, baina enintzan segur. Atsegin handi dut. Enau ustegabetzen, biziki adimenduna da. Ainitz da, hori.

Dreyfusixmak Zuan xintxotasun ezin sinetsi batekoa egina zuen eta haren ikusteko moldeari emana zauzkon olde bat, zentzu onetik baztertze bat lehenago Odette-rekin haren ezkontzak eginak zituenak ere baino ohargarriagoak; lerrotik jauste berri hori hobeki deituko zen goititze bat eta harendako etzen ohoragarri baizik, hura bezalakoak handik ethorriak ziren eta arixtokrazian ibiltzeak bera handik baztertua zuen bidera itzul-arazten zuenaz geroz. Baina Zuan, hoin gogo-argia, aitzinekoetarik ukana zuenari esker, munduko jender oraino gordea zizaien egia baten ikustea emana zizakon orduan hain zuzen, itsumen irriegingarri batekoa agertzen zen bizkitartean. Bere miresmen eta gutiespen guziak erizpide berri baten, dreyfusixmaren phoroguan ezartzen zituen. Bontemps Anderearen antidreyfusixmak hura zozoa zela aurki-araz zezon etzen, bera ezkondu zenean adimenduna zela aurkitua ukan balu baino ustegabegarriago. Etzen ere biziki larri uhain berriak haren baitan hunki zitzan politikako aburuak eta Clemenceau diruko gizon, Angeleterraren espiun bezala (Guermantes-tarren inguruneko arrazoingabekeria bat zen) salatua zuela ahatz-araz zezon, baziolarik orai beti konzienzia bat, burdinazko gizon bat, Cornély bat bezala edukia zuela. "Ez, nehoiz eztautzut bertzerik erran. Nahasten duzu." Baina, politikako aburuak baino haratago joanez, uhainak Zuanen baitan literaturako aburuak aurdikitzen zituen eta haien erraiteko molderano. Barrès-ek antze oro galdua zuen, eta haren gaztaroko lanak ere ahulxkoak ziren, berriz doi-doia irakur zaitezkeen. "Entsea zaite, etzira bururano heltzen ahalko. Clemenceau-rekin zer ezperdintasuna! Eniz nihaur aphezen kontrakoa, baina, nola ohartzen den, haren ondoan, Barrès-ek hezurrik eztuela! Gizon bat biziki handia da Clemenceau aita. Zein ontsa dakien bere

hizkuntza!" Bertzela ere Dreyfus-en kontrakoak etziren erokeria horien kritikatzeko dretxoan izanen. Dreyfusixta izaitea ethorki juduaren ukaitetik argitzen zuten. Saniette bezalako katoliko elizatiar bat ere berriz auzi berritzearen alde baldin bazen, Verdurin Andereaz hertsatua zelakotz zen, hau erradikal amorratua baitzen. "Xanodun"-en kontra zen lehen-lehenik. Saniette gaixto baino zozoagoa zen eta etzakien Etxekandereak zer kaltea egiten zaukon. Horren kontra Brichot berdin Verdurin Anderearen adixkide 'ta "Patrie française" delakoan barne zela ihardesten baldin bazen, adimendunagoa zelakotz omen zen.

- Zenbait aldiz ikusten duzu? erran naukon Zuani Saint-Loup-ez mintzatuz.

- Ez, batere. Joan den egunean izkiriatu dauta Mouchy-ko dukeari eta bertze batzuer Jockey-an harendako bozka dezaten galdegiteko, han letra postan bezain errex iragan baita bertzela ere.

- Afera izan arren!

- Gaia ezta aiphatu. Erranen dautzut gainera, hortaz guziaz geroztik, eztutala leku hartan zangorik sartzen.

Guermantes-ko Juana sartu zen, eta berehala haren emaztea, prest-presta, gora eta miragarri zaia lastazkaz bazterkatua zuen satin gorrizko arropa batean. Iletan bazuen auztruka luma bat gorrindolez thindatua eta soingainetan gorri berez tulazko xarpa bat. "Muskerrez xapelaren horra-araztea zein ontsa den, erran zuen dukesak ohartzen etzizakon jeusik ezpaitzen. Bertzela ere, zutan Charles, guzia pollit da, soinean duzuna erraiten duzuna, irakurtzen duzuna eta badagizuna bezainbat." Zuan, bitartean, entzuten zuela iduri ukan gabe, dukesari beha zagon nagusi-lan margazki bati egina ukanen zuen bezala eta gero soaz bilaka ahoarekin "Brientxoa!" erran nahi zuen sino bat eginez. Guermantes-ko Andereak irri karkaila egin zuen. "Ene jantzia gustatzen zaizu, xoratua niz. Baina erran behar dut etzatala eni biziki gustatzen, jarraiki zuen itxura mutiri batekin. Jainkoa, janztea zein aspergarri den, atheratzea etxean egoitea hain maite lizatekeelarik!"

- Zer errubis miragarriak!

- Ha! ene Charles-ñoa, ezagule zirela ageri da bederen, etzira Monserfeuil abre hura bezala zinezkoak direnez galdatzen baitzautan. Dukesa-handiaren emaitza bat da. Ene gostuko lodixkoak dira, Bordele arnoko baso gainerano bete bat bezalatsu, baina ezarri ditut gaur Marie-Gilbert-en etxean dukesa-handia ikusiko baitugu, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak hitz horrek dukearena ezeztatzen zuela dudatu gabe.

- Zer da prinzesaren etxean? galdegin zuen Zuanek.

- Abantzu jeus ez, lehiatu zen ihardestera dukea Zuanen galdeak etzela gomitatua sinets-arazia baitzaukon.

- Baina nola, Basin? Erran nahi dut jaun-andereria handi eta ttipi guzia deitua dela. Sarraski bat izanen da, lehergarria. Pollit izanen dena, gaineratu zuen Zuani behatuz itxura beratz batekin, ortzia airean ezpada jauzten, mirazko baratzeak izanen dira. Han izana niz, duela ilabete bat, lilak lili ziren aroan, zein eder den ezin daiteke asma. Eta gero ur xirrixta, azkenean, Versailles da Pariseren erdian.

Zuan xorrotxegia zen ordu hartan Guermantes-ko Anderea "Guermantes izpirituaren" egiten ari zela ez ikusteko, eta ainitz gosta gabe, ezpaitzen gutiago

beteginki berak erran hitz batzuen errepikatzen baizik ari. Hala ere, jostakin izaiteko zuen xedea hartzen zuela dukesari erakusteko eta egiazki hala izana baliz bezala, irriño egin zuen itxura apur bat bortxatu batekin, emaiten zautala, zintzotasun gabeko mota berezi horrekin, lehenago senditua nuen eragozpen bera aitamen entzutean Vinteuil Jaunarekin ingurune batzuetako usteldurаz mintzatzen (biziki ontsa bazakitelarik Montjouvain-en zena ontsa handiagoa zela) edo xoilki Legrandin-en entzutean zozo batzuendako bere doinuan berexkuntza egiten, jende aberats edo aphain, baina leterarik gabeko batzuek baizik hartuko etzituztela bazakien hitz arin batzuen hautatzen.

- Hea, Oriane, zer diozu, erran zuen Guermantes-ko Jaunak. Marie zozoa? Guzia irakurria du, arrabita bezain musikaria da.

- Baina, Bazin gaixoa, haur sortu berri bat zira. Hori guzia izaiten ahal ezpaliz bezala eta doi bat zozoa! Zozoa azkarregi da gainera, ez nahasia da, Hesse-Darmstadt, Imperio-Saindu eta lolo. Haren ahozkatzeko moldeak berak zainetara emaiten data. Baina aithor dut bertzela xoxola xoragarri bat dela. Lehenik bere tronu alemanetik jautsia izaiteko ideia hori bakarrik jende xoil batekin ezkontzera jiteko. Egia da hau berak hautatu duela! Ha! baina egia da, erran zuen enegana itzuliz, eztuzu Gilbert ezagutzen! Ideia bat emanen dautzut: lehenago ohatzerano eritu da, Carnot Andereari karta bat ezarria naukolakotz… Baina, ene Charles-ñoa, erran zuen dukesak solasez aldatzeko, Carnot Andereari kartaren ixtorioak Guermantes-ko Jauna iduriz khexarazten zuela ikusiz, badakizu Rhodes-ko gure zaldunen margazkia eztuzula igorri, zuk eginik maite baitut eta haiekin ezagutza egiteko hainbat gura.

Dukea, bitartean, etzen geldi-geldia bere emazteari so egitetik gelditua:

- Oriane, behar laiteke bederen egia erran eta ez erdia jan. Erran behar da, zuzendu zuen Zuani mintzatuz, ordu hartan Angeleterrako embaxadoresak, biziki emazte ona zena, baina apur bat ilargian bizi baitzen eta huts mota horietan ohitua, ukan zuen Presidentarekin eta haren emaztearekin gure gomitatzeko ideia aski bitxia. Aski ustegabetuak izan gira, Oriane ere, are gehiago nun embaxadoresak gu bezalako jendeak aski ezagutzen baitzituen bilkura hoin bitxira ez gure gomitatzeko. Bazen minixtro bat ebatsia zuena, barkatzen dut bada, ezkinen aitzinetik abisatuak, zepoan hatzemanak ginen, eta aithortu behar da gainera jende horiek guziak biziki ontsa ikasiak izan direla. Bakarrik horrela jadanik aski zen. Guermantes-ko Andereak, ezpaitaut usu ene konsultatzeko ohorea egiten, uste ukan du aste hartan Elysée-an karta baten ezartzera joan behar zuela. Gilbert urrunxko joan da behar bada hortan gure izenaren gainean narrio bat bezalakoa ikusiz. Baina ezta ahatzi behar, politika bazterrera utzirik, Carnot Jauna, bere jokaldia bertzela biziki ontsa bazegiena, egun bakar batez guretarik hameka hil-arazi zituen iraultzako auzitegiko ide baten semabitxia zela.

- Beraz, Basin, zergatik zoaz aste oroz Chantilly-n auhaltzera? Aumale-ko dukea etzen gutiago iraultzako auzikide baten semabitxia, Carnot gizagaizo bat eta Philippe-Egalité gaizatzar itsusi bat zelako ezperdintasunarekin.

- Mozteaz desenkusatzen niz argazkia igorria dautzutala erraiteko, egin zuen Zuanek. Zergatik eztautzuten emana eztut hartzen.

- Eniz erdia baizik ustegabetzen, erran zuen dukesak. Ene sehiek eztautate egoki iduritzen zaiena baizik erraiten. Eztukete Jondoni-Joaneko ordenua maite. Eta jo zuen.

- Badakizu, Oriane, Chantilly-ra auhariz nidoanean, khartsutasunik gabe zela.

- Khartsutasunik gabe, baina gauazko athorrarekin, printzeak etzaten egoitea galdegiten bazauzun ere, bertzela bekan egiten zuena, oies beteginean, Orléans guziek bezala… Badakizua norekin auhaltzen giren Saint-Euverte-ko Anderearen etxean? galdegin zuen Guermantes-ko Andereak senarrari.

- Dazkizun gomitetarik hara, azken orduan gomitatua, Théodose erregeren anaia han izanen da.

Berri hortan dukesaren aurpegiak atsegina erakutsi zuen eta elhek asperra. "Ha! Jainkoa, printzeak oraino."

- Baina hori gixakoa da eta adimenduna, erran zuen Zuanek.

- Baina hala ere ez osoki, ihardetsi zuen dukesak, hitzen bila zabilala iduri bere gogamenari berritasun gehiagoren emaiteko. Ohartua zirea, printzen artean, gixakoenak eztirela osoki hala? Baina baietz, segurtatzen dautzut! Beti behar da baitezpada gauza guziez aburu bat ukan. Eta batere ezpaitute, bere biziko zati lehena gureak zer ditugun galdatzen eremaiten dute, eta bigarrena guri berriz haien zerbitzatzen. Baitezpada behar dute hau ontsa jokatua izan dela erran, hori gutiago ontsa izana dela. Guzia berdi-berdina da. Oizu, Théodose ttipi bigarren horrek (izenaz eniz orhoit) orkeztrako aire bat nola deitzen den galdegin dauta. Ihardetsi daukot, erran zuen dukesak begiak dirdiran eta bere ezpain eder gorriez irri karkailatuz: "Orkeztrako aire bat deitzen da." He bada! oro har, etzen kontent. Ha! ene Charles-ñoa, hasi zen berriz Guermantes-ko Anderea itxura langi batekin, zein aspergarri izan daitekeen hirian auhaltzea! Arrats batzu badira hil nahiago bailizateke! Egia da hiltzea berdin aspergarri datekeela behar bada, zer den jakina eztenaz geroz.

Lekaio bat agertu zen. Etxezainarekin estakuruak ukanak zituen ezkongai gaztea zen, dukesak, bere onezian, haien artean itxurazko bake bat ezarri ukana zuen arteo.

- Gaur eztituta Osmond-eko Jaun markesaren berriak hartu beharko? galdegin zuen.

- Baina ez, sekulakoan ez, bihar goiza baino lehen jeus ez! Eztut nahi gaur hemen egon zaiten ere. Haren mutil-jantziak, ezagutzen duzunak, zuri berri emaitera jitea aski luke eta gure bila joaiteko erraitera. Athera zaite, zoaz nahi duzun lekura, egizu besta, kampoan etzan zaite, baina etzitut hemen nahi bihar goiza baino lehen.

Neurrigabeko bozkario batek gainditu zuen mutil-jantziaren begitartea. Oren luze batzu iraganen ahalko zituen azkenean bere ezkongaiarekin, etxezainarekin ukana zuen kalapita berriaren ondotik dukesak gixakoki errana baitzaukon ez atheratzea hobe zela aharraldi berri batzuen baztertzeko. Arratsaldia azkenean libre ukanen zuela gogoan, zorion batean igerika zagon, dukesak ikusi eta hartu zuena. Bihotz hertsadura bat bezala senditu zuen eta alderdi guzietako hatzmin bat haren

jakinbagean, haren ganik gordez hartzen zen zorion hori ikusiz, hortaz sumindua zen eta jelos. "Ez, Basin, dagola hemen, aldiz, etxetik eztadila higi."

- Baina, Oriane, eztu horrek arrazoinik, zure jende guzia hor da, gainera aphaintzalea eta janzlea hor ukanen dituzu gure bestarako. Jeusetako eztaiteke balia, eta Mama-ren mutil-jantziarekin adixkide bakarra baita, mila aldiz nahiago dut hemendik urrun igorri.

- So egizu, Basin, utz nezazu, arratsaldian zerbait erran behar ukanen daukot hain zuzen, eztakit zein orenetan. Hemendik etzaitela minuta batez ere higi, erran zaukon mutil-jantzi etsituari.

Noiz nahi aharraldiak baldin baziren eta guti egoiten bazen dukesaren etxean, betiko gerla hori haren gain eman behar zen jendea lekuz ezin batere aldatua zen, baina etzen etxezaina; dudarik gabe lan handieneko, emaiteko nekagarriagoak ziren martirioetako, ukhaldika bururatzen diren liskarrendako, dukesak uzten zauzkon tresna phizuak; bertzela ere jokaldia bazegien hari utzia zizakolako aierurik ukan gabe. Sehiek bezala, dukesaren onezia miresten zuen; eta mutil-jantzi ohartuak heldu ziren, joan ondoan, usu Françoise-ren berrikustera dukesaren etxea Parisko hoberena izanen zela erranez, etxezaindegia izan ezpaliz. Dukesa etxezaindegiaz baliatzen zen luzaz apheztiarr alderdiaz, framazoneriaz, judu lanjerraz eta bertzez egin zen bezala. Mutil-jantzi bat sartu zen.

- Zergatik eztautate igan Zuan Jaunak ekharr-arazia duen paketa? Baina hain zuzen (Mama biziki eri dela badakizu, Charles), Jules, Osmond-eko markes Jaunaren berrien hartzera joana baitzen, itzulia dea?

- Orai berean badator, duke jauna. Ordu oroz Jaun markesa pausatuko delako igurikan daude.

- Ha! bizi da, egin zuen dukeak arintzeko hasperen batekin. Igurikan daude, igurikan daude! Ikurikakari zuhaur. Bizia badeno bada izpiritua, erran zaukun dukeak itxura alai batean. Jadanik hila eta ehortzia erakusten zautaten. Zortzi egunen buruko ni bano pizkorrago izanen da.

- Medikuek dute erran arratsa etzuela iraganen. Batek nahi zuen gauan itzuli. Jaun markesak hila izan behar luke; ezta olio kanfretuzko aiuta batzueri esker baizik bizi egon.

- Ixil zaite, zozo handia, oihukatu zuen dukeak haserre mukurruan. Hori guzia nok galdegiten dautzu? Errana zaizunean jeus eztuzu hartu.

- Ez eni, Jules-i.

- Ixilduko zirea? egin zuen orroaz dukeak, eta Zuanen gana itzuliz: Bizi dela zer zoriona! Apurka indarrak berriz hartuko ditu. Holako gaitzaldiaren ondotik bizi da. Hauteko gauza da jadanik. Eztaitek guzia aldi berean galda. Eztaiteke gozagaitz izan olio kanfretuzko aiutaño bat, erran zuen dukeak eskuak thorratuz. Bizi da, zer behar da gehiago? Iragan denetik iragan eta, ontsa eder da jadanik. Horrelako jitearen ukaitea gutiziatzeko da ere. Ha! eriak, guretako hartzen eztiren mainak hartzen dira haiendako. Bada goiz huntan saltsa biarnesean, miragarriki, aithor dut, erreki bat egin dautan koziner trapula bat, baina horren gatik hain zuzen, hainbat hartu dut nun urdailean baitut oraino. Hala ere eztira horren gatik ene berrien

hartzera jinen ene Amanien gaixoarendako bezala. Sobera ere hartzen da. Akhitzen dute. Behar da hats hartzera utzi. Hiltzen dute, gizon hori, beti haren etxera igorriz.

- He bada! erran zaukon dukesak bazoan mutil-jantziari; galdegina nuen igan zezaten Zuan Jaunak igorri dautan argazki estalgi handia.

- Andere dukesa, hain da handia nun ezpainakien athea iraganen zuenez. Sargunean utzia dugu. Andere dukesak nahi dua igan dezatan?

- He bada! ez, erran behar ukanen zizatan, baina hoin handia bada, sarri jaustean ikusiko dut.

- Ahatzi dut ere andere dukesari erraitea Molé Andere kondesak goizean hitz bat utzia zuela andere dukesarendako.

- Nola, goizean? erran zuen dukesak aire khexu batekin eta emazte hoin gazte batek etzuela goizean karta batzuen ezartzera ausartu behar aurkituz.

- Hamarrak hirian, andere dukesa.

- Zer nahi den, Oriane, badiozularik Mariak Gilberte-rekin ezkonduz ideia bitxi bat ukan duela, egin zuen berriz dukeak hastapeneko solasera itzuliz, zuk duzu ixtorioaren izkiriatzeko molde berezia. Ezkontza hortan norbait zozoa izana baldin bada, Gilbert izan da hain zuen Belgikako erregeren ahaide hoin hurbil bat ezkondua ukanik, gurea den Brabant izena zuzenkontra hartu duena. Hitz batez, Hesse-tarren odol berekoak gira eta abar gehienetik. Norberaz mintzatzea beti zozo da, erran zuen eni mintzatuz, baina azkenean ez bakarrik Darmstadt-en izan girenean, baina ere Cassel-en eta Hesse elektorala guzian, landgrabek beti nahi ukan daukute urratsa amultsuki utzi eta lehenbiziko lekua, abar gehienekoak girelakotz.

- Baina azkenean, Basin, eztautazu erranen bere herriko erreximendu guzien buru zen jende hori, Zuedako erregeren ezkongai egiten zena…

- Ho! Oriane, azkarregi da, badiduri eztakizuka Zuedako erregeren aitatxik Pauen lurra lantzen zuela, bederatzi ehun urtez geroztik Europa guzian lerro gorena ginadukalarik.

- Eztu horrek egiten karrikan erraiten baliz "Ori, horra Zuedako errege", jende guziak Kondordiako plazara laster egin lezakeela haren ikusteko, eta erraiten bada: "Horra Guermantes-ko Jauna", nehork eztakiela nor den.

- Horra arrazoin bat!

- Gainera, ezin dezaket har nolaz, Brabant-eko duke titulua Zuedako erret-familiara iragana denaz geroz, nahi ukaiten ahal duzun.

Mutil-jantzia sartu zen Molé kondesaren kartarekin, edo izaitekotz hunek kartatzat utzia zuenarekin. Orduan eskuan etzuelako estakuru, sakelatik atheraia zuen ukana zuen eskutitz bat, eta, barnekoa atxikiz, "Molé kondesa Anderea" izena bazadukan estalgiaren izkina plegatua zuen. Estalgia aski handia baitzen, urte hartan modan zen paper neurriaren araura, gertatzen zen eskuaz izkiriatu "karta" hark bazuela abantzu bietan ikustaldietako karta ohiko baten izaria.

- Hori da Molé Anderearen lañotasuna deritzotena, erran zuen dukesak irkaitzekin. Kartarik etzuela nahi dauku sinets-arazi eta berezitasuna erakutsi. Baina hori guzia ezagutzen dugu, eztea hala, ene Charles-ñoa, zaharxko gira eta aski bereziak guhaur izpirituaren ikasteko laur urtez geroztik munduratzen den andere ttipi baten ganik. Xoragarria da, baina badidurit eztuela hala ere izari aski mundua

hoin merkerik ustegabe dezakeela sinesteko estalgi bat kartatzat utziz eta goizeko hamarretan. Bere sagu amak erakutsiko dauko gauza mota hortan berak bezainbat badakiela.

Zuan etzen irri egin gabe egon ahal izan gogatzean dukesak, bertzela ere Molé Anderearen arrakastaz apur bat jelos baitzen, "Guermantes-tarren izpirituan" edirenen zuela ikusliarraren alderako ihardespen ozar zenbait.

- Brabant-eko duke tituluaz den bezainbatean, ehun aldiz errana dautzut, Oriane…, hasi zen berriz dukea, dukesak hitza moztu baitzaukon, entzun gabe.

- Baina ene Charles-ñoa, zure argazkiaren ikus gura nago.

- Ha! *extinctor draconis latrator Anubis*, erran zuen Zuanek.

- Bai, hain da pollit gauza hortaz errana dautazuna Beneziako Sant-Iurgeri gomparatuz. Baina eztut hartzen zer gatik *Anubis*.

- Nolakoa da Babal-en arbasoa dena? galdegin zuen Guermantes-ko Jaunak.

- Nahi zinuke haren boboila ikusi, erran zuen Guermantes-ko Andereak doinu idor batean hitz-joko hori gutiesten zuela erakusteko. Nahi nituzke guziak ikusi, gaineratu zuen.

- Oizu, Charles, jauts gaiten karrosa aitzinatua izan dadin artean, erran zuen dukeak, ene emazteak ezpaitauku bakea emanen zure argazkia ikusia ukanen eztueno. Gutiago ezin egonean niz egia erran, gaineratu zuen itxura askietsi batekin. Gizon bat eztia niz, ni, baina hil-araz ginezazke.

- Osoki zure aburuko niz, Basin, erran zuen dukesak, goazen sargunera, badakigu bederen zure gabinetera zertako jausten giren, ehoiz eztugularik aldiz jakinen Branbat-eko duketarik zergatik jausten giren.

- Ehun aldiz errepikatua dautzut nola titulua Hesse-ko etxean sartua zen, erran zuen dukeak (argazkiaren ikustera ginoazen bitartean eta Zuanek Combray-n ekhartzen zauztanak gogoan nituenean), Brabant baten ezkonzaz, 1241-ean, Thuringe 'ta Hesse-ko azken landgrabearekin, hala nola nun Hesse-ko printze titulua baita ere izaitekotz Branbat-eko etxean sartu, Brabant-eko dukearena Hesse-ko etxean baino lehen. Orhoitzen zira gainera gure gerlako oihua Brabant-eko dukena zela: "Limbourg irabazia duenari", Brabantarren harmak Guermantes-tarrenekin aldizkatuak ukan ditugun arteo, hortan gainera ogendun izanak girela uste baitut, eta Agaramuntarren behazuna ezta ene aburuaren alda-arazteko gai.

- Baina, ihardetsi zuen Guermantes-ko Andereak, Belgiarren erregek baitu irabazia… Gainera, Belgiako ondokoa Brabant-eko dukea deitzen da.

- Baina, gaixoa, diozunak eztu kolorerik eta errotik hutsean da. Badakizu nik bezain ontsa badirela nahikariazko titulu batzu beteginki irauten dutenak lurraldea zuzenkontrako jabe batzuez hartua baldin bada. Behazunez, Espainiako errege hain zuzen Brabant-eko duke emaiten da, hel eginez hortik gurea baino gutiago zaharra den jabego bati. Burgoñako duke dela dio, Sartaldeko eta Sortaldeko Indietako errege, Milan-go duke. Bada, ezta Burgoñaren, Indien, ez Brabanten jabe ni azken horren jabe nizan baino gehiago, ez eta Hesse-ko printzea den baino gehiago. Espainiako erregek eztu gutiago Jerusalemeko errege dela erraiten, Austriako emperadoreak ere, eta bat ez bertzea eztira Jerusalemeren jabe.

Ephe batez gelditu zen, Jerusalem izenak Zuan eragozpenean emana zukeela jenatua, "ari ziren aferen" gatik, baina etzuen lasterrago baizik jarraiki:

- Hor diozuna, orotaz erran dezakezu. Aumale-ko duke izanak gira, Frantziako etxera iragan den dukatea Joinville 'ta Chevreuse Albertekora bezain zuzenki. Eztugu titulu horietaz galdekatzerik egiten Noirmoutiers-ko markesarenaz baino gehiago, gurea izan baitzen eta biziki zuzen La Trémoïlle-ko etxearen ontasun berezia bilakatu, baina uzte batzu legezkoak direnetik eztator guziak hala direla. Behazunez, egin zuen enegana itzuliz, ene koinata andereak Agrigente-ko printze titulua badakar, Juana Erotik heldu zaukuna, La Trémoïlle-tarrer Tarente-ko printzearena bezala. Bada, Napoleonek eman dauko Tarente-o titulu hori bertzela tropetako biziki gizon ona izana zatekeen soldado bati, baina hortan emperadorea baliatu da Napoleon III-garrenak baino ere gutiago Montmorency-ko duke bat egin zuenean berea etzuen zerbaitez, Périgord horrek bederen amatzat Montmorency bat zuenaz geroz, Napoleon Lehenaren Tarente-ak etzuelarik aldiz Tarente-tik hala izan zadin Napoleonen nahia baizik. Eztu horrek Chaix Est-Ange-koa debekatu zure osaba Conde-ri aieru eginez, prokuradore imperialari galdegitetik Vincennes-ko izaketan izan zenez Montmorency-ko duke tituluaren biltzen.

- Entzunazu, Basin, Vincennes-ko izaketara zuri jarraikitzea baino hoberik eztut galdatzen, eta berdin Tarente-ra. Eta hain zuzen, ene Charles-ñoa, hori nautzun erran nahi Veneziako zure Sant-Iurgez mintzo zinenean, badugula, Basin ete biek, heldu den primaderaren iragaiteko xedea Italian eta Zitxilian. Gurekin jiten bazine, gogoari emazu nola bertzelakoa lizatekeen! Eniz bakarrik mintzo zure ikusteko bozkarioaz, baina asma ezazu, irabazte normandiarraz eta aro zaharreko orhoitzapenez ainitzetan errana dautazun guziarekin, asma ezazu horrelako bidaia bat zer bilaka laitekeen, zurekin eginik! Erran nahi da Basin-ek berak, zer diot, Gilbert-ek! balia lezaketela, sendi baitut Napoliko koronaren nahikarietarano eta gauza horiek guziek gogoa eratxik lezataketela, zuk argituak balire eliza erroman zahar batzuetan edo hastapeneko margolarietan bezalako herrixka gora jarri batzuetan. Baina zure argazkia ikusiko dugu. Estalgia ekhenazu, erran zaukon dukesak mutil-jantzi bati.

- Baina, Oriane, ez gaur! hori bihar ikusi duzu, othoiztu zuen dukeak jadanik behako harritu batzu igorriak baitzauztan argazkiaren neurrigabea ikusiz.

- Baina Charles-ekin horren ikusteak jostatzen nau, erran zuen dukesak irriño aldi berean alegiaz atsegin gose 'ta xorroxki gogatu batekin, ezen, Zuanekin gixako izaiteko zuen gutizian, argazki horren ikustean ukanen zuen atseginaz mintzo zen eri batek iranja baten jatean sendi duenaz bezala, edo aldi berean ihesaldi bat adixkide batzuekin antolatua balu eta bizi-idazle bati berarendako lausengari ziren gostu batzuez xehetasun emana balauko bezala.

- He bada, espesuki ikustera jinen zaizu, egin zuen dukeak, emazteak amor eman bahar ukan baitzaukon. Horren aitzinean hirur oren emamen dituzue, jostagarri baldin bazaizue, erran zuen irkaitzez. Baina neurri hortako jostagailua nun ezarriko duzu?

- Baina ene gambaran, begien aitzinean ukan nahi dut.

- Ha! nahi duzun bezainbat, zure gambaran bada, nehoiz ez ikusteko zoria badut, erran zuen dukeak, bere ezkont harremanetako izanara eskasaz hoin xoroki egiten zuen argitzeari gogoa eman gabe.

- He bada, hori arthoski deseginen duzu, manatu zaukon Guermantes-ko Andereak mutilari (gomendioak gehitzen zituen Zuanendako amultsutatsunez). Eztuzu estalgia andeatuko.

- Estalgia ere behar dugu errespetatu! erran zautan dukeak beharrira besoak zerura goitituz. Baina, Zuan, gaineratu zuen, ni senar gaizo ontsa laño bat baizik enizana, hortan miresten dutana, neurri hortako estalgi bat aurkitu ahal duzula da. Nun hatzeman duzu hori?

- Argazkigrabaduren etxeak ditu ainitzetan mota hortako igortzeak egiten. Baina oies bat da, ikusten baitut gainean izkiriatua: "Guermantes-ko dukesa", "Anderea" gabe.

- Barkatzen daukot, erran zuen ohargabean dukesak, alaitu zuen ideia batez bapatean hartua iduri, irriño arin bat gorde baitzuen, baina Zuanen gana itzuliz: He bada! Italiara gurekin jinen zirenez eztuzu erraiten?

- Anderea, uste dut bada ezin izanen dela.

- He bada, Montmorency-ko Andereak zori gehiago badu. Harekin izana zira Venezian eta Vicenze-en. Errana dauta zurekin ikusten direla hori gabe nehoiz ikusiko etziren gauzak, nehork ehoiz aiphatu eztituenak, gauza ezin sinetsiak erakutsi dauzkozula, eta gauza ezagunetan ere, xehetasun batzu hartu ahal dituela, zu gabe, hogei aldiz iraganen zituenak ehoiz ohartu gabe. Zinez gu baino fagoratuagoa izana da… Zuan Jaunaren argazki estalgi handia hartuko duzu, erran zaukon mutilari, eta, izkina ene partez plegaturik, gaur hamarrak eta erdietan, Molé Andere kondesaren etxera eremanen.

Zuan irriz karkailatu zen.

- Jakin nahi nuke hala ere, galdegin zaukon Guermantes-ko Andereak, nolaz, hamar ilabete aitzinetik, ezina dela jakiten ahal duzun.

- Dukesa maitea, nahi baduzu erranen dautzut, baina lehenik biziki ez ontsan nizala badakusazu.

- Ba, ene Charles-ñoa, eztuzula batere itxura ona aurkitzen dut, eniz batere zur larrantzeaz askietsia, baina eztautzut hori zortzi egunen buruko galdegiten. Hamar ilabetez bada arthatzeko astia, badakizu.

Ordu hartan mutil-jantzi bat jin zen karrosa aitzinatua zela erraitera. "Goazen, Oriane, zaldiz", erran zuen dukeak ephe bat baitzen ezin egonez putinka zagola, bera igurikan zauden zaldietarik bat izan baliz bezala.

- He bada, hitz batez Italiara jitea debekatuko dautzun arrazoina? galdekatu zuen dukesak gure ganik despeditzeko zutituz.

- Baina, adixkide gaixoa, ilabete andana izanen baita hila izanen nizala. Konsultatu ditutan medikuek diotenaz, dutan gaitzak urtearen buruko, eta orai berean eremaiten ahal nau, eztauta zer nahi den hirurzpalaur ilabete bizi baino gehiago utziko, eta oraino gehien-gehiena da, ihardetsi zuen Zuanek irriño batekin, mutil-jantziak sarguneko athe berinatua idekitzen zuen batean iragaitera dukesaren uzteko.

- Zer erraiten dautazu hor? egin zuen dukesak bere urratsean karrosara ephe batez geldituz eta begi eder urdin gogoilunduak baina dudaz beteak goitituz. Bere biziko lehen aldian hirian auhaltzera joaiteko bere karrosara igaiteko, eta hiltzera doan gizon bati urrikimenduaren erakusteko bi eginbide hoin ezperdinen artean jarria, etzuen ikustateztako legetan jakina zena erakuts zezakonik ezer ikusten eta, hautestea zeini eman ez jakinean, uste ukan zuen bigarren gertaldian etzuela sinesten egin behar zuela alegia, ordu hartan indar gutiago galdegiten zuen lehenbizikoari obeditzeko moldez, eta auziaren hausteko molde hoberena ezestea zela: "Jostatu nahi duzu?" erran zaukon Zuani.

- Gostu xoragarriko jostakeria lizateke, ihardetsi zuen irkaitzez Zuanek. Hori zertako erraiten dautzutan eztakit, ene eritasuna enautzun hunarano aiphatua. Baina galdegin baitautazu eta orai egun batetik bertzera hiltzen ahal bainiz… Baina oroz gainetik eztut nahi beranta har dezazuen, hirian auhaltzen zirezte, gaineratu zuen, baitzakien, bertzerendako, dituzten eginbide mundutarrak adixkide baten heriotzea baino lehen zirela, eta haien lekuan jartzen baitzen, jendetasunez. Baina dukesarenak hara zoan auhariak Zuanendako bere heriotzeak baino balio gutiago zuela nahasiki ikustera uzten zuen. Beraz, karrosara bere bideari jarraikitzean, soingainak beheititu zituen erranez: "Etzaitela auhari hortaz axola. Muntarik batere eztu!" Baina hitz horiek dukea omore gaixtoan ezarri zuten, egin baitzuen: "Hea, Oriane, etzaudela horrela kalakan eta Zuanekin zure zinkurinetan, ontsa badakizu alta Saint-Euverte-ko Anderea atxikia dela zortzi orenetan zuzen mahian jarriak izaiteari. Jakin behar da zer nahi duzun, horra bortz minuta zaldiak putinka daudela. Barkamendu galdatzen dautzut, Charles, erran zuen Zuanen gana itzuliz, baina zortziak hamar guti dira. Orianek beti beranta du, bortz minuta baino gehiago behar dugu Saint-Euverte-saren etxera joaiteko."

Guermantes-ko Anderea karrosara deliberatuki aitzinatu zen eta Zuani berriz azken goraintzi bat erran zaukon. "Badakizu, hortaz berriz mintzatuko gira, diozunaz hitzik eztut sinesten. Zozoki izitua izanen zituzte, barazkaltzera zaugi, nahi duzun egunean (Guermantes-ko Anderearendako dena beti barazkarietan garbiratzen zen), erranen dauztatzu zure eguna eta orena", eta zaia gorria goitituz oina mailean ezarri zuen. Karrosara sartzera zoan, noiz ere, oin hura ikusiz, dukeak egin baitzuen izitzeko mintzo batean: "Oriane, zeren egitera zindoan, dohakabea. Oinetako beltzak atxiki dituzu! Jantzi gorri batekin! Igan zaite lasterka oinetako gorrien ezartzera, edo, erran zaukon mutil jantziari, berehala errozu Andere dukesaren gambarazainari jauts ditzan Andere dukesaren oinetako gorriak."

- Baina, adixkidea, ihardetsi zuen eztiki dukesak, ikusiz Zuanek, enekin atheratzen ari baitzen baina karrosa gure aitzinean iragaitera utzi nahi ukana baitzuen, entzuna zuela, beranta dugu…

- Baina ez, asti guzia badugu. Ezta hamar guti baizik, eztitugu Monceau parkera joaiteko hamar minuta emanen. Eta gero azkenean, zer nahi duzu, zortziak eta erdi izan baliz ere, igurikatuko dute, etzaitezke joan zaia gorri batekin eta oinetako beltzekin. Bertzela ere ezkira azkenak izanen, Sassenage-ak han izanen dira, badakizu nehoiz eztirela bederatziak laurden guti baino lehen ethortzen.

Dukesa berriz igan zen bere gambarara.

- Hee, erran zaukun Guermantes-ko Jaunak, senar gaizoak, gutaz ontsa trufatzen dira, baina badute onik hala ere. Ni gabe, Oriane auhaltzera zoan oinetako beltzekin.

- Ezta itsusi, erran zuen Zuanek, eta oinetako beltzer ohartua nindeen, eninduten batere ofensatua.

- Eztautzut erraiten, ihardetsi zuen dukeak, baina zaiaren kolore beretik izan diten aphainago da. Eta gero, zaude gostuan, heldua baizik etzen izanen ohartuko baitzen eta ni nintzan oinetakoen bila joaitera bortxatua izanen. Bederatzietan auhalduko nintzan. Goriantzi, haurñoak, erran zuen gu eztiki gibel-araziz, zoazte Oriane jautsia izan dadin baino lehen. Ezta zuen bien ikustea maite eztuelakotz. Aldiz, zuen ikustea sobera maite baitu. Oraino hemen aurkitzen bazituzte, berriz solasean hasiko da, akhitua da jadanik, auharira hila ethorriko da. Eta gero aithortuko dautzuet gose hila nizala. Goizean treinatik jaustean biziki gaizki barazkaldu niz. Bazen bada saltsa biarnes madarikatu bat, baina hori izana gatik, eniz batere samur, ez batere, mahian jartzeaz. Zortziak bortz guti! Ha! emazteak! Bi-bier urdaileko mina emanen dauku. Uste den baino ontsa gutiago azkar da.

Dukea etzen batere emaztearen ez ontsez eta berarenez hiltzera zoan bati mintzazeaz eragozpenean, ezen lehenbizikoak, gehiago hunkitzen baitzuten, gotorragoak iduritzen zizazkon. Ikustatez eta harrokeriaz bakarrik zuen beraz, gu gixakoki baztertu ondoan, saheskara oihukatu mintzo azkar batekin, jadanik korroilan zen Zuani:

- Eta gero zu, etzaitela mekiduen zozokeriez joitera utz, ala debrua! Asto batzu dira. Zubi-Berria bezain azkar zira. Guziak ehortziko gituzu!

*